Lurralde Plan Partzialen bidez garatzen dira LAGak eta haien antolamendu-irizpideak zehazten dira LAGetan aurreikusitako Eremu Funtzional bakoitzerako.

Los Planes Territoriales Parciales desarrollan las DOT y concretan sus criterios de ordenación específicamente para cada una de las Áreas Funcionales.

IV.
LURRALDE PLAN SEKTORIALAK

Lurraldean eragina duten plan sektorialak 4/1990 Legean araututako Lurralde Plan Sektorialak izango dira, eta Eusko Jaurlaritzak edo Foru Aldundiek eskumena izango dute plan horiek formulatu eta onartzeko. Orobat, LAGen (edo LPPen) aurkakoak diren LPSetako zehaztapenak baliogabeak izango dira. Horrela, LAGak lehenesten dira, ondoren LPPak hartuko dira kontuan, eta, azkenik, LPSak.

IV.
LOS PLANES TERRITORIALES SECTORIALES

Los planes sectoriales con incidencia territorial constituirán los Planes Territoriales Sectoriales regulados en la Ley 4/1990, y podrán ser formulados y aprobados bien por el Gobierno Vasco o bien por las Diputaciones Forales. Serán nulas las determinaciones de los PTS que contradigan las DOT o, en su caso los PTP, quedando así establecida la prevalencia de las DOT y, en segundo lugar, de los PTP frente a los PTS.

Lurraldean eragina duten plan sektorialak Lurralde Plan Sektorialak izango dira.

Los planes sectoriales con incidencia territorial constituirán los Planes Territoriales Sectoriales.

V.
2/2006 LEGEA, EKAINAREN 30EKOA, LURZORUARI ETA HIRIGINTZARI BURUZKOA

Ekainaren 30eko 2/2006 Legean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoan berretsi egiten da lurraldearen antolamendua gailentzen dela hirigintza-antolamenduaren aurrean, eta hala zehazten da 52. artikuluan. Horren ondorioz, lurralde antolamenduko tresnen zehaztapenak lehenetsi egingo dira hirigintza-plangintzako zehaztapenen aurrean.

V.
LA LEY 2/2006, DE 30 DE JUNIO, DE SUELO Y URBANISMO

La Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo reitera la superioridad de la ordenación territorial sobre la urbanística y así lo explicita en su artículo 52. En consecuencia, las determinaciones de los instrumentos de ordenación territorial prevalecerán sobre las determinaciones del planeamiento urbanístico.

1.2.
1997ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak eta haien garapena

1.2.
Directrices de Ordenación Territorial de 1997 y su desarrollo

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek lurralde eredu zehatz bat definitu zuten. Eredu hori, ezarrita dagoen estrategiaren zehaztapenak garatzen dituen lurralde plangintza partzialaren eta sektorialaren nahiz udal plangintzarako orientabideen bitartez agerrarazten da espazioan.

Las Directrices de Ordenación Territorial definieron un modelo territorial cuya plasmación espacial se da a través del planeamiento territorial parcial y sectorial que desarrollan las diferentes determinaciones de la estrategia establecida, así como a través de orientaciones para el planeamiento municipal.



Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onartzeko otsailaren 11ko 28/1997 Dekretua onartu zenetik, lurraldea antolatzeko tresna ugari onartu dira orain arte, eta tresna horiek osatzen dute "lurraldearen plangintzarako blokea". Jarraian ibilbide bat egiten da: hasteko 1997ko LAGak aztertzen dira eta LPPetan nahiz LPSetan nola garatzen diren; ondoren, LAGak aldatzeko prozedurak (2010ekoak eta 2014koak) aztertzen dira; azkenik, 2015eko uztailaren 27an 1997ko LAGak berrikusteko hasitako gaur egungo prozedura aztertzen da.

Desde la aprobación del Decreto 28/1997, de 11 de febrero, por el que se aprueban definitivamente las Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, han sido numerosos los instrumentos de ordenación territorial que se han aprobado hasta el momento y que han ido conformando el "bloque de planificación territorial". A continuación, se realiza un recorrido que comienza con las DOT de 1997 y su desarrollo en PTP y PTS, para continuar con los procedimientos de modificación de las DOT de 2010 y 2014 para llegar al inicio del procedimiento de revisión de las DOT de 1997 el 27 de julio de 2015.

I.
1997KO LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROAK ETA HAIEN LPP ETA LPSak

Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuz onartutako LAGek EAEko lurralde-estrategia definitzen dute helburu jakin batzuekin; hona hemen helburu horiek:

1. Europan garapena gidatzen duten esparruekin integrazio handiagoa lortzea eta penintsularen iparraldean kokapen estrategikoa izatearekin lotutako garapenerako abaguneak aprobetxatzea.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuak sustatzea, beren hirigintza-profil ezberdinak sendotuz eta hiriburuen sistema polizentriko bat artikulatuz garapen- eta berrikuntza-prozesuak zuzentzeko beharrezkoa den indarrarekin.

3. Lurralde osoa hirigintza eta zerbitzu aldetik oinarri egokiz hornitzeko gaitasuna izango duen hiri ertainen sare bat sendotzea.

4. Berrorekatze-prozesuak sustatzea, saturazio gehien dauden eremuetatik presio demografiko gutxiagoko zonetara.

5. Hirigintzako ekimenetan nahiz ekimen sektorialetan natura babesteko sistemak eta ingurune fisikoa kontuan hartzeko irizpideak ezartzea.

6. Azpiegitura-sistemak eta hornidurak udalerriz gaindiko irizpideekin eta proposatutako lurralde-ereduaren egituraketara bideratuta zehaztea.

7. Plan sektorialak eratzeko lurralde-irizpideak ematea eta tarteko maila duten lurralde-planetako ezaugarriak konfiguratzea.

8. Etxebizitzen parkea handitzeko eta jarduera ekonomikoko lurzorua garatzeko irizpideak ezartzea, lurralde-ereduarekin koherentzia mantenduz.

9. Hondatuta edo gainbeheran dauden espazioak eta eremu berezi batzuk (esate baterako, herrigune historikoak eta landaguneak) berritu eta dinamizatzeko prozesuak aktibatzea.

1997ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen egitura lau ataletan antolatzen da. Lehenik eta behin, LAGen lurralde-eredua garatzeko oinarriak identifikatzen dira. Bigarrenik, lurralde-eredua bera zehazten da. Hirugarrenik, ongizatea eta berrikuntza ahalbidetzeko lurralde-ekimenak identifikatzen dira. Eta laugarrenik, eta azkenik, LAGak aplikatzeko zenbait gako eta erreferentzia ematen dira.

I.
LAS DIRECTRICES DE ORDENACIÓN TERRITORIAL DE 1997 Y SUS PTP Y PTS

Las DOT aprobadas por el Decreto 28/1997, de 11 de febrero, definen la estrategia territorial de la CAPV con una serie de objetivos:

1. Lograr una mayor integración con los ámbitos que lideran el desarrollo europeo y aprovechar las oportunidades de desarrollo asociadas a una localización estratégica en el norte peninsular.

2. Potenciar las capitales vascas, reforzando sus diferentes perfiles urbanos y articulando un sistema policéntrico de capitales con la fortaleza necesaria para liderar los procesos de desarrollo e innovación.

3. Consolidar una red de ciudades medias capaces de dotar de una adecuada base urbana y de servicios al conjunto del territorio.

4. Impulsar procesos de reequilibrio desde los ámbitos congestionados hacia zonas con menor presión demográfica.

5. Establecer sistemas de protección de la naturaleza y criterios para la consideración del medio físico en las iniciativas urbanísticas y sectoriales.

6. Definir sistemas de infraestructuras y dotaciones con criterios supramunicipales y orientadas a apoyar la configuración del modelo territorial propuesto.

7. Proporcionar criterios territoriales para la elaboración de planes sectoriales y configurar las características de los planes territoriales de escala intermedia.

8. Establecer criterios para el crecimiento del parque de viviendas y para el desarrollo de suelos de actividad económica de forma coherente con el modelo territorial.

9. Activar procesos de renovación y dinamización de espacios deteriorados o en declive y de ámbitos singulares como los cascos históricos y los núcleos rurales.

La estructura de las DOT de 1997 se organiza en cuatro apartados. En primer lugar, se identifican las bases sobre las que se habrá de erigir el modelo territorial de las DOT. En segundo lugar, se define el modelo territorial en sí. En tercer lugar, se identifican las iniciativas territoriales para el bienestar y la renovación. Y en cuarto y último lugar, se proporcionan una serie de claves y referencias para la aplicación de las DOT.

Zehazki, lurralde-ereduaren oinarriekin industria tradizionalean oinarritutako eredua gainditzeko eta lehiakortasun ekonomikoarekin, gizarte-ongizatearekin eta garapen iraunkorrarekin lotutako irizpideei erantzuteko premiari erantzun nahi zaio, demografia atzera doala eta biztanleria zahartzen ari dela erakusten duen dinamika batean.

Oinarri horietatik abiatuz, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek (1997) lurraldeko hiru geruza gainjarrien inguruan zehazten dute lurralde-eredua: ingurune fisikoa, lurralde-ereduaren oinarri eta euskarri modura, finkapenen sistema eta azpiegiturak. Hala, ingurune fisikoa elementu eta erabilera nagusietarako gidalerro orokor batzuen arabera antolatzen da, eta zazpi erabilera mota eta erabilera-matrize bat aurreikusten dira. Bederatzi eremu babestu eta aisialdiko, eta lurraldera sartzeko gune proposatzen dira. Bestalde, finkapenetan bizitegi-lurzoruetarako politikak aurreikusten dira. Bertan hazkuntza nagusiko zenbait udalerri planteatzen dira, eta udalerri bakoitzerako biztanleko hazkuntzaren kalkulu-sistema bat ere bai, LPPetan zehazten diren arte, beste alde batetik, jarduera ekonomikoko lurzoru berriak finkatzeko orientazio eta eremuak iradokitzen dira. Bigarren bizitegia eta aisialdiko eremuak antolatzen dira. Beharrezkoak diren azpiegiturei dagokienez, sistemen hierarkia oso bat planteatzen da, hiriburuak, eremu funtzionaletako buruak, eta gainerako finkapenak konektatuko dituena, errepideen, abiadura handiko, ibilbide

Concretamente, las bases del modelo territorial se refieren a la necesidad de superar el modelo basado en la industria tradicional, de responder a criterios de competitividad económica, bienestar social y desarrollo sostenible, en una dinámica demográfica regresiva y de envejecimiento de la población.

Sobre estas bases, las DOT (1997) definen el modelo territorial alrededor de tres tramas superpuestas del territorio: el medio físico, como base y soporte del modelo territorial, el sistema de asentamientos y las infraestructuras. Así, el medio físico se ordena por unas directrices generales para los principales elementos y usos y contempla siete tipos de suelo y una matriz de usos. Se proponen nueve áreas protegidas y de esparcimiento y núcleos de acceso al territorio. Por su parte, los asentamientos se refieren a políticas de suelo residencial, donde se plantean algunos municipios de crecimiento preferente y un sistema de cálculo de crecimiento habitacional para cada municipio hasta que los PTP lo definan, y por otro lado orientaciones y áreas sugeridas para la implantación de nuevo suelo para actividades económicas. Se ordena la segunda residencia y las áreas de esparcimiento. Respecto de las infraestructuras necesarias se plantea una jerarquía completa de sistemas que conecten las capitales, las cabeceras de Áreas Funcionales y el resto de asentamientos mediante carretera, tren de alta velocidad, largo recorrido y cercanías, aeropuertos,

Lurralde-ereduaren oinarriekin industria tradizionalean oinarritutako eredua gainditzeko eta lehiakortasun ekonomikoarekin, gizarte-ongizatearekin eta garapen iraunkorrarekin lotutako irizpideei erantzuteko premiari erantzun nahi zaio, demografía atzera doala eta biztanleria zahartzen ari dela erakusten duen dinamika batean.

Las bases del modelo territorial se refieren a la necesidad de superar el modelo basado en la industria tradicional, de responder a criterios de competitividad económica, bienestar social y desarrollo sostenible, en una dinámica regresiva y de envejecimiento de la población.









luzeko eta aldirietako trenen, aireportuen, portuen, telekomunikazioen eta energiaren bidez. Ura eta hondakin solidoak berezko ezaugarriak dituzten azpiegitura modura antolatzen dira.

LPPak abian jartzeak dinamika berri bat ekarri du. Horren ondorioz, udal eta erakunde arduradun guztiak beren lurraldea ikuspegi konplexu eta elkarlotu baten arabera hautematen hasi dira, tokiko mugak gainditzuz. Sarritan, baterako estrategiak eskatzen ditu dinamika horrek, etorkizuneko erronka handiei aurre egin ahal izateko. EAEn hirigintza- eta lurralde-arloko plangintzaren esparru berrian grabitate-zentroa tarteko eskalara mugitu da pixkanaka, lurraldeko Eremu Funtzionaletako Lurralde Plan Partzialen bidez.

LPPen aktibo nagusia hauxe da: haiek eratu diren modua kontuan izanik, EAEren esparru orokorrean, Eremu Funtzional bakoitzaren abantaila eta berezitasun partikularretatik abiatuz lurraldea egiaz dinamizatu ahal izatera bideratutako tresna izatea. Horrela, LPPek osagai erregulatzaile bat baitaratzen dute, lurralde-prozesuen gaineko nolabaiteko kontrol publikoa mantentzea ahalbidetzen duena eta abaguneak eta ongizatea orokorki galtzea eragiten duten ekintza eta joerak ekiditen dituena. Plan horiek, gainera, ezinbesteko erreferentzia-esparru dira udal plangintzetako ekimenek eta politika sektorialek

puertos, telecomunicaciones y energía. El agua y los residuos sólidos se ordenan como infraestructuras de identidad propia.

La puesta en marcha de los PTP ha impulsado una nueva dinámica que ha llevado a la totalidad de los ayuntamientos y de las instituciones responsables a empezar a pensar en su territorio como algo más complejo e interrelacionado que supera los límites locales y que en muchos casos exige estrategias comunes para abordar los grandes retos de futuro. En el nuevo marco de planeamiento urbano y territorial en la CAPV el centro de gravedad se ha ido desplazando paulatinamente hacia la escala intermedia mediante los Planes Territoriales Parciales de las Áreas Funcionales del territorio.

El principal activo de los PTP, tal y como se han concebido, es su carácter de instrumentos orientados a lograr una auténtica dinamización del territorio a partir de las ventajas y singularidades específicas de cada Área Funcional en el marco global de la CAPV. Así, los PTP incorporan un componente regulador que permite el mantenimiento de un cierto control público sobre los procesos territoriales y evita acciones y tendencias que repercuten en una pérdida global de oportunidades y bienestar. Son, además, un marco de referencia imprescindible para lograr una



koherentzia egokia lortzeko Eremu Funtzionaleko lurraldeari dagokion estrategia orokorrarekin.

LAGen bidez identifikatutako hamabost Eremu Funtzionaletako bakoitzerako aurreikusitako LPPetatik, hamalau dagoeneko behin betiko onartu dira, eta beste bat, Tolosaldeko Eremu Funtzionalari dagokiona, behin betiko onespen fasean dago une honetan.

Gainera, hamar Lurralde Plan Sektorial (LPS) onartu dira honako esparru hauetan:

- Ingurumena: Erreka eta Ibaiak Antolatzeko, Hezeguneetako eta Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak.
- Azpiegiturak: EAEko Trenbide sare Berriaren LPSa, Energia Eolikoaren LPSa, Bizkaiko Errepideen LPS, Gipuzkoako Hiri Hondakinen LPS eta Gipuzkoako Bidegorrien LPS.
- Lurzorua: Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoru Publikoa Eskuratzeko LPSa.

Azkenik, gogorarazi behar da lurraldea antolatzeko tresnak udal-arloko hirigintza-plangintzetan islatu eta txertatu behar direla, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean nahiz Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean xedatzen den moduan. Ildo horretatik, eta aipatutako legeekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, lurraldea antolatzeko tresnak udal-arloko hirigintza-plangintzan txertatzeko eginahalean, koordinazio- eta ikuskapen-lan garrantzitsua betetzen du.

II.
2010EKO LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROAK ALDATZEKO PROZEDURA

2006an LAGak berraztertzeko barne-prozesu bat abiatu zen eta 2010eko urrian Jaurlaritzaren Kontseiluak LAGak modu ez nabarmenean aldatzeko prozedura abiatzea erabaki zuen. Horren ondorioz, 2012ko otsailean "Euskal Hiria Net, lurralde-estrategia berria. LAGak aldatzea berrazterketaren ondorioz" izeneko proposamena aurkeztu zen. Aldaketak ez nabarmentzat jo ziren, proposamenak ez zuelako eragiten indarreko lurralde-eredua aldatzea eta hura baliozkotzat ematen zuelako. LAGak modu ez nabarmenean aldatzeko prozedurak aurrera jarraitu zuen, eta jendaurreko entzunaldiak eta jendaurrean jartzeko tramiteak burutu ziren.

X. Legegintzaldia hasita eta Jaurlaritzaren programa berria onartuta, Eusko Jaurlaritzak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak modu ez nabarmenean aldatzeaz harago, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesu sakon bat abiatzea

adecuada coherencia entre las iniciativas de los planes municipales y las políticas sectoriales con la estrategia global del territorio del Área Funcional.

De los PTP previstos para cada una de las quince Áreas Funcionales identificadas por las DOT, se han aprobado definitivamente catorce, y uno, el del Área Funcional de Tolosaldea, se encuentra en fase de aprobación definitiva.

A su vez, se han aprobado diez Planes Territoriales Sectoriales (PTS), en los siguientes ámbitos:

- Medioambiental: los PTS de Ordenación de Ríos y Arroyos, del Litoral, de Zonas Húmedas, y Agroforestal.
- Infraestructuras: PTS de la Nueva Red Ferroviaria de la CAPV, PTS de Energía Eólica de la CAPV, PTS de Carreteras de Bizkaia, PTS de Residuos Urbanos de Gipuzkoa, y PTS de Vías Ciclistas de Gipuzkoa.
- Suelo: el PTS de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas y Equipamientos Comerciales.

Finalmente, cabe recordar que los instrumentos de ordenación territorial se han de reflejar y trasladar al planeamiento urbanístico municipal, tal y como se dispone tanto en la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco, como en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo. En este sentido, y de acuerdo con las citadas leyes, la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco desarrolla una importante labor de coordinación y de supervisión del citado traslado al planeamiento urbanístico municipal de los instrumentos de ordenación territorial.

II.
EL PROCEDIMIENTO DE MODIFICACIÓN DE LAS DOT EN 2010

En 2006 se inició un proceso interno de reestudio de las DOT y en octubre de 2010 el Consejo de Gobierno decidió iniciar el procedimiento de modificación no sustancial de las DOT, que abrió el paso a la presentación en febrero de 2012 de la propuesta "Euskal Hiria Net, nueva estrategia territorial. Modificación de las DOT como consecuencia de su reestudio". El carácter no sustancial de la modificación se fundamentó en que la propuesta no suponía una alteración del modelo territorial vigente y que lo daba por válido. Este procedimiento de modificación no sustancial de las DOT siguió su curso y se realizaron los trámites de audiencia y exposición pública.

Con el inicio de la Décima Legislatura y la aprobación del nuevo programa de Gobierno, el Gobierno Vasco se propuso acometer un profundo proceso de revisión de las Directrices de Ordenación Territorial y, además, con un enfoque participativo integral desde

erabaki zuen. Gainera, partaidetzazko ikuspegi integral bat eman nahi izan zion prozesuaren hastapenetik amaierara arte. Eusko Legebiltzarra ere ildo beretik mintzatu zen 2013ko otsailean, onartu zuenean 10/2013 Legez besteko Proposamena, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen aldaketa bertan behera uztekoa.

Haatik, LAGak modu ez nabarmenean aldatzeko prozedurako gaiak Gidalerro horiek berrikusteko prozesu berrira eramateari zegokionez, bazen tratamendu berezia eskatzen zuen gai bat: bizitegien zenbaketa. Indarrean ziren LAGetako eta LPPetako bizitegien zenbaketarako irizpideak, lehenbailehen, iraunkortasun-printzipioetara eta lurraldearen erabilera arrazionalerako printzipioetara egokitzeko premia argia ikusi zen. Inguruabar sozioekonomikoak nabarmenki aldatu ziren, LPPetako ereduaren osagaietako zenbait aurreikuspen dagoeneko haiek sortu zireneko testuinguruan aplikatu zirela ikusi zen, edo testuingurua aldatu egin zela, eta, horrez gain, egoki iritzi zitzaion harrotze-koefizienteak txikiagotzeari eta aurrez kontuan hartu ez ziren gaiak kontuan hartu behar zirela erabaki zen; esate baterako, jenderik gabeko etxebizitzaren fenomenoa edo hiri-birgaitzearen eta -berroneratzearen sustapena.

III.
LAGAK ALDATZEKO PROZEDURA, BIZITEGI-KUANTIFIKAZIOARI DAGOKIONEZ (2014)

2014ko ekainean, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren aginduz, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen aldaketaren hasierako onarpena eman zen, bizitegi-kuantifikazioari zegokionez. Aldaketa horren helburua udalerrietan etxebizitza berriak sortzeko aurreikuspenak kalkulatzeko formula egokitzea da, herriak azken urteetan izandako bilakaera, familia-tamainaren aldaketa nahiz etxebizitzetan bizi diren pertsona kopurua eta udalerrietan jenderik gabe edo okupatu gabe dauden etxebizitza kopuruan kontuan hartuz, edo aldaera horien arabera; hori guztia harrotzea murriztuta. Horrenbestez, lurraldearen gainean erantzukizun-edo iraunkortasun-irizpide zenbait hartu behar dira kontuan, behar dena baino lurzoru gehiago okupatu edo sortu beharrik gabe.

Dena dela, urtarrilaren 19ko 4/2016 Dekretuaren, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak bizitegi-kuantifikazioari dagokionez behin betiko onesten dituenaren bidez onetsitako bizitegi-kuantifikazioa, LAGen berrikuspen-prozesuan aztertu da, eta Gidalerroek 4/2016 Dekretua indargabetzen dute.

el inicio hasta el final del proceso. En este sentido se pronunció igualmente el Parlamento Vasco en febrero de 2013 con la aprobación de la Proposición no de Ley 10/2013, relativa a la suspensión de la modificación de las Directrices de Ordenación Territorial.

Sin embargo, de entre todas esas cuestiones objeto de trasvase del procedimiento de modificación no sustancial al nuevo proceso de revisión de las DOT, existía una que requería un tratamiento excepcional: la cuantificación residencial. Se había constatado de forma clara la necesidad de adecuar, a la mayor brevedad posible, los criterios de cuantificación residencial de las DOT y los PTP vigentes a los principios de sostenibilidad y uso racional del territorio. Las circunstancias socioeconómicas habían cambiado notablemente, se había comprobado que algunas previsiones de los componentes de modelo de los PTP ya se habían aplicado para el contexto en el que fueron concebidas, o que este contexto ya había cambiado y, además, se consideraba oportuno reducir los coeficientes de esponjamiento y necesario tener en cuenta cuestiones que anteriormente se habían ignorado, como el fenómeno de la vivienda vacía o el fomento de la rehabilitación y la regeneración urbana.

III.
EL PROCEDIMIENTO DE MODIFICACIÓN DE LAS DOT EN LO RELATIVO A LA CUANTIFICACIÓN RESIDENCIAL DE 2014

En junio de 2014, por Orden de la Consejera de Medio Ambiente y Política Territorial, se aprueba inicialmente la modificación de las Directrices de Ordenación Territorial en lo relativo a la cuantificación residencial. El objeto de esta modificación es el de adecuar la fórmula del cálculo de las previsiones de creación de vivienda nueva en los municipios teniendo en cuenta o de acuerdo a la evolución de la población en los últimos años, la variación del tamaño familiar y del número de personas que habitan las viviendas y al número de viviendas vacías o desocupadas existentes en los municipios, todo ello con la aplicación de un esponjamiento más reducido. Se trata pues de asumir criterios de responsabilidad y sostenibilidad del territorio, sin ocupar o artificializar innecesariamente más suelo que el preciso.

La cuantificación residencial aprobada mediante el Decreto 4/2016, de 19 de enero, de modificación del Decreto por el que se aprueban definitivamente las DOT, en lo relativo a la cuantificación residencial, ha sido no obstante objeto de análisis en el proceso de revisión de las DOT y estas Directrices derogan el citado Decreto 4/2016, de 19 de enero.

IV.
2015EKO LAGAK BERRIKUSTEKO PROZEDURA. PARTE-HARTZEA ETA IZAPIDEA

2015eko uztailaren 27an, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozedura abiatzea adostu zuen, otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuz onartuak. Horrela, ia hogei urte igaro dira gidalerro horiek onetsi zirenetik, eta, horregatik, egokitzat jotzen da Gidalerroak berrikusteko prozesua hastea. Prozesu horrek orain arte pilatutako esperientziari esker ikasitakoa kapitalizatuko du, lurralde-antolamenduaren erronka berriei erantzungo die eta, batez ere, parte hartzeko prozesu zabala oinarri hartuta eraikiko da, erakunde publikoek, eragile sozioekonomiko eta politikoek eta herritarrek parte hartuta.

Aldi berean, berrikusteko prozesu formala parte hartzeko prozesu gisa planteatzeak EAEko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea gobernantzaren inguruko ikuspegi berrietara egokitzea dakar. Horren adibidea da "Oinarrizko Dokumentua", hots, "Gidalerroen Aurrerapena" izeneko agiriaren aurreko dokumentua. Izan ere, oinarrizko dokumentu hori ez dago aurreikusita aipatutako legearen nahitaezko izapideen artean, baina beharrezkotzat jotzen da Sailak aurkeztea, parte hartzeko prozesuaren hasiera gisa. Horren ondorioz, geroago, "Gidalerroen Aurrerapena" izeneko agiria egingo da, eta agiri hori maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

Jaurlaritzaren Kontseiluaren Hasierako Akordioaren hitzaurrean, sustatu nahi den partaidetza-ikuspegi horrekin bat etorrita, berrikusteko prozesuaren administrazio arloko tramitazioa eta Euskal Hiria Kongresua aldi berean egiteari buruzko plana aipatzen da. Euskal Hiria Kongresua lurralde antolamenduaren arloko topaketa-foro irekia da, eta urtero egiten da, azaroaren amaieran. Horregatik, administrazio arloko tramitazioa sustatzeko kronograma modura ere funtzionatuko duen lan-programa bat proposatzen da. Horrela, "Oinarrizko Dokumentua" 2015eko azaroan aurkeztu zen, "Euskal Hiria Kongresuan"; "Gidalerroen Aurrerapena", berriz, 2016ko azaroko "Euskal Hiria Kongresuan"; Gidalerroen hasierako onespena 2017ko azaroko "Euskal Hiria Kongresuan" aurkeztu da, eta, LAGen behin-behineko onespena-behin betiko onespenaren aurretik, berriz, 2018ko azaroko "Euskal Hiria Kongresuan" egin zen.

Parte-hartzeari dagokionez, logikoa denez, entzunaldiaren eta informazio publikoaren nahitaezko izapideez gain, parte hartzeko kanal irekiak ezarri dira, eta parte hartzeko prozesu edo plan bat diseinatu da. Parte hartzeko prozesu edo plan horrek berrikusteko prozesuari lagunduko dio Oinarrizko Dokumentua aurkezten denetik (2015eko azarotik), eta hori ere etengabe eguneratuko da, aldatuz doan

IV.
PROCEDIMIENTO DE REVISIÓN DE LAS DOT DE 2015. PARTICIPACIÓN Y TRAMITACIÓN

El 27 de julio de 2015 el Consejo del Gobierno Vasco acuerda iniciar el procedimiento de revisión de las Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobadas por Decreto 28/1997, de 11 de febrero. Así, transcurridos prácticamente veinte años desde su aprobación, se inicia un proceso de revisión de las Directrices que capitalice las lecciones extraídas de la experiencia adquirida, que responda a los nuevos retos de la ordenación del territorio y, fundamentalmente, se construya sobre la base de un amplio proceso participativo, tanto por parte de las diversas instituciones públicas, como por parte de los agentes socioeconómicos, políticos y de la ciudadanía.

El hecho de que el proceso formal de revisión se plantee al mismo tiempo como un proceso participativo supone la adaptación de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco a las nuevas concepciones de la gobernanza. Prueba de ello ha sido el "Documento Base" o documento previo al "Avance de Directrices" que no está previsto entre los trámites preceptivos de la citada Ley, pero que se ha considerado necesario presentar por parte del Departamento como inicio del proceso de participación, fruto del cual, posteriormente, se adopta el "Avance de Directrices", que se tramita de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 10 de la Ley 4/1990, de 31 de mayo.

En el preámbulo del Acuerdo de Inicio del Consejo de Gobierno, se hace referencia al planteamiento de que, en coherencia con el enfoque participativo que se pretende promover, se hagan coincidir los hitos de la tramitación administrativa del proceso de revisión con el ya consolidado "Euskal Hiria Kongresua", foro abierto de encuentro en materia de ordenación territorial que se celebra anualmente a finales de noviembre. De ahí que se proponga un programa de trabajo que funcione también como un cronograma para el impulso de la tramitación administrativa. Así, el "Documento Base" se presenta en el congreso "Euskal Hiria Kongresua" de noviembre 2015, el "Avance de Directrices" se presenta en el congreso "Euskal Hiria Kongresua" de noviembre 2016, la aprobación inicial de las Directrices se presenta en el congreso "Euskal Hiria Kongresua" de noviembre 2017 y la aprobación provisional previa a la aprobación definitiva de las DOT se presenta en el congreso "Euskal Hiria Kongresua" de noviembre 2018.

En cuanto a la participación se refiere, lógicamente, además de los preceptivos trámites de audiencia e información pública, se han establecido canales abiertos de participación, y se ha contado con un proceso o un plan de participación que acompaña al proceso de revisión desde la presentación del Documento Base en noviembre de 2015 y que es objeto de actualización y adaptación.

2015eko uztailaren 27an, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozedura abiatzea adostu zuen.

El 27 de julio de 2015 el Consejo del Gobierno Vasco acuerda iniciar el procedimiento de revisión de las Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Berrikus teko prozesu formala parte hartzeko prozesu gisa planteatzeak EAEko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legea gobernantzaren inguruko ikuspegi berrietara egokitzea dakar.

El proceso formal de revisión se plantea al mismo tiempo como un proceso participativo, suponiendo la adaptación de la Ley 4/1990, de Ordenación del Territorio del País Vasco a las nuevas concepciones de la gobernanza.

egoerara egokitzeko. Parte hartzeko prozesuak bi esparru ditu, partaidetza soziala eta instituzionala. Prozesu hori 2015eko azaroan hasi zen, Euskal Hiria Kongresua 2015ekin batera. Ordutik, erakunde mailako partaidetza eta online bitartezko nahiz aurrez aurreko gizartearena burutu dira. Aurrerapena idatzitakoan, parte hartzeko prozesuaren ardatza agiria hedatzea eta partaidetzarako kanalak ezartzea izan da, legezko tramiteak egiteaz gain. 4/1990 Legeak aurreikusten duenez, Lurralde Politikako Aholku Batzordeak (LPAB) eta EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordeak (EAELAB) Aurrerapenari buruzko txostena egin dute, eta jarraian administrazioei 3 hilabeteko entzunaldi-epea eman zaie; horren ostean, agiria prestatu da, hasieran onesteko. Entzunaldi-epe horretan partaidetza presentzialak jarraitu du. Hiru jardunaldi antolatu dira, hiriburu bakoitzeko bat, txostenekin eta tailerrekin, eta partaidetza digitala ere egon da. Azken horretan, hainbat gai proposatu dira, pertsonek sare sozialen bitartez horiei buruz parte hartu ahal izan dezaten.



2018ko otsailean, hasierako onespena jaso ondoren, dokumentu hori jendaurrean jarri da, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 10.7 artikuluak ezarritakoarekin bat. Prozesu horren ondorioz, 48 alegazio jaso, aztertu eta horiei erantzuna eman zaie. Horrela, behin-behineko onespena jasotzeko den dokumentua aberastu egin da. LPABaren eta EAELABaren aldeko txostenak jaso eta gero, 2018ko azaroan behin-behineko onespena izan zen, 4/1990 Legearen 10.8 artikuluak ezarritakoarekin bat. Prozesu horrek aurrera egin ahala, 4/1990 Legeak ezartzen duen prozedurak hartzen du pisu osoa, dokumentua finkatu eta heldu bitartean.

El proceso de participación cuenta con dos ámbitos: la participación social y la participación institucional, y se inicia en noviembre de 2015, coincidiendo con "Euskal Hiria Kongresua 2015". Desde entonces lleva trabajándose el proceso participativo institucional y el proceso participativo social online y presencial. Redactado el Avance el proceso de participación se ha centrado en divulgar el documento y facilitar canales para la participación, además de los trámites legales. Tal y como prevé la Ley 4/1990, el Avance ha sido sometido a informe del Consejo Asesor de Política Territorial (CAPT) y de la Comisión de Ordenación del Territorio (COTPV) de la CAPV, y a continuación se ha dado un período de audiencia a las administraciones de 3 meses, después de lo cual se ha reelaborado el documento para su aprobación inicial. Durante este período de audiencia se ha continuado con la participación presencial, organizando tres jornadas una por cada una de las tres capitales con ponencias y talleres, y también con la participación digital, proponiendo cuestiones sobre las que las personas pudieran participar a través de redes sociales.

Tras la aprobación inicial en febrero de 2018 el documento ha sido sometido a exposición pública, de acuerdo con lo señalado en el artículo 10.7 de la Ley 4/1990, de Ordenación del Territorio del País Vasco, fruto del cual se han recibido 48 alegaciones que se han analizado y contestado para enriquecer el documento para la aprobación provisional. Tras los informes favorables del CAPT y de la COTPV, en noviembre de 2018 se produjo la aprobación provisional, de acuerdo con el artículo 10.8 de la citada Ley 4/1990. A medida que avanza el proceso adquiere todo su peso el procedimiento que establece la Ley 4/1990, a la vez que el documento va consolidándose y ganando madurez.



1.3. 1997ko LAGetatik berrikuspenera: ziklo baten diagnostikoa eta balantzea

1.3. De las DOT de 1997 a la revisión: diagnóstico y balance de un ciclo

Egoerari buruzko diagnostiko bat izan behar du abiapuntutzat prozesu orok, sortu diren alderdi guztien balorazio bat, baita detektatutako ahuleziak onartzea ere, gidalerro erabilgarri batzuen bidez helburu koherente batzuk planteatu eta lortzeko.

Todo proceso de revisión ha de partir de un diagnóstico sobre el estado de la cuestión, de una valoración de los aspectos positivos que han surgido, así como de una asunción de las debilidades detectadas, para poder plantear y alcanzar unos objetivos coherentes a través de unas directrices útiles.



Urdaibai

1997ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak lurralde-estrategiaren lehen erreferentzia-esparrua izan ziren, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea onartutakoan. Gidalerroak behin betiko onartzen dituen otsailaren 11ko 28/1997 Dekretua onartu zenetik berrikuspen hau egin arte bi hamarkada igaro dira, eta denbora-tarte horretan politika publiko horren garapenaren lehenengo zikloa burutu da ia, Lurralde Plan Partzialak lantzeari eta ondoren onartzeari esker, plan horiek bideratzen baitituzte LAGen zehaztapenak Eremu Funtzional bakoitzera, baita LAG horietan aurreikusitako Lurralde Plan Sektorialen kopuru garrantzitsu bat ere.

Aurrerapenaren aurreko Oinarrizko Dokumentuak LAGen lurralde-estrategiaren lehen bizi-zikloaren balorazio bat egin nahi zuen, baina badirudi hori ez zela nahikoa eta egokia izan parte-hartze prozesuan jasotako ekarpen ugariak ikusita. Izan ere, ekarpen horiek azpimarratzen zuten berrikuspen-prozesuan

Las Directrices de Ordenación Territorial de 1997 suponen el primer marco referencial de la estrategia territorial una vez aprobada la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco. Desde el Decreto 28/1997, de 11 de febrero, por el que se aprueban definitivamente las Directrices hasta la presente revisión han transcurrido dos décadas en las que se ha culminado prácticamente el primer ciclo de desarrollo de esta política pública, gracias a la elaboración y posterior aprobación de los Planes Territoriales Parciales que trasladan a cada una de las Áreas Funcionales las determinaciones de las DOT, así como de un número importante de los Planes Territoriales Sectoriales previstos en las mismas.

El Documento Base previo al Avance trataba de realizar una valoración de este primer ciclo de vida de la estrategia territorial de las DOT, si bien parece que no de forma suficiente y adecuada a la vista de las numerosas aportaciones recibidas en el proceso de participación que incidían en la necesidad de que en el proceso de

1997ko LAGen garapenaren ebaluazio bat jaso behar zela, hasierako diagnostiko bat.

Parte hartzeko prozesuan adierazitakoari jarraikiz, esan daiteke 4/1990 Legean oinarrituta sortutako lurraldearen antolamenduaren lehenengo ziklo baten amaieran gaudela, eta ondorioak atera daitezke horretatik diagnostiko gisa. Ildo horretan, LAGek zenbait lurralde-irizpide definitzea lortu dute, lurralde- eta hirigintza-plangintzak bere gain hartu eta garatutakoak. Hain zuzen, abiapuntutzat har ditzakegun elementu horiek, abian dira gaur egun. Esan daiteke LAGekin eta garatu diren LPP eta LPSekin lurraldearen antolamenduko kultura bat sortu dela EAEn prozesuan esku hartu duten administrazio, gizarte-eragile eta profesionalen baitan. Ildo horretan, kultura horren zati diren elementuak garatzea dagokio, elementu positiboak erakutsiz, baita zuzendu eta gainditu beharreko ahuleziak ere.

I. LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO POLITIKA ETA LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO TRESNAK (LAG, LPP, LPS) SENDOTZEA

1997an LAGak onartu zirenetik, Lurraldearen Antolamendurako politika sendotu egin da, 14 LPP eta LPSen kopuru garrantzitsu bat onartu ondoren.

1990ean Lurraldearen Antolamenduari buruzko Legea onartu zenetik eta 1997an LAGak onartu zirenetik, Lurraldearen Antolamendurako politika sendotu egin da. Horren adierazgarri da 15 LPPetatik 14 eta LAGetan aurreikusitako LPSen kopuru garrantzitsu bat onartu izana, eta hirigintza-plangintzan bete eta aplikatu izana. Hori guztia egiaztatuta geratzen daEuskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak emandako nahitaezko txostenetan, hirigintza-plangintza lurralde-plangintzari zer mailatan egokitzen zaion aztertzerakoan.

Lurralde Antolakuntzari buruzko Legeak ezarritako Lurralde Antolamendurako politika erakunde publikoen eta eraginpeko sektore-esparruen artean koordinazioa eta eskumen-errespetua izateko pentsatuta dago. Inplikatutako alderdi guztien arteko eskumen-oreka hori lortzea beti gauza erraza izan ez bada ere, administrazioen ohiko jarduna da beren lankidetza-lanaren barruan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak bere eskumena egikaritu du elkar ulertzeko eta adostasuna lortzeko organo bideratzaile gisa duen bokazioari jarraikiz.

II. LURRALDE PLAN PARTZIALAK ETA EREMU FUNTZIONALEN MUGAKETA

LAGen ekarpen nagusietako bat Eremu Funtzionalen mugaketa da.

LAGen ekarpen nagusietako bat Eremu Funtzionalen mugaketa da, lurralde orekatuago bat lortzeko ereduaren proposamen gisa, zeinean hiri ertainek protagonismo berezia izango duten. Horrenbestez,

revisión se recogiera una evaluación del desarrollo de las DOT de 1997, un diagnóstico de partida.

Tal y como ha sido señalado en el proceso de participación, puede decirse que nos encontramos en el final de un primer ciclo de la ordenación del territorio surgida a partir de la Ley 4/1990, del cual pueden extraerse conclusiones a modo de diagnóstico. En este sentido, las DOT han logrado definir criterios territoriales que han sido asumidos y desarrollados por el planeamiento territorial y urbanístico, y que constituyen elementos de partida en curso. Puede afirmarse que, con las DOT, los PTP y los PTS que se han desarrollado, se ha generado en la CAPV una cultura de la ordenación del territorio en las administraciones, agentes sociales y profesionales intervinientes. En este sentido, procede desarrollar los elementos que forman parte de esa cultura, mostrando los elementos positivos, así como las debilidades a corregir y superar.

I. LA CONSOLIDACIÓN DE LA POLÍTICA DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y LOS INSTRUMENTOS DE ORDENACIÓN TERRITORIAL (DOT, PTP, PTS)

Desde la aprobación de las DOT en 1997 se ha consolidado la política pública de la Ordenación del Territorio, con la aprobación de 14 PTP y de un número importante de PTS.

Desde la aprobación en 1990 de la LOT y de las DOT en 1997 se ha consolidado la política pública de la Ordenación del Territorio. Prueba de ello es la aprobación de 14 de los 15 PTP y de un número importante de los PTS previstos en las DOT, así como su observancia y aplicación en el planeamiento urbanístico, que queda rubricada en los informes preceptivos emitidos por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco (COTPV) al analizar la adecuación del planeamiento urbanístico al planeamiento territorial.

La política de Ordenación del Territorio establecida por la LOT está concebida sobre la coordinación y el respeto competencial entre las instituciones públicas y los ámbitos sectoriales concernidos. Si bien este equilibrio competencial entre las distintas partes implicadas no ha resultado siempre fácil de alcanzar, supone el ejercicio ordinario de las administraciones en el desarrollo de su labor de colaboración y la COTPV ha ejercido su competencia en su vocación de órgano facilitador de entendimiento y consenso.

II. LOS PLANES TERRITORIALES PARCIALES Y LA DELIMITACIÓN DE LAS ÁREAS FUNCIONALES

Una de las aportaciones fundamentales de las DOT es la delimitación de las Áreas Funcionales

Una de las aportaciones fundamentales de las DOT es la delimitación de las Áreas Funcionales, como propuesta del modelo para alcanzar un territorio más equilibrado, en el que las ciudades medias



Mundaka

Lurralde Plan Partzial bat idatziko litzateke Eremu Funtzional bakoitzean. 1997an LAGak onartu zirenetik igaro diren hogei urteotan aurreikusitako hamabost LPPak onartu dira ia, haietako hiru 2016an onartutakoak (Gernika-Markinako, Mungiako eta Donostialdeko Eremu Funtzionalei dagozkienak), eta Tolosaldeko LPPa soilik geratzen da behin betiko onartzeko.

Bere garaian, Eremu Funtzionalen mugaketa administrazioen adostasun-jardun bat izan zen, Lurralde Historikoak gainditzen zituzten esparruak ezartzen baitzituzten. LPPen idazkuntza-prozesuak udalen hitzartze- eta elkarlan-jarduna izan du azpitik, eta LPParen figura indartu egin du, figura horren bidez udalerrien hirigintzatik hurbil dagoen lurralde bat ezartzeko.

Dena den, parte-hartze prozesuak bi zalantza utzi ditu agerian, dokumentu honetan erantzun beharreko bi zalantza. Alde batetik, Gernika-Markinako Eremu Funtzionalak elkarrekin erlazionatzeko arazoak dituzten bi lurralde biltzen ditu, eta bestalde, Araba Erdialdeko Eremu Funtzionala lurralde oso zabala da, azpieskualde oso landatiarrak biltzen dituena, tratamendu egokia behar duten azpieskualdeak izanik.

III.
EUSKADIKO HIRIEN ETA LANDA-EREMUEN SISTEMA

Esparru horretako LAGen ereduak oinarritzat ditu euskal hiriburuen gune anitzeko sistema, Eremu Funtzionaletako buruen sarea, landagunerako estrategiak eta gune mugakideekiko eta barne-enklabeekiko erlazioak.

Hiria hiriburuen gune anitzeko sistemaren formarekin berregituratzeak (ondorengo nazioarteko diziplina-

cobraran especial protagonismo. En consecuencia, en cada una de las Áreas Funcionales se redactaría un Plan Territorial Parcial. En los veinte años transcurridos desde la aprobación de las DOT en 1997, se han aprobado prácticamente los quince PTP previstos, tres de ellos aprobados en 2016 (los de las Áreas Funcionales de Gernika-Markina, Mungia y Donostialdea), y únicamente queda pendiente de aprobación definitiva del PTP de Tolosaldea.

En su momento la delimitación de las Áreas Funcionales supuso un ejercicio de consenso de las administraciones en cuanto que se establecieron ámbitos que sobrepasaban los Territorios Históricos. El proceso de redacción de los PTP ha conllevado implícito un ejercicio de concertación y trabajo conjunto de los municipios y ha supuesto un espaldarazo a la figura del PTP como figura mediante la cual establecer un modelo territorial próximo al urbanismo de los municipios.

Sin embargo, el proceso de participación ha dejado latentes dos dudas que precisan una respuesta en este documento. Por un lado, el Área Funcional Gernika-Markina agrupa dos territorios con problemas de interrelación, y por otro, el Área Funcional de Álava Central supone un amplio territorio que recoge subcomarcas muy rurales que precisan de un tratamiento adecuado.

III.
EL SISTEMA DE CIUDADES Y ÁREAS RURALES DE EUSKADI

El modelo de las DOT en este ámbito descansa sobre el sistema polinuclear vasco de capitales, la red de cabeceras de las Áreas Funcionales, las estrategias para el espacio rural y las relaciones con espacios colindantes y enclaves interiores.

La estructuración urbana en forma de sistema polinuclear de capitales (denominado posteriormente

LAGen ereduak oinarritzat ditu euskal hiriburuen gune anitzeko sistema, Eremu Funtzionaletako buruen sarea, landagunerako estrategiak eta gune mugakideekiko eta barne-enklabeekiko erlazioak.

El modelo de las DOT descansa sobre el sistema polinuclear vasco de capitales, la red de cabeceras de las Áreas Funcionales, las estrategias para el espacio rural y las relaciones con espacios colindantes y enclaves interiores.

azterlanetan hirien sistema polizentrikoa izenarekin ezagutua) diziplina-ekarpen handia gehitu du. Buru eta azpiburuen sarea funtsezko elementua da EAEko hiri-sisteman: euskal hiriburuak indartzea haien hiri-profilak sendotuz eta sistema polizentriko bat artikulatuz prozesuen buru izateko indar nahikoarekin, edo hiri ertainen sare bat sendotzea, lurralde osoa hiri-oinarri eta zerbitzu-oinarri egoki batekin hornitzeko gai izango dena, Gidalerroek dituzten eta gaur egun guztiz indarrean dauden helburuak.

en los diferentes estudios disciplinares internacionales como sistema policéntrico de ciudades) ha supuesto una aportación disciplinar relevante. La red de cabeceras y subcabeceras supone un elemento fundamental del sistema urbano de la CAPV: potenciar las capitales vascas reforzando sus diferentes perfiles urbanos y articulando un sistema policéntrico con la fortaleza necesaria para liderar procesos, o la consolidación de una red de ciudades medias capaz de dotar de una adecuada base urbana y de servicios al conjunto del territorio son objetivos de las Directrices plenamente vigentes en la actualidad.

Gaur egun hiru hiriburuen Eremu Funtzionalek euren Lurralde Plan Partziala dute, baina zaila da zehaztea hiru hiriburuek osagarritasunean oinarritutako hiriburu-sistema gisa jardun duten ala ez zehaztea; laburbilduta, Euskal Autonomia Erkidegoan hiriburuen gune anitzeko sistema bat benetan dagoen. Dena dela, sistema hori sustatzearen planteamendua indarrean dagoela eta baliozkoa dela uste da.

Aunque en la actualidad las tres Áreas Funcionales de las tres capitales cuenten con su Plan Territorial Parcial, resulta difícil determinar si las tres capitales se han comportado como un sistema de capitales sobre la base de la complementariedad; en definitiva, si se puede hablar de un verdadero sistema polinuclear vasco de capitales. No obstante, se considera vigente y válido el planteamiento de promover este sistema.

Eremu Funtzionaletako buruen sareari dagokionez, parte-hartzeko prozesuan ikusi ahal izan denez, LAGen ereduak hiriburuen euskal gune anitzeko sistema hartu du, eta haiei eman die protagonismo handiagoa Eremu Funtzionaletako buruetako hiri ertainei eta Eremu Funtzionaletako herriei baino. Dena dela, 1990ean onartutako eremu funtzionalen mugaketak berak hiru hiriburuetatik kanpoko lurraldeei aukera ematen die euren nortasuna adierazteko. Era berean, egiaztatu da Lurralde Plan Partzialek beren Eremu Funtzionalak hartu dituztela aztergai eta bazter utzi dela Eremu Funtzional mugakideekin eta haiei dagozkien Lurralde Plan Partzialekin duten erlazioa. Gai horiek aztertu beharrekoak dira LAGen eta indarreko LPPen berrikuspenean, hasieratik aurreikusitako lurralde saretu hori lortzeko.

En relación con la red de cabeceras de las Áreas Funcionales se ha percibido en el proceso de participación que el modelo de las DOT se ha centrado y ha dado un mayor protagonismo a las capitales, al sistema polinuclear vasco de capitales, que a las ciudades medias cabeceras de las Áreas Funcionales y a los pueblos de las Áreas Funcionales. Sin embargo, la propia delimitación de las áreas funcionales aprobada en 1990 otorga a los territorios exteriores a las tres capitales la posibilidad de manifestar su propia personalidad. Así mismo se ha constatado que los Planes Territoriales Parciales se han centrado en sus Áreas Funcionales y se ha obviado la interrelación con sus Áreas Funcionales colindantes y sus correspondientes PTP. Estas cuestiones han de ser tratadas en la revisión de las DOT y de los PTP vigentes, de cara a la consecución de ese territorio mallado previsto desde el inicio.

1997ko LAGen ereduak landa-eremuei balioa ematea sustatzen du, betiere haien idiosinkrasia atxikita eta baldintza egokiak sortuta enplegua sortu eta enplegu hori garatzeko ereduak. Landa-garapen integraleko politika baten aldeko apustua egiten du, jada EAEko Landa Garapeneko Planaren bidez sendotua, baita EAE osotasun gisa hartzen duen lurraldearen antolamendurako eskema orekatu baten bidez ere, osotasun hori landa-eremu zein hiri-eremuak osatzen dutelarik, premia eta potentzialtasun partikular batzuekin. Hori horrela izanik, eta LPPetan irizpide hori kontuan izanda, parte-hartze prozesuan egindako oharrek LAGen izaera nagusiki hiritarra iradokitzen dute. Horregatik, LAGen berrikuspenean landa-inguruneko esparrua esplizitatu nahi da lurralde-ereduari buruzko kapitulu espezifiko batekin.

Eustatek 2017-2031 epealdirako egindako aurreikuspenak hartzen baditugu, biztanleria ia-ia berdin mantenduko litzateke, baina banaketa desberdinarekin: Bizkaian ziurrenik behera egingo luke eta Araban eta Gipuzkoan, aldiz, gora: Araban gutxi gorabehera 13.000 biztanle gehiago egongo lirateke, Gipuzkoan gutxi gorabehera 25.000 eta Bizkaian

Si tomamos las previsiones de Eustat para el período 2017-2031, la población prácticamente se mantendría, pero con una distribución desigual: en Bizkaia previsiblemente se reduciría, y crecería en Álava y en Gipuzkoa: Álava ganaría unos 13.000 habitantes, Gipuzkoa unos 25.000 y en Bizkaia se prevé un descenso de 28.000. Álava tendría así

28.000ko beherakada aurreikusten da. Arabak, halaber, gutxiago zahartutako biztanleria izango luke, 65 urtetik gorako % 25,3arekin, eta haurren eta gazteen biztanleriaren pisu erlatiboa atxikiko lukeen lurralde bakarra (% 15) izango litzateke, eta egitura zahartuena, aldiz, orain geratzen den bezala, Bizkaiari egokituko litzaioke (adinekoen % 27,1).

mismo la población menos envejecida con un 25,3% de mayores de 65 años, y sería el único territorio en el que se mantendría el peso relativo de la población infantil y juvenil (15%), mientras que la estructura más envejecida, tal como sucede en la actualidad, correspondería a Bizkaia (27,1% de mayores).

	2017	2020	2026	2031	2017-2031
Araba / Álava	323,8	327,9	333,7	337,6	4,26%
Bizkaia	1.137,3	1.132,0	1.119,2	1.109,5	2,44%
Gipuzkoa	713,0	720,0	730,3	738,7	3,60%
EAE / CAPV	**2.174,1**	**2.179,9**	**2.183,2**	**2.185,8**	**0,54%**

Eboluzio demografikoa. Milaka biztanle.
Iturria: Eustat, Proiekzio Demografikoak 2017-2031

Evolución demográfica. Miles de habitantes.
Fuente: Eustat, proyecciones demográficas 2017-2031

EAEren mendekotasun-tasa (zatidura gisa kalkulatua ehunekotan adierazia, 16 urtetik beherako edo 64tik gorako biztanleriaren –potentzialki inaktiboak– eta 16-64 urteko biztanleriaren artean) egungo % 53,5etik gehituko da 2026. urtean % 67,7ko tasara iritsi arte, hau da, pertsona ez-aktibo bakoitzeko lan-adinean dauden 1,9 pertsona izatetik ez-aktibo bakoitzeko 1,5 pertsona potentzialki aktibo izatera igarotzea.

La tasa de dependencia de la CAPV (calculada como el cociente, expresado en tanto por ciento, entre la población menor de 16 años o mayor de 64 potencialmente inactivos y la población de 16 a 64 años) se elevará desde el 53,5% actual hasta alcanzar en el año 2026 una tasa del 67,7%, lo que significa que se pasará de tener 1,9 personas en edad laboral por cada persona no activa a tener 1,5 personas potencialmente activas por cada una inactiva.

EAEren mendekotasun-tasa gehituko da 2026. urtean % 67,7ko tasara iritsi arte.

La tasa de dependencia de la CAPV se elevará hasta alcanzar en el año 2026 una tasa del 67,7%.

	0-15		16-64		≥65		Mendekotasun maila Tasa de dependencia
	milakotan miles	%	milakotan miles	%	milakotan miles	%	(P0-15+P65+)/P16-64 (%)
2013	319,1	14,6	1.419,7	65,2	440,1	20,2	53,5
2020	324,8	14,9	1.347,2	61,8	507,9	23,3	61,7
2026	**301,3**	**13,8**	**1.301,2**	**59,6**	**578,5**	**26,5**	**67,7**

Biztanleria adinaren arabera
Iturria: Eustat. Biztanleen estatistika (2013).

Población por edades
Fuente: Eustat. Estadística de habitantes 2013

II.
EKONOMIA

Euskal ekonomiaren historiaren ezaugarrietako bat oinarri industrial sendoa izan da; sektore hori balio erantsi gordinaren (BEG) % 24,5 izan da 2015ean, mendekotasun energetiko handia dela-eta, % 94 ingurukoa, eta kanporako zabaltze maila-handia dela-eta, bere tamaina txikiak mugatuta: 2015ean guztizko esportazioak BPGaren % 65era iritsi ziren eta inportazioak % 68ra.

90eko hamarkadaren hasieran, EAE aitzindaria izan zen kluster-politikak hedatzen lehiakortasun ekonomikoa indartzeko tresna gisa enpresen eta beste eragile sozioekonomikoen (ikerketa-zentroak, unibertsitateak, gobernu-agentziak eta abar) arteko lankidetza sustatzearen bidez jarduera-sektore baten barruan.

II.
ECONOMÍA

La economía vasca se caracteriza históricamente por una sólida base industrial, un sector que en 2015 representa el 24,5% del valor añadido bruto (VAB), por una fuerte dependencia energética, del orden del 94%, y por un alto nivel de apertura exterior determinado por su pequeño tamaño: en 2015 las exportaciones totales ascendieron al 65% del PIB y las importaciones al 68%.

A comienzos de los años 90, la CAPV fue pionera en el despliegue de las políticas clúster como instrumento para reforzar la competitividad económica a través de la promoción de la cooperación entre las empresas y otros agentes socioeconómicos (centros de investigación, universidades, agencias gubernamentales, etc.) dentro de un sector de actividad.

Euskal ekonomiaren historiaren ezaugarrietako bat oinarri industrial sendoa izan da.

La economía vasca se caracteriza históricamente por una sólida base industrial.



Gaur egun, dauden ahalmen zientifiko-teknologikoetatik eta enpresa-ahalmenetatik abiatuta, RIS3 Euskadi espezializazio adimendunaren estrategian lehentasunezko gisa identifikatutako hiru esparru handi ditu bere ahaleginen helburutzat EAEk: fabrikazioa aurreratua, energia eta biozientziak-osasuna binomioa.

En la actualidad, a partir de las capacidades científico tecnológicas y empresariales existentes, la CAPV dirige sus esfuerzos a tres grandes ámbitos identificados como prioritarios en la estrategia de especialización inteligente RIS3 Euskadi: fabricación avanzada, energía y el binomio biociencias-salud.

1995-2007 aldian, 1997ko LAGen indarraldiaren lehenengo hamarkada biltzen duen aldian, euskal ekonomia % 4ko batez besteko erritmo handian hazi zen eta, aldi berean, lanaldi osoko 290.000 lanpostu baliokide sortu ziren Eustaten inkesta ekonomikoen arabera, urteko % 3ko batez besteko erritmoan, eta horri esker, langabezia-tasa murriztu ahal izan zen, % 20tik gorako mailetatik langabezia estrukturalaren erregistroetaraino murriztu arte.

Durante el período 1995-2007, que abarca la primera década de vigencia de las DOT de 1997, la economía vasca creció a un elevado ritmo medio del 4%, paralelamente, se crearon 290.000 puestos de trabajo equivalentes a tiempo completo según las cuentas económicas del Eustat, a un ritmo medio del 3% anual, lo que permitió reducir la tasa de desempleo desde niveles superiores al 20% hasta registros de paro estructural.

Euskal industria-sektoreak mende berriko lehenengo urteetan izan duen hazkundea apala izan da, aurreko 1995-2000 aldian ez bezala, aldi horretan BPG globalaren gainetik hazi baitzen, eta eraikuntzak izan duen gorakada jarraituari esker luzatu da hazkunde-diferentziala Europarekiko.

El crecimiento del sector industrial vasco durante los primeros años del nuevo siglo es moderado, a diferencia del período anterior 1995-2000 en que creció por encima del PIB global, y es el auge sostenido de la construcción el que prolonga el diferencial de crecimiento respecto a Europa.

Euskal ekonomiak, 2008an bere hazkundea % 1,3raino moteldu ondoren krisialdiaren lehenengo efektuekin batera, % 7,4an uzkurtu zen termino errealetan 2008tik 2013ra bitartean. Sektoreen arabera, BEG industriala ia % 17 murriztu zen eta eraikuntzarena % 30 baino gehiago, eta zerbitzuen sektoreak, aldiz, bere ekarpen-mailari eutsi zion aldi horretan. Bosturteko horretan jarduera hondoratu izanak langabezia-tasa igo zuen biztanleria aktiboaren % 15eraino (% 15,9 Araban, % 16,1 Bizkaian eta % 12,5 Gipuzkoan), EBk izan zuen batezbesteko % 11ren oso gainetik, baina oraindik ere Estatuan izandako % 26tik oso urrun. Inbertsioa 90eko hamarkadaren erdialdeko mailaraino jaitsi zen, BPGaren % 22arekin.

La economía vasca, tras desacelerar su crecimiento hasta el 1,3% en 2008 con los primeros efectos de la crisis, se contrajo un 7,4% en términos reales entre 2008 y 2013. Por sectores, el VAB industrial se redujo en casi un 17% y el de la construcción en más de un 30%, mientras que el sector de servicios mantuvo su nivel de aportación en el período. El desplome de la actividad a lo largo de este quinquenio elevó la tasa de paro hasta el 15% de la población activa (15,9% en Álava, 16,1% en Bizkaia y 12,5% en Gipuzkoa), un nivel muy superior al 11% de media que registró la UE, pero aún más alejado del 26% que alcanzó en el Estado. La inversión cayó a niveles de mediados de los 90 con un 22% del PIB.

Suspertze-prozesua 2014an hasi zen EAEn, EBn izandako batez besteko erritmo berean (% 14), eta bizkortu egin zen 2015ean % 2,8ko hazkundera

El proceso de recuperación se inicia en 2014 en la CAPV al mismo ritmo que el registrado de media en la UE (1,4%), y se acelera en 2015 hasta un crecimiento

BPGren bilakaera konparatua 1995-2015. Bolumenaren indize kateatua. Urte arteko aldakuntza-tasak (%)

Evolución comparada del PIB 1995-2015. Índice de volumen encadenado. Tasas de variación interanual (%)



	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
UE-28	0,00	1,90	2,70	3,00	3,00	3,90	2,20	1,30	1,30	2,50	2,10	3,30	3,10	0,50	-4,40	2,10	1,80	-0,50	0,20	1,40	1,90
Eurozona	0,00	1,70	2,60	2,90	3,00	3,80	2,10	1,00	0,70	2,30	1,70	3,20	3,10	0,50	-4,50	2,10	1,60	-0,90	-0,30	0,90	1,60
Alemania	1,70	0,80	1,80	2,00	2,00	3,00	1,70	0,00	-0,70	1,20	0,70	3,70	3,30	1,10	-5,60	4,10	3,70	0,40	0,30	1,60	1,70
Francia	2,10	1,40	2,30	3,60	3,40	3,90	2,00	1,10	0,80	2,80	1,60	2,40	2,40	0,20	-2,90	2,00	2,10	0,20	0,70	0,20	1,20
España	0,00	2,70	3,70	4,30	4,50	5,30	4,00	2,90	3,20	3,20	3,70	4,20	3,80	1,10	-3,60	0,00	-1,00	-2,60	-1,70	1,40	3,20
CAPV	3,30	3,00	4,80	5,90	4,90	5,30	3,30	2,30	3,10	3,60	4,00	4,40	4,20	1,30	-4,00	0,60	0,20	-2,00	-1,80	1,40	2,80

Iturria: Eurostat eta Eustat

Fuente: Eurostat y Eustat

iristeraino. Industria eta zerbitzuak dira suspertzearen oinarri diren sektoreak. Bestalde, badirudi eraikuntzak gelditu egin duela bere jardueraren gainbehera 2015ean. Aldi berean, enpleguak suspertze-sintomak erakutsi ditu, 2014an pairatzen zuen suntsitzeari amaiera jarri eta 2015ean % 1,7 hazi ondoren.

del 2,8%. La industria y los servicios son los sectores que sustentan la recuperación. Por su parte, la construcción parece frenar en 2015 el deterioro de su actividad. A su vez, el empleo comienza a dar síntomas de recuperación tras poner fin a su destrucción en 2014 y crecer un 1,7% en 2015.



BEGren konposizioa sektoreka EAEan eta Europan, 2015ean (%), eta Lurralde Historikoetan, 2014an, (%).

Composición del VAB por sectores en la CAPV y en Europa. 2015 (%) y TT.HH 2014(%)



Iturria: Eurostat eta Eustat

Fuente: Eurostat y Eustat

EAEk industriaren pisu handia jarraitzen du ezaugarritzat izaten, eta Estatuko eta EB-28ko zein euroguneko batezbestekoaren gainetik dago. Zehazki, euskal BEG industriala guztizkoaren % 23,5 izan da 2015ean, EBko % 19aren eta Espainiako % 17arekin alderatuta, sektoreak Alemanian duen pisuaren azpitik badago ere (% 25,8).

Euskal ekonomiaren desindustrializazioa edo tertziarizazioa, gertatzen ari den aldaketa estrukturalaren barruan kokatu behar da, industriaren eta zerbitzuen integrazio gero eta handiagoarekin.

Sektore-jardunbidearen bilakaera horren ondorioz, 2015ean zerbitzuak enpleguan, industrian, eraikuntzan eta lehen sektorean kontzentratzen dira (% 71,8, % 20,5, % 6,2 eta % 1,4 hurrenez hurren). Aurkeztutako ekoizpen- eta enplegu-zifrek erakusten duten euskal ekonomiaren desindustrializazioa edo tertziarizazioa, gertatzen ari den aldaketa estrukturalaren barruan kokatu behar da, industriaren eta zerbitzuen integrazio gero eta handiagoarekin, haien mugak ekonomia industrialean desegiten direlarik.

Zerbitzuek zeregin gero eta garrantzitsuagoa dute input gisa ondasunen ekoizpenean eta handitu egin da industriaren "zerbitizazioa" deitu zaion fenomenoa, hau da, enpresek beren produktuari balioa gehitzen dioten prozesua, produktuari berari lotutako zerbitzuak gaineratzearen bidez. Negozio-eredua aldatu beharra eskatzen du horrek, eredu berriak fabrikatzaile-bezero kolaborazio handiagoa beharko baitu, eta zerbitzu aurreratuetan espezializatutako enpresak izatea (ingeniaritzak, aholkularitzak, IKTak...), manufaktura-industriari laguntza eskatuko diotenak beren produktua bereizteko, arrakastaz lehiatze aldera.

La CAPV sigue caracterizándose por el elevado peso de su industria, superior tanto a la media del Estado como a las de la UE28 y la eurozona. En concreto, el VAB industrial vasco en 2015 representa el 23,5% del total, frente el 19% en la UE y al 17% en España, aunque se sitúa por debajo del peso del sector en Alemania (25,8%).

La desindustrialización o terciarización de la economía vasca debe enmarcarse dentro del cambio estructural que se está produciendo con la creciente integración entre la industria y los servicios.

Esta evolución de las trayectorias sectoriales determina que en 2015 los servicios concentren el 71,8% del empleo, la industria el 20,5%, la construcción el 6,2% y el sector primario el 1,4%. La desindustrialización o terciarización de la economía vasca que muestran las cifras de producción y empleo presentadas debe enmarcarse dentro del cambio estructural que se está produciendo con la creciente integración entre la industria y los servicios, cuyas fronteras se diluyen en las economías industriales.

Los servicios desempeñan un papel cada vez más importante como inputs en la producción de bienes y se acentúa el auge de lo que se ha denominado "servitización" de la industria, esto es, el proceso mediante el cual las empresas añaden valor a su producto a través de la incorporación de servicios asociados al mismo. Esto implica un cambio de modelo de negocio que requiere una mayor colaboración fabricante-cliente y contar con empresas especializadas en servicios avanzados (ingenierías, consultoría, TICs...) que apoyen a la industria manufacturera en la diferenciación de su producto para poder competir con éxito.

EAEko BEGren sektore konposizioaren bilakaera 1995-2015 (%) .

Evolución de la composición sectorial de VAB de la CAPV 1995-2015 (%)



	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Sector Primario	1,7	1,5	1,5	1,7	1,7	1,4	1,2	1,2	1,1	1,0	0,9	0,8	0,8	0,7	0,6	0,7	0,7	0,8	0,9	0,8	0,8
Industria	31,2	30,8	31,0	31,6	31,4	31,6	30,9	30,1	29,2	29,6	29,7	29,3	28,6	27,9	23,9	24,8	24,9	24,2	23,9	23,8	23,5
Construcción	7,3	7,0	6,8	6,8	6,9	7,2	7,9	8,3	9,2	9,4	9,6	9,7	10,6	9,9	9,4	8,6	7,7	7,0	6,5	6,2	6,1
Servicios	59,8	60,6	60,6	59,9	60,0	59,9	60,0	60,4	60,5	60,0	59,7	60,2	60,0	61,5	66,1	65,9	66,7	68,0	68,7	69,2	69,6

Iturria: Eurostat eta Eustat

Fuente: Eurostat y Eustat

Euskal ekonomiaren tertziarizazio-prozesua askoz ere indartsuagoa izan da Bizkaian eta Gipuzkoan, iraganean pisu industrial handiagoa izan duten lurraldeetan, eta Arabak, aldiz, industriaren hazkundearen zatirik handiena hartu du bere barruan, Vitoria-Gasteiz inguruan eta Arabako Lautadan A-1 errepidearen ardatzaren luzeka erabilgarri dauden lurzoru-erreserbei esker.

El proceso de terciarización de la economía vasca ha sido mucho más intenso en Bizkaia y en Gipuzkoa, los territorios con mayor peso industrial en el pasado, mientras que Álava ha acogido la mayoría del crecimiento de la industria en los últimos años, gracias a las reservas de suelo disponibles en el entorno de Vitoria-Gasteiz y en la Llanada Alavesa a lo largo del eje de la A1.

III.
LURRALDE IKUSPEGIA

III.
ENCUADRE TERRITORIAL

Hiri nagusien, industriaguneen eta landaguneen inguruan antolatutako gune batetik abiatuta, non ondo definitu eta hierarkizatutako, eta haien egitura ekonomikoetara oso lotutako funtzioak gauzatzen ziren, EAEk bilakaera izan du hiri-eskualde bihurtzeraino, bertan zentroen mugak, funtzioak eta jarduerak lurralde gero eta zabal eta desberdinagoetan hedatzen direlarik. Beste hiri eskualde batzuen antzeko eskala du, haiek ere tamaina demografiko eta geografiko oso antzekoa baitute eta dentsitate txikiagoak zenbaitetan, hiri-eredu estentsiboagoen ondorio, eta horrenbestez, beren biztanleria-masa kritikoa ez hain modu eraginkorrean aprobetxatzeko gai.

De un espacio organizado en torno a ciudades centrales, núcleos industriales y núcleos rurales, con funciones bien definidas y jerarquizadas y muy vinculadas a sus estructuras económicas, la CAPV ha evolucionado hacia una ciudad región en la que los límites de los centros y las funciones y actividades se difunden por territorios cada vez más amplios y diversos. Su escala es similar a la de otras ciudades región que presentan un tamaño demográfico y geográfico muy similar y densidades en ocasiones menores, fruto de modelos urbanos más extensivos, y, por tanto, capaces de aprovechar de forma menos eficaz su masa crítica poblacional.

EAEk, 2.175.819 biztanlerekin (1.119.441 emakume eta 1.056.378 gizon) (Eustat, 2018. urtea) 7.229,34 km²-ko azalera baten gainean, 300,73 biz/km² dentsitatea du, eta horren arabera, Europar Batasuneko erregio ez-metropolitarren artean dentsitate handienekoa

La CAPV, con una población de 2.175.819 habitantes (1.119.441 mujeres y 1.056.378 hombres) (Eustat año 2018) sobre una superficie de 7.229,34 Km², tiene una densidad de 300,73 hab/Km², lo que la sitúa como una de las regiones no metropolitanas con mayor

EAEk Europar Batasuneko erregio ez-metropolitarren artean dentsitate handienekoa duen erregioetako bat dugu.

La CAPV se sitúa como una de las regiones no metropolitanas con mayor densidad de la Unión Europea.

duen erregioetako bat dugu. Lurralde historikoei gagozkiela, Arabako dentsitatea 106,38 biz/km² da, Bizkaikoa 514,45 biz/km² eta Gipuzkoakoa 360,30 biz/km²

densidad de la Unión Europea. A nivel de territorios históricos, Álava, tiene una densidad de 106,38 hab/km², Bizkaia de 514,45 hab/Km² y Gipuzkoa de 360,30 hab/Km².

Biztanleria / Población

Araba / Álava		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE / CAPV	
Gizonak Hombres	Emakumeak Mujeres	Gizonak Hombres	Emakumeak Mujeres	Gizonak Hombres	Emakumeak Mujeres	Gizonak Hombres	Emakumeak Mujeres
159.497	164.095	548.408	591.018	347.755	364.328	1.056.378	1.119.441
323.592		**1.138.852**		**712.801**		**2.175.819**	

Hirigintza-erabileretarako kalifikatutako azalera 490,51 km² da, hau da, guztizko azaleraren % 6,78 eta 4.435,81 biz/km² hiri-biztanleriaren dentsitatea.

La superficie calificada para usos urbanísticos es de 490,51 km², lo que supone un 6,78% de la superficie total y una densidad de población urbana de 4.435,81 Hab/km².

UDALPLAN Eusko Jaurlaritzaren hirigintza-plangintzaren datu-basearen 2018ko datuen arabera, hirigintza-erabileretarako kalifikatutako azalera 490,51 km² da, hau da, guztizko azaleraren % 6,78 eta 4.435,81 biz/km² hiri-biztanleriaren dentsitatea, eta hori horrela, hiri-eremu zentralenei dagokien dentsitate propioa duen lurraldea dugu EAE.

Según los datos de 2018 de la base de datos del planeamiento urbanístico del Gobierno Vasco, UDALPLAN, la superficie calificada para usos urbanísticos es de 490,51 km², lo que supone un 6,78% de la superficie total y una densidad de población urbana de 4.435,81 Hab/km², lo cual caracteriza a la CAPV como un territorio con una densidad propia de las zonas urbanas más centrales.

Biztanle dentsitatea (Biz/Km²) / Densidad de población (Hab/Km²)

Araba / Álava		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE / CAPV	
Orokorra General	Hiritarra Urbana	Orokorra General	Hiritarra Urbana	Orokorra General	Hiritarra Urbana	Orokorra General	Hiritarra Urbana
106,38	2.050,40	514,45	5.647,19	360,30	5.444,37	300,73	4.435,81

Iturria: Eustat eta Udalplan 2018 *Fuente: Eustat y Udalplan año 2018*

Arabaren kasuan, urbanizatutako azalera 157,82 km²-koa da (% 5,19), 2.050,40 Biz/km² hiri-biztanleriako dentsitatearekin, Bizkaian azalera urbanizatua 201,77 km²-koa da (% 9,11) 5.647,19 Biz/km² hiri-dentsitatearekin, eta Gipuzkoan azalera urbanizatua 130,92 km²-koa da (% 6,62) 5.444,37 Biz/km² hiri-dentsitatearekin.

En el caso de Álava la superficie calificada es de 157,82 Km² (5,19%) con una densidad de población urbana de 2.050,40 Hab/Km², en Bizkaia son 201,77 Km² (9,11%) de superficie calificada con una densidad urbana de 5.647,19 Hab/Km² y en Gipuzkoa la superficie calificada es de 130,92Km² (6,62%) con una densidad urbana de 5.444,37 Hab/Km².

Espazio berean jende-masa kritiko nahikoa biltzeak kohesio-gradu handia bultzatzen du, jada adierazitakoari jarraikiz: trukeak eta komunikazio-harreman berriak pertsonen, erakundeen eta jardueren artean. Halaber, eragina du mugikortasun iraunkorrari eta zerbitzuak emateari lotutako hiri-zereginak eraginkortasunez garatzeko orduan, bai garraio publikoaren esparruan, bai fluxu metabolikoei lotutako azpiegituretan, baita ekipamendu eta oinarrizko zerbitzuetan ere. Hiru euskal hiriburuen hiri-dentsitateak honako hauek dira:

La reunión en un mismo espacio de una suficiente masa crítica de personas, tal y como ya se ha señalado, favorece un elevado grado de cohesión: intercambios y nuevas relaciones comunicativas entre personas, entes y actividades. También incide en el desarrollo eficiente de aquellas funciones urbanas ligadas a la movilidad sostenible y a la dotación de servicios tanto en el ámbito del transporte público, de las infraestructuras ligadas a los flujos metabólicos o de los equipamientos y los servicios básicos. Las densidades urbanas de las tres capitales vascas son las siguientes:

	Azalera guztira Superficie total	Biz. Población	Dentsitate orokorra Densidad General	Azalera kalifikatua Superficie calificada	Hiri-dentsitatea Densidad urbana
	(Km²)	(Hab)	(Hab./Km²)	(Km²)	(Hab./Km²)
Bilbao	40,59	342.397	8.435,50	19,38	17.664,54
Donostia / San Sebastián	61,00	180.558	2.959,97	23,69	7.621,76
Vitoria-Gasteiz	276,30	242.254	876,78	65,49	3.699,00

Iturria: Eustat eta Udalplan 2018 *Fuente: Eustat y Udalplan año 2018*

Adierazi denaz gain, lurraldean fenomeno batzuk daude, hain zuzen ere arindu nahi direnak:

- EAEn orain arte garatu diren azpiegiturek askotan eragotzi egin dute natur guneen arteko jarraitutasun ekologiko egokia. Horren ondorioz, sarritan ekosistema osasungaitzak dauzkaten "irlak" sortu dira, haien kanpoko aldeekin trukerik ezin izan delako egin eta ertzak narriatu direlako. Lurralde-zatikatze hori zuzendu egin behar da. Horretarako, korridore ekologikoen bitartez ingurumen aldetik garrantzi handiena duten espazioen artean jarraitutasun ekologikoa bermatzea eta EAEn azpiegitura berdearen plangintza egitea proposatzen da.
- Euskal ekonomiak 1995-2007 epealdian izan zuen gorakadari esker bizitegiko eta industriako lurzorua hedatu da. Aurreko urteetan gertatutako zabalkunde hori kontuan hartuta pentsa daiteke neurriak proposatu behar direla jada okupatuta dagoena hobetzeko eta zabalkundea moteltzeko: apustua egitea hiri-berroneratzearen alde, hiri-hazkundearen perimetroaren alde edo jada hiria denaren aurrean birdentsifikazioa lehenetsiko duen bizitegi-kuantifikazio baten alde, lurzoru berriak okupatu beharrean.
- Azken 20 urteetan ingurune fisikoari lan garrantzitsu bat egin dezala eskatu zaio: ingurune horren gainean egindako erabilerak dibertsifikatu dira, erabilera jakin batzuk deslokalizatu dira, eta lurzoru horretan berezkoak ziren beste erabilera batzuk intentsifikatu dira. Horren guztiak lurzoruan presio handia eragin du, eta kasu batzuetan lurzoru horren karga-gaitasuna arriskuan egon da. Oso gai konplexua da, eta lurraldearen antolamenduari dagokionez, horri aurre egiteko, erabilerak eta jarduera jakin batzuk definitu nahi dira, lurzoru urbanizaezinetik kanpoko ezarpena mugatu eta jarduerei kokapen arrazionalagoa eman.
- Horrekin lotuta, lurraldeak tokian nahiz modu globalean jasaten dituen presioen ondorioz, biztanleriarentzat arrisku jakin batzuk intentsifikatu dira, eta gainera, arriskuok gero eta maiztasun handiagoarekin gertatzen dira: uholdeak, luiziak, uraren kalitatea, klima-aldaketaren ondorioak. Beharrezkoa da arrisku horiek argiago ikusaraztea eta arriskuon ondorioak prebenitzea, ingurunean gidalerro batzuk ezarriz elementuetarako eta prozesuetarako, eta horrez gain, klima-aldaketa plangintzan garrantzitsua den aldagai gisa ikusarazi eta kontuan hartzea. Laburbilduta, helburua da, azpiegitura berdea bezalako elementuen bidez lurralde erresilienteagoa lortzea.

IV.
KLIMA-ALDAKETA

Gidalerroen eskalaren araberako lurralde-antolamenduari dagokion egokitze-kudeaketaren testuinguruan, klima-aldaketari aurre egiteak

Además de lo señalado, hay una serie de fenómenos que se observan en el territorio y que se desean mitigar:

- Las infraestructuras desarrolladas hasta la fecha en la CAPV han impedido en muchas ocasiones la debida continuidad ecológica entre espacios naturales. Ello ha llevado frecuentemente a la generación de "islas" con ecosistemas poco sanos, al no poder realizar un intercambio exterior a ellos y al degradarse sus bordes. Esta fragmentación territorial debe corregirse, y para ello se propone garantizar la continuidad ecológica entre los espacios de mayor relevancia ambiental a través de corredores ecológicos, y la planificación de la infraestructura verde en la CAPV.
- El crecimiento experimentado por la economía vasca durante el período 1995-2007 también ha llevado a una extensión del suelo residencial e industrial. Esa expansión producida en años anteriores lleva a pensar en la necesidad de proponer medidas para aprovechar mejor lo ya ocupado y frenar la expansión: la apuesta por la regeneración urbana, el perímetro de crecimiento urbano o una cuantificación residencial que prime la redensificación sobre lo ya urbano, frente a la ocupación de nuevo suelos.
- En los últimos 20 años se le ha demandado al medio físico una importante labor: se han diversificado los usos sobre él, se han deslocalizado determinados usos, mientras que otros que ya eran propios de él, se han intensificado. Todo ello ha provocado una importante presión sobre el territorio, en forma de poder comprometer en determinados casos su capacidad de carga. Se trata de un tema muy complejo que en lo que respecta a la ordenación del territorio se quiere afrontar con la definición de determinadas condiciones para la implantación de usos y actividades, una limitación de implantaciones ajenas al suelo no urbanizable y una localización más racional de las actividades.
- Ligado con lo anterior, las presiones que se ejercen sobre el territorio tanto a nivel local como global han dado lugar a la intensificación de determinados riesgos para la población, que además se producen cada vez con mayor frecuencia: inundaciones, deslizamientos, calidad del agua, efectos del cambio climático. Se hace necesario visibilizar de forma más clara estos riesgos, y prevenir sus efectos mediante el establecimiento de unas directrices en el medio físico para los elementos y procesos, además de visibilizar y contemplar el cambio climático como una variable importante en la planificación. Se trata en definitiva de que, a través de elementos como la infraestructura verde, se logre un territorio más resiliente.

IV.
CAMBIO CLIMÁTICO

En un contexto de gestión adaptativa que corresponde a la ordenación territorial a la escala de las Directrices, es preciso plasmar las implicaciones

Klima-aldaketari aurre egiteak lurralde- eta hirigintza-agirietan dituen ondorioak jasota geratu behar dira.

Es preciso plasmar las implicaciones que supone el abordar el reto del cambio climático en los documentos territoriales y urbanísticos.

lurralde- eta hirigintza-agirietan dituen ondorioak jasota geratu behar dira.

Klima-aldaketak lurraldean izan ditzakeen ondorioak argi zehaztu ezin daitezkeenez, «Klima 2050. 2050erako klima-aldaketaren Euskadiko estrategia» lanak Euskadiko klimaren bilakaera eta zaurgarritasuna jasotzen ditu.

Eusko Jaurlaritzak sustatutako zenbait ekimen klima-aldaketak lurraldean izango dituen eraginak ezaugarritzen ari dira; horien artean, «Klima-aldaketaren bereizmen handiko eskualdeko agertokiak Euskadirako» lanean jasotzen diren analisiek, 2100. urtera arteko proiekzio klimatikoak lortu dituzte Klima Aldaketari Buruzko Gobernuarteko Taldeko bosgarren txosteneko gidalerroei jarraikiz.

Euriteak

XXI. mendearen amaierarako urteko batez besteko prezipitazioek Euskadin % 15 inguru behera egingo dutela aurreikusten da, eta joera hori nabarmenagoa izango da udaberrian eta EAEko hegoalde eta hego-mendebaldean. Muturreko prezipitazioek % 30eko hazkundea izatea aurreikusten da, eta lehorte-aldi luzeak gertatzea horien ondoren. Bestalde, murriztera joko luke prezipitazio leuneko egunen kopuruak; aldiz, gora egingo lukete euri-egun bakoitzak batez beste ekarritako ur kantitateak, euri-egun batean metatutako gehieneko prezipitazioak, eta ondoz ondoko egun lehorren kopuruak».

Tenperaturak

Tenperaturaren datu historikoek, hiru hiriburuen inguruan jasoak, goranzko joera erakusten dute. 1995-2014 aldiko hemeretzi urteak izan dira beroenak lurrazaleko tenperaturaren erregistro instrumentaletan (2010. urtea kenduta) eta Euskadiko batez besteko tenperatura 2000-2014 aldian 0,8 ºC handiagoa izan da 1971-2000 aldian baino. Mendearen amaierarako 1,5 ºC eta 5 ºC arteko urteko batez besteko tenperaturaren igoera aurreikusten da kontuan hartutako berotegi-efektuko gasen emisioen arabera; igoera nabarmenagoa izango da isurialde mediterraneoan.

Mende amaieran, muturreko tenperatura baxuenak 1-3 ºC artean igo daitezke neguko hilabeteetan. Horrez gainera, klima-ereduek erakusten dute izotz-egunen kopurua % 50 jaitsiko dela (Tmin< 0 ºC), eta iraupenean eta maiztasunean gutxitu egingo direla. Aurreikusten da hotz-boladak desagertu egingo direla guztiz mendearen erdialderako.

Muturreko tenperatura altuenen kasuan udako hilabeteetan zehar 3 ºC-ko hazkundea izango duen joera positiboa erakusten dute proiekzioek XXI. mendearen amaierarako, hala gau tropikalen

que supone el abordar el reto del cambio climático en los documentos territoriales y urbanísticos.

Dentro de la incertidumbre que conlleva la concreción de las consecuencias territoriales del cambio climático, la "Estrategia de Cambio Climático 2050 del País Vasco. Klima 2050" recoge la evolución del clima y de la vulnerabilidad en Euskadi.

Diferentes iniciativas impulsadas por el Gobierno Vasco están caracterizando los impactos del cambio climático para el territorio, entre ellos, los análisis de "Escenarios regionales de cambio climático de alta resolución para el País Vasco" han obtenido proyecciones climáticas hasta el año 2100 siguiendo las directrices del Quinto Informe del Panel Intergubernamental de Cambio Climático (IPCC).

Precipitaciones

Para el caso de Euskadi se esperaría para finales de s XXI, en promedio, una disminución de entorno al 15% en la precipitación media anual, que será más acusada en el periodo de primavera y en el sur y sudoeste de la CAPV. Con respecto a la precipitación extrema, se prevé un incremento del 30% de estos episodios, seguidos de largos periodos de sequía. Por otro lado, tendería a reducirse el número de días con precipitaciones suaves, incrementándose la cantidad media de agua que cae cada día de lluvia, la precipitación máxima acumulada en un día de lluvia o el número de días consecutivos."

Temperaturas

Los datos históricos de temperatura, recogidos en el entorno de las tres capitales vascas, muestran una tendencia creciente. El periodo 1995-2014 figura entre los diecinueve años más cálidos en los registros instrumentales de la temperatura superficial (excepto el año 2010) y la temperatura media de Euskadi para el periodo 2000-2014 ha sido 0,8ºC más alta con respecto al periodo 1971-2000. Para finales de siglo se prevé un incremento de la temperatura media anual que oscilará, dependiendo del escenario de emisiones de gases de efecto invernadero que se considere, entre los 1,5ºC y los 5ºC, siendo este mayor para la vertiente mediterránea.

En cuanto a las temperaturas mínimas extremas a fin de siglo podrán subir entre 1 y 3ºC durante los meses de invierno. Además, los modelos climáticos muestran una disminución del 50% en el número de días helados (Temperatura mínima < 0ºC) que, junto con el descenso en la duración y frecuencia, señalan hacia la desaparición de las olas de frío para mediados de siglo.

Con respecto a las temperaturas máximas extremas, las proyecciones muestran una tendencia positiva con un incremento de 3ºC durante los meses de verano a finales del s. XXI, un incremento de las

1,5 ºC eta 5 ºC arteko tenperaturaren urteko batez besteko igoera 2100. urterako. Urteko batez besteko tenperaturaren bariazioa EAEn (ºC)

Aumento de entre 1, 5º C y 5 º C en la temperatura media anual para 2100
ºC Variación de la temperatura media anual en el País Vasco



Iturria: Eusko Jaurlaritza

2. irudiak 1971-2000 erreferentzia-aldiarekiko urteko batez besteko tenperaturaren bilakaera erakusten du. Legenda: Marra gorria: aztertutako datu historikoen batezbestekoa; Marra beltz etena: berotegi-efektuko gasen emisioen RCP4.5 batezbesteko mailako egoera baterako proiekzioen batezbestekoa; Marra beltz jarraitua: berotegi-efektuko gasen emisioen RCP8.5 maila oso altuko egoera baterako proiekzioen batezbestekoa; Marradura gris iluna: RCP4.5 egoeraren dispertsioa; Marradura gris argia; RCP8.5 egoeraren dispertsioa.

Fuente: Gobierno Vasco

La figura 2 muestra la evolución de la temperatura media anual con respecto al periodo de referencia (1971-2000). Leyenda: Línea roja: media de datos históricos observados; Línea negra discontinua: media de proyecciones para un escenario con un nivel medio de emisiones de Gases Efecto Invernadero RCP4.5; Línea negra continua: media de proyecciones para un escenario con un nivel muy alto de emisiones de Gases Efecto Invernadero RCP8.5; Sombreado gris oscuro: dispersión del escenario RCP4.5; Sombreado gris claro; dispersión del escenario RCP8.5.

areagotzea (> 20 º-ko gutxieneko tenperatura) nola bero-boladen kopurua eta iraupena areagotzea».

noches tropicales (temperatura mínima >20º) y un incremento en número y duración de los episodios de olas de calor".

Itsasoaren maila igotzea

Bizkaiko golkoko itsasoaren batez besteko mailak 18 eta 22 cm artean gora egitea aurreikusten da 2050erako, eta 53 eta 80 cm artean 2100erako, Klima Aldaketari Buruzko Gobernuarteko Taldearen bosgarren txosteneko emisio-egoerekin bat etorrita. Hondartzen zabaleraren murrizketa eta estuarioetan uholdeak izateko arriskua eragingo ditu horrek.

Ascenso del nivel del mar

Se espera que el nivel medio del mar en el golfo de Bizkaia ascienda entre los 18 y 22cm en el año 2050 y entre los 53 y 80cm en el año 2100, de acuerdo con los escenarios de emisiones del Quinto Informe de Evaluación del IPCC. Esto provocará el retroceso de la anchura de playas y el incremento del riesgo de inundaciones en los estuarios. (Frase al margen) ()

Bizkaiko golkoko itsasoaren batez besteko mailak 18 eta 22 cm artean gora egitea aurreikusten da 2050erako.

Se espera que el nivel medio del mar en el golfo de Bizkaia ascienda entre los 18 y 22cm en el año 2050.

Aurreikusitako klima aldaketaren eragin nagusiak Euskadin.

Uholde-arriskua. Uholde-arriskuan klima-aldaketaren efektuei buruzko tokiko ikerketek iradokitzen dute uraldien emari maximoak, uholdeak hartutako azalerak, emariaren balioak eta korrontearen abiadura nabarmen hazi daitezkeela prezipitazio bizien areagotzearen ondorioz, zeinak

Principales impactos esperados del cambio climático en Euskadi

Riesgo de Inundación Los estudios locales sobre los efectos del cambio climático en el riesgo de inundación sugieren que se podrían llegar a producir incrementos significativos de los caudales máximos de avenida, así como de la superficie inundada y de los valores de caudal y velocidad de la corriente debido al



Vitoria-Gasteiz

kalteak eta galerak izateko probabilitatea areagotu dezaketen uholdeak direla eta. Era berean, itsasoaren maila igotzeak eta muturreko olatuak areagotzeak uholdeak sor ditzake, larriagoak suerta daitezkeenak itsasertzetik gertu eraikitako azpiegitura eta baliabideen pilatzea dela eta.

Osasuna. Gure hiri nagusietan gero eta bero-bolada gehiago emango da, eta horien ondorioz, areagotu egingo dira gaixotasunak (arnasketa-gaixotasunak, azaleko gaixotasunak, bektore bidez transmitituak, etab.), okertu egingo da giza konforta eta heriotza-tasa ere igo liteke.

Natura-ingurunea. Kostako hezeguneetako eta paduretako eraginak ebaluatzeko egindako ikerketek adierazten dute egungo azaleraren % 7ri eragingo diola itsasoaren maila igotzeak XXI. mendearen amaierarako. Igoera horri padurek, hezeguneek eta mareen arteko beste komunitate batzuek, fanerogama-larreak kasu, barnerantz naturalki migratzearekin erantzun diezaiokete, nahiz eta kasu askotan hori eragotzi egingo duten hesi finko artifizialek eta naturalek; ondorioz, eragina izango da biodibertsitatean.

Jada nabaritzen da eragina itsas biodibertsitatean; adibidez, Gelidium alga gutxitu da, uraren tenperatura igotzeagatik eta eguzki-egunak areagotzeagatik.

Nekazaritza- eta basozaintza-sektoreak. Nekazaritza-sektorean aurreikusten denez, klima-aldaketak zenbait laboreren errendimendua areagotuko du (neguko garia, mahatsondoa); gainera, uraren erabileran eraginkortasuna haziko da, eta faktore hori erabakigarria izango da landareak CO_2 maila handiarekin eta lehorteekin aldi berean hazten direnean. Beste ondorio batzuk ere espero dira

incremento de precipitaciones intensas, que podrían aumentar la probabilidad de daños y pérdidas debido a las inundaciones. Del mismo modo, el ascenso del nivel del mar y el aumento del oleaje extremo pueden producir inundaciones que pueden agravarse por la concentración de infraestructuras y medio construido cerca de la línea de costa.

Salud. Nuestras principales ciudades se enfrentarán a un aumento de olas de calor, que generarán un incremento de las enfermedades (respiratorias, de la piel, transmitidas por vectores etc.), un empeoramiento del confort humano y podrían llegar a provocar un incremento de la mortalidad.

Medio Natural. Los estudios realizados para evaluar los impactos en humedales costeros y marismas indican que un 7% de su superficie actual podría verse afectada por ascenso del nivel del mar para finales del s. XXI. La respuesta de las marismas, humedales y otras comunidades intermareales, como las praderas de fanerógamas, a dicho ascenso podrían tener lugar a través de la migración natural hacia el interior, aunque en muchos casos se verá impedida por barreras fijas artificiales y naturales, con el consiguiente impacto en biodiversidad.

El impacto en la biodiversidad marina ya se aprecia, por ejemplo, en la disminución del alga Gelidium debido al aumento de la temperatura del agua e incremento de días soleados.

Sector agrario y forestal. En el sector agrario, se espera que el cambio climático pueda tener un efecto positivo en el rendimiento de ciertos cultivos (trigo de invierno, vid) además de la necesidad de un incremento de la eficiencia en el uso del agua, factor que será determinante cuando las plantas crezcan simultáneamente a elevado CO_2 y con sequía. Así mismo se esperan otros efectos como

gainera, hala nola ardoen kalitateak behera egitea mahatsondoen kasuan, ondorio kaltegarriak abelgorrietan mendietako larreak ez direlako hain erraz berriz sortuko, patogenoen hazkunde-erritmoaren azkartzea eta horien hilkortasunak behera egitea, eta abar.

Basozaintzan eragin nabarmena izango da isurialde atlantikoko mendietako eremuetan, 900 metrotik gora batez ere, tenperaturak igo egingo direlako. Mediterraneoko isurialdeko ekosistemetan areagotu egingo dira lehorteak eta defizit hidrikoa. Nitxo ekologikoen ereduak erabiliz egindako iragarpenek erakusten dute eragin nabarmena izango dutela hariztietan (Quercus Robur), pagadiengan (Fagus Sylvática) eta pinu itzaltsuengan (Pinus radiata); espero da horien nitxo ia guztiak desagertuko direla 2080rako eta Europa iparralderantz lekualdatuko direla pixkanaka XXI. mendean. Aurreikusten da baita aldaketak gertatzea baso-ustiategien errentagarritasun ekonomikoan, nabarmen areagotzea kaltetutako egurraren urteko kopurua perturbazio naturalak direla-eta, ondorioak gertatzea intsektuen izurrien, beren arerio naturalen eta ostalarien orekaren artean, zuhaitzen osasuna eta bizirautea arriskuan jartzeko probabilitatea ematea udako lehorteen maiztasuna eta laztasuna dela eta, eta abar

una disminución de la calidad de los vinos en el caso del cultivo de la vid, efectos perjudiciales al sector de ganado vacuno por el descenso en la capacidad de carga de los pastos de montaña, aceleración del ritmo de crecimiento de patógenos y disminución de su mortalidad, etc.

Con respecto al sector forestal, la vertiente atlántica sufrirá impacto en las zonas de montaña debido al aumento de temperatura, sobre todo por encima de 900m. Los ecosistemas de la vertiente mediterránea se verán afectadas por un aumento de las sequías y del déficit hídrico. Las predicciones utilizando modelos de nicho ecológico muestran un impacto significativo sobre el robledal (Quercus Robur), el hayedo (Fagus Sylvática) y el pino insigne (Pinus Radiata) para los que se espera la desaparición casi total de sus nichos para el año 2080 y un desplazamiento progresivo de los mismos hacia el norte de Europa a lo largo del s XXI. Además, se prevé una alteración de la rentabilidad económica de las explotaciones forestales, aumento significativo del volumen anual de madera dañada por perturbaciones naturales, afección al equilibrio entre las plagas de insectos, sus enemigos naturales y sus hospedadores, probabilidad de puesta en peligro de la salud de los árboles y su supervivencia por el aumento de la frecuencia y severidad de las sequías de verano, etc.

2

Lurralde Ereduaren Oinarriak eta Printzipio Gidariak

Bases y Principios Rectores del Modelo Territorial

Lurralde-ereduaren oinarriak	**2.1.**	Bases del Modelo Territorial
LAGen berrikuspenaren printzipio gidariak	**2.2.**	Principios rectores de la revisión de las DOT

2.1. Lurralde-ereduaren oinarriak

1997ko Gidalerroen lurralde-ereduko oinarriek zenbait elementurekin lotutako gaiei erantzuten diete, esate baterako, lehiakortasun ekonomikoko, gizarte-ongizateko eta garapen iraunkorreko irizpide batzuei erantzuteko premia, demografia atzera doala eta biztanleria zahartzen ari dela erakusten duen dinamika batean; industria tradizionalean oinarritako eredua gainditzeko premia; EAEko lurralde-eredua zehaztearekin zerikusia duten gai nagusiei buruzko adostasun zabala eskuratzeko premia; EAEko hiriburuen gune anitzeko sistema garapen ekonomikoko gune garrantzitsuenekin behin betikoz lotzeko premia eta kulturari, ingurumenari eta hirigintzari dagokienez balio handia duten eta ekonomikoki eta demografikoki atzerantz doazen gune txikiak berreskuratzeko estrategia integratuak planteatzeko premia; politika sektoriala eta udal-plangintzak koordinatzeko premia; eta gure lurraldeak Europako testuinguruan eta, bereziki, Arku Atlantikoan, duen kokapen estrategikoari balioa emateko premia.

Oinarri horiek indarrean jarraitzen dute eta, horrenbestez, berrikusitako lurralde-ereduaren oinarrietan integratzen dira, betiere datozen hogei urteetan lurralde-estrategian kontuan hartu beharreko ikuspegi berri batzuek eguneratuta eta osatuta, hala nola hiri-berroneratzeari ematen zaion arreta berezia, lurzorua balioan jartzea baliabide mugatu gisa, klima-aldaketa, mugikortasun iraunkorra, paisaia, azpiegitura berdea, ekosistemen zerbitzuak, baliabideen kudeaketa iraunkorra, generoaren ikuspegia, osasuna, irisgarritasuna, euskara, immigrazioa, parte-hartzea eta gobernantza ona, besteak beste.

Lurralde-estrategia berriaren oinarriak Europar Batasunean zein mundu osoan identifikatutako lurralde-erronkekin lerrokatzen dira.

"2020ko Europar Batasunaren Lurralde Agendak" honako lurralde-lehentasun hauek finkatzen ditu: garapen polizentriko eta orekatua sustatzea; garapen integratua bultzatzea hirietan, landa-erregioetan eta erregio espezifikoetan; lurralde-integrazioa sustatzea mugaz haraindiko eta nazioaz haraindiko erregio funtzionaletan; erregioen lehiakortasun globala bermatzea tokiko ekonomia sendo batzuen oinarriaren gainean; partikularren, komunitateen eta enpresen konektibitatea hobetzea; erregioen balio ekologiko, paisajistiko eta kulturalak kudeatzea eta konektatzea; eta gobernantza ona sustatzea.

Mundu osoa hartuta, 2015eko irailean Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutako "Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendak" Garapen Iraunkorreko 17 Helburu ezarri zituen hiru dimentsiotan –ekonomikoa, gizarte-arloko eta ingurumen-arlokoa–, planeta osoari aplikatzeko moduan. Garapen Iraunkorreko 17

2.1. Bases del modelo territorial

Las bases del modelo territorial de las Directrices de 1997 responden a cuestiones relacionadas con el bienestar social, la competitividad económica y el desarrollo sostenible, en una dinámica demográfica regresiva y de envejecimiento de la población; con superar el modelo basado en la industria tradicional; con alcanzar un amplio consenso sobre los grandes temas asociados a la definición del modelo territorial de la CAPV; con conectar definitivamente el sistema polinuclear vasco de capitales con los puntos neurálgicos de desarrollo económico, y con plantear estrategias integradas de recuperación de núcleos pequeños regresivos económica y demográficamente de gran valor cultural, ambiental y urbano; de coordinar las políticas sectoriales y los planeamientos municipales; y de poner en valor la ubicación clave de nuestro territorio en el contexto europeo y, especialmente, en el Arco Atlántico.

Estas bases siguen manteniendo su vigencia y, en consecuencia, se integran en las bases del modelo territorial revisado aunque actualizadas y complementadas por unas nuevas perspectivas a tener en cuenta en la estrategia territorial de los próximos veinte años, como es la especial atención a la regeneración urbana, la puesta en valor del suelo como recurso limitado, el cambio climático, la movilidad sostenible, el paisaje, la infraestructura verde, los servicios de los ecosistemas, la gestión sostenible de los recursos, la perspectiva de género, la salud, la accesibilidad, el euskera, la inmigración, la participación y la buena gobernanza, entre otros.

Las bases de la nueva estrategia territorial se alinean con los retos territoriales identificados tanto a nivel de la Unión Europea, como a nivel mundial.

Lurralde-estrategia berriaren oinarriak Europar Batasunean zein mundu osoan identifikatutako lurralde-erronkekin lerrokatzen dira.

Las bases de la nueva estrategia territorial se alinean con los retos territoriales identificados tanto a nivel de la Unión Europea, como a nivel mundial.

La "Agenda Territorial de la Unión Europea 2020" fija las siguientes prioridades territoriales: promover un desarrollo territorial policéntrico y equilibrado; fomentar un desarrollo integrado en las ciudades, las regiones rurales y regiones específicas; promover la integración territorial en las regiones funcionales transfronterizas y transnacionales; garantizar la competitividad global de las regiones sobre la base de unas economías locales sólidas; mejorar la conectividad territorial de particulares, comunidades y empresas; gestionar y conectar valores ecológicos, paisajísticos y culturales de las regiones; y promover la buena gobernanza.

A nivel mundial, la "Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible" aprobada por la Asamblea General de las Naciones Unidas en septiembre de 2015 estableció 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) en sus tres dimensiones económica, social y ambiental aplicable en el conjunto del planeta. De entre los 17



Vitoria-Gasteiz

Helburuen arteko batzuek eragin garbia dute LAGetan lurralde-antolamenduarekin duten zuzeneko harremana dela-eta, hala nola honako hauek: Garapen Iraunkorreko 11. Helburua: Hiriak eta kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta iraunkorrak izan daitezela lortzea, Garapen Iraunkorreko 15. Helburua: Lurreko ekosistemen erabilera iraunkorra babestea, ezartzea eta bultzatzea, basoak modu iraunkorrean kudeatzea, desertifikazioaren aurka borrokatzea, lurren degradazioa geldiaraztea eta iraultzea, eta dibertsitate biologikoaren galera etetea, eta Garapen Iraunkorreko 9. Helburua: Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta iraunkorra sustatzea, eta berrikuntza bultzatzea.

Quiton, 2016ko urrian Etxebizitzari eta Hiri-garapen Iraunkorrari buruzko hirugarren Biltzarrean (HABITAT III) Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren garapen gisa onartu zen munduko "Hiri Agenda Berriak" lurralde-garapen iraunkor eta orekatua sustatzen du, non udalerriak eta giza kokaguneak konpaktuak

ODS algunos de ellos tienen una incidencia clara en las DOT por su relación directa con la ordenación territorial, como son principalmente los siguientes: el ODS nº 11: Lograr que las ciudades y los asentamientos sean inclusivos, seguros, resilientes y sostenibles, el ODS nº 15: Proteger, establecer y promover el uso sostenible de los ecosistemas terrestres, gestionar los bosques de forma sostenible, luchar contra la desertificación, detener e invertir la degradación de las tierras y poner freno a la pérdida de la diversidad biológica, y el ODS nº 9: Construir infraestructuras resilientes, promover la industrialización inclusiva y sostenible y fomentar la innovación.

La "Nueva Agenda Urbana" mundial aprobada en Quito en octubre de 2016 en la tercera Conferencia de las Naciones Unidas sobre Vivienda y Desarrollo Urbano Sostenible (HABITAT III) como desarrollo de la "Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible" promueve un desarrollo territorial sostenible y

izango diren eta konektatuta egongo diren; hiri-ingurunearen eta landa-ingurunearen arteko erlazioa sendotzeko moduan, baita sektoreen arteko erlazioa ere lurralde-antolamendua administrazio-mailen erakundearteko lankidetzaren eta parte-hartze sozialaren oinarriaren gainean; herri eta hirien erresilientzia, kontsumoaren eta ekoizpen iraunkorraren bidez, ekosistemen zerbitzuaren eta bioaniztasunaren babesa eta balioan jartzea, klima-aldaketak hiri-sistemetan duen eraginera egokitzea eta eragin hori apaltzea; eta hiri-ingurune inklusibo eta iraunkorrak, enplegu bidezko eta ekitatiboa sortuko dutenak, produktiboak, lehiakorrak, dibertsifikatuak eta berritzaileak direnak, besteak beste.

2016ko maiatzean Amsterdamgo Itunak onartutako Europar Batasunaren Hiri Agendak lehentasun berezia ematen die lurraldearen erabilera iraunkorrarekin lotuta dauden gaiei eta naturan oinarritutako soluzioei; klima-aldaketarako egokitzapena, azpiegitura berdean oinarritutako soluzioak barne; airearen kalitatea; hiri-mugikortasuna; etxebizitza; etorkinen eta errefuxiatuen inklusioa; ekonomia zirkularra; enplegua eta gaitasun profesionalak tokiko ekonomian; trantsizio digitala; kontratazio publiko berritzaile eta arduratsua. Europar Batasunaren Hiri Agendak adierazten ditu, halaber, zeharkako zenbait lehentasun, hala nola: hiri-gobernantza eraginkorra eta partaidetza sustatzen duena; administrazioen arteko erlaziozko gobernantza, hiri-arlokoaren eta landa-arlokoaren artekoa, mugaz haraindiko lankidetzan; ikuspegi berritzaileak, smartcity deitutakoenak bezalakoak; eta generoa.

Era berean, "Euskal Deklarazioan" ezarritako irizpideak partekatzen dira; duela 20 urte baino gehiago Hiri eta

equilibrado, donde los municipios y los asentamientos humanos sean compactos y estén conectados; que se fortalezca la relación entre el medio urbano y el medio rural, así como la relación intersectorial en la ordenación territorial sobre la base de la colaboración interinstitucional de los distintos niveles administrativos y de la participación social; la resiliencia de los pueblos y ciudades, a través del consumo y la producción sostenible, la protección y la puesta en valor de los servicios de los ecosistemas y la biodiversidad, y la adaptación y la mitigación del impacto del cambio climático en los sistemas urbanos; y entornos urbanos inclusivos y sostenibles, que creen empleo justo y equitativo, que sean productivos, competitivos, diversificados e innovadores, entre otros.

La "Agenda Urbana de la Unión Europea" aprobada por el Pacto de Ámsterdam en mayo de 2016 que concede una especial prioridad a las cuestiones relacionadas con el uso sostenible del territorio y las soluciones basadas en la naturaleza; la adaptación al cambio climático, incluidas las soluciones basadas en la infraestructura verde; la calidad del aire; la movilidad urbana; la transición energética; la pobreza urbana; la vivienda; la inclusión de personas migrantes y refugiadas; la economía circular; el empleo y las competencias profesionales en la economía local; la transición digital; la contratación pública innovadora y responsable. La "Agenda Urbana de la Unión Europea" señala, asimismo, una serie de prioridades transversales como son: la gobernanza urbana efectiva y participativa; la gobernanza interrelacional entre distintas administraciones, entre lo urbano y lo rural, en la cooperación transfronteriza; enfoques innovadores como el de las smartcities; y el género.

Asimismo, se comparten los criterios establecidos en la "Declaración Vasca", sucesora de la pionera Carta



Lezo

Herri Iraunkorren Europako Konferentziak onartutako Aalborgeko Gutun aitzindariaren jarraitzailea dugu deklarazioa, eta 2016ko apirilean onartu zen Euskadin, zehazki Bilbaon, ICLEIk (iraunkortasunaren aldeko tokiko gobernuen nazioarteko sarea) eta Udalsareak (iraunkortasunerako udalerrien euskal sarea) antolatutako 8. Konferentziaren esparruan. "Euskal Deklarazioa" ibilbide-orri berri bat da Europako hiri eta herriak iraunkorrak, produktiboak, erresilienteak, bizigarriak eta inklusiboak izan daitezen, eta horretarako zenbait konpromiso proposatzen ditu ekonomia deskarbonizatzeko eta energia-eraginkortasuna sustatzeko; mugikortasun iraunkor eta irisgarria; biodibertsitatea eta ekosistemen zerbitzuak babestea eta hobetzea; lurzoruaren artifizializazioa mugatzea; baliabideen kudeaketa iraunkorra; klima-aldaketarako egokitzapena; erresilientzia; bizikidetza eta segurtasuna gune publikoetan; etxebizitza; gizarteratzea; eta lehiakortasuna eta tokiko enplegua.

de Aalborg adoptada por la Conferencia Europea de Ciudades y Pueblos Sostenibles hace más de 20 años, y que fue aprobada en Bilbao en abril de 2016, en el marco de la 8ª Conferencia organizada por ICLEI (la red internacional de gobiernos locales por la sostenibilidad) y Udalsarea (la red vasca de municipios hacia la sostenibilidad). La "Declaración Vasca" se define como la nueva hoja de ruta para que las ciudades y pueblos europeos sean sostenibles, productivos, resilientes, habitables e inclusivos y para ello propone una serie de compromisos dirigidos a descarbonizar la economía y promover la eficiencia energética; la movilidad sostenible y accesible; proteger y mejorar la biodiversidad y los servicios de los ecosistemas; limitar la artificialización del suelo; la gestión sostenible de los recursos; la adaptación al cambio climático; la resiliencia; la convivencia y la seguridad en espacios públicos; la vivienda; la inclusión social; y la competitividad y el empleo local.

Lurralde-ereduaren oinarri berrikusiek euskal lurralde-estrategiaren ikuspegiaren proiekzioa ematen digute gutxi gorabehera hogei urtera begira. Horregatik, planteatzen den ikuspegiak "lurraldea" aipatzen du ez elementu fisiko gisa, baizik eta lurralde-antolamendurako politikaren jardun-esparruarekin mugatzen duen elementu gisa, garatzeko jokaleku duen eskumen-esparru gisa. Hau da, lurraldearen kontzeptua bere hedadura eguneratu eta zabalenean, egitura fisikoa gehi gizartea den lurraldea.

Las bases revisadas del modelo territorial proyectan la visión de la estrategia territorial vasca en un horizonte aproximado de veinte años. De ahí que la visión que se plantea se refiere al "territorio" no como un elemento físico sino como el elemento que delimita el ámbito de actuación de la política de ordenación territorial, como el marco competencial en el que se desarrolla. Es decir, el concepto de territorio en su consideración más actualizada y en el sentido más amplio, el territorio como estructura física más sociedad.

Horrenbestez, berrikusitako lurralde-ereduaren oinarriek lurralde bat edo lurralde-antolamendurako politika bat proiektatzen dute, zeinak ikuspegi gisa lurralde-estrategia iraunkorra, inklusiboa, bizia, adimentsua, orekatua, elkarrekin erlazionatua eta partaidetza sustatzen duen.

Las bases del modelo territorial revisado proyectan, por lo tanto, un territorio o una política de ordenación territorial que tiene por visión ser una estrategia territorial sostenible, inclusiva, viva, inteligente, equilibrada, interrelacionada y participativa.

Berrikusitako lurralde-ereduaren oinarriek Lurralde-estrategia bat proiektatzen dute, zeinak lurralde-estrategia iraunkorra, inklusiboa, bizia, adimentsua, orekatua, elkarrekin erlazionatua eta partaidetza sustatzen duen.

Las bases del modelo territorial revisado proyectan una estrategia territorial sostenible, inclusiva, viva, inteligente, equilibrada, interrelacionada y participativa.

I. LURRALDE IRAUNKORRA

I. TERRITORIO SOSTENIBLE

Iraunkortasunaren kontzeptuaren esentzia zera da, etorkizuneko belaunaldiei beren beharrizanak asetzeko gaitasuna mugatzen ez duen ingurune bat helaraztea. Horrek baliabide naturalak modu arduratsuan kudeatzeko eskatzen du, ez berriztagarriak agortzea ekidinez eta, era berean, baliabide berriztagarriak beren berritze-erritmoa baino erritmo apalagoan aprobetxatzeko eskatzen du, baliabide horiek mugagabeki manten daitezela bermatzeko.

La esencia del concepto de sostenibilidad reside en legar a las generaciones futuras un entorno que no limite su capacidad para satisfacer sus propias necesidades. Implica la gestión responsable de los recursos naturales, de manera que se evite el agotamiento de los no renovables, junto con el aprovechamiento de los recursos renovables a un ritmo inferior a su tasa de renovación a fin de asegurar su mantenimiento indefinido.

Iraunkortasunaren kontzeptuaren esentzia zera da, etorkizuneko belaunaldiei beren beharrizanak asetzeko gaitasuna mugatzen ez duen ingurune bat helaraztea.

La esencia del concepto de sostenibilidad reside en legar a las generaciones futuras un entorno que no limite su capacidad para satisfacer sus propias necesidades.

Garapen jasangarriaren kontzeptuarekin lotutako lurralde jasangarritasuna hiru aldagairen (ingurumenekoa, ekonomikoa eta soziala) integraziotzat jo behar da. Hala ere, ez da laugarren bat ahaztu behar, aldagai kulturala, UNESCOk 2003. urtean sartutakoa, alegia.

La sostenibilidad territorial asimilada al concepto de desarrollo sostenible debe considerarse como la integración de las tres variables (ambiental, económica y social) sin olvidar una cuarta dimensión, la dimensión cultural, incorporada por la UNESCO en el año 2003.

Iraunkortasuna esparru zabalago batean txertatutako helburu modura planteatuta soilik da

La sostenibilidad sólo es posible si se plantea como un objetivo integrado en un marco más amplio que

bideragarri. Esparru horrek gizarte-batasuna ez ezik, ongizatea nahiz etorkizuneko erronkei aurre egiteko beharrezkoak diren baliabideen erabilgarritasuna ziurtatzeko adina aberastasun sortzeko eskatzen du. Iraunkortasuna ez da ingurumen arloko politiken emaitza soilik, nahiz eta politika horiek iraunkortasunaren arloan duten garrantzia handia izan. Lurralde-eredua eta lurralde- nahiz hirigintza-arloko ekimenak elementu erabakigarriak dira garapen iraunkorra lortzeko, izan ere, elementu horien ekarpenak funtsezkoak dira politika sektorialak egiaz bideragarri eta eraginkorrak izan daitezen.

incluye la cohesión social y la generación de la riqueza capaz de asegurar el bienestar y la disponibilidad de recursos necesarios para abordar los retos del futuro. La sostenibilidad no sólo es el resultado de políticas estrictamente medioambientales, aunque la importancia de estas en materia de sostenibilidad sea grande. El modelo territorial y las iniciativas territoriales y urbanísticas son elementos clave para lograr un desarrollo sostenible, pues sus aportaciones son esenciales para que las políticas sectoriales sean realmente viables y eficaces.



Igorre

Epe luzean garapen egiaz iraunkorra lortzeko gainditu beharreko erronka nagusiak lurralde- eta hirigintza-arloko gaiekin daude hertsiki lotuta. Lurzoruaren artifizializazioa elementu kritikoa da gure lurraldean. EAEko azaleraren % 6,77 gutxi gorabehera azpiegitura "grisak" eta zona urbanizatuek osatzen dute dagoeneko. Hazkuntza azpimarratzearen aurrean, hiri-kokaguneen trinkotasuna berreskuratzea proposatzen da, eraikitako zonen hedatze-prozesuak mugatzea eta eraikitako guneak berritu eta berrerabiltzeko ekimenak etorkizuneko ekimenen ardatz bihurtzea.

Muchos de los principales desafíos a los que nos enfrentamos para lograr un desarrollo realmente sostenible a largo plazo están directamente asociados a cuestiones territoriales y urbanísticas. La artificialización del suelo constituye un elemento crítico de nuestro territorio. Aproximadamente el 6,77% de la superficie de la CAPV corresponde ya a infraestructura "gris" y zonas urbanizadas. Frente al énfasis en el crecimiento, se propone recuperar la densidad de los asentamientos urbanos, limitar los procesos de expansión de las zonas edificadas y hacer de las iniciativas de renovación y reutilización de los espacios construidos el centro de las iniciativas de futuro.

Ikuspegi hau funtsezkoa da iraunkortasunerako; izan ere, prosezu naturalentzako euskarri diren lurzoruak hondatzea ekiditen du, baliabide estrategikoen kudeaketa hobetzea ahalbidetzen du (hondakinena eta urarena kasu), joan-etorri motorizatuen beharrizana murrizten du, eta garraio kolektiboko sistemen erabilera lehenesten du. Hiri-forma edo erabilera jakin batzuen kokapena, besteak beste, funtsezkoak dira garraio kolektiboa ibilgailu pribatuaren gainean nagusitzeko eta errepide berrien beharra murrizteko.

Este enfoque es esencial para la sostenibilidad, pues evita la destrucción de suelos que son soporte para los procesos naturales, permite mejorar la gestión de los residuos y de recursos estratégicos como el agua y la energía, reduce la necesidad de desplazamientos motorizados y favorece el uso de sistemas de transporte colectivo. Aspectos tales como la forma urbana o la localización de determinados usos resultan esenciales para que el transporte colectivo predomine sobre el vehículo privado y se reduzca la necesidad de nuevos viarios.

Lurraldearen iraunkortasun orokorrerako funtsezkoak diren eta aldaketa sakonak izan dituzten nekazaritza-espazioak, espazio naturalen arteko elkarlotura eta lurraldean egiten diren esku-hartzeetan paisaia ikuspegia txertatzea ezinbesteko ekimenak dira biodibertsitatea berreskuratzeko eta ziklo naturalak lehengoratzeko. Era berean, azpiegitura berde bat sustatu behar da, gizarteari zerbitzu ugari hornitzen dizkiona eta ingurumen- eta gizarte-fluxuak ahalbidetuko dituena hiri-esparru, landa-esparru eta natura-esparruen artean.

La gestión activa de unos espacios agrarios que son esenciales para la sostenibilidad global del territorio y que se enfrentan a profundos cambios, la interconexión de los espacios naturales y la incorporación de la perspectiva paisajística a las intervenciones en el territorio son iniciativas necesarias para recuperar la biodiversidad y restaurar los ciclos naturales. Así mismo, se debe fomentar una infraestructura verde que provea de múltiples servicios a la sociedad, y que facilite los flujos ambientales y sociales entre los ámbitos urbanos, rurales y naturales.

Garraio, energia, naturagune, gizarte-kohesio, hondakin-kudeaketa edota ur-horniduraren politikak egiaz efizienteak eta bideragarriak dira soilik aldez aurretik adostutako eta iraunkortasunaren helburuak lortzera bideratutako lurralde- eta hiri-eredu baten ondorio badira. Laburbilduta, eztabaidaren bidetik, honako ezaugarri hauek dituen lurralde baten alde lan egiten dugu:

Las políticas de transporte, energía, espacios naturales, cohesión social, gestión de residuos y abastecimiento de agua solo son verdaderamente eficientes y viables si derivan de un modelo territorial y urbano previamente consensuado y orientado a lograr los objetivos. En definitiva y de forma sintética el debate nos conduce a trabajar por un territorio:

- Ekosistema aberatsago eta funtzionalagoak, hobeto zaindu eta konektatuekin, eta paisaia erakargarriagoekin.
- Kokagune-sistema trinkoago eta konpaktuagoekin.
- Kanpora begirako lotura hobeekin eta barnean ere elkarlotura gehiagorekin.
- Oreka, aniztasun eta elkarlotura gehiago, Sarean egituratutako gune anitzeko Hiri-Eskualdea konfiguratuz.
- Garraio kolektiboaren sistemak ahalik eta gehien erabiltzera bideratutako lurralde batekin.
- Berrikuntzaren eta birziklapenaren aldeko jarrera hazkuntzaren aurreko alternatiba modura.
- Energiari dagokionez efizienteagoa, kutsatzaile gutxiago eta berotegi-efektuko gas gutxiago sortuz.
- Erresilientea eta giza-arrisku, gizarte-arrisku eta ingurumen-arriskuei aurre egin eta haietatik errekuperatzeko gai dena, haien inpaktua eta herritarren urrakortasuna minimizatuta.

- Con unos ecosistemas más ricos y funcionales, mejor conservados y conectados, y con paisajes más atractivos.
- Con un sistema de asentamientos más densos y compactos.
- Mejor conectado con el exterior y más interconectado internamente.
- Más equilibrado, diverso e interrelacionado, configurando una Ciudad-Región Policéntrica en Red.
- Con un territorio orientado a lograr un uso máximo de los sistemas de transporte colectivo.
- Que apuesta por la renovación y el reciclado como alternativas al crecimiento.
- Más eficiente energéticamente y menos generador de contaminantes y de gases de efecto invernadero.
- Resiliente y capaz de resistir y de recuperarse rápidamente de los riesgos humanos, sociales y medioambientales, minimizando su impacto y la vulnerabilidad de su ciudadanía.

Lurraldearen iraunkortasuna Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen abantaila lehiakorretan oinarritzen da eta bat dator gaur egun dagoeneko Europako herrialde guztiok partekatzen ditugun lurralde-arloko helburuekin: polizentrismoa, identitatea eta kokagune guztien arteko bateragarritasuna.

La sostenibilidad territorial se apoya en las ventajas competitivas del territorio vasco y está en la línea de los objetivos territoriales que hoy día ya compartimos casi todos los países europeos: policentrismo, identidad y complementariedad entre los diferentes asentamientos.

Polizentrismoak gune bakoitzari indarra emat en dio haren ahalmenetan oinarrituta, eta aukera gehiago ahalbidetzen ditu; izan ere, eratzen duen egitura konplexuago, askotarikoago, berritzaileago eta iraunkorragoa da, elementu bakoitza bakarka hartuta baino. Sarean egituratutako lurralde polizentrikoak sinergiak sortzen ditu, eta lurraldeko elementuen aniztasunean eta bateragarritasunean oinarritzen da.

El policentrismo dota de fortaleza a cada núcleo a partir de sus propias potencialidades y permite mayores oportunidades al configurar una estructura que en conjunto es más compleja, diversa, innovadora y sostenible que cada elemento por separado. El territorio policéntrico en red propicia la generación de sinergias y se basa en la variedad y complementariedad entre los distintos elementos territoriales.

Sareko egiturarekin batera, lurralde-elementuen kalitatea da etorkizunera begira beste faktore erabakigarri bat. Iraunkortasunerako eta bizi-kalitaterako baldintzak erakusten dituzten paisaia naturalek (basoetakoek, nekazaritzakoek edo kostaldekoek) eta hiri-paisaiek ingurune aldetiko aniztasuna osatzen dute, ezinbestekoa dena gure lurraldea erakargarria izan dadin.

Hiri-garapenerako teknologia berriak, eraikuntza iraunkorra, garraiatzeko modu berriak, bioklimatismoa eta energia berriztagarriak, bioteknologia eta ingurumenaren kalitatea, domotika eta telekomunikazioak eta beste zenbait alderdi gure lurraldearen eraikuntzan gero eta gehiago txertatu beharreko alderdiak dira, izan ere, elementu horien ekarpena funtsezkoa da lurraldearen kalitateari eta erakargarritasunari so eginez.

Junto a la estructura en red, la calidad de los elementos territoriales es el otro factor clave para el futuro. Paisajes naturales, de bosques, agrarios o litorales y también paisajes urbanos que expresan condiciones de sostenibilidad y de calidad de vida conforman una variedad de ambientes decisivos para el atractivo de nuestro territorio.

Nuevas tecnologías de gestión urbana, edificación sostenible, nuevos modos de transporte, bioclimatismo y energías renovables, biotecnología y calidad ambiental, domótica y telecomunicaciones y tantas otras deben incorporarse cada vez en mayor medida a la construcción de nuestro territorio, pues su contribución resulta esencial en términos de calidad y atractivo de este.

II.
LURRALDE INKLUSIBOA

II.
TERRITORIO INCLUSIVO

Badira zenbait alderdi gaur egun tratamendu espezifikoa eta arreta berezia eskatzen dutenak: genero-ikuspegia, osasuna, euskara, hondatuen dauden zonaldeetan arreta berezia eskaintzen duen hiri-birsorkuntza, irisgarritasun unibertsala.

Hay una serie de cuestiones que hoy merecen un tratamiento específico: la perspectiva de género, la salud, el euskera, la regeneración urbana con especial atención en las zonas vulnerables, la accesibilidad universal.

1997ko LAGak onartu zirenetik badira zenbait alderdi, 1997an berretsitako lurralde-ereduan zuzenean edo zeharka aipatzen baziren ere, gaur egun tratamendu espezifikoa eta arreta berezia eskatzen dutenak eta, gainera, alderdi horiek guztiek eragina dute lurralde sozial orekatu baten oinarrian.

Besteak beste, genero-ikuspegiarekin, ingurune osasuntsuekin, euskararen erabilera eta presentzia aintzat hartzearekin, hondatuen dauden zonaldeetan arreta berezia eskaintzen duen hiri-birsorkuntzarekin, irisgarritasun unibertsalarekin, etxebizitzaren gizarte-politikak lurraldean islatzearekin, jarraibide demografiko berriekin (esate baterako, jaiotze-tasa baxua, herritarren zahartzea eta immigrazioa), txirotasun energetikoarekin eta zahartze aktibo eta autonomoarekin lotutako alderdiei buruz ari gara.

Hiri-berroneratzea eta zaharkitutako edo erabileraz kanpoko espazio eraikien berreskurapena, irisgarritasun unibertsala, herritarren zahartzea, immigrazioa eta norberaren etxean garatzen den zahartze aktibo eta autonomoa 1997ko LAGen lurralde-oinarrietan agertzen diren alderdiak dira. Haatik, denbora honetan zehar, alderdi horiek garrantzia berezia hartu dute eta, era berean, arreta berezia eskaini behar zaie esku-hartze horiek duten efektu biderkatzailea dela medio, hirien alferrikako hedapena eta lurzorua beharrik gabe artifizializatzeko joera mugatzen saiatzen den testuinguru batean.

Genero-ikuspegiari dagokionez, beharrezkotzat jotzen da alderdi hori aztertzea eta ikuspegi hori lurraldearen antolamenduan eta hiri-antolamenduan txertatzeko modua aztertzea. Lan-bizitza eta bizitza pertsonala uztartzea eta segurtasun pertsonala pertsona guztiei eragiten dieten alderdiak dira, baina emakumeengan bereziki eragiten dute. Lurraldearen antolamendutik abiatuz genero-ikuspegiaren gaiari heltzea planteatzen da hainbat eremutan, esate baterako, zainketaren hirigintzan, mugikortasunean,

Desde la aprobación de las DOT de 1997, hay una serie de cuestiones que, si bien se mencionaban directa o indirectamente en el modelo territorial refrendado en 1997, hoy merecen un tratamiento específico y una especial atención y, además, todas ellas inciden en la base de un territorio social equilibrado.

Nos estamos refiriendo a cuestiones relacionadas con la perspectiva de género, los entornos saludables, la consideración de la utilización y la presencia del euskera, la regeneración urbana con especial atención en las zonas vulnerables, la accesibilidad universal, el reflejo territorial de la política social de vivienda, las nuevas pautas demográficas como la baja tasa de natalidad, el envejecimiento de la población y la inmigración, la pobreza energética, y el envejecimiento activo y autónomo, entre otros.

Cuestiones como la regeneración urbana y la recuperación de espacios construidos obsoletos o en desuso, la accesibilidad universal, el envejecimiento de la población, la inmigración y el envejecimiento activo y autónomo en el domicilio forman parte de las bases territoriales de las DOT de 1997, sin embargo, durante todo este tiempo, son cuestiones que han cobrado una especial importancia y requieren también una especial atención por el efecto multiplicador de estas actuaciones, en un contexto tendencial que trata de limitar la innecesaria expansión de las ciudades y la artificialización del suelo.

En el ámbito de la perspectiva de género, se considera necesario analizar la cuestión y ver el modo de trasladar esta perspectiva a la ordenación territorial y al urbanismo. La conciliación de la vida laboral y personal y la seguridad personal son cuestiones que afectan a todas las personas, pero tienen un especial impacto en las mujeres. Se plantea abordar desde la ordenación del territorio la perspectiva de género en ámbitos como el del urbanismo del cuidado, la movilidad, la accesibilidad, los equipamientos,

irisgarritasunean, ekipamenduetan, baita merkataritzan, etxebizitzaren arloan eta landa- nahiz hiri-habitatean ere, edota partaidetzan.

Osasunari dagokionez, osasun publikoaren joera tradizionalak ardatz izan du babestea, prebenitzea eta gaixotasunen arrisku-faktoreak murriztea; joera hori osasun positibora birbideratu da. Azken horrek osasunerako aktiboetan jartzen du arreta, esate baterako, pertsonek eta herriek osasuna eta ongizatea mantentzeko duten gaitasuna areagotzen duten faktore edo baliabideetan. Horrek berekin dakar aukera osasuntsuak erraz eta eskuragarriak izateko ingurune eta abaguneak garatzea. Lurralde antolamenduak eta hiri-garapenak eginkizun garrantzitsua betetzen dute, izan ere, eragin nabaria dute hiri-plangintzan, garraioan eta komunikazioetan, etxebizitza-arloan, ingurumenean, aisialdirako guneetan, gizarte-zerbitzuetan edota kulturarekin, kirolarekin, lanarekin, langabeziarekin eta tokiko ekonomiarekin lotutako zerbitzuetan. Horiek denak faktore zinez erabakigarriak dira komunitateetako osasunean eta gizarte desparekotasunetan. Halaber, aipagarria da gizarte-ekitatea; izan ere, ikusi denez, eremu hondatuenek bertan bizi diren pertsonen osasunaren kalitatean ere eragina dute. Horren ondorioz, berrikusitako lurralde-ereduan ingurune osasuntsuen ikuspegia ere barneratzea proposatzen da.

incluidos los comerciales, la vivienda, el hábitat rural y el urbano, o la participación, entre otros.

Con relación a la salud, la tendencia tradicional de la salud pública centrada en proteger, prevenir y reducir los factores de riesgo de las enfermedades, se ha reorientado hacia la salud positiva que centra el foco de atención en los activos para la salud, como factores o recursos que potencian la capacidad de las personas y de las poblaciones para mantener la salud y el bienestar, lo que supone tener en cuenta el desarrollo de entornos y oportunidades que hagan fáciles y accesibles las opciones sanas. La ordenación del territorio y el desarrollo urbano juegan un papel importante por su incidencia en la planificación urbana y rural, el transporte y las comunicaciones, la vivienda, el medio ambiente, las zonas de esparcimiento, los servicios sociales, los servicios relacionados con la cultura, el deporte, el trabajo, el desempleo y la economía local, todos ellos factores muy determinantes en la salud de las comunidades y en las desigualdades sociales. Asimismo, merece una mención especial la equidad social, tras la constatación de que las áreas más desfavorecidas también repercuten negativamente en la calidad de la salud de las personas que las habitan. En consecuencia, se propone incluir en el modelo territorial revisado también la perspectiva de los entornos saludables.



Deba

Gure lurraldeko hizkuntza ofizialen hizkuntza-ikuspegian lurraldearen ikuspegitik euskararen presentziaren gaineko tratamendua alderdi berritzailea da, ikergai bilakatzen ari dena. Lurralde-antolamendurako gidalerroen berrikuspen-prozesu horretan egokitzat jotzen da lurralde antolamenduak

En el caso de la perspectiva lingüística de las lenguas oficiales en nuestro territorio, el tratamiento de la presencia del euskera desde el enfoque territorial es una cuestión novedosa que está comenzando a ser objeto de estudio. En este proceso de revisión de las Directrices de Ordenación Territorial se considera

eta hiri-antolamenduak euskararen erabilerarekin eta lurralde-arloko proposamenak egiteko aukerarekin zer-nolako harremana duen aztertzea.

oportuno estudiar el modo en que la ordenación del territorio y el urbanismo interactúan con la utilización del euskera, y realizar propuestas territoriales.

III.
LURRALDE BIZIA

Testuinguruari jarraituz, planetarekin dugun harremana birdefinitu behar dugu, pertsonak eta natura harmonian bizi ahal izan daitezen

Adituek diotenez, Antropozeno aroan sartzen ari gara. Aro horren ezaugarria da gizakiaren jarduerek ekosistemetan izan duten eragin global nabarmena, hau da, aro honetan gizakiak dira planeta osoaren aldaketaren kausa nagusia, eta horregatik planetarekin dugun harremana birdefinitu behar dugu, pertsonak eta natura harmonian bizi ahal izan daitezen.

Gizakiaren jardueraren diagnostiko batek agerian jartzen du aurrean ditugun aldaketen dimentsio kritikoa, giza garapenak eragindako inpaktuen hazkunde esponentziala, bai eta biziari eusten dioten ekosistemen atzerapena ere. Gogoan hartuta nolako bilakaera izan duten hainbat adierazlek, adibidez klima-aldaketak, biodibertsitatearen galerak, estratosferako ozonoak, ozeanoen azidifikazioak, ur gezaren kontsumoak, edo kutsadura atmosferiko eta kimikoak, bada, aztertu egiten da bilakaera horrek zein ondorio izan ditzakeen, Gidalerroen berrikuspenaren antolamendu-ereduan oinarrituta eman behar den erantzunari dagokionez.

Sasoi berrietan sartzen ari garenez, iguripen berriak eta akordio sozial berriak sortu behar dira. Aldaketa global horrek behartuta, nazioarteko foro batzuek eta besteek zehaztu egin dituzte lortu behar diren helburu geoestrategikoak, eta helburu horien artean honako hauek azpimarratu behar dira: Adierazle orokorrak erabili beharra, hirien, landa-eremuaren eta sistema naturalen arteko harremanerako jarraibideak birformulatzea; ekonomiaren sektore erregionalari pizgarriak ematea; nekazaritzari eta ekologiarekin arduraz jokatzen duen dietari arreta ematea; eskari-eskaintza eta energia-eraginkortasunaren gaur egungo oinarriak eraldatzea, klimak jasaten dituen ondorioak murrizteko; sistema naturalak lehengoratzea; hondakin gutxiago sortzea eta aldi berean hondakin horiek baliabidea bihurtzeko ahalmena biderkatzea; klima-aldaketari egokitzeko prozesu orokorrak inplementatzea; azkenik, gai anitzeko egoera eta helburuak nahiz ibilbide-orriak eta horiek guztiak lortzeko aukera emango duten ekintzak definitzea.

Egoera horretan sortzen da bioeskualdearen kontzeptua, leku bakoitzeko hiri, landa eta natur sistemen artean harreman berria, iraunkorra eta erresilientea berreraikitzeko gako den espazioa. Bioeskualdeko ikuspegiak, hainbat egileren esanetan, garapen garaikidearen premisetan aldaketa bat dakar: Zainketa, ustiapenaren aurrean, ondasun orokorra, jabetze pribatuaren aurrean; beharrizanak betetzea, hazkunde mugagabearen aurrean; autonomia, kanpoaldearekiko mendekotasunaren

III.
TERRITORIO VIVO

El contexto actual exige redefinir nuestra relación con el planeta para que las personas y la naturaleza puedan coexistir en armonía.

Partiendo de afirmaciones expertas estamos entrando en la era del Antropoceno, caracterizada por el significativo impacto global que las actividades humanas han tenido sobre los ecosistemas, es decir, la época en la que los seres humanos son la causa principal del cambio planetario, lo que exige redefinir nuestra relación con el planeta para que las personas y la naturaleza puedan coexistir en armonía.

Un diagnóstico de la acción humana, refleja la dimensión crítica de las transformaciones que estamos afrontando, el crecimiento exponencial de los impactos inducidos por el desarrollo humano, así como el retroceso de los ecosistemas que soportan la vida. La evolución de diversos indicadores como, por ejemplo, el cambio climático, la pérdida de biodiversidad, el ozono estratosférico, la acidificación de los océanos, el consumo de agua dulce, o las contaminaciones atmosférica y química, inducen a analizar su repercusión en la respuesta que debe darse desde el modelo de ordenación de esta revisión de las Directrices.

La entrada en nuevos tiempos exige alumbrar nuevas perspectivas y nuevos acuerdos sociales. Este cambio global ha hecho precisar a distintos foros internacionales sobre los objetivos geoestratégicos que es preciso alcanzar, entre los que cabe destacar: la necesidad de manejar indicadores integrales; la reformulación de los patrones de relación entre las ciudades, el mundo rural y los sistemas naturales; estimular el sector regional de la economía; prestar atención a una agricultura y una dieta ecoresponsable; transformar las bases actuales de demanda oferta y eficiencia energética para reducir los efectos climáticos; recuperar los sistemas naturales; reducir la generación de desechos y a la vez multiplicar la capacidad de convertirlos en recursos; implementar procesos generales de adaptación al cambio climático; finalmente la definición de escenarios y objetivos multitemáticos y de hojas de ruta así como de acciones que permitan su consecución.

En este contexto surge el concepto de bioregión como el espacio clave en el que reconstruir una nueva relación sostenible y resiliente entre los sistemas urbanos, rurales y naturales de cada lugar. El enfoque bioregional supone según autores un cambio en premisas del desarrollo contemporáneo: cuidado frente a explotación; bien general frente a apropiación privada; satisfacción de necesidades frente a crecimiento ilimitado; autonomía frente a dependencia externa; complejidad frente a



Miramon. Donostia/San Sebastián

aurrean; konplexutasuna, espezializazioaren aurrean; elkarlana, hierarkiaren aurrean; lurraldekako garapena, garapen exogenoaren aurrean.

especialización; colaboración frente a jerarquía; desarrollo territorializado frente a desarrollo exógeno.

IV.
LURRALDE ADIMENTSUA

Euskal gizarteak eta bere ekonomiak euskarri industrial historiko eta sendoa dute eta horren isla dira bertako hiri-paisaia industriala eta gure lurraldean zehar finkatutako enpresak. Industria- eta enpresa-eremu hori merkatu ezberdinen (finantza-arlokoak barne) nazioarteko lehiakortasunaren baitan dago. 2007ko finantza-krisialdiak eta higiezinen merkatuaren krisialdiak ere euskal gizartea eta ekonomia astindu dituzte. Gastu publikoaren murrizketa handia ere izan da, euroaren sistemaren finantza-egonkortasuneko irizpideak betetzearen ondorioz. Horren guztiaren ondorioz, ezinbestekoa da proiektu berritzaileak bilatu eta abian jartzea enpresa-lehiakortasuna hobetzeko xedez, modu horretan, gure ingurunea dinamizatu eta kalitatezko enplegua sortzeko eta, hori guztia, ingurumena errespetatzeko jardute-irizpide batzuen arabera.

Gainera, badugu nahiko artifizializatutako lurraldea, hobeto erabil eta aprobetxa daitezkeen espazioak dituena. Horrela, dagoeneko urbanizatuta dagoen espazioari errendimendu handiagoa atera ahal zaio, behar baino lurzoru gehiago artifizializatu gabe. Hiri-ingurune hondatuenak, bizitegi erakoak nahiz industrialak, mugikortasun iraunkorrean, eraikin eta enpresen energia-eraginkortasunean, espazio publikoa balioesteko jarreran, naturan eta herritarren partaidetzan oinarritutako soluzioen erabileran ikuspegi berritzaileekin birsortuz gure eguneroko paisaia eta gure bizi-kalitatea hobetu egingo dira. Lanketa horiek gauzatu ahal izateko soluzio teknologiko eta sozial garrantzitsuak finkatu beharko

IV.
UN TERRITORIO INTELIGENTE

La sociedad vasca y su economía tiene un anclaje industrial histórico y consolidado y reflejo de ello es su paisaje urbano industrial y la implantación de las empresas en nuestro territorio. Un ámbito industrial y empresarial que está sometido a la competencia internacional de los distintos mercados, incluidos los financieros. La crisis financiera de 2007 y la crisis del mercado inmobiliario han azotado también a la sociedad y a la economía vasca. También se ha producido una importante reducción del gasto público derivada del cumplimiento de los criterios de estabilidad financiera del sistema del euro. Todo ello nos conduce a promover la búsqueda y la puesta en marcha de proyectos innovadores que supongan una mejora competitiva empresarial, que dinamice nuestro entorno y genere empleo de calidad, y todo ello, sobre la base de unos criterios de actuación respetuosos con el medio ambiente.

Tenemos además un territorio suficientemente artificializado que cuenta con espacios que pueden ser mejor utilizados y aprovechados para optimizar el rendimiento de lo ya urbanizado y evitar artificializar más suelo del necesario. La regeneración de entornos urbanos, residenciales e industriales más desfavorecidos con enfoques innovadores basados en la movilidad sostenible, en la eficiencia energética de edificios y empresas, en la puesta en valor del espacio público, en el empleo de soluciones basadas en la naturaleza y en la participación ciudadana revertirá en una mejora de nuestro paisaje cotidiano y de nuestra calidad de vida. La ejecución de estos trabajos llevará consigo la implantación de soluciones tecnológicas y

dira, gure ingurunea dinamizatze aldera. Finean, lurralde adimentsu batez ari gara.

Lurraldeak kokapen berezia dauka berrikuntzarako beharrezkoak diren faktoreen artean. Berrikuntzarako gainerako faktoreekin (hezkuntza, gizarte-balioak, kapitala eta enpresa- eta administrazio-ingurunea) alderatuta, lurraldearena da deslokalizatu ezin den faktore bakarra. Lurraldea abagune bat da identitateari, berezitasunari eta lehiakortasunari dagokienez. Ekonomia berriari dagozkion aktibo ukigarriak ditu eta bertan funtsezkoak dira berrikuntzarako faktore erabakigarriak, esate baterako, talentua eta enpresa berritzaileak erakarri eta finkatzeko gaitasuna eta beste espazio batzuekin modu aberasgarrian uztartzeko gaitasuna. Horrez gain, ezinbestekoa da garraio-sistema eraginkorrak egotea, kalitatezko paisaia eta espazio naturalak izatea eta bizitza- eta jarduera-eremu erakargarri eta iraunkorrak izatea.

EAE lurralde adimentsua izan dadin berrikuntza-faktoreak sustatu behar dira eta gure lurraldea eta gure jarduera ekonomikoak egoera berrietara egoki daitezela ahalbidetu behar da. Ekosistema naturalak bezalaxe, lurralde adimentsuak aldaketak eta berrikuntzak gertatzen diren espazioak dira, kasu honetan, gizartea egoera aldakorretara egokitzea ahalbidetzen dutenak. Ekosistema sozial horietako ahalmen berritzailea baldintzatzen duten ezaugarriak ekosistema naturaleko ezaugarrien antzekoak dira oso. Aniztasuna, konplexutasuna, dentsitatea, kanpora begirako jarrera, konektibitatea eta elkarrekiko erlaziorako aukerak dira espazio sortzaile eta berritzaileak bultzatzeko funtseko faktoreak.

V.
LURRALDE OREKATUA

Hiru hiriburuen gune anitzeko sistema hartzen da abiapuntutzat, osagarritasunetik eta elkarrekiko erlaziotik begiratuta.

Lurralde-oreka hartzen da aintzat LAGen berrikuspenaren lurralde-eredua haren gainean finkatzeko oinarrietako bat bezala, eta eredua garatzen duten lurralde-antolamendurako tresnetan hartu beharko da kontuan.

Lurralde-oreka lortze aldera, 1997ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek komunikazio-sare bat definitzea planteatzen dute, lurraldea irisgarriagoa egingo duena, eta horrekin batera, hiri-berroneratzearen eta zona degradatuen ingurune-hobekuntza sustatzea; edo gune txikiak sendotzea. LAGak eta haren ereduak helburu duen lurralde-oreka garatze aldera, Euskadiko hirien eta landa-eremuen sistema euskal hiriburuen gune anitzeko sisteman egituratzen da, Eremu Funtzionalak eta haien buruen sarea eta landagunerako estrategiak ere hor ditugularik. Planteamendu hori indarrekotzat eta baliozkotzat hartzen da berrikusitako lurralde-ereduan.

Hiru hiriburuen gune anitzeko sistema hartzen da abiapuntutzat, osagarritasunetik eta elkarrekiko

también sociales de calado para la dinamización de nuestro entorno. Estamos hablando en definitiva de un territorio inteligente.

El territorio ocupa un lugar singular entre los factores necesarios para la innovación. A diferencia de los restantes factores de innovación, como son la educación, los valores sociales, el capital y el entorno empresarial y administrativo, este es el único que no se puede deslocalizar. El territorio constituye una oportunidad en materia de identidad, diferenciación y competitividad. Incorpora activos tangibles de la nueva economía, para la cual resultan esenciales factores clave para la innovación tales como la capacidad para atraer y fijar talento y empresas innovadoras y para conectarse de forma enriquecedora con otros espacios, así como la existencia de sistemas de transporte eficaces, paisajes y espacios naturales de calidad y ámbitos de vida y de actividad atractivos y sostenibles.

Hacer de la CAPV un territorio inteligente implica impulsar los factores de innovación y facilitar la adaptación de nuestro territorio y de nuestras actividades económicas a las nuevas situaciones. Al igual que los ecosistemas naturales, los territorios inteligentes son espacios en los que se producen los cambios y novedades que permiten en este caso a la sociedad adaptarse a situaciones cambiantes. Los atributos que determinan el potencial innovador de estos ecosistemas sociales son muy similares a los de los ecosistemas naturales: La diversidad, la complejidad, la densidad, la apertura al exterior, la conectividad y las posibilidades de interrelación son los factores esenciales para impulsar espacios creativos e innovadores.

V.
TERRITORIO EQUILIBRADO

Se parte de un sistema polinuclear de las tres capitales concebido desde la complementariedad y la interrelación.

El equilibrio territorial se considera una de las bases sobre las que asentar el modelo territorial de la revisión de las DOT y deberá ser tenida en cuenta en los instrumentos de ordenación territorial que desarrollen el modelo.

Para alcanzar el equilibrio territorial las Directrices de 1997 plantean la definición de una red de comunicaciones que haga más accesible el territorio, la promoción de la renovación urbana y mejora ambiental de zonas degradadas, o el fortalecimiento de los núcleos pequeños. Para desarrollar las DOT y el equilibrio territorial que persigue su modelo, se estructura el sistema de ciudades y áreas rurales de Euskadi en el sistema polinuclear vasco de capitales, las Áreas Funcionales y su red de cabeceras y las estrategias para el espacio rural. Este planteamiento se considera vigente y válido en el modelo territorial revisado.

Se parte de un sistema polinuclear de las tres capitales concebido desde la complementariedad y



Bilbao

erlaziotik begiratuta, hiri-euskarri integratu bat eraikitzeko asmoz. Tarteko eskalan, Eremu Funtzionalak eta haiei dagozkien hiri-burutzak funtsezko piezak dira lurralde-orekako estrategia posibleak aplikatzeko EAEren testuinguru globalean. Buruen beharrezko lidertza lortu nahi da, eta komenigarria litzatekeen osagarritasuna Eremu Funtzional bakoitzeko gune eta lurralde guztien bokazioen artean.

Kokagune-sarearen hirugarren pieza gisa landagunea ageri da, eta 1997ko Gidalerroek zenbait arazo adierazten dituzte, hala nola enplegurako eta errentarako aukera nahiko ez izatea, ezinbesteko ekipamendu eta zerbitzuen gabezia garrantzitsua, despopulatzeari eta jarduera ekonomikoaren beherakadari buruzko prozesu estrukturalak. Funtsezkotzat jotzen da landa-eremuak balioan jartzeko estrategia bat sustatzea, betiere haien idiosinkrasia atxikita eta baldintza egokiak sortuta enplegua sortu eta enplegu hori garatzeko.

1997ko LAGek onartzen dute, halaber, hiru lurraldeetako bakoitzak arazo desberdinak dituela lurralde-orekaren gaiari dagokionez. Horrela, aipatzen da kontrastea dagoela Gipuzkoaren lurralde-oreka eredugarriaren, Bilbao Metropolitarrean dagoen biztanleriaren gehiegizko espazio-kontzentrazioaren eta Vitoria-Gasteizek bere Eremu Funtzionalaren testuinguruan duen makrozefaliaren artean. Horregatik proposatu ziren ekintza selektiboak, alde batetik, Gipuzkoan lurralde-orekako egungo mailak mantentzeko eta, bestetik, Bilbao Metropolitarraren

la interrelación, con objeto de constituir un soporte urbano integrado. A escala intermedia, las Áreas Funcionales y sus correspondientes cabeceras urbanas constituyen piezas clave para la aplicación de posibles estrategias de equilibrio territorial en el contexto global de la CAPV. Se intenta lograr el necesario liderazgo de la o las cabeceras, y la deseable complementariedad entre las vocaciones de los diferentes núcleos y territorios de cada Área Funcional.

Como tercera pieza en la red de asentamientos de la CAPV se sitúa el espacio rural, sobre el que las Directrices de 1997 señalan diversos problemas como la carencia de suficientes oportunidades de empleo y renta, una insuficiencia importante de equipamientos y servicios indispensables, los procesos estructurales de despoblamiento y de descenso de la actividad económica. Se considera fundamental articular una estrategia para poner en valor las áreas rurales manteniendo su idiosincrasia y creando unas condiciones propicias para la generación de empleo y para su desarrollo.

Las DOT de 1997 reconocen así mismo la diferente problemática de cada uno de los tres territorios en materia de equilibrio territorial. Así, se menciona el contraste entre el modélico equilibrio territorial de Gipuzkoa con la excesiva concentración espacial de la población que se produce en el Bilbao Metropolitano y la macrocefalia de Vitoria-Gasteiz en el contexto de su Área Funcional. De ahí que se propusieran acciones selectivas dirigidas, por una parte, al mantenimiento de los niveles actuales de equilibrio territorial en Gipuzkoa, y por otra, a la propuesta de estrategias

Tarteko eskalan, Eremu Funtzionalak eta haiei dagozkien hiri-burutzak funtsezko piezak dira lurralde-orekako estrategia posibleak aplikatzeko.

A escala intermedia, las Áreas Funcionales y sus correspondientes cabeceras urbanas constituyen piezas clave para la aplicación de posibles estrategias de equilibrio territorial.

inguruan eta Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalean detektatutako desorekak zuzentzeko estrategiak proposatzeko.

Azken hogei urteetako bilakaerari dagokionez, azpiegitura eta ekipamendu berriek hiru hiriburuen indartze orokorra ekarri dute, bakoitzak bere esparruan nazioarteko hedadurako prozesuen buru izateraino. Indartze horrek, Donsotialdea-Bidasoa Beherea eta Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaletan isla demografikoa izan duenak, ez du eragotzi behar lurralde-oreka egokia izatea EAE osoan. Era berean, lurralde historiko bakoitzak zenbait berezitasun ditu:

de corrección de los desequilibrios detectados en el entorno de Bilbao Metropolitano y en el Área Funcional de Álava Central.

En cuanto a la evolución de los últimos veinte años se refiere, las nuevas infraestructuras y equipamientos han conllevado un fortalecimiento general de las tres capitales, hasta el punto de liderar cada una en su ámbito procesos de alcance internacional. Este fortalecimiento, que ha tenido reflejo demográfico en las Áreas Funcionales de Donostialdea-Bajo Bidasoa y Álava Central, no debe impedir un adecuado equilibrio territorial en toda la CAPV. Así mismo, cada territorio histórico presenta diversas particularidades:



Ordizia

1. Bizkaian, Bilbao Metropolitarrak biztanleria galdu du, eta horrek beste eremu batzuen biztanleria-hazkundea ekarri du, batez ere Mungiaren kasuan. Markinako eremua dinamika horretatik kanpo dagoela dirudi, biztanleria galtzen jarraitzen baitu.

2. Gipuzkoan biztanleriaren bilakaera jarraitua ikusten da, eta badirudi barrualdea kostalderantz erakartzearen efektua apaldu duela, nahiz eta Urola Kostaren hazkundea termino erlatibotan lurralde historikoko handiena izan, eta Debabarrenak eta Debagoienak, erritmo txikiagoan bada ere, biztanleria galtzen jarraitzen dute.

3. Arabak bere eskualde ia guztien joera atzeragarriak iraultzea lortu du azken 20 urteetan. Ildo horretan,

1. En Bizkaia el Bilbao Metropolitano ha perdido población, lo que ha llevado aparejado un incremento poblacional de las otras áreas, especialmente la de Mungia. Fuera de esta dinámica parece situarse el área de Markina, que continúa perdiendo población.

2. En Gipuzkoa se observa una evolución sostenida de la población, y parece haber mitigado el desplazamiento poblacional del interior hacia la costa, si bien el crecimiento de Urola Kosta es en términos relativos el más alto del territorio histórico y el Alto y Bajo Deba, aunque a un ritmo menor siguen perdiendo población.

3. Álava ha logrado revertir las tendencias recesivas de casi todas sus comarcas en los últimos 20 años.



Labraza, Oion / Oyón

Arabako Mendialdea (Arabako Erdialdeko Eremu Funtzionalaren barruan) ageri zaigu biztanleria galtzen duen lurraldeko eskualde bakar gisa.

Landa-inguruneari dagokionez, jardueren dibertsifikazioa gertatu da, baina, dena dela, horrek ez dio amaiera eman LAGetan jada detektatutako arazoei, eta atal honetan adierazi diren eta biztanleria galtzen duten eremuetako zenbait landa-arlokoak dira nagusiki. Ildo horretan, aukera berrietan sakondu behar da, hala nola elikagaien segurtasunean, ekosistemen zerbitzuen babesean, azpiegitura berdean, nekazaritza ekologikoan, banaketa-kanal berrien sendotzean, teknologia berrietan, turismoan eta abar, betiere biztanleria eremu horietan finkatzea ahalbidetzeko moduan, biztanleria horien identitatea eta haien lurraldeen bokazioa konprometitu gabe.

En este sentido, la Montaña Alavesa (dentro del Área Funcional de Álava Central) se presenta como la única comarca del territorio que pierde población.

En lo que respecta al medio rural, se ha producido una diversificación de actividades, que en cualquier caso no ha acabado con los problemas que ya detectaron las DOT, y varias de las áreas que se han señalado en este apartado que pierden población son eminentemente rurales. En este sentido, se debe profundizar en nuevas oportunidades como la seguridad alimentaria, la preservación de servicios de los ecosistemas, la infraestructura verde, la agricultura ecológica, la potenciación de nuevos canales de distribución, las nuevas tecnologías, el turismo, etc., que permitan fijar población en estas áreas sin comprometer su identidad ni la vocación de sus territorios.

VI.
LURRALDE ELKARLOTUA

Euskadi Europako espazio handien testuinguruan kokatzea da 1997ko LAGen lurralde-ereduaren oinarrietako bat eta oinarri hori mantendu egiten da oraindik. Haatik, oinarri hori birmoldatzea proposatzen da, maila guztietan erlazionatuta dagoen lurralde baten premiei erantzungo dien oinarri bilakatuz. Ildo horretatik, Europako errotula izaten jarraitzeko premia azpimarratzen da, bereziki Europako Arku Atlantikoan, Europaz gaindiko sareen barnean funtsezko pieza izaten jarraituz, besteak beste, garraio eta logistikari dagokienez, tren-autopistei dagokienez eta Europako Natura 2000 Sare ekologikoari nahiz korridore ekologikoei dagokienez.

VI.
TERRITORIO INTERRELACIONADO

El posicionamiento de Euskadi en el contexto de los grandes espacios de Europa constituye una de las bases del modelo territorial de las DOT de 1997 y sigue manteniendo su validez. Sin embargo, se propone reconvertir esta base en una base que responda a las necesidades de un territorio interrelacionado a todos los niveles. En este sentido, se considera necesario seguir estando al nivel de rótula europea, de forma especial en el Arco Atlántico, constituyendo una pieza fundamental de las redes transeuropeas de transporte y de logística, de las autopistas ferroviarias, de la Red Ecológica Natura 2000 y de los corredores ecológicos, entre otros.

Euskadi Europako espazio handien testuinguruan kokatzea da 1997ko LAGen lurralde-ereduaren oinarrietako bat eta oinarri hori mantendu egiten da oraindik.

El posicionamiento de Euskadi en el contexto de los grandes espacios de Europa constituye una de las bases del modelo territorial de las DOT de 1997 y sigue manteniendo su validez.



Hendaia – Hondarribia

Mugakide diren lurraldeekin ere erlazioak izateko aukera jasotzen da, hala Euskadi-Akitania Euroeskualdearen esparruan, nola Nafarroarekin eta Pirinioetako dimentsioarekin, nahiz Kantabria, Errioxa edo Gaztela Leonekin finka daitezkeen lankidetza-esparruetan. Elkarrekin erlazionatutako esparruetarako diagnostiko-dokumentu erkideetan aurrera egiteko komenigarritasuna aditzera ematen da, eta azken buruan antolamendu-irizpide erkideak izan ditzakegu.

Halaber, barnetik elkarlotutako lurraldea izan behar du Euskadik, gune anitzeko egiazko sarea eratuz. Horrela, besteak beste, Lurralde Historiko batzuen eta besteen artean eta horietako eskualdeen artean mugikortasuna ahalbidetuz eta, gainera, garraio publikoaren mugikortasun iraunkorra sustatuz. Barneko erlazio hori funtsezko elementua da ereduaren barnean eta gure lurralde zehaztua antolatzeko lurralde-estrategiaren barnean ere. Estrategia horrek erakundeen arteko lankidetza eta errespetua nahiz gizartearen partaidetza izan behar ditu oinarritzat derrigorrez.

Se recoge también la oportunidad de relacionarse desde una perspectiva territorial con los espacios limítrofes, tanto en el marco de la Eurorregión Euskadi-Aquitania, como en marcos de colaboración que se puedan establecer con Navarra y la dimensión pirenaica, así como con Cantabria, La Rioja, o Castilla y León. Se apunta la conveniencia de avanzar en documentos de diagnóstico comunes para los ámbitos interrelacionados que pudieran desembocar en criterios de ordenación comunes.

Euskadi también ha de ser un territorio interrelacionado internamente, conformándose en una verdadera red polinuclear, facilitando, por ejemplo, la movilidad entre los distintos Territorios Históricos y entre sus comarcas, promoviendo, además, la movilidad sostenible del transporte público. La interrelación interna supone un elemento esencial del modelo y de la estrategia territorial para la ordenación de nuestro territorio definido, necesariamente, sobre la base de la colaboración y el respeto institucional y de la participación de la sociedad.

VII.
LURRALDE PARTIZIPATIBOA

Berrikusitako lurralde-ereduaren oinarrietako bat edo lurralde-estrategia berriak erantzun beharreko erronketako bat LAGak berrikusteko prozesua hasieratik amaierara arte prozesu partizipatibo modura gauzatzearena da. Partaidetzaren erronka hori ez litzateke mugatu behar berrikusteko prozesu horretara; aitzitik, lurralde-estrategiaren garapenean

VII.
TERRITORIO PARTICIPATIVO

Una de las bases del modelo territorial revisado o un reto al que la nueva estrategia territorial ha de responder es como llevar a cabo un proceso de revisión de las DOT que sea un proceso participativo desde el inicio hasta su culminación. El reto de la participación no se debería circunscribir únicamente a la vida de este proceso de revisión, sino que deberían



Bilbao

partaidetza modu egonkorrean ahalbidetzeko beharrezkoak diren mekanismoak bilatu beharko lirateke.

Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Partaidetzari buruzko Liburu Zurian (2014ko abendua) agerian geratzen da gobernantza onari begira parte-hartze prozesuak kontuan hartzeak duen esanahia eta garrantzi handia. Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzak LAGen berrikuspen-prozesu hori zehazterakoan partaidetza azpimarratu du prozesu horretako funtsezko pieza modura. Horrela, prozesua ikaskuntza-esperientzia bat izan dadin, partaidetza modu eraginkorrean txertatzeko, gure politika publikoak eratu eta garatzeko pieza irmo modura.

Hortaz, informazioko eta entzunaldi publikoko tramite formalak gainditu behar dira, eta partaidetza kudeaketa publikoan integratu, azken batean, lurralde-antolamendurako politika gobernantza oneko politika bihurtu.

de buscarse los mecanismos necesarios para facilitar esta participación de modo estable a lo largo del desarrollo de la estrategia territorial.

El Libro Blanco de Democracia y Participación Ciudadana de Euskadi de diciembre de 2014 pone de manifiesto el significado y la importancia crucial de tener en cuenta los procesos de participación para la buena gobernanza. En este sentido, el Gobierno Vasco ha identificado este proceso de revisión de las DOT como uno de los procesos en los que la participación es una de sus piezas clave, de modo que sirva también como experiencia de aprendizaje para la consolidación efectiva de la participación como pieza consustancial de la elaboración y el desarrollo de nuestras políticas públicas.

Se trata, pues, de superar los trámites formales de información y audiencia pública e integrar la participación en la gestión pública, en definitiva, de hacer de la política de ordenación territorial una política de buena gobernanza.

Lurralde-estrategia berriak erantzun beharreko erronketako bat LAGak berrikusteko prozesua hasieratik amaierara arte prozesu partizipatibo modura gauzatzearena da.

Un reto al que la nueva estrategia territorial ha de responder es cómo llevar a cabo un proceso de revisión de las DOT que sea un proceso participativo desde el inicio hasta su culminación.

2.2. LAGen berrikuspenaren printzipio gidariak

Lurralde-eredua lurralde-erronka berrietara egokitzeko zenbait printzipio gidaritan oinarritzen da LAGen berrikuspena.

La revisión de las DOT se erige sobre una serie de principios rectores de adecuación del modelo territorial a los nuevos retos territoriales.

Lurralde-eredua lurralde-erronka berrietara egokitzeko zenbait printzipio gidaritan oinarritzen da LAGen berrikuspena, eta printzipio horiek nabarmentzen dute, azken batean, berrikusitako lurralde-ereduaren balio erantsia 1997ko LAGen lurralde-ereduarekin alderatuta.

LAGen berrikuspenaren printzipio gidariak proposatutako lurralde-ereduaren deskribapenean zehar garatzen dira eta ondoren laburbildutako honako hauek dira:

1. Azpiegitura berdea eta ekosistemen zerbitzuen baliozkotzea ingurune fisikoaren antolamenduan txertatzea.
2. Landa-ingurune edo -habitata espezifikoki ageriko egitea lurralde-antolamenduan.
3. Eraldaketa-ardatzen figura hiri-sisteman txertatzea.
4. Jada artifizializatutako lurzoruaren erabilera optimizatzea eta horretarako hiri-berroneratzea eta erabileren mistizitatea sustatzea, eta halaber, hazkunde mugagabea saihestea hiri-hazkundeko perimetroa ezarriz.
5. Erantzun arina eta eraginkorra sustatzea lurzoru-premietarako jarduera ekonomikoei begira, batez ere egungo lurzoruaren berroneratzea, berritzea eta birdentsifikazioa proposatuz.
6. Paisaiaren kudeaketa barnean hartzea lurralde-antolamendurako tresnen bidez.
7. Baliabideen kudeaketa jasangarriaren kontzeptua txertatzea: ura, energia-burujabetza, ekonomia zirkularra eta autosufizientzia konektatua (lehengaien baliabideak).
8. Mugikortasun eta logistika iraunkorra sustatzea, arreta berezia emanez oinezkoen eta bizikleten mugikortasunari, garraio publiko multimodalari eta garraiobideen konbinazioaren optimizazioari, abiadura handiko trenaren zerbitzuak emango dituen denborazko jokaleku batean.
9. Gai berriak sartzea lurraldearen antolamenduan, zeharkako izaeratzat kontuan hartzen direnak, hala nola irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, euskara, klima-aldaketa, osasuna eta lurralde-erlazioa.
10. Lurralde-antolamenduaren politika publikoaren kudeaketan gobernantza ona sustatzea, batez ere planen jarraipenaren eta ebaluazioaren, partaidetzaren eta administrazio arloko integrazioaren bidez.

2.2. Principios rectores de la revisión de las DOT

La revisión de las DOT se erige sobre una serie de principios rectores de adecuación del modelo territorial a los nuevos retos territoriales que, en definitiva, son aquellos que destacan el valor añadido del modelo territorial revisado respecto al modelo territorial de las DOT de 1997.

Los principios rectores de la revisión de las DOT se desarrollan a lo largo de la descripción del modelo territorial propuesto y son los que, brevemente, se recogen a continuación:

1. Incorporar la infraestructura verde y la puesta en valor de los servicios de los ecosistemas a la ordenación del medio físico.
2. Visibilizar de forma específica el hábitat rural en la ordenación territorial.
3. Incorporar al sistema urbano la figura de los ejes de transformación.
4. Optimizar la utilización del suelo ya artificializado promoviendo la regeneración urbana y la mixticidad de usos, así como evitar el crecimiento ilimitado a través del establecimiento del perímetro de crecimiento urbano.
5. Promover una respuesta ágil y eficaz para las necesidades de suelo para nuevas actividades económicas, propugnando fundamentalmente la regeneración, renovación y redensificación del suelo existente.
6. Incluir la gestión del paisaje a través de los instrumentos de ordenación territorial.
7. Incorporar el concepto de gestión sostenible de los recursos: agua, soberanía energética, economía circular y autosuficiencia conectada (recursos de las materias primas).
8. Promover la movilidad y logística sostenible concediendo especial atención a la movilidad peatonal y ciclista, al transporte público multimodal y a la optimización de la combinación de los distintos modos de transporte, en un escenario temporal en el que se contará con los servicios del tren de alta velocidad.
9. Incluir cuestiones novedosas en la ordenación del territorio que se consideran de carácter transversal como la accesibilidad universal, la perspectiva de género, el euskera, el cambio climático, la salud y la interrelación territorial
10. Promover una buena gobernanza en la gestión de la política pública de la ordenación del territorio, a través, principalmente, del seguimiento y la evaluación de los planes, de la participación, y de la integración administrativa.

3

Lurralde Eredua. Elementu definitzaileak

Modelo Territorial. Elementos definitorios

Proposatzen den lurralde-ereduak aurretik gauzatutako oinarriei begiratu behar die; lurralde iraunkor, inklusibo, adimendun, orekatu, erlazionatu eta partizipatibo bat helburu duten oinarriei. 1997ko Gidalerroek ezarritako lurralde-ereduak denboran duen luzapen gisa eta gaur egun gai horri dagokionez izandako diziplina-eguneratzea kontuan izanda, honako elementu hauekin definituta geratuko da Berrikuspen honetan proposatutako lurralde-eredua:

I. INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA
II. LANDA-HABITATA
III. HIRI-HABITATA
IV. PAISAIA, KULTURA- ETA NATURA-ONDAREA, ETA BALIABIDE TURISTIKOAK
V. BALIABIDEEN KUDEAKETA IRAUNKORRA
VI. MUGIKORTASUNA ETA LOGISTIKA
VII. ZEHARKAKO GAIAK
VIII. GOBERNANTZA

Gai horietako bakoitza bereiz jorratzen da dokumentuaren edukian, gaien bat hainbat ataletan zehaztuta, eta ondoren islatuko da sintetikoki atal bakoitza gidatzen duen garapen-ildoa markatzen duen hasierako lema.

El modelo territorial que se propone ha de responder a las bases anteriormente plasmadas que miran hacia un territorio que sea sostenible, inclusivo, inteligente, equilibrado, interrelacionado y participativo. Como prolongación en el tiempo del modelo territorial establecido por las Directrices de 1997 y la actualización disciplinar de la materia al momento presente, el modelo territorial propuesto en la presente Revisión queda definido por los siguientes elementos:

I. MEDIO FÍSICO E INFRAESTRUCTURA VERDE
II. HÁBITAT RURAL
III. HÁBITAT URBANO
IV. PAISAJE, PATRIMONIO CULTURAL Y NATURAL, Y RECURSOS TURÍSTICOS
V. GESTIÓN SOSTENIBLE DE LOS RECURSOS
VI. MOVILIDAD Y LOGÍSTICA
VII. CUESTIONES TRANSVERSALES
VIII. GOBERNANZA

Cada una de estas materias son tratadas de forma separada en el contenido del documento, alguna de ellas con una pormenorización en apartados, reflejándose a continuación de forma sintética el lema inicial que marca la línea de desarrollo que guía cada apartado.

I. INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA

a) Ingurune fisikoaren antolamendua

Ingurune fisikoaren antolamenduak ezartzen du zein erabilera diren egokiak, onargarriak edo debekatuak, sei antolamendu-kategoriari eta zenbait baldintzatzaile gainjarriri jarraikiz. Gainera, gidalerro batzuk adierazten dira ingurune fisikoaren elementu eta prozesuetarako, eta jardueren kontrolerako.

b) Azpiegitura berdea eta ekosistemen zerbitzuak

Azpiegitura Berdearen kontzeptua aurrerapauso bat da, diziplina moduan, espazio babestuarekiko eta korridore ekologikoarekiko. Jauzi kualitatiboa da eskala guztiei eragiten dielako eta hainbat aukera ematen dituelako ingurumenari, osasunari, ekonomiari eta aisiari dagokienez, besteak beste. Bestalde, Ekosistemen Zerbitzuen Ebaluazioa oinarri metodologiko bat da, ekosistemek gizarteari egiten dioten ekarpena nolakoa den jakiteko.

II. LANDA-HABITATA

Landa-habitatak funtsezko eginkizuna betetzen du lurralde- eta ingurumen-kudeaketan; dena den, lurralde-errealitate konplexua erakusten du, baita urrakortasun berezia ere, hiri-azpiegitura sozioekonomikotik gauzatzen diren erakarpen- eta

I. MEDIO FÍSICO E INFRAESTRUCTURA VERDE

a) Ordenación del medio físico

La ordenación del medio físico establece los usos propiciados, admisibles o prohibidos, en base a seis categorías de ordenación y a una serie de condicionantes superpuestos. Además, se señalan unas directrices para los elementos y procesos del medio físico, y para control de las actividades.

b) Infraestructura verde y servicios de los ecosistemas

El concepto de Infraestructura Verde avanza disciplinariamente con respecto al de espacio protegido o al de corredor ecológico; da un salto cualitativo en cuanto que afecta a todas las escalas y ofrece múltiples oportunidades en diversas cuestiones como el medio ambiente, la salud, la economía o el ocio, entre otras. Por su parte, la Evaluación de Servicios de los Ecosistemas ofrece una base metodológica que puede resultar útil para contemplar la aportación de los mismos a la sociedad.

II. HÁBITAT RURAL

El hábitat rural ejerce un papel fundamental en la gestión territorial y medioambiental, si bien presenta una compleja realidad territorial y una especial vulnerabilidad frente a importantes fuerzas de atracción e influencia desde la estructura

eragin-indar handien aurrean: berrurbanizatze-prozesuak, nekazaritza-jarduerak abandonatzea, hipermugikortasuna, lurzoruaren prezioaren inflazioa. Landa-espazioen konfigurazio bisual eta funtzionala modulatu behar da, nekazaritza-jarduera mantenduz.

socioeconómica urbana: procesos de reurbanización, abandono de la actividad agraria, hipermovilidad, inflación del precio del suelo. Se precisa modular la configuración visual y funcional de los espacios rurales manteniendo la actividad agraria.

III.
HIRI-HABITATA

a) Hiri-sistema: hiriburuen gune anitzeko sistema, Eremu Funtzionaletako buruen sarea eta Eraldaketa-ardatzak

Lurralde historikoetako hiru hiriburuek osatutako hiri-sistemak gehi Eremu Funtzional bakoitzeko buru eta azpiburuen sareak EAEren biztanleriaren % 90 baino gehiago bizi den lurraldea osatzen dute. Esparru horien arteko artikulazio egokia bermatzeko asmoz, izaera isolatuko lurralde-unitate gisa kontuan hartuak izan daitezela saihestuz, beharrezkotzat jotzen da esparru horietan garatzen diren berriztatze- eta eraldatze-prozesuak bideratzea, bultzatzea eta koordinatzea ahalbidetzen duen elementu bat sartzea. Helburu hori lortzeko, "Eraldaketa-ardatzak" deitutako figura sartzea proposatzen da. Helburu horiek izaera batez ere linealeko lurralde-esparru batzuk eratzen dituzte, hiri-kokaleku guztiekin konektatzen dutenak, kokaleku horiek eraginpean hartzen dituzten eraldaketa-, hobekuntza- eta berroneratze-jardunen plangintza modu koherente eta koordinatuan garatzea ahalbidetuz.

Aldez aurretik adierazitakoaren emaitza gisa, hiru funtsezko elementuren bidez egituratzen da hiri-sistema: Lurralde Historikoetako hiriburuen gune anitzeko sistema, Eremu Funtzionaletako buru eta azpiburuen sarea eta Eraldaketa-ardatzak.

b) Hiri-berroneratzea

Hiri-berroneratzeak lurraldea berrerabiltzeko eta birziklatzeko aukera bultzatu behar du, jadanik hirigintzak okupatuta dauzkan espazioetan erabilera berriak garatuta. Trantsizio-espazioetarako erabilera iragankorrak ezartzea lankidetza-gestio baten ondorioz dinamika interesgarri gisa ageri zaigu.

c) Hiri-hazkundearen perimetroa

EAEko lurraldearen mugapena esku-hartze eskala guztietan aplikatu beharreko gogoeta da. Ingurumenaren kalitatean eta baliabide naturalen kudeaketan eragin erabakigarria duten faktore kritikoak dira hiriko dentsitatea areagotzea eta hiria berroneratzea –garapen berrien aldean lehentasuna duten jardunak izanik–, eta azkenik, area urbanizatuen hedadura mugatuko duten perimetro eraginkorrak ezartzea.

III.
HÁBITAT URBANO

a) Sistema urbano: el sistema polinuclear de capitales, la red de cabeceras y subcabeceras de las Áreas Funcionales y los Ejes de Transformación

El sistema urbano integrado por las capitales de los territorios históricos junto con la red de cabeceras y subcabeceras de cada una de las Áreas Funcionales constituye el territorio de la CAPV donde reside más del 90% de la población. Con el objeto de garantizar la adecuada articulación entre los referidos ámbitos, evitando su consideración como unidades territoriales de carácter aislado, se considera necesaria la introducción de un elemento que permita orientar, impulsar y coordinar los diferentes procesos de renovación y transformación que se desarrollen en los mismos. Con dicho fin, se propone la incorporación de la figura denominada como "Ejes de transformación". Dichos ejes constituyen unos ámbitos territoriales de carácter fundamentalmente lineal que conectan los diferentes asentamientos urbanos, permitiendo que la planificación de las actuaciones de transformación, mejora y regeneración que afectan a los mismos se desarrolle de forma coherente y coordinada.

Como resultado de lo señalado anteriormente, el sistema urbano se estructura a través de tres elementos fundamentales: el sistema polinuclear de capitales de los Territorios Históricos, la red de cabeceras y subcabeceras de las Áreas Funcionales y los Ejes de Transformación.

b) Regeneración urbana

La regeneración urbana debe impulsar la reutilización y el reciclado del territorio, desarrollando nuevos usos en espacios que ya se encuentren ocupados por la urbanización. El establecimiento de usos transitorios para espacios en transición como resultado de una gestión colaborativa se presenta como una dinámica de interés.

c) Perímetro de crecimiento urbano

La finitud del territorio de la CAPV es una reflexión a aplicar a todas las escalas de intervención. La densificación y la regeneración urbana como actuación preferente a los nuevos desarrollos y, en último término, el establecimiento de perímetros efectivos que limiten la expansión de las áreas urbanizadas, son factores críticos con una incidencia decisiva en la calidad ambiental y en la gestión de los recursos naturales.

d) Jarduera ekonomikoetarako lurzorua

Gure lehiakortasunaren eta gure ekonomiaren oinarrietako bat EAEko industria-jarduera da, kalitatezko industriaguneak izatearekin batera. Industria-lurzoruetan esku-hartzea ezinbestekoa da, berritzeko, erreformatzeko, birgaitzeko, birdentsifikatzeko edo, azken batean, balioa emateko, ekonomia-jarduerarekin lotuta erabiltzearren.

e) Bizitegi-kuantifikazioa

Bizitegi-kuantifikazioaren helburu dira lurzoruaren artifizializazioa mugatzea lurzoruaren iraunkortasun-irizpideei jarraikiz, eta udalerriei beren hirigin tza-plangintzan kontuan hartu beharreko bizitegi-ahalmenaren kalkulua erraztea.

f) Plangintzak bateragarri egitea

LAGen lurralde-estrategiaren koherentzia eta oreka bermatzeko, egokia da udal- eta lurralde-plangintzak bereziki udalerri edo Eremu Funtzional mugakideen plangintzekin bateragarri egiteko prozesua sustatzea, aukera- eta hobekuntza-eremu gisa.

d) Suelo de actividades económicas

La actividad industrial del País Vasco y la disponibilidad de espacios industriales de calidad es una de las bases de nuestra competitividad y de nuestra economía. Es preciso intervenir en los suelos industriales de cara a su renovación, reforma, rehabilitación, redensificación o, en definitiva, puesta en valor, para su uso vinculado a la actividad económica.

e) Cuantificación residencial

La cuantificación residencial tiene entre sus objetivos limitar la artificialización del suelo respondiendo a criterios de sostenibilidad; así como facilitar a los municipios el cálculo de la capacidad residencial a contemplar en el planeamiento.

f) Compatibilización de planeamientos

Con el objeto de garantizar la coherencia y el equilibrio de la estrategia territorial de las DOT, resulta oportuno promover la compatibilización de los planeamientos municipales y territoriales especialmente con los planeamientos de los municipios o de las Áreas Funcionales colindantes como áreas de oportunidad y mejora.

IV.
PAISAIA, KULTURA- ETA NATURA-ONDAREA ETA BALIABIDE TURISTIKOAK

IV.
PAISAJE, PATRIMONIO CULTURAL Y NATURAL, Y RECURSOS TURÍSTICOS

a) Paisaia

Paisaiak erreferentzia izan behar du lurraldearen antolamenduan, eta modu integralean hartu behar da kontuan, paisaia bikainak eta egunerokoak aintzat hartuz, hauskorrenak babesteko eta degradatuak lehengoratzeko neurrien bitartez.

b) Kultura-ondarea

Kultura-ondarearen antolamenduak inplikatutako araudi sektorialen arteko koordinazioa eta lankidetza sustatu behar du, ondare hori kontserbatzeko eta balioan jartzeko premiei erantzunez, lurralde- eta hirigintza-eskala desberdinetara egokitutako ikuspegi integral bati jarraikiz.

c) Natura-ondarea

Osagai biotikoak (biodibertsitatea) eta abiotikoak (geodibertsitatea) osatzen dute natura-ondarea. Bi osagaiek egun lurraldean dauden habitat eta espezieen osaera sortzen dute. Bestetik, natura-ondareak zenbait ingurumen-ondasun eta

a) Paisaje

El paisaje debe ser una referencia en la ordenación del territorio, y ha de tenerse en cuenta de manera integral, considerando tanto los paisajes sublimes como los cotidianos, con medidas de protección de los más frágiles y restauración de los degradados.

b) Patrimonio cultural

La ordenación del patrimonio cultural debe fomentar la coordinación y cooperación entre las normativas sectoriales implicadas, atendiendo a las necesidades de conservación y puesta en valor del mismo, con un enfoque integral adaptado a las diferentes escalas territoriales y urbanísticas.

c) Patrimonio Natural

El patrimonio natural está integrado tanto por la componente biótica (biodiversidad) como por la abiótica (geodiversidad). Ambas generan la composición actual de hábitats y especies presentes en el territorio. Por otra parte, el patrimonio natural

-zerbitzu sortzen ditu gizakiontzat, gure ongizatea hobetzearen mesedetan.

genera al ser humano una serie de bienes y servicios ambientales, que constituyen una oportunidad para mejorar el bienestar de las personas.

d) Baliabide Turistikoak

Natura- eta kultura-dibertsitatea da Euskadiko baliabide turistikoen ezaugarri nagusia, eta eredu bat zehaztu behar da baliabide horien garapena eta lurralde-iraunkortasuna bermatzeko, hau da, harrera-ahalmenarekin eta biztanleen bizi-kalitatearekin bateragarria den modu batean. Baliabide Turistikoen Antolamendurako Lurralde Plan Sektorial bat idatziko da.

d) Recursos Turísticos

Los recursos turísticos se caracterizan en Euskadi por su diversidad natural y cultural, precisando la definición de un modelo que garantice tanto su desarrollo, como la sostenibilidad territorial, es decir, de forma compatible con la capacidad de acogida y con la calidad de vida de los residentes. Se redactará un Plan Territorial Sectorial de Ordenación de los Recursos Turísticos.

V.
BALIABIDEEN KUDEAKETA IRAUNKORRA

a) Ura

EAEko ibai eta errekak antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala administrazio-adostasunaren aldeko eta ingurumenaren, hidraulikaren eta hirigintzaren aldagaiak integratzearen aldeko ekimena da. Une honetan, uholde-arriskuaren kudeaketari eta ur-hornidurari eta saneamenduari buruzko ikuspegi eguneratua jasotzen ari da, plangintza hidrologikoarekin bat datorren lurralde-politika bati jarraikiz.

b) Energia

Energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren (3E-2030) bi ardatz nagusiak dira, eta ezinbesteko betekizunak dira lurralde-iraunkortasuna, lehiakortasuna eta klima-aldaketaren aurkako borroka bermatzeko. Lurralde-estrategiaren energiaren alorrean beste zenbait erronkari ere heldu behar zaie, hala nola energia-eraginkortasunaren eta -efikaziaren igoera nabarmenari; deskarbonizazioari, energia berriztagarrien iturrien erabilera orokortuz; eta energia-autosufizientziarantz aurrera egiteari.

c) Ekonomia zirkularra

Ekonomia zirkularrean oinarritutako eredu bateranzko trantsizioa egin behar da, erabilitako produktu eta baliabideek fluxu ekonomikoaren barruan ahalik eta denbora gehien eman dezaten, eta trantsizio hori oinarrizko lehentasuna da, hondakinen sorkuntza gutxienekora murriztea ahalbidetuko duen garapen iraunkorra lortzeko.

V.
GESTIÓN SOSTENIBLE DE LOS RECURSOS

a) Agua

El Plan Territorial Sectorial de ordenación de ríos y arroyos de la CAPV es un ejercicio de consenso administrativo y de integración de las variables medioambiental, hidráulica y urbanística, procediéndose, en este momento, a recoger una visión actualizada de la gestión del riesgo de inundación, así como del abastecimiento de agua y el saneamiento, con una política territorial en correspondencia con la planificación hidrológica.

b) Energía

La eficiencia energética y las energías renovables son los dos ejes principales de la Estrategia Energética de Euskadi 2030 (3E-2030) constituyendo requisitos imprescindibles para la sostenibilidad territorial, la competitividad y la lucha contra el cambio climático. El aumento sustancial de la eficacia y eficiencia energética, la descarbonización a través de la utilización generalizada del uso de fuentes de energías renovables y el progreso hacia una autosuficiencia energética son también los retos en materia de energía de la estrategia territorial.

c) Economía circular

La transición a un modelo basado en una economía circular, donde los productos y recursos utilizados se mantengan dentro del flujo económico el mayor tiempo posible, constituye una prioridad básica para lograr un desarrollo sostenible, en el que se reduzca al mínimo la generación de residuos.

VI.
MUGIKORTASUNA ETA LOGISTIKA

a) Mugikortasun Multimodala

Garraio multimodal iraunkorra erronka da orain ere administrazioentzat. Eredu horrek lurralde

VI.
MOVILIDAD Y LOGÍSTICA

a) Movilidad Multimodal

El transporte multimodal sostenible sigue siendo un reto al que se enfrentan las administraciones

osoaren irisgarritasuna eta zerbitzu publikoaren hobekuntza bilatzen ditu, hainbat moduren konbinazioen bidez.

b) Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna

Oinezkoen mugikortasuna da pertsonek hirian mugitzeko duten modu nagusia, eta ildo horretan, hirira egokitu behar da, segurtasun-baldintzetan eta modu erakargarrian gauzatzeko moduan. Bestalde, bizikletak garrantzia eta protagonismoa irabazi du pixkanaka-pixkanaka, batez ere toki-mailan, beste garraio mota batzuekin alderatuta, garraiobide biguna baita, ingurumen-arloan iraunkorra, energetikoki eraginkorra eta gizarte-alorrean osasuntsu eta berdintasunezkoa.

c) Bide-mugikortasuna

1997ko LAGen ikuskera zuzena izan da, errepideen administrazioek garatu beharreko eredu baten definizioarekin, errepide horien trazatuari zein funtzionaltasunari dagokienez, baita denbora-horizonteari dagokionez ere. Hasi gaitezke esaten EAEko errepideen planifikazioa gehienbat amaituta dagoela, trazatuen hobekuntza, herriko errepide-saihesbideren baten egikaritzapena eta ezinbesteko mantentze-lanak gorabehera.

d) Tren-, portu- eta aireportu-arloko mugikortasuna eta logistika

Gure lurraldearen kanpo-konektibitate handiagoa proposatzen da, mugikortasun iraunkorreko sistemen orokortzearekin batera, faktore kritiko gisa jarduera ekonomikoen lehiakortasunerako, eta lurraldearen kohesiorako eta orekarako. Garraio-sistema kolektibo eraginkor eta erakargarri bat egin behar da bideragarri, zenbait nodo eta ardatz konektatuko dituena, oso erlazionatutako hiri-sare bat konektatze aldera.

Halaber, Euskadiren erronka gisa proposatzen da salgaien nazioarteko garraiorako nodo logistiko bihurtzea, nodo hori Bilbaoko eta Pasaiako portuek, Aireportu Sistemak eta Jundiz-Foronda, Arasur eta Lezo-Gaintxurizketa guneek osatutako plataforma logistikoen sareak osatzen dutelarik.

en la búsqueda de la accesibilidad de todo el territorio y la mejora del servicio público mediante combinaciones de los diferentes modos.

b) Movilidad peatonal y ciclista

La movilidad peatonal es la principal forma de movilidad de las personas en la ciudad, y en este sentido, ésta ha de adecuarse para que dicha movilidad pueda producirse en condiciones de seguridad y de una manera atractiva. Por otro lado, la bicicleta ha ido ganando terreno y protagonismo, especialmente a nivel local, frente a otros tipos de transporte, dado su carácter de medio de transporte blando, medioambientalmente sostenible, energéticamente eficiente y socialmente sano y equitativo.

c) Movilidad viaria

La concepción de las DOT de 1997, con la definición de un modelo que debía desarrollarse por las administraciones de carreteras tanto a nivel de trazado, como de funcionalidad, como de horizonte temporal, ha sido acertada. Puede empezar a considerarse que al margen de mejora de trazados, la ejecución de alguna carretera variante de población y el inevitable mantenimiento, la planificación de carreteras de la CAPV está mayormente culminada.

d) Movilidad y Logística ferroviaria, portuaria y aeroportuaria

Se propone una mayor conectividad exterior de nuestro territorio y la generalización de los sistemas de movilidad sostenible como factores críticos para la competitividad de las actividades económicas y para la cohesión y el equilibrio del territorio. Se debe hacer viable un sistema de transporte colectivo eficaz y atractivo que interconecte los diversos nodos y ejes a fin de configurar una red urbana altamente interrelacionada.

Así mismo y como reto del País Vasco se propone su conversión en nodo logístico para el transporte internacional de mercancías, integrado por los puertos de Bilbao y Pasaia, el Sistema Aeroportuario, y la red de plataformas logísticas compuesta por Jundiz-Foronda, Arasur y Lezo-Gaintxurizketa.

VII.
ZEHARKAKO GAIAK

Lurralde- eta hirigintza-plangintzak gai berriak jaso behar ditu; gizarteak kontuan hartu behar dituen zeharkako kontuez ari gara. Lurraldearen antolamenduaren edo hirigintzaren alorra gainditzen duten gaiak dira, baina barneratu beharrekoak. Ildo horretan, honako gai hauek aztertzen dira berrikuspen honetan:

VII.
CUESTIONES TRANSVERSALES

El planeamiento territorial y urbanístico han de incorporar en su contenido nuevas cuestiones transversales a abordar por la sociedad; cuestiones que sobrepasan el campo de la ordenación del territorio o del urbanismo, pero que se deben de interiorizar. En este sentido son tratadas en esta revisión las siguientes cuestiones:

a) Irisgarritasun unibertsala

Irisgarritasun unibertsalak, aukera-berdintasunak eta pertsona guztientzako diseinuak, zeharkako gaiak diren aldetik, lurralde-plangintzari eta hirigintzari eragiten diete, eta lurralde-plangintzak eta hirigintzak gai horiexek barneratu behar dituzte.

b) Genero-ikuspegia

Pertsonek premia eta itxaropen desberdinak dituzte lurraldearekiko eta hiri- eta landa-ingurunearekiko, bakoitzak bere eguneroko bizitzan bere gain hartzen duen genero-rolaren arabera. Lurralde Antolamenduan genero-ikuspegia sartzeak aukera ematen du gizon eta emakumeek baliabide guztiak baldintza-berdintasunean eskuratzen dituztela bermatzeko.

c) Klima-aldaketa

Klima-aldaketa gizateriak aurrez aurre izango duen erronka handienetako bat da, eta ongi koordinatuta heldu beharko dio. Funtsezkoa da berotze globala arinagotzen duten berotegi-efektuko gasen isurpenak murriztea, baina funtsezkoa da, halaber, aldaketei aurrea hartzea eta aldaketa horien inguruan planifikatzea lurzoruaren erabilera, kokapenak, azpiegiturak, ekoizpena, etxebizitza, nekazaritza eta baliabide berriztagarriak, besteak beste, lotutako arriskuak murrizteko gakoa da.

d) Osasuna

Lurralde- eta hiri-plangintzan hartzen ditugun erabakiek inguruneak aldatzen dituzte, bizi garen eta lan egiten dugun lekuetan eragiten dute, baita gure joan-etorrietan edo aisialdian ere, eta biztanlerien osasunean eragina duten faktoreak dira. Horregatik, beharrezkoa da haien azterketa eta jarraipena egitea, plangintza-prozesuetan ekitatea aintzat hartzea, komunitatearen parte-hartzea eta haiek agerian jartzea errazten duten tresnak garatzea plangintzaren hasiera-hasierako etapetatik.

e) Euskara

Eremu honetan garatzen diren lurraldean esku hartzeko tipologiak eta politikek lurralde honetako biztanleengan eragina izan dezakete hainbat alorretan, hizkuntzaren alorrean esaterako. Gainera, kontuan hartzen badugu lurralde horretan bi hizkuntza ofizial daudela desparekotasun-egoeran, gertakari horrek garrantzi berezia hartzen du.

f) Lurralde-erlazioa

Euskadik Europako errotula gisa jardunez duen kokapen estrategikotik abiatuta, Europa osoko lurralde-garapeneko estrategia berriak diseinatu ahal dira, EAEko lurraldea eta aldameneko

a) Accesibilidad universal

La accesibilidad universal, la igualdad de oportunidades y el diseño para todas las personas, como cuestión transversal, afectan y deben ser interiorizados por la planificación territorial y el urbanismo.

b) Perspectiva de género

Las personas tienen distintas necesidades y aspiraciones en relación al territorio y al espacio urbano y rural derivadas de los roles de género que asumen en su vida cotidiana. La inclusión de la perspectiva de género en la Ordenación del Territorio permite garantizar a hombres y mujeres el acceso a todos los recursos en igualdad de condiciones.

c) Cambio climático

El cambio climático es uno de los mayores retos a los que la humanidad ha de enfrentarse, y lo debe hacer de forma coordinada. Es crucial reducir las emisiones de gases de efecto invernadero que aceleran el calentamiento global, pero también lo es anticiparse a los cambios y planificar en torno a esos cambios el uso del suelo, los asentamientos, las infraestructuras, la producción, la vivienda, la agricultura y los recursos renovables, entre otros, es la clave para reducir los riesgos asociados.

d) Salud

Las decisiones en la planificación territorial y urbana cambian los entornos, afectan a los lugares donde vivimos y trabajamos, a la forma de desplazarnos o a qué dedicamos el tiempo de ocio, siendo factores que determinan la salud de las poblaciones. Por ello es necesario su análisis y seguimiento, la consideración de la equidad en los procesos de planeamiento, la participación comunitaria y el desarrollo de instrumentos que faciliten su visibilización desde las etapas más tempranas de la planificación.

e) Euskera

La tipología de intervención territorial y las políticas que en este ámbito se desarrollen, pueden afectar a los comportamientos de las personas que ocupan ese territorio en multitud de ámbitos, siendo el de la lengua uno de ellos. Si además se trata de un territorio en el que conviven dos lenguas oficiales en situación de desigualdad esta incidencia cobra una especial relevancia.

f) Interrelación territorial

La ubicación estratégica de Euskadi y su función de Rótula Europea permite el diseño de nuevas estrategias de desarrollo territorial de escala europea en un ámbito más amplio que recoge el

eskualdeak biltzen dituen eremu zabalago batean. Halaber, eremu funtzionalen arteko barneko erlazioa funtsezkoa da lurralde-oreka bermatzeko.

territorio de la CAPV y las regiones colindantes. Asimismo, la interrelación interna entre Áreas Funcionales resulta clave para el equilibrio territorial.

VIII. GOBERNANTZA

VIII. GOBERNANZA

a) Lurralde-plangintzaren garapena. Eremu Funtzionalak

Udal-plangintza ez da nahikoa lurraldea egituratzeko gai handiei heltzeko, eta gainera, EAE osoaren eskala globalak bere mugak ditu. Horren ondorioz, Eremu Funtzionalei dagokien "bitarteko" lurralde-eskala zehaztu behar izan da, eremu horiek, beren tamaina fisiko eta funtzionalari esker, arazoak aztertzeko eta lurralde-antolamenduko programak ezartzeko egokiak direlako.

a) Desarrollo del planeamiento territorial. Áreas Funcionales

La insuficiencia del planeamiento municipal para acometer los grandes temas de estructuración territorial, así como las limitaciones de la escala global del conjunto de la CAPV, inducen a la definición de la escala territorial "intermedia" correspondiente a las Áreas Funcionales, en cuanto que por su tamaño físico y funcional resultan adecuadas para el análisis de problemas y para la implantación de programas de ordenación territorial.

b) "Parte-hartzearen Kultura" sortzea

Parte-hartzea erronka bat da berez, kudeaketa publikoaren eta gizartearen kudeaketaren aldaketa dakarrelako. Parte-hartzean oinarritutako kultura pixkanaka-pixkanaka finkatzeko helburuarekin, lurralde-antolamenduko tresna guztietan parte hartzeko mekanismoak txertatzea proposatzen da.

b) Generación de la "Cultura de la Participación"

La participación es un reto en sí mismo porque supone un cambio en la cultura de la gestión pública y de la sociedad. Con la finalidad de ir consolidando una cultura participativa, se propone la inclusión de mecanismos de participación en todos los instrumentos de ordenación territorial.

c) Jarraipena, ebaluazioa eta adierazleak

Lurraldearen gaineko giza ekintza neurtu eta ebaluatu behar da, neurri egokiak hartu ahal izateko. Horretarako, lurralde antolamenduko tresna guztietan jarraipen- eta ebaluazio-sistemak bildu behar dira, adierazle egokien multzoa eta guzti.

c) Seguimiento, evaluación e indicadores

La acción humana sobre el territorio precisa ser medida y evaluada de cara a poder adoptar las medidas oportunas. Para ello resulta necesario incluir sistemas de seguimiento y evaluación en todos los instrumentos de ordenación territorial y dotarse de una batería de indicadores adecuados.

d) Lurraldearen plangintza partzial eta sektorialaren arteko koordinazioa

LAGek Lurralde Plan Partzialen eta Sektorialen bidez izan duten garapen garrantzitsuaren eraginez, irizpide batzuk txertatu behar dira, gidalerro horiek hirigintza-plangintzan aplikatzearen ondorioz sortu ahal diren kontraesanak ebazteko.

d) Coordinación del Planeamiento Territorial Parcial y Sectorial

El importante desarrollo que han tenido las DOT a través de los Planes Territoriales Parciales y Sectoriales obliga a introducir unos criterios que resuelvan las contradicciones que pudieran surgir de su aplicación en el planeamiento urbanístico.

e) Planen berrikuspena tramitatzean administrazioa integratzea

Administrazioek planen tramitazioan esku-hartze nabarmena dute, eta horregatik gutxieneko integrazio eta konpromisoa behar da, hirigintzako plangintza orokorraren berrikuspen prozesua arrazoizko epe batean burutzeko, gehienez ere lau urteko epean.

e) Integración administrativa en la tramitación de la revisión de los planes

La fuerte intervención de todas las administraciones en la tramitación de los planes exige un mínimo de integración y compromiso que permita la culminación del proceso de la revisión del planeamiento urbanístico general en un plazo razonable y no superior a cuatro años.

4

Ingurune Fisikoa eta Azpiegitura Berdea

Medio Físico e Infraestructura Verde

Ingurune fisikoaren antolamendua	**4.1.**	Ordenación del Medio Físico
Azpiegitura Berdea eta ekosistemen zerbitzuak	**4.2.**	Infraestructura verde y servicios de los ecosistemas

Ingurune fisikoa funtsezko faktorea da ongizaterako, garapen ekonomikorako eta bizi-kalitaterako.

El Medio Físico es un factor clave para el bienestar, el desarrollo económico y la calidad de vida.

Lurraren kontserbazioa eta lurra narriatu gabe beraren potentzialtasunak aprobetxatzen dituzten erabilerak gauzatzea lehentasunezko helburua izan behar da lurraldea antolatzeko edozein prozesutan.

La conservación del suelo y la asignación de usos que aprovechen sus potencialidades sin deteriorarlo debe ser un objetivo prioritario en cualquier proceso de ordenación del territorio.

Lurraldea da edozein jarduerak finkatzeko baliatzen duen oinarria. Ingurune fisiko dinamikotzat hartu behar da lurraldea, eta bere espazioetan ezar daitezkeen jarduerak baldintzatu behar ditu horri jarraikiz. Horrela, espazio baten edo bestearen egokitasunak espazio beraren karga-ahalmena eta bere hauskortasuna izan behar ditu funtsezko baldintza gisa. Ingurune fisikoa funtsezko faktorea da ongizaterako, garapen ekonomikorako eta bizi-kalitaterako.

Lurra oinarrizko baliabidea da, lehen mailako ekoizpeneko jardueren funtsezko euskarria eta oinarri fisikoa den aldetik. Era berean, lurra zenbait prozesu naturalen ezaugarriak erabakitzen dituen oinarri fisikoa da, giza taldeen bizilekuetan eragina du eta arrisku naturalak agertzea baldintzatzen du. Horregatik, lurraren kontserbazioa eta lurra narriatu gabe beraren potentzialtasunak aprobetxatzen dituzten erabilerak gauzatzea lehentasunezko helburua izan behar da lurraldea antolatzeko edozein prozesutan.

1997an LAGak onartu zirenetik, ingurune fisikoaren kudeaketa iraunkor baterako ezartzen diren arau-xedapen ugari jarri dira indarrean, lurraldearen antolamenduaren esparruan zein eraginpean hartutako esparruetan, bereziki ingurumenarenean eta lehen sektorean.

Lurralde-antolamendurako tresnei dagokienez, Lurralde Plan Partzialez gain, nabarmentzekoa da

El territorio es la base sobre la que se asienta cualquier actividad. Ha de entenderse como un medio físico dinámico, que como tal debe condicionar los usos que pueden darse en sus diferentes espacios. De esta manera, la idoneidad de uno u otro espacio debe contar como requisitos fundamentales la capacidad de carga del mismo y su fragilidad. El medio físico es un factor clave para el bienestar, el desarrollo económico y la calidad de vida.

El suelo constituye un recurso básico como soporte esencial de actividades de producción primaria y a la vez base física que determina las características de numerosos procesos naturales, incidiendo en los asentamientos humanos y condicionando la aparición de riesgos naturales. Por ello su conservación y la asignación de usos que aprovechen sus potencialidades sin deteriorarlo debe ser un objetivo prioritario en cualquier proceso de ordenación del territorio.

Desde la aprobación de las DOT en 1997 han entrado en vigor numerosas disposiciones normativas que establecen las medidas pertinentes para una gestión sostenible del medio físico, tanto en el ámbito de la ordenación del territorio como en los ámbitos sectoriales concernidos, principalmente el medioambiental y el del sector primario.

En cuanto a los instrumentos de ordenación territorial se refiere, además de los planes territoriales

La Puebla de Labarca





Mendexa

Orain jauzi kualitatibo bat egin beharra dago ikuspegi integralago baterantz, ingurune fisikoaren kudeaketa eraginkorragoa egitea ahalbidetuko diguna.

En este momento se hace necesario dar un salto cualitativo hacia un enfoque más integral que permita ofrecer una gestión más eficaz del medio físico.

zuzenean ingurune fisikoarekin lotutako lau Lurralde Plan Sektorialen bidez egindako garapena, hala nola EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala, Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala, Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala eta Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.

Beren ingurumen-balioengatik babestutako guneei dagokienez, epealdi honetan lau parke natural gehitu zaizkie 1997an zeuden bost parkeei, eta zazpi biotopo babestu deklaratu dira, zuhaitz berezien, hezeguneen eta Natura 2000 sarearen onespenaz gain (BGL, KBE, BBE), eta hori horrela, gure lurraldearen zati handi bat onetsitako babes-mailarekin geratuko da.

1997ko LAGetan adierazitako arazoek –hala nola basoen atzerakadak, habitaten degradazioak, uren kutsadurak eta kostaldearen narriadurak– tresnak dituzte jada kalte horiek arintzeko. Dena den, orain jauzi kualitatibo bat egin beharra dago ikuspegi integralago baterantz, ingurune fisikoaren kudeaketa eraginkorragoa egitea ahalbidetuko diguna, abiapuntutzat hartuta ekosistemen zerbitzuek pertsonei eskaintzen dieten zerbitzuak atxikitzea eta hobetzea, ingurune fisikoaren narriadurara eramaten duten zatikatze-prozesuak saihestuta.

Berrikuspen honen Ingurune Fisikoaren eta Azpiegitura Berdearen kapitulu honen ikuspegiak helburu hirukoitza du:

– Lurzoru urbanizaezina antolatzeko irizpideak definitzea antolamendu-kategoriak ezarrita, izen-dapenak homogeneizatuz lurzorua kalifikatzeko, eta gidalerroak ere bai kategoria bakoitzean erabilerak erregulatzeko.

parciales, cabe destacar el desarrollo realizado a través de cuatro planes territoriales sectoriales (PTS) relacionados directamente con el medio físico, como son el PTS de ordenación de ríos y arroyos de la CAPV, el PTS de zonas húmedas, el PTS de protección y ordenación del litoral y el PTS agroforestal.

En cuanto a los espacios protegidos por sus valores ambientales se refiere, en este período se han añadido cuatro nuevos parques naturales a los cinco existentes en 1997 y quedan protegidos siete biotopos protegidos, además del reconocimiento de los árboles singulares, los humedales y la red natura 2000 (LIC, ZEC, ZEPA). queda así una parte importante de nuestro territorio con un grado de protección reconocido.

Los problemas señalados en las DOT de 1997 de regresión de los bosques, degradación de hábitats, contaminación de aguas y deterioro de la costa, por ejemplo, cuentan ya con herramientas para su mitigación. sin embargo, en este momento se hace necesario dar un salto cualitativo hacia un enfoque más integral que permita ofrecer una gestión más eficaz del medio físico, partiendo de la preservación y fortalecimiento de los servicios que ofrecen a las personas los servicios de los ecosistemas, y evitando procesos de fragmentación que conducen a su deterioro.

El enfoque del capítulo del medio físico e infraestructura verde de esta revisión tiene un triple objetivo:

– Definir criterios para la ordenación del suelo no urbanizable mediante el establecimiento de categorías de ordenación, homogeneizando las denominaciones para su calificación y de las directrices para la regulación de los usos en cada categoría.

Kapitulu honen ikuspegiak helburu hirukoitza du: lurzoru urbanizaezina antolatzeko irizpideak definitzea, “Azpiegitura Berdea” kontzeptua sartzea plangintzan eta EAEko ingurumen-espazio esanguratsuenak biltzea, baita horien artean konektibitate ekologikoa lor dezaketen lurraldearen zatiak ere.

El capítulo tiene un triple objetivo: definir criterios para la ordenación del suelo no urbanizable, introducir el concepto “Infraestructura Verde” en el planeamiento y recoger los espacios medioambientalmente más relevantes de la CAPV, así como las partes del territorio que pueden lograr su conectividad ecológica.

– "Azpiegitura Berdea" kontzeptua sartzea lurralde- eta hirigintza-plangintzan, naturak eskaintzen dizkigun zerbitzuak atxikitzeko eta indartzeko modu integral gisa, baita azpiegitura berdeari dagozkion gidalerroak ezartzeko modu gisa ere.

– EAEko ingurumen-espazio esanguratsuenak biltzea, baita espazio horien artean konektibitate ekologikoa lor dezaketen lurraldearen zatiak ere.

Honako bi puntu hauetan egituratzen da atala:

4.1 INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA

4.2 AZPIEGITURA BERDEA ETA EKOSISTEMEN ZERBITZUAK

Aurrekoaren eranskin gisa, dokumentuaren 12.1 Eranskinak EAE osorako azpiegitura berdea zein den adierazten du, baita kartografiatutako ekosistemen zerbitzuak ere:

– Alde batetik identifikatzen dira naturagune babestuak, Natura 2000 sarea, EAEko korridore ekologikoak eta natura intereseko beste espazio multifuntzional batzuk, EAEko azpiegitura berdearen zati gisa, eta EAEko naturagune babestuen eta azpiegitura berdearen kartografia ekartzen da.

– Beste alde batetik EAEko ekosistemen zerbitzuetarako sarrera ematen da. Ingurumen-unitateak identifikatzen dira eta kartografiatutako zerbitzuei buruzko fitxa batzuk jasotzen dira: biodibertsitate naturalaren kontserbazioa, elikagaien hornidura (nekazaritza eta abeltzaintza), uraren hornidura, egurraren hornidura, karbonoa biltegiratzea, uholdeak arintzea, polinizazioa eta jolasa.

Aurrekoaren eranskin gisa, dokumentuak bi eranskin jasotzen ditu 12.1 atalean.

– Introducir el concepto "infraestructura verde" en el planeamiento territorial y urbanístico, como forma integral de preservar y reforzar los servicios que nos ofrece la naturaleza y establecer las directrices correspondientes.

– Recoger los espacios medioambientalmente más relevantes de la CAPV, así como las partes del territorio que pueden lograr la conectividad ecológica entre estos espacios.

El apartado se estructura en los dos puntos siguientes:

4.1 ORDENACIÓN DEL MEDIO FÍSICO

4.2 INFRAESTRUCTURA VERDE Y SERVICIOS DE LOS ECOSISTEMAS

Como complemento a lo anterior, el apartado 12.1 anexo del documento señala la infraestructura verde a nivel de la CAPV, así como los servicios de los ecosistemas cartografiados:

– Por una parte, se identifican los espacios naturales protegidos, la red natura 2000, los corredores ecológicos a nivel de la CAPV y los otros espacios de interés natural multifuncionales como parte de la infraestructura verde a nivel de la CAPV, y se aporta cartografía de la red de espacios naturales protegidos y de la infraestructura verde a nivel de la CAPV.

– Por otra parte, se aporta una introducción a los servicios de los ecosistemas en la CAPV, con una identificación de unidades ambientales y unas fichas sobre servicios cartografiados: conservación de la diversidad natural, abastecimiento de alimentos (agricultura y ganadería), abastecimiento de agua, abastecimiento de madera, almacenamiento de carbono, amortiguación de inundaciones, polinización y recreo.

Como complemento al capítulo, el documento incluye dos anexos en el apartado 12.1.

4.1. Ingurune fisikoaren antolamendua

4.1. Ordenación del medio físico

Ingurune fisikoaren antolamenduak ezartzen du zein erabilera diren egokiak, onargarriak edo debekatuak, sei antolamendu-kategoriari eta zenbait baldintzatzaile gainjarriri jarraikiz. Gainera, gidalerro batzuk adierazten dira ingurune fisikoaren elementu eta prozesuetarako, eta jardueren kontrolerako

La ordenación del medio físico establece los usos propiciados, admisibles o prohibidos, en base a seis categorías de ordenación y a una serie de condicionantes superpuestos. Además, se señalan unas directrices para los elementos y procesos del medio físico, y para el control de las actividades.



Zumaia

I. GAIA ZERTAN DEN

EAEko lurzoruaren % 93 baino gehiago ez dago urbanizatua eta ez ditu azpiegitura "grisak" –hau da, normalean gizakiak sortu dituenak– naturan oinarritu gabe.

1997ko LAGek arautzen dutenari jarraikiz, lurzoru hori 6 antolamendu-kategoriatan zatitzea proposatzen date, eta kategoria horien mugak udalerri bakoitzarentzat ezarriko dira dagokion plan orokorrean: Babes Berezia, Ingurumen Hobekuntza, Basoa, Nekazaritza nahiz Abeltzaintza eta Landazabala, Mendi Larreak eta Gainazaleko Uren Babesa.

Ingurune fisikoari gainjarrita ageri dira zenbait baldintza, eta ingurunearen gainean jarduera jakin batzuk mugatzen dituzte, baldintzatzaile bakoitzaren erreferentzia egiten duen egoera partikularraren arabera. Bi baldintza mota har ditzakegu kontuan: arriskuen baldintzatzaile

I. ESTADO DE LA CUESTIÓN

Más del 93% de la CAPV se corresponde con suelo que no está urbanizado ni soporta las infraestructuras "grises", que son las que ha creado habitualmente el ser humano, sin basarse en la naturaleza.

Siguiendo lo regulado por las DOT de 1997, se propone dividir este suelo en seis categorías de ordenación, cuyas delimitaciones serán establecidas para cada municipio en su correspondiente plan general: Especial Protección, Mejora Ambiental, Forestal, Agroganadera y Campiña, Pastos Montanos y Protección de Aguas Superficiales.

Superpuesta al medio físico aparece una serie abierta de condicionantes, que limitan la forma en que se pueden desarrollar sobre él determinadas actividades, según la situación particular a que haga referencia cada condicionante. Se pueden considerar dos tipos de condicionantes: los condicionantes superpuestos

Lurzoru hori sei antolamendu-kategoriatan zatitzea proposatzen da.

Se propone dividir este suelo en seis categorías de ordenación.

Ingurune fisikoari gainjarrita ageri dira zenbait baldintza.

Superpuesta al medio físico aparece una serie abierta de condicionantes.

gainjarriak (akuiferoen urrakortasuna, arrisku geologikoak, urak har ditzakeen eremuak) eta azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarriak (beren ingurumen-balioengatik babestutako espazioen multzoa alde batetik, eta korridore ekologikoak eta interes naturaleko beste espazio multifuntzional batzuk bestetik). Baldintza horiez gain, hirigintza-plangintzak beste baldintza batzuk ere adieraz ditzake, lege-arlokoak, sektorialak (onura publikoko mendiak) eta abar.

Azkenik, klima-aldaketaren ondorioz, aztertutako arriskuak larriagotzen dira (intentsitate handiagoa, aldizkakotasun handiagoa), eta gainera arrisku berriak sortzen dira: itsasoaren maila igotzea, ekaitzei edo olatu handiei lotutako arriskuak, lehorte luzeengatik basogintzako alde homogeneoetan suteak gertatzeko arriskuak, edo hiriguneetako bero-irlaren fenomenoa. Lurraldearen plangintzak arrisku horiek kontuan hartu behar ditu, gerora hirigintza-plangintzan txertatzeko, dokumentu honen 10.3 atalak dioenaren arabera.

de riesgos (vulnerabilidad de acuíferos, riesgos geológicos, áreas inundables) y los condicionantes superpuestos de la infraestructura verde (el conjunto de espacios protegidos por sus valores ambientales por un lado, y los corredores ecológicos y otros espacios de interés natural multifuncionales por otro). Además de éstos, el planeamiento urbanístico puede señalar otros condicionantes de carácter legislativo, sectorial (montes de utilidad pública), etc.

Finalmente, el cambio climático implica el agravamiento (mayor intensidad, mayor periodicidad) de los riesgos tratados, además de la aparición de unos nuevos: la subida del nivel del mar, los riesgos asociados a tormentas o fuerte oleaje, los riesgos de incendios por sequías prolongadas en áreas forestales homogéneas, o el fenómeno de isla de calor en zonas urbanas. Estos riesgos deben ser considerados por el planeamiento territorial para su inserción posterior en el planeamiento urbanístico, según lo señalado en el apartado 10.3 de este documento.



Barrundia

Horrekin batera irizpide orokor batzuk ezartzen dira antolamendu-kategoria bakoitzeko eta baldintzatzaile gainjarri bakoitzeko erabilera erregulatzeko: antolamendu-kategoriak eta erabilera edo jarduerak gurutzatu dira, ahalbidetu behar diren, onargarriak diren edo debekatuta dauden jarduerak adierazita. Erlazio hori "Ingurune Fisikoaren Antolamendu Matrizea" delakoaren bidez adierazten da.

Kategorizazio horretatik kanpo daude giza kokaguneak (normalean bizitegi-arlokoak eta industria-arlokoak), giza kokagune horiek eskatu

Paralelamente se establecen unos criterios generales para la regulación de usos de cada categoría de ordenación y condicionante superpuesto: se han cruzado las categorías de ordenación y los usos o actividades, señalando aquellas que se consideran actividades a propiciar, admisibles o prohibidas. Esta relación se representa a través de la "Matriz de Ordenación del Medio Físico".

Fuera de esta categorización se sitúan los asentamientos humanos (generalmente residenciales e industriales), las infraestructuras "grises" que han

dituzten azpiegitura "grisak" (sistema orokorrak) eta landaguneak; izan ere, ingurune fisikoan egonagatik (eta horrenbestez ingurunearen prozesuen eraginpeko dira), sektoreko legeria espezifikoa dute, edo hirigintzaren esparruarena.

Erabileraren araubide hori eta dagozkion elementuak lurralde-plangintzak garatu ditzake. Hori gertatu da gaur egun arte Itsasertzaren LPSarekin, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSarekin edo Hezeguneen LPSarekin.

Ingurune fisikoaren antolamenduarekin lotutako gidalerroek planteatzen dituzte, alde batetik, elementu eta prozesuei eta ingurune fisikoko jardueren kontrolari buruzko zenbait gai, eta, bestetik, ingurune fisikoa antolatzeko LAGen proposamena baliatzen da, Ingurune Fisikoaren Antolamendu Matrizean laburbilduta. Ingurune fisikoaren elementu eta prozesuei dagokienez, honako arlo hauei buruzko gidalerroak sartzen dira: lurzorua eta zorupea, biodibertsitatea, gainazaleko eta lurrazpiko baliabide hidrikoen tratamendua, kostaldea eta itsas ingurunea eta interes zientifiko-kulturaleko aztarnategien babesa. Azkenik, jardueren kontrolari buruzko gidalerroak honako hauei buruzkoak dira: azpiegiturak, erauzketa-jarduerak, hirigintza- eta eraikuntza-jarduerak, hondakinen biltegiak, turismo- eta jolas-jarduerak, eta nekazaritza-jarduerak.

Baldintzatzaile gainjarrien informazio grafikoa Eusko Jaurlaritzaren GeoEuskadi atarian egongo da eskuragarri.

demandado esos asentamientos humanos (sistemas generales) y los núcleos rurales, los cuales si bien se sitúan en el medio físico (y por tanto les afectan sus procesos), cuentan con legislación específica sectorial o del ámbito del urbanismo.

Esta regulación de usos, así como sus elementos pueden ser desarrollados por el planeamiento territorial. Esto ha ocurrido hasta la fecha con el PTS de Litoral, el PTS Agroforestal, el PTS de Ríos y Arroyos y el PTS de Zonas Húmedas.

Las directrices en relación con la ordenación del medio físico plantean, por un lado, una serie de cuestiones relativas a los elementos y procesos y al control de las actividades en el medio físico, y, por otro lado, se despliega la propuesta de las DOT para la ordenación del medio físico, resumida en la Matriz de Ordenación del Medio Físico. En relación con los elementos y procesos del medio físico, se introducen directrices en relación con el suelo y el subsuelo, la biodiversidad, el tratamiento de los recursos hídricos superficiales y subterráneos, el espacio litoral y medio marino, y la protección de yacimientos de interés científico-cultural. Finalmente, las directrices sobre control de actividades son relativas a infraestructuras, actividades extractivas, actividades urbanísticas y edificatorias, depósitos de residuos, actividades turísticas y recreativas y actividades agrarias.

La información gráfica de los condicionantes superpuestos será accesible en el portal de información geográfica del Gobierno Vasco-Geo Euskadi.

Erabileraren araubide hori eta dagozkion elementuak lurralde-plangintzak garatu ditzake.

Esta regulación de usos, así como sus elementos pueden ser desarrollados por el planeamiento territorial.

Ingurune fisikoaren antolamenduarekin lotutako gidalerroek planteatzen dituzte, alde batetik, elementu eta prozesuei eta ingurune fisikoko jardueren kontrolari buruzko zenbait gai, eta, bestetik, ingurune fisikoa antolatzeko LAGen proposamena baliatzen da, Matrizean laburbilduta.

Las directrices en relación con la ordenación del medio físico plantean, por un lado, una serie de cuestiones relativas a los elementos y procesos y al control de las actividades, y por otro lado se despliega la propuesta de las DOT para la ordenación del medio físico, resumida en la Matriz.

Getaria



II.
HELBURUAK

Lurralde-eredua berrikustearen helburuak –ingurune fisikoa antolatzeari dagokionez– honako hauek dira:

1. Lurraldearen erabilera iraunkorra bermatzea, etorkizuneko belaunaldientzat dauden baliabide erabilgarriak konprometitu gabe eta desparekotasunak desagerrarazten lagunduz.

2. Espazio bakoitzarentzat lurralde-bokazio bat definitzea, erabilera egokienak erregulatuko dituena.

3. Lurralde- eta hirigintza-antolamendurako tresna guztien arteko koherentzia bermatzea.

4. Erabileren konplexutasunaren eta metodologia homogeneoen bidez sortutako inpaktuaren jarraipena egitea.

II.
OBJETIVOS

Los objetivos de la revisión del modelo territorial que se proponen en materia de ordenación del medio físico son los siguientes:

1. Garantizar un uso sostenible del territorio, no comprometiendo los recursos disponibles para las generaciones futuras y contribuyendo a la eliminación de desigualdades.

2. Definir para cada espacio una vocación territorial que regule los usos más apropiados.

3. Garantizar la coherencia entre todos los instrumentos de ordenación territorial y urbanística.

4. Realizar un seguimiento de la complejidad de usos y del impacto generado mediante metodologías homogéneas.

III.
LURRALDE-GIDALERROAK

Ingurune fisikoaren antolamenduaren arloko lurralde-gidalerroak Araudiaren 3. artikuluan eta araudi horren eranskinean daude.

III.
DIRECTRICES TERRITORIALES

Las directrices territoriales en materia de ordenación del medio físico se encuentran en el artículo 3 de la Normativa y en su anexo.

4.2. Azpiegitura Berdea eta ekosistemen zerbitzuak

4.2. Infraestructura Verde y servicios de los ecosistemas

Azpiegitura Berdearen kontzeptua aurrerapauso bat da, diziplina moduan, espazio babestuarekiko eta korridore ekologikoarekiko. Jauzi kualitatiboa da eskala guztiei eragiten dielako eta hainbat aukera ematen dituelako ingurumenari, osasunari, ekonomiari eta aisiari dagokienez, besteak beste. Bestalde, Ekosistemen Zerbitzuen Ebaluazioa oinarri metodologiko bat da, ekosistemek gizarteari egiten dioten ekarpena nolakoa den jakiteko.

El concepto de Infraestructura Verde avanza disciplinariamente con respecto al de espacio protegido o al de corredor ecológico; da un salto cualitativo en cuanto que afecta a todas las escalas y ofrece múltiples oportunidades en diversas cuestiones como el medio ambiente, la salud, la economía o el ocio, entre otras. Por su parte, la Evaluación de Servicios de los Ecosistemas ofrece una base metodológica que puede resultar útil para contemplar la aportación de los mismos a la sociedad.



Vitoria-Gasteiz

I. GAIA ZERTAN DEN

EAE lurralde murritza da eta baldintzatzaile nabarmenak ditu bere kokaguneei eta morfologiari dagokionez, eta gune urbanizatuek izan duten hedapenak lurralde-zatikatze nabaria eragin du. Horregatik planteatzen da "azpiegitura berdea" deitutakoaren kontzeptua sartzea plangintzan, hainbat mailatan zatikatze hori saihestu eta berregiteko, eta baita aukera gisa ere ekosistemek eskaintzen dizkiguten zerbitzu baliotsuak zaindu eta indartzeko.

Europako Batzordearen arabera, azpiegitura berdea zera da, «gune naturalen, erdinaturalen eta beste ingurune-elementu batzuen sarea, estrategikoki planifikatua, zerbitzu ekosistemikoen sorta zabal bat emateko diseinatua eta kudeatua. Espazio berdeak (edo urdinak ur-ekosistemen kasuan) eta lehorreko espazioetako beste elementu fisiko batzuk (kostaldeko eremuak barne direla) nahiz itsasoko

I. ESTADO DE LA CUESTION

La extensión de las zonas urbanizadas en un territorio reducido y con condicionantes de localización y morfología como es la CAPV ha provocado una fragmentación territorial evidente. Es por ello que se plantea introducir el concepto de "infraestructura verde" en el planeamiento, como forma de evitar y recomponer la fragmentación a diferentes escalas, y a su vez como una oportunidad para preservar y reforzar los valiosos servicios que nos ofrecen los ecosistemas.

De acuerdo con la Comisión Europea, la infraestructura verde es «una red de zonas naturales y seminaturales y de otros elementos ambientales planificada de forma estratégica, diseñada y gestionada para la prestación de una extensa gama de servicios ecosistémicos. Incorpora espacios verdes (o azules en el caso de los ecosistemas acuáticos) y otros elementos físicos de espacios terrestres (incluidas las

Planteatzen da "azpiegitura berdea" deitutakoaren kontzeptua sartzea plangintzan, hainbat mailatan zatikatze hori saihestu eta berregiteko, eta baita aukera gisa ere ekosistemek eskaintzen dizkiguten zerbitzu baliotsuak zaindu eta indartzeko.

Se plantea introducir el concepto de "infraestructura verde" en el planeamiento, como forma de evitar y recomponer la fragmentación a diferentes escalas, y como una oportunidad para preservar y reforzar los servicios de los ecosistemas.

Azpiegitura berdearen definizioan bertan ageri dira haren garapenaren ipar izan beharko luketen ezaugarri eta printzipioak: izaera estrategikoa, osa dezaketen elementuen zabaltasuna, zerbitzu ekosistemikoen sorta zabala emateko gaitasuna.

En la misma definición de infraestructura verde aparecen las características y los principios que deberían inspirar su desarrollo: carácter estratégico, amplitud de elementos que la pueden componer, capacidad para prestar una extensa gama de servicios ecosistémicos.

elementu batzuk biltzen ditu. Lehorreko espazioetan, landa- eta hiri-inguruneetan ageri da azpiegitura berdea.»

Azpiegitura berdearen definizioan bertan ageri dira haren garapenaren ipar izan beharko luketen ezaugarri eta printzipioak:

1. Izaera estrategikoa, lehendik dauden ildo eta tresnak aprobetxatuz.

2. Osa dezaketen elementuen zabaltasuna: lehorrekoak zein uretakoak, hiri-arlokoak zein landa-arlokoak, eta eskala desberdinetan. Orientabide modura soil-soilik:

zonas costeras) y marinos. En los espacios terrestres, la infraestructura verde está presente en los entornos rurales y urbanos.»

En la misma definición de infraestructura verde aparecen las características y los principios que deberían inspirar su desarrollo:

1. Carácter estratégico, aprovechando los cauces e instrumentos ya existentes.

2. Amplitud de los elementos que la pueden componer: tanto terrestres como acuáticos, urbanos como rurales, y a diferentes escalas. A modo meramente orientativo:

Eskala (tresna) / Escala (instrumento)	**Nodoa / Nodo**	**Lotura / Conexión**
EAE / CAPV (Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, Lurralde Plan Sektorialak) (Directrices de Ordenación Territorial, Planes Territoriales Sectoriales)	Beren ingurune-balioengatik babestutako guneak... Espacios protegidos por sus valores ambientales...	Korridore ekologikoa... Corredor ecológico...
Eremu Funtzionala (Lurralde Plan Partzialak) Área Funcional (Planes Territoriales Parciales)	Hirien inguruko parkea Parque periurbano Nekazaritza eta abeltzaintzako lurzoruak Suelos agroganaderos Aisiagune metropolitarrak Zonas de ocio metropolitanas Lurraldera sartzeko espazioak Espacios de acceso al territorio ...	Bide berdea Vía verde Lurralde-ibilbideak: landa-bideak, egungo bide bigunak Recorridos territoriales: caminos rurales, vías blandas existentes Bioingeniaritzako obrak Obras de bioingeniería Ekoduktuak Ecoductos ...
Tokikoa (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra Local (Plan General de Ordenación Urbana)	Eraztun Berdea Anillo verde Hiri Parkea Parque Urbano Lorategia, euri-urezko lorategia Jardín, jardín de lluvia Hiri-baratzea Huerto urbano Estalkiak, fatxadak, terrazak Cubiertas, fachadas, terrazas ...	Hiribidea Avenida Bulebarra, ekobulebarra Bulevar, ecobulevar Zumardia Alameda Ibai-aurrealdea Frente fluvial Heskaiak Setos ...

3. Zerbitzu ekosistemikoen sorta zabala emateko gaitasuna, hau da, ekosistemetatik zuzenean edo zeharka pertsonek jasotzen ditugun onurak, horniketakoak, erregulaziokoak edo kulturalak direla.

3. Capacidad para prestar una gama extensa de servicios ecosistémicos, es decir, aquellos beneficios que las personas recibimos directa o indirectamente de los ecosistemas, ya sean de abastecimiento, de regulación o culturales.

EKOSISTEMEN ZERBITZUAK SERVICIOS DE LOS ECOSISTEMAS		BIZI-KALITATE OSATZEN DUTENAK CONSTITUYENTES DE LA CALIDAD DE VIDA	
Euskarria: **Soporte:** Elikagaien zikloak Ciclos de nutrientes Produktibitate primarioa Productividad primaria Uraren zikloa Ciclo del agua	**Hornikuntza**: **Abastecimiento**: Elikagaia Alimento Ur geza Agua dulce Egurra, zelulosa Madera, celulosa Baliabide genetikoak Recursos genéticos	**Segurtasuna**: **Seguridad:** Segurtasun pertsonala Seguridad personal Baliabideetarako irispide segurua Acceso seguro a recursos Hondamendien aurreko segurtasuna Seguridad frente a desastres	**Aukeratu eta egiteko askatasuna** **Libertad de elección y de acción:** Gizabanakoaren balioak garatzeko aukera Oportunidad de desarrollo de los valores del individuo
	Erregulazioa: **Regulación:** Klimaren erregulazioa Regulación del clima Airearen kalitatea Calidad del aire Uraren arazketa Depuración del agua Polinizazioa Polinización Lurzoruaren osaketa eta emankortasuna Formación y fertilidad del suelo	**Oinarrizko behar materialak:** **Necesidades materiales básicas:** Behar besteko elikagai Suficientes alimentos Etxebizitza duina Vivienda digna Ondasunetarako irispidea Acceso a bienes	
	Kulturalak: **Culturales:** Espiritualak Espirituales Estetikoak Estéticos Aisialdia eta turismoa Recreación y turismo Hezkuntzakoak eta zientifikoak Educativos y científicos	**Osasuna:** **Salud:** Gaixotasunen kontrako indarra Fortaleza a enfermedades Egoera orokor osasungarria Estado general saludable Aire eta uretarako irispide garbia Acceso a aire y agua limpios	
		Harreman sozial egokiak: **Relaciones sociales adecuadas:** Kohesio soziala Cohesión social Elkarrekiko errespetua Respeto mutuo Elkartasuna Solidaridad	

Iturria: www.ingurumena.eus, Millenium Ecosystem Assessment lanekoa, 2013

Fuente: www. ingurumena.eus, de Millenium Ecosystem Assessment, 2013

Azpiegitura berdeak lurzoru-erabileraren ikuspuntu integratua hartzea ahalbidetzen du, konektibitate globala hobetuz eta azpiegitura "grisek" sortutako zatikatzearen ondorioak arinduz, lurraldearen iragazkortasuna areagotuz, eta espazio multifuntzionalak identifikatuz, zeinetan lurzoruaren erabilera bateragarriak bultzatuko diren, ekosistema osasuntsu eta askotariko batzuk lortzeko lagungarriak. Lurzoruaren erabileraren ikuspegi integratu horrek ekintza isolatu independenteek eskaini ahalko lituzketen onurak areagotzen ditu, ekintza horiek helburu berak izanda ere, eta lurralde erresilienteago baterantz aurrera egitea ahalbidetzen du, espero ez diren gertaera naturalei aurre egiteko gai izango dena.

Azpiegitura berdea LAGen lurralde-ereduaren zati da, baita Europa osoan eratzen ari den azpiegitura berdearen zati ere, batez ere espazio mugakideekin duen erlazioaren bidez.

Horrela, ikuspegi sistemiko naturala sartzen da lurralde-plangintzaren bidez, eta horri esker

La infraestructura verde permite la adopción de un enfoque más integrado del uso del suelo, mejorando la conectividad global y mitigando los efectos de la fragmentación creada por las infraestructuras "grises", aumentando la permeabilidad del territorio, e identificando zonas multifuncionales en las que se favorezcan usos del suelo compatibles, que apoyen unos ecosistemas sanos y diversos. Este enfoque integrado del uso del suelo aumenta los beneficios que pudieran ofrecer acciones aisladas independientes, aunque compartieran los mismos objetivos, y permite avanzar hacia un territorio más resiliente, capaz de hacer frente a sucesos naturales inesperados.

La infraestructura verde forma parte del modelo territorial de las DOT, así como de la infraestructura verde que se va conformando a nivel europeo, a través principalmente de su relación con los espacios colindantes.

Se introduce así la visión sistémica natural a través de la planificación territorial y de este modo se visibiliza

Lurzoruaren erabileraren ikuspegi integratu horrek ekintza isolatu independenteek eskaini ahalko lituzketen onurak areagotzen ditu, eta lurralde erresilienteago baterantz aurrera egitea ahalbidetzen du, espero ez diren gertaera naturalei aurre egiteko gai izango dena.

Este enfoque integrado del uso del suelo aumenta los beneficios que pudieran ofrecer acciones aisladas independientes, y permite avanzar hacia un territorio más resiliente, capaz de hacer frente a sucesos naturales inesperados.



Vitoria-Gasteiz

plangintzan agerian geratzen da interes naturala duten zonen hedadura eta lurralde-kudeaketa eta nolako erlazioa duten, hori guztia ekosistemek ematen dituzten zerbitzuak balioztatzeko.

12.1 atalean (Eranskina) EAEko Azpiegitura Berdeari buruzko informazioa jasotzen da, baita ekosistemen zerbitzuak kartografiatzeko lanari buruzko fitxa

en la planificación, el alcance y la gestión territorial de las zonas de interés natural y su interrelación, todo ello dirigido a valorar los servicios que proporcionan los ecosistemas.

En el apartado 12.1 Anexo se incluye la información relativa a la Infraestructura Verde a escala de la CAPV, así como una serie de fichas sobre el cartografiado



batzuk ere. EAErako azpiegitura berdea zein zerbitzu kartografiatuak eguneratuta kontsultatu ahalko dira Eusko Jaurlaritzaren Informazio Geografikoari buruzko atarian.

EAErako azpiegitura berdea honako elementu hauek osatzen dute:

1. Beren ingurune-balioengatik babestutako espazioek, eta beren babes-figura propioak dituztenek.

2. Espazio horiek eta lurralde mugakideetako espazioak ere lotzen dituzten korridore ekologikoek, betiere korridore horiek EAEren barruan badaude.

3. Interes naturala duten beste espazio multifuntzional batzuek, EAErako ingurune-balio aipagarriak izanik, onartutako babes-figurarik ez daukatenek.

4. Ibilguak eta gainazaleko uren babeseko zona gisa kategorizatutako haien zonek, RAMSAR hezeguneek eta Hezeguneen LPSak inbentariatutako ur-masa guztiek.

5. Lurralde- eta hirigintza-plangintzek sarea zabalduko dute espazio esanguratsuak bilduta beren ondoz ondoko eskaletan, eta, dena dela, EAErako azpiegitura berdean ez dauden beste espazio babestu batzuk hartu beharko dituzte kontuan (hala nola IGLak, Plan Hidrologikoetako Gune Babestuen Erregistroa eta abar).

Gaur egun, lurraldearen % 23 gutxi gorabehera natura babesteko figuraren batean edo bestean jasota dago, 1997ko % 9,7arekin alderatuta. EAEko ekosistema

de los servicios de los ecosistemas. Tanto la infraestructura verde a nivel de la CAPV como los servicios cartografiados podrán consultarse de forma actualizada en el portal de Información Geográfica del Gobierno Vasco.

La infraestructura verde a nivel de la CAPV se compone de los siguientes elementos:

1. Los espacios protegidos por sus valores ambientales y que cuentan con sus propias figuras de protección.

2. Los corredores ecológicos que enlazan estos espacios y también espacios de territorios colindantes siempre que los corredores se sitúen dentro de la CAPV.

3. Otros espacios de interés natural multifuncionales que, teniendo valores ambientales reseñables a nivel de la CAPV, no cuentan con una figura de protección aprobada.

4. Los cauces y sus zonas categorizadas como de protección de aguas superficiales, los humedales RAMSAR y todas las masas de agua inventariadas por el PTS de Zonas Húmedas.

5. Los planeamientos territoriales y urbanísticos extenderán la red incorporando espacios relevantes en sus respectivas escalas, en todo caso, deberán tener en consideración otros espacios protegidos que no están en la infraestructura verde a nivel de la CAPV (como los LIG, el Registro de Zonas Protegidas de los Planes Hidrológicos, etc.).

En la actualidad aproximadamente el 23% del territorio de la CAPV está incluido en una u otra de las figuras de protección de la naturaleza existentes,

EAErako azpiegitura berdea honako elementu hauek osatzen dute: beren ingurune-balioengatik babestutako espazioek, espazio horiek eta lurralde mugakideetako espazioak ere lotzen dituzten korridore ekologikoek, interes naturala duten beste espazio multifuntzional batzuek, baita hauek ere: ibilguak eta gainazaleko uren babeseko zona gisa kategorizatutako haien zonek, RAMSAR hezeguneek eta Hezeguneen LPSak inbentariatutako ur-masa guztiek.

La infraestructura verde a nivel de la CAPV se compone de los espacios protegidos por sus valores ambientales, los corredores ecológicos que enlazan estos espacios y también espacios de territorios colindantes, otros espacios de interés natural multifuncionales, así como los cauces y sus zonas categorizadas como de protección de aguas superficiales, los humedales RAMSAR y todas las masas de agua inventariadas por el PTS de Zonas Húmedas.

Zugaztieta/La Arboleda. Valle de Trápaga-Trapagaran





Sare berdea: beren ingurune-balioengatik babestutako espazioak, korridore ekologikoak eta interes naturala duten beste espazio multifuntzional batzuk.
Sare Urdina: ibilguak, ur-masak, babesguneak.
Iturria: egileak egina.

Red Verde: espacios protegidos por sus valores ambientales, corredores ecológicos, otros espacios de interés natural multifuncionales.
Red Azul: cauces, masas de agua, zonas de protección.
Fuente: Elaboración propia.

BEREN INGURUNE-BALIOENGATIK BABESTUTAKO EAEko GUNEAK

ESPACIOS DE LA CAPV PROTEGIDOS POR SUS VALORES AMBIENTALES



	Kopurua Número	Azalera (Hektareak) Superficie (Has)	EAEko azaleraren %-a % de la superficie de la CAPV
Naturagune babestuak **Espacios Naturales Protegidos**	41	81.753,2	11,3%
Zuhaitz Bereziak / Árboles Singulares	25	0,0	0,0%
Biotopo Babestuak / Biotopos Protegidos	7	5.892,23	0,82%
Parke Naturalak / Parques Naturales	9	76.559,27	10,6%
Natura 2000 Sarea **Red Natura 2000**	58	162.828,6	22,5%
BGL / LIC	20	101.021,15	13,99%
KBE / ZEC	32	22.511,49	3,12%
HBBE / ZEPA	6	39.296,07	5,44%
Urdaibaiko Biosferaren Erreserba **Reserva de la Biosfera de Urdaibai**	1	22.042,2	3,05%
RAMSAR Hezeguneak **Humedales RAMSAR**	6	1.685,2	0,23%
Babes Plan Berezia (Txingudi) **Plan Especial de Protección (Txingudi)**	1	160,8	0,02%
Hezeguneen LPS **PTS de Zonas Húmedas**	1.237	5.247,4	0,7%
I. multzoa / Grupo I	369	738,2	0,1%
II. multzoa / Grupo II	19	1.771,8	0,3%
III. multzoa / Grupo III	849	2.847,0	0,4%
EAE GUZTIRA / TOTAL CAPV	**1.344**		

Iturria: www.ingurumena.eus *Fuente: www.ingurumena.eus*

Gaur egun, lurraldearen % 23 gutxi gorabehera natura babesteko figuraren batean edo bestean jasota dago, 1997ko % 9,7arekin alderatuta.

En la actualidad aproximadamente el 23% del territorio de la CAPV está incluido en una u otra de las figuras de protección de la naturaleza existentes, frente al 9,7% de 1997.

Lurralde- eta hirigintza-plangintzek sarea zabalduko dute espazio esanguratsuak bilduta beren ondoz ondoko eskaletan.

Los planeamientos territoriales y urbanísticos extenderán la red incorporando espacios relevantes en sus respectivas escalas.

eta ingurune-interesa duten eremu nagusien lagina osatzen dute espazio horiek guztiek.

1/2014 Legegintzako Dekretuak, apirilaren 15ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, honela sailkatzen ditu naturaguneak: Natura-parkea, Biotopo babestua, Zuhaitz apartekoa eta Europako Natura 2000 Sarean sartutako eremu edo lekua (Batasunaren garrantzizko lekuak –BGL–, kontserbazio bereziko eremuak –KBE– eta hegaztientzako babes bereziko eremuak –HBBE–), a), b) eta c) aurreko kategoriekin eremuz, osoki edo partzialki, batera suertatzen bada ere (Arau horren 13. artikulua).

1997tik 2016ra bitartean, asko aurreratu da espazio naturalen babesari dagokionez: beste lau parke natural onartu dira, baita beste lau biotopo babestu ere. Horrez gain, zuhaitz apartekoen babesa aitortu da (25 ere bai), hezeguneak (6 Ramsar hezegune, eta 1.237, hezeguneen lurralde-plan sektorialaren hiru multzoen artean), eta Natura 2000 Sareak dakarren babes-bloke osoa, eta, guztira, EAEko lurralde osoaren % 22,5 hartzen dute.

Figura horietako zenbait espazio fisiko berean gainjartzen dira. Horregatik, guztizko azalerak ez

frente al 9,7% de 1997. Todos estos espacios configuran un muestrario de los principales ecosistemas y áreas de interés ambiental de la CAPV.

El Decreto Legislativo 1/2014, de 15 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, clasifica los espacios naturales protegidos en: Parque natural, Biotopo protegido, Árbol singular y Zona o lugar incluido en la Red Europea Natura 2000 (lugares de importancia comunitaria -LIC-, zonas especiales de conservación -ZEC- y zonas de especial protección para las aves -ZEPA-), sin perjuicio de coincidir espacialmente, de forma total o parcial, con las categorías anteriores (artículo 13 de la citada Norma).

En el período entre 1997 y 2016 se ha avanzado notablemente en materia de protección de espacios naturales: se han declarado cuatro parques naturales más y otros cuatro biotopos protegidos. Además, se ha reconocido la protección de los árboles singulares (hasta 25), los humedales (6 Humedales Ramsar y 1.237 entre los tres grupos del PTS de Zonas Húmedas) y todo el bloque de protección derivado de la Red Natura 2000, que implica al 22,5% de todo el territorio de la CAPV.

Algunas de estas figuras de protección se solapan sobre un mismo espacio físico. Es por ello que las

EAEko KORRIDORE EKOLOGIKOEN SAREA

RED DE CORREDORES ECOLÓGICOS DE LA CAPV



Iturria: egileak egina Eusko Jaurlaritzaren Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzaren txostenari jarraikiz.

Fuente: elaboración propia en base al estudio realizado por la Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental del Gobierno Vasco.

dira ezinbestean azalera edo ehuneko "desberdinei" buruzkoak, baizik eta ingurumen-babeseko figuraren bat duten hektareei buruzkoak. Dena den, espazio bereko babes-figurak koordinatzeak baino gehiago, figura bakarrean sartzeak izan behar du etorkizunerako joera.

Espazio babestuak biodibertsitatea berreskuratzeko funtsezko elementu moduan eta lurraldearen iraunkortasun orokorraren oinarri moduan finkatzeak ezinbestean eskatzen du haien arteko konexio handiagoa. Horretarako, biotopoen arteko lurralde-zatikatzea eragiten duten elementuen inpaktua gutxitu behar da, eta haiei jarraitutasuna ematen dieten erlazio-eremuak sortu. Konexio hori EAEko korridore ekologikoen sarearen bidez egiten da, baita interes naturala duten beste espazio multifuntzional batzuen bidez ere.

EAEko korridoreen sarearen elementuen identifikazioa eta irudikapena biotarako (gune-eremuak) funtsezko habitatak ahalbidetzen dituzten lurraldearen eremu edo elementuen eta eremu horien jarraitutasun ekologikoaren edo konektibitatearen azterketan oinarrituta egin da, betiere EAE osorako eta haren eragin-zonarako. Zehazki, EAEko habitatik adierazgarrienak eta lurralde osoa hartuta zatikatzerako sentsibleak diren habitatak, kontuan izanda habitat horiek lotutako espezie adierazgarriak hartzen dituztela. Gune-espazioek ingurune-balio handia duten espazioak hartzen dituzte, babes-figura bat dutela (beren ingurune-balioengatik babestutako espazioak) edo ez dutela (dokumentu honetan adierazitako interes naturala duten beste espazio batzuk). Dena dela, LPP bakoitzak ingurune-arloan esanguratsuak diren beste espazio batzuk biltzeko aukera balioetsiko du bere Eremu Funtzionalaren barruan.

Identifikatu dira, halaber, korridore horien funtzionaltasuna saihesten edo arriskuan jartzen duten oztopo kritikoak eta gatazka-zonak, gatazka horiek arindu edo desagerraraziko dituzten jardun-edo kudeaketa-neurri posibleak proposatuta, baita konektibitatea indartzen edo babesten duten beste batzuk ere.

Beren ingurune-balioengatik babestutako espazioen arteko konektibitate handieneko korridore edo ardatzak marra batzuen bidez irudikatu dira, eta marra horien zabalerak bistaratze kartografikoko irizpideei erantzuten die soilik. Espazio horien zabalera edo muga aldakorra izango da korridorearen eta lurraldearen ezaugarrien arabera, eta espezifikoki pasatzen duen lurralde-mosaikoak konektatzeko duen interesaren arabera, baita oztopo edo gatazka-zonen presentziaren arabera ere. Jardun horrek azterketa zehatza eta zabalagoa eskatzen duenez, nahitaez garatu beharko da Lurralde Plan Partzialetan. LPPek kontuan hartu behar dituzte, halaber, korridoreetarako eremu kritikoak, eremu horiek identifikatuz, eguneratuz eta dagozkion neurriak proposatuz zatikatzearen ondorioak arintzeko.

superficies totales no se refieren necesariamente a superficies ni porcentajes "diferentes", sino a las hectáreas sobre las que recae una figura de protección ambiental. No obstante, para el futuro la tendencia debe ser, más allá de coordinar las figuras de protección sobre un mismo espacio, integrarlas en una única figura.

La consolidación de los espacios protegidos como elementos esenciales de recuperación de la biodiversidad y bases para la sostenibilidad general del territorio exige una mayor interconexión entre ellos, reduciendo el impacto de los elementos que provocan la fragmentación territorial entre diversos biotopos y generando ámbitos de relación que les dan continuidad. Esta interconexión se realiza a través de la red de corredores ecológicos de la CAPV y también a través de otros espacios de interés natural multifuncionales.

La identificación y representación de los elementos estructurales de la red de corredores de la CAPV se ha realizado a partir del análisis de las áreas o elementos del territorio que proporcionan hábitats clave para la biota (áreas núcleo) y de las continuidades ecológicas o conectividad entre dichas áreas (corredores), a nivel de la CAPV y de su zona de influencia. En concreto, de los hábitats más representativos de la CAPV y sensibles a la fragmentación a escala del territorio, teniendo en cuenta que éstos acogen especies características asociadas. Los espacios núcleo comprenden espacios de alto valor ambiental, ya cuenten con una figura de protección (espacios protegidos por sus valores ambientales) o no (otros espacios de interés natural señalados en este documento). En cualquier caso, cada PTP incluirá otros espacios ambientalmente relevantes dentro de su Área Funcional.

También se han identificado los obstáculos críticos y zonas de conflicto que impiden o ponen en riesgo la funcionalidad de estos corredores proponiendo posibles medidas de actuación o gestión que mitiguen o eliminen dichos conflictos, así como otras que potencien o protejan la conectividad.

Los corredores o ejes de mayor conectividad entre los espacios protegidos por sus valores ambientales se han representado a través de líneas cuya anchura únicamente responde a criterios de visualización cartográfica. Su anchura o delimitación será variable en función de las características del corredor, del territorio y específicamente del interés conector del mosaico territorial sobre el que discurre, así como de la presencia de obstáculos o zonas de conflicto. Dado que este ejercicio requiere de un análisis detallado y de mayor escala, será necesariamente desarrollado en los Planes Territoriales Parciales. También deberán ser tenidas en cuenta por los PTP las áreas críticas para los corredores, identificándolas, actualizándolas y proponiendo las medidas correspondientes para mitigar los efectos de la fragmentación.

Espazio babestuak finkatzeak ezinbestean eskatzen du haien arteko konexio handiagoa. Konexio hori EAEko korridore ekologikoen sarearen bidez egiten da, baita interes naturala duten beste espazio multifuntzional batzuen bidez ere.

La consolidación de los espacios protegidos exige una mayor interconexión entre ellos. Esta interconexión se realiza a través de la red de corredores ecológicos de la CAPV y también a través de otros espacios de interés natural multifuncionales.

EAEko korridoreen sarearen elementuen identifikazioa eta irudikapena gune-eremuen eta beraien konektibitatearen azterketan oinarrituta egin da, betiere EAE osorako eta haren eragin-zonarako.

La identificación y representación de los elementos estructurales de la red de corredores de la CAPV se ha realizado a partir del análisis de las áreas núcleo y de su conectividad a nivel de la CAPV y de su zona de influencia.

Identifikatu dira, halaber, korridore horien funtzionaltasuna saihesten edo arriskuan jartzen duten oztopo kritikoak eta gatazka-zonak.

También se han identificado los obstáculos críticos y zonas de conflicto que impiden o ponen en riesgo la funcionalidad de estos corredores.

EAEko korridore ekologikoen sare osoa GeoEuskadi atarian kontsulta daiteke.

La red completa de corredores ecológicos a nivel de la CAPV se puede consultar en GeoEuskadi.

Interes naturala duten beste espazio multifuntzionalak babes-figurarik ez daukaten zenbait espazio dira, ingurune-balioa daukate, eta garrantzitsutzat jotzen dira espazio babestuen jarraitutasuna bermatzeko. Interes naturalistikoa duten eremuen eguneratze bat da, eta lurralde-plangintzak zabaldu edo doitu ahalko du. Eusko Jaurlaritzaren Informazio Geografikoari buruzko atarian –GeoEuskadi– kontsulta daiteke eremuen mugaketa.

Los otros espacios de interés natural multifuncionales son una serie de espacios que, sin contar con una figura de protección, tienen valor ambiental, y se consideran importantes para garantizar la continuidad ecológica de los espacios protegidos. Es una actualización de las áreas de interés naturalístico, que se podrá ampliar o ajustar por el planeamiento territorial. Su delimitación se puede consultar en el portal de Información Geográfica del Gobierno Vasco GeoEuskadi.



Txingudiko Badia/Bahía de Txingudi

EAE osoko korridore ekologikoen sarea, natura inguruneaz arduratzen den Eusko Jaurlaritzako arloak definitzen du. Dokumentu honetan irudikapen grafikoa egiteko eta EAEren eskalarako, egindako lanetan bilduta zeuden zenbait korridore isildu dira, eta korridore horiek ere kontuan hartu beharko dira lurralde- eta hirigintza-plangintza egiteko. Sare osoa GeoEuskadi atarian ere kontsulta daiteke.

La red de corredores ecológicos a nivel de la CAPV la define el área responsable de medio natural del Gobierno Vasco. Para la representación gráfica en este documento y para la escala de la CAPV, se han omitido algunos corredores que sí que están en los trabajos realizados, y que habrán de ser tenidos igualmente en cuenta para la elaboración del planeamiento territorial y urbanístico. La red completa se puede consultar también en GeoEuskadi.

Aurrekoaz gain, sarearen parte egiten dute baita jarraikortasuna mantentzen duten espazioek, lurralde-eragin nabarmeneko azpiegitura grisak gainditzen dituztenak eta beren planifikazio egokirako eskualde mailatik aztertu behar direnak, zenbait area funtzionaletan eta lurralde historikotan eragina dutelako. Lurralde-zatiketa saihesten duten espazioak dira, eta dokumentu honetan aztertzen direnak dira, lurralde plan partzialek edo hirigintza-planek proposa ditzaketen beste batzuez gain.

Además de lo anterior, también forman parte de la red aquellos espacios que preservan la continuidad superando infraestructuras grises de elevado impacto territorial y que para su correcta planificación han de ser contemplados desde la escala regional, al incidir en varias áreas funcionales o territorios históricos. Se trata de espacios que evitan la fragmentación territorial, y son los contemplados en este documento, además de los que puedan proponer los Planes Territoriales Parciales o los planes urbanísticos.

II. HELBURUAK

Honako helburu hauek proposatzen dira azpiegitura berdearen eta ekosistemen zerbitzuen arloan:

II. OBJETIVOS

Los objetivos que se proponen en materia de infraestructura verde y servicios de los ecosistemas son los siguientes:

1. Ondare naturala eta naturak eskaintzen dizkigun zerbitzuak mantentzea eta aberastea.

2. Ekosistemen zerbitzuak balioan jartzea eta ageriko egitea lurraldearen kudeaketa iraunkorreko erreminta gisa.

3. EAEko Azpiegitura Berdearen elementuei dagokienez:

   A. EAErako ingurumen balioengatik babestutako espazioak, korridore ekologikoen sarea eta beste espazio multifuntzionalak EAErako integratutako Azpiegitura Berde batean integratzea.

   B. EAErako azpiegitura berde hori integratzea eremu funtzionalean eta tokian garrantzia duten naturaguneekin, bai eta eskualde mugakideetakoekin ere, hori guztia batzuen eta besteen eskumenak errespetatuta.

   C. Gune babestu bakoitzaren integrazioa burutzea ingurumen-arloko babes-figura bakarrean.

4. Azpiegitura berdearen eraginei dagokienez:

   A. Naturaguneen arteko konektibitate ekologikoa kontserbatzea, indartzea eta lehengoratzea, lurralde mugakideetarantz ere bai. Jarraitutasuna tokian tokikora ere zabaltzea.

   B. Giza asentamenduek eta haiek dakartzaten azpiegitura "grisek" sortutako lurralde-zatiketaren ondorioak saihestea eta, kasuan kasu, mugatzea.

   C. Lurraldearen erresilientzia areagotzea, arriskuak edo kalteak gutxituz hondamendi naturalen edo jatorri antropikoa dutenen aurrean, klima-aldaketa barne.

   D. Nekazaritza-praktika jasangarriak eta hurbileko ekoizpen-bitartekoak sustatzea, eta landa-biztanleriaren lana balioztatzea ekosistemen kontserbazioan eta kudeaketan, eta bizi-kalitatea hobetzea.

   E. Elikadura-aztura osasuntsuak bultzatzea, elikagaien nahikotasuna eta segurtasuna eta hurbileko horniketa sustatzea.

   F. Biztanleriaren osasuna eta ongizatea hobetzea airearen eta zarataren kutsadura murriztuta, beroarekin lotutako gaixotasunak murriztuta, jarduera fisikoaren praktika eta egoera emozionalaren hobekuntza ahalbidetuta.

   G. Errepideko ibilgailuen ibilbideekiko ibilbide "bigun" alternatiboak sustatzea, bizikleta eta modu funtzionalean oinez ibiltzea bultzatuz eguneroko ibilbideetan eta landa-bideen

1. Mantener y enriquecer el patrimonio natural y los servicios que nos ofrece la naturaleza.

2. Poner en valor y visibilizar los servicios de los ecosistemas como herramienta de gestión sostenible del territorio.

3. En relación con los elementos de la infraestructura verde a nivel de la CAPV:

   A. Integrar los espacios protegidos por sus valores ambientales a nivel de la CAPV, la red de corredores ecológicos y los otros espacios multifuncionales en una Infraestructura Verde a nivel de la CAPV.

   B. Integrar esta infraestructura verde a nivel de la CAPV con los espacios naturales de importancia de área funcional y local, así como con los de regiones limítrofes, todo ello con respeto a las correspondientes competencias.

   C. Culminar la integración de cada espacio protegido en una sola figura de protección medioambiental.

4. En relación a los efectos de la infraestructura verde:

   A. Conservar, potenciar y restaurar la conectividad ecológica entre los e spacios naturales, también hacia los territorios colindantes. Extender la continuidad también hasta lo local.

   B. Evitar y en su caso limitar los efectos de la fragmentación territorial producida por los asentamientos humanos y las infraestructuras "grises".

   C. Contribuir a la resiliencia del territorio reduciendo los riesgos o los daños ante catástrofes naturales o de origen antrópico, incluido el cambio climático.

   D. Promover las prácticas agrarias sostenibles y los medios de producción cercanos, valorar la labor de la población rural en la conservación y gestión de los ecosistemas, y mejorar la calidad de vida.

   E. Favorecer hábitos saludables de alimentación, fomentar la suficiencia y seguridad alimentaria, y el abastecimiento de proximidad.

   F. Mejorar la salud y el bienestar de la población reduciendo la contaminación del aire y del ruido, reduciendo las enfermedades relacionadas con el calor, y facilitando la práctica de la actividad física y la mejora del estado emocional de las personas.

   G. Promover recorridos "blandos" alternativos al viario-rodado, favoreciendo el uso de la bicicleta y el andar de forma funcional en recorridos cotidianos y aprovechando también

sarea eta udalaren egungo bide txikiak aprobetxatuta.

H. Paisaia zaintzen laguntzea eta inguru bereziki sentsibleen tratamendu paisajistikoa bultzatzea, hala nola periferiak edo inguru degradatuak.

I. Naturan oinarritutako soluzioen potentzial ekonomikoa eta enplegu-sortzailea balioan jartzea, bere errentagarritasun ekonomiko, sozial eta ingurumen-arloko handiarengatik, eta ikerketa-, merkatu- eta enplegu-nitxo bat delako, ahaztu gabe azpiegitura berdeak eskaintzen duen turismo-erakarpena eta interes kulturaleko inguruen zaintza ere.

III. LURRALDE-GIDALERROAK

Azpiegitura berdearen eta ekosistemen zerbitzuen arloko lurralde-gidalerroak Araudiaren 4. artikuluan daude.

la red de caminos rurales o vías menores municipales existentes.

H. Contribuir a preservar el paisaje y favorecer el tratamiento paisajístico de entornos especialmente sensibles como las periferias o los entornos degradados.

I. Poner en valor el potencial económico y generador de empleo de las soluciones basadas en la naturaleza por su alta rentabilidad económica, social y medioambiental y por suponer un nicho de investigación, mercado y empleo, sin olvidar el atractivo turístico y preservación de entornos de interés cultural que ofrece la infraestructura verde.

III. DIRECTRICES TERRITORIALES

Las directrices territoriales en materia de infraestructura verde y servicios de los ecosistemas se encuentran en el artículo 4 de la Normativa.

5

Landa-habitata Hábitat rural

Landa-habitatak funtsezko eginkizuna betetzen du lurralde- eta ingurumen-kudeaketan; dena den, lurralde-errealitate konplexua erakusten du, baita urrakortasun berezia ere, hiri-azpiegitura sozioekonomikotik gauzatzen diren erakarpen- eta eragin-indar handien aurrean: berrurbanizatze-prozesuak, nekazaritza-jarduerak abandonatzea, hipermugikortasuna, lurzoruaren prezioaren inflazioa. Landa-espazioen konfigurazio bisual eta funtzionala modulatu behar da, nekazaritza-jarduera atxikita.

El hábitat rural ejerce un papel fundamental en la gestión territorial y medioambiental, si bien presenta una compleja realidad territorial y una especial vulnerabilidad frente a importantes fuerzas de atracción e influencia desde la estructura socioeconómica urbana: procesos de reurbanización, abandono de la actividad agraria, hipermovilidad, inflación del precio del suelo. Se precisa modular la configuración visual y funcional de los espacios rurales manteniendo la actividad agraria.



Altzo

I. GAIA ZERTAN DEN

EAEko udalerrien erdia baino gehiago landa-udalerriak dira eta erkidegoaren azaleraren % 70 hartzen dute, landa-gune horietan biztanleriaren % 8 soilik bizi bada ere.

Euskal landa-espazioak ezaugarri dituen elementuek eta espazio horretan garatzen den nekazaritza-jarduerak, rol ekonomikotik eta elikagaiak hornitzeko roletik haratago, Euskadirentzako faktore estrategiko bihurtzen dute, lurralde- eta ingurumen-kudeaketan rol protagonista duen neurrian; lurralde-errealitate konplexua eta urrakortasun berezia erakusten du hiri-azpiegitura sozioekonomikotik gauzatzen diren erakarpen- eta eragin-indar handien aurrean: hirigintza-presioak eta beste mota batekoak nekazaritza-zoruaren gain, baliabideen kudeaketa iraunkorra, hipermugikortasuna edo gero eta globalizatuagoa den testuinguru bat, hazkunde azkarreko ustiategietarako erabilitako basogintza-presioak, besteak beste.

Hiriburuetako erdiguneen egiteko berri horrekin batera, metropoli-esparruak asko zabaldu dira, lurraldea okupatzeko eta aldiriak berrantolatzeko modu berriak sortu direlako. Deszentralizatzeko eta aldiriak berregituratzeko prozesua hiri-garapenaren eragile nagusia izan da. Metropoli-eremuetan bizi diren EAEko herritarren ehunekoa ez da askorik aldatu azken hamarkadan. Deszentralizazio hori bat dator Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan lurraldea berrorekatzeko proposamenekin; horrela, bada, aldiri berriak zabaldu egin dira eta lehen baino konplexuagoak dira: metropoli-espazioen mugak gainditu eta eragin zuzenetik kanpo zeuden eremu funtzionalak eta orain artean landa-eremuak izan direnak ere hartu ditu. Metropoli-inguruneetan bizitegi-hazkunde berriak agertu dira, industria-garapenak, ekipamendu bereziak, enpresa-parkeak eta hirugarren sektoreko konplexuak, merkataritzako eta aisialdiko azalera handiak eta abar, lurralde askoz ere zabalagoa eta sortzaileagoa eratuta, lurralde-arloko zentralitate eta dinamika berriak dituela.

En paralelo al nuevo papel de los centros de las capitales se ha producido una creciente expansión de los ámbitos metropolitanos al aparecer nuevas formas de ocupación del territorio y de reorganización de las periferias. El proceso de descentralización y reconfiguración de las periferias ha sido el principal motor del desarrollo urbano. El porcentaje de la población vasca que reside en las áreas metropolitanas no ha cambiado significativamente en la última década. Dicha descentralización se corresponde con las propuestas de reequilibrio territorial de las DOT, de forma que la expansión y el aumento de la complejidad de las nuevas periferias han superado los límites tradicionales de los espacios metropolitanos para abarcar ámbitos funcionales situados fuera de su influencia directa y zonas tradicionalmente rurales. En los entornos metropolitanos aparecen nuevos crecimientos residenciales, desarrollos industriales, equipamientos singulares, parques empresariales y complejos terciarios, grandes superficies comerciales y de ocio, configurándose un territorio mucho más extenso y generador, cada vez en mayor medida, de nuevas centralidades y dinámicas territoriales.

Hiru hiriburuetan hobekuntza garrantzitsuak gertatu dira zuzkiduren aldetik eta funtzionalki; horren ondorioz, lurralde historikoaren barruan zentralitate handiagoa dute eta metropoli-espazio bakoitzaren hiri-profila indartu da.

Las importantes mejoras dotacionales y funcionales de las tres capitales han aumentado su centralidad en sus respectivos territorios históricos y han fortalecido el perfil urbano de cada espacio metropolitano.

II.
HELBURUAK

1. Hiriburuen gune anitzeko sistema sendotzea, hiriburu guzti-guztien arteko osagarritasuna bultzatuta udalaz haraindiko lurralde-ikuspegi batetik begiratuta.

2. Oreka bermatzea hiriburuen lurralde-zentralitatearen eta haien inguruneko lurraldeek beren nortasun propioa atxikitzearen artean.

3. Metropoli-eremuen hedapena mugatzea, eremu horietan jada integratutako lurzoruen erabilera lehenetsita.

4. Hiriburuak beren ingurunearekin konektatzen dituen mugikortasun-sarea hobetzea, egungo ekipamendu eta horniduren irisgarritasuna bermatuta.

5. Metropoli-eremu hondatuenetako zerbitzu eta ekipamenduen hornidura osatzea, zerbitzu eta ekipamendu horiek defizitarioak diren eremuetan.

II.
OBJETIVOS

1. Consolidar la estructura del sistema polinuclear de capitales, impulsando la complementariedad entre cada una de las mismas desde una visión territorial supramunicipal.

2. Garantizar el equilibrio entre la centralidad territorial de las capitales y el mantenimiento de la identidad propia de los territorios de su entorno.

3. Limitar la expansión de las áreas metropolitanas, priorizando la utilización de los suelos ya integrados en las mismas.

4. Mejorar la red de movilidad que conecta las capitales con su entorno, garantizando la accesibilidad a los equipamientos y dotaciones existentes.

5. Completar la dotación de servicios y equipamientos de las áreas metropolitanas desfavorecidas en los que los mismos sean deficitarios.

III.
LURRALDE-GIDALERROAK

Hiriburuen gune anitzeko sistemaren arloan lurralde-eredua berrikusteko oro har proposatzen diren lurralde-gidalerroak Aplikazio Arauen 7. artikuluan jasotakoak dira.

III.
DIRECTRICES TERRITORIALES

Las Directrices territoriales que con carácter general se proponen para la revisión del modelo territorial en materia del sistema polinuclear de capitales son las contenidas en el artículo 7 de las Normas de Aplicación.

IV.
HIRIBURU BAKOITZERAKO GIDALERRO ZEHATZAK.

Bilbao metropolitarrarentzako proposatzen diren gidalerro zehatzak, dagozkion Eraldaketa Ardatzak barne, honako hauek dira:

1. Hiri-garapeneko ekintza nagusiak hiri-trinkotze eta -berrikuntzako ekimenetan zentratzea, Bilbao Metropolitarraren LPPak xedatutakoaren ildoari jarraikiz. Zentzu horretan, honako hauek jotzen dira lehentasunezkotzat:

   – Bilbaotik kanpoko Abrarantz itsasadarrean zehar garatutako berritze-prozesuei jarraipena ematea.

   – Abandonatutako lurzoru industrialen eremu handietan lan egitea, erabilera nahasiko espazio berriak hartzeko xedez.

   – Hiri-berroneratzeko ekimenak garatzea ibaiaren Ezkerraldeko udalerrietan, espazio publikoen eta hiri-irudiaren erakargarritasuna eta etxebizitza-parkearen kalitatea hobetuz. Aldi berean, bizitegi-eremuekin bateragarriak diren hirugarren sektoreko eta industriako ekonomia-jarduera berrien kokapena sustatuko da.

   – Garapen berrienak finkatzera zuzendutako trinkotze-ekintzak garatzea, bereziki metropoli-eremuaren iparraldean, eta integrazio funtzionala eta paisaia-integrazioa hobetuko dira eta bizitegi- eta zuzkidura-eremu berriak sortzea bideratuko da udalburuen eta irisgarritasun handieneko hiri-garapenen inguruan garraio kolektiboko sistemen bitartez.

2. Bilbao ekonomia berriko jarduerak erakartzeko gune berezi gisa finkatzen jarraitzea Nerbioi itsasadarrak egituratutako erdiguneko eta nortasun handiko espazioen inguruan (Bilbao Zaharra, Alde Zaharra, Zabalgunea, Deustu).

3. Txorierriko Berrikuntza Ardatza Eraldaketa Ardatz gisa artikulatzea, Aireportua, Euskal Herriko Unibertsitatearen campusa eta Zamudioko Teknologia Parkea barnean hartuta.

4. Bilbaoko Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen (Supersur) erabilera sustatzea progresiboki libratzeko A-8 autobideak gaur egun jasaten duen paseko trafikoaren zati handi bat, etorkizunari begira autobidearen beraren trazatua eta lotura egokitzea ahalbidetuz, hiriko bide-sarearekin duten lotunea hobetuz, eta hori guztia mugikortasun iraunkorreko estrategia baten arabera.

5. Intermodalitate handiena bilatzea abiadura handiaren, aireportuaren eta garraio metropolitarreko eta eskualde-hiri osoaren sistemen artean, abiadura handiko geltokiaren

IV.
DIRECTRICES ESPECÍFICAS PARA CADA UNA DE LAS CAPITALES.

Las directrices específicas que se proponen para el Bilbao Metropolitano, incluyendo sus Ejes de Transformación, son las siguientes:

1. Centrar las acciones fundamentales de desarrollo urbano en las iniciativas de densificación y renovación urbana, en línea con lo marcado por el PTP del Bilbao Metropolitano. En este sentido, se consideran prioritarias las siguientes:

   – Dar continuidad a los procesos de renovación desarrollados a lo largo de la ría desde Bilbao hacia el Abra Exterior.

   – Actuar en las grandes áreas de suelos industriales abandonados existentes al objeto de acoger nuevos espacios con mezcla de usos.

   – Desarrollar iniciativas de renovación urbana en los municipios de la Margen Izquierda, mejorando el atractivo de los espacios públicos y de la imagen urbana y la calidad del parque de viviendas, a la vez que se incentiva la localización de nuevas actividades económicas terciarias e industriales compatibles con los espacios residenciales.

   – Desarrollar, especialmente en el norte del espacio metropolitano, acciones de densificación dirigidas a consolidar los desarrollos más recientes, mejorando su integración funcional y paisajística y favoreciendo la aparición de nuevos ámbitos de centralidad residencial y dotacional en torno a las cabeceras municipales y a los desarrollos urbanos con mayor accesibilidad mediante los sistemas de transporte colectivo.

2. Avanzar en la consolidación de Bilbao como un espacio singular para la atracción de actividades mediante las acciones desarrolladas en torno a los espacios centrales y con fuerte identidad que articula la ría del Nervión (Bilbao la Vieja, Casco Viejo, Ensanche, Deusto).

3. Articular el Eje de Innovación del Txorierri como un Eje de Transformación que integre el aeropuerto, el campus de la Universidad del País Vasco y el Parque Tecnológico de Zamudio.

4. Promover la utilización de la Variante Sur Metropolitana de Bilbao (Supersur) para liberar progresivamente gran parte de los tráficos de paso actualmente soportados por la autopista A-8, posibilitando en un futuro la adecuación del trazado y enlaces de esta última, mejorando su inserción con la red viaria urbana; todo ello conforme a una estrategia de movilidad sostenible.

5. Buscar la máxima intermodalidad entre la alta velocidad, el aeropuerto y los distintos sistemas de transporte metropolitano y del conjunto de la ciudad región; desarrollando la implantación de la

ezarpena Abandon hiri-berroneratzeko eragiketa zabal baten esparruan garatuz, eta horrek aukera emango du tren-eremu berria behar bezala integratzeko eta bere ingurunean goi-mailako jarduerak eta ekipamenduak garatzeko.

6. Metropoli-eremuko garraio kolektiboko sistemen bidez sustatzea integrazio fisikoa eta funtzionala eta eremu funtzional mugakideekiko eta Kantabriako ekialdean aritzen direnekiko konexio intermodalen garapena.

7. Trena bultzatzea garraio metropolitarraren funtsezko elementu gisa, eta sistema desberdinen (ADIFen aldiriko trena, Euskotren, zabalera metrikoa, metroa eta tranbia) arteko interkonexioa eta funtzionamendu integratua, eta haien eta gainerako moduen arteko ahalik eta intermodalitate handiena ahalbidetzea.

8. Etxebarri-Basauri-Galdakao korridorea definitzea Eraldaketa Ardatz gisa, azpiegitura- eta hiri-jardun garrantzitsuen euskarria denez. Lurralde hori eraginpean hartzen duten problematikak konpondu beharko lirateke: ibai-ibilgua babestea eta berroneratzea, uholdeak izateko arriskuaren arazoak konponduta, hiri-birgaitzea eta industria-eremuak berritzea, baita azpiegituren integrazioa ere.

Donostiako hiri-eremu integraturako proposatzen diren gidalerro zehatzak, dagozkion Eraldaketa Ardatzak barne, honako hauek dira:

1. Eremu Funtzionaleko garapen-prozesuak eta hiri-berroneratzeko prozesuak kokalekuen gaur egungo zentro anitzeko sistema gordetzera bideratzea, ezaugarri nagusitzat oreka duen sistemara alegia. Horretarako, hiriburuaren eta eremuko udalerri nagusien lurralde-zentralitatea indartuko da.

2. Gutxiegi erabilitako hiriko eta hiri inguruko sareak trinkotzeko ekintzak lehenestea.

3. Abiadura handiko sare berriaren etorkizuneko geltokietan (Donostia eta Irun) hiriko eta metropoliko tren eta autobusen garraio-sistemekin ahalik eta intermodalitate handiena bilatu beharko da, aldiriko trenbidearen eta autobusaren bitartez.

4. Modu espezifikoan garatzea tren-garraioan oinarritutako garraio publiko garbia, baita autobusetan oinarritutakoa, "Zirkulazio azkarreko autobusak (BRT)" barne, eta oinezko eta bizikleten mugikortasunean oinarritutakoa ere.

5. Lehen errepide nagusien sarearen zati ziren tarteak hiriko bide bihurtzeko prozesua bultzatzea, tarte horiek gaur egun beren ahalmena galdu egin baitute bide-ardatz berriak

estación de alta velocidad en Abando en el marco de una amplia operación de renovación urbana que permita integrar adecuadamente el nuevo espacio ferroviario y desarrollar en su entorno actividades y equipamientos de alto nivel.

6. Promover por medio de los sistemas de transporte colectivo del área metropolitana la integración física y funcional y el desarrollo de conexiones intermodales con las Áreas Funcionales colindantes, así como con las zonas orientales de Cantabria.

7. Impulsar el desarrollo del ferrocarril como elemento esencial de transporte metropolitano y favorecer la interconexión y el funcionamiento integrado entre los diversos sistemas (cercanías de ADIF, Euskotren, línea de ancho métrico, metro y tranvías), y la máxima intermodalidad entre ellos y los restantes modos.

8. Definir el corredor Etxebarri-Basauri-Galdakao como Eje de Transformación en cuanto que constituye el soporte de importantes actuaciones infraestructurales y urbanas. Se deberán resolver las problemáticas que afectan a este territorio: la protección y regeneración del cauce fluvial con la resolución de la problemática de la inundabilidad, la rehabilitación urbana y la renovación de las áreas industriales, así como la integración de las infraestructuras.

Las directrices específicas que se proponen para el Área Urbana Integrada de San Sebastián, incluyendo sus Ejes de Transformación, son las siguientes:

1. Orientar las actuaciones de desarrollo y renovación urbana en el Área Funcional a preservar el sistema policéntrico de asentamientos actual, caracterizado por su equilibrio, potenciando tanto la centralidad territorial de la capital como la de los principales centros municipales del área.

2. Priorizar las acciones de densificación de los tejidos urbanos y periurbanos infrautilizados.

3. Buscar en las futuras estaciones de la nueva red de alta velocidad, San Sebastián e Irun, la máxima intermodalidad con los sistemas de transporte urbano y metropolitano mediante ferrocarril de cercanías y autobús.

4. Desarrollar de forma específica el transporte público limpio basado en el transporte ferroviario, en los autobuses, incluidos los "Autobuses de tránsito rápido (BRT)" y en la movilidad peatonal y ciclista.

5. Impulsar la transformación en vías urbanas de aquellos tramos que anteriormente formaban parte de la red de carreteras principal, pero que hoy en día han visto reducida su capacidad

funtzionamenduan hasi direlako (hala nola AP1/AP8 autobia edo Urumeako korridorea); hiriko bide horiek metropoli-ekobulebar handien modura eratuko dira, eta garraio intermodaleko euskarri bat eskainiko dute, zeinaren inguruan hiri-eraldaketako eta -artikulazioko proiektu estrategiko nagusiak garatu ahalko diren, hala nola zuzkidura berriak edo jarduera berritzaileak.

6. Pasaiako badiaren hiri-eraldaketa eta hiri-berroneratze prozesua Portua berritzeko eta modernizatzeko prozesuarekin bateragarri egitea.

7. Jaizkibelgo Korridorea, Lezotik Irunera artekoa, konfiguratzea bokazio tekno-industrialeko eta paisaian integratutako ardatz handi gisa; korridorean industria-jarduerak, logistikarekin edo teknologiarekin lotutako jarduerak garatu daitezke, baita askotariko ekipamenduak ere, Baiona - Donostia Eurohiriaren testuinguruan.

8. Baiona - Donostia Eurohiriaren artikulazioa hainbat faktoreren inguruan planteatzea: garraio-sistemak integratzeko ekimenak, ekipamendu handien, jarduera-espazioen eta espazio eta baliabide naturalen kudeaketaren arloko esku-hartze bateratuen garapena edo kanpoaldearekin lotzeko azpiegitura handien erabilera integratua. Irungo trenbide-eremua eraldatzeak garrantzi berezia izango du Eurohiriaren antolamenduan.

9. Andoain-Urnieta-Hernani-Astigarraga-Donostia korridorea (Urumeako korridorea) Donostiako Eraldaketa Ardatzean integratzea, lurralde hau eraginpean hartzen duten problematikei erantzuteko, hala nola ibai-korridorearen babesa eta berroneratzea, urak har ditzakeen ibarren tratamendu hidrauliko eta paisajistikoa, ibaiertzen ondoan kokatutako hiri-eremuen berritzea, eta egungo eta programatutako azpiegiturak behar bezala integratzea.

Vitoria-Gasteizko metropoli-eremuarentzat proposatzen diren gidalerro zehatzak honako hauek dira:

1. Vitoria-Gasteizen garatutako hiri-bikaintasuneko ekimenak osatzea, hala nola Eraztun Berdea eta Hiri Azpiegitura Berdea edo hirigune historikoa leheneratzea.

2. Arabako Lautadako kokalekuen eredua zaintzea hiri-eremuen hedapen-prozesuetan.

3. Vitoria-Gasteizen eta Iruñearen arteko lotura lautadan barrena egitea aztertzea, abiadura handiko trenaren bitartez.

4. Langraiz Okatik Agurain eta Araiaraino Arabako Lautada zeharkatzen duen trenbidean zeharreko ardatz lineala artikulatzeko prozesua lehenestea,

debido a la entrada en funcionamiento de nuevos ejes viarios (tales como la autovía AP1/AP8 o el corredor del Urumea); configurando las mismas como grandes ecobulevares metropolitanos, que ofrecerán un soporte de transporte intermodal colectivo en torno al cual se pueden desarrollar los principales proyectos estratégicos de transformación y articulación urbana; tales como nuevas dotaciones o actividades innovadoras.

6. Compatibilizar la transformación y regeneración urbana de la Bahía de Pasaia con la renovación y modernización de su Puerto.

7. Configurar el Corredor del Jaizkibel, desde Lezo hasta Irún, como un gran eje de vocación tecno-industrial integrado con el paisaje, donde puedan desarrollarse actividades industriales y vinculadas a la logística o a la tecnología; así como diversos equipamientos integrados en el contexto de la Eurociudad Bayona - San Sebastián.

8. Plantear la articulación de la Eurociudad Bayona – San Sebastián en torno a iniciativas de integración de los sistemas de transporte, el desarrollo de intervenciones conjuntas en materia de grandes equipamientos, espacios de actividad y gestión de recursos naturales, o la utilización integrada de las grandes infraestructuras de conexión exterior. La transformación de la playa de vías de Irun revestirá especial importancia en la articulación de la Eurociudad.

9. Integrar el corredor Andoain-Urnieta-Hernani-Astigarraga-San Sebastián (corredor del Urumea) en el Eje de Transformación San Sebastián-Irun, con el fin de dar respuesta a las diversas problemáticas que afectan a este territorio; tales como, la protección y regeneración del corredor fluvial, el tratamiento hidráulico y paisajístico de las vegas inundables, la renovación de las áreas urbanas emplazadas junto a las márgenes, así como la correcta integración de las infraestructuras existentes y programadas.

Las directrices específicas que se proponen para el área metropolitana de Vitoria-Gasteiz son las siguientes:

1. Completar las iniciativas de excelencia urbana desarrolladas en Vitoria-Gasteiz, tales como el Anillo Verde, la Infraestructura Verde Urbana o la recuperación del Centro Histórico.

2. Preservar el modelo de asentamientos de la Llanada Alavesa en los procesos de expansión de las áreas urbanas.

3. Contemplar a lo largo de la Llanada la alternativa de conexión de Vitoria-Gasteiz con Pamplona mediante la línea ferroviaria de alta velocidad.

4. Priorizar la articulación de un eje de transformación lineal a lo largo de la vía ferroviaria que recorre la Llanada Alavesa, desde Nanclares de Oca hasta

espazio trinko eta iraunkorrak sortuz, Arabako Lautadako ohiko paisaiak eta egungo lurralde-hutsuneak mantentzeko aukera emango duen ingurunean integratuta, elementu horietan lurzoru-kontsumoa eta urbanizazio sakabanatuko prozesuak minimizatuz.

Agurain y Araia, generando unos espacios densos y sostenibles, integrados en un entorno en el que se preserven los paisajes tradicionales de la Llanada Alavesa y los vacíos territoriales existentes; en el que a su vez se minimicen el consumo de suelo y la urbanización dispersa.

5. Berrikuntza-arkua artikulatzea Arabako Teknologia Parkea, aireportua, bere aldameneko industria-parkea eta merkantzien terminal intermodala osatuko duen eremu gisa, non, behar diren lurralde-hutsak errespetatuz, iragazkortasuna bermatuz eta paisaiarekin bat eginez, balio handiko ekonomia-, industria-, logistika- eta teknologia-jarduerak garatu ahalko diren.

5. Articular el Arco de Innovación como un área que integre el Parque Tecnológico de Álava, el aeropuerto con su parque industrial anexo y la estación intermodal de mercancías donde, respetando los necesarios vacíos territoriales, garantizando la permeabilidad e integradas con el paisaje, puedan desarrollarse actividades económicas, industriales, logísticas y tecnológicas de alto valor.

6. Vitoria-Gasteiz hiria bultzatzea nodo ekonomiko gisa, kontuan izanda hiriaren dinamismo demografiko eta industriala, bere hiriburutza politikoari lotutako aukerak, bere konektibitate handia eta bere hirigune historikoaren bikaintasuna eta hiriaren eta ingurunearen ingurumen-kalitatea.

6. Impulsar la ciudad de Vitoria-Gasteiz como nodo económico dado su dinamismo demográfico e industrial, las oportunidades asociadas a su capitalidad política, su alta conectividad, la excelencia de su centro histórico y la calidad ambiental de la ciudad y de su entorno.

7. Jundizko esparruaren garapena indartzea, haren plataformaren izaera estrategikoa kontuan hartuz Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalerako zein EAE osorako.

7. Consolidar el desarrollo del ámbito de Jundiz, considerando el carácter estratégico de su plataforma logística tanto para el Área Funcional de Álava Central, como para la totalidad de la CAPV.

8. Hiriko bikaintasun-espazioak artikulatzea aireportuak, autobus-geltokiak, hiriaren erdiguneak eta unibertsitateak osatutako ardatzaren bitartez. Jarduera berritzaileak erakarriko lituzkeen eremu gisa eratuko litzateke, berritze-prozesuan dauden Vitoria-Gasteizko iparraldeko industriaguneekin batera.

8. Articular los espacios de excelencia de la ciudad mediante un eje constituido por el aeropuerto, la estación de autobuses, el centro de la ciudad y la universidad; el cual se configurará como un ámbito atractivo de actividades innovadoras junto con los espacios industriales en renovación del norte de Vitoria-Gasteiz.

9. Oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbide berriak sortzeko prozesua bultzatzea adierazitako eraldaketa-ardatz osoan, garraio kolektiboko sistemei lotutakoak.

9. Impulsar a lo largo de todo el eje de transformación referido la creación de nuevos recorridos peatonales y ciclistas, vinculados a los sistemas de transporte colectivo.

10. Ingurumen-bikaintasunaren bokazioa indartzea, natura-eremu garrantzitsuenen arteko konektibitate ekologikoa bermatuta, eta Hiri eta Lurralde Azpiegitura Berdea finkatuta.

10. Reforzar su vocación de excelencia ambiental, garantizando la conectividad ecológica entre los espacios naturales más relevantes, impulsando la Infraestructura Verde Urbana y territorial.

LEGENDA / LEYENDA

Harreman-sistema / Sistema relacional

- Errepide arruntak/ Carreteras convencionales
- Autobideak eta autobiak / Autopistas y autovías
- Trenbide-sarea / Red ferroviaria
- Tren-geltokia/AHT / Estación de tren/TAV
- AHTaren trazadura / Trazado TAV
- Merkataritza-portua / Puerto comercial
- Kirol- eta arrantza-portua / Puerto deportivo y pesquero
- Aireportua / Aeropuerto

Mugikortasun iraunkorra / Movilidad sostenible

- Donejakue bidea / Camino de Santiago
- Oinezkoentzako ibilbideak / Recorridos peatonales
- Bizikleta-ibilbideak / Recorridos ciclistas

Hiri- eta landa-birkualifikazioa / Recualificación urbana y rural

- Ekobulebarra / Ecobulevar
- Herrigune historikoa / Casco histórico (CH)
- Hirigunea / Núcleo urbano
- Teknologia Parkea / Parque tecnológico (PT)
- Parke logistikoa / Parque logístico (PL)
- Unibertsitatea / Universidad (U)
- Hiri-berroneratzea / Regeneración urbana (RU)
- Ekipamendua / Equipamiento (E)

Azpiegitura berdea / Infraestructura verde

- Naturagune Babestuen Sarea
  Red de espacios naturales protegidos
- Korridore ekologikoak-interes naturala duten beste espazio multifuntzional batzuk
  Corredores ecológicos-otros espacios de interés natural multifuncionales
- Ibaiak / Ríos

BILBAOKO ITSASADARRA / RÍA DE BILBAO



TXORIERRIKO ERALDAKETA ARDATZA / EJE DE TRANSFORMACIÓN TXORIERRI



DONOSTIA-IRUNGO ERALDAKETA ARDATZA
EJE DE TRANSFORMACIÓN DE DONOSTIA-IRUN



VITORIA-GASTEIZKO HIRI-EREMUA / ÁREA URBANA DE VITORIA-GASTEIZ



2)
Eremu Funtzionaletako buru eta azpiburuen sarea

Eremu Funtzionaletako Buru eta Azpiburuen Sareak funtsezko lurralde-rola du euskal hiri-sisteman, eta oinarrizko elementuetako bat da, hiriburuen hiri-sistemarekiko osagarria, lurraldearen esparru guztien arteko beharrezko oreka bermatzeko laguntzan.

2)
Red de cabeceras y subcabeceras de las Áreas Funcionales

La Red de Cabeceras y Subcabeceras de las Áreas Funcionales desempeña un papel territorial fundamental en el sistema urbano vasco, constituyendo uno de los elementos básicos que, complementariamente al sistema urbano de capitales, contribuye a garantizar el necesario equilibrio entre los diferentes ámbitos del territorio.



Durango



Arrasate / Mondragón



Laudio / Llodio

I.
GAIA ZERTAN DEN

Eremu Funtzionaletako buru eta azpiburuek, 5.000 biztanletik gorako nukleoen talde ugariarekin batera, hiri ertainen multzoa osatzen dute, eta EAEko lurraldean elementu biziki garrantzitsua dira. Hiri horietatik gehienak Kantauriko isurialdean kokatzen dira, eta lurraldearen antolamenduan funtsezko eginkizuna betetzeaz gain, kokalekuen askotariko eskaintza erakargarria osatzen dute. Hiri horietan, espazio metropolitarretatik kanpo, ia-ia EAEko biztanleriaren % 25 bizi da; euren dimentsioa, hiri-eginkizunak eta ekoizpen-espezializazioak direla-eta, lurralde-orekarako eta dinamismorako funtsezko faktorea dira.

Hiri horien hazkundea tokiko eremutik aurrera egin zuten industria-ekimenen garapenarekin lotuta dago, eta biztanle multzo gero eta handiagoak erakarri zituen garapen-dinamika bat eragin zuen. Hiri-garapenerako lurzoru egoki nahikorik ez dagoen testuinguruan, batik bat, Gipuzkoako haranetan, hiri horiek haran-hondoak okupatzen hasi ziren, hiri-dentsitate handiko hazkundeekin. Haranetako baldintza fisikoek ahalbidetu izan dutenean, hiri-sareek jarraitu egin dute, udal-mugak gaindituta. Baina haranetako gune estuenak ez direnez oso

I.
ESTADO DE LA CUESTIÓN

Las cabeceras y subcabeceras de las Áreas Funcionales, junto con un numeroso grupo de núcleos con más de 5.000 habitantes, configuran un conjunto de ciudades medias que constituyen un elemento importantísimo del territorio de la CAPV. Localizadas mayoritariamente en los valles de la vertiente cantábrica, estas ciudades desarrollan un papel fundamental en la organización del territorio y configuran una oferta de asentamientos diversa y atractiva. En ellas, fuera de los espacios metropolitanos, vive casi el 25% de la población de la CAPV; su dimensión, sus funciones urbanas y sus especializaciones productivas hacen de ellas un factor clave de equilibrio territorial y dinamismo.

El crecimiento de estas ciudades está asociado al desarrollo de iniciativas industriales que prosperaron a partir del ámbito local, generando una dinámica de desarrollo que atrajo contingentes de población cada vez más importantes. En un contexto de escasez de suelo apto para los desarrollos urbanos, especialmente en los valles guipuzcoanos, estas ciudades fueron ocupando los fondos de valle, con crecimientos caracterizados por una elevada densidad urbana. Cuando las condiciones físicas de los valles lo han permitido, el resultado ha sido la

Eremu Funtzionaletako buru eta azpiburuek, hiri ertainen multzoa osatzen dute, eta EAEko lurraldean elementu biziki garrantzitsua dira.

Las cabeceras y subcabeceras de las Áreas Funcionales configuran un conjunto de ciudades medias que constituyen un elemento importantísimo del territorio de la CAPV.

egokiak hirigintzarako, kokalekuen hazkunde linealaren muga izan dira. Hartara, Kantauriko isurialdeko haranetan eremu koherenteak eratu dira naturaren, paisaiaren eta eginkizunen ikuspegitik begiratuta, baina hirigintza-presio handiaren eraginpean daude. Horrela, bada, eremu askotan haran-hondoek gainezka egiteko gero eta arrisku handiagoa dago, eraikitako jarraitutasunak direla-eta.

continuidad en los tejidos urbanos, superando los límites municipales. Solo las zonas más angostas de los valles, poco aptas para la urbanización, han impuesto límites al crecimiento lineal de los asentamientos. De este modo, los valles de la vertiente cantábrica configuran ámbitos coherentes desde el punto de vista natural, paisajístico y funcional que están sometidos a una fuerte presión urbanística. Se plantean así, en muchos ámbitos, riesgos crecientes de colmatación de los fondos de valle por continuos edificados.

Hiri horietan guztietan gainbehera izan zuten industria-krisiarekin lotuta, eta biztanleria ere murrizten hasi zen; laurogeita hamarreko hamarkadaren amaierara bitarte iraun zuen joera horrek.

Hiri horietan, industria-jarduerak garrantzi handia izan zuen, baina lehengo mendeko 70eko eta 80ko hamarkadetan krisialdiak eta birmoldaketa-prozesua iritsi zirelarik, garrantzi hori ahulezia handia izan zen. Hiri horietan guztietan gainbehera izan zuten industria-krisiarekin lotuta, eta biztanleria ere murrizten hasi zen; laurogeita hamarreko hamarkadaren amaierara arte iraun zuen joera horrek.

El peso de la actividad industrial en estas ciudades supuso una gran vulnerabilidad ante las etapas de crisis y reconversión de los años 70 y 80 del siglo pasado. Todas estas ciudades experimentaron un declive asociado a la crisis industrial, sufriendo una contracción demográfica cuya tendencia empezó a cambiar a finales de la década de los noventa.

Todas estas ciudades experimentaron un declive asociado a la crisis industrial, sufriendo una contracción demográfica cuya tendencia empezó a cambiar a finales de la década de los noventa.

Ekonomia lokalaren sarea dinamizatzen zuten enpresa handi batzuen presentziari lotutako tokiko zirkunstantziek, edo biztanleak birkokatzea eta ekoizpen-jarduerak erakartzea bultzatu duten metropoli-eremuen hurbiltasunak fase atzerakorra gainditzeko aukera eman dute. Dinamika hori, oro har, industria-oinarriak nolabaiteko garrantzia galtzeari eta hirugarren sektoreko jarduerek garrantzia handitzeari lotuta dago. Espazialki, buru irisgarrienetan pilatzen da batik bat; metropoli-eremuetatik urrunago dauden buruek eta azpiburuek, aldiz, eutsi egin diote euren industria-pisuari eta dinamika negatiboak dituzte.

Circunstancias locales asociadas a la presencia de algunas grandes empresas dinamizadoras del tejido económico local, o la cercanía de las áreas metropolitanas que ha impulsado la relocalización de población y la atracción de actividades productivas, han permitido superar la fase recesiva. En general, dicha dinámica está asociada a la pérdida de un cierto peso de la base industrial y al aumento de la importancia de las actividades terciarias. Espacialmente se concentra en las cabeceras más accesibles, mientras que, por el contrario, las cabeceras y subcabeceras más alejadas de los espacios metropolitanos han mantenido su peso industrial y presentan dinámicas negativas.



Tolosa

Azken bi hamarkadetan hiri ertain garrantzitsuenek zuzkiduren kalitatearen eta aniztasunaren, zerbitzu publiko eta pribatuen eskaintzaren eta hiri-irudiaren hobekuntza nabarmena izan dute. Baina hiriburuen egiteko berriak merkataritza-, kultura- eta aisia-arloko eta zerbitzu pertsonal eta enpresentzakoen eskaintza askoz ere askotariko, zabal, erakargarri eta espezializatuagoa eragingo du. Hiri ertainen eskaintza konbentzional eta mugatuagoek nekez lehia egin diezaioketen erakarpen-elementua da. Errepideen hobekuntzak eta automobilaren hedapenak eragin dute lehen hiri ertainetan eta eskualde-buruetan egiten ziren hirugarren sektoreko eskaeretatik gero eta gehiago hiriburuetara lekualdatzea. Nukleo horiek izan ohi zuten zentralitatea galtzeko arriskua izan da emaitza.

A lo largo de las dos últimas décadas las ciudades medias más importantes han experimentado una considerable mejora de la calidad y variedad de sus dotaciones y de su oferta de servicios públicos y privados, así como de su imagen urbana. Sin embargo, el nuevo papel de las capitales implica una oferta comercial, cultural, de ocio y de servicios personales y empresariales enormemente más diversa, amplia, atractiva y especializada. Se trata de un elemento de atracción con el que difícilmente pueden competir las ofertas más convencionales y limitadas de las ciudades medias. La mejora de las carreteras y la expansión del automóvil llevan a que una parte cada vez más significativa de las demandas terciarias que antes se realizaban en ciudades medias y cabeceras comarcales se trasladen a las capitales. El resultado es el riesgo de pérdida de la centralidad que tradicionalmente tenían estos núcleos.



Balmaseda

Hiri ertainen protagonismoa berreskuratzea funtsezkoa da. Haien eskalak, lurralde-banaketak eta dinamika ekonomikoek nortasun handiko guneen hiri-eskaintza askotarikoa eskaintzen dute, eta hiri horiek indartuz gero, biztanleria zentro handi gutxi batzuetan metatzearekin lotutako arriskuetako asko saihets daitezke, horrek dakartzan kostu funtzional, sozial eta ekonomikoak aintzat hartuta. Hiri horiek gako-elementuak dira lurralde-oreka lortzeko, askotariko hiri-eskaintzari eusteko eta hiri-garapena iraunkorra izateko. Hiriburuen Gune Anitzeko Sistemako hirien arteko funtsezko konexio-elementuak dira, eta hiru hiriburuen arteko antolamendurako ere oso lagungarriak dira, zentralitate-eremu berriak sortzeko aukera eskaintzen dutela. EAEko hiri ertainak lurralde-erreferente dira eta haien inguruan antolatzen dira bizitegi-hazkundeak eta jarduera-espazioak.

Es fundamental recuperar el protagonismo de las ciudades medias. Su escala, su distribución territorial y sus dinámicas económicas proporcionan una oferta urbana variada de núcleos dotados de una fuerte identidad, cuyo fortalecimiento permite evitar muchos de los riesgos asociados a una excesiva concentración de la población en un número reducido de grandes centros, con los costes funcionales, sociales y económicos que se derivan de ello. Son elementos clave para el equilibrio territorial, el mantenimiento de una oferta urbana diversa y la sostenibilidad del desarrollo urbano. Constituyen elementos esenciales de conexión entre las ciudades del Sistema Polinuclear de Capitales, contribuyendo decisivamente a la articulación entre las tres ciudades capitales y creando la oportunidad para la aparición de nuevos ámbitos de centralidad. Las ciudades medias de la CAPV proporcionan un referente territorial en torno al cual organizar los crecimientos residenciales y de los espacios de actividad.



Samaniego

Buru eta azpiburu horiek indartzeak lehentasunezko rola du lurralde-oreka mantentzeko, eta gainera funtsezko elementua da landa-habitataren.

El fortalecimiento de las cabeceras y subcabeceras juega un papel prioritario en el mantenimiento del equilibrio territorial siendo además un elemento fundamental en la sostenibilidad del hábitat rural.

Buru eta azpiburu horiek indartzeak lehentasunezko rola du lurralde-oreka mantentzeko, lagungarria izan liteke gure lurraldeko zenbait zonaren arteko biztanleriaren desplazamendu mailakakoa eta progresiboa geratzeko, eta gainera funtsezko elementua da landa-habitataren iraunkortasunean, nekazari-exodoa barnealdeko eremuen despopulatzea gelditzea, biztanleria kostaldeko udalerrietara eramateagatik.

El fortalecimiento de las cabeceras y subcabeceras juega un papel prioritario en el mantenimiento del equilibrio territorial y puede contribuir a frenar el paulatino y progresivo desplazamiento de la población entre distintas zonas de nuestro territorio, siendo además un elemento fundamental en la sostenibilidad del hábitat rural, frenando tanto el éxodo rural, como el despoblamiento de zonas interiores por el traslado de la población hacia municipios costeros.

II. HELBURUAK

1. Eremu Funtzionaletako buru eta azpiburuen protagonismoa berrestea funtsezko elementu gisa EAEko lurralde-oreka bermatzeko.

2. Haiek indartzea, hiriburuen gune anitzeko sistemaren inguruan jende gehiegi biltzea saihestuta.

3. Hiru hiriburuak artikulatzeko elementu gisa duten zeregina sustatzea, baita zentralitate-eremu berriak agertzeko nahiz landa-habitatari eusteko elementu gisa duten potentziala ere.

4. Biztanleriaren desplazamendua gelditzea, eta zehazki nekazari-exodoa eta biztanleria kostaldera lekualdatzea.

II. OBJETIVOS

1. Afirmar el protagonismo de las cabeceras y subcabeceras de las Áreas Funcionales como elemento fundamental para garantizar el equilibrio territorial de la CAPV.

2. Potenciar su mantenimiento evitando una excesiva concentración de la población en torno al sistema polinuclear de capitales.

3. Promover su papel tanto como articulador de las tres capitales con su potencial para la aparición de nuevos ámbitos de centralidad como elemento de sustentación del hábitat rural.

4. Frenar el desplazamiento de la población y en concreto el éxodo rural y el traslado de la población a la costa.

III. LURRALDE-GIDALERROAK

Eremu Funtzionaletako buru eta azpiburuen arloan lurralde-eredua berrikusteko proposatzen diren lurralde-gidalerroak Aplikatzeko arauen 8. artikuluan jasotzen dira.

III. DIRECTRICES TERRITORIALES

Las Directrices territoriales que se proponen para la revisión del modelo territorial en materia de la red de cabeceras y subcabeceras de las Áreas Funcionales son las contenidas en el artículo 8 de las Normas de Aplicación.

3)
Eraldaketa ardatzak

Eraldaketa Ardatzak hiri-espazioak egituratzeko, berritzeko eta garatzeko oinarrizko elementu dira, baita espazio libreak babesteko eta hobetzeko ere.

3)
Ejes de transformación

Los Ejes de Transformación constituyen un elemento básico para la articulación, renovación y desarrollo de los espacios urbanos, así como para la protección y mejora de los espacios libres.



I.
GAIA ZERTAN DEN

Hiri ertainen eta haien lurralde-ingurunearen indartzea, artikulazioa eta garapen iraunkorra lortze aldera, "Eraldaketa Ardatzak" deituko figura sartzea proposatu da. Izaera batez ere linealeko lurralde-ardatzak dira, garraio kolektiboaren euskarria dutela, eta hiri ertainen garapen-prozesuak artikulatuko dituzte, haien protagonismoa areagotuta iraunkortasun-irizpideei jarraikiz eta hiriek gainezka egiteko prozesuak saihestuta haran-hondoetako eremu berezietan.

Eraldaketa Ardatzek hiri-garapeneko prozesuak bideratzen dituzte eta garraio kolektiboaren erabilera ahalbidetzen dute, lehendik eraikitako espazioak trinkotuta eta eremu berrietan hiri-okupazioa saihestuta. Hiri-pieza guztiei koherentzia eman eta errematatzeko aukera ematen dute, baita hirigintza lausoa mugatzeko, ingurumenaren eta paisaiaren kalitatea hobetzeko, eta dentsitatea, hiri-berroneratze eta berroneratze-espazioak sortzea ahalbidetzeko aukera ere. Eremu Funtzionalak elkarri lotzeko elementuak dira, eta hiri ertainek metropoli-eremuen garapen-dinamiketan parte hartzeko duten gaitasuna hobetzen dute.

Ardatz linealak dira egokienak garraio kolektiboko sistemak antolatzeko. Hiri-egitura linealak dira eraginkorrenak eta iraunkorrenak, eta hiri-garapena korridore ekologikoekin, komunikazio-ardatzekin eta garraio kolektiboko sistema oso irisgarriekin bat eginda antolatzeko aukera ematen dute. Unitate batzuk eta besteak elkarrekiko harremanean jartzeko aukera dakarte, sistemaren izaera integratzailea sustatuz.

Eraldaketa Ardatzak ez dira azpiegitura-ardatzak, errepide- eta trenbide-konexioko elementuak ere jasotzen dituzten arren. Hiri-espazioak

I.
ESTADO DE LA CUESTIÓN

Con el objetivo de lograr el fortalecimiento, articulación y desarrollo sostenible de las ciudades medias y de su entorno territorial, se propone la introducción de la figura denominada como "Ejes de Transformación". Los mismos constituyen unos ámbitos territoriales de carácter fundamentalmente lineal, dotados de transporte colectivo, que articularán el desarrollo de las ciudades medias, aumentando su protagonismo con criterios de sostenibilidad y evitando la colmatación urbana en los sensibles ámbitos de los fondos de valle.

Los Ejes de Transformación orientan los procesos de desarrollo urbano y facilitan el uso del transporte colectivo, densificando los espacios ya construidos y evitando la ocupación urbana de nuevos ámbitos. Permiten dar coherencia a las diferentes piezas urbanas y rematarlas, limitar la urbanización difusa, mejorar la calidad ambiental y paisajística y favorecer la densidad, la renovación urbana y la aparición de espacios de innovación. Son elementos para interconectar las Áreas Funcionales y para mejorar la capacidad de las ciudades medias de participar de las dinámicas de desarrollo de las áreas metropolitanas.

Los ejes lineales son los más adecuados para organizar los sistemas de transporte colectivo. Las estructuras lineales son las más eficientes y sostenibles y permiten organizar el desarrollo urbano en correspondencia con corredores ecológicos, ejes de comunicación y sistemas de transporte colectivo altamente accesibles. Suponen una oportunidad para poner en relación las diferentes unidades, fomentando el carácter integrador del sistema.

Los Ejes de Transformación no son ejes infraestructurales, aunque incorporan también elementos de conexión viarios y ferroviarios. Son proyectos de articulación,

Eraldaketa Ardatzak izaera batez ere lineako lurralde-ardatzak dira, garraio kolektiboaren euskarria dutela, eta hiri ertainen garapen-prozesuak artikulatuko dituzte, haien protagonismoa areagotuta iraunkortasun-irizpideei jarraikiz eta hiriek gainezka egiteko prozesuak saihestuta haran-hondoetako eremu berezietan.

Los Ejes de Transformación constituyen unos ámbitos territoriales de carácter fundamentalmente lineal, dotados de transporte colectivo, que articularán el desarrollo de las ciudades medias, aumentando su protagonismo con criterios de sostenibilidad y evitando la colmatación urbana en los sensibles ámbitos de los fondos de valle.

artikulatu, berritu eta garatzeko eta espazio libreak hobetzeko proiektuak dira; izan ere, ibaiertzak aktiboki berreskuratzea sustatzen dute, korridore ekologikotzat jokatzen dute eta azpiegitura berdea zeharkako korridoreekin uztartzen dute. Euren garapenerako espazio-erreferentziatzat LAGen Erlazio Sistemak xedatutako korridoreak hartzen dituzte. Sistema horrek finkatzen ditu lehentasunezko komunikazio-ardatzak eremu funtzionalen interkonexiorako, eremu funtzionalak Hiriburuen Gune Anitzeko Sistemarekin komunikatzeko eta EAEren kanpoaldearekiko harreman nagusietarako.

Eraldaketa Ardatzek, ondo diseinatuta badaude, aukera ematen dute gure lurraldea berritzeko eta lurraldeari balioa emateko interesgarriak diren hainbat eta hainbat helburu lortzeko, herritarren bizi-kalitatea eta lurraldearen oreka hobetzeko, mugikortasun iraunkorreko sistemei eraginkortasuna emateko, esparru berrien hiri-okupazioa saihesteko eta gure hiri eta paisaien erakargarritasuna handitzeko. Zehazki, euren funtzionalitatea galdu duten errepide-tarteak birplanteatzeko eta hiri-bide bihurtzeko aukera ematen dute.

Eraldaketa Ardatzak lurralde-proiektu integralak dira; eremu naturalak, hiri-espazioak eta azpiegitura-elementuak modu koherentean lantzeko aukera ematen duten proiektu integralak. Eremu libreez osatuta daude; eremu libre horiek eraikitako espazioen mugak finkatzen dituzte eta hirigintzatik babestutako ingurumen-korridore handi moduan eratu dira. Eremu libreez gain, lehendik eraikitako eremuetan eremu urbanizatuak ere badira, eta eremu urbanizatu horietan berrikuntzako eta dentsifikazioko esku-hartzeak garatu behar dira. Bestalde, mugikortasun-korridoreak ere hortxe daude, garraio kolektiboko sistemen eta inpaktu txikieneko joan-etorrietarako (bidegorriak eta oinezkoentzako bideak) sistemen euskarri dira, betiere lehendik dauden azpiegiturak erabilita.

Eraldaketa Ardatzak lurralde-proiektu integralak dira; eremu naturalak, hiri-espazioak eta azpiegitura-elementuak modu koherentean lantzeko aukera ematen duten proiektu integralak.

Los Ejes de Transformación se plantean como proyectos territoriales integrales que permiten abordar de forma coherente los ámbitos naturales, los espacios urbanos y los elementos infraestructurales.

Bakoitzaren ezaugarrien arabera, Eraldaketa Ardatzetan honako gai hauek garatzen dira:

1. Ardatz berdeak.
2. Ekobulebarrak.
3. Hiria artikulatzeko ardatzak
4. Garraio kolektiboko ardatzak.
5. Oinezkoentzako eta bizikletentzako espazioak
6. Errepidea zeharkatzeko aukera.
7. Hiri-intentsitatea eta erabilera-nahasketa.
8. Sormen-ardatzak.
9. Hiri-berroneratzeko ardatzak.
10. Arkitektura eta hirigintza bioklimatikoak.

II. HELBURUAK

Hiri-sistemen eta eraldaketa-ardatzen eremuan, lurralde-eredua berrikusteko helburu hauek proposatzen dira:

1. Eraldaketa Ardatzen bitartez hiri-garapeneko prozesuak artikulatzea, betiere egituratzat

renovación y desarrollo de los espacios urbanos y de protección y mejora de los espacios libres promoviendo una recuperación activa de las riberas fluviales, actuando como corredores ecológicos y encajando la infraestructura verde de los ejes con los corredores transversales. Toman como referencia espacial para su desarrollo los corredores establecidos por el Sistema Relacional de las DOT, el cual determina los ejes de comunicación prioritarios para la interconexión de las Áreas Funcionales, para la comunicación de estas con el Sistema Polinuclear de Capitales y para las principales relaciones exteriores de la CAPV.

Los Ejes de Transformación, adecuadamente diseñados, permiten lograr múltiples objetivos de interés para la renovación y puesta en valor de nuestro territorio, mejorar la calidad de vida de los ciudadanos y el equilibrio del territorio, dotar de eficacia a sistemas de movilidad sostenible, evitar la ocupación urbana de nuevos ámbitos y aumentar el atractivo de nuestras ciudades y nuestros paisajes. En concreto permite replantear los tramos de carreteras que han perdido su funcionalidad para su transformación en viarios urbanos.

Los Ejes de Transformación se plantean como proyectos territoriales integrales que permiten abordar de forma coherente los ámbitos naturales, los espacios urbanos y los elementos infraestructurales. Están formados por áreas libres, que delimitan los límites de los espacios construidos y se configuran como grandes pasillos ambientales preservados de la urbanización, áreas urbanizadas en los ámbitos ya ocupados por la edificación, en los que desarrollar actuaciones de renovación y densificación, y corredores de movilidad orientados al soporte de sistemas de transporte colectivo y de desplazamiento de mínimo impacto (bidegorris y vías peatonales) utilizando infraestructuras ya existentes.

Los Ejes de Transformación en función de las características de cada uno de ellos desarrollan las siguientes materias:

1. Ejes verdes.
2. Ecobulevares.
3. Ejes de articulación urbana.
4. Ejes de transporte colectivo.
5. Espacios para peatones y bicicletas.
6. Permeabilidad transversal.
7. Intensidad urbana y mezcla de usos.
8. Ejes de creatividad.
9. Ejes de renovación urbana.
10. Arquitectura y urbanismo bioclimáticos.

II. OBJETIVOS

Los objetivos que se proponen para revisar el modelo territorial en materia de sistema urbano y ejes de transformación son:

1. Articular los procesos de desarrollo urbano a través de los Ejes de Transformación, entendidos

hartuta, garraio kolektiboaren erabilera ahalbidetzearren, lehendik eraikitako espazioak trinkotuta eta eremu berrietan hiri-okupazioa saihestuta.

2. Hirigintza lausoa mugatzea, ingurumenaren eta paisaiaren kalitatea hobetzea, eta dentsitatea, hiri-berroneratze eta berroneratze-espazioak sortzeko aukera ahalbidetzea lurralde-elementuen arteko antolamendua ahalbidetuko duten Eraldaketa Ardatzen bitartez.

3. Eraldaketa Ardatz horien bitartez hiri-garapenerako egitura iraunkorrak eratzea, lurraldearen konpartimentazioa saihestuta eta gure jarduera ekonomikoen dinamizaziorako eta berrikuntzarako lurralde-euskarri egokia eskainita.

4. Hiri-intentsitate geroz eta handiagoko espazioak sortzeko aukera ematea, dela bizitegi-dentsitateari dagokionez, egungo dentsitate txikiak ahalbidetzen duenean, dela zerbitzuen hornidurari, eta erabilera eta jardueren anizta sunari dagokionez.

5. Eraldaketa Ardatzen bi aldeetan kokatutako eremu naturalen artean errepidea zeharkatzeko aukera bermatzea, eremu horiek azpiegiturak eta hirigintza-garapenak direla-eta gainezka egitea eragin dezakeen hesi-efektua saihestuta, eta Ardatz osoan dauden espazio-libre eta parkeen hornidurak zainduz eta hobetuz, eta nekazaritza-lurzoru onenen kontserbazioa sustatuz.

III.
LURRALDE-GIDALERROAK

Eraldaketa-ardatzen arloan lurralde-eredua berrikusteko proposatzen diren lurralde-gidalerroak Aplikatzeko arauen 9. artikuluan jasotzen dira.

IV.
ERALDAKETA ARDATZAK, EREMU FUNTZIONAL BAKOITZEAN

Eremu Funtzionalak mugatzea LAGen proposamenaren elementu garrantzitsuenetako bat da, proposamen horretatik dagozkien LPPen esparruak, eta baita bizitegi-lurzoru, ekonomia-jardueretarako lurzoru, aisiagune eta abarri buruzko zehaztapen ugari ere ondorioztatzen diren heinean. Eraldaketa Ardatzak eremu funtzionalen gune nagusiak berritzeko, artikulatzeko eta indartzeko jardun egituratzaile moduan planteatzen dira. Horrek aukera ematen du LAGen Erlazio Sistemaren azpiegitura-elementuen bitartez sendoago eta estuago lotutako nodoak dituen Sarean eratutako zentro anitzeko Lurraldea eratzeko.

como estructuras que faciliten el uso del transporte colectivo, densificando los espacios ya construidos y evitando la ocupación urbana de nuevos ámbitos.

2. Limitar la urbanización difusa, mejorar la calidad ambiental y paisajística y favorecer la densidad, la renovación urbana y la aparición de espacios de innovación mediante unos Ejes de Transformación que permitan la articulación de los diferentes elementos territoriales.

3. Configurar a través de los Ejes de Transformación unas estructuras sostenibles para el desarrollo urbano, evitando la compartimentación del territorio y proporcionando un soporte territorial adecuado para la dinamización e innovación de nuestras actividades económicas.

4. Facilitar la aparición de espacios con una intensidad urbana cada vez mayor, tanto en términos de densidad residencial, cuando la baja densidad actual lo permita, como de dotación de servicios, diversidad de usos y actividades.

5. Garantizar la permeabilidad transversal entre los ámbitos naturales situados a ambos lados de los Ejes de Transformación, evitando el efecto barrera que puede ocasionar la colmatación de los mismos por las infraestructuras y los desarrollos urbanísticos; así como preservando y mejorando las dotaciones de espacios libres y parques existentes a lo largo del Eje, o promoviendo la conservación de los mejores suelos agrarios.

III.
DIRECTRICES TERRITORIALES

Las Directrices territoriales que se proponen para la revisión del modelo territorial en materia de los ejes de transformación son las contenidas en el artículo 9 de las Normas de Aplicación.

IV.
LOS EJES DE TRANSFORMACIÓN POR ÁREAS FUNCIONALES

La delimitación de las Áreas Funcionales es uno de los elementos más importantes de la propuesta de las DOT en tanto en cuanto de ella se derivan los ámbitos de los correspondientes PTP, así como numerosas determinaciones referentes a suelo residencial, suelo para actividades económicas, áreas recreativas, etc. Los Ejes de Transformación se plantean como actuaciones estructurantes para la renovación, la articulación y el reforzamiento de los espacios centrales de las Áreas Funcionales que permite avanzar hacia la configuración de un Territorio en Red policéntrico con nodos más fuertes y más estrechamente interrelacionados a través de los elementos infraestructurales del Sistema Relacional de las DOT.

Eraldaketa Ardatzak eremu funtzionalen gune nagusiak berritzeko, artikulatzeko eta indartzeko jardun egituratzaile moduan planteatzen dira. Horrek aukera ematen du Sarean eratutako zentro anitzeko Lurraldea eratzeko.

Los Ejes de Transformación se plantean como actuaciones estructurantes para la renovación, la articulación y el reforzamiento de los espacios centrales de las Áreas Funcionales que permite avanzar hacia la configuración de un Territorio en Red policéntrico.

Eraldaketa Ardatzak garatuko dituzten kantauriar haranetan kokatzen dira 5.000 biztanle baino gehiagoko metropoliak ez diren 36 nukleoetatik 32, eta Eremu Funtzionaletako 18 buru eta azpiburuetatik 14. Euren hiri-dentsitatea eta morfologia lineala kontuan hartuta, Eraldaketa Ardatzen egitura argien definitzen duten eremuak dira.

Beste eremu batzuetan, esaterako, Arabako Lautadan edo Mungiako Eremu Funtzionalean, ez dituzte hiri-garapenerako baldintza topografiko hain murriztaileak eta, ondorioz, ez dira ageri egitura lineal zehaztuak. Horrek hiri-sakabanaketa errazten du presio urbanizatzaile handiko espazioetan. Horregatik, bide-ardatz egituratzaileen gaineko garraio kolektiboko sistemetan bermatutako Eraldaketa Ardatzen mugapena proposatzen da dokumentu honetan. Eremuak behar bezala garatzeko artikulazio-estrategiak egiteko aukera ematen dute sistema horiek.

Azkenik, euren landa-izaera nagusiaren eta kokalekuen antolaera eta morfologia kontuan hartuta, ez da egokitzat jotzen Eraldaketa Ardatzaren definizioa. Horixe da Laguardiako eta Gernika-Markinako Eremu Funtzionalen kasua, eta gidalerro espezifiko alternatibo jakin batzuk planteatzen dira bi eremuentzat.

En los valles cantábricos sobre los que se desarrollarán los Ejes de Transformación se localizan 32 de los 36 núcleos no metropolitanos de más de 5.000 habitantes y 14 de las 18 cabeceras y subcabeceras de las Áreas Funcionales. Son los ámbitos que por su densidad urbana y su morfología lineal definen de manera más clara la estructura de los Ejes de Transformación.

En otros ámbitos, como la Llanada Alavesa y el Área Funcional de Mungia, no se dan unas condiciones topográficas tan restrictivas para el desarrollo urbano, por lo que no aparecen estructuras lineales definidas. Esto favorece la dispersión urbana en unos espacios sometidos a fuertes presiones urbanizadoras. Por ello, desde este documento se propone la delimitación de Ejes de Transformación apoyados en sistemas de transporte colectivo sobre ejes viarios estructurantes que permiten estrategias de articulación para el adecuado desarrollo de estas áreas.

Por último, aparecen áreas en las que por su carácter predominantemente rural y por la disposición y morfología de sus asentamientos, no se considera adecuada la definición de Ejes de Transformación. Este es el caso de las Áreas Funcionales de Laguardia y de Gernika-Markina, para las que se plantean determinadas directrices específicas alternativas.



Horri jarraikiz, honako Eraldaketa Ardatz hauek nabarmentzen dira:

a. *Debabarreneko Eremu Funtzionala. Debabarreneko Eraldaketa Ardatza.*

Debabarreneko eremu nagusia Ermuko, Eibarko, Elgoibarko eta Soraluze-Placencia de las Armaseko nukleoen inguruan osatua dago, eta hiri-dentsitate eta industria-espezializazio handiko eremua izan da, baina azken hamarkadetan etengabeko gainbehera demografikoa izan du. AP-1 autobidea martxan jartzeak lurraldearen erdigunean jarri du Eibar, hiru euskal hiriburuetatik ia distantzia berera. Aukera erabakigarria da kokapen estrategiko hori aprobetxatzeko oinarriak –hala nola, biztanle kopurua, enpresa-dimentsioa eta dauzkan unibertsitate-zentroak (EHUren Eibarko campusa, IMHko Ingeniaritza Dualaren Unibertsitate Eskola Elgoibarren, eta IK4-Tekniker zentro teknologikoa Eibarren)– bere baitan hartzen dituen hiri-nodoarentzat.

Eraldaketa Ardatza bertan barne hartutako udalerrien garapena artikulatzeko ekimen gisa proposatzen da, erakargarritasun eta maila altuagoko hirigunea taxutzeko asmoz. Hirigune horren inguruan, hiria berritzeko eta eremuan dauden eskualde-arloko hornidura eta ekipamenduak hobetzeko jardunak bultzatu beharko lirateke.

Ardatz hau antolatzeko planteatzen diren gidalerroak honako hauek dira:

a.1 Eraldaketa Ardatzaren antolamenduan sartzea Ermua eta Deba arteko N-634 errepidea eta Maltzagatik Bergarara doan GI-627 errepidea, Debagoieneko mugaraino, apurka-apurka ekobulebar bihurtzeko prozesua.

a.2 Euskotrenen linea hiri arteko mugikortasunerako garraio kolektiboko euskarri garrantzitsu gisa erabilia izan dadila bultzatzea, Eremu Funtzional mugakideekin konexioak erraztuz, baita Bilbaorekin eta Donostiarekin ere. Bilbao-Donostia aldirietako zerbitzu metropolitarrak duen garrantzia azpimarratzen da, bere ibilbide osoan duen jarraitutasunarekin.

a.3 Antolamenduaren helburu gisa txertatzea Deba ibaiaren ertzak leheneratzea eta hobetzea, ibaia bera ingurunearen esparru naturalei konektatutako ingurune-korridore gisa hartzea, zeharkatzen dituen hiriguneak hobetzeko lagungarri izan behar duena, uholde-arriskua aintzat hartuta.

a.4 Hiri-nukleoak berroneratzeko eta arintzeko jardunak eta hirigune historikoen birgaitze integratua lehenestea, horretarako perimetro urbanizatuan jada sartuta dauden okupatu

En este sentido, se singularizan los siguientes Ejes de Transformación:

a. *Área Funcional de Bajo Deba. El eje de transformación del Bajo Deba.*

El espacio central del Bajo Deba, conformado en torno a los núcleos de Ermua, Eibar, Elgoibar y Soraluze-Placencia de las Armas, constituye un espacio caracterizado por su alta densidad urbana y por su fuerte especialización industrial, habiendo experimentado un continuo declive demográfico durante las últimas décadas. La puesta en servicio de la autopista AP-1 coloca a Eibar en el centro de gravedad del territorio y en una localización casi equidistante de las tres capitales vascas. Se trata de una oportunidad decisiva para un nodo urbano que cuenta con las bases para aprovechar esta localización estratégica, tales como su tamaño poblacional, su dimensión empresarial y los centros universitarios de los que dispone: el campus de Eibar de la EHU-UPV, la Escuela Universitaria Dual del IMH en Elgoibar, y el centro tecnológico IK4-Tekniker en Eibar.

El Eje de Transformación se plantea como una iniciativa orientada a articular los desarrollos de los municipios incluidos en el mismo, a fin de configurar un espacio urbano más atractivo y de mayor rango, en torno al cual se impulsen actuaciones de renovación urbana y de mejora de las dotaciones y equipamientos de escala comarcal existentes en el ámbito.

Las directrices que se plantean para la ordenación de este Eje son las siguientes:

a.1 Integrar en la ordenación del Eje de Transformación la paulatina conversión en ecobulevar de la carretera N-634 entre Ermua y Deba y de la GI-627 desde Maltzaga hasta Bergara, en el límite con el Alto Deba.

a.2 Impulsar el uso de la línea de Euskotren como importante soporte de transporte colectivo para la movilidad interurbana, facilitando las conexiones tanto con las Áreas Funcionales colindantes, como con Bilbao y San Sebastián. Se subraya la importancia del servicio metropolitano de cercanías Bilbao-San Sebastián con continuidad en todo su recorrido.

a.3 Incorporar como objetivo de la ordenación la recuperación y mejora de los márgenes del río Deba, considerando el mismo como un corredor ambiental conectado a los ámbitos naturales del entorno, que debe contribuir a la mejora de los espacios urbanos por los que discurre, y teniendo en consideración los riesgos de inundación.

a.4 Priorizar las actuaciones de regeneración y descongestión de los núcleos urbanos y la rehabilitación integrada de los cascos históricos; reutilizando los suelos desocupados ya incluidos

gabeko lurzoruak berrerabilita, lurzoru berriak okupatzearekiko alternatiba gisa. Alde horretan, LPPak eta udal plangintzek hiri-berroneratzeko eremuak eta esku hartzeko lehentasunezko arloak identifikatuko dituzte.

a.5 Deba haranean barrena kokatutako hiri-garapenen, alde batetik, eta landa-eremuen, hiri-inguruko parkeen eta ingurunean kokatutako aisialdiguneen, bestetik, arteko egituraketa eta integrazio egokia bermatzea; horretarako, eremu horiek konektatzea ahalbidetuko duen oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibilbideen sarea finkatu eta hobetu behar da.

a.6 Debabarreneko Lurralde-plan Partzialean iparraldea-hegoaldea lurralde- eta ekologia-iragazkortasuna bermatzea Areitiotik, Urdaibai-Goierri korridorearen bitartez.

en el perímetro urbanizado, como alternativa a la ocupación de nuevos suelos. En este sentido, el PTP y los planeamientos municipales identificarán las áreas de renovación urbana y los ámbitos prioritarios de intervención.

a.5 Garantizar la articulación y correcta integración entre los desarrollos urbanos ubicados a lo largo del valle del Deba y los ámbitos rurales, los parques periurbanos y las áreas de esparcimiento situados en su entorno; contemplando la consolidación y mejora de una red de itinerarios peatonales y ciclistas que permita la conexión con dichos ámbitos.

a.6 Garantizar en el Plan Territorial Parcial de Bajo Deba la permeabilidad territorial y ecológica norte-sur a través del corredor Urdaibai-Goierri por Areitio.

DEBABARRENEKO ERALDAKETA ARDATZA. Ermua-Eibar-Elgoibar Tartea
EJE DE TRANSFORMACIÓN DEL BAJO DEBA Tramo Ermua-Eibar-Elgoibar



b. *Debagoieneko Eremu Funtzionala. Debagoieneko Eraldaketa Ardatza*

Eremu Funtzionala euskal lurraldearen erdigunean dago eta honako hauek dira bere ezaugarri nagusiak: hiri-sendotasuna, unibertsitate- eta ikerketa-zentroak, berrikuntza guneen sorrera –esaterako, Olandiano-Garaia parke teknologikoa–, eta lurralde horretan bereziki garatutako gizarte- eta ekonomia-antolamendurako formula sortzaileak. AP-1 autobidea abian jarri izanak eskaintzen dituen aukeren aldaketa erabakigarria eragin Eremu honetan, eta edukiera handiko konexio-elementua da Debabarrenarekin eta EAEko iparraldeko metropoli-espazioekin, zuzeneko lotura ahalbidetuta Vitoria-Gasteizekin.

Eskualde-zentralitatea indartzeko eta Eremu Funtzionalaren berritze- eta garapen-dinamikak artikulatzeko Debagoieneko Eraldaketa Ardatza proposatzen da. Ardatzak Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Bergara udalerriak lotzen ditu, Oñatirekiko lotura barne, eta horrela, zentro anitzeko hirigunea eratu da haranean.

Ardatz hau antolatzeko planteatzen diren gidalerroak honako hauek dira:

b.1 Ardatzaren antolamenduan txertatzea GI-627 errepidea ekobulebar bihurtzeko prozesua. Ibilbide luzeko trafikotik libre geratu da errepide hori, AP-1 autobidea abian jartzearekin batera.

b.2 Izaera egituratzailearekin barnean hartzea garraio kolektiboko ardatz bat sortzeko prozesua, ibilbide osoan barrena joango delarik hiriarteko artikulazioa bermatuta.

b.3 Ardatzaren antolamendua artikulatzea Deba ibaiaren ibilguaren inguruan, eremuaren korridore ekologiko gisa, jardun osoaren irizpide eta helburuen artean bilduta Ardatzaren beraren ingurumen- eta ekologia-balioak hobetzea eta berreskuratzea, uholde-arriskua aintzat hartuta.

b.4 Hiri-nukleoak berroneratzeko eta arintzeko jardunak eta hirigune historikoen birgaitze integratua lehenestea, horretarako perimetro urbanizatuan jada sartuta dauden okupatu gabeko lurzoruak berrerabilita, lurzoru berriak okupatzearekiko alternatiba gisa, eremu libreetan hirigintza-garapen berriak mugatuta gako-irizpide gisa haren honek gainezka egitera saihesteko.

b.5 Deba haranean barrena kokatutako hiri-garapenen, alde batetik, eta landa-eremuen, hiri-inguruko parkeen eta ingurunean kokatutako aisialdiguneen, bestetik, arteko integrazio egokia bermatu beharko du Eraldaketa Ardatzak; horretarako, eremu horiek konektatzea ahalbidetuko duen oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibilbideen sarea finkatu eta hobetu behar da.

b. *Área Funcional de Alto Deba. El Eje de Transformación del Alto Deba*

El Área Funcional se encuentra en el centro de gravedad del territorio vasco y se caracteriza por su fortaleza urbana, por la existencia de centros universitarios y de investigación y por el impulso de espacios de innovación como el Parque tecnológico Olandiano-Garaia, así como por las fórmulas creativas de organización social y económica especialmente desarrolladas en su territorio. La entrada en servicio de la autopista AP-1 ha conllevado un cambio decisivo en las oportunidades territoriales de esta Área, constituyendo un elemento de conexión de alta capacidad con el Bajo Deba y espacios metropolitanos del norte de la CAPV; y proporcionando un enlace directo con Vitoria-Gasteiz.

Al objeto de reforzar la centralidad comarcal y articular las dinámicas de renovación y desarrollo del Área Funcional, se propone la definición del Eje de Transformación del Alto Deba, el cual enlaza los municipios de Eskoriatza, Aretxabaleta, Mondragón y Bergara, incluyendo la conexión con Oñati y configurando de esta forma una cabecera policéntrica a lo largo del valle.

Las directrices que se plantean para la ordenación de este Eje son las siguientes:

b.1 Incorporar a la ordenación del Eje la conversión de la carretera GI-627, mediante un diseño en forma de ecobulevar; la cual ha quedado liberada de los tráficos de largo recorrido con la entrada en servicio de la autopista AP-1.

b.2 Incluir con carácter estructurante la creación de un eje de transporte colectivo, que discurrirá por todo su recorrido garantizando la articulación interurbana.

b.3 Articular la ordenación del Eje en torno al curso del río Deba como corredor ecológico, integrando entre los criterios y objetivos de toda actuación la mejora y recuperación de los valores ambientales y ecológicos del mismo, y teniendo en consideración los riesgos de inundación.

b.4 Priorizar las actuaciones de regeneración y descongestión de los núcleos urbanos y la rehabilitación integrada de los cascos históricos; reutilizando los suelos desocupados ya incluidos en el perímetro urbanizado, como alternativa a la ocupación de nuevos suelos; y limitando los nuevos desarrollos urbanísticos en las zonas libres, como criterio clave para evitar la colmatación de este valle.

b.5 Garantizar la correcta integración entre los desarrollos urbanos ubicados a lo largo del valle del Deba y los ámbitos rurales, los parques periurbanos y las áreas de esparcimiento situados en su entorno; contemplando la consolidación y mejora de una red de itinerarios peatonales y ciclistas que permita la conexión con dichos ámbitos.

DEBAGOIENEKO ERALDAKETA ARDATZA-Bergara-Arrasate-Oñati Tartea
EJE DE TRANSFORMACIÓN DEL ALTO DEBA-Tramo Bergara-Arrasate-Oñati



c. *Urola Kostako Eremu Funtzionala. Urolako Eraldaketa Ardatza*

Urola Kostako Eremu Funtzionalean 20 km pasatxoko kostaldea –Urola eta Oria ibaiak itsasoratzen dira– eta topografia gorabeheratsua –Izarraitz, Hernio eta Gazume mendiguneak gailur dituela– uztartzen dituen lurraldea bilduta dago. Zumaia, Getaria, Zarautz eta Orio konektatzen dituen kostaldeko ibilbidea Urola ibaiaren harana zeharkatzen duenarekin artikulatzea ahalbidetuko duen Eraldaketa Ardatz bat planteatzen da Eremuan, Zumaia Aizarnazabalekin, Zestoarekin, Azpeitiarekin eta Azkoitiarekin lotuta.

Ardatz hori antolatzeko planteatzen diren gidalerroak honako hauek dira:

c.1 N-614 (Zumaian, Zarautzen eta Orion) eta GI-631 (Azpeitia eta Azkoitia artean) errepideetatik saihesbide moduan kanpoaldera eraman daitezkeen tarteak "ekobulebar" bihurtzeko prozesua Ardatzaren antolamenduan biltzea, tarte horiek hiri-bilbean txertatuta.

c.2 Mugikortasun-arloari dagokionez, Urolako trenaren Zumaia eta Urretxu arteko trazatua berreskuratzeko aukera kontuan hartzea, tren arin edo garraio alternatiboko modu baten bitartez; horren ezaugarriak Lurralde Plangintzaren bitartez zehaztu behar dira, eta trazadura hori, aldi baterako, hiriko ekobulebar gisa edo oinezkoentzako edo txirrindularientzako ardatz gisa erabil daiteke.

c.3 Kultura-nortasunaren adierazgarriak, lurraldeko natura-balioak eta landa-ingurunearen aniztasuna zaintzea bateragarri egitea eremuaren garapen sozio-ekonomiko iraunkorrarekin, Loiolatik abiatuta eraldaketa-ardatz osoa zeharkatzen duten eszenatokiei berriz ere balioa ematea bultzatuz eta arreta berezia eskainiz paisaiari eta kostaldearen babesari.

c.4 Urola ibaiaren ibilgua lehengoratzeko prozesua bultzatzea korridore ekologiko eta paisajistiko gisa, esparru degradatuak eta ingurumen-egoera eskasa duten ibaiertzak berroneratuta, eta hori guztia uholde-arriskua aintzat hartuta.

c.5 Hiri-nukleoak berroneratzeko eta arintzeko jardunak eta hirigune historikoen birgaitze integratua lehenestea, horretarako perimetro urbanizatuan jada sartuta dauden okupatu gabeko lurzoruak berrerabilita, lurzoru berriak okupatzearekiko alternatiba gisa.

c. *Área Funcional de Urola Kosta. El Eje de Transformación del Urola*

El Área Funcional de Urola Kosta constituye un territorio en el que confluyen algo más de 20 km de costa, donde desembocan los ríos Urola y Oria y una topografía accidentada que culmina en los macizos de Izarraitz, Hernio y Gazume. Se plantea en el Área un Eje de Transformación que permita la articulación del recorrido costero que conecta Zumaia, Getaria, Zarautz y Orio con el que recorre el valle del río Urola, enlazando Zumaia con Aizarnazabal, Zestoa, Azpeitia y Azkoitia.

Las directrices que se plantean para la ordenación de este Eje son las siguientes:

c.1 Integrar en la ordenación del Eje la conversión en forma de "ecobulevar" de los tramos de las carreteras N-634 (en Zumaia, Zarautz y Orio) y GI-631 (entre Azpeitia y Azkoitia) cuya función puede ser trasladada a variantes periféricas, incorporando los mismos a la trama urbana.

c.2 Contemplar en materia de movilidad la posible recuperación del trazado del ferrocarril del Urola entre Zumaia y Urretxu mediante un tren ligero o modo de transporte alternativo cuyas características deberán ser concretadas a través del Planeamiento Territorial, pudiendo utilizarse de modo transitorio tal trazado como ecobulebar urbano o eje peatonal o ciclabe

c.3 Compatibilizar la preservación de las señas de identidad culturales existentes, de los valores naturales del territorio y de la diversidad de su medio rural, con el desarrollo socioeconómico sostenible del Área; impulsando la revalorización de los escenarios que partiendo de Loiola recorren todo el eje de transformación y prestando especial atención al paisaje y a la protección del litoral.

c.4 Impulsar la recuperación del cauce del río Urola como corredor ecológico y paisajístico, regenerando los ámbitos degradados y las márgenes que presentan un estado medioambiental deficiente, y todo ello teniendo en consideración los riesgos de inundación.

c.5 Priorizar las actuaciones de regeneración y descongestión de los núcleos urbanos y la rehabilitación integrada de los cascos históricos; reutilizando los suelos desocupados ya incluidos en el perímetro urbanizado, como alternativa a la ocupación de nuevos suelos.

UROLAKO ERALDAKETA ARDATZA- Azkoitia-Azpeitia Tartea

EJE DE TRANSFORMACIÓN DEL UROLA-Tramo Azkoitia-Azpeitia



d. Goierriko Eremu Funtzionala. Urolako eta Oriako Eraldaketa Ardatzen arteko konexioa.

Eremu Funtzionala bi ardatzen inguruan egituratzen da, eta ardatz horietan metatzen da biztanleriaren gehiengoa. Lehenengo ardatza iparraldetik hegoaldera doa Oriaren haranean barrena, eta N-I errepidean oinarritzen den eskala handiagoko korridore batean sartzen da. Korridore hori hiri-continuum batean hedatzen da, Tolosaldeko eta Donostialdeko eremuetaraino. Bigarrena ekialdetik mendebaldera doa, eta Beasain-Ordizia-Lazkao errotulan bat egiten du lehenengoarekin; Urolako Eraldaketa Ardatzarekin konektatzen du, bigarren hirigune garrantzitsuenera (Zumarraga-Urretxu) iristeraino eta, hortik aurrera, Durangorantz luzatzen da.

Proposatutako Eraldaketa Ardatza goian aipatu ditugun bi ardatz horiek zehaztutako hiri-egituran oinarritzen da. Ardatzean zehar dauden garapenak finkatzea eta kontzentratzea planteatzen da bertan, Beasain-Ordizia-Lazkao nodoaren (Olaberria eta Idiazabal bertan txertatutako lirateke funtzionalki) garapenak eta Zumarraga-Urretxuri eta Legazpiri dagozkionak artikulatuz, eta hirigune sendoa eratuko du maila handiagoko hiri-eremu batean.

Ardatz hau antolatzeko planteatzen diren gidalerroak honako hauek dira:

d.1 Ordizia-Beasain trenbide-saihesbidea egikaritzea sektoreko administrazioak emandako definizioaren arabera, N-1 errepidearen ondoan, eta Ordiziako geltoki berria ere egikaritzea.

d.2 Hainbat nukleo konektatzen dituzten hiriarteko bideen gaineko ekobulebar bat garatzea, funtsean, Zumarragatik Ormaiztegira doan GI-2632, Ormaiztegitik Beasainera doan GI-2632 eta Ordiziatik Tolosaldeko eremu funtzionalera doan GI-2131 errepideak oinarri hartuta, aldi berean lotura finkatuz Debako Eraldaketa Ardatzarekin eta AP-1ekin, GI-632 errepidea Zumarragatik Bergararaino luzatuta, eta Zumarraga eta Azkoitia arteko konexioa hobetuta.

d. Área Funcional de Goierri. La conexión entre los ejes de Transformación del Urola y del Oria

El Área Funcional se estructura a lo largo de dos ejes sobre los que se concentra la mayor parte de su población. El primero de ellos es el eje Norte-Sur a lo largo del valle del Oria, el cual se integra en un corredor de mayor escala que apoyado en la carretera N-I se extiende en un continuo urbano hasta las áreas de Tolosaldea y Donostialdea. El segundo es el eje transversal Este-Oeste que, enlazando con el anterior en la rótula Beasain-Ordizia-Lazkao, conecta con el Eje de Transformación del Urola alcanzando la segunda cabecera de la misma (Zumarraga-Urretxu), para prolongarse posteriormente en dirección a Durango.

El Eje de Transformación propuesto se apoya en la estructura definida por los dos corredores antes referidos. Se plantea en el mismo la consolidación y concentración de los desarrollos existentes a lo largo del Eje, articulando los correspondientes al nodo Beasain-Ordizia-Lazkao (en el que se integrarían funcionalmente Olaberria e Idiazabal) y los de Zumarraga-Urretxu y Legazpi; configurando una sólida cabecera de un ámbito urbano de mayor rango.

Las directrices que se plantean para la ordenación de este Eje son las siguientes:

d.1 Ejecutar la variante ferroviaria Ordizia-Beasain según definición de la administración sectorial, de forma contigua a la carretera N-1, así como nueva estación de Ordizia.

d.2 Desarrollar un ecobulevar sobre los viarios interurbanos que conectan los diversos núcleos, fundamentalmente la carretera GI-2632 desde Zumarraga hasta Ormaiztegi, la GI-2632 entre Ormaiztegi y Beasain y la GI-2131 desde Ordizia hasta el límite con el Área Funcional de Tolosaldea; consolidando a su vez el enlace con el Eje de Transformación del Deba y la AP-1 mediante la prolongación de la GI-632 desde Zumarraga hasta Bergara; y mejorando la conexión entre Zumarraga y Azkoitia.

UROLAKO ERALDAKETA ARDATZA- Zumarraga-Legazpi Tartea
EJE DE TRANSFORMACIÓN DEL UROLA Tramo Zumarraga-Legazpi



d.3 Ardatzean barrena dauden nukleoak artikulatzen dituzten errepideak konfiguratzea; oinezkoentzako eta bizikletentzako sareekin artikulatuta eta aldiriko trenen sarearekin eta errepidezko garraio publikoarekin konektatuta.

d.4 Oria ibaiaren ibilgua eta haren arro isurlea leheneratzeko prozesua lehenestea, korridore ekologiko eta paisajistiko gisa, uholde-arriskuak aintzat hartuta, jardun ororen irizpide eta helburuen artean bilduta ibaiaren beraren ingurumen- eta ekologia-balioak hobetzea eta berreskuratzea.

d.3 Configurar las carreteras que articulan los núcleos situados a lo largo del eje como viarios de carácter urbano; articulados con las redes peatonales y ciclistas y conectados con la red de ferrocarril de cercanías y con el transporte público por carretera.

d.4 Priorizar la recuperación del cauce del río Oria y de su cuenca afluente, como corredor ecológico y paisajístico; teniendo en consideración los riesgos de inundación e integrando entre los criterios y objetivos de toda actuación la mejora y recuperación de los valores ambientales y ecológicos del mismo.

ORIAKO ERALDAKETA ARDATZA-Beasain-Ordizia-Lazkao Tartea
EJE DE TRANSFORMACIÓN DEL ORIA- Tramo Beasain-Ordizia-Lazkao



d.5 Eremuan dauden naturagune garrantzitsuak babesteko eta indartzeko jarduna bermatzea, batik bat, Aizkorri-Aratzeko eta Aralarreko Parke Naturalak eta haien ingurunea, hirigintza-garapenak definitutako Eraldaketa Ardatzen gaineko hirigintza-garapenak kontzentratzearen bidez.

d.6 Ardatzean eraikinik ez duten tarte libreak okupazio berrietatik babestu behar dira, eta egungo kokalekuen finkapena eta artikulazioa lehenetsiz, Lurralde Plan Partzialean definitutako lurralde-ereduari jarraikiz.

d.5 Garantizar la protección y potenciación de los importantes espacios naturales existentes en el Área, en especial de los Parques Naturales de Aizkorri-Aratz y de Aralar y de su entorno mediante la concentración de los desarrollos urbanísticos sobre el Eje de Transformación definido.

d.6 Preservar de nuevas ocupaciones los tramos libres de edificación existentes en el Eje, priorizando la consolidación y articulación de los asentamientos actuales, de acuerdo con el modelo territorial definido en el Plan Territorial Parcial.



e. *Tolosaldeko Eremu Funtzionala. Oriako Eraldaketa Ardatza*

Tolosaldeko Eremu Funtzionalaren ezaugarria da biztanleriaren % 80 baino gehiago Oria ibaiaren haranean kokatutako bederatzi udalerrietan metatzen dela, N-I errepideak definitutako korridorean zehar, zeinak eremua artikulatzen duen Donostialdeko Eremu Funtzionalarekin konektatuz Iparralderantz eta Goierriko Eremu Funtzionalarekin konektatuz Hegoalderantz. Korridore hori egituratzailea da, eta Gipuzkoa osoa ere egituratzen du; halaber, eremuak Donostiarekin dituen harreman funtzionalak eta, batik bat, bi eremu horien artean gertatzen diren biztanleria-fluxuak nabarmen baldintzatzen ditu.

Korridore horretan zehar proposatutako Eraldaketa Ardatzak Tolosa eta Ibarraren inguruan artikulatu du hirigunearen gune nagusia eta, pixkanaka-pixkanaka, eremuko garapen linealak integratzen ari da, iparralderantz, Villabonara arte –Villabonak berak eta Zizurkileko Elbarrena auzoak osatzen dute eremu funtzionalaren azpi-burua–, eta hegoalderantz hedatzen direnekin, Ikaztegietara arte.

Ardatz hori antolatzeko planteatzen diren gidalerroak honako hauek dira:

e.1 Ekobulebar bat garatzea Oria ibaiaren haranean zehar dauden hiriguneak lotzen dituzten hiriarteko bideen gainean, Ikaztegietatik Villabonara, N-I errepide zaharraren ibilbideari jarraituz, bestelako edukiera handiko bideak dituzten tarteetan.

e.2 Ekobulebarrean zehar hiri-izaerako bide-ardatz bat antolatzea, oinezkoen eta bizikletentzako sarea bertan integratuz eta sarbidea erraztuz aldiriko trenen sareari zein errepidezko garraio publikoari.

e.3 Oria ibaiaren ibilgua korridore ekologiko eta paisajistiko gisa leheneratzeko prozesua bultzatzea, esparru degradatuak eta ingurumen-egoera eskasa duten ibaiertzak berroneratuta eta uholde-arriskuak aintzat hartuta.

e.4 Hiri-nukleoak berroneratzeko eta arintzeko jardunak eta hirigune historikoen birgaitze integratua lehenestea, horretarako perimetro urbanizatuan jada sartuta dauden okupatu gabeko lurzoruak berrerabilita, lurzoru berriak okupatzearekiko alternatiba gisa.

e.5 Ardatzean zehar kokatutako ekipamendu, zerbitzu eta espazio publikoen hornidura finkatzea eta hobetzea, esparru horretan kokatutako biztanleriaren premiak aseko direla bermatuta, Ardatzaren mendekotasun funtzionala orekatuta Donostialdea-Bidasoa Beherea Eremu Funtzionalarekin.

e. *Área Funcional de Tolosaldea. El Eje de Transformación del Oria*

El Área Funcional de Tolosaldea se caracteriza por la concentración de más del 80% de su población sobre los nueve municipios ubicados sobre el valle del río Oria, a lo largo del corredor definido por la carretera N-I, que articula el área conectándola con las Áreas Funcionales de Donostialdea hacia el Norte y de Goierri hacia el Sur. Dicho corredor, de carácter estructurante de la totalidad del territorio guipuzcoano, condiciona de forma determinante las relaciones funcionales del Área con la vecina de San Sebastián y, en especial, con los flujos poblacionales que se producen entre ambas.

El Eje de Transformación propuesto a lo largo del referido corredor permitirá articular el espacio central ocupado por la cabecera del Área, en torno a los cascos urbanos de Tolosa e Ibarra, con los desarrollos lineales existentes hacia el Norte hasta Villabona, que junto con el barrio de Elbarrena del municipio de Zizurkil constituyen una subcabecera de Área Funcional, y con los que se extienden hacia el Sur hasta Ikaztegieta.

Las directrices que se plantean para la ordenación de este Eje son las siguientes:

e.1 Desarrollar un ecobulevar sobre los viarios interurbanos que conectan los diversos núcleos urbanos situados a lo largo del valle del río Oria, desde Ikaztegieta hasta Villabona, siguiendo el recorrido de la antigua carretera N-I; en los tramos que disponen de un viario de alta capacidad alternativo.

e.2 Configurar a lo largo del ecobulevar un eje viario de carácter urbano, en el que se integre la red peatonal y ciclista y se facilite el acceso tanto a la red de ferrocarril de cercanías, como a la de transporte público por carretera.

e.3 Impulsar la recuperación del cauce del río Oria como corredor ecológico y paisajístico, regenerando los ámbitos degradados y las márgenes que presentan un estado medioambiental deficiente, y teniendo en consideración los riesgos de inundación.

e.4 Priorizar las actuaciones de regeneración y descongestión de los núcleos urbanos y la rehabilitación integrada de los cascos históricos; reutilizando los suelos desocupados ya incluidos en el perímetro urbanizado, como alternativa a la ocupación de nuevos suelos.

e.5 Consolidar y mejorar la dotación de equipamientos, servicios y espacios públicos del ámbito territorial situado a lo largo del Eje, de forma que se garantice la satisfacción de las necesidades de la población asentada en dicho ámbito, equilibrando su dependencia funcional con la colindante Área Funcional de Donostialdea-Bajo Bidasoa.

ORIAKO ERALDAKETA ARDATZA- Villabona-Irura-Anoeta-Tolosa Tartea

EJE DE TRANSFORMACIÓN DEL ORIA- Tramo Villabona-Irura-Anoeta-Tolosa



f. Enkarterriko Eremu Funtzionala. Kadaguako Eraldaketa Ardatza

Kadaguako Eraldaketa Ardatza, Balmasedatik Alonsotegira, Kadagua haranari jarraitzen dion eta eratzen ari den hiri-korridorearen gainean planteatzen da, Zallako eta Gueñeseko hirigune nagusiak barne hartzen dituela. Kadaguako autobia martxan jarrita –igarobideko trafikoa xurgatzen du–, hiriguneak elkarrekin lotzen dituzten hainbat errepideren gainean garatuko da ardatza

Zabalera metrikoaren trenbide-linea eraldaketan dagoen bide-ardatzarekiko paraleloan doa, funtsezko elementua da Eremu Funtzionala Bilbao Metropolitarrarekin konektatzeko eta eremu horretako garraio kolektiboko sistementzako euskarri nagusia eratzen du

Eraldaketa Ardatz honi buruzko lurralde-gidalerroak honako hauek dira:

f.1 Kadagua ibaiak korridore ekologiko gisa jokatuko du, eremuko uholde-arriskuak kontuan hartuta ingurumen-interesa duten inguruko eremuekiko berdeguneak eta lotura-espazioak barne hartuta.

f.2 Hiri-zentralitate eta -nortasun puntuak sortzen dituzten garapen trinkoagoak, ekipamenduak eta ekoizpen-guneak, garraio kolektiboa, ingurumen-ardatzak eta espazio publikoak sustatzea, Eraldaketa Ardatz honi lotutako aukerak dira funtzio-aniztasun handiagoa eta espazio askotarikoagoak eta iraunkorragoak lortzeko.

f.3 Kadaguako ardatzean zehar hutsik dauden edo abandonatuta dauden industriaguneek okupatzen dituzten espazioei balioa ematea eremu horri Supersur saihesbide berriak ematen dion konektibitate handiagoan oinarrituta, aukera egokitzat jotzen baita azpiegitura hori da datozen urteetan eremua dinamizatzeko.

f.4 Hiri arteko bide zaharrak ekobulebar bihurtzea eta hiri-eragiketa egituratzaile funtsezkoak garatzea dentsitate txikiko eta, batzuetan, egiturarik gabeko garapenak nagusi diren espazioaren bilakaerarako.

f.5 Balmaseda-Zalla-Gueñes ardatzean integratuagoa dagoen hirigunea artikulatzeak aukera emango du zerbitzu-potentzial handiagoko eta eremu osoa erakartzeko eta dinamizatzeko gaitasun handiagoko hiri-oinarria izateko.

f. Área Funcional de Encartaciones. El Eje de Transformación del Kadagua

El Eje de Transformación del Kadagua se plantea sobre el corredor urbano en formación que sigue el valle del Kadagua desde Balmaseda hasta Alonsotegi, incluyendo las principales zonas urbanas de Zalla y Güeñes. Ya en funcionamiento la autovía del Kadagua que absorbe el tráfico de paso, el eje se desarrollará sobre las diferentes carreteras que conectan entre sí los centros urbanos.

La línea de ferrocarril de ancho métrico, que discurre en paralelo al eje viario en trasformación, constituye un elemento clave para la conexión del Área Funcional con el Bilbao Metropolitano, conformando el soporte principal para los sistemas de transporte colectivo en este ámbito.

Las directrices territoriales en lo relativo a este Eje de Transformación son las siguientes:

f.1 El río Kadagua actuará como corredor ecológico, acogiendo zonas verdes y espacios de enlace con las áreas de interés ambiental del entorno teniendo en consideración los riesgos de inundabilidad existentes.

f.2 Promover desarrollos más compactos que generen puntos de centralidad e identidad urbana, equipamientos y espacios productivos, transporte colectivo, ejes ambientales y espacios públicos que constituyan oportunidades asociadas a este Eje de Transformación para lograr una mayor diversidad funcional y espacios más diversos y sostenibles.

f.3 Poner en valor los espacios ocupados por zonas industriales abandonadas a lo largo del eje del Kadagua apoyados en la elevada conectividad exterior que proporciona a este ámbito la nueva variante Supersur, considerada como una oportunidad importante para la dinamización de estos espacios durante los próximos años.

f.4 Transformar en ecobulevares los antiguos viarios interurbanos y desarrollar operaciones urbanas estructurantes esenciales para la evolución de un espacio dominado por desarrollos poco densos y a veces carentes de estructura.

f.5 Articular un espacio urbano más integrado en el eje Balmaseda-Zalla-Güeñes que permita disponer de una base urbana con mayor potencial de servicios y con una mayor capacidad para atraer y dinamizar el conjunto del área.

KADAGUAKO ERALDAKETA ARDATZA- Balmaseda-Zalla-Güeñes Tartea
EJE DE TRANSFORMACIÓN DEL KADAGUA Tramo Balmaseda-Zalla-Güeñes



g. *Aiarako Eremu Funtzionala. Nerbioi Garaiko Eraldaketa Ardatza*

Laudio eta Urduña arteko Nerbioi Garaiko harana ardatz naturala da Bilbao Metropolitarrean sortutako aldaketak zabaltzeko, eta bere elementu erakargarrien artean du tamaina demografiko eta funtzional txikiko hirigunea izatea. Hazkunde-potentzial handia du oraindik, batez ere Amurrion eta Urduñan. Ardatzak Nerbioi ibaia du argudio natural, parke lineal bat taxutzen da, ardatz osoa ingurumen aldetik egituratzen duena. Nerbioiko Parke Lineala hiri-inguruko parkea da; konektibitate ekologikoko eta ingurumena berreskuratzeko funtzioak betetzen ditu, eta herritarrak ibaira eta inguruko guneetara hurbiltzeaz gain, herriguneak elkarren artean ere hurbiltzen ditu, modu iraunkorrean, aukerak biderkatuta. Eraldaketa-ardatza azpiegitura-oinarri sendo batean ere oinarritzen da, ekobulebar gisa eratutako A-625 errepidean eta ADIFen trenbidean oinarrituta, azken hori Bilbao-Urduña aldiriko tren-linearekin.

Testuinguru horretan, honako hauek dira Nerbioi Garaiko eraldaketa-ardatzerako proposatzen diren gidalerroak:

g.1 Nerbioi ibaiarekin batera doan korridorearen gaineko ardatza garatzea Laudio, Aiara (Luiaondo), Amurrio eta Urduña udalerrietan, lurralde osorako azpiegitura berde gisa Nerbioiko Parke Linealak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatuta, eta urbanizaziotik babestuta eraikuntza-erabilerarik gabeko esparruak, eta hori guztia uholde-arriskua aintzat hartuta.

g.2 Hiri-espazioak metropoli-berroreka eta -zabalkundearen oinarrien gainean artikulatzea, gune bakoitzak bere ezaugarri espezifikoen araberako berezitasun-elementuak jarriko lituzkeelarik:

A) Laudioko hiri-berroneratzeko ekintzak egitea, bere irudiaren kalitatea hobetu eta bere zuzkidura-eskaintza eta hirugarren sektoreko jardueren eskaintza indartuko dutenak.

B) Amurriok hazkunde eta jardun berriak hartzeko duen ahalmena kontuan hartzea, bere hiri-bilbea trinkotu eta antolatuko dutenak, hiriak birkualifikatzeko duen potentzial handia aprobetxatuz.

C) Urduñako hiri- eta ingurumen-erakargarritasunak aprobetxatzea, bizitzeko, aisia- eta turismo-jardueretarako eta ekonomia berriko enpresentzako erakargarria izango den hiri ekologikoa eratuta.

g.3 Eremu Funtzionalaren turismo-potentzialtasunak garatzea, kalitatezko natura-, kultura- eta hiri-arloko ondareari jarraikiz.

g. *Área Funcional de Ayala. El Eje de Transformación del Alto Nervión*

El valle del Alto Nervión entre Llodio y Orduña constituye un eje natural para la difusión de los cambios surgidos en el Bilbao Metropolitano, y cuenta entre sus atractivos con un espacio urbano de escaso tamaño demográfico y funcional que, especialmente en Amurrio y Orduña, cuenta todavía con un alto potencial de crecimiento. El eje se basa en el río Nervión como argumento natural, configurando un gran parque lineal que articula ambientalmente el conjunto del eje: el Parque Lineal del Nervión es un parque periurbano que, además de sus funciones de conectividad ecológica y de recuperación ambiental, no sólo acerca la población al río y a sus espacios adyacentes, sino que también acerca los núcleos entre sí de forma sostenible, multiplicando oportunidades. El eje de transformación se apoya también en el afianzamiento de una sólida base infraestructural, la carretera A-625 como ecobulevar y el ferrocarril de ADIF con su línea de cercanías Bilbao-Orduña.

En este contexto, las directrices que se proponen para el eje de transformación del Alto Nervión son las siguientes:

g.1 Desarrollar el eje sobre el corredor que discurre a lo largo del río Nervión, en los municipios de Llodio, Aiara (Luiaondo), Amurrio y Orduña, aprovechando las oportunidades del Parque Lineal del Nervión como infraestructura verde a nivel territorial, y preservando de la urbanización los ámbitos libres de ocupación por usos edificatorios, todo ello teniendo en consideración los riesgos de inundación.

g.2 Articular los espacios urbanos sobre las bases de reequilibrio y difusión metropolitana, como un eje en el que cada uno de los núcleos aporta elementos de singularidad en función de sus características específicas:

A) Realizar acciones de renovación urbana de Llodio, para mejorar la calidad de su imagen y reforzar su oferta dotacional y de actividades terciarias.

B) Considerar la capacidad de Amurrio para acoger nuevos crecimientos y actuaciones que densifiquen y ordenen su trama urbana, aprovechando su importante potencial de recualificación.

C) Aprovechar los atractivos urbanos y ambientales de Orduña para configurar una ciudad ecológica atractiva para la residencia, las actividades de ocio y turismo, así como para las empresas de la nueva economía.

g.3 Desarrollar las potencialidades turísticas del Área Funcional, en base a un patrimonio natural, cultural y urbano de calidad.

NERBIOI GARAIKO ERALDAKETA ARDATZA
EJE DE TRANSFORMACIÓN DEL ALTO NERVIÓN



h. Arratiako Eremu Funtzionala. Arratiako Eraldaketa Ardatza

Arratiako Eremu Funtzionala Arratia haranaren sakonean egituratzen da, argi eta garbi, eta natura-aberastasun handia du: bi parte naturalek –Urkiolak eta Gorbeiak– zehazten dute eremuaren ingurune fisikoa, eta haien berezitasunari eutsiz, beste eremu funtzional batzuen aldean. Bestalde, N-240 errepidea da errepide-ardatz nagusia zeinaren gainean kokatzen diren Eremu Funtzionala osatzen duten herrigune gehienak, eta haren gainean daude, halaber, hirigintza-garapenak.

Eraldaketa Ardatz honi buruzko lurralde-gidalerroak honako hauek dira:

h.1 Arratia ibaiaren ibilgua eta haren ingurunea babestea eremua ingurumen-ikuspegitik egituratuz, uholde-arrisku handieneko eremuak babesten dituen eta paisaia-ardatza eta naturarekiko harreman-ardatza eskaintzen dituen korridore ekologiko gisa.

h.2 Igorreko Eremu Funtzionala indartzea Bilbao Metropolitarretik datozen hazkunde berriak hartzeko espazio gisa; horregatik, Eraldaketa Ardatza datozen urteetan eremuaren garapen iraunkorra antolatzeko erreferentziazko egitura gisa planteatzen da kasu honetan.

h.3 Udalburuetako zentralitate-elementuak indartzea, N-240 errepidea ekobulebar moduan eratuta pixkanaka-pixkanaka, balio handiko espazio batean etorkizuneko garapenak artikulatzeko funtsezkoak diren garraio kolektiboko sistemen euskarri izateko.

h.4 Egungo hiri-nukleoak birtrinkotzeko eragiketak lehenestea garapen berrien aurretik.

h. Área Funcional de Arratia. El Eje de Transformación del Arratia

El Área Funcional de Arratia se articula con gran claridad en el fondo del valle del Arratia y se caracteriza por la gran riqueza natural que conserva, con dos parques naturales -Urkiola y Gorbea- que definen su medio físico lo que mantiene su singularidad frente a otras Áreas Funcionales. Por su parte, la carretera N-240 es el principal eje viario sobre el que se asientan la mayoría de los núcleos de población que conforman el Área Funcional y sobre el que se localizan los desarrollos urbanísticos.

Las directrices territoriales en lo relativo a este Eje de Transformación son las siguientes:

h.1 Preservar el cauce del Arratia y su entorno como corredor ecológico que estructura ambientalmente este espacio, transformado las zonas con mayor riesgo de inundación en un eje paisajístico y de contacto con la naturaleza.

h.2 Potenciar el Área Funcional de Igorre como espacio de acogida de nuevos crecimientos procedentes del Bilbao Metropolitano; por ello, el Eje de Transformación se plantea en este caso como una estructura de referencia para vertebrar el desarrollo sostenible de este espacio durante los próximos años.

h.3 Reforzar los elementos de centralidad de las cabeceras municipales configurando la N-240 como ecobulevar que dé soporte a los sistemas de transporte colectivo y articule los futuros desarrollos en un espacio de alto valor.

h.4 Priorizar las operaciones de redensificación de los núcleos urbanos existentes frente a nuevos desarrollos.

ARRATIAKO ERALDAKETA
ARDATZA- Lemoa-Igorre-Areatza Tartea
EJE DE TRANSFORMACIÓN DEL ARRATIA Tramo Lemoa-Igorre-Areatza



i. Durangaldeko Eremu Funtzionala. Ibaizabalgo Eraldaketa Ardatza

Zornotza-Durango-Zaldibar ardatzean zehar sortutako hiri-eremuak Bilbao eta Donostia arteko hiri-korridore nagusia osatzen du, lurralde-funtzio garrantzitsuak dituzten biztanleguneak bilduz, EAEn duen kokapen barizentrikoaren ondorioz. Bestalde, EUSKOTRENen trenbideak ondo konektatutako eremua da, tratamendu berezi batekin, Durangoren kasuan, trenbideen lurperatzea dela-eta. Gako-eremua da bi hiriburuen artean gero eta erlazio handiagoa izateko.

Eraldaketa Ardatz honi buruzko lurralde-gidalerroak honako hauek dira:

i.1 N-634 errepidea Zornotzatik Zaldibarreraino ekobulebar bihurtzea, elementu bat emanez udalerri horietako garapenak egituratzeko, Durango-Amorebieta-Etxano udalburua eratuta metropoli bati dagozkion funtzioekin. Antzeko ezaugarriak ditu Durango - Elorrio bide-ardatzak ere.

i.2 Ibaizabal ibaiaren ibilgua hirigune horretako korridore ekologiko bezala kontuan hartzea, hiri-garapenetik babestuta uholde-arriskua duten eremuak, eta Urdaibairen eta Urkiolaren arteko konektibitate ekologikoa bermatzea.

i.3 Debabarreneko eremu funtzionala eta Gernika-Lumo-Bermeo ardatza Bilbaorekin lotzen dituen Euskotren linea indartzea, hiri-garapeneko prozesuak bideratzeko eta trinkotzeko eta Durango eta Zornotzako geltokien inguruan lurralde-zentralitateko guneak sortzeko garrantzi ikaragarria duen garraio kolektiboko euskarri gisa.

i.4 Okupazio handia jasaten duen N-634 errepidearen inguruko erdiko korridorearen eraiki gabe dauden eremuak hirigintza-jardun berrietatik babestea, eta babes hori funtsezkoa da eremu horren iragazkortasuna mantentzeko.

i.5 Durangaldeako Lurralde Plan Partzialean iparraldea-hegoaldea lurralde- eta ekologia-iragazkortasuna bermatzea Areitiotik, Urdaibai-Goierri korridorearen bitartez.

i. Área Funcional de Durangaldea. El Eje de Transformación del Ibaizabal

El área urbana en formación a lo largo del eje Amorebieta-Etxano- Durango-Zaldibar configura el principal corredor urbano entre Bilbao y San Sebastián, aglutinando núcleos de población con importantes funciones territoriales por su ubicación baricéntrica en la CAPV. Por otro lado, es un área bien conectada por las vías de ferrocarril de EUSKOTREN, con un tratamiento singular, en el caso de Durango, por el soterramiento de las vías. Es un espacio clave para lograr una interrelación creciente entre las dos capitales.

Las directrices territoriales en lo relativo a este Eje de Transformación son las siguientes:

i.1 Transformar la carretera N-634 en ecobulevar desde Amorebieta-Etxano hasta Zaldibar, proporcionando un elemento para estructurar los desarrollos de estos municipios, permitiendo configurar la cabecera Durango-Amorebieta-Etxano con funciones de rango metropolitano. Similares características deben atribuirse al eje viario Durango - Elorrio.

i.2 Considerar el cauce del río Ibaizabal como corredor ecológico de este espacio urbano, preservando del desarrollo urbano las áreas con riesgo de inundación, así como garantizar la conectividad ecológica entre Urdaibai y Urkiola.

i.3 Potenciar la línea de Euskotren, que conecta con Bilbao el Área Funcional de Bajo Deba y el eje Gernika-Lumo-Bermeo, como soporte de transporte colectivo de gran importancia para orientar y densificar los procesos de desarrollo urbano, generando espacios de centralidad territorial en torno a las estaciones de Durango y Amorebieta-Etxano.

i.4 Preservar de nuevas actuaciones urbanísticas los ámbitos no edificados del corredor central en torno a la carretera N-634 la cual presenta una elevada ocupación por lo que tal preservación es esencial para mantener la permeabilidad de este ámbito.

i.5 Garantizar en el Plan Territorial Parcial de Durangaldea la permeabilidad territorial y ecológica norte-sur a través del corredor Urdaibai-Goierri por Areitio.

IBAIZABALGO ERALDAKETA ARDATZA- Amorebieta-Etxano-Durango-Elorrio Tartea

EJE DE TRANSFORMACIÓN DEL IBAIZABAL- Tramo Amorebieta-Etxano-Durango-Elorrio



j. Busturialdea-Artibaiko Eremu Funtzionala. Bermeo-Gernika-Lumo-Amorebieta-Etxano

Gune hau bere ingurumen- eta paisaia-bikaintasunagatik nabarmentzen da, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren presentziarekin eta itsasertzeko paisaia eta landa-paisaia baliotsuekin. Ingurumeneko aktibo horiek babestea da eremu funtzionalaren norabide estrategiko nagusia, lurraldearen kalitate-mailaren eta erakargarritasun-mailaren elementu bereizlea den heinean.

Proposatutako estrategia honako hauetan oinarritzen da: bere interkonexioak hobetzea, eremu horretako garraio-sistemaren ardatz nagusi gisa ageri den Bermeo-Gernika-Lumo-Amorebieta-Etxano tren-linea nabarmenduz, buruak eta azpiburuak indartzea inguruneko eremuen eskaerak asetzeko ahalmena duten zerbitzu-zentro gisa, eta paisaiaren eta ingurumenaren kudeaketa aktiboa egitea, garapenerako gako-elementu gisa. Bermeoko saihesbide berriak udalerri horretako hiri-espazioa hobetu behar du, egun dagoen igarobideko trafiko guztia horra bideratzen baita.

Eraldaketa Ardatz honi buruzko lurralde-gidalerroak honako hauek dira:

j.1 Bermeoko eta Gernika-Lumoko geltokiak eskualdeko intermodalitate- eta zentralitate-elementu gisa egituratzea eremuaren konektibitatea, eremu mugakideekiko harremanak eta bi hirien zentralitatea indartzeko aukera bihurtuta.

j.2 Iparraldean, kostaldea eta A-8 arteko espazioak artikulatzen dituen Mungia bideko Bermeo-Bilbao konexioa indartzea, eta hegoaldean, aldiz, Gernika-Lumoren konexioak Durangoko Eremu Funtzionalarekin eta Markinarenak Durangorekin eta Debabarrenarekin.

Plan Partzialak direla uste dugu, eta, dagokien kasuan, eragindako udalerriek beraiek planteatuko dituzte beren interrelazio-eremuak.

en función de sus especificidades estratégicas territoriales son los Planes Territoriales Parciales, y, en su caso, los propios municipios afectados los que planteen sus ámbitos de interrelación.

Lurralde-berezitasun estrategikoak aintzat hartuta, bateragarri egiteko mekanismoak zein udalerri multzotan aplikatuko diren eremuak proposatzeko tokirik egokiena Lurralde Plan Partzialak direla uste dugu.

Se considera que son los Planes Territoriales Parciales el lugar más adecuado para proponer los grupos de municipios a los que se aplicarán los mecanismos de compatibilización en función de sus especificidades estratégicas territoriales.

II. HELBURUAK

Plangintzak bateragarri egitearen alorrean proposatzen diren helburuak honako hauek dira:

1. Lurralde-estrategiaren koherentzia indartzea lurralde osoan, udalerrietan zein Eremu Funtzionaletan.
2. Herritarrek eremu mugakide horiek aukera-eremutzat har ditzaten sustatzea, pertzepzio positiboa izan dezaten.
3. Eremu Funtzionalei eta udalerri mugakideei modu berean eragiten dieten gatazkak konpontzeko edo aukerak gauzatzeko lurralde-eskala egokia identifikatzea.
4. Eremu Funtzionalen lurralde-plangintza eta udal-plangintza koordinatzea, ahal dela udalerri mugakideen Plan Orokorren xedapenak modu integratuan pentsatuta daudela, eta dagokien errealitate funtzional eta morfologikoarekin uztartuta.
5. Bateragarri egiteko sistema alternatibo berriak txertatzea udalaz gaindiko kudeaketa-eremuak zehaztu ahal izateko, eta hirigintza-antolamendurako zehaztapenak ere zehaztea, udalaz gaindiko egiturazko jardunak ahalbidetu eta koordinatu edo harmonizatu ahal izan daitezen, lurraldearen orekan eragina izango duen eredu jakin bat ezarri eta erabilerak zehazteko.

II. OBJETIVOS

Los objetivos que se proponen en materia de compatibilización de planeamientos son los siguientes:

1. Fortalecer la coherencia de la estrategia territorial en el conjunto del territorio, tanto al nivel municipal, como al nivel de Áreas Funcionales.
2. Promover la percepción positiva de la ciudadanía ante estos ámbitos limítrofes como ámbitos de oportunidad.
3. Identificar la escala territorial apropiada para la resolución de los problemas o para la materialización de oportunidades que afectan conjuntamente a Áreas Funcionales y municipios colindantes.
4. Coordinar el planeamiento territorial de las Áreas Funcionales y el planeamiento municipal, procurando que las determinaciones de los Planes Generales de municipios colindantes estén concebidas de forma integrada y en correspondencia con la realidad funcional y morfológica a la que se refieren.
5. Incorporar nuevos sistemas alternativos de compatibilización que permitan delimitar ámbitos de gestión supramunicipal, con establecimiento de determinaciones para su ordenación urbanística a efectos de posibilitar y coordinar o armonizar actuaciones estructurales de interés supramunicipal, para imponer un determinado modelo y para la fijación de usos con incidencia en el equilibrio del territorio.

III. LURRALDE-GIDALERROAK

Plangintzak bateragarri egitearen arloan proposatzen diren lurralde-gidalerroak Aplikatzeko arauen 14. artikuluan jasotzen dira.

III. DIRECTRICES TERRITORIALES

Las directrices territoriales que se proponen en materia de compatibilización de planeamientos son las contenidas en el artículo 14 de las Normas de Aplicación.

7

Paisaia, Kultura- eta Natura-ondarea, eta Baliabide Turistikoak

Paisaje, Patrimonio Cultural y Natural, y Recursos Turísticos

Paisaia	**7.1.**	Paisaje
Kultura-ondarea	**7.2.**	Patrimonio cultural
Natura-ondarea	**7.3.**	Patrimonio natural
Baliabide turistikoak	**7.4.**	Recursos turísticos

Kultura ekonomia, gizarte eta ingurumen dimentsioak zeharkatzen dituen zeharkako haria da.

La cultura es un hilo transversal que atraviesa las dimensiones económicas, sociales y ambientales.

Paisaia eta kultura- eta natura-ondarea bereizi ezinezko bi kontzeptu dira.

Kultura ekonomia, gizarte eta ingurumen dimentsioak zeharkatzen dituen zeharkako haria da. Nortasunaren, adierazpenaren, oroimenaren, sormenaren eta elkarreraginaren iturria den heinean, kulturak pertsonak jartzen ditu lurralde- eta hiri-garapenaren erdian, eta interesdun guztiak iraunkortasunaren bidera eramaten ditu.

2015eko irailean, garapen iraunkorrerako 2030 Agenda ezarri ondoren, UNESCOren kulturarako eta hiri-garapen iraunkorrerako ekimena jarri zen abian, eta horrela lehen aldiz ziurtatu da kulturaren balio erantsiaren onespena, mundu osoan aplikatzekoak diren garapen-helburuen esparruaren barruan. Kulturak, bere dimentsio guztietan, kultura-ondarearekin hasi eta sormenarekin buka, harreman estua dauka garapen iraunkorraren helburuekin, eta ildo horretan aipatzekoa da hiriak eta giza kokalekuak inklusiboak, erresilienteak eta iraunkorrak izan daitezen lortzeko helburuan betetzen duen zeregina.

El paisaje y el patrimonio cultural y natural son dos conceptos indisociables.

La cultura es un hilo transversal que atraviesa las dimensiones económicas, sociales y ambientales. Como fuente de identidad, expresión, memoria, creatividad e interacción, la cultura sitúa a las personas en el corazón del desarrollo territorial y urbano, y guía a las partes interesadas hacia un camino de sostenibilidad.

La iniciativa de la UNESCO para la cultura y el desarrollo urbano sostenible puesta en marcha tras la adopción en septiembre de 2015 de la Agenda 2030 para el desarrollo sostenible, asegura por primera vez el reconocimiento del valor añadido de la cultura dentro del marco de objetivos de desarrollo universalmente aplicables. La cultura en todas sus dimensiones, desde el patrimonio cultural hasta la creatividad está estrechamente vinculada a los objetivos de desarrollo sostenible, y en este sentido cabe reseñar su papel en el objetivo de lograr que las ciudades y asentamientos humanos sean inclusivos, resilientes y sostenibles.

Paisaia gizartearen espazio-adierazpena da.

El paisaje es la expresión espacial de la sociedad.

Bestalde, paisaia gizartearen espazio adierazpena da. Europako Kontseiluaren Paisaiaren Europako Hitzarmenak nabarmentzen du paisaiak interes orokorreko rola betetzen duela kulturaren, ekologiaren, ingurumenaren eta gizartearen ikuspegitik, baita ekonomiaren ikuspegitik ere, eta honela definitzen du: “lurraldearen edozein zati, biztanleriak hautematen duen moduan, zeinaren izaera natur edota giza faktoreen ekintzaren eta elkarreraginaren emaitza baita”.

Por su parte, el paisaje es la expresión espacial de la sociedad. El Convenio Europeo del Paisaje del Consejo de Europa destaca que el paisaje desempeña un papel de interés general desde el punto de vista cultural, ecológico, medioambiental y social, incluso económico, definiéndolo como “cualquier parte del territorio tal y como es percibido por la población, cuyo carácter es el resultado de la acción y la interacción de factores naturales y/o humanos”.

Europar Batasuneko Florentziako Hitzarmenaren arabera, paisaia honela definitzen da: “lurraldearen edozein zati, biztanleriak hautematen duen moduan, zeinaren izaera natur edota giza faktoreen ekintzaren eta elkarreraginaren emaitza baita”.

Se define Paisaje de acuerdo con el Convenio de Florencia de la Unión Europea como “cualquier parte del territorio tal y como es percibido por la población, cuyo carácter es el resultado de la acción y la interacción de factores naturales y/o humanos”.

Baliabide turistikoen garapenak egungo baliabideak babestu beharko ditu etorkizuneko belaunaldientzat, gure ondarearen babesa eta osotasuna ziurtatuz.

Kontzeptu horien arteko koherentzia eta interrelazioa indartzeko, paisaia, kultura- eta natura-ondarea, eta baliabide turistikoak kapitulu berean bildu dira.

Por su parte, el desarrollo de los recursos turísticos deberá preservar los recursos actuales de cara a las generaciones futuras, asegurando la protección e integridad de nuestro patrimonio.

En aras a reforzar la coherencia y la estrecha interrelación entre estos conceptos, se recogen en un mismo capítulo el paisaje, el patrimonio cultural y natural, y los recursos turísticos.

7.1. Paisaia

7.1. Paisaje

Paisaiak erreferentzia izan behar du lurraldearen antolamenduan, eta modu integralean hartu behar da kontuan, paisaia bikainak zein egunerokoak aintzat hartuz, hauskorrenak babesteko eta degradatuak lehengoratzeko neurriekin.

El paisaje debe ser una referencia en la ordenación del territorio, y ha de tenerse en cuenta de manera integral, considerando tanto los paisajes sublimes como los cotidianos, con medidas de protección de los más frágiles y restauración de los degradados.



Soraluze-Placencia de las Armas

I. GAIA ZERTAN DEN

EAEko paisaia oso aberatsa eta askotarikoa da, eta ingurumenaren, kulturaren, gizartearen, historiaren eta ekonomiaren ikuspegitik begiratuta, guztion intereseko ondare eta baliabidetzat hartzen da.

Paisaiak lurralde-antolamenduari nahitaez zeharka landu beharreko ikuspegia ematen dio. Hala ere, kapitulu berean jasotzen diren gainerako zeharkako edukiekin ez bezala, paisaiak berezko garrantzia hartu duela uste da, eta horregatik, kapitulu espezifiko bat behar du lurralde-ereduaren barruan.

Giza esku-hartzeak asko baldintzatzen du paisaia; izan ere, giza jardueren bitartez edertasun paregabeko paisaiak ez ezik, paisaia degradatuak ere sor baitaitezke. Paisaia bizi-kalitate eta ongizate indibidual eta kolektiborako funtsezko elementua da, eta aldi berean, lurraldearen nortasuna eratzen ere laguntzen du. 1997ko Lurralde Antolamenduaren

I. ESTADO DE LA CUESTIÓN

La CAPV goza de una gran riqueza y diversidad paisajística que constituye un recurso y un patrimonio común de interés general desde el punto de vista ambiental, cultural, social, histórico y económico.

El paisaje aporta a la ordenación del territorio un enfoque que ha de ser trabajado necesariamente de manera transversal. Sin embargo, a diferencia de lo que ocurre con los demás contenidos transversales que se recogen en un mismo capítulo, se ha considerado que el paisaje ha adquirido un peso propio que requiere de un capítulo específico dentro del modelo territorial.

El paisaje está muy condicionado por la intervención humana, que con sus actuaciones puede generar tanto paisajes de singular belleza como paisajes degradados, y es un elemento esencial del bienestar y calidad de vida individual y colectiva, contribuyendo al mismo tiempo a conformar la identidad del territorio. Las Directrices de Ordenación

Paisaiak lurralde-antolamenduari nahitaez zeharka landu beharreko ikuspegia ematen dio.

El paisaje aporta a la ordenación del territorio un enfoque que ha de ser trabajado necesariamente de manera transversal.

Gidalerroek ezarri zuten paisaia-balioen kontserbazioa bermatu beharra zegoela, lurraldea antolatzeko tresnen irizpide eta helburuetako bat den heinean. Hori horrela izanik, paisaiaren aldetik tratamendu berezia izan behar duten ikuspen-eremuak katalogatzeko beharra adierazi zuten, eta paisaiaren modelatzea hausten duen obra edo jarduketa ororekin batera paisaia-azterketa bat aurkeztu behar dela. Ezarri zen, halaber, lurralde- eta hirigintza-plangintzak bazterretako guneen tratamendua aztertuko duela.

Territorial de 1997 ya establecieron la garantía de la conservación de los valores paisajísticos como uno de los criterios y objetivos de los instrumentos de ordenación territorial. Así, señalaban la necesidad de catalogar aquellas zonas visuales que deben tener un tratamiento paisajístico especial y que toda obra o actuación que rompiera el modelado de paisaje se acompañara del correspondiente estudio paisajístico. Establecían también que el planeamiento territorial y urbanístico estudiarán el tratamiento de espacios marginales.



Sakoneta. Deba

Paisaia funtsezkoa da pertsonen bizi-kalitatean, bai hiriguneetan bai landaguneetan, bai eremu degradatuetan bai kalitate hobea dutenetan.

El paisaje es un elemento clave en la calidad de vida de las personas, tanto en medios urbanos como rurales, y tanto en las zonas degradadas como en las de mayor calidad.

Paisaiaren Europako Hitzarmenak, Florentziako Hitzarmena ere esaten zaionak, honela definitzen du paisaia: "lurraldearen edozein zati, biztanleriak hautematen duen moduan, zeinaren izaera natur edota giza faktoreen ekintzaren eta elkarreraginaren emaitza baita", eta nabarmentzen du, batetik, paisaia funtsezkoa dela pertsonen bizi-kalitatean, bai hiriguneetan bai landaguneetan, bai eremu degradatuetan bai kalitate hobea dutenetan, eta, bestetik, paisaiak interes orokorreko rola betetzen duela kulturaren, ekologiaren, ingurumenaren eta gizartearen ikuspegitik, baita ekonomiaren ikuspegitik ere, paisaiaren babesak, kudeaketak eta antolamenduak enplegua sortzeko aukerak ekar ditzakeelako berekin.

El Convenio Europeo del Paisaje, conocido también como Convenio de Florencia, define el paisaje como "cualquier parte del territorio tal como la percibe la población, cuyo carácter sea el resultado de la acción y la interacción de factores naturales y/o humanos" y destaca, por un lado, que el paisaje es un elemento clave en la calidad de vida de las personas, tanto en medios urbanos como rurales, y tanto en las zonas degradadas como en las de mayor calidad, y, por otro lado, que desempeña un papel de interés general desde el punto de vista cultural, ecológico, medioambiental y social, así como económico, ya que de su protección, gestión y ordenación pueden surgir oportunidades de creación de empleo.

Azken batean, Florentziako Hitzarmenaren xedea paisaiaren babesa, kudeaketa eta antolamendua sustatzea bera da, eta, horretarako, zenbait neurri biltzen ditu. Neurri horiek, lurralde-antolamenduari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren bidez sartu ziren gure ordenamendu juridikoan.

Paisaia lurralde- eta hirigintza-plangintzaren arretagunea da ingurumen-ebaluazio estrategikoko azterlanen bitartez, baina nolanahi ere, 90/2014 Dekretuaren xede bakarra mekanismo normalizatuak finkatzea da, arau-aurreikuspenak betetzeko eta paisaia lurralde-antolamenduan integratzeko. Horretarako, paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko bitartekoak identifikatzen ditu, hala nola Paisaiaren Katalogoak, Paisaiaren Zehaztapenak, Paisaiaren Ekintza Planak eta Paisaia Integratzeko Azterlanak, eta trebakuntza-, sentsibilizazio- eta laguntza- neurriak.

En definitiva, el objeto del Convenio de Florencia no es otro que el de promover la protección, la gestión y la ordenación del paisaje y para ello recoge una serie de medidas que, en lo que al ámbito de la ordenación del territorio se refiere, fueron incorporadas a nuestro ordenamiento jurídico a través del Decreto 90/2014, de 3 de junio, sobre protección, gestión y ordenación del paisaje en la ordenación del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Si bien el paisaje viene siendo objeto de atención en el planeamiento territorial y urbanístico a través de los estudios de evaluación ambiental estratégica, el objeto del citado Decreto 90/2014, no es otro que el de fijar los mecanismos normalizados para dar cumplimiento a las previsiones normativas e integrar el paisaje en la ordenación territorial. Para ello identifica los instrumentos para la protección, gestión y ordenación del paisaje, como son los Catálogos de Paisaje, las Determinaciones de Paisaje, los Planes de Acción del Paisaje, los Estudios de Integración Paisajística y las medidas de formación, sensibilización y apoyo.

90/2014 Dekretuak, paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko tresnak identifikatzen ditu, hala nola Paisaiaren Katalogoak, Paisaiaren Zehaztapenak, Paisaiaren Ekintza Planak eta Paisaian Integratzeko Azterlanak.

El Decreto 90/2014 identifica los instrumentos para la protección, gestión y ordenación del paisaje, como son los Catálogos de Paisaje, las Determinaciones de Paisaje, los Planes de Acción del Paisaje y los Estudios de Integración Paisajística.



Elantxobe

Hortaz, 1997an lehen LAGak ezarri zirenetik paisaiaren araudiak eta kontzeptuak izan duten bilakaeran oinarrituta, Gidalerroen eredu berrikusiak paisaiaren alorreko lurralde-helburuak eta -orientabideak eguneratzen ditu, eremu horretan dauden erronkei erantzuteko.

Así pues, sobre la base de la evolución normativa y conceptual del paisaje desde la adopción de las primeras DOT en 1997, el modelo revisado de las Directrices actualiza los objetivos y las orientaciones territoriales en materia de paisaje para dar respuesta a los retos existentes en este ámbito.

II. HELBURUAK

Paisaiaren arloan proposatzen diren lurralde-ereduaren berrikuspenaren helburuak honako hauek dira:

1. Lurralde- eta hirigintza-plangintzako bitartekoak lantzean eta garatzean paisaia txertatzea..
2. Paisaia ikuspegi integral batetik begiratuta balioestea, landa- eta hiri-paisaiak aintzat hartuta, bai kalitate handikoak, bai degradatuak, baita lurpekoak ere.
3. Herritarren parte-hartze prozesua sustatzea, nola paisaia balioestean, hala paisaia-kalitatearen helburuak zehaztean zein ondare-elementu esanguratsuenak identifikatzean, hain zuzen ere, kolektibo sozial bakoitzaren ustetan, paisaia horiek oroimenezko toki bihurtzen dituzten elementuak.
4. Paisaiari balioa ematea, kalitatezko faktore den aldetik, gizartearen, kulturaren, ekonomiaren eta ongizatearen ikuspegitik begiratuta.
5. Mota guztietako paisaia-inpaktuak (ikusmenari, entzumenari edo usaimenari kalte egiten diotenak) saihestea eta lurraldean garatzen diren elementu eta jarduerak integratzea, batik bat azpiegiturak eta jarduera ekonomikoko eremuak.
6. Energia berriztagarrien garapena eta ezarpena paisaia-ondarea zaintzearekinbateragarri egiten lagunduko duten azterlan, ekintza eta neurriak sakonago lantzea.

II. OBJETIVOS

Los objetivos de la revisión del modelo territorial que se proponen en materia de paisaje son los siguientes:

1. Integrar el paisaje en la elaboración y desarrollo de los instrumentos de planificación territorial y urbanística.
2. Valorar el paisaje desde un punto de vista integral, teniendo en cuenta los paisajes rurales y urbanos, tanto los de gran calidad como los degradados, así como los subterráneos.
3. Promover la participación ciudadana tanto en la valoración del paisaje, como en la definición de los objetivos de calidad paisajística y en la identificación de los elementos patrimoniales que caracterizan esos paisajes como lugares de memoria para cada colectivo social.
4. Poner en valor el paisaje como un factor de calidad desde el punto de vista social, cultural, económico y de bienestar.
5. Evitar los impactos paisajísticos negativos de todo tipo (visuales, sonoros u olfativos) e integrar los elementos y actividades que se desarrollan en el territorio, especialmente las infraestructuras y las áreas de actividad económica.
6. Profundizar en los estudios, acciones y medidas que contribuyan a la máxima compatibilización del desarrollo e implantación de las energías renovables con la preservación del patrimonio paisajístico.

III. LURRALDE-GIDALERROAK

Paisaiaren arloan proposatzen diren lurralde-gidalerroak Aplikatzeko arauen 21. artikuluan jasotzen dira.

III. DIRECTRICES TERRITORIALES

Las directrices territoriales que se proponen en materia de paisaje son las contenidas en el artículo 21 de las Normas de Aplicación.

7.2. Kultura-ondarea

7.2. Patrimonio cultural

Kultura-ondarearen antolamenduak inplikatutako araudi sektorialen arteko koordinazioa eta lankidetza sustatu behar du, ondare hori kontserbatzeko eta balioan jartzeko premiei erantzunez, lurralde- eta hirigintza-eskala desberdinetara egokitutako ikuspegi integral bati jarraikiz.

La ordenación del patrimonio cultural debe fomentar la coordinación y cooperación entre las normativas sectoriales implicadas, atendiendo a las necesidades de conservación y puesta en valor del mismo, con un enfoque integral adaptado a las diferentes escalas territoriales y urbanísticas.



Elvillar / Bilar

I. GAIA ZERTAN DEN

Azken hamarkadetako kontzeptuzko bilakaerak kultura-ondarearen nozio zabala eta integrala ekarri du berekin, 1997ko LAGak arautu zirenean nagusi zen monumentu-ikuspegia, murritzagoa eta banako ondasunetan soilik oinarritua, nabarmen gainditzen duena.

Gaur egun, kultura-ondarea aktibo gisa ulertzen da, herrien nortasuna indartzeko, haien bizi-kalitatea hobetzeko, gizarte-kohesioa sendotzeko, jarduera ekonomikoa dibertsifikatzeko eta garapen iraunkorreko eredu integral batean aurrera egiteko lagungarria.

Kultura-ondarearen gaur egungo begirada zabaldu egin da, eta haren adierazpen materialak, higiezinak eta higigarriak aintzat hartzen ditu. materialak, Munduko Kultura eta Natura Ondarea Babesteko UNESCOren 1972ko Konbentzioan onetsi ziren moduan, eta immaterialak, berriz, 2003an UNESCOk Kultura Ondare Immateriala Babesteko Konbentzioaren esparruan onetsi zituen moduan. Azken horiek honako eremu hauetan nabarmentzen dira bereziki: Ahozko tradizio eta adierazpenak;

I. ESTADO DE LA CUESTIÓN

La evolución conceptual experimentada en las últimas décadas ha derivado en una noción de patrimonio cultural amplia e integral que supera notablemente la visión monumental, más restringida, basada en bienes individualizados, que era predominante en el momento en el que se regularon las DOT del año 1997.

En la actualidad, el patrimonio cultural se concibe como un activo que contribuye a fortalecer la identidad de los pueblos, mejorar la calidad de vida, fortalecer la cohesión social, diversificar la actividad económica y avanzar en un modelo integral de desarrollo sostenible.

La mirada contemporánea sobre el patrimonio cultural se ha ampliado y abarca tanto sus manifestaciones materiales, inmuebles y muebles, tal como fueron reconocidas en la Convención de 1972 de la UNESCO para la Protección del Patrimonio Mundial Cultural y Natural, como sus manifestaciones inmateriales, reconocidas más recientemente por la UNESCO en la Convención de 2003 para la Salvaguardia del Patrimonio Cultural Inmaterial que se manifiesta en particular en los ámbitos

Kultura-ondarea aktibo gisa ulertzen da, herrien nortasuna indartzeko, haien bizi-kalitatea hobetzeko, gizarte-kohesioa sendotzeko, jarduera ekonomikoa dibertsifikatzeko eta garapen iraunkorreko eredu integral batean aurrera egiteko lagungarria.

El patrimonio cultural se concibe como un activo que contribuye a fortalecer la identidad de los pueblos, mejorar la calidad de vida, fortalecer la cohesión social, diversificar la actividad económica y avanzar en un modelo integral de desarrollo sostenible.



Leintz-Gatzaga

hizkuntza; toponimia lurraldeen izendapen geografikoa zehazteko tresna gisa; ikuskizunen arteak; ekitaldi sozialak; naturarekin eta unibertsoarekin lotutako jakintza eta erabilerak; artisau-teknika tradizionalak; gastronomia; gizarteratzeko moduak, soinu-adierazpenak, musika eta dantza tradizionala.

Kultura-ondare horrek, gure herrialdeko hirigune eta landaguneekin elkarrizketan, askotariko kultura-paisaia biziak konfiguratzen ditu, etengabe bilakatzen ari direnak eta, kasu askotan, berroneratzeko prozesuen premia dutenak, non soluzio eta bide berritzaileak indartzen diren euskal kultura-ondarea aldaketa horietan integratuz, betiere ondare-balio ordezkaezin jakin batzuen osotasuna bermatuz, bereziki hiri-eremuan baliabide mugatuak eta berriztaezinak diren heinean. Paisaia- eta lurralde-mailan kultura-ondasunen kudeaketa eta integrazio harmonikoa errazteko, komenigarria litzateke moteltze-eremuak zehaztea, ondasunaren eta haren inguruneren arteko erlazioa islatzeko premiari jarraikiz.. Gainera, Lurralde Plan Partzialetan garatu beharreko Paisaia Multzo Industrialak zehazteko eta haietan esku hartzeko ekimenek kontuan hartuko dute, hala badagokio, kultura-ondasun gisa babestu beharrezko elementurik dagoen eta "in situ" mantendu behar diren.

Lurralde- eta hirigintza-adierazleen sistema abiarazteko aukera ere izango da, hiri historikoak kontserbatzeko adierazleak diseinatuz. Adierazle-

siguientes: Tradiciones y expresiones orales; idioma; toponimia como instrumento para la concreción de la denominación geográfica de los territorios; artes del espectáculo; actos sociales; conocimientos y usos relacionados con la naturaleza y el universo; técnicas artesanales tradicionales; gastronomía; formas de socialización; manifestaciones sonoras, música y danza tradicional.

Este patrimonio cultural dialoga con las zonas urbanas y rurales de nuestro país, configurando unos paisajes culturales diversos y vivos que están en permanente evolución y que requieren, en muchos casos, de procesos de regeneración en los que se potencien soluciones y vías innovadoras que integren el patrimonio cultural vasco en esos cambios garantizando, en todo caso, la integridad de los valores patrimoniales irremplazables de los que son portadores como recurso finito y no renovable especialmente en el ámbito urbano. Para facilitar la gestión e integración armónica de los bienes culturales a nivel paisajístico y territorial sería conveniente definir zonas de amortiguación, en la necesidad de reflejar la relación del bien y su entorno. Así mismo, las iniciativas de definición e intervención en Conjuntos Paisajísticos Industriales a desarrollar por los Planes Territoriales Parciales, tendrán en cuenta, en su caso, la posible existencia de elementos dignos de ser protegidos como bienes Culturales y su mantenimiento "in situ".

Igualmente se podrá implementar el sistema de indicadores territoriales y urbanísticos con el diseño de indicadores para la conservación de ciudades



Gesaltza Añana / Salinas de Añana

sistema malgua da, testuinguru bakoitzera egokitzeko gauza, gune horien jarraipena, kontrola eta aurreikuspena ahalbidetzeko modukoa. Ildo horretan, gaur egungo arkitekturak hiri historikoan lehendik dauden tipologietan eragiten duen inpaktuaren adierazleak zerikusia izan behar du, batetik, parametro fisiko eta morfologikoekin (erabilitako materialak, bolumetria, altuerak, fatxada-lerrokadurak eta abar), eta, bestetik, beste balio ukiezin batzuekin.

Globalizazioaren eta informazio-gizartearen eraginez, eraldaketa sozioekonomiko eta kulturetako asko bizkortu dira, eta oraindik goiz da horren guztiaren ondorioak beren osotasunean hautemateko. Ildo horretan, kontserbazioaren eta aldaketaren arteko oreka zaila kontu handiz arautu eta interpretatu behar da, areago kontuan hartzen badugu kultura-ondarea gero eta baliabide garrantzitsuagoa dela, gaur egungo lurralde-lehiakortasunaren testuinguruan balio diferentziala ekartzen duen neurrian.

Kultura-ondarea zeharka balioetsi eta kudeatu behar da, lurralde-antolamendu integrala guztiz ahalbidetuko duten gobernantza-ereduen bitartez. Helburu hori lortzeko ezinbestekoa da administrazio publikoen eta gizarte-eragileen artean koordinazio eta lankidetza eraginkorra ezartzea.

históricas. Se trata de un sistema de indicadores flexible, capaz de adaptarse a cada contexto de forma que pueda efectuarse un seguimiento, control y predicción de estos espacios. En este sentido, el impacto de la arquitectura contemporánea con respecto a las tipologías existentes en la ciudad histórica debe ser un indicador referido tanto a parámetros físicos y morfológicos (materiales empleados, volumetría, alturas, alineaciones de fachada etc.) como a otros valores de naturaleza intangible.

La globalización y la sociedad de la información han originado que gran parte de las transformaciones socioeconómicas y culturales se aceleren, con unas repercusiones que aún no somos capaces de advertir en su totalidad. En este sentido, el complejo equilibrio entre conservación y cambio debe ser cuidadosamente regulado e interpretado, máxime teniendo en cuenta que el patrimonio cultural constituye un recurso cada vez más importante que aporta valor diferencial en el contexto de competitividad territorial propia de la contemporaneidad.

El patrimonio cultural deber ser valorado y gestionado de manera transversal mediante modelos de gobernanza que permitan una ordenación territorial realmente integral. Se considera necesario establecer una coordinación y cooperación efectiva entre las administraciones públicas y los agentes sociales para alcanzar tal fin.

Ildo horretan, kontserbazioaren eta aldaketaren arteko oreka zaila kontu handiz arautu eta interpretatu behar da, areago kontuan hartzen badugu kultura-ondarea gero eta baliabide garrantzitsuagoa dela, gaur egungo lurralde-lehiakortasunaren testuinguruan balio diferentziala ekartzen duen neurrian.

El complejo equilibrio entre conservación y cambio debe ser cuidadosamente regulado e interpretado, máxime teniendo en cuenta que el patrimonio cultural constituye un recurso cada vez más importante que aporta valor diferencial en el contexto de competitividad territorial propia de la contemporaneidad.



Kortezubi

II.
HELBURUAK

Kultura-ondarearen arloan proposatzen diren lurralde-ereduaren berrikuspenaren helburuak honako hauek dira:

1. Euskal kultura-ondarea modu integralean txertatzea EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak artikulatzeko erreferentzietako bat den heinean.

2. Euskal kultura-ondarea aktibo bat bihurtzea, garapen-eredu sozioekonomiko iraunkorrarekin eta gure herrialdeko hiri- eta landa-berroneratzeko prozesuekin bateragarria, horretarako beharrezkoak diren tresnak ezarriz.

3. Gizarte zibilak euskal kultura-ondare materialaren eta immaterialaren kontserbazioan parte har dezan sustatzea.

II.
OBJETIVOS

Los objetivos de la revisión del modelo territorial que se proponen en materia de patrimonio cultural son los siguientes:

1. Incorporar de manera integral el patrimonio cultural vasco como uno de los referentes sobre los que articular las Directrices de Ordenación Territorial de la CAPV.

2. Hacer del patrimonio cultural vasco un activo compatible con el modelo de desarrollo socioeconómico sostenible y con los procesos de regeneración urbana y rural de nuestro país, estableciendo las herramientas necesarias para ello.

3. Incentivar la participación de la sociedad civil en la conservación del patrimonio cultural vasco material e inmaterial.

III.
LURRALDE-GIDALERROAK

Kultura-ondarearen arloan proposatzen diren lurralde-gidalerroak Aplikatzeko arauen 22. artikuluan jasotzen dira.

III.
DIRECTRICES TERRITORIALES

Las directrices territoriales que se proponen en materia de patrimonio cultural son las contenidas en el artículo 22 de las Normas de Aplicación.

7.3. Natura-ondarea

7.3. Patrimonio natural

Osagai biotikoak (biodibertsitatea) eta abiotikoak (geodibertsitatea) osatzen dute natura-ondarea. Bi osagaiek egun lurraldean dauden habitaten eta espezieen osaera sortzen dute. Bestetik, natura-ondareak zenbait ingurumen-ondasun eta -zerbitzu sortzen ditu gizakiontzat, gure ongizatea hobetzearen mesedetan.

El patrimonio natural está integrado tanto por la componente biótica (biodiversidad) como por la abiótica (geodiversidad). Ambas generan la composición actual de hábitats y especies presentes en el territorio. Por otra parte, el patrimonio natural genera al ser humano una serie de bienes y servicios ambientales, que constituyen una oportunidad para mejorar el bienestar de las personas.



Itzurun. Zumaia

I. GAIA ZERTAN DEN

Euskadi balio handiko natura-ondare baten jabe da, gizartearen ongizatearen eta bizi-kalitatearen euskarria ere badena. Gure lurraldean 2.500 espezie desberdinetik gora bizi dira, eta, Europar Batasuneko lurraldearen % 1 izanik, Euskadik Europako intereseko habitaten % 35 inguru hartzen du gutxi gorabehera, fauna-espezieen habitaten % 21 eta flora-espezieen habitaten % 2.

Ekosistemak, hala nola lur emankorrak, itsaso produktiboak eta kontsumorako ura, oinarrizkoak dira, pertsonek behar-beharrezkoak dituzten ondasun eta zerbitzuak hornitzen dituzten neurrian. Hala, Ingurune Fisikoari eta Azpiegitura Berdeari buruzko kapituluan jaso denez, pertsonek ekosistemetatik lortzen dituzten onurak oinarrizko hiru motatan sailkatzen dira:

– Hornidura-zerbitzuak: giza ongizaterako ekarpen zuzenak, ekosistemen egitura biotikotik edo geotikotik datozenak, hala nola janariak, edateko ura, zura eta abar.

I. ESTADO DE LA CUESTIÓN

Euskadi posee un patrimonio natural de alto valor que supone el sustento del bienestar y calidad de vida de la sociedad. En nuestro territorio encontramos más de 2.500 especies diferentes, y, con un 1% del territorio de la Unión Europea, Euskadi alberga aproximadamente el 35% del número de los hábitats de interés europeo, el 21% de los de especies de fauna y el 2% de las de flora.

Los ecosistemas son la base del suministro de bienes y servicios esenciales como los suelos fértiles, los mares productivos y el agua para el consumo de los que dependen las personas. Así, tal y como se recoge en el capítulo relativo al Medio Físico y a la Infraestructura Verde, en general se consideran tres tipos esenciales de beneficios que las personas obtienen de los ecosistemas:

– Servicios de abastecimiento: contribuciones directas al bienestar humano provenientes de la estructura biótica o geótica de los ecosistemas; por ejemplo, los alimentos, el agua potable, la madera, etc.

Europar Batasuneko lurraldearen % 1 izanik, Europako intereseko habitaten % 35 hartzen du Euskadik, gutxi gorabehera, fauna espezieen habitaten % 21 eta flora espezieen habitaten % 2.

Con un 1% del territorio de la Unión Europea, Euskadi alberga aproximadamente el 35% del número de los hábitats de interés europeo, el 21% de los de especies de fauna y el 2% de las de flora.



Urdaibai

– Erregulazio-zerbitzuak: giza ongizaterako zeharkako ekarpenak, ekosistemen funtzionamenduaren haritik datozenak, esaterako karbonoa biltegiratzea, klima-erregulazioa, erregulazio hidrikoa, higaduraren kontrola eta abar.

– Kultura-zerbitzuak: pertsonek ekosistemetako esperientzietatik lortzen dituzten ekarpen ez-materialak, hala nola jolas-jarduerak, gozamen estetikoa, kultura-nortasuna, jakintza tradizionala eta abar.

Nazioartean, "Dibertsitate Biologikorako 2011-2020 Plan Estrategikoa - Aichiren xedeak" eta "Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda" dira natura-ondarearen erreferentziazko dokumentuak. Azken hori 2015ean onartu zen, eta bere 17 helburuen artean 13. helburua dauka; hona hemen: "Premiazko neurriak hartzea Klima-aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko", 14. helburua: "Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak modu iraunkorrean kontserbatzea eta erabiltzea garapen iraunkorrerako", eta 15. helburua: "Lurreko ekosistemen erabilera iraunkorra sustatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa geldiarazi eta inbertitzea, eta aniztasun biologikoaren galera geldiaraztea"

Europar Batasunean, 2020rako Biodibertsitateari buruzko Estrategiak honako ikuspegi hau dauka: "2050ean, Europar Batasunaren biodibertsitatea eta hark ematen dituen zerbitzu ekosistemikoak (haren natura-ondarea) ongi babestuta, balioetsita eta lehengoratuta egongo dira, biodibertsitatearen berezko balioa eta giza ongizateari eta oparotasun ekonomikoari egiten dion funtsezko ekarpena aintzat hartuta, eta, horrela, biodibertsitatearen galerak berekin dakartzan aldaketa katastrofikoak saihestuko dira". 2020rako biodibertsitatearen galera eta zerbitzu ekosistemikoen degradazioa gelditzea eta zerbitzu horiek ahal den neurrian lehengoratzea

– Servicios de regulación: contribuciones indirectas al bienestar humano provenientes del funcionamiento de los ecosistemas; por ejemplo, el almacenamiento de carbono, la regulación climática, la regulación hídrica, el control de la erosión, etc.

– Servicios culturales: contribuciones no materiales que las personas obtienen de las experiencias en los ecosistemas; por ejemplo, las actividades recreativas, el disfrute estético, la identidad cultural, el conocimiento tradicional, etc.

A nivel internacional, los documentos de referencia en patrimonio natural son el "Plan Estratégico para la Diversidad Biológica 2011-2020 - Metas de Aichi" y la "Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible". Esta última aprobada en 2015 y que incluye entre sus 17 Objetivos el número 13: "Adoptar medidas urgentes para combatir el cambio climático y sus efectos", el objetivo 14: "Conservar y utilizar en forma sostenible los océanos, los mares y los recursos marinos para el desarrollo sostenible", y el objetivo 15: "Promover el uso sostenible de los ecosistemas terrestres, luchar contra la desertificación, detener e invertir la degradación de las tierras y frenar la pérdida de la diversidad biológica".

A nivel de la Unión Europea, la Estrategia sobre la Biodiversidad para 2020 recoge como visión "En 2050, la biodiversidad de la Unión Europea y los servicios ecosistémicos que presta (su patrimonio natural) estarán protegidos, valorados y restaurados debidamente, dado el valor intrínseco de la biodiversidad y su contribución esencial al bienestar humano y a la prosperidad económica, evitando así los catastróficos cambios ocasionados por la pérdida de biodiversidad". El objetivo principal es detener para 2020 la pérdida de biodiversidad y la degradación de los servicios ecosistémicos, y restaurarlos en la medida de lo posible, incrementando al mismo

da helburu nagusia, eta, aldi berean, Europar Batasunak munduko biodibertsitate-galeraren aurkako borrokan egiten duen ekarpena areagotzea.

Euskadin, honako hauek dira erreferentziazko esparruak alor horretan:

– 2030erako Biodibertsitate Estrategia

– 2020rako Geodibertsitate Estrategia

Biodibertsitate Estrategiaren ikuspegia natura-ingurunearen kontserbazio-egoera hobetzea da, haren narriadura geldituz eragile guztien erantzunkidetasunaren bitartez, eta, aldi berean, herritarrei eskatuz natura-inguruneak giza ongizateari dakarzkion zerbitzu ekosistemikoen aberastasuna balioesteko. Hori guztia funtsezkoa da etorkizuneko belaunaldiek lurralde erresiliente batean integratutako biodibertsitatea eduki dezaten.

Geodibertsitate Estrategiak 150 leku identifikatu ditu "EAEko Geologia Interesdun Lekuen Inbentarioan", eta azaleraren % 5 dira leku horiek. Inbentario irekia da, eta geodibertsitatearen garrantzia eta lekurik adierazgarrienak islatzen ditu.

Europan eta Euskadin natura-ondarea eta haren zerbitzu ekosistemikoak galtzea eta/edo hondatzea eragiten ari diren presio nagusiak honako hauek dira: lurzoruaren artifizializazioa eta lurralde-zatiketa, nekazaritzako eta basogintzako jardunbide desegoki batzuk eta arrantza, baldintza naturalen aldaketa, kutsadura, klima-aldaketa eta espezie exotiko inbaditzaileak.

tiempo la contribución de la Unión Europea a la lucha contra la pérdida de biodiversidad mundial.

En Euskadi los dos marcos de referencia en esta materia son:

– Estrategia de Biodiversidad 2030

– Estrategia de Geodiversidad 2020.

La Estrategia de Biodiversidad recoge como visión mejorar el estado de conservación del medio natural, frenando su deterioro a través de la corresponsabilidad de todos los agentes al mismo tiempo que la ciudadanía valora la riqueza de los servicios ecosistémicos que aporta el medio natural al bienestar humano. Todo ello es clave para legar a las generaciones futuras una biodiversidad integrada en un territorio resiliente.

La Estrategia de Geodiversidad ha identificado en el "Inventario de Lugares de Interés Geológico de la CAPV" 150 lugares que suponen el 5% de la superficie. Este es un inventario abierto que refleja la relevancia de la geodiversidad y qué lugares la representan mejor.

Las principales presiones que tanto en Europa como en Euskadi están provocando la pérdida y/o el deterioro del patrimonio natural y sus servicios ecosistémicos son la artificialización del suelo y la fragmentación territorial, algunas prácticas agroforestales inadecuadas y la pesca, la modificación de las condiciones naturales, la contaminación, el cambio climático y las especies exóticas invasoras.

Biodibertsitatearen galera eta zerbitzu ekosistemikoen degradazioa gelditzea eta zerbitzu horiek ahal den neurrian lehengoratzea da helburu nagusia.

El objetivo principal es detener la pérdida de biodiversidad y la degradación de los servicios ecosistémicos, y restaurarlos en la medida de lo posible.

Salburua. Vitoria-Gasteiz



II. HELBURUAK

Natura-ondarearen alorrean lurralde-eredua berrikusteko honako helburu hauek proposatzen ditugu:

1. EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan natura-ondarea modu integralean sartzea, ekosistemen eta bere osagarri guztien babesa sustatuz.

II. OBJETIVOS

Los objetivos de la revisión del modelo territorial que se proponen en materia de patrimonio natural son los siguientes:

1. Incorporar de manera integral el patrimonio natural en las Directrices de Ordenación Territorial de la CAPV promoviendo la protección de los ecosistemas y todos sus componentes.



Nerbioiko jauzia / Salto del Nervión. Delika. Amurrio

2. Euskal ondare naturala aktibo bat bihurtzea, garapen-eredu sozioekonomiko iraunkorrarekin bateragarri egitea eta aukera-tresna den heinean balioa ematea.

3. Hiri-biodibertsitatea sustatzea, bizi-kalitaterako eta herritarren osasuna hobetzeko elementu garrantzitsua den neurrian.

4. Erantzunkidetasuna eta natura-baliabideen erabilerak bateragarri egiteko aukera eta natura-ingurunearen kontserbazioa sustatzea.

2. Hacer del patrimonio natural vasco un activo compatible con el modelo de desarrollo socioeconómico sostenible y puesta en valor como instrumento de oportunidad.

3. Fomentar la biodiversidad urbana como elemento de calidad de vida y mejora de la salud de la población.

4. Fomentar la corresponsabilidad y compatibilización de usos de los recursos naturales y la conservación del medio natural.

III. LURRALDE-GIDALERROAK

Natura-ondarearen arloan proposatzen diren lurralde-gidalerroak Aplikatzeko arauen 23. artikuluan jasotzen dira.

III. DIRECTRICES TERRITORIALES

Las directrices territoriales que se proponen en materia de patrimonio natural son las contenidas en el artículo 23 de las Normas de Aplicación.

7.4. Baliabide turistikoak

7.4. Recursos turísticos

Natura- eta kultura-dibertsitatea da Euskadiko baliabide turistikoen ezaugarri nagusia, eta eredu bat zehaztu behar da baliabide horien garapena eta lurralde-iraunkortasuna bermatzeko, hau da, harrera-ahalmenarekin eta biztanleen bizi-kalitatearekin bateragarria den modu batean. Baliabide Turistikoen Antolamendurako Lurralde Plan Sektorial bat idatziko da..

Los recursos turísticos se caracterizan en Euskadi por su diversidad natural y cultural, precisando la definición de un modelo que garantice tanto su desarrollo, como la sostenibilidad territorial, es decir, de forma compatible con la capacidad de acogida y con la calidad de vida de los residentes. Se redactará un Plan Territorial Sectorial de Ordenación de los Recursos Turísticos.



Mutriku

I. GAIA ZERTAN DEN

Turismo iraunkorraren Mundu Gutunak dioenez, turismoa lehen mailako jarduera ekonomikoa da, eraginkortasunez, desparekotasuna murrizten eta gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzen lagundu behar duena. Gainera, turismoaren garapenak egungo baliabideak babestu beharko ditu etorkizuneko belaunaldientzat, gure ondarearen babesa eta osotasuna ziurtatuz.

LAGetan aurreikusten zenez, turismoak gero eta garrantzi handiagoa izango zuen EAEko ekonomiaren eta lurraldearen etorkizunean. Euskadiko lurralde-elementuak, natura-paisaiak eta hiri-paisaiak askotarikoak izaki, ingurune erakargarrien aukera handia dago. Gure lurraldean ingurumena eta paisaia hobetu dira, eta erakargarri naturalei eta hiri-erakargarriei balioa eman zaie; hartara, baliabide turistiko bihurtu dira. Helburua zera da, lurralde-bikaintasuna Euskal Autonomia Erkidegoaren nortasun-ezaugarrietako bat izatea, bizi-kalitatearen funtsezko faktore eta iraunkortasun-estrategiaren oinarrizko osagai, lurralde erakargarri eta askotarikoa eratzeko askotariko zerbitzuen eskaintza duela, kalitatezko ingurumen-ingurunea duela eta hiri-espazio bereziak ere badituela.

Erakargarritasuna eta turismo-kontsumoa ekar dezaketen ondasunez gain, turismo-ostatuko

I. ESTADO DE LA CUESTIÓN

Tal como recoge la Carta Mundial del Turismo Sostenible, el turismo es una actividad económica de primer orden, que debe contribuir eficazmente a reducir la desigualdad y promover sociedades pacíficas e inclusivas. Su desarrollo deberá preservar además los recursos actuales de cara a las generaciones futuras, asegurando la protección y la integridad de nuestro patrimonio.

Las DOT preveían que el turismo tendría un protagonismo creciente en el futuro de la economía y del territorio vasco. La diversidad de los elementos territoriales de Euskadi, paisajes naturales y urbanos conforman una variedad de ambientes atractivos. La mejora ambiental y paisajística de nuestro territorio y la puesta en valor de sus atractivos naturales y urbanos representan recursos turísticos. El objetivo es hacer de la excelencia territorial una de las señas de identidad del País Vasco, un factor esencial de calidad de vida y un componente básico de su estrategia de sostenibilidad; configurando un territorio atractivo y diverso, dotado de una oferta de servicios variada, en un entorno ambiental de calidad y de espacios urbanos singulares.

Además de los bienes que pueden generar atracción y consumo turístico, forman parte de los recursos

Helburua zera da, lurralde-bikaintasuna Euskal Autonomia Erkidegoaren nortasun-ezaugarrietako bat izatea, bizi-kalitatearen funtsezko faktore eta iraunkortasun-estrategiaren oinarrizko osagaia.

El objetivo es hacer de la excelencia territorial una de las señas de identidad del País Vasco, un factor esencial de calidad de vida y un componente básico de su estrategia de sostenibilidad.

establezimendu-azpiegiturak eta turismoari begirako zerbitzuak ere baliabide turistikoak dira. Ostatu-establezimendu horien artean ditugu, besteak beste, hotel-establezimenduak, apartamentu turistikoak, kanpinak, agroturismo eta landetxeak eta aterpetxeak, baita turismo-erabilerako etxebizitza eta gelak ere.

2016. urteko datuen arabera, EAEn turismo-ostatuko 1.886 establezimendu daude guztira; horrek esan nahi du % 49ko igoera izan dela 2009ko datuekin alderatuz gero. Tipologien araberako banaketan, % 56 hotel-establezimenduak dira, % 41 landa-ostatuak eta gainerako % 3 kanpinak.

1. Hotel-establezimenduak, apartamentu turistikoak eta aterpetxeak.

Hotel-establezimenduei (hotelak eta pentsioak) dagokienez, Gipuzkoan dago establezimendu kopuru handiena (guztizkoaren % 49), eta Bizkaian, berriz, plaza kopuru handiena (EAEko plaza guztien % 47). 2012-2015 aldian hotel-eskaintzak gorakada handia izan du hiru lurraldeetan, eta oso nabarmentzekoa da Donostian eta haren eremu metropolitarrean hotel-establezimenduen kopuruak igoera handia izan duela.

2. Agroturismoak eta landetxeak.

2016an, Euskadin landa-turismoari lotutako establezimenduak 414 izan dira guztira. 2009ko

turísticos las infraestructuras de los establecimientos de alojamiento turístico y los servicios orientados al turismo. Entre dichos establecimientos de alojamiento se incluyen los establecimientos hoteleros, los apartamentos turísticos, los campings, los agroturismos y casas rurales y los albergues, así como las viviendas y habitaciones de uso turístico.

Según los datos correspondientes a 2016, en la CAPV se localizan un total de 1.886 establecimientos de alojamiento turístico, cifra que supone un incremento del 49% respecto las cifras de 2009. En su distribución por tipologías, el 56% de los mismos corresponden a establecimientos hoteleros, el 41% alojamiento rural y el restante 3% a campings.

1.- Establecimientos hoteleros, apartamentos turísticos y albergues.

En lo referente a establecimientos hoteleros (hoteles y pensiones), Gipuzkoa es el territorio que mayor número localiza (49% del total), si bien es Bizkaia el que mayor número de plazas concentra (el 47% del total de la CAPV). En el periodo 2012-2015, los tres territorios han experimentado un incremento importante de su oferta hotelera, siendo muy reseñable el incremento en el número de establecimientos hoteleros en Donostia y en su área metropolitana.

2.- Agroturismos y casas rurales.

Los alojamientos vinculados al turismo rural en Euskadi ascienden en 2016 a un total de 414. Estas



8.taula: Hotel-establezimenduak kategoriaren eta eremuaren arabera 2015.

Tabla 8: Establecimientos hoteleros según categoría y estrato 2015.

	Guztira Total		Hiru izar eta gehiago Tres y más estrellas		Izar bat eta bi, eta pentsioak Una y dos estrellas y pensiones	
Vitoria-Gasteiz	38	6,9%	11	9,4%	27	6,3%
Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	12	2,2%	4	3,4%	8	1,9%
Arabako besteak / Resto de Álava	24	4,4%	3	2,6%	21	4,9%
Bilbao	70	12,8%	23	19,7%	47	10,9%
Bilbaoko gune metropolitarra Área metropolitana de Bilbao	30	5,5%	10	8,5%	20	4,7%
Bizkaiako kostaldea / Bizkaia costa	66	12,1%	13	11,1%	53	12,3%
Bizkaiako barnealdea / Bizkaia interior	49	9,0%	7	6,0%	42	9,8%
Donostia / San Sebastián	119	21,8%	19	16,2%	100	23,3%
Donostiako gune metropolitarra Área metropolitana San Sebastián	27	4,9%	3	2,6%	24	5,6%
Gipuzkoako kostaldea / Gipuzkoa costa	61	11,2%	15	12,8%	46	10,7%
Gipuzkoa barnealdea / Gipuzkoa interior	51	9,3%	9	7,7%	42	9,8%
Guztira / Total	**547**	**100,0%**	**117**	**100,0%**	**430**	**100,0%**

Iturria: Geuk egina, EUSTATen Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestaren datuetan oinarrituta

Fuente: Elaboración propia a partir de datos de la ETR del EUSTAT

kopuruen aldean, agroturismo kopurua % 4 igo da, eta plaza kopurua % 12,1, hurrenez hurren. Lurraldeen arabera, Gipuzkoan daude establezimendu gehienak (% 46). Gainera, lurralde horrek izan du bilakaerarik onena 2012-2015 aldian, plaza berrien ia erdia Gipuzkoan sortu baitira.

cifras suponen un incremento del 4% en el número de agroturismos y del 12,1% en el número de plazas respecto a las cifras de 2009. Por Territorios, Gipuzkoa concentra el mayor número de establecimientos (46%). Además, en el periodo 2012-2015 ha sido el territorio que mejor comportamiento ha tenido en este sentido, ya que más de la mitad de las nuevas plazas creadas se localizan en este territorio.

3. Kanpinak eta kanpaketako beste turismo-modalitate batzuk.

Hotel-turismo tradizionalarekiko alternatiben aldeko interesak gora egin du, hau da, turismo ibiltariak eta naturaz gozatzeko turismoak gero eta jende gehiago erakartzen du; gauzak horrela, azken hamarkadetan EAEn turismo mota horretarako establezimendu kopuruak gora egin du nabarmen, besteak beste, kanpinak, kanpaketa-eremuak edo autokarabanetarako eremu bereziak. 2015. urtean 26 kanpin zenbatu ziren guztira, eta gehienak kostaldean kontzentratzen dira. Jarduera horien garapenak eragin handia izan dezake gure lurraldean, eta horregatik nahitaez aintzat hartu behar dira lurralde- eta udal-plangintzako eskala desberdinetatik ezarri beharreko eredua zehaztean.

3.- Campings y otras modalidades de turismo de acampada.

El creciente desarrollo que se ha producido en relación con el interés por el turismo itinerante y con el ligado al disfrute de la naturaleza, considerado como alternativas al turismo tradicional hotelero, ha generado que durante las últimas décadas se haya producido en la CAPV un claro incremento de los establecimientos destinados a dicho tipo de turismo, tales como campings, áreas de acampada o áreas especiales de acogida para autocaravanas. En el año 2015 se contabiliza un total de 26 campings principalmente concentrados en la costa. La incidencia que el desarrollo de dichas actividades puede tener en nuestro territorio exige su consideración en la definición del modelo a establecer desde las diversas escalas del planeamiento territorial y municipal.

4. Etxebizitza eta logela turistikoak.

Azken urteetan ostatu-figura berri bat sortu da, indar handiz gainera: erabilera turistikorako etxebizitza eta etxebizitza partikularretako logeletako ostatu-zerbitzua, EAEko Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legean jasotakoari jarraikiz. Figura berri horrek merkatuan eragingo du zuzenean, baina baita

4.- Viviendas y habitaciones turísticas.

En los últimos años han surgido, con gran fuerza, una nueva figura alojativa, como es la vivienda para uso turístico y el alojamiento en habitaciones de viviendas particulares, recogida en la Ley 13/2016, de 28 de julio, de Turismo en la CAE. Esta nueva figura va a incidir directamente no sólo en el mercado, sino

udalerrien hirigintza-plangintza eta -antolamenduan ere. 2016an figura horiei lotutako establezimenduak 718 izan dira guztira, eta plazak, berriz, 3.264. Lurraldez lurralde, Gipuzkoan bildu dira establezimendu gehien (% 65) eta plaza gehien (% 64), eta jarraian Bizkaian (% 30 eta % 29, hurrenez hurren).

también en el planeamiento y ordenación urbanística de los municipios. Los alojamientos vinculados a estas figuras ascienden en 2016 a un total de 718, lo cual supone 3.264 plazas, siendo, por territorios, Gipuzkoa el que concentra el mayor número de establecimientos (65%) y el mayor número de plazas (64%), seguido de Bizkaia (30% y 29% respectivamente).

5. EAEko potentzial turistikoak

Euskadiko baliabide turistikoak askotarikoak eta elkarren osagarri dira.

Los recursos turísticos se caracterizan en Euskadi por su diversidad y complementariedad.

Oro har, Euskadiko baliabide turistikoak askotarikoak eta elkarren osagarri dira. Beste zenbait helmuga turistikok produktu bakarra eskaintzen dute, baina Euskadik baliabide erakargarri ugari ditu lurralde mugatu samar batean. Bestalde, ohitura turistikoak aldatu egin dira eta eskari turistikoaren joera berriak agertu dira merkatuan; hala nola, turismo berdea eta hiri-turismoa, negozio-aukera berriak izanik.

Lurraldeari lotutako baliabide turistikoen artean honako hauek dauzkagu:

- Naturaguneak, Kontserbazio bereziko eremuak, Parke Naturalak eta gainerako gune babestuak, hala nola Urdaibaiko Biosferaren Erreserba eta Euskal Kostaldeko Geoparkea. Euskadin sare bat osatzen dute, lurraldearen banaketa homogeneoan eta irisgarritasunean oinarrituta.

5.- Potenciales turísticos de la CAPV

De manera global los recursos turísticos se caracterizan en Euskadi por su diversidad y complementariedad. Frente a otros destinos turísticos que ofrecen un único producto, Euskadi posee diversos recursos atractivos en un territorio relativamente reducido. Por otra parte, la transformación de los hábitos turísticos ha puesto en el mercado nuevas tendencias en la demanda turística entre los que el turismo verde y el turismo urbano se presentan como nuevas oportunidades de negocio.

Entre los recursos turísticos vinculados al territorio se encuentran los siguientes:

- Los espacios naturales, Zonas de especial conservación, Parques Naturales y resto de espacios protegidos como la Reserva de la Biosfera de Urdaibai y el Geoparque de la Costa Vasca; los cuales configuran en Euskadi una red caracterizada por su distribución homogénea en el territorio y por su accesibilidad.

Gaztelugatxe. Bermeo



– Itsasertzak 197 km ditu, eta % 90 labarrak dira; gainerakoa, hondartzak eta formazio hareatsuak. Hondartzen ingurunean turismo tradizionala garatu da, herrigune historikoekin eta kirol-portuekin ere lotuta. Urdaibaiko Biosfera Erreserba nabarmendu behar dugu, itsasertzeko baliabideekin lotutako naturagune bereizia den aldetik.

– Hiriburuak. Hiri-turismoa gero eta indar handiagoa hartzen ari da Europako turismo-fluxuetan, azken urteotan. Hiru hiriburuak produktu erakargarri bihurtu dira, eta potentzial turistiko handienetako bat osatzen dute.

– El litoral, que se extiende a lo largo de 197 km ocupados en un 90% por acantilados y el resto por playas y formaciones arenosas. En el entorno de las playas se ha desarrollado un turismo tradicional, asociado también a centros históricos y puertos deportivos. Cabe destacar la Reserva de la Biosfera de Urdaibai como un espacio natural diferenciado, relacionado con los recursos del litoral.

– Las capitales. El turismo urbano es un fenómeno emergente que en los últimos años está reconfigurando los flujos turísticos en Europa. Las tres capitales se han convertido en un producto atractivo que constituye uno de los grandes potenciales turísticos.



– Herrigune historikoak. EAEko hirurogeita bederatzi alde zaharrak balio handiko potentzial turistikoa dira, kultura-ondarearekin lotuta.

– Kultura-, historia-, arte-, arkitektura-, hirigintza-edo arkeologia-ondarea, baita natura-, geologia-edo ingurumen-ondarea ere.

– Los cascos históricos. Los sesenta y nueve cascos antiguos de la CAPV representan un potencial turístico de indudable valor relacionado con el patrimonio cultural.

– El patrimonio cultural, histórico, artístico, arquitectónico, urbanístico o arqueológico; así como el natural, geológico o ambiental.



Pasaia

– Paisaia. Paisaiaren pertzepziozko alderdiak, alderdi bikainak edo natura- zein kultura-interesari lotutakoak funtsezkoak dira gure lurraldearen nortasuna osatzean, eta beraz, haren baliabide funtsezkoenetakoak dira.

– Oinezko eta bizikletentzako ibilbideak, aisiari, naturaz gozatzeari, kulturari, ondareari edo paisaiari lotutakoak edo beste baliabide turistiko batzuetara iristea ahalbidetzen dutenak.

– Azpimarratzekoa da, halaber, zenbait potentzial turistiko zenbait osagarri batzearen ondorioz sortzen direla. Esaterako, Arabako Errioxan, eskaintza turistikoa turismo gastronomikoan eta enologikoan espezializatu da, baita haiei lotutako paisaietan ere. Lurraldeko beste zenbait lekutan, berriz, zenbait turismo mota elkarbizitzen dira: landa- turismoa, kultura-turismoa, historiko-artistikoa, linguistikoa, kirol-turismoa, termala, negozio edo kongresuei lotutakoa eta abar.

– Azken buruan, Euskadik askotariko baliabideen inbentario zabala dauka ondare immaterialari (gastronomia, nortasuna) loturik.

– El paisaje. Los aspectos perceptivos, sobresalientes o de interés natural o cultural del paisaje contribuyen de forma decisiva a conformar la identidad de nuestro territorio y, por lo tanto, constituyen uno de sus recursos turísticos fundamentales.

– Los recorridos e itinerarios peatonales y ciclistas vinculados al ocio, al disfrute de la naturaleza, la cultura, el patrimonio o el paisaje; o que permitan el acceso a otros recursos turísticos.

– Cabe reseñar también que existen potenciales turísticos que surgen de la suma de diferentes componentes, como sucede en la Rioja Alavesa, donde la especialización de la oferta turística se centra en el turismo gastronómico y enológico y en los paisajes vinculados a los mismos; o en otros lugares del territorio donde conviven diversas modalidades de turismo rural, cultural, histórico-artístico, lingüístico, deportivo, termal, de negocios, congresual etc.

– Finalmente, Euskadi dispone de un amplio y variado inventario de recursos vinculados con el patrimonio inmaterial (gastronomía, identidad).

Turismoa Antolatzeari buruzko 13/2016 Legeak turismo-baliabideak antolatzeko araubidea ezartzen du, Lurralde Plan Sektorialaren bidez garatuko dena.)

La Ley 13/2016, de Ordenación del Turismo, establece el régimen de ordenación de los recursos turísticos que se desarrollará mediante un Plan Territorial Sectorial.

Halaber, Turismoa Antolatzeari buruzko uztailaren 28ko 13/2016 Legeak turismo-baliabideak antolatzeko araubidea ezartzen du, Lurralde Plan Sektorialaren bidez garatuko dena, plan hori Lurraldea Antolatzeko 4/1990 Legeak zehaztutako lurralde-antolamenduko tresnetan integratuta. 13/2016 lege horren arabera, LPS tresna bat izango da, lurraldeko baliabideak inbentariatu eta antolatzeko eta haien erabilera eta garapen turistikoa arautzeko ez ezik, artikulatzeko ere balio duena: batetik, baliabideen eta lurraldearen arteko artikulazioa ahalbidetuko du, haien kontsumoa

Así mismo, la Ley 13/2016, de 28 de julio, de Ordenación del Turismo, establece el régimen de ordenación de los recursos turísticos que se desarrollará mediante un Plan Territorial Sectorial; el cual se integrará en los instrumentos de ordenación territorial definidos por la Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio. Según la citada Ley 13/2016, el PTS deberá ser no sólo una herramienta de inventario y ordenación de recursos territoriales y de regulación de su utilización y desarrollo turístico, sino también permitirá la articulación entre los recursos y el territorio para

errazteko produktu turistiko ezberdinak erraztuz, eta bestetik, lurraldea bera artikulatuko du, kontsumo eta jarduera turistikoen gertaleku gisa.

Azkenik aipatzekoa da, zenbaitetan baliabide turistikoen garapenarekin eduki dezaketen erlazioa dela-eta, komenigarria litzatekeela fenomeno sortuberri batzuen agerpena saihesteko neurriak ezartzen jarraitzea. Fenomeno horiek lurraldearentzat, ingurumenarentzat edo gizartearentzat ondorio kaltegarriak sor ditzakete. Besteak beste, eremu, auzo eta hiri jakin batzuen gentrifikazioa, turismoaren garapen masiboaren ondorioz; "parke tematikoa bezalako hiri edo eremuaren" efektua jasatea, turismoa ustiatzeko eredu jakin batzuen ondorioz; hirugarren sektoreko eta bereziki turismo-sektoreari lotutako erabileretako jarduera ekonomikoaren sinplifikazioa eta monolaborantza; gizarte-kolektibo pobreenak lekualdatu beharra, lurzorua garestitzearen ondorioz eta abar. Horren ondorioz, beharrezkoa da plangintza-eskala desberdinetatik beharrezkoak diren irizpide eta neurriak hartzea, lurralde- eta hirigintza-plangintzatik abiatuta problematika guztiei heldu ahal izateko.

facilitar su consumo a través de diferentes productos turísticos y la del propio territorio, como escenario de articulación de consumos y actividades turísticas.

Finalmente procede mencionar, por la relación que en algunos casos pueden tener con el desarrollo de los recursos turísticos, la conveniencia de proseguir con medidas tendentes a evitar la aparición de algunos fenómenos emergentes, que pueden generar unos efectos territoriales, ambientales o sociales que se consideran no deseables. Entre ellos se encuentran la gentrificación de ciertas zonas, barrios e incluso ciudades como consecuencia de un desarrollo masivo del turismo; el efecto "ciudad o ámbito parque temático", como consecuencia de determinados modelos de explotación turística; la simplificación y el monocultivo de la actividad económica terciaria y de usos mayoritariamente vinculados al sector turístico; el desplazamiento de los colectivos sociales más desfavorecidos debido al incremento del precio del suelo, etc. Como consecuencia, se estima necesario que desde las diversas escalas del planeamiento se adopten los criterios y medidas necesarios que desde la propia planificación territorial y urbanística permitan afrontar las diversas problemáticas.

Komenigarria litzateke fenomeno sortuberri batzuen agerpena saihesteko neurriak ezartzen jarraitzea. Fenomeno horiek lurraldearentzat, ingurumenarentzat edo gizartearentzat ondorio kaltegarriak sor ditzakete.

Conviene proseguir con medidas tendentes a evitar la aparición de algunos fenómenos emergentes, que pueden generar unos efectos territoriales, ambientales o sociales que se consideran no deseables.

II. HELBURUAK

Baliabide turistikoen alorrean, lurralde-eredua berrikusteko helburu hauek proposatzen dira:

II. OBJETIVOS

Los objetivos propuestos para la revisión del modelo territorial en materia de recursos turísticos son los siguientes:

Arluzea. Bernedo



1. Baliabide turistikoen gozamena gure lurraldeko natura- eta kultura-ondarearen babesa eta hobekuntzarekin bateragarri egitea, ondare horren babesa bermatzeko etorkizuneko belaunaldiei begira.

2. Baliabide turistikoen plangintza egitean eskaintza dibertsifikatu, irisgarri eta hainbat alorretan (gizartea eta kultura, ekonomia eta ingurumena) iraunkorra lortu beharra aintzat hartzea.

3. Baliabide turistikoen antolamendua lurralde- eta hirigintza-plangintzan ongi txertatzen dela bermatzea.

4. Lurralde- eta hirigintza-plangintzatik, baliabide turistikoen aprobetxamendu iraunkorra bermatzeko behar diren irizpide eta neurriak hartzea.

5. Helmugen karga-ahalmena aintzat hartzea, ez bakarrik naturaguneetan, baita hiriguneetan ere, bereziki bertakoen bizi-kalitatea kolokan jar daitekeenean.

1. Compatibilizar el disfrute de los recursos turísticos con la protección y mejora del patrimonio natural y cultural de nuestro territorio, asegurando su preservación para las generaciones futuras.

2. Orientar la planificación de los recursos turísticos a la consecución de una oferta diversificada, accesible y sostenible sociocultural, económica y medioambientalmente.

3. Garantizar la adecuada inserción de la ordenación de los recursos turísticos en el planeamiento territorial y urbanístico.

4. Adoptar desde el planeamiento territorial y urbanístico los criterios y medidas necesarios que garanticen un aprovechamiento sostenible de los recursos turísticos.

5. Considerar la capacidad de carga de los destinos, no sólo en los espacios naturales, sino también en las zonas urbanas, especialmente cuando la calidad de vida de las personas locales pueda verse comprometida.



Arabako Errioxa / Rioja Alavesa

III. LURRALDE-GIDALERROAK

Baliabide turistikoen arloan proposatzen diren lurralde-gidalerroak Aplikatzeko arauen 24. artikuluan jasotzen dira.

III. DIRECTRICES TERRITORIALES

Las directrices territoriales que se proponen en materia de recursos turísticos son las contenidas en el artículo 24 de las Normas de Aplicación.

8

Baliabideen kudeaketa iraunkorra

Gestión sostenible de los recursos

Ura	**8.1.**	Agua
Energia	**8.2.**	Energía
Ekonomia zirkularra	**8.3.**	Economía circular

Baliabideen kudeaketa iraunkorra aurrera eramateko behar-beharrezkoa da lurralde-antolamenduko dokumentuen alderdi tradizionalei ikuspegi berri batetik heltzea.

La gestión sostenible de los recursos conlleva el tratamiento de aspectos tradicionales de los documentos de ordenación territorial desde un nuevo prisma.

Baliabideen kudeaketa iraunkorra aurrera eramateko behar-beharrezkoa da lurralde-antolamenduko dokumentuen alderdi tradizionalei ikuspegi berri batetik heltzea.

Urari buruzko puntuaren abiapuntua, lurralde-plangintzak Ibai eta Errekak antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren bidez heldutako gaia da, eta, ildo horretan, ibai-ibilguen antolamenduan biltzen diren ingurumen- eta hirigintza-alderdiak eta alderdi hidraulikoak integratzen dira, honako gai hauei helduz: uholde-arriskuaren kudeaketa, azaleko ur-masen aldaketa morfologikoak, ur-hornidura eta herriguneen saneamendua.

Energiari buruzko puntua 2030erako Euskadiko Energia Estrategiak ezarritako premisetatik abiatzen da, hura onartzeko garatu behar diren lurralde-baldintzak ezartzeko, hiriek iraunkortasun-egoera horretan betetzen duten zeregina ardatz hartuta.

Azkenik, Ekonomia Zirkularraren terminologian, hondakin solidoen kudeaketari eta lur kutsatuen tratamenduari buruzko politika osoa jaso da, legeria propioa onartu zenetik EAEn ibilbide luzea egin duen gaia baita.

Ekonomia zirkularra hondakinen berrerabiltzean, birziklatzean eta balorizazioan oinarritzen da, eta horrek eskatzen du, halaber, gaikako bilketa eta bereiztea, hondakin horietatik materialak edo energia berreskuratzea ahalbidetuko duen beste edozein birziklatze- edo balorizazio-tratamendu ezarri aurretik. Orobat, aurreikusita dago merkatu berrien garapena indartzea eta arriskutsuak ez diren industria-hondakinen balorizazio-prozesuetatik eratorritako lehengai sekundarioak eraginkortasunez erabiltzea, beste lehengai batzuk ordezteko.

Lurra funtsezko elementua da lurralde-iraunkortasunaren alorrean. Izan ere, lurraren eta lurraren kontserbazio-egoeraren mendean daude, besteak beste, honako hauek: beste baliabide batzuen kalitatea (ura, airea); beste ingurumen-problematika batzuk arintzea (klima-aldaketa, biodibertsitate-galera, uholdeak) ; edo eta giza bizitzaren kalitatea ere, lurraren ekosistemen zerbitzuak kontserbatuz.

La gestión sostenible de los recursos conlleva el tratamiento de aspectos tradicionales de los documentos de ordenación territorial desde un nuevo prisma.

El punto relativo al Agua, partiendo de la materia abordada por la planificación territorial con el Plan Territorial Sectorial de ordenación de Ríos y Arroyos, como una integración de los aspectos medioambientales, hidráulicos y urbanísticos que se dan en la ordenación de los cauces fluviales, aborda la gestión del riesgo de inundación, las alteraciones morfológicas de las masas de agua superficiales, así como el abastecimiento de agua y el saneamiento de las poblaciones.

El punto relativo a la Energía parte de las premisas que marca la Estrategia Energética Euskadi 2030, para establecer las condiciones territoriales que deben desarrollarse para su asunción, centrándose con el papel de las ciudades en este escenario de sostenibilidad.

Finalmente, la Economía Circular recoge en la terminología toda la política en torno a la gestión de los residuos sólidos y en el tratamiento de los suelos contaminados, aspecto de amplia trayectoria en la CAPV desde la aprobación de legislación propia.

La economía circular descansa sobre la reutilización, el reciclado y la valorización de residuos, que requiere, asimismo, de una recogida y separación selectiva, como paso previo para cualquier otro tratamiento de reciclaje o valorización que permita recuperar materiales o energía de dichos residuos. Igualmente, se prevé potenciar el desarrollo de nuevos mercados y el uso efectivo de materias primas secundarias procedentes de los procesos de valorización de residuos industriales no peligrosos en sustitución de otras materias primas.

El suelo es un elemento central de la sostenibilidad territorial, ya que del suelo y su grado de conservación dependen la calidad de otros medios, como el agua o el aire, la mitigación de otras problemáticas ambientales, como, por ejemplo, el cambio climático, la pérdida de biodiversidad o las inundaciones, e incluso la calidad de vida humana, a través de la conservación de los servicios de los ecosistemas del suelo.

8.1. Ura

8.1. Agua

EAEko ibai eta errekak antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala administrazio-adostasunaren aldeko eta ingurumenaren, hidraulikaren eta hirigintzaren aldagaiak integratzearen aldeko ekimena da. Une honetan, uholde-arriskuaren kudeaketari eta ur-hornidurari eta saneamenduari buruzko ikuspegi eguneratua jasotzen ari da, plangintza hidrologikoarekin bat datorren lurralde-politika bati jarraikiz.

El Plan Territorial Sectorial de ordenación de ríos y arroyos de la CAPV es un ejercicio de consenso administrativo y de integración de las variables medioambiental, hidráulica y urbanística, procediéndose, en este momento, a recoger una visión actualizada de la gestión del riesgo de inundación, así como del abastecimiento de agua y el saneamiento, con una política territorial en correspondencia con la planificación hidrológica.



Oñati

I. GAIA ZERTAN DEN

Uraren alorrean garrantzi handiko mugarri juridikoak bete dira, eta horrela jauzi kualitatiboa egin da ura kudeatzeko printzipioetan, 1997an LAGak onartu zirenez geroztik. Besteak beste, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/60/EE Zuzentaraua edo Uraren Esparru Zuzentaraua, urriaren 23koa, Europako Erkidegoko jardun-esparrua ezartzen duena ur-politiken eremuan; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007/60/EE Zuzentaraua, urriaren 23koa, uholde-arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari buruzkoa; 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Euskadiko Urei buruzkoa; 9/2008 Errege Dekretua, urtarrilaren 11koa, eta 638/2016 Errege Dekretua, abenduaren 9koa, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua aldatzen dutenak; 903/2010 Errege Dekretua, uztailaren 9koa, uholde-arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari buruzkoa; eta Kantauri Mendebaldeko, Kantauri Ekialdeko

I. ESTADO DE LA CUESTIÓN

La adopción de importantes hitos jurídicos en materia de agua ha supuesto un salto cualitativo en los principios de la gestión del agua desde la aprobación de las DOT en 1997. Es el caso de la Directiva 2000/60/CE del Parlamento europeo y del Consejo, de 23 de octubre, por la que se establece un marco comunitario de actuación en el ámbito de la política de aguas, conocida como Directiva Marco del Agua o DMA; la Directiva 2007/60/CE del Parlamento europeo y del Consejo, de 23 de octubre, relativa a la evaluación y gestión de los riesgos de inundación; la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas del País Vasco; el Real Decreto 9/2008, de 11 de enero, y el Real Decreto 638/2016, de 9 de diciembre que modifican el Reglamento del Dominio Público Hidráulico; el Real Decreto 903/2010, de 9 de julio, de evaluación y gestión de riesgos de inundación; y los Planes Hidrológicos de las demarcaciones hidrográficas del

Ura baliabide soila izatetik ikuspegi zabalago eta ekosistemiko bat biltzera pasatzen da, non epe luzerako iraunkortasunaren, aurreztearen eta eraginkortasunaren irizpideak funtsezkoak diren.

El agua deja de ser considerado sólo como un recurso para incorporar una visión más amplia, ecosistémica, en la que son fundamentales los criterios de sostenibilidad a largo plazo, ahorro y eficiencia.

eta Ebroko demarkazio hidrografikoei buruzko Plan Hidrologikoak.

Arau multzo horrek ingurumen-izaera nabaria dakar berekin: ura baliabide soila izatetik ikuspegi zabalago eta ekosistemiko bat biltzera pasatzen da, non epe luzerako iraunkortasunaren, aurreztearen eta eraginkortasunaren irizpideak funtsezkoak diren.

Ura funtsezko faktorea da lurralde-antolamenduan, haren kudeaketa ezinbestekoa baita gizartearen eta lurraldearen arteko harremanean. Uraren Esparru Zuzentarauak, adibidez, ur masen eta horiei loturiko ekosistemen kalitatearen gaineko helburuak ezartzen ditu, eta horiek izan behar dira antolamenduaren irizpen arautzaileak.

Hala, urak kudeatzearen alorreko helburuei jarraikiz, lehenik eta behin ur-masen egoera ona lortu behar da; jarraian, ur-eskarien gogobetetze-maila hobetu behar da, irisgarritasun-irizpideen arabera; eta azkenik, uholdeen eta lehorteen ondorioak arintzen lagundu behar da, prebentzio-politikak abian jarriz.

Gainera, gaur egun Plan Hidrologikoak eta Uholde Arriskuak Kudeatzeko Planak ditugu abian, eta funtsezko kudeaketa-tresna horiek, elkarri estu lotuta egonik, gure lurraldeko hiru demarkazio geografikoetan daude indarrean, hau da, Kantauri Mendebaldean, Kantauri Ekialdean eta Ebron.

EAEko Ibai eta Erreketako Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala tresna eraginkorra izan da lurraldea antolatzeko, besteak beste, ibai-eremuetako erregulazioan ingurumen-, hidraulika- eta hirigintza-aldagaien tratamendu integratua eta neurrizkoa eginez.

El PTS de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la CAPV ha demostrado ser un instrumento eficaz de ordenación territorial, que incluye en la regulación de los ámbitos fluviales un tratamiento integrado y ponderado de las variables medioambiental, hidráulica y urbanística.

Lurraldea antolatzeko tresnei dagokienez, EAEko Isurialde Kantauriar eta Mediterraneoko Ibai eta Erreketako Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak, abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren eta abenduaren 28ko 455/1999 Dekretuaren bitartez onartu zirenak, bateratu ziren eta indarreko araudira egokitu, azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuaren bitartez, EAEko Isurialde Kantauriarreko eta Mediterraneoko Ibai eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren aldaketa behin betiko onartu zuena. Onartu zenez geroztik, Lurralde Plan Sektoriala tresna eraginkorra izan da lurraldea antolatzeko, besteak beste, ibai-eremuetako erregulazioan ingurumen-, hidraulika- eta hirigintza-aldagaien tratamendu integratua eta neurrizkoa eginez:

- Ingurumena, ertzak babesteko irizpideei jarraikiz ur-bazterreko landarediaren balio ekologikoaren mesedetan.
- Hidraulikoa, uraldietan uholdeak saihesteko ibilguak babesteko kontuan hartu beharreko irizpideak zehaztuz eta gauzatuz.
- Hirigintza, ibilgu bakoitzeko tarteak antolatzeko irizpideak zehaztuz, ertzetan eman daitezkeen

Cantábrico Occidental, del Cantábrico Oriental y del Ebro.

Este conjunto normativo aporta un marcado carácter ambiental: el agua deja de ser considerado sólo como un recurso para incorporar una visión más amplia, ecosistémica, en la que son fundamentales los criterios de sostenibilidad a largo plazo, ahorro y eficiencia.

El agua es un factor fundamental en la ordenación territorial, al suponer su gestión un elemento clave en la relación de la sociedad con el territorio. En este sentido la Directiva Marco del Agua (DMA) establece los objetivos de calidad de las masas de agua y los ecosistemas relacionados, que deben ser principios reguladores del planeamiento.

Así, los objetivos en materia de gestión de aguas consisten, primero, en alcanzar un buen estado de las masas de agua; segundo, en mejorar la satisfacción de demandas de agua con criterios de sostenibilidad; y, tercero, en contribuir a paliar los efectos de inundaciones, con políticas preventivas, y sequías.

Además, ahora se disponen de instrumentos clave de gestión que están estrechamente ligados, como son los Planes Hidrológicos y los Planes de Gestión del Riesgo de Inundación para cada una de las tres demarcaciones hidrográficas de nuestro territorio, es decir la del Cantábrico Occidental, la del Cantábrico Oriental y la del Ebro.

En cuanto a los instrumentos de ordenación del territorio se refiere, los Planes Territoriales Sectoriales de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la CAPV de las Vertientes Cantábrica y Mediterránea, que se aprobaron mediante los Decretos 415/1998, de 22 de diciembre, y 455/1999, de 28 de diciembre, respectivamente, fueron refundidos y adaptados a la normativa vigente con la adopción del Decreto 449/2013, de 19 de noviembre, por el que se aprueba definitivamente la Modificación del Plan Territorial Sectorial de Ordenación de los Ríos y Arroyos de la CAPV (Vertientes Cantábrica y Mediterránea). Desde su aprobación, este Plan Territorial Sectorial ha demostrado ser un instrumento eficaz de ordenación territorial, que incluye en la regulación de los ámbitos fluviales un tratamiento integrado y ponderado de las variables medioambiental, hidráulica y urbanística:

- Medioambiental, con los criterios de protección de las márgenes en atención al valor ecológico de su vegetación de ribera.
- Hidráulica, concretando y materializando los criterios en cuanto a la protección a otorgar a los cauces en orden a evitar las inundaciones en las diferentes avenidas de agua.
- Urbanística, con la definición de los criterios de ordenación de los diferentes tramos de cada cauce

Demarkazio Hidrografikoak Euskadin. **Demarcaciones Hidrográficas en el País Vasco.**



Iturria: URA *Fuente: URA*

erabilerei dagokienez, eta bereziki hirigintza- eta eraikuntza-erabilerei dagokienez.

Ur-alorrari dagokionez, lurralde-eredua berrikustean honako hauek hartu behar dira kontuan: uholde-arriskuaren kudeaketa; azaleko ur-masen aldaketa morfologikoak; ur-hornidura eta saneamendua; ur-masen kalitatea; eta babestutako eremuak.

Uholdeak dira Euskadiko arrisku natural handienak. Saihestu ezinezko fenomeno naturalak dira, baina nolanahi ere, giza jarduerak areagotu egin ditzake haien inpaktu negatiboak. Uholdeek isurialde kantauriarrean eragiten dute bereziki, gune gatazkatsuen kopuru handiena bertan kontzentratzen delako, biztanleria-dentsitate handiaren, habitatutako gune kopuru handiaren eta urbanizatzeko moduko lur-eskasiaren eraginez. Lautada gutxi horietako gehienak ibai eta estuarioetako ertzetan daude, eta urak okupatu egiten ditu gainezka egiten duenean.

Unean uneko isurketekin batera, aldaketa morfologikoak, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren eta jabari publiko hidraulikoaren

en cuanto a los usos que pudieran darse en sus márgenes, fundamentalmente en lo relativo a los usos urbanísticos y edificatorios.

La revisión del modelo territorial en materia de agua gira en torno a la gestión del riesgo de inundación; las alteraciones morfológicas de las masas de agua superficiales; el abastecimiento de agua y el saneamiento; la calidad de las masas de agua; y las zonas protegidas.

Las inundaciones constituyen el mayor riesgo natural que afecta al País Vasco. Son fenómenos naturales que no pueden evitarse, si bien la forma en la que se desarrollan las actividades humanas puede contribuir a aumentar sus impactos negativos. Los daños por inundaciones afectan sobre todo a la vertiente cantábrica, donde se concentra el mayor número de puntos problemáticos por contar con una elevada densidad de población, un alto número de núcleos habitados y una escasa cantidad de suelos favorables para urbanizar. Estos escasos suelos llanos coinciden, en gran medida, con márgenes de ríos y estuarios, ocupados por el agua cuando se producen desbordamientos.

Las alteraciones morfológicas y la ocupación del dominio público hidráulico y marítimo terrestre pueden considerarse, junto con los vertidos puntuales, los

Ur-alorrari dagokionez, lurralde-eredua berrikustean honako hauek hartu behar dira kontuan: uholde-arriskuaren kudeaketa; azaleko ur-masen aldaketa morfologikoak; ur-hornidura eta saneamendua; ur-masen kalitatea; eta babestutako eremuak.

La revisión del modelo territorial en materia de agua gira en torno a la gestión del riesgo de inundación; las alteraciones morfológicas de las masas de agua superficiales; el abastecimiento de agua y el saneamiento; la calidad de las masas de agua; y las zonas protegidas.

Uholdeak dira Euskadiko arrisku natural handienak. Saihestu ezinezko fenomeno naturalak dira, baina nolanahi ere, giza jarduerak areagotu egin ditzake haien inpaktu negatiboak.

Las inundaciones constituyen el mayor riesgo natural que afecta al País Vasco, Son fenómenos naturales que no pueden evitarse, si bien la forma en la que se desarrollan las actividades humanas puede contribuir a aumentar sus impactos negativos.

okupazioa dira ur-inguruneareN arazo nagusiak EAEn. Erliebearen ezaugarriengatik eta, isurialde kantauriarrean bereziki, biztanleria-dentsitate handiarengatik, ibai- eta estuario-ibar eta hezegune askok presio handia jasan behar izan dute hiri- eta industria-erabileren, komunikabide eta azpiegituren, portuen eta abarren eraginez. Ibarren okupazio horrek obrak egin beharra ekarri zuen berekin, ur-bazterrak higaduratik babesteko batetik, eta uholdeak prebenitzeko bestetik. Gainera, horri erantsi behar zaizkio ertzen artifizializazioa, ibilguen estaldura eta okupazioak, dragatzeak, ura biltzeko azpiegitura ugariak (presa txikiak; asko, jadanik erabiltzen ez direnak), ur-faunaren migraziorako beste zenbait oztopo, eta, azkenik, ur-bazterretako landare-estaldura nahikoa eta egokia ez izatea.

Problematika horren konponbideak bi alde ditu. Batetik, gure ibai, estuario eta hezeguneetako ibilgu eta ur-bazterren baldintzak eraginkortasunez babestea, hau da, haien narriadura geldiaraztea, eta, bestetik, azaleko ur-masen eta lotutako eta aldatutako ekosistemen ezaugarri morfologikoak ahal den neurrian lehengoratzea.

Bestetik, plangintza hidrologikoaren esparruan

principales problemas del medio acuático en la CAPV. Las características del relieve unido a la alta densidad de población, sobre todo en la vertiente cantábrica, convirtieron muchas vegas fluviales y estuarias y zonas húmedas en espacios intensamente presionados por usos urbanos, industriales, vías de comunicación e infraestructuras, puertos, etc. Esta ocupación de las vegas trajo consigo la realización de obras para la defensa de las riberas contra la erosión, así como para la prevención de las inundaciones. Además, hay que sumar la artificialización de las márgenes, las coberturas y ocupaciones de los cauces, dragados, la existencia de infinidad de infraestructuras de captación de agua (azudes), muchas en desuso, así como de otros obstáculos a la migración de la fauna acuática y, finalmente, el déficit de una cobertura vegetal en las riberas suficiente y adecuada.

La solución a esa problemática tiene dos vertientes. Por un lado, la protección eficaz de las condiciones de cauce y ribera de nuestros ríos, estuarios y humedales, es decir, el freno de su deterioro y, por otro, la mejora ambiental o restauración, en la medida de lo posible, de las características morfológicas de las masas de agua superficiales y de los ecosistemas relacionados que han sido alterados.

Por su parte, los análisis realizados en el marco de la

Ibaieder. Beizama



egindako azterketetatik ondorioztatzen denez, oro har, hornidura-sistema nagusiek hornidura bermatzeko baldintzak betetzen dituzte, lehendik dauden baliabide-iturriek sistema horien eskarien zerbitzua ziurtatzen dute, eta haien ur-bilketak bateragarri dira emari ekologikoekin. Nolanahi ere, agorraldian sistema horietako batzuek arazoak izaten dituzte sarri, eta, horren eraginez, arazoak sortzen dira eskari horien zerbitzuaren eta gutxieneko emari ekologikoak mantentzearen artean, gehiegizko ustiatzearekin zerikusia duten arazoez gainera. Hori gutxi balitz, sistema nagusietako batzuetan oso litekeena da garraio-sareetako funtsezko elementuak haustea edo haietan istripua gertatzea, eta horrek herrigune handien hornidurari kalte larriak eragitea. Bestalde, iturburu txikien edo gainazaleko bilketen mende dauden sistema txikietan, arazo horiek, kasu batzuetan, maizago ager daitezke, gehienetan agorraldi luzeko edo lehorteko garaietako baliabide eskasiari lotuta.

planificación hidrológica concluyen que, con carácter general, los principales sistemas de abastecimiento cumplen las condiciones de garantía de suministro, el servicio de sus demandas estaría asegurado con las fuentes de recursos existentes y sus captaciones son compatibles con los caudales ecológicos. No obstante, en algunos de estos sistemas existen problemas recurrentes en estiaje que ocasionan problemas para garantizar el equilibrio entre el servicio de estas demandas y el mantenimiento de los caudales ecológicos mínimos, así como problemas de sobreexplotación. Adicionalmente, algunos de los principales sistemas son potencialmente vulnerables a situaciones de rotura o accidente en elementos clave de las redes de transporte que repercutirían gravemente en el suministro de importantes núcleos de población. Por su parte, en los sistemas menores, dependientes de pequeños manantiales o captaciones superficiales, estos problemas, en algunos casos, pueden presentarse con mayor frecuencia, referidos en la mayor parte de los casos a la escasez de recursos en periodos de estiaje prolongado o sequía.

Kontuan hartzekoa da, halaber, sistema horien kontrolik gabekoen haritik ageri ohi diren arazoak, eta horren barnean sartzen dira ur-hodietako galerak, kontagailuen akatsak, kontabilizatu gabeko edo iruzurrezko harguneak, tratamendu-instalazioetako kontsumoak eta abar. Euskadin adierazle horrek hobera egin du nabarmen azken urteetan, eta bereziki, kudeatzeko ahalmen handiena duen hornidura-sistemetan, baina nolanahi ere esan beharra dago batzuetan kontrolik gabekoen ehunekoa ez dela egokia izaten, eta beraz, kasu jakin batzuetan sarearen egoerak badu zerikusia, neurri batean behintzat, eskariak gogobetetzeko ezintasunarekin.

Otra cuestión relevante a tener en cuenta es el porcentaje de incontrolados de estos sistemas (concepto que incluye las pérdidas en las conducciones, deficiencias en los contadores, tomas no contabilizadas o fraudulentas, consumos en las instalaciones de tratamiento, etc.). Si bien este indicador ha mejorado notablemente en los últimos años en el País Vasco, y especialmente en los sistemas de abastecimiento con mayor capacidad de gestión, en ocasiones el porcentaje de incontrolados no es el más adecuado, lo cual infiere al estado de la red cierta responsabilidad en determinadas insatisfacciones de las demandas.

Hortik dator eskariaren kudeaketarekin zerikusia duten jarduerak bultzatu beharra, urarekin zerikusia duten zerbitzuen antolamendu eta kudeaketarekin lotutako alderdiak barne, hala nola hornidura-sareen ihesak murriztea, uraren erabilera iraunkorra sustatzeko tarifa-erregimenen ezarpena, aurrezte eta erabilera efizientean sentsibilizatzea eta abar. Gainera, sistema jakin batzuetan komenigarritzat jo da hornidura-azpiegitura berriak edukitzea, hornidura-berme nahikoa eta ibilgu ekologikoen erregimenak mantentzea guztiz bateragarri egitea ahalbidetuko dutenak, ur-bilketa berrien, eta bereziki, sistema-interkonexioen bitartez. Plan Hidrologikoetako Eremu Babestuen Erregistroan bildutako EAEko hornidurako ur-bilketa nagusiei dagokienez, uren alorreko aplikazio-araudietan haien babesean aurrera egiteko klausula jakin batzuk bildu badira ere, zenbaitetan kutsadura-arazoak agertu dira. Horregatik, ur-bilketa horien babesa beste eremu batzuetara eramatea komeni da, besteak beste, udal-plangintzara.

De ahí la necesidad de perseverar en las actuaciones relacionadas con la gestión de la demanda, y que involucran aspectos organizativos y de gestión de los servicios relacionados con el agua, incluyendo la reducción de fugas en las redes de abastecimiento, la implantación de regímenes tarifarios incentivadores del uso sostenible del agua, la sensibilización en el ahorro y uso eficiente, etc. Asimismo, en determinados sistemas, se plantea la conveniencia de contar con nuevas infraestructuras de abastecimiento, que permitan una compatibilidad plena entre la suficiente garantía de abastecimiento y el mantenimiento de los regímenes de caudales ecológicos, a través de nuevas captaciones y, sobre todo, de interconexiones de sistemas. En relación con las principales captaciones de abastecimiento de la CAPV, que se recogen en el Registro de Zonas Protegidas de los Planes Hidrológicos, si bien en las normativas de aplicación en materia de aguas existen determinadas cláusulas para avanzar en su protección, en ocasiones se han producido episodios de contaminación. Por ello, resulta conveniente que la protección de dichas captaciones trascienda a otros ámbitos, entre ellos, el propio planeamiento municipal.

Komenigarritzat jo da hornidura-azpiegitura berriak edukitzea, hornidura-berme nahikoa eta ibilgu ekologikoen erregimenak mantentzea guztiz bateragarri egitea ahalbidetuko dutenak.

Se plantea la conveniencia de contar con nuevas infraestructuras de abastecimiento, que permitan una compatibilidad plena entre la suficiente garantía de abastecimiento y el mantenimiento de los regímenes de caudales ecológicos.

Ur-saneamenduari eta -arazketari dagokienez, saneamendu sistema orokorretara konektatzeak lehentasuna duela kontuan izanda, hiriko hondakin-

En cuanto al saneamiento y depuración de aguas se refiere, partiendo de la opción prioritaria de la conexión a los sistemas generales de saneamiento,

Ur-saneamenduari eta -arazketari dagokienez, gune txikietako saneamenduaren problematikari heldu behar zaio, eta kutsadura sorburuan murrizteko ahaleginak egin behar dira.

En cuanto al saneamiento y depuración de aguas se refiere se ha de abordar la problemática del saneamiento en núcleos menores y potenciar la reducción de la contaminación en origen.

uren saneamendu eta arazketarako oinarrizko azpiegitura gehienak egikaritzeko lanak amaitu dira, eta horri esker, arro askotako ur-masen egoerak hobera egin du nabarmen. Arintze-emarien kontrolari lotutako neurrietan sakondu behar da, gune txikietako saneamenduaren problematikari heldu behar zaio, eta kutsadura sorburuan murrizteko ahaleginak egin behar dira, besteak beste.

Baimen egokien bitartez hondakin-urak ongi kudeatzen aurrera jarraitu behar da, eta saneamendu- eta arazketa-azpiegiturarekin bat datozen hirigintza-aurreikuspenak egin beharra azpimarratu behar da, hondakin-uren isurketak lotutako euri-masaren egoera onarekin bateragarri egiteko.

se ha culminado la ejecución de la mayor parte de las infraestructuras básicas de saneamiento y depuración de aguas residuales urbanas, lo cual ha redundado en una notable mejoría en el estado de las masas de agua de muchas cuencas. Se ha de profundizar en las medidas relativas al control de alivios, abordar la problemática del saneamiento en núcleos menores y potenciar la reducción de la contaminación en origen, entre otros.

Es preciso continuar con la adecuada gestión de vertidos de aguas residuales a través de las autorizaciones pertinentes e incidir en la importancia de realizar previsiones urbanísticas que se correspondan con la existencia de infraestructura de saneamiento y depuración que permita que los vertidos de las aguas residuales sean acordes con el buen estado de la masa de agua relacionada.



Crispijana. Vitoria-Gasteiz

Ez dugu ahaztu behar Euskadin kontsumitutako uraren ia % 75 (bolumen horren zati bat ingurunera itzultzen da, araztu eta gero) biztanleriaren hornidurarako eta hiri-sareei lotutako beste erabilera batzuetarako erabiltzen dela. Ehuneko hori gorabehera, ur-zerbitzuaren prestazioak sekulako garrantzia dauka, ur-masen ingurumen-helburuak lortzeko funtsezko sektorea den heinean. Uraren hiri-zikloaren kudeaketa integrala bultzatzen jarraitu behar da batetik, eta ur-zerbitzuen lurralde-antolaketa optimizatzen, bestetik.

Ur-masen kalitateari dagokionez, oro har, EAEko azaleko ur-masek askoz ere presio handiagoa jasaten dute lurpekoek baino, eta hori haien egoeran islatzen da. Gaur egun, azaleko ur-masen % 52k ingurumen-

No hay que olvidar que casi el 75% del agua consumida en el País Vasco (volumen que parcialmente es posteriormente devuelto al medio tras su depuración) se destina al abastecimiento de la población y a otros usos conectados a las redes urbanas. Este porcentaje traslada a la prestación de los servicios del agua un peso enorme como sector clave en la consecución de los objetivos medioambientales de las masas de agua. Debe seguir impulsándose, por un lado, la gestión integral del ciclo urbano del agua y por otro, la optimización de la organización territorial de los servicios del agua.

Con relación a la calidad de masas de agua, en líneas generales las masas de aguas superficiales de la CAPV soportan una presión mucho mayor que las subterráneas, y esto tiene su reflejo en el estado de las

helburuak betetzen dituzte, eta lurpeko uren artean betetze-maila % 92 da. Hiri jatorriko iturri jakin batzuetan sortutako kutsadura da Euskadiko ur-masen kalitateari eragiten dion presio nagusia, baina beste zenbait kutsadura- edo aldaketa-iturri ere aipatu behar dira, lausoak adibidez, laborantza- edo industria-sektorearekin zerikusia dutenak, haien artean kokaleku kutsatzaileak esaterako. Laborantza-sektoreari dagokionez, presio hori handia da isurialde mediterraneoko eremu jakin batzuetan, non gune batzuk laborantza-jatorriko nitratoen kutsadurarekiko urrakor izendatu dituzten, baita isurialde kantauriarreko gune jakin batzuetan ere, non aziendak garapen handia duen.

mismas. En la actualidad, el 52% de las masas de agua superficiales cumplen los objetivos medioambientales, mientras que el grado de cumplimiento alcanza el 92% en las subterráneas. La principal presión que afecta a la calidad de las masas de agua del País Vasco es la contaminación originada por fuentes puntuales de origen urbano, pero es preciso citar también otras fuentes de contaminación o alteración, como las difusas, relacionadas bien con el sector agrario o industrial, tales como los emplazamientos contaminantes. En relación con el sector agrario, esta presión es importante en algunas áreas de la vertiente mediterránea, en donde hay varias zonas designadas vulnerables a la contaminación por nitratos de origen agrario, y en algunas zonas concretas de la vertiente cantábrica en las cuales la cabaña ganadera tiene un importante desarrollo.

1997ko LAGen aldean nabarmentzekoa da urari lotutako eremu babestuen zenbait kategoria ezarri direla,, bakoitzak bere babes-helburu espezifikoak, arau-oinarria eta dagozkion eskakizunak dauzkala izendatzeko, mugatzeko, jarraipena egiteko eta informazioa emateko orduan. Gainera, demarkazio hidrografiko bakoitzak bere Eremu Babestuen Erregistroa ezartzeko eta eguneratuta edukitzeko betebeharra dauka. Azaleko edo lurpeko uren babesari buruzko edo zuzenean uraren mendean dauden espezieen edo habitaten kontserbazioari buruzko Europako Erkidegoko arau espezifiko bati jarraikiz babes bereziko eremu deklaratu diren eremu guztiak bildu dira erregistro horretan. Eremu Babestuen Erregistroan honako kategoria hauek bereizten dira:

Una cuestión novedosa respecto a las DOT de 1997 es el establecimiento de una serie de diferentes categorías de zonas protegidas relacionadas con el agua, cada una con sus objetivos específicos de protección, su base normativa y las exigencias correspondientes a la hora de designación, delimitación, seguimiento y suministro de información. Además, cada demarcación hidrográfica tiene la obligación de establecer y mantener actualizado su Registro de Zonas Protegidas (RZP). Dicho registro incluye todas aquellas zonas que hayan sido declaradas objeto de protección especial en virtud de una norma comunitaria específica relativa a la protección de las aguas superficiales o subterráneas o a la conservación de los hábitats o las especies que dependen directamente del agua. En el Registro de Zonas Protegidas se diferencian las siguientes categorías:

- Hiri-hornidurarako ura biltzeko eremuak.
- Zonas de captación de agua para abastecimiento urbano.
- Etorkizunean hiri-hornidurarako ura biltzeko eremuak.
- Zonas de futura captación de agua para abastecimiento urbano.
- Ekonomiaren aldetik esanguratsuak diren uretako espezieen babeserako eremu deklaratu diren eremuak.
- Zonas declaradas de protección de especies acuáticas significativas desde el punto de vista económico.
- Jolas-erabilerarako deklaratu diren ur-masak.
- Masas de agua declaradas de uso recreativo.
- Urak nekazaritzatik eratorritako nitratoek sortutako kutsaduratik babesteari buruzko arauak aplikatuz urrakor deklaratu diren eremuak.
- Zonas declaradas vulnerables en aplicación de las normas sobre protección de las aguas contra la contaminación producida por nitratos procedentes de fuentes agrarias.
- Hiriko hondakin-urak tratatzeko arauak aplikatuz, sentikor deklaratu diren eremuak.
- Zonas declaradas sensibles en aplicación de las normas sobre tratamiento de aguas residuales urbanas.
- Habitatak edo espezieak babesteko eremu deklaratu diren eremuak, non uraren egoera mantendu edo hobetzea haiek babesteko faktore garrantzitsua den.
- Zonas declaradas de protección de hábitat o especies en las que el mantenimiento o mejora del estado del agua constituya un factor importante para su protección.
- Ur mineral eta termalen babes-perimetroak.
- Perímetros de protección de aguas minerales y termales.
- Erreserba hidrologikoak
- Reservas hidrológicas.
- Hezeguneak.
- Zonas húmedas.
- Babes bereziko eremuak, hau da, batetik natura-
- Zonas de protección especial que incluyen, por un lado,

edo ingurumen-aldetik interesa duten ibai-tarteak, eta, bestetik, aurreko ataletan bildu ez diren bestelako babes-figura batzuk. Bigarren tipologia horretan honako gune hauek biltzen dira: Parke Naturalak, Biotopoak, Urdaibaiko Biosferaren Erreserba, Txingudiko Plan Berezia, Euskal Kostaldeko Geoparkea eta espezie mehatxatuen interes bereziko eremuak.

Euskadin ur-hornidurako 953 gunek Uraren Esparru Zuzentarauak ezarritako irizpideak betetzen dituzte eta beraz, hiri-hornidurarako ura biltzeko eremuak direla esan dezakegu. Hornidura-guneen % 70ek lurpeko urak biltzen dituzte eta % 30ek azaleko urak, hurrenez hurren. Hornidurako urtegi nagusiak dira garrantzitsuenak. Haien garrantzia dela-eta, beharrezkotzat jotzen da hirigintza-plangintzak ur-bilketa horiek biltzea, haiek babesteko araubidea ezartzea.

Lurzorua funtsezko elementua da lurralde-iraunkortasunaren alorrean. Izan ere, asko dira lurzoruaren eta haren kontserbazio-egoeraren mendean daudenak: uraren, airearen edo beste ingurune batzuen kalitatea; klima-aldaketa, biodibertsitate-galera, uholdeak edo beste ingurumen-problematika batzuk arintzea; eta giza bizitzaren kalitatea ere, lurzoruaren ekosistemen zerbitzuak kontserbatuz berma daitekeena.

b. *El suelo como recurso*

El suelo es un elemento central de la sostenibilidad territorial, ya que del suelo y de su grado de conservación dependen la calidad de otros medios, como el agua o el aire, la mitigación de otras problemáticas ambientales, como, por ejemplo, el cambio climático, la pérdida de biodiversidad o las inundaciones, e incluso la calidad de vida humana, a través de la conservación de los servicios de los ecosistemas del suelo.

Lurzorua funtsezko elementua da lurralde-iraunkortasunaren alorrean.

El suelo es un elemento central de la sostenibilidad territorial.

I.
GAIA ZERTAN DEN

Lurzoru kutsatuen politika asko garatu da estrategiari, plangintzari, metodologiari eta lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko legeriari dagokienez. Lurzorua baliabide gisa eraginkortasunez kudeatzea, lurzoruaren erabilera iraunkorra, ekosistemen zerbitzuak babestu eta mantentzea, lurzoruaren erabilera zirkularra edo naturan oinarritutako soluzioen aplikazioa funtsezko baldintzak dira, 2050. urterako lurzoruaren degradazioa zero izateko azken helburua lortzeko.

Lurzorua babesteko eremu partikular horretan jardun beharrak arazo jakin batean du abiapuntua, 90eko hamarkadan garrantzitsua zirudien arren orain askoz neurri handiagoan zehaztu daitekeena. 2016an, Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak eta instalazioak kokatutako EAEko tokien Inbentarioan

I.
ESTADO DE LA CUESTIÓN

La política de suelos contaminados ha experimentado un importante desarrollo a nivel de estrategia, planificación, metodología y legislación en materia de prevención y corrección de la contaminación del suelo. La gestión eficiente del suelo como recurso, el uso sostenible del suelo, la protección y mantenimiento de los servicios de los ecosistemas, el uso circular del suelo o la aplicación de soluciones basadas en la naturaleza suponen condiciones clave para la consecución del objetivo final de una degradación neta cero del suelo para el año 2050.

La necesidad de actuación en este ámbito particular de la protección del suelo surge de la existencia de una problemática que, si bien en los años 90 se intuía como relevante, queda ahora cuantificada con un alto grado de precisión. En 2016, el Inventario de emplazamientos con actividades e instalaciones

urzoru kutsatuen politika asko garatu da estrategiari, plangintzari, metodologiari eta lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko legeriari dagokienez.

La política de suelos contaminados ha experimentado un importante desarrollo a nivel de estrategia, planificación, metodología y legislación en materia de prevención y corrección de la contaminación del suelo.



	EAE/CAPV	Bizkaia	Araba/Álava	Gipuzkoa
Industriala / Industrial	6.811	3.729	1.601	1.481
Zabortegia / Vertedero	2.627	1.402	429	796

1. irudia. Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak eta instalazioak kokatutako tokien inbentarioaren araberako azalera

Figura 1. Superficie resultante del Inventario de emplazamientos con actividades e instalaciones potencialmente contaminantes del suelo.

12.412 lurzati bildu dira, 9.438 Ha-ko azalera guztira, non lurzoruaren kalitatea kaltetuta egon litekeen kutsatzaileen presentziaren eraginez. Termino erlatibotan, arrazoi horrengatik EAEko azalera osoaren % 1,3k eta azalera erabilgarriaren % 19,7k tratamendu bereziak behar dituzte giza osasuna eta ekosistemen funtzionamendua babesteko.

potencialmente contaminantes del suelo de la CAPV, incluye 12.412 parcelas que ocupan un total de 9.438 Ha susceptibles de haber visto afectada la calidad de su suelo por la presencia de contaminantes. En términos relativos, el 1,3 % de la superficie total de la CAPV y el 19,7 % de la superficie útil requieren de consideraciones especiales para la protección de la salud humana y el funcionamiento de los ecosistemas debido a esta circunstancia.

Arazoaren tamaina kuantifikatzeak aukera eman du EAEren egoera espezifikora egokitutako tresnak diseinatzeko. Industria-jatorriko lurzoruaren kutsadura da Euskadin ingurune horri eragiten dion lehen mehatxua eta mehatxu nagusia, eta gaur egun ere lurzorua babesteko politikaren erdigunean dago.

La cuantificación de la magnitud del problema ha permitido diseñar instrumentos ajustados a la situación específica de la CAPV. La contaminación del suelo de origen industrial, la primera y aparentemente principal amenaza a este medio detectada en el País Vasco, continúa hoy en día siendo el centro de la política de protección del suelo.

Alabaina, Europan joera naturala kutsaduraren aurkako borroka izan bada ere, fenomeno horrek bereziki kaltetutako eremu geografikoen artifizializazioaz gainera, azken urteetan aurrerapen handiak egin dira lurzorua babesteko kontzeptu orokorrean. Lurzorua funtsezko elementu bihurtzen ari da ingurumenaren alorrean. Izan ere, asko dira lurzoruaren eta haren kontserbazio-egoeraren mendean daudenak: ura, airea edo beste ingurune batzuen kalitatea; klima-aldaketa, biodibertsitate-galera, uholdeak edo beste ingurumen-problematika batzuk arintzea; eta giza bizitzaren kalitatea ere, lurraren ekosistemen zerbitzuak kontserbatuz berma daitekeena.

Sin embargo, si bien la tendencia natural a nivel europeo ha sido la lucha contra la contaminación, junto contra la artificialización en áreas geográficas especialmente afectadas por este fenómeno, en los últimos años se han producido avances relevantes en el concepto general de protección del suelo. El suelo se está convirtiendo en uno de los elementos centrales del medio ambiente, ya que del suelo y su grado de conservación dependen la calidad de otros medios, como el agua o el aire, la mitigación de otras problemáticas ambientales, como, por ejemplo, el cambio climático, la pérdida de biodiversidad o las inundaciones, e incluso la calidad de vida humana, a través de la conservación de los servicios de los ecosistemas del suelo.

Hala, Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen Lurzoruen Mundu Gutunak (2015) honela dio: "Lurzoruak funtsezkoak dira Lurraren bizitzarako, baina lurren baliabideen gaineko presioak muga kritikoetara iristen ari dira. Lurzorua kontu handiz kudeatzea funtsezkoa da nekazaritza iraunkorrarentzat, eta balio handiko baliabidea ere bada klima arautzeko eta zerbitzu ekosistemikoak eta biodibertsitatea babesteko."

Así, la Carta Mundial de los Suelos (2015) de la Organización de las Naciones Unidas para la Agricultura y la Alimentación declara que "Los suelos son fundamentales para la vida en la Tierra, pero las presiones sobre los recursos de suelos están alcanzando límites críticos. Una gestión cuidadosa del suelo constituye un factor esencial de la agricultura sostenible y proporciona también un resorte valioso para regular el clima y un camino para salvaguardar los servicios ecosistémicos y la biodiversidad."

Lurzoruaren gainean mehatxu desberdinak (kutsadura, artifizializazioa edo zigilatzea, higadura, basamortutzeak, biodibertsitate-galera eta abar) pilatzeak, ingurune horrek zerbitzu ekosistemiko izugarri baliodunen (elikagaien eta bestelako biomasen produkzioa, uren arazketa, karbono-bahiketa, besteak beste) horniduran betetzen duen zereginak, hura kapital naturaltzat jotzen denaren barruan sartzeak eta lurzoruak erabilera antropiko eta naturalen euskarri gisa duen zereginak baldintzatu dute lurzoruaren babesa askotariko legeria eta estrategietan txertatzea.

La confluencia sobre el suelo de amenazas de diferente naturaleza (contaminación, artificialización o sellado, erosión, desertizaciones, pérdida de biodiversidad, etc.), el papel de este medio en la provisión de servicios ecosistémicos de valor incalculable (producción de alimentos y otros tipos de biomasa, depuración de las aguas, secuestro de carbono, entre otros), su inclusión dentro de lo que se considera el capital natural y el papel del suelo como soporte de los usos antrópicos y naturales, ha conducido a la incorporación de la protección del suelo en legislaciones y estrategias muy diversas.

Lurzoruaren degradazio garbia zero izateko helbururantz aurrera egitea proposatzen da, lurraldea berrerabiliz eta birziklatuz eta ekonomia zirkularra sustatuz.

Se propone avanzar hacia el objetivo de degradación neta cero del suelo a través de la reutilización y el reciclaje del territorio, y la promoción de la economía circular.

Hortaz, lurzoruaren degradazio garbia zero izateko helbururantz aurrera egitea proposatzen da, lurraldea berrerabiliz eta birziklatuz eta ekonomia zirkularra sustatuz, horretarako eraikuntza-proiektuen premien ondorioz hondeatutako lurzoruak berrerabiliz.

En consecuencia, se propone avanzar hacia el objetivo de degradación neta cero del suelo a través de la reutilización y el reciclaje del territorio y la promoción de la economía circular por la reutilización de los suelos excavados como consecuencia de las necesidades de los proyectos constructivos.

Azpimarratzekoa da, halaber, lurzoruaren erabilerak antolatzeko prozesuen hasiera une ezin hobea dela, beste edozein jarduni ekin aurretik, lurzoruaren kalitatea balioesteari eta saneamenduari ekiteko, azken kasu horretan beharrezkotzat jotzen bada, pertsonen osasunari eta ingurumenari kalterik ez egiteko helburu nagusiarekin.

Cabe señalar, además, que el inicio de los procesos de ordenación de los usos del suelo constituye el momento óptimo para proceder, previamente a cualquier otra actuación, a la valoración de la calidad del suelo y al saneamiento, en caso de que se considere necesario, con el objetivo principal de evitar la afección a la salud de las personas y al medio ambiente.

II.
HELBURUAK

Ekonomia zirkularraren alorrean, zehazkiago lurzorua baliabide gisa kudeatzearen alorrean, honako helburu hauek proposatzen dira lurralde-eredua berrikusteko:

1. Ekonomia zirkularraren estrategia lurralde- eta hirigintza-plangintzan integratzea, eskuragarri dagoen lurzoruaren erabilera administratuz ondasun urria dela, eta beraz, haren erabilera eta garapena optimizatu beharra dagoela kontuan hartuta.

2. "Lurzoruaren degradazio garbia zero izateko" helburua bete dadin sustatzea.

3. Dagoeneko antropizatu diren lurzoruen berrerabilera sustatzea lurzoru birjinen mesedetan, eta ekonomia zirkularraren printzipioak aplikatuz.

4. Lurzoruaren kalitatea zaintzea, elikagaien, uraren eta energia-segurtasunaren premia orokorrak betetzeko oinarrizko baliabidea den heinean.

5. Lurzoruek ematen dituzten laguntzako, hornidurako, erregulazioko eta laborantzako zerbitzuak mantentzea edo hobetzea, zerbitzu horiek ahalbidetzen dituzten lurzoruaren eginkizunetan eta biodibertsitatean nabarmen eragin gabe. Landare-produkziorako laguntza- eta hornidura-zerbitzuen eta lurzoruak uraren kalitaterako eta eskuragarritasunerako eta berotegi-efektuko atmosfera-gasak osatzeko ematen dituen zerbitzu erregulatzaileen arteko oreka bilatzea.

6. Lurzoruaren biodibertsitatea mantentzea, lurzoruekin lotutako ondasun eta zerbitzu ekosistemikoak babesteko.

7. Oinarrizko eginkizunen berrezarpena eta degradatu diren lurzoruen zerbitzu ekosistemetarako ekarpena sustatzea, birgaitze-teknika egokiak aplikatuz.

II.
OBJETIVOS

Los objetivos que se proponen para la revisión del modelo territorial en materia de economía circular, concretamente, de gestión del suelo como recurso son:

1. Integrar en la planificación territorial y urbanística la estrategia de la economía circular, administrando el uso suelo disponible en función de su valoración como un bien escaso, cuyo uso y desarrollo es preciso optimizar.

2. Promover la consecución del objetivo de "degradación neta cero del suelo".

3. Fomentar la reutilización de suelos ya antropizados en beneficio de los suelos vírgenes y en aplicación de los principios de la economía circular.

4. Velar por la calidad del suelo como recurso esencial para satisfacer las necesidades globales de alimentos, agua y seguridad energética.

5. Mantener o mejorar los servicios de apoyo, suministro, regulación y cultivo que proporcionan los suelos, sin afectar significativamente a las funciones del suelo que hacen posibles esos servicios ni a la biodiversidad. Buscar el equilibrio entre los servicios de apoyo y suministro para la producción vegetal y los servicios reguladores que el suelo proporciona para la calidad y disponibilidad del agua y para la composición de los gases atmosféricos de efecto invernadero.

6. Mantener la biodiversidad del suelo a fin de salvaguardar los bienes y servicios ecosistémicos asociados con los suelos.

7. Promover el restablecimiento de las funciones básicas y la contribución a los servicios ecosistémicos de los suelos que han experimentado una degradación, aplicando las técnicas apropiadas de rehabilitación.

III.
LURRALDE-GIDALERROAK

Ekonomia zirkularraren eta lurzorua Baliabide gisa hartzearen arloan proposatzen diren lurralde-gidalerroak Aplikatzeko arauen 18. artikuluan jasotzen dira.

III.
DIRECTRICES TERRITORIALES

Las directrices territoriales que se proponen en materia de economía circular, el suelo como recurso son las contenidas en el artículo 18 de las Normas de Aplicación.

9

Mugikortasuna eta Logistika

Movilidad y Logística

Mugikortasun multimodala	**9.1.**	Movilidad multimodal
Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna	**9.2.**	Movilidad peatonal y ciclista
Bide-mugikortasuna	**9.3.**	Movilidad viaria
Tren-, portu- eta aireportu-arloko mugikortasuna eta logistika	**9.4.**	Movilidad y Logística ferroviaria, portuaria y aeroportuaria

LAGek barne- eta kanpo-konexioko harreman eta azpiegituren sistema bat ezarri zuten, azken urteetan garatu dena. Horren guztiaren ondorioz, garraio eta komunikazioen azpiegitura eta zerbitzuak nabarmen hobetu dira.

Las DOT establecieron un sistema de relaciones e infraestructuras de conexión interna y con el exterior que se ha ido desarrollando durante los últimos años; como resultado de ello se ha asistido a una importante mejora en las infraestructuras y servicios de transporte y comunicaciones.

LAGek barne- eta kanpo-konexioko harreman eta azpiegituren sistema bat ezarri zuten, azken urteetan apurka garatu dena Lurralde Plan Partzial eta Sektorialen bitartez eta proiektu espezifikoen bitartez. Horren guztiaren ondorioz, garraio eta komunikazioen azpiegitura eta zerbitzuak nabarmen hobetu dira. Garraio-eskariak gero eta handiagoak dira, eta, hortaz, kanpo-konektibitatearen hobekuntza eta barne-konexioen efizientzia handia ezinbesteko baldintza dira lehiakortasunerako eta bizi-kalitaterako

Urte hauetan funtsezko diziplina-aldaketak gertatu dira alor horretan. Lehen garraio- eta komunikazio-sistemak hartzen ziren hizpide; gaur egun, ordea, mugikortasunaz eta logistikaz, eta zehazkiago, mugikortasun eta logistika iraunkorrez hitz egiten da. Izan ere, mugikortasun iraunkorrak aukera ematen du joan-etorriek dakarten kostu eta ondorio negatiboak murrizteko, eta hainbat alorretan eragiten du: motorizatu gabeko mugikortasunak eta garraio kolektiboko sistemek (funtsean behartutako mugikortasun-bidaietan) duten garrantzian; joan-etorrien irisgarritasun, segurtasun eta erosotasunean; intermodalitatean; eta joan-etorrien premiak modu iraunkorrenak erabiliz betetzeko gauza diren hiri-garapeneko prozesuak lortzean.

Las DOT establecieron un sistema de relaciones e infraestructuras de conexión interna y con el exterior que se ha ido desarrollando durante los últimos años a través de los Planes Territoriales Parciales y Sectoriales, así como de proyectos específicos. Como resultado de ello se ha asistido a una importante mejora en las infraestructuras y servicios de transporte y comunicaciones. La demanda de transporte es cada vez mayor con lo que la mejora de la conectividad exterior y la alta eficiencia en las conexiones interiores, se convierten en requisitos imprescindibles para la competitividad y la calidad de vida.

A lo largo de estos años se han producido cambios fundamentales de tipo disciplinar en esta materia. Antes se hablaba de sistemas de transporte y comunicaciones y ahora se habla de movilidad y logística, en concreto, de movilidad y logística sostenibles. De hecho la movilidad sostenible es aquella que permite reducir los costes y los efectos negativos que conllevan los desplazamientos; incide tanto en la importancia de la movilidad no motorizada y de los sistemas de transporte colectivo (fundamentalmente en los viajes de movilidad obligada), como en la accesibilidad, seguridad y comodidad de los desplazamientos; en la intermodalidad y en lograr procesos de desarrollo urbano que resuelvan las necesidades de desplazamientos con los modos considerados más sostenibles.



Mugikortasun iraunkorrari buruz, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak Euskadiko Garraio Iraunkorraren 2030 Gida Plana bultzatu du. Plan horrek, aurreko 2002-2012 epealdiko planaren jarraipen gisa, Garraio Iraunkorrerako Europako Batzordearen 2011-2050 ibilbideari jarraitzen dio. Ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-iraunkortasunaren bidean aurrera egiteko konpromisoan oinarritzen da. Euskadiko gizartea kohesionatzen eta gizartea eta ekonomia garatzen laguntzeko garraio eredu iraunkorra lortzea da helburua. Sei helburu ditu oinarri: Garapen ekonomiko iraunkorra, zentzuzkoa eta arduratsua bultzatzea; Irisgarritasun unibertsal eta iraunkorra lortzea, lurraldearen plangintza egokiarekin batera; Garraio moduen arteko bestelako oreka bat bultzatzea; Euskadiren kokaleku estrategikoa indartzea Europan; Garraio sistemen erabilera eraginkor eta arduratsua sustatzea eta Garraio publiko integratuko sistema garatzea.

Logistika iraunkorrak, berriz, garraiobideen erabilera efizientea sustatzen du, eta logistika-azpiegituren (portuak, aireportuak, trenbideak, errepideak logistika-jardueretarako lurzorua) arteko interakziotik sortzen da, baita eskariari erantzuteko beharrezkoak diren salgaietarako zerbitzuen baturatik ere. Hala, logistika iraunkorrak honako hauek biltzen ditu: garraiobideen arteko sinergiak, portuak edo aireportuak plataforma intermodal gisa, trenbidea indartzea salgaiak garraiatzeko bitarteko gisa, eta logistika-plataformak egokitzea, salgaiak eraginkortasunez banatzeko.

En relación a la movilidad sostenible el Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno Vasco ha impulsado el Plan Director de Transporte Sostenible de Euskadi 2030, que en continuidad con el anterior 2002-2012, sigue la ruta de la Comisión Europea del Transporte Sostenible 2011-2050. Está basado en el compromiso de avanzar en el camino de la sostenibilidad económica, social y medioambiental. El fin es conseguir un modelo de transporte sostenible e integrado como instrumento de cohesión social y de desarrollo socioeconómico de Euskadi. Se basa en seis objetivos: fomentar un desarrollo económico sostenible, inteligente y responsable; promover una accesibilidad universal en correspondencia con una planificación territorial adecuada; Impulsar un nuevo equilibrio de los modos de transporte; potenciar la posición estratégica de Euskadi en Europa; fomentar un uso eficiente y responsable del transporte y desarrollar un sistema de transporte público integrado.

Por su parte, la logística sostenible promueve el uso eficiente de los distintos modos de transporte, y surge de la interacción entre las infraestructuras logísticas, (puertos, aeropuertos, vías férreas, carreteras, suelo para actividades logísticas) y la suma de los servicios a las mercancías que son necesarios para atender a la demanda. Así, la logística sostenible comprende las sinergias entre los distintos modos de transporte, los puertos o aeropuertos como plataformas intermodales, la potenciación del ferrocarril como medio para el transporte de mercancías y la adecuación de plataformas logísticas para una distribución eficaz de mercancías.

Euskadiko Garraio Iraunkorraren 2030 Gida Planak, Euskadiko gizartea kohesionatzen eta gizartea eta ekonomia garatzen laguntzeko garraio eredu iraunkor eta integratua lortzea du helburu.

El Plan Director de Transporte Sostenible de Euskadi 2030 busca conseguir un modelo de transporte sostenible e integrado como instrumento de cohesión social y de desarrollo socio-económico de Euskadi.

Bilbaoko portua / Puerto de Bilbao



Aurreko ikuspegien aldean, mugikortasun iraunkorrak hurbiltasunari eta irisgarritasunari lehentasuna ematen die mugikortasunaren eta garraioaren aldean, hiri trinkoagoetan oinarritutako eredu baten alde eginez, non hiri barruan lekualdatzeak laburragoak eta autonomoak izango diren, motorizatu gabeko mugikortasunaren eta garraio kolektiboaren alde eginez, energia-, ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-alorrean efizienteagoa delako ibilgailu pribatua baino, eta hiriguneari tratamendu berria emanez, hau da, protagonismoa oinezkoen esku utziz.

Familia mota bakoitzerako mugikortasun espezifikoak ez du gora egin azken 25 urteetan. Alabaina, haren bilakaera ikusirik esan dezakegu modu-aldaketa esanguratsua gertatu dela, automobilaren mesedetan, eta bizileku-udalerriaz kanpoko bidaia kopurua gora doala. Hortaz,bideetako ibilgailu kopuruak gora egiten du urtetik urtera, batetik, automobila gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari delako mugikortasunaren alorrean, eta, bestetik, joan-etorrien erradioak ere gora egin duelako. Gorakada hori gertatu da, halaber, udalerrien arteko lan-mugikortasuna gora eta gora ari delako, hau da, gero eta gehiago dira udalerri batean bizi eta beste batean lan egiten duten pertsonak, enpleguaren suburbanizazioa gertatu da nolabait. Gainera, garraiotik kanpoko beste zenbait faktorek (etxebizitzaren prezioa, familia-unitate bakoitzeko langile kopurua eta abar) prozesu hori areagotzen dute. Ildo horretan, onartzekoa da bide-azpiegituren etengabeko hobekuntzak lurraldea egituratzeko aukera eman duela, baina baita ibilgailu pribatuan egindako bidaien tarteak handitzeko aukera ere.

Frente a enfoques anteriores, la movilidad sostenible prioriza la proximidad y la accesibilidad sobre la movilidad y el transporte, propugnando un modelo de ciudades más compactas, en el que los desplazamientos en ellas resulten más cortos y autónomos, discriminando positivamente la movilidad no motorizada y el transporte colectivo, de mayor eficiencia energética, ambiental, social y económica respecto al vehículo privado, y dando un nuevo tratamiento al espacio urbano donde el peatón sea el protagonista.

La movilidad específica para cada tipo de familia no ha aumentado en los últimos 25 años. Su evolución muestra sin embargo un importante trasvase modal a favor del automóvil y una proporción creciente de viajes fuera del municipio de residencia. De ahí que el aumento anual de los aforos viarios se interprete en base tanto al creciente protagonismo de la movilidad en automóvil como al aumento del radio de desplazamiento. Este aumento se atribuye a su vez al crecimiento sostenido de la movilidad laboral de tipo intermunicipal, es decir, personas residentes de un municipio que trabajan en otro distinto, lo que ha producido una suburbanización del empleo. Además, otros factores exógenos al transporte (precio de la vivienda, número de trabajadores por unidad familiar, etc.) agravan dicho proceso. En este sentido hay que reconocer que la constante mejora en las infraestructuras viarias ha permitido vertebrar el territorio, pero también aumentar las distancias de viaje en vehículo privado.



Eusko Jaurlaritzaren Mugikortasun Inkestaren emaitzetan ikus dezakegunez, garraio-moduen banaketa oso desberdina da ingurune geografikoen arabera. Azpimarratzekoa da trenbide modu berriak zerbitzumaila egoki batekin abian jartzeak automobilarekiko irisgarritasun-etena murrizteko aukera ematen duela. Horrek mugikortasunean duen inpaktua argi eta garbi ikus daiteke gure hiriburuetako modu-banaketa konparatzean. Bilbaok trenbide-eskaintza handiagoa dauka Donostiak eta Vitoria-Gasteizek baino, eta ibilgailu pribatua gutxiago erabiltzen da Bilbaon Donostian eta Vitoria-Gasteizen baino.

En los resultados de la Encuesta de Movilidad del Gobierno Vasco se aprecia cómo el reparto modal es muy diferente según los entornos geográficos. Cabe señalar que la puesta en servicio de nuevos modos ferroviarios con un adecuado nivel de servicio permite disminuir la brecha de accesibilidad con el automóvil. Su impacto en la movilidad se evidencia claramente al comparar la distribución modal de nuestras capitales. Bilbao, con una mayor oferta ferroviaria, posee una menor utilización del vehículo privado comparado con San Sebastián o Vitoria-Gasteiz, ambas con una menor oferta ferroviaria.

Nazioartean, eta UITPren (Garraio Publikoaren Nazioarteko Elkartea) txostenak iturri hartuta, garraio iraunkorraren arloan gure mugikortasuna postu lehiakor batean dago Mendebaldeko Europan. Eta hori hala da bizitegi-dentsitate handiagoa motorizatu gabeko moduen eta garraio publikoaren mesedetan doalako.

En una escala internacional, y tomando como fuente los informes de la UITP, (Asociación Internacional de Transporte Público) nuestra movilidad en transporte sostenible se encuentra en un puesto competitivo dentro de la Europa Occidental. Esta situación se debe a que la mayor densidad residencial permite un mayor protagonismo de los modos no motorizados y del transporte público.

Honako hauek ere egiaztatu dira: EAEn, trenbide-sistema berrietara jo duten bidaiarietako asko autobus-zerbitzuen eta beste trenbide modu batzuen erabileratik datoz; 2000. urteaz geroztik, garraio publikoaren bidaiari kopuruari eutsi egin zaio, gutxi gorabehera; eta, aitzitik, ibilgailu pribatuan egindako bidaia kopuruak gora egin du; garraio publikoan egindako bidaien barruan, bereziki hiri eta metropoli moduetako bidaiek egin dute gora, eta hiriartekoek, aldiz, behera, hiri-bilbearen barruan ibilgailu pribatuak garraio publikoari ateratzen dion abantaila lehiakorra txikiagoa delako hiriarteko bidaietan baino.

Además se constata, que en la CAPV gran parte de las personas viajeras captadas por los nuevos sistemas ferroviarios como el metro o el tranvía provienen de la utilización de servicios de autobús y de otros modos ferroviarios; que desde el año 2000 el total de personas viajeras de transporte público permanece más o menos constante a la vez que crece el número de viajes realizados en vehículo privado; y que dentro de los viajes en transporte público, aumentan los viajes especialmente en los modos urbanos/metropolitanos mientras que bajan los interurbanos, ya que dentro de la trama urbana la ventaja competitiva del vehículo privado respecto al transporte público no es tan grande como en los viajes interurbanos.

Halaber, egiaztatu da pertsonen mugikortasun-ereduak desberdinak direla haien genero-rolen arabera. Estatistikari jarraikiz, emakumeak dira garraio publikoaren erabiltzaile nagusiak; bidaia gehiago egiten dituzte beste pertsona batzuk zaindu behar dituztelako, etxeko lanak egiteko bidaiatu behar dutelako edo antzeko arrazoiak direla medio; bidaia gehiago lotzen dituzte; eta ibilgailu pribatua erabiltzeko aukera gutxiago dauzkate. Horregatik genero-ikuspegiari eta zaintzaren mugikortasunari arreta berezia eskaini behar zaie, mugikortasun iraunkorraren eremuan.

También se ha constatado que los patrones de movilidad de las personas difieren en función de sus roles de género, que estadísticamente son asumidos por hombres y mujeres de tal manera que las mujeres son las principales usuarias del transporte público, hacen más viajes por motivos de cuidado a otras personas y de mantenimiento del hogar o motivos domésticos, encadenan más viajes y tienen menor acceso al vehículo privado. De ahí que se requiera dedicar una especial atención a la perspectiva de género y a la movilidad del cuidado en el ámbito de la movilidad sostenible.

Pertsonen mugikortasun-ereduak desberdinak dira haien genero-rolen arabera.

Los patrones de movilidad de las personas difieren en función de sus roles de género.

Mugikortasun-alorrean, lurralde- eta sektore-ekimenetarako helburu nagusia mugikortasun iraunkorreko sistemak orokortzea da, jarduera ekonomikoen lehiakortasunerako eta lurraldearen kohesio eta orekarako faktore kritikoak diren heinean, eta nagusiki, honako hauek dira:

Los objetivos en materia de movilidad para las iniciativas territoriales y sectoriales se centran en la generalización de los sistemas de movilidad sostenible como factores críticos para la competitividad de las actividades económicas y para la cohesión y el equilibrio del territorio y, principalmente, consisten en:

1. EAEko pertsona eta salgaien kanpo- eta barne-konexioko elementuak indartzea, bizi-kalitaterako, lehiakortasunerako eta berrikuntzarako faktore kritikoa den heinean.

1. Potenciar los elementos de conexión exterior e interior de personas y mercancías de la CAPV como factor crítico para la calidad de vida, la competitividad y la innovación.

2. Mugikortasun-premiak murriztea, bizitzeko, lan egiteko, zaintzeko, aisiako eta ekipamenduetako guneen artean erlazio egokiago bat ezarriz.

2. Reducir las necesidades de movilidad mediante una relación más adecuada entre espacios de residencia, trabajo, cuidado, ocio y equipamientos.



3. Motorizatu gabeko mugikortasuna –oinezkoak eta bizikletak– eta garraio publiko multimodala eta energetikoki eraginkorra sustatzea, hiriguneen mugikortasun modu nagusia den heinean, CO2 emisioak murrizteko eta zaintzaren mugikortasuna kontuan hartzeko moduan.

4. Dentsitate egokia lortzea, garraio publikoaren zeregina errazteko, bereziki trenbidea ahalmen handiko garraio gisa duten ardatzetan.

5. Ekobulebarrak garatzea, garraio kolektiborako eta oinezko eta bizikletentzako erreserbatutako plataformekin, hiri-pieza desberdinak artikulatzeko eta zentralitateko gune eta garapen berriak kokatzeko.

6. Mugikortasun-azpiegituren lurralde-iragazkortasuna handitzea, ahal dela lurraldearen gainean duten hesi-efektua minimizatuz.

Mugikortasun iraunkorraren alorrean Lurralde Antolamenduaren Gidalerroei buruzko berrikuspena mugikortasun multimodalaren inguruan zabaltzen da, honako hauek aintzat hartuta: motorizatu gabea edo oinezkoak eta bizikletak; bide-mugikortasuna; trenbide-, portu- eta aireportu-mugikortasuna; eta eredu logistikoa.

3. Promover la movilidad no motorizada -peatonal y ciclista-, y el transporte público multimodal y energéticamente eficiente, como la principal forma de movilidad de las áreas urbanas, que permita reducir las emisiones de CO2 y que tenga en cuenta la movilidad del cuidado.

4. Lograr una densidad adecuada que facilite el papel del transporte público, especialmente en aquellos ejes en los que ya existe ferrocarril como transporte de alta capacidad.

5. Desarrollar ecobulevares, con plataformas reservadas para el transporte colectivo y para peatones y bicicletas, como estructuras para articular las diferentes piezas urbanas y localizar nuevos desarrollos y espacios de centralidad.

6. Aumentar la permeabilidad territorial de las infraestructuras de movilidad tratando de minimizar su efecto barrera sobre el territorio.

La revisión de las Directrices de Ordenación Territorial en materia de movilidad sostenible se despliega en torno a la movilidad multimodal, englobando la no motorizada o peatonal y ciclista, la movilidad viaria, la movilidad ferroviaria, portuaria y aeroportuaria, y el modelo logístico.

9.1. Mugikortasun multimodala

9.1. Movilidad multimodal

Garraio multimodal iraunkorra erronka da orain ere administrazioentzat. Eredu horrek lurralde osoaren irisgarritasuna eta zerbitzu publikoaren hobekuntza bilatzen ditu, hainbat moduren konbinazioen bidez.

El transporte multimodal sostenible sigue siendo un reto al que se enfrentan las administraciones en la búsqueda de la accesibilidad de todo el territorio y la mejora del servicio público mediante combinaciones de los diferentes modos.



Vitoria-Gasteiz

I. GAIA ZERTAN DEN

Orain arte egindako bideari jarraikiz, euskal administrazio publikoak ahalegin handia egiten ari dira garraio publikoaren erabilera garraiobide iraunkor gisa sustatzeko, eta hainbat baliabide bideratzen dituzte xede horretara. Garraiobideen erabilera optimoak lankidetzazko lan koordinatua eskatzen du, EAE osoari garraio-zerbitzu publikoa eskainiko diona, elkarren arteko eragiketak ahalbidetuko dituena, txartel bakarraz erabiltzeko modukoa; fisikoki zein ekonomikoki irisgarria; azkarra eta segurua erabiltzaile guztientzat.

Eusko Jaurlaritzak aldian-aldian egiten duen mugikortasunari buruzko inkesta (azken edizioa: 2016) aztertuz, ikusten da mugikortasunak gora egin duela. Azterketa horretan egiaztatu denez, gora egin du motorizatu gabeko (oinez eta bizikletaz) joan-etorrien kopuruak, eta horiek dira garraiobide nagusia (% 47,1 2016an, eta % 44,8 2011n). Autoak bigarren postuan jarraitzen du, eta aldaketa txikia

I. ESTADO DE LA CUESTIÓN

El fomento de la utilización del transporte público como medio de transporte sostenible sigue siendo una cuestión en el que las administraciones públicas vascas están realizando un importante esfuerzo y a la que destinan un considerable número de recursos. La utilización óptima de los distintos medios de transporte requiere de un trabajo coordinado y colaborativo, que revierta en un servicio público de transporte para el conjunto de la CAPV que sea interoperable, que se pueda utilizar con un billete único, que sea accesible tanto física como económicamente, rápido y seguro para todas las personas usuarias.

El análisis de la encuesta de movilidad que periódicamente realiza el Gobierno Vasco (última edición 2016) observa un incremento de la movilidad. Este análisis constata el incremento de los desplazamientos no motorizados (a pie y en bicicleta) siendo estos el principal modo de transporte (47,1% en 2016 frente 44,8% en 2011). El coche se mantiene en segundo lugar con poca variación respecto a

Eusko Jaurlaritzak aldian-aldian egiten duen mugikortasunari buruzko inkesta aztertuz, ikusten da gora egin duela motorizatu gabeko (oinez eta bizikletaz) joan-etorrien kopuruak, autoak bigarren postuan jarraitzen duela, eta garraio publiko kolektiboak jaitsiera izan duela.

La encuesta de movilidad que realiza el Gobierno Vasco constata el incremento de los desplazamientos no motorizados (a pie y en bicicleta); el coche se mantiene en segundo lugar y el transporte público colectivo ha sufrido un descenso.

izan du aurreko inkestekin alderatuta (% 36,4), eta garraio publiko kolektiboak, bide diferenteak barnean hartuta (hegazkina, trena, autobusa, eta abar) gutxi gorabehera 3 puntuko jaitsiera izan du 2011z geroztik; 2011n % 16,1, eta 2016an, aldiz, % 13,3.

Biztanleriaren egiturak aldaketak izan ditu, eta horien artean nabarmentzekoa da 2016 eta 2026 bitartean aurreikusita dagoen jaitsiera, % 3,9koa, eta biztanleriaren apurkako zahartzea, hazkunde demografiko naturala eta migrazio-hazkunde ezaugarri direla. Hori dela-eta, lehentasunezkoak dira garraio publikoan oinarritutako mugikortasun-politikak, irisgarritasuna eta gizarte eta ekonomia arloko iraunkortasuna hobetzea helburu dutenak, baina mugikortasun-erlazio berriak ere daudela kontuan hartuta.

Beste alde batetik, klima-aldaketaren aurkako borrokaren erronkari heldu nahi zaio, garraiobide garbiak erabiliz berotegi-efektuko gasen emisioa nabarmen mugatuko duen garraio publiko bat ezarriz. Halaber, erregai fosilen mendean dagoen ibilgailu-parkea ibilgailu elektrikoekin ordeztea sustatu nahi da, eta hala, gainera, eragin akustikoari ere on egin nahi zaio.

Kontuan hartu beharreko beste erronka bat mugikortasun multimodalean eta zaintzaren mugikortasunean genero-ikuspegia txertatzea da, garraio publikoa planifikatzen denean eta mugikortasun-estatistikak berrikusten direnean, joerak saihesteko eta zaintzaren zereginekin zerikusia duen mugikortasuna hobeto deskribatzeko.

Erakundeak eta garraiobideak koordinatzeko ikuspegi berritzaileak eskatzen ditu horrek guztiak. Ildo horretan, Euskadiko Garraio Agintaritzak funtsezko zeregina betetzen du erakundearteko koordinazio eta laguntzarako organoa den heinean. Era berean, Lurralde Plan Partzialen idazketaren markoan, Eremu Funtzionalaren lurralde-ereduaren definizioaren barruan eta horren funtsezko elementu gisa, mugikortasun multimodalaren eredua planteatu behar litzateke eremu funtzionalaren mailan.

encuestas anteriores (36,4 %) y el transporte público colectivo que incluye los diferentes medios (avión, tren, autobús, etc.) ha sufrido un descenso en torno a 3 puntos desde el 2011, situándolo en un 13,3% en 2016 frente al 16,1% de 2011.

Los cambios en la estructura poblacional, entre los que cabe destacar el descenso previsto del 3,9% entre 2016 y 2026 y el envejecimiento progresivo de la población, marcados por la disminución del crecimiento demográfico natural y migratorio, hacen que resulten prioritarias las políticas de movilidad basadas en el transporte público y orientadas a la mejora de la accesibilidad y sostenibilidad socioeconómica y medioambiental entendiendo también nuevas relaciones de movilidad.

Por otro lado, se plantea como un reto la lucha contra el cambio climático a través de la instauración tanto de un transporte público que limite sustancialmente la emisión de gases de efecto invernadero a través de la utilización de medios de transporte limpios, como de la promoción de la transformación del parque automovilístico dependiente de combustibles fósiles por el eléctrico, con una clara incidencia, además, en el impacto acústico.

Otro de los retos a tener en cuenta es la perspectiva de género en la movilidad multimodal y la movilidad del cuidado cuando se planifica el transporte público y cuando se revisan las estadísticas de movilidad, de cara a suprimir sesgos y describir mejor la movilidad vinculada a las tareas del cuidado.

Todo ello requiere de enfoques innovadores de coordinación institucional y de los distintos modos de transporte. En este sentido, la Autoridad del Transporte de Euskadi juega un papel fundamental en su calidad de órgano de coordinación y colaboración interinstitucional. Así mismo, en el marco de redacción de los Planes Territoriales Parciales, dentro de la definición del modelo territorial del Área Funcional y como elemento fundamental de éste, se debiera plantear el modelo de movilidad multimodal a nivel del área funcional.

II. HELBURUAK

Mugikortasun multimodalaren arloan, honako helburu hauek proposatzen dira lurralde-eredua berrikusteko:

1. Garraio publikoaren erabilera sustatzea, garraiosare irisgarri, praktiko, eroso, seguru eta fidagarri bitartez.

2. Garraio publiko osorako tarifa-integrazioko eta txartel bakarreko sistema sustatzea.

3. Berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten laguntzea garraiobide garbiak erabiliz.

II. OBJETIVOS

Los objetivos que se proponen para la revisión del modelo territorial en materia de movilidad multimodal son:

1. Fomentar la utilización del transporte público a través de una red de transporte accesible, práctica, cómoda, segura y fiable.

2. Promover el sistema de integración tarifaria y el billete único para todo el transporte público.

3. Contribuir a la reducción de emisión de gases de efecto invernadero a través de la utilización de medios de transporte limpios.

4. Genero-ikuspegia aplikatzea garraio publikoaren plangintzan eta kudeaketan, eta zaintzaren mugikortasunari behar bezala erantzutea.

III.
LURRALDE-GIDALERROAK

Mugikortasun multimodalaren alorrean lurralde-eredua berrikusteko proposatzen diren lurralde-gidalerroak Aplikatzeko arauen 25. artikuluan jasotzen dira.

4. Aplicar la perspectiva de género en la planificación y gestión del transporte público y atender debidamente la movilidad del cuidado.

III.
DIRECTRICES TERRITORIALES

Las directrices territoriales que se proponen para la revisión del modelo territorial en materia de la movilidad multimodal son las recogidas en el artículo 25 de las Normas de Aplicación.

9.2. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna

9.2. Movilidad peatonal y ciclista

Oinezkoen mugikortasuna da pertsonek hirian mugitzeko duten modu nagusia, eta ildo horretan, hiria egokitu behar da, hura segurtasun-baldintzetan eta modu erakargarrian gauzatzeko moduan. Bestalde, bizikletak garrantzia eta protagonismoa irabazi du pixkana-pixkana, batez ere toki mailan, beste garraio mota batzuekin alderatuta, garraiobide biguna baita, ingurumen-arloan iraunkorra, energetikoki eraginkorra eta gizarte-alorrean osasuntsu eta berdintasunezkoa.

La movilidad peatonal es la principal forma de movilidad de las personas en la ciudad, y en este sentido, ésta ha de adecuarse para que dicha movilidad pueda producirse en condiciones de seguridad y de una manera atractiva. Por otro lado, la bicicleta ha ido ganando terreno y protagonismo, especialmente a nivel local, frente a otros tipos de transporte, dado su carácter de medio de transporte blando, medioambientalmente sostenible, energéticamente eficiente y socialmente sano y equitativo.



Nerbioiko Parke Lienala / *Parque Lineal del Nervión*

I. GAIA ZERTAN DEN

EAEren mugikortasun iraunkorraren esparruan motorizatu gabeko mugikortasuna da nagusi, bereziki oinezkoen mugikortasuna, eta hori babestu beharreko balioa da.

Oinezkoen mugikortasuna pertsonak mugitzeko modu nagusia da, eta, ildo horretan, hiri-bilbea egokitu behar da mugikortasun hori segurtasun-, erosotasun- eta irisgarritasun-baldintzetan eta erakargarritasunez lortzeko. Horri jarraizkiz, eguneroko joan-etorrien ikuspegitik (bizilekua, lana/ikasketak, zaintza, aisia eta ekipamenduak), oinezkoentzat irisgarritasunak erabatekoa eta hirigintza-oztoporik gabea izan behar du mugikortasuna sortzen duten bizitegiguneetako lurzoruetan, bereziki lanarekin, zaintzarekin eta aisiarekin zerikusia dutenetan.

I. ESTADO DE LA CUESTIÓN

La movilidad no motorizada, y en especial la peatonal, predomina en el marco de la movilidad sostenible de la CAPV y es un valor a proteger.

La movilidad peatonal es la principal forma de movilidad de las personas, y en este sentido la trama urbana ha de adecuarse para la consecución de dicha movilidad en condiciones de seguridad, comodidad y accesibilidad y de una manera atractiva. En esta línea, desde la perspectiva de los desplazamientos cotidianos (residencia, trabajo/estudio, cuidado, ocio y equipamientos), es necesaria una accesibilidad peatonal absoluta y libre de barreras urbanísticas a los suelos de los entornos de los núcleos residenciales generadores de movilidad, particularmente los que acogen actividades relacionadas con el trabajo, el cuidado y el ocio.

Mugikortasuna bizilekuaren arabera Movilidad según residencia



Iturria: UITP eta 2011 EAEko mugikortasun inkesta

Fuentes: UITP y encuesta de movilidad de la CAPV

2013-2020 epealdiko Euskadiko Osasun Planak pertsonen bizi-kalitatearen eta osasunaren faktore determinatzaileen artean identifikatzen du hiri-mugikortasunaren eta garraio publikoaren planifikazioa, oinezko eta bizikleta bidezko lekualdaketak bezalako aukera osasungarriak erraztu behar baititu. Gainera, zahartze aktiboa sustatzen du; horretarako, adinekoekin adiskidetsua den hiria sortu nahi du, adinekoen autonomia sustatuko duen inguru integratzaile eta irisgarria eskainiz.

El Plan de Salud de Euskadi 2013-2020 identifica como un factor determinante en la calidad de vida y salud de las personas la planificación de la movilidad urbana y el transporte público, que debe facilitar alternativas saludables como el transporte a pie y en bicicleta. Además, promueve un envejecimiento activo haciendo una ciudad amigable con las personas mayores con un entorno urbano integrador y accesible que fomente la autonomía de las personas mayores.

2013-2020 epealdiko Euskadiko Osasun Planak pertsonen bizi-kalitatearen eta osasunaren faktore determinatzaileen artean identifikatzen du hiri-mugikortasunaren eta garraio publikoaren planifikazioa, oinezko eta bizikleta bidezko lekualdaketak bezalako aukera osasungarriak erraztu behar baititu.

El Plan de Salud de Euskadi 2013-2020 identifica como un factor determinante en la calidad de vida y salud de las personas la planificación de la movilidad urbana y el transporte público, que debe facilitar alternativas saludables como el transporte a pie y en bicicleta.

Arrazua-Ubarrundia



Bizikletak, bere aldetik, garrantzia eta protagonismoa irabazi du pixkanaka-pixkanaka, batez ere toki-mailan beste garraio mota batzuekin alderatuta, garraiobide biguna baita, ingurumen-arloan iraunkorra, energetikoki eraginkorra eta gizarte-alorrean osasuntsu eta berdintasunezkoa. Ildo horretan, funtsezkoa da ongi planifikatutako, eraikitako, zaindutako eta babestutako hiriarteko bizikleta-sarea edukitzea, EAEko herrigune nagusiak antolatuko dituena.

Por su parte, la bicicleta ha ido ganando terreno y protagonismo, especialmente a nivel local, frente a otros tipos de transporte, dado su carácter de medio de transporte blando, medioambientalmente sostenible, energéticamente eficiente y socialmente sano y equitativo. En este sentido se considera crucial disponer de una red ciclista interurbana convenientemente planificada, construida, conservada y protegida que articule los principales núcleos de población de la CAPV.

Oinezkoen eta bizikleten mugikortasunek bi erabilera mota bereizten dituzte: funtzionala eta aisia-erabilera.

Oinezkoen eta bizikleten mugikortasunek bi erabilera mota bereizten dituzte:

1. Funtzionala, eguneroko erabilera erregularra duena, gehienez 10-15 km-ko ibilbideekin bizikleten kasuan.

2. Aisia-erabilera, irregularra eta kirol-, paisaia- eta jolas-gozamenari edo gozamen historiko-kulturalari lotua.

Las movilidades peatonal y ciclista tienen dos tipos de usos diferenciados: el funcional y el de ocio.

Las movilidades peatonal y ciclista tienen dos tipos de uso diferenciados:

1. El funcional, de uso cotidiano y regular, con recorridos de 10-15Km máximo (en el caso ciclista).

2. El de ocio o esparcimiento, de uso no regular y carácter de disfrute deportivo, paisajístico, recreativo o histórico-cultural.

a. Oinezkoen mugikortasuna

Hiri-eremuan, hirigintza-plangintzaren antolamendu-esparruan, hain zuzen ere, EAEn oinezkoen mugikortasuna bereizgarria da beste toki batzuen aldean, orografia askotan malkartsuari egin behar baitio aurre. Horregatik, elementu mekanikoen instalazioa erraztu behar da, esaterako, eskailerak, arrapala mekanikoak, pasabide gurpildunak eta igogailu eta funikularrak; batetik, bidaietan pertsonen nekea murrizten eta mugikortasuna handitzen dutelako, eta, bestetik, hartze-arroak zabaltzean garraio publikoaren mugikortasuna bultzatzen dutelako. Alde horretatik, haren kokapena diseinatzean, garraio kolektiboko zerbitzuetako geltokiak non kokatuko diren hartu behar da kontuan.

a. Movilidad peatonal

En el ámbito urbano, ámbito de ordenación del planeamiento urbanístico, la movilidad peatonal en la CAPV es un elemento diferenciador con respecto a otros lugares, al enfrentarse a una orografía en muchos casos muy accidentada. Por este motivo se debe facilitar la instalación de elementos mecánicos, como, por ejemplo, escaleras, rampas mecánicas, pasillos rodantes, ascensores o funiculares, en primer lugar, porque reducen la fatiga y aumentan la movilidad de las personas en sus viajes y, en segundo lugar, porque favorecen la movilidad del transporte público al ampliarse sus cuencas de captación. En este sentido, se hace necesario que, a la hora de diseñar su ubicación, se tenga en cuenta el emplazamiento de las distintas paradas de los servicios de transporte colectivo.

Garrantzitsua da, halaber, hiri-bideen kalitatea bermatzea, haien paisaia, ikuspegiak eta abar zainduz, herritarrentzat ibilbide atsegin eta erakargarriak itxuratzeko moduan. Era berean pertsonak erakartzen dituzten gune handietara (ospitaleak, osasun-zentroak, ikastetxeak, unibertsitateak eta abar) hurbiltzeko bideak zehaztu beharko dira.

Asimismo, es importante garantizar la calidad de las sendas urbanas, cuidando su paisaje, perspectivas, etc., de forma que configuren trayectos agradables y atractivos para la ciudadanía. Igualmente deberán definirse sendas de aproximación a los grandes atractores de personas como hospitales, centros de salud, colegios, universidades...

Badira askotariko bide historikoak merkataritza-bide gisa zein pertsonen joan-etorrietarako erabiltzen direnak.

Hiriarteko eremuan, badira askotariko bide historikoak merkataritza-bide gisa zein pertsonen joan-etorrietarako erabiltzen direnak. Bide historiko horietatik garrantzitsuenak honako hauek dira, haien garrantzi historiko-kulturalarengatik eta EAEko lurraldea egituratzeko duten ahalmenarengatik: Donejakue Bidea, Inaziotar Bidea, Ardoaren eta Arrainaren Bidea, Bidezidor Historikoa (Katalunia-Galizia) eta Itsasoaren Bidea.

Existe una gran variedad de caminos históricos utilizados como rutas comerciales, así como para el desplazamiento de las personas.

En el ámbito interurbano, existe una gran variedad de caminos históricos utilizados como rutas comerciales, así como para el desplazamiento de las personas. De esos caminos históricos, los más relevantes por su importancia histórica y cultural y por su capacidad de estructurar el territorio de la CAPV son el Camino de Santiago, el Camino Ignaciano, la Ruta del Vino y el Pescado, y el Sendero Histórico (Cataluña-Galicia), así como la Senda del Mar.

– Donejakue Bidea Gizateriaren Ondarea da, urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuak Kultura Ondasun deklaratua. Bi bide dauzka Euskal Autonomia Erkidegoan barrena egiteko:

– El Camino de Santiago, Patrimonio de la Humanidad y declarado como Bien Cultural por el Decreto 2/2012, de 10 de enero, tiene dos posibles rutas al paso por la Comunidad Autónoma del País



Donejakue Bidea / *Camino de Santiago*

Aurretiaz honako estrategia hau egotea beharrezkoa da: diseinu unibertsala edo pertsona guztientzako diseinua, inguru, prozesu, ondasun, produktu, zerbitzu, objektu, bitarteko, tresna eta gailuak pertsona guztiek erabili ahal izateko, ahalik eta hedadurarik handienean, sortzen eta proiektatzen den jarduera, hasiera-hasieratik eta posible den guztietan.

I. ESTADO DE LA CUESTIÓN

La accesibilidad universal debe tener un carácter prioritario y transversal que requiere de su integración en las diversas políticas territoriales y sectoriales que afectan, entre otras, a la ordenación del territorio y al urbanismo.

Se entiende como accesibilidad universal la condición que deben cumplir los entornos, procesos, bienes, productos y servicios, así como los objetos, instrumentos, herramientas y dispositivos, para ser comprensibles, utilizables y practicables por todas las personas en condiciones de seguridad y comodidad y de la forma más autónoma y natural posible.

Parte de la premisa de la igualdad de oportunidades, esto es la ausencia de toda discriminación, directa o indirecta, por motivo de o por razón de discapacidad, así como la adopción de medidas de acción positiva de carácter específico consistentes en evitar o compensar las desventajas derivadas de la discapacidad.

Presupone la estrategia de diseño universal o diseño para todas las personas, entendida como la actividad por la que se conciben o proyectan, desde el origen, y siempre que ello sea posible, entornos, procesos, bienes, productos, servicios, objetos, instrumentos, programas, dispositivos o herramientas, de tal forma que puedan ser utilizados por todas las personas, en la mayor extensión posible, sin necesidad de adaptación ni diseño especializado.



Zarautz

Azken hamarkadetan Euskadin aurrerapen handiak egin dira irisgarritasunaren alorrean, indarreko legegintza-esparruan oinarrituta. Izan ere, desgaitasuna duten pertsonen arretarako hainbat politika, plan eta eredu bultzatu dira, eta horri esker irisgarritasunak hobera egin du nabarmen gure ingurunean.

Euskadiri dagokionez, proiekzio demografiko ofizialek erakusten dutenez, 2030ean biztanleriaren erdiak 55 urte baino gehiago izango ditu, eta biztanleriaren % 10ek 80 urte baino gehiago izango ditu.

Bizi-itxaropenaren igoeraren ondorioz, 2050ean hirurogei urtetik gorako pertsonak bi aldiz gehiago izango dira 2006. urtean zeudenak baino. Era berean, biztanleriaren zahartze-prozesuarekin batera, urbanizazio-prozesu bizkortu bat gertatu da maila globalean, eta horren ondorioz, 2007. urtetik geroztik, munduko biztanleriaren erdia baino gehiago hirietan bizi da. Euskadiri dagokionez, proiekzio demografiko ofizialek erakusten dutenez, 2030ean biztanleriaren erdiak 55 urte baino gehiago izango ditu, eta biztanleriaren % 10ek 80 urte baino gehiago izango ditu.

Ildo horretan, 2005. urtean Osasunaren Mundu Erakundeak adinekoentzako ingurune eta hiri atseginak sustatzeko ekimena bultzatu zuen, halakotzat hartuta zahartze aktiboaren aldeko esparru bat eratzeko; hiri-ingurune integratzailea eta irisgarria dutenak.

2015-2020ko Zahartze Aktiboko Euskal Estrategiak aipatzen duenez, bizitza luzatzeak berekin dakarren erronkak hainbat sektoreri eragiten die zeharka, esate baterako etxebizitzari, industriari, garraioari, gizarte-harremanei edo enpleguari. Eta zeharkakotasun hori beste zenbait gaitan ere islatzen da zuzenean, esaterako irisgarritasunean, eta, harekin lotuta egonik, lurraldearen antolamenduan eta hiri-plangintzan kontuan hartu behar diren helburu eta orientazioetan.

En Euskadi las proyecciones demográficas oficiales muestran que el año 2030 la mitad de la población tendrá más de 55 años y un 10% de la población tendrá más de 80 años.

En las últimas décadas se ha producido un importante avance en Euskadi en materia de accesibilidad, fundamentado en el marco legislativo existente y en el impulso de políticas, planes y modelos de atención orientados a las personas con discapacidad que ha derivado en una notoria mejora en materia de accesibilidad en nuestro entorno.

Como consecuencia del aumento de la esperanza de vida, el número de personas mayores de sesenta años que habrá en todo el mundo en el año 2050 se habrá duplicado con respecto al existente en el año 2006. A su vez, en paralelo al proceso de envejecimiento de la población, se ha producido un proceso acelerado de urbanización a nivel global, que se ha traducido en que desde el año 2007 más de la mitad de la población mundial viva en ciudades. Por lo que respecta a Euskadi las proyecciones demográficas oficiales muestran que el año 2030 la mitad de la población tendrá más de 55 años y un 10% de la población tendrá más de 80 años.

En relación con dichos aspectos, la Organización Mundial de la Salud impulsó en el año 2005 la iniciativa de promover entornos y ciudades amigables con las personas mayores, entendiéndose como tales aquellas que cuentan con un entorno urbano integrador y accesible, constituyendo un marco que fomenta el envejecimiento activo.

Tal como se señala en la Estrategia Vasca de Envejecimiento Activo 2015-2020, el incremento de la longevidad genera un reto que afecta transversalmente a numerosos sectores como pueden ser la vivienda, la industria, el transporte, las relaciones sociales o el empleo. Dicha transversalidad tiene también su reflejo directo en cuestiones tales como la accesibilidad y en los objetivos y orientaciones que relacionados con la misma deben ser tenidos en cuenta en la ordenación del territorio y en el planeamiento urbano.



Errenteria

II.
HELBURUAK

Irisgarritasun unibertsalaren alorrean, lurralde-eredua berrikusteko helburuak honako hauek dira:

1. Irisgarritasun unibertsala edo integrala pertsonen bizitzako espazio guztietan lor dadila sustatzea: etxebizitzan, hiri-eremuan, landa-eremuan, ekipamendu eta zuzkiduretan, garraioan eta mugikortasunean.

2. Aukera-berdintasunaren premisa sustatzea, hau da, desgaitasunaren zioz diskriminaziorik ez egotea, eta hori lortzeko neurri positiboak hartzea.

3. Diseinu unibertsalaren edo pertsona guztientzako diseinuaren kontzeptua biltzea, plangintzaren edo proiektua egiteko lanaren hasierako faseetatik.

II.
OBJETIVOS

Los objetivos de la revisión del modelo territorial en materia de accesibilidad universal son los siguientes:

1. Promover la consecución de la accesibilidad universal o integral en todos los espacios de la vida de las personas: vivienda, entorno urbano, medio rural, equipamientos y dotaciones, transporte y movilidad.

2. Promover la premisa de la igualdad de oportunidades, o la ausencia de toda discriminación por motivo de o por razón de discapacidad y la adopción de medidas positivas al respecto.

3. Recoger el concepto de diseño universal o diseño para todas las personas, desde las fases iniciales de la planificación o proyectación.

III.
LURRALDE-GIDALERROAK

Irisgarritasun unibertsalaren arloan proposatzen diren lurralde-gidalerroak Aplikatzeko arauen 29. artikuluan jasotzen dira.

III.
DIRECTRICES TERRITORIALES

Las directrices territoriales en materia de accesibilidad universal son las contenidas en el artículo 29 de las Normas de Aplicación.

10.2. Genero-ikuspegia

10.2. Perspectiva de género

Pertsonek premia eta itxaropen desberdinak dituzte lurraldearekiko eta hiri- eta landa-ingurunearekiko, bakoitzak bere eguneroko bizitzan bere gain hartzen duen genero-rolaren arabera. Lurraldearen Antolamenduan genero-ikuspegia sartzeak aukera ematen du gizon eta emakumeek baliabide guztiak baldintza-berdintasunean eskuratzen dituztela bermatzeko.

Las personas tienen distintas necesidades y aspiraciones en relación al territorio y al espacio urbano y rural derivadas de los roles de género que asumen en su vida cotidiana. La inclusión de la perspectiva de género en la Ordenación del Territorio permite garantizar a hombres y mujeres el acceso a todos los recursos en igualdad de condiciones.



Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legean honako hau ezarri da: “Arauak garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-agintariek modu aktiboan izango dute kontuan emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko helburua”.

La Ley 4/2005 para la igualdad de hombres y mujeres, establece la obligación de los poderes públicos vascos “de tener en cuenta de manera activa el objetivo de la igualdad de mujeres y hombres en la elaboración y aplicación de las normas, planes, programas y otros instrumentos de formulación de políticas públicas”.

I. GAIA ZERTAN DEN

Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18.1. artikuluan honako hau ezarri da: “Arauak garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-agintariek modu aktiboan izango dute kontuan emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko helburua”. Amsterdameko Itunak Europar Batasuneko estatu kideetan emakume eta gizonen arteko berdintasun-politikak aplikatzeko gidalerrotzat ezarritako genero-ikuspegiko printzipioari erantzuten dio 18.1 artikulu horrek.

Pertsonek premia eta itxaropen desberdinak dituzte lurraldearekiko eta hirigunearekiko, bakoitzak bere eguneroko bizitzan hartzen duen genero-rolaren arabera. Ordaindu gabeko lanaren eta lanaren sexu-bereizketaren kontzeptuak funtsezkoak dira horretarako. Ordaindu gabeko lana edo zaintza esaten

I. ESTADO DE LA CUESTIÓN

La Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de hombres y mujeres, establece en su artículo 18.1 la obligación de los poderes públicos vascos “de tener en cuenta de manera activa el objetivo de la igualdad de mujeres y hombres en la elaboración y aplicación de las normas, planes, programas y otros instrumentos de formulación de políticas públicas”. Este artículo 18.1 responde al principio de perspectiva de género consagrado por el Tratado de Ámsterdam como principio rector para la aplicación de políticas de igualdad entre mujeres y hombres en los estados miembros de la Unión Europea.

Las personas tienen distintas necesidades y aspiraciones en relación al territorio y al espacio urbano derivadas de los roles de género que asumen en su vida cotidiana. Dos conceptos claves para ello son el de trabajo no remunerado y el de división sexual del trabajo. El trabajo no remunerado, o de

dugunean, inoren laguntza behar duten adingabe eta adinekoak zaintzeko eta etxea mantentzeko pertsona helduek alor pribatuan eta konpentsaziorik gabe egiten dituzten lanez ari gara. Lanaren sexu-bereizketa diogunean, berriz, gizarteak pertsonei sexuaren arabera esleitzen dizkien lan desberdinez ari gara. Estatistikoki, emakumeek beren gain hartzen dute ordaindu gabeko zaintza-lanaren zati handiena.

Denboraren erabilerari buruzko inkestetako datuek erakusten digutenez, gizonek eta emakumeek denboraren erabilera desberdina egiten dute, beren eguneroko bizitzetan hartzen duten genero-rol desberdinen ondorioz. Emakumeak zaintza-lanen zati handienaz arduratzen dira, hau da, etxeko lanak egitearekin, eta seme-alaba zein senide gaixo eta adinekoak zaintzearekin zerikusia duten lan gehienak egiten dituzte; gizonek, aldiz, ezer gutxi laguntzen dute oraindik alor horretan.

Eguneroko bizitza mantentzeko egiten den lana, ugalketa-lanarekin zerikusia duten zereginak: hezkuntza, osasuna, kirola, aisia, erosketak, administrazio-tramite eta -gestioak, eta abar. Toki horietara joateko, zaintza-erantzukizunak dituzten pertsonek eskuragarri dauzkaten garraio-sistemak erabili behar dituzte. Hori egiteko aukera bermatu behar da, egunean, astean edo hilean zeregin bakoitzak eskatzen duen ordutegiaren eta denboraren arabera. Horrez gain enplegu bat daukaten pertsonentzat, horrek guztiak bateragarri behar du ordainpeko enplegura fisikoki iristeko aukerarekin.

Eguneroko bizitzaren eta zeregin-katearen kontzeptu operatiboak ere kontuan hartzekoak dira. Eguneroko bizitzaren kontzeptuak agerian jartzen ditu hiriguneko eta landaguneko pertsonen eguneroko premiak, enplegua eta besteak zaintzeko lanak uztartzen dituztenen zeregin ugariak jasoz. Hirigunea, hiriarteko gunea edo landagunea erabiltzean eguneko, asteko, hileko edo bizitza osoan zeharreko denbora-zikloetan gertatzen diren erregulartasunak edo zeregin-kateak ulertzeko aukera ematen du eguneroko bizitzaren kontzeptuak. Hori garrantzitsua da lan-karga bikoitza dutenentzat, eguneroko bizitzako jarduerek eguneroko aldizkakotasunak ez ezik, asteko eta hileko aldizkakotasunak ere badituztelako; gainera, zeregin-kateak desberdinak izaten dira sarri, astegunen arabera.

Enplegua eta zaintza bateragarri egiten dituzten pertsonen eguneroko bizitzaren zeregin-kate horien haritik datozen premia espezifikoak hirigintzaren alor sektorial guztietan nabari dira, esaterako mugikortasunean, azpiegitura eta ekipamenduetan, lantoki eta saltokietan, etxebizitzan eta gune publikoetan, eta lurralde-plangintzak eta hirigintzak horiek guztiak kontuan hartu behar dituzte. NBEk eta Europar Batasunak adierazi dute hirigintza eta lurraldearen antolamendua politika publikoaren funtsezko esparruak direla emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren bidean aurrera egiteko.

cuidado, se refiere a las tareas realizadas en la esfera privada y sin compensación económica por personas adultas para el cuidado de menores y mayores dependientes y para el mantenimiento del hogar. La división sexual del trabajo se refiere a la atribución social de tareas diferentes a las personas en base a su sexo. Estadísticamente, la mayor parte del trabajo de cuidado no remunerado es asumido por mujeres.

Los datos de las encuestas de uso del tiempo muestran un uso diferenciado del tiempo entre hombres y mujeres que se deriva de los roles de género que asumen en sus vidas cotidianas. Las mujeres se hacen cargo de la mayor parte de las llamadas tareas de cuidado, es decir, aquellas labores vinculadas al cuidado del hogar, de los hijos e hijas, de los familiares enfermos y mayores, mientras que los hombres asumen todavía poca parte de esa tarea.

El trabajo que se hace para el mantenimiento de la vida cotidiana se realiza en los lugares donde se llevan a cabo las distintas tareas vinculadas al trabajo reproductivo: la educación, la salud, el deporte, el ocio, la compra, los trámites y gestiones administrativas, etc. Para acudir a esos lugares las personas con responsabilidades de cuidado tienen que desplazarse utilizando los sistemas de transporte disponibles. Esto se tiene que poder hacer en los horarios y tiempos requeridos por cada una de las tareas, a lo largo del día, de la semana, o del mes. Para las personas que además tienen un empleo, todo ello tiene que ser compatible con el acceso físico al empleo remunerado.

Otros conceptos operativos útiles son los de vida cotidiana y cadena de tareas. El concepto de vida cotidiana trae a la luz las necesidades cotidianas de las personas en el medio urbano y en el medio rural, recogiendo las múltiples tareas que realizan quienes compaginan empleo con cuidado de otros. El concepto de vida cotidiana permite entender las regularidades, o cadenas de tareas, que se producen en el uso del espacio urbano, del interurbano o del rural en ciclos temporales diarios, semanales, mensuales, e incluso a lo largo de la vida. Esto es relevante para quienes desempeñan una doble carga de trabajo porque las actividades de la vida cotidiana tienen periodicidades diarias, pero también semanales y mensuales; además las cadenas de tareas a menudo son diferentes en distintos días de la semana.

Las necesidades específicas derivadas de estas cadenas de tareas en la vida cotidiana de las personas que compaginan un empleo con el cuidado, se manifiestan en los distintos campos sectoriales del urbanismo -la movilidad, las infraestructuras y equipamientos, los lugares de empleo y comercio, la vivienda, los espacios públicos- y deben ser tenidas en cuenta por la planificación territorial y el urbanismo. Tanto la ONU como la Comisión Europea han identificado el urbanismo y la ordenación del territorio como campos de política pública claves para avanzar hacia la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

Eguneroko bizitzaren kontzeptuak agerian jartzen ditu hiriguneko eta landaguneko pertsonen eguneroko premiak, enplegua eta besteak zaintzeko lanak uztartzen dituztenen zeregin ugariak jasoz. Denbora-zikloetan gertatzen diren erregulartasunak edo zeregin-kateak ulertzeko aukera ematen du eguneroko bizitzaren kontzeptuak.

El concepto de vida cotidiana trae a la luz las necesidades cotidianas de las personas en el medio urbano y en el medio rural, recogiendo las múltiples tareas que realizan quienes compaginan empleo con cuidado de otros. Permite entender las regularidades, o cadenas de tareas, que se producen en el uso del espacio en ciclos temporales.



Durango

Bestalde, azterlan askok erakutsi dute emakumeek mugikortasuna murrizten dutela eta hirigunea gutxiago erabiltzen dutela segurtasunik gabe sentitzen direlako sexu-erasoak eta emakumeen aurkako bestelako indarkeriak jasateko arriskuaren aurrean. Eta automugaketa horrek oztopatzen du pertsonaren erabateko garapena eta hiri-ondasun eta -zerbitzuak erabiltzeko eskubidea.

Emakumeen pobrezia erlatiboa ere kontuan hartzekoa da, gizon eta emakumeek hiri-ondasun eta -zerbitzuetara iristeko aukeretan eragiten duen neurrian. Are gehiago faktore hori diskriminazioa eragin dezaketen beste ezaugarri batzuekin nahasten denean, esaterako, egoera zibilari (amaren ardurapeko eta pertsona bakarreko etxekoen unitateak, batez ere), arrazari, adinari, ahalmen funtzionalari edo genero-indarkeriaren biktimei lotutako familia-kargekin.

Bestetik, emakumeek ordezkaritza eskasa dute hiriaren eraikuntzarekin lotutako lanbideetan eta lurralde-gobernuko egituretan, eta horrek zer eraikitzen den eta nola eraikitzen den baldintzatzen du. Nolanahi ere, emakume gehiagoren presentzia soilak ez du esan nahi, inondik inora, genero-gaiei eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren agendari arreta handiagoa eskaintzen zaienik. Agenda eta kultura profesionaletan benetako aldaketa-egoerak gerta daitezen behar-beharrezkoak dira,

Por otra parte, son muchos los estudios que muestran cómo las mujeres limitan su movilidad y el uso que hacen del espacio urbano por percepción de inseguridad ante el riesgo de ataques sexuales y otras formas de violencia contra las mujeres. Esta autolimitación se convierte en un obstáculo al pleno desarrollo de la persona y a su derecho al uso de los bienes y servicios urbanos.

Otro aspecto importante que influye en las distintas posibilidades de acceder a los bienes y servicios urbanos entre hombres y mujeres se deriva de la pobreza relativa de las mujeres. Más aún caso de la intersección de este factor con otros rasgos de discriminación potencial como: en las cargas familiares en la relación al estado civil (en particular hogares monomarentales y unipersonales), la raza, la edad, la capacidad funcional o las víctimas de violencia de género.

Por otro lado, la escasa representación de las mujeres en las profesiones vinculadas a la construcción de la ciudad y en las estructuras de gobierno territorial influye en lo que se construye y cómo se construye. Ahora bien, la mera presencia de más mujeres no implica necesariamente que los temas de género y la agenda de la igualdad entre hombres y mujeres reciban mejor atención. Se necesita tanto una masa crítica, un número suficiente de mujeres, como un conocimiento experto en materia de género, para que

batetik, masa kritiko bat, emakume kopuru nahikoa alegia, eta, bestetik, aditu-mailako jakintza genero-gaietan.

Faktore horiek guztiek espazio-inplikazioak dituzte, lurralde-plangintzak eta -antolamenduak kontuan hartu behar dituztenak. Genero-ikuspegia lurralde- eta hiri-plangintzan sartzeak honako hauek dakartza berekin: batetik, eremu publikoak, ekipamenduak eta etxebizitzak egiterakoan, familia zaintzeko eguneroko zereginak eta ordainpeko lana ahalegin eta zailtasun gutxiagorekin egin daitezkeela aintzat hartzea; eta bestetik, urrakortasun-egoeran dauden emakumeen espazio- eta hiri-premiak, ekonomikoki iristeko mugak barne, kontuan hartzea. Horrela, hiri eta lurralde bidezkoago eta seguruagoak sortzeko bidean egongo gara, herritar guztien bizi-kalitatearen mesedetan.

Zaintza-premiei ondoen erantzuten dien hiri-habitataren eredua honako hau da: hiri trinkoa, nahiko dentsoa, distantzia labur eta hurbiletakoa, garraio-sistema publiko on batekin, kalitatezko eremu publiko eta garraio seguruekin, erabilerak nahasten dituena, eta, auzoetan adingabeak eta mendekotasuna duten adinekoak zaintzeko ekipamendu-sistema batez hornitua dagoena, Estatuko ohiko plangintza-sisteman jada jasota dauden asistentzia-, eskola-, osasun-, hezkuntza-kirol- eta kultura-ekipamendu tradizionalei eransteko modukoa. Horrek guztiak ordainpeko enplegua eta zaintza-lanak bateragarri egitea ahalbidetzen du, erantzukizun bikoitz hori hartzen dutenei enplegu-tokietara eta bizitzari eusteko behar diren ekipamenduetara iristeko aukera emango dielako, gutxieneko denboran, eskatutako ordu-tarteetan, erosotasun- eta segurtasun-baldintzetan eta arrazoizko kostu ekonomikoekin.

se puedan dar situaciones de cambio en las agendas y en las culturas profesionales.

Todos estos factores tienen implicaciones espaciales que el planeamiento y la ordenación territorial deben tener en cuenta. La inclusión de la perspectiva de género en la planificación territorial y urbana conlleva que espacios públicos, equipamientos, vivienda, etc. se piensen de manera que sea posible realizar las tareas cotidianas del cuidado de la familia y el trabajo remunerado con menos esfuerzo y dificultad, que los espacios públicos y el transporte sean seguros, que las necesidades espaciales y urbanas de las mujeres en situación de vulnerabilidad, incluyendo sus limitaciones de acceso económico, sean tenidas en cuenta, contribuyendo a crear ciudades y territorios más justos y seguros, que mejoren la calidad de vida de toda la ciudadanía.

El modelo de hábitat urbano que responde mejor a las necesidades de cuidado es el de una ciudad compacta, relativamente densa, de distancias cortas y proximidad, con buen sistema de transporte público, espacios públicos y de transporte seguros y de calidad, con mezcla de usos, y con un sistema de equipamientos en los barrios que añada los necesarios equipamientos para el cuidado de menores y mayores dependientes a los tradicionales equipamientos asistenciales, escolares, sanitarios, educativos, deportivos y culturales ya recogidos por el sistema de planeamiento ordinario del Estado. Todo ello permite compatibilizar el empleo remunerado con las tareas de cuidado, porque facilitaría a las personas que asumen esta doble responsabilidad el acceso a los lugares de empleo y a los distintos equipamientos necesarios para el sostenimiento de la vida en tiempos mínimos, en las franjas horarias requeridas, en condiciones de comodidad y seguridad, y con costes económicos asumibles.

Zaintza-premiei ondoen erantzuten dien hiri-habitataren eredua honako hau da: hiri trinkoa, nahiko dentsoa, distantzia labur eta hurbiletakoa, garraio-sistema publiko on batekin, kalitatezko eremu publiko eta garraio seguruekin, erabilerak nahasten dituena.

El modelo de hábitat urbano que responde mejor a las necesidades de cuidado es el de una ciudad compacta, relativamente densa, de distancias cortas y proximidad, con buen sistema de transporte público, espacios públicos y de transporte seguros y de calidad, con mezcla de usos.

Donostia / San Sebastián



Gainera, zaintzaren eta eguneroko bizitzaren premia horiei erantzun behar zaie ez bakarrik hirigunean bizi direnen ikuspegitik, baita landa-ingurunean bizi direnen ikuspegitik ere.

Además, no sólo se trata de responder a estas necesidades de cuidado, y de la vida cotidiana, desde la perspectiva de quienes habitan en el medio urbano sino también desde la perspectiva de quienes habitan en el medio rural.

Eraginkortasunaren mesedetan egokia iruditzen zaigu genero-zeharkakotasuna eremu jakin batzuetako ekintza hautatu batzuetara mugatzea, horrela jardun-espektro handiegi bat eraginpean hartzeko arriskua saihesteko, horrek azkenean ekintzen inpaktua moteltzea ekar lezakeelako. Ildo horretan, honako eremu hauek hautatu dira: garraioa eta mugikortasuna (hirikoa eta hiriartekoa); hurbileko hirigintza; eguneroko bizitzarako ekipamendu eta eremu publikoak (merkataritza-zentroak eta -ekipamenduak barne); segurtasuna; etxebizitza; landa-ingurunea; eta gobernantza.

En aras a una mayor eficacia, se estima oportuno acotar la transversalidad de género a una selección de acciones en determinados ámbitos con el fin de evitar el riesgo de intentar abarcar un espectro de actuación excesivamente amplio, que finalmente puede determinar un menor impacto de las acciones, siendo los ámbitos seleccionados los siguientes: transporte y movilidad (urbana e interurbana); urbanismo de proximidad; equipamientos y espacios públicos para la vida cotidiana (incluyendo los centros y equipamientos comerciales); seguridad; vivienda; medio rural; y gobernanza.

Identifikatutako jardun-eremuetan atzemandako desparekotasunen ondorioz egingo da ekintza-hautaketa hori, eta honako hauek dira adierazgarrienak:

Esta selección de acciones resultará de las desigualdades observadas en los diferentes ámbitos de actuación identificados siendo las más significativas las siguientes:

- Lurralde-antolamenduan eta hirigintzan: mendeko pertsonen zaintzarako ekipamenduen existentzia eta irisgarritasuna; hiri-eremuen eta eraikinen erabilera-eredu desberdinak, pertsonek bereganatzen dituzten genero-rol desberdinak direla eta; bikoterik ez duten emakumeek etxebizitza bat lortzeko dituzten zailtasun handiagoak, talde kalteberek batez ere, familia gurasobakar amadunek eta genero-indarkeriaren biktimek, esaterako; emakumeek eremu publikoan eta hiri-zuzkiduretan sentitzen duten segurtasun-gabezia handiagoa.

- En ordenación del territorio y urbanismo: la existencia y acceso a equipamientos de cuidado de personas dependientes; en la consideración de los distintos patrones de uso de los espacios urbanos y de las edificaciones como resultado de los roles diferentes de género que asumen las personas; en las mayores dificultades de acceso a la vivienda por parte de mujeres no emparejadas y en particular por grupos vulnerables como las cabeza de familia monomarentales y las víctimas de violencia de género; la mayor percepción de inseguridad en el espacio público y las dotaciones urbanas por parte de las mujeres.

- Mugikortasun iraunkorrean: pertsonen mugikortasun-ereduak aldatzen dira gizon eta emakumeek beren gain hartzen dituzten genero-rolen arabera, eta, estatistikoki, emakumeek neurri handiagoan erabiltzen dute garraio publikoa; arrazoi gehiagorengatik egiten dituzte bidaiak, bidaia gehiago kateatzen dituzte eta ibilgailu pribatua erabiltzeko aukera gutxiago dituzte; beste pertsona batzuk zaintzeko eta etxea mantentzeko egindako bidaiak ez dira behar bezala zenbatzen estatistiketan.

- En movilidad sostenible: los patrones de movilidad de las personas difieren en función de sus roles de género que estadísticamente son asumidos por hombres y mujeres de tal manera que las mujeres son las principales usuarias del transporte público, hacen viajes por más motivos, encadenan más viajes y tienen menor acceso al vehículo privado; los viajes relacionados con el cuidado de otras personas y el mantenimiento del hogar no son adecuadamente contabilizados por las estadísticas.

- Landa-ingurunean: genero-desberdintasunak garraiora eta garraio-zerbitzuetara, ekipamenduetara eta enplegu-tokietara iristean; genero-desberdintasunak ekipamendu eta zerbitzuak erabiltzeko premietan, zaintzaren alorrean bereziki, zerbitzu eta ekipamenduen sarearen kapilaritateari dagokionez; genero-desberdintasunak nekazaritza-jardueran, ustiategien titulartasuna barne.

- En medio rural: diferencias de género en el acceso al transporte y a los servicios, equipamientos y lugares de empleo; diferencias de género en las necesidades de uso de equipamientos y servicios, en particular de cuidado, en relación a la capilaridad de la red de servicios y equipamientos; diferencias de género en la actividad agraria incluyendo la titularidad de las explotaciones.

- Gobernantza: emakumeen presentzia txikiagoa herritarren parte-hartzeko prozesuetan eta talde teknikoetan; ahuleziak politika, plan eta jardunak diseinatu eta egikaritzeko eta haien jarraipena egiteko fase guztietan generoari buruzko aditu-mailako jakintza integratzean.

- En gobernanza: menor presencia de mujeres en los procesos de participación ciudadana y en los equipos técnicos; debilidades en la integración del conocimiento experto de género en los distintos estadios de diseño, ejecución y seguimiento de las políticas, planes y actuaciones.

II.
HELBURUAK

Genero-ikuspegiaren alorrean, lurralde-estrategia berrikusteko helburuak honako hauek dira:

1. Lurralde- eta hirigintza-jardunean, genero-ikuspegia integratzen duen plangintza sustatzea, denboran sendotzeko modukoa.

2. Genero-ikuspegia sartuta, lortu nahi den lurralde-ereduaren oinarriak ezartzen laguntzea, bereziki lurralde iraunkor, inklusibo, adimendun eta partizipatiboa eraikitzeko.

3. Bere eskala guztietan zaintza-premiei erantzuna ematen dien lurraldea sustatzea, zaintzaren hirigintzaren jarduna sartuz lurralde- zein hirigintza-plangintzan.

4. Berdintasunaren helburua lortzen eta herritar guztien bizi-kalitatea hobetzeko lurralde eta hiriak sortzen laguntzea, edozein desberdintasun-ardatzetik (sexua, adina, maila sozio-ekonomikoa, etnia, arraza eta abar) haratago.

II.
OBJETIVOS

Los objetivos de la revisión de la estrategia territorial en materia de perspectiva de género son los siguientes:

1. Promover una planificación que integre la perspectiva de género tanto en la actuación territorial como en la urbanística, y que se pueda consolidar en el tiempo.

2. Contribuir a través de la introducción de la perspectiva de género a las bases del modelo territorial que se propone alcanzar, en particular, para construir un territorio sostenible, inclusivo, inteligente y participativo.

3. Promover un territorio que, en sus diferentes escalas dé respuesta a las necesidades de cuidado; mediante la incorporación del ejercicio de un urbanismo del cuidado tanto en la planificación territorial como en la urbanística.

4. Contribuir a alcanzar el objetivo de la igualdad y a generar territorios y ciudades que contribuyan a mejorar la calidad de vida de toda la ciudadanía más allá de cualquier eje de diferencia (sexo, edad, nivel socioeconómico, etnia, raza, etc.).

III.
LURRALDE-GIDALERROAK

Genero-ikuspegiaren arloko lurralde-gidalerroak Aplikatzeko arauen 30. artikuluan jasotzen dira.

III.
DIRECTRICES TERRITORIALES

Las directrices territoriales en materia de perspectiva de género son las contenidas en el artículo 30 de las Normas de Aplicación.

10.3. Klima-aldaketa

10.3. Cambio climático

Klima-aldaketa gizateriak aurrez aurre izango duen erronka handienetako bat da, eta ongi koordinatuta heldu beharko dio. Funtsezkoa da berotze globala arinagotzen duten berotegi-efektuko gasen isurpenak murriztea, baina funtsezkoa da, halaber, aldaketei aurrea hartzea eta aldaketa horien inguruan planifikatzea lurzoruaren erabilera, kokapenak, azpiegiturak, ekoizpena, etxebizitza, nekazaritza eta baliabide berriztagarriak, besteak beste. Gakoak dira lotutako arriskuak murrizteko.

El cambio climático es uno de los mayores retos a los que la humanidad ha de enfrentarse, y lo debe hacer de forma coordinada. Es crucial reducir las emisiones de gases de efecto invernadero que aceleran el calentamiento global, pero también lo es anticiparse a los cambios y planificar en torno a esos cambios el uso del suelo, los asentamientos, las infraestructuras, la producción, la vivienda, la agricultura y los recursos renovables, entre otros, son la clave para reducir los riesgos asociados.





I. GAIA ZERTAN DEN

Giza jatorriko klima-aldaketa, hau da, berotegi-efektuko gasak atmosferara emititzearen ondorioz gertatzen dena, lurralde-arloko erronka ere bada. Atmosfera berotzean eragiten du, eta horren ondorioz klima-aldagaiak apurka aldatzen dira, adibidez prezipitazioen eta batez besteko tenperatuen erregimenak. Halaber, itsasoaren maila goratzean ere eragiten du, eta muturreko fenomenoak agertzeko aukerak handitzea dakar, uholdeak, lehorteak edo bero-boladak, batzuk aipatzearren.

Klima-aldaketaren haritik datozen arazoak funtsezkoak dira iraunkortasunaren gai orokorretan, eta haren hiru dimentsio nagusitan eragiten dute, hau da, ingurunean, gizartean eta ekonomian. Berotegi-efektuko gas-emisio globalen, biosferan emisio horiek xurgatzeko ahalmenaren eta espero diren eraginetarako egokitzapenaren arteko orekan dago iraunkortasunerako giltzarria.

Berotegi-efektuko gas-emisio globalen, biosferan emisio horiek xurgatzeko ahalmenaren eta espero diren eraginetarako egokitzapenaren arteko orekan dago iraunkortasunerako giltzarria.

Klima-aldaketa gai globala da, eta beraz, alor horretan jarduteko akordio eta irizpideak nazioartean ezartzen dira, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren bitartez. Nazioarteko esfera horren esparruan, nabarmentzekoa da 2016ko azaroan Klima Aldaketari buruzko indarreko Akordioa hasi zela indarrean, 2015eko abenduan Parisen egindako Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru

I. ESTADO DE LA CUESTIÓN

El cambio climático de origen humano, inducido por la emisión a la atmosfera de gases de efecto invernadero (GEI), constituye un desafío también de dimensión territorial por su impacto en el calentamiento de la atmósfera, que conlleva tanto un cambio progresivo de variables climáticas como son los regímenes de precipitación y de las temperaturas medias, como la elevación del nivel del mar y una mayor incidencia y severidad de fenómenos extremos como las inundaciones, las sequías o las olas de calor, por citar algunos ejemplos.

Esta problemática que plantea el cambio climático es central en la temática general de la sostenibilidad territorial, con incidencia sobre sus tres dimensiones fundamentales como son la ambiental, la social y la económica. En el equilibrio entre las emisiones globales de gases de efecto invernadero, la capacidad de absorción de estas emisiones en la biósfera, y la adaptación a los efectos esperados, se encuentran las claves para la sostenibilidad.

En el equilibrio entre las emisiones globales de gases de efecto invernadero, la capacidad de absorción de estas emisiones en la biósfera, y la adaptación a los efectos esperados, se encuentran las claves para la sostenibilidad.

El cambio climático es una cuestión global, de ahí que los acuerdos y los criterios de actuación en esta materia se establezcan a nivel internacional a través de la Convención Marco de las Naciones Unidas sobre el Cambio Climático (UNFCC). En el marco de esta esfera internacional destaca la entrada en vigor, en noviembre de 2016, del vigente Acuerdo sobre el Cambio Climático aprobado en la Cumbre de la

Konbentzioaren Gailurrean onartu zena. Ildo horretan oso kontuan hartzekoa da eskualde eta udalerriek klima-aldaketaren alorreko ekintza globalari egiten dioten ekarpen handia.

Halaber, nabarmentzekoa da honako hau, Klima Aldaketaren Gobernu Arteko Taldearen bosgarren ebaluazio txostenak ondorioztatzen duenez: botere ekonomiko eta politikoko guneek eta gobernuek berotegi-efektua eragiten duten gas-isurketak eta kutsadura berehala geldiarazteko borondate irmoa balute ere, jada sortu diren magnitude handiko kalteak daude, eta kasu askotan kalteak atzera gabekoak eta behin betikoak dira. Beraz, halakoak arintzea ezinbestekoa da, baina ez da nahikoa, eta egokitzea nahitaezkoa izango da.

Testuinguru horretan, 2015eko ekainean "Klima-aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Autonomia Erkidegoko Estrategia. KLIMA 2050" onartu zen, honako bi helburu nagusi hauekin:

1. Euskadiko BEGen emisioak 2030erako gutxienez % 40 eta 2050erako % 80 murriztea 2005. urtearen aldean, 2050. urtean berriztagarrien energia-kontsumoa % 40 izan dadin azken kontsumoaren gainean.

2. Bestetik, euskal lurraldearen klima-aldaketarekiko erresilientzia ziurtatzea, helburu hori, beraz, lurralde-ereduaren berrikuspenean ezinbestean islatu behar delarik.

Bestetik, eta Parisko Akordioaren harira, Eusko Jaurlaritzak akordio horri atxikitzeko zortzi puntuko deklarazioa eman zuen, eta haien artean nabarmentzekoak dira munduko batez besteko tenperaturaren igoera industriaurreko mailarekiko 2ºCren azpitik mantentzeko behar diren neurriak lehenbailehen hartu beharra eta tenperaturaren igoera 1,5ºCra mugatzeko ahalegintzen jarraitzearen garrantzia azpimarratzen duten puntuak, garapen iraunkorraren eta pobrezia desagerrarazteko ahaleginen testuinguruan. Azpimarratzen da, halaber, eskualdeak eta udalerriak, lurraldetik hurbil egonik, ingurumen-eraginak ondoen ezagutzen dituzten administrazio publikoak direla, eta beraz, klima-aldaketaren aurkako ekimenen garapenean zeregin aktiboa betetzea funtsezkoa dela.

Hortaz, klima-aldaketaren aurkako jarduna elkarri estu lotutako bi alderditan egituratzen da: BEGen emisioak murriztea edo arintzea, eta haien efektuetara egokitzea. Egoera globala garrantzitsua da berotegi-efektua eragiten duten gas-isurketak murrizteari dagokionez nazioarteko benetako erantzun bat planteatzerakoan, baina klima-aldaketaren eraginetara egokitu ahal izateko estrategiak tokian edo eskualdean inplementatu beharko dira. Are gehiago, arintzeak mundu osoan dauka eragina, baina bestalde egokitzearen onurek eta emaitzek lurraldeari berari egiten diote mesede.

UNFCC de París celebrada en diciembre de 2015. En esta esfera ocupa también un papel destacado el reconocimiento de la significativa contribución de las regiones y de los municipios a la acción global en materia de cambio climático.

Cabe destacar también que, según concluye el quinto informe de evaluación del Panel Intergubernamental de Cambio Climático (IPCC), incluso si existiera la voluntad decidida por parte de los centros de poder económico y político y de los gobiernos de parar de inmediato todas las emisiones de gases de efecto invernadero y la contaminación, existen daños de gran magnitud que ya se han ocasionado y en muchos casos son irreversibles e irreparables. La mitigación es por tanto imprescindible, pero insuficiente y la adaptación se convierte en inevitable.

En este contexto, en junio de 2015 se aprobó la "Estrategia de Cambio Climático 2050 del País Vasco. KLIMA 2050" con dos objetivos principales:

1. Reducir las emisiones de GEI de Euskadi en, al menos, un 40% a 2030 y un 80% a 2050 respecto al año 2005, alcanzando en el año 2050 un consumo de energía renovable del 40% sobre el consumo final.

2. Asegurar la resiliencia del territorio vasco al cambio climático, objetivo que, en consecuencia, debe reflejarse necesariamente en esta revisión del modelo territorial.

Por otro lado y con motivo del Acuerdo de París, el Gobierno Vasco emitió una declaración de adhesión al mismo con ocho puntos entre los que cabe señalar el que hace hincapié en la necesidad urgente de tomar las medidas necesarias para lograr que el incremento de la temperatura media mundial se mantenga por debajo de los 2°C con respecto al nivel preindustrial, y en la trascendencia de seguir esforzándose por limitar el aumento de la temperatura a 1,5°C, en el contexto del desarrollo sostenible y de los esfuerzos por erradicar la pobreza. Así como, también, el que subraya que las regiones, junto a los municipios, por su proximidad al territorio, son las administraciones públicas que mejor conocen las afecciones medioambientales por lo que resulta fundamental que ejerzan un papel activo en el desarrollo de iniciativas contra el cambio climático.

En definitiva, la actuación frente al cambio climático se estructura en dos vertientes íntimamente ligadas: la reducción de emisiones de GEI o mitigación y la adaptación a sus efectos. Frente a la importancia de la escena global a la hora de plantear una respuesta internacional efectiva en el plano de la reducción de emisiones de gases de efecto invernadero, las estrategias que permitan adaptarse a los impactos del cambio climático han de ser implementadas a nivel local o regional. Más aún, a diferencia de la mitigación, que tiene repercusiones a nivel global, los beneficios y resultados de la adaptación repercuten en el propio territorio.

Klima-aldaketaren aurkako jarduna elkarri estu lotutako bi alderditan egituratzen da: BEGen emisioak murriztea edo arintzea, eta haien efektuetara egokitzea.

La actuación frente al cambio climático se estructura en dos vertientes íntimamente ligadas: la reducción de emisiones de GEI o mitigación y la adaptación a sus efectos.

BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN ISURKETEN BILAKAERA-TASA EUSKADIN (2016), EUROPAR BATASUNEAN (2015) ETA ESPAINIAN (2016)(%)

(2005 = 100)

ÍNDICE DE EVOLUCIÓN DE EMISIONES DE GASES DE EFECTO INVERNADERO EN EL PAÍS VASCO (2016), EN LA UNIÓN EUROPEA-28 (2015) Y EN ESPAÑA (2016) (%)

(año base Kioto =100)



Iturria. Euskal Autonomia Erkidegoko berotegi efektuko gas-isurketen 2016ko inbentarioa Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, Ingurumen, Lurralde Plangintzaeta Etxebizitza Saila. Honako hauen datuetan oinarrituta: Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmena (CMNUCC). Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa (MAPAMA).EAEko isurketak Kiotoko oinarri-urtea (1990) baino % 12 txikiagoak izan dira 2016an

Fuente. Inventario de emisiones de Gases de Efecto Invernadero del País Vasco 2016. Página 7 del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco a partir de datos de la Convención Marco de las Naciones Unidas sobre el Cambio Climático (CMNUCC) y del Ministerio de Agricultura, Pesca, Alimentación y Medio Ambiente (MAPAMA). Las emisiones de la CAPV en el año 2016 se han situado un 12% por debajo del año base de Kioto (1990)

Jarraian laburbiltzen dira EAEko sektore edo esparru batzuei eragin ahal dieten mehatxu klimatiko nagusiak:

– Lehen sektorea. Lehorte handieneko epealdien gorakadak, jarduera ekonomikoekin alderatuta, interes berezia dauka abeltzaintza arloan. Nekazaritza-sektorean klima-aldaketak laborantza mota jakin batzuen etekinean ondorio positiboa izango duela espero da, baina ondorio negatiboak izango ditu beste alderdi batzuetan: adibidez izurrite eta gaixotasunek gora egitea edo espezie inbaditzaileak agertzea. Eragin horiez gain, lehorte-aldiek eta lurraren higadurak sorrarazitako sute kopuruak gora egingo du.

– Biodibertsitatea. Mende amaierarako hariztiaren, pagadiaren eta intsignis pinuaren (Pinus radiata) zoko ekologikoa ia-ia guztiz desagertzea eta apurka iparralderantz lekualdatzea espero da. Isurialde atlantikoak mendialdeetan jasango du eragina, tenperaturaren gorakadarengatik, batez ere 900 m-etatik gora (bereziki pagadiak eta mendiko bazkalekuak). Isurialde mediterraniarreko ekosistemek lehorteen eta defizit hidrikoaren gorakadaren eragina jasango dute.

Se resumen a continuación las principales amenazas climáticas que pueden afectar a algunos de los sectores o ámbitos de la CAPV:

– Sector primario. El aumento de los periodos de mayor sequía sobre las actividades económicas tiene especial interés en el medio agropecuario. Aunque en el sector agrario se espera que el cambio climático pueda tener un efecto positivo en el rendimiento de ciertos cultivos, tendrá efectos negativos en aspectos tales como, por ejemplo, un aumento de las plagas y las enfermedades o la aparición de especies invasoras. A estos impactos hay que añadir, además, el incremento de los incendios, producidos por periodos de sequía y la erosión del suelo.

– Biodiversidad. Se espera la desaparición casi total del nicho ecológico del robledal, del hayedo y del pino insigne (Pinus radiata) y un desplazamiento progresivo hacia el norte para finales de siglo. La vertiente atlántica sufrirá impacto en las zonas de montaña debido al aumento de temperatura, sobre todo por encima de 900 m (especialmente hayedos y pastos de montaña). Los ecosistemas de la vertiente mediterránea se verán afectadas por un aumento de las sequías y del déficit hídrico.

– Osasuna. Klima-aldaketak osasunaren arloan ziurrenik izango dituen eraginek zerikusia dute tenperaturaren gorakadarekin, airearen kalitateak txarrera egitearekin eta uholdeak eta luiziak ugaritzearekin. Horregatik guztiarengatik gaixotasun- eta heriotza-tasa handiagoak egongo dira, gaixotasunek gora egingo dute (arnas aparatukoek, azalekoek, bektoreek transmititutakoek, eta abar), eta giza-erosotasunak txarrera egingo du. Bero-boladek osasunean duten eraginaren kasu zehatza da mundu osoan datozen hamarkadetarako arazorik larrienetako bat.

– Azpiegiturak. Lurralde-eskalan, klima-aldaketak eragin handiak izan ditzake eraikitako azpiegituren gainean, eta horregatik azpiegitura urrakorren identifikazioan eta monitorizazioan jardun behar dugu, neurriak berrezartzeko eta mantentzeko premiak atzemateko, aldi berean soluzioen diseinuan berrikuntza bultzatuz erresilientzia handitzeko.

– Hiri-ingurunea. Hiri-eremuak erabakigarriak dira lurralde-sistemarentzat, biztanleria-dentsitate handiko guneak izanik ur-, material,- energia- eta elikagai-eskari handia dutelako, eta beraz hondakin eta emisio ugari sortzen dituztelako. Klima-aldaketa arintzearen ikuspegitik, hau da, hiri-sistemek sortutako emisioak murrizteari dagokionez, jomuga nagusitzat produkzioaren sustapena eta azpiegituren inguruko soluzioak dauzkan ikuspegi sektoriala ez da nahikoa. Hiri-plangintzak epe laburrera, ertainera eta luzera erantzun egokiak koordinatzeko duen ahalmena bultzatzen ahalegindu behar dugu bereziki, hiri-eraginkortasunean argi eta garbi eraginez. Hala, deskarbonizazio-alorreko erronkei aurrea hartzea, eta azpiegiturak, produkzioa, etxebizitza, nekazaritza, mugikortasunaren kudeaketa eta baliabide berriztagarriak eta antzeko erronkak planifikatzea funtsezkoa da ingurune horiek sorrarazten dituzten emisioak murrizteko.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak edo EAEko etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Lege berriak energia-eraginkortasunarekin, emisio kutsatzaileak murriztearekin, arkitektura bioklimatikoarekin, isolamendu termikoarekin edo eraikinak aireztatzeko baldintzekin zerikusia duten irizpideak aurreikusten dituzte, eta tresna eraginkorrak dira klima-aldaketaren alorrean eragiteko eta jarduteko.

Klima-aldaketak hiri-ingurunean dituen efektuen ikuspegitik, efektu horiek ugariak eta askotarikoak izan daitezke kokalekuaren arabera, baina gure kasuan hiru nabarmendu behar dira, pertsonen segurtasunaren eta ondasunen osotasunaren gainean eragiten dutelako zuzenean:

1. Estres termikoarekiko esposizioa, eta bereziki bero-irlaren efektuarekiko esposizioa; hirietan beroa metatzean eta gaueko orduetan beroa barreiatzeko zailtasunean datza efektu hori.

– Salud. Los impactos esperados debido al cambio climático en el ámbito de la salud están relacionados con el incremento de temperatura, el empeoramiento de la calidad de aire y el aumento de las inundaciones y deslizamientos. Todo esto ocasionará una mayor morbi-mortalidad, un incremento de las enfermedades (respiratorias, de la piel, transmitidas por vectores etc.) y un empeoramiento del confort humano. El caso concreto del impacto de las olas de calor sobre la salud representa uno de los problemas más serios para las próximas décadas a nivel mundial.

– Infraestructuras. A una escala territorial, los efectos del cambio climático sobre las infraestructuras construidas pueden ser relevantes, de ahí la necesidad de trabajar en la identificación y monitorización de infraestructuras vulnerables, para detectar necesidades de redimensionamiento y mantenimiento, impulsando a la vez la innovación en el diseño de soluciones para aumentar la resiliencia.

– Medio urbano. Las áreas urbanas son elementos decisivos del sistema territorial al ser centros densamente poblados donde se concentra demanda de agua, materiales, energía, alimentación y son espacios de generación de residuos y producción de emisiones. Desde la perspectiva de la mitigación del cambio climático, esto es, la reducción de las emisiones generadas por los sistemas urbanos, el enfoque sectorial orientado principalmente al fomento de la producción y a soluciones respecto a las infraestructuras, es insuficiente. Es necesario dirigir los esfuerzos hacia la capacidad que tiene la planificación urbana para coordinar respuestas adecuadas a corto, medio y largo plazo con una incidencia clara en la eficiencia urbana. Así, anticipar los retos en materia de descarbonización y planificar en torno a ellos tanto las infraestructuras, como la producción, la vivienda, la agricultura, la gestión de la movilidad y los recursos renovables, entre otros, resulta clave para reducir las emisiones de las que estos entornos son responsables.

La Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo, o la nueva Ley 3/2015, de 18 de junio, de vivienda de la CAPV, prevén la introducción de criterios de eficiencia energética, reducción de emisiones contaminantes, arquitectura bioclimática, aislamiento térmico o condiciones de aireación de los edificios, aspectos todos ellos con incidencia en el cambio climático que suponen herramientas eficaces para actuar en esta materia.

Desde la perspectiva de los efectos del cambio climático sobre el medio urbano, éstos pueden ser múltiples y de diversa naturaleza en función del emplazamiento, aunque, en nuestro caso, destacan tres por su impacto directo sobre la seguridad de las personas y la integridad de los bienes:

1. La exposición al estrés térmico y en particular al efecto isla de calor; es decir, la situación de acumulación de calor en las ciudades y la dificultad de disipación durante las horas nocturnas.

Klima-aldaketak hiri-ingurunean dituen efektuen ikuspegitik hiru nabarmendu behar dira: estres termikoarekiko esposizioa, eta bereziki bero-irlaren efektuarekiko esposizioa; itsas mailaren igoerarekiko eta olatuen eraginak handitzearekiko esposizioa, eta uraldien ondoriozko ibai-uholdeekiko esposizioa eta itsasoaren maila igotzearekiko elkarrekintzaren eragina eta olatuek itsasadar eta estuarioetan izango dituzten eraginak.

Desde la perspectiva de los efectos del cambio climático sobre el medio urbano destacan tres: la exposición al estrés térmico y en particular al efecto isla de calor; la exposición a la subida del nivel del mar y al incremento de los efectos del oleaje y la exposición a inundaciones de origen fluvial por avenidas y a su interacción con la elevación del nivel del mar y los efectos del oleaje en rías y estuarios.



Orozko

2. Itsas mailaren igoerarekiko eta olatuen eraginak handitzearekiko esposizioa. Itsasoaren maila igotzeagatik eta muturreko olatuak handitzeagatik uholdeek ingurune eraikian sor ditzaketen galera pertsonalak eta materialak oso handiak izan daitezke, kostaldetik hurbil biztanlegune eta azpiegitura ugari biltzen direlako.

2. La exposición a la subida del nivel del mar y al incremento de los efectos del oleaje. Las pérdidas personales y materiales que pueden llegar a generar las inundaciones por subida del nivel del mar y aumento del oleaje extremo en el medio construido pueden llegar a ser muy importantes debido a la concentración de población o infraestructuras que se encuentra cerca de la línea de costa.

3. Uraldien ondoriozko ibai-uholdeekiko esposizioa eta itsasoaren maila igotzearekiko elkarrekintzaren eragina eta olatuek itsasadar eta estuarioetan izango dituzten eraginak. Espero da klima-aldaketaren ondorioz arrisku naturalak handitzeta horren adibide da uholde-arrisku gero eta handiagoa. Klima-faktore horiek, eta klimarekin zerikusirik ez duten beste batzuek, adibidez udalerrien garapen sozioekonomikoak, topografiak, drainatze-sistemek, iragazkortasunak, eraikitakoaren formek eta abarrek, uholdeengatik kalteak eta galerak sortzeko probabilitatea handitzen dute.

3. La exposición a inundaciones de origen fluvial por avenidas y a su interacción con la elevación del nivel del mar y los efectos del oleaje en rías y estuarios. Se espera que el cambio climático tenga un efecto intensificador sobre los peligros naturales, siendo un ejemplo el creciente riesgo de inundaciones. Estos factores climáticos, junto con otros factores no climáticos como el desarrollo socioeconómico de los municipios, la topografía, los sistemas de drenaje, la permeabilidad, la forma construida, etc. aumentan la probabilidad de daños y pérdidas debido a las inundaciones.

Hiru efektu horien inpaktuak erronka garrantzitsuak dakartza gure lurraldearen segurtasunarentzat. Hortik abiatuta, erantzuna bitan zatitu behar da: batetik, jardun planifikatu eta aurreratua, fenomeno horiek pertsonen osasunaren gainean dituzten efektuak nahiz ondasunen, azpiegituren, bizibideen, zerbitzugintzen, ingurumen-baliabideen eta biodibertsitearen kalteak eta galera minimizatzeko, eta, bestetik, muturreko gertaeren aurrean esku hartzeko erantzun-mekanismoak ongi antolatzea.

El impacto de estos tres efectos representa importantes desafíos a la seguridad de nuestro territorio. Desde ahí la respuesta ha de acometerse en dos planos: una actuación planificada anticipada para minimizar los efectos sobre la salud de las personas, así como daños y pérdida de bienes, infraestructuras, medios de vida, prestación de servicios, recursos ambientales y biodiversidad, como consecuencia de estos fenómenos, y una organización eficiente de los mecanismos de respuesta e intervención ante eventos extremos.

Lurralde-plangintza, zeharkako politikoa publikoa izanik, eta LAGak bereziki, esparrurik aproposena dira erresilientzia klimatikorako, argi eta garbi euren asmoa lurralde bakoitzean beste politika sektorial batzuen nahiz eragile pribatuen jardunaren hedapen koordinatua artikulatzea delako.

La planificación territorial, como política pública transversal, y en particular las DOT constituyen el marco más apropiado en el que debe inscribirse la resiliencia climática, por su clara vocación de articular en cada territorio el despliegue coordinado de otras políticas sectoriales y la actuación de agentes privados.

Klima-aldaketa arintzeko lana eta klima-aldaketarako egokitzapena lurralde- eta hiri-

La integración de la mitigación y adaptación al cambio climático en la planificación territorial y urbana, la

plangintzan integratzea, klima-aldaketaren efektuen gaineko jakintza hobetzea eta sektore- eta lurralde-urrakortasuna aztertzea funtsezkoak dira arriskuei aurrea hartzeko eta ekintza zehatz eta efikazak bultzatzeko. Arintzeari dagokionez, karbono urriko energia-eredu baten aldeko konpromisoa, emisiorik gabeko garraioa, lurralde efizientea, emisio-murrizketarekin konprometitutako lehen sektorea, hiri-hondakinen sorkuntza murriztea eta hiri-hondakinen kudeaketa optimizatzea ere funtsezkoak dira karbono urriko lurralde bat lortzeko. Egokitzeari dagokionez, ziurtatu behar dugu, itunpeko ekintzaren bitartez, lurraldeak funtsezko zeregina bete dezala klima-aldaketaren aurkako borrokan, betiere muturreko gertaeren aurrean erantzuteko ahalmena duela ziurtatuz.

Erakundeak prestatzea eta haien eskura jardun planifikatu hori benetan gauzatzeko eta gertaeraren aurrean erantzuteko mekanismoak jartzea, eta herritarrak haien inpaktuaren inguruan kontzientziatzea funtsezkoak dira.

mejora del conocimiento sobre los efectos del cambio climático y los análisis de vulnerabilidad sectoriales y territoriales, son elementos clave para anticiparnos a los riesgos e impulsar acciones concretas y eficaces. En lo referente a la mitigación, el compromiso con un modelo energético bajo en carbono, un transporte sin emisiones, un territorio eficiente, un sector primario comprometido en la reducción de emisiones, una reducción en la generación de residuos, así como la optimización en su gestión son, a su vez, claves para conseguir un territorio bajo en carbono. Respecto a la adaptación debemos asegurarnos, mediante la acción concertada, que el territorio pueda mantener un papel fundamental en la lucha ante el cambio climático asegurando en todo caso su capacidad de respuesta ante eventos extremos.

Preparar y dotar a las instituciones de mecanismos que hagan verdaderamente efectiva esa actuación planificada y la respuesta ante el evento, así como concienciar a la ciudadanía sobre el impacto de los mismos, resultan fundamentales.

II.
HELBURUAK

Klima-aldaketaren alorrean, lurralde-estrategia berrikusteko helburuak honako hauek dira:

1. Plangintzan klima-aldagaia eta horri lotutako ziurgabetasunen murrizketa txertatzea, zientzia-ezagutzaren hobekuntzan oinarritutako eguneraketa-mekanismoen bitartez, ezagutza hori ekoizpen- eta kontsumo-moduei nahiz klimaren bilakaerari berari eta bilakaera horren ondorioei buruzkoa dela.

2. Karbono urriko energia-eredu baten alde egitea, energia-eraginkortasuneko irizpideak eta energia berriztagarriak indartuz, "zero emisioen" araberako eraikuntza jomugan, intermodalitatea eta BEGen emisio gutxien sortzen dituzten garraiobideak indartuz eta berrikuntza eta garapen teknologikoa bultzatuz, sektore guztietan berotegi-efektuko gasen emisioak murriztu ahal izateko.

3. Hondakinen sorkuntza minimizatzea eta kontsumo iraunkorragoa erraztea.

4. Lurraldearen erresilientzia handitzea natura-, landa- zein hiri-ingurunean, natura-ekosistemen funtzio-aniztasuna eta beren leheneratzea sustatuz, erabilera mistoko hiri-egitura trinko baten bitartez, eta kostaldeko eremuen kudeaketan klima-aldaketaren aldagaia integratuz. Halaber, lehen sektorearen erresilientzia handitzea eta haren emisioak murriztea, karbono-hustubide gisa duen potentziala areagotuz.

5. Arintzeko nahiz egokitzeko helburuak hedatzea lurralde- eta hirigintza-plangintzaren bitartez,

II.
OBJETIVOS

Los objetivos de la revisión de la estrategia territorial en materia de cambio climático son los siguientes:

1. Integrar en la planificación la variable climática y la reducción de las incertidumbres asociadas, a través de mecanismos de actualización basados en la mejora del conocimiento científico tanto sobre los modos de producción y consumo como sobre la propia evolución del clima y sus consecuencias.

2. Apostar por un modelo energético bajo en carbono potenciando criterios de eficiencia energética y energías renovables: hacia una edificación "cero emisiones", potenciando la intermodalidad y los modos de transporte con menos emisiones de GEIs, así como apoyando la innovación y el desarrollo tecnológico que permitan la reducción de emisión de gases de efecto invernadero en todos los sectores.

3. Minimizar la generación de residuos y favorecer un consumo más sostenible.

4. Incrementar la resiliencia del territorio, tanto en el medio natural, rural como urbano: fomentando la multifuncionalidad de los ecosistemas naturales y su restauración, promoviendo una estructura urbana compacta y mixta en usos, e integrando la variable de cambio climático en la gestión de las zonas costeras. Así mismo, aumentar la resiliencia del sector primario y reducir sus emisiones; aumentando el potencial como sumidero de carbono.

5. Desplegar tanto los objetivos de mitigación como los de adaptación a través del planeamiento

plangintza horrek lurraldearen erabilerak antolatuko baititu eraginkortasun eta erresilientzia helburuen arabera.

6. Plangintzaren dimentsio ekonomikoan klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketari egokitzeko ekintzak txertatzea, modu horretan beharrezkoak diren ekintzen kudeaketa bideratuko baita.

territorial y urbanístico, que ordenará los usos del territorio de acuerdo con objetivos de eficiencia y resiliencia.

6. Incorporar en la dimensión económica de la planificación las acciones de adaptación y mitigación climática, encauzando de este modo la gestión de las acciones necesarias.

III. LURRALDE-GIDALERROAK

Klima-aldaketa arintzearen eta klima-aldaketari egokitzearen arloko lurralde-gidalerroak Aplikatzeko arauen 31. artikuluan jasotzen dira.

III. DIRECTRICES TERRITORIALES

Las directrices territoriales en materia de mitigación y adaptación al cambio climático son las contenidas en el artículo 31 de las Normas de Aplicación.

10.4. Osasuna

10.4. Salud

Lurralde- eta hiri-plangintzan hartzen ditugun erabakiek inguruneak aldatzen dituzte, eta bizi garen eta lan egiten dugun lekuetan eragiten dute, baita gure joan-etorrietan edo aisialdian ere; horiek guztiak, biztanlerien osasuna baldintzatzen duten eragileak dira. Horregatik, beharrezkoa da haien azterketa eta jarraipena egitea, plangintza-prozesuetan ekitatea aintzat hartzea, komunitatearen parte-hartzea eta haiek agerian jartzea errazten duten tresnak garatzea plangintzaren hasiera-hasierako etapetatik.

Las decisiones en la planificación territorial y urbana cambian los entornos, afectan a los lugares donde vivimos y trabajamos, a la forma de desplazarnos o a qué dedicamos el tiempo de ocio, siendo todos ellos factores que determinan la salud de las poblaciones. Por ello es necesario su análisis y seguimiento, la consideración de la equidad en los procesos de planeamiento, la participación comunitaria y el desarrollo de instrumentos que faciliten su visibilización desde las etapas más tempranas de la planificación.



I. GAIA ZERTAN DEN

Historian zehar, plangintzak eta hirigintzak hainbat neurri proposatu eta diseinatu dituzte, osasun-erronka handiak gainditzeko baliagarri gertatu direnak, hala nola XIX. mendean Europa suntsitu zuen kolera-izurriteak eta XX. mendean nagusitu zen tuberkulosia. Besteak beste, giza pilaketa saihesteko dentsitate demografikoak behera egitea, estolderia- edo berdegune-sareak egitea eta etxebizitzen bizigarritasun-baldintzak (argitasuna, aireztapena, komunak) hobetzea lagungarri gertatu dira osasuna hobetzeko. Gaixotasunen prebentzioan eta osasunaren sustapenean izan diren lorpen handi batzuk plangintzatik eta hirigintzatik pertsonen bizi- eta lan-baldintzei buruz hartutako erabakien ondorioz etorri dira. XXI. mende honen hasieran, Osasun Publikoaren erronkak aldatu dira, eta gaur egun transmitigarriak ez diren gaixotasun kronikoei egin behar diegu aurre, hala nola minbiziari, gaixotasun kardiobaskularrei, diabetesari, obesitateari, asmari edo buru-gaixotasunei.

I. ESTADO DE LA CUESTIÓN

A lo largo de la historia, la planificación y el urbanismo han ido proponiendo y diseñando medidas que han ayudado a superar grandes retos de salud, como las epidemias de cólera que asolaron Europa durante el siglo XIX y la tuberculosis durante el siglo XX. La disminución de la densidad demográfica para evitar el hacinamiento humano, la construcción de redes de alcantarillado o de espacios verdes, la mejora de las condiciones de habitabilidad de las viviendas (luminosidad, aireación, cuartos de baño) han sido elementos que han contribuido a la mejora de la salud. Grandes logros en la prevención de enfermedades y la promoción de la salud se han debido a decisiones tomadas desde el planeamiento y el urbanismo sobre las condiciones de vida y de trabajo de las personas. En los comienzos de este siglo XXI, los retos para la Salud Pública han cambiado y hoy nos enfrentamos a epidemias de enfermedades no transmisibles y crónicas como el cáncer, enfermedades cardiovasculares, diabetes, obesidad, asma o enfermedades mentales.

Historian zehar, plangintzak eta hirigintzak hainbat neurri proposatu eta diseinatu dituzte, osasun-erronka handiak gainditzeko baliagarri gertatu direnak, hala nola XIX. mendean Europa suntsitu zuen kolera-izurriteak eta XX.

A lo largo de la historia, la planificación y el urbanismo han ido proponiendo y diseñando medidas que han ayudado a superar grandes retos de salud, como las epidemias de cólera que asolaron Europa durante el siglo XIX y la tuberculosis durante el siglo XX.

Osasun Publikoaren erronkak aldatu dira, eta gaur egun transmitigarriak ez diren gaixotasun kronikoei egin behar diegu aurre, hala nola minbiziari, gaixotasun kardiobaskularrei, diabetesari, obesitateari, asmari edo buru-gaixotasunei

Los retos para la Salud Pública han cambiado y hoy nos enfrentamos a epidemias de enfermedades no transmisibles y crónicas como el cáncer, enfermedades cardiovasculares, diabetes, obesidad, asma o enfermedades mentales.

Gaur egun badakigu lurralde-antolamendua eta hirigintza-plangintza, osasuna eta ingurumena dimentsio konplexuak direla, aldagai ugarien bitartez elkarren artean lotuak. Hiriek eta hirietan bizi direnek hainbat arazo izaten dituzte gaur egun, hala nola atmosfera-kutsadura eta zarata-arazoak, jarduera fisikoaren murrizketa, elikadura-ohituren aldaketa, gizarte-konexioaren galera edo hirikoa gehiago garatzea landakoa edo naturala baino gehiago. Arazo horiek guztiak elkarren artean lotuta daude, eta, ezbairik gabe, osasuna baldintzatzen dute.

Hirigune mota desberdinen eta osasunaren eta ongizatearen arteko erlazioaren haritik oso askotariko azterlanak sortzen ari dira, gaixotasun kronikoei, buru-osasunari eta bestelako efektuei buruzkoak, eta estresarekin, bizi-ohitura osasungarri eta osasungaitzekin, segurtasunarekin edota herritarren bizi-kalitatearekin lotutako alderdiei buruzkoak. Tipifikazio berrienetako baten arabera, guneei koloreak esleitzen zaizkie, erabilerareneta jardueraren, gogora ekartzen digutenaren eta eragiten duten gogo-aldartearen arabera. Hala, hiru gune mota bereizten dira: berdeak, grisak eta urdinak. Gune berdeak landaredia (zuhaitzak, basoak, belardiak edo parkeak) duten eremuei dagozkie, eta gune urdinak, berriz, ur-azalerei buruzko informazioa ematen dute, hala nola ibaiak, urmaelak, lakuak edo itsasoa. Gune grisak, ordea, hiri-bilbeko, merkataritzako eta garraioko edo industria-jarduerako inguruneei dagozkie.

Osasun-alorrean, planteamendu horren azpian dagoen hipotesiaren arabera, berdegune eta urdinguneetarako irisgarritasuna eta hiri-bilbearen diseinua, osasuna sortzen duten edo osasunaren alor guztietarako mesedegarri diren elementuak izan daitezke. Sarri azterlan espezifikoek adierazle

Hoy sabemos que la ordenación territorial y la planificación urbanística, la salud y el medio ambiente constituyen dimensiones complejas relacionadas mediante un gran número de variables. Los problemas actuales de las ciudades y las personas que las habitan, como la contaminación atmosférica y los problemas de ruido, la disminución de la actividad física, la modificación de los hábitos alimenticios, la pérdida de la conexión social o el desarrollo de lo urbano frente a lo rural/natural son aspectos determinantes de la salud y están interrelacionados entre sí.

La relación entre las distintas tipificaciones que se pueden atribuir a los espacios urbanos y a la salud y el bienestar está generando estudios muy diversos en los que se incluyen efectos que van desde las enfermedades crónicas y la salud mental hasta aspectos relacionados con el estrés, hábitos de vida saludables y no saludables, la seguridad o la calidad de vida de la ciudadanía. Una de las tipificaciones más novedosas es la correspondiente a la atribución de colores a los distintos espacios en función del uso y actividad, evocación y estado de ánimo que promueven, definiéndose tres espacios que son los verdes, grises y azules: los espacios verdes hacen referencia a zonas con vegetación (arbolado, bosques, extensiones de hierba o parques), mientras que las zonas azules informan sobre las superficies de agua como ríos, estanques, lagos o el mar, finalmente las zonas grises, por el contrario, hacen referencia a entornos de trama urbana, comercial y de transporte o actividad industrial.

En términos de salud, la hipótesis que subyace a este planteamiento es que la accesibilidad a espacios verdes y azules y el propio diseño de la trama urbana pueden ser elementos que generan o favorecen la salud en sus diversas vertientes. Es frecuente que los estudios específicos utilicen

Cristina Enea. Donostia / San Sebastián





Zeanuri

konplexuak erabiltzen dituzte geografia aztertzeko, pertsonen eta komunitatearen interesetarako esanguratsuak diren adierazleak, hain zuzen. Besteak beste, honako termino hauek aurkitzen ditugu: oinez ibiltzeko aukerak, konektibitatea, ingurune atseginak edo erabilera mistoko guneak, guztiek ere definizio operatibo desberdinak izan ditzaketenak eskuragarri dugun informazioaren arabera eta oinarrian dauzkagun neurrien (fisikoak, pertzepzio- eta psikologia alorrekoak edo bi motakoak) arabera. Jendea gero eta gehiago eskatzen ari da ingurumen-alorrean atseginak diren inguruneak eskuragarri edukitzea, baliabide berdeez eta aisiagune eta topagune irisgarriez hornituak. komenigarria litzateke helburu hori betetzea, baina ez bakarrik norberaren osasunaren ikuspegitik, baita osasun publikoaren ikuspegitik, eta, beraz, osasun-politiken ikuspegitik ere.

Lurraldea eta hirigintza antolatzeko erabakiak palanka eragingarriak dira, herrien osasuna sustatzeko ezinbestekoak. Eta funtsezkoak dira osasunarentzat, ongizatearentzat eta bizi-kalitatearentzat lagungarri diren baldintzak hobetzeko bidean. Aukerarik errazena betiere osasungarriena dela bermatzea da giltzarria.

Bestetik, osasun-alorreko ekitateak esan nahi du pertsona guztiek goreneko osasun-maila lortzeko aukera berdinak dauzkatela lortzea, posizio soziala edo faktore sozialek baldintzatutako beste gorabehera batzuk direla medio desabantaila-egoeran geratu gabe. Esparru horretan, hainbat estrategia garatu dira herritarren osasuna sustatu eta babesteko, Europar Batasunaren Garapen Iraunkorreko Estrategia adibidez. EAEn, Osasun Planak bere lehentasunezko ekintza-arloetan desparekotasunak murrizteko helburu eta ekintzak ezartzen ditu.

Oso kontuan hartzekoa da osasun-alorrean gradiente bat badagoela gizarte-eskalan. Zenbait azterlanek egiaztatu dutenez, nolabaiteko erlazioa dago pertsona bat bizi den ingurunearen maila sozialaren

complejos indicadores de análisis geográfico con significado para los intereses de las personas y de la comunidad, con términos como la caminabilidad, la conectividad, los entornos amigables o los espacios de uso mixto que pueden tener distintas definiciones operativas, según la disponibilidad de información y el hecho de centrarse en medidas de tipo físico o en medidas de tipo perceptivo-psicológico o en ambas. La disponibilidad de entornos ambientalmente amigables, con recursos verdes y espacios de ocio y encuentro accesibles es una demanda creciente de la población. A este deseo es conveniente añadir que lo deseado suponga, además, ventajas en términos de salud individual, pero también desde el punto de vista de la salud pública y, por tanto, de las políticas de salud.

Las decisiones en la ordenación del territorio y el urbanismo constituyen palancas de influencia ineludibles para promover la salud de las poblaciones. Tienen un papel fundamental en la mejora de las condiciones de vida que contribuyen a la salud, al bienestar y a una buena calidad de vida. La clave es garantizar que la opción más fácil sea siempre la más saludable.

Por otro lado, la equidad en salud es conseguir que todas las personas tengan las mismas oportunidades de alcanzar su grado máximo de salud sin verse en situación de desventaja por razón de su posición social u otras circunstancias determinadas por factores sociales. En este marco se han desarrollado estrategias para promover y proteger la salud de la ciudadanía, como la Estrategia de Desarrollo Sostenible de la Unión Europea. En la CAPV el Plan de Salud establece los objetivos y acciones para disminuir las desigualdades en sus áreas prioritarias de acción.

Es importante tener en cuenta que existe un gradiente en la salud a lo largo de la escala social. Existen estudios que revelan una cierta relación entre el nivel social del entorno en que vive una persona

Osasun-alorreko ekitateak esan nahi du pertsona guztiek goreneko osasun-maila lortzeko aukera berdinak dauzkatela lortzea, posizio soziala edo faktore sozialek baldintzatutako beste gorabehera batzuk direla medio desabantaila-egoeran geratu gabe.

La equidad en salud es conseguir que todas las personas tengan las mismas oportunidades de alcanzar su grado máximo de salud sin verse en situación de desventaja por razón de su posición social u otras circunstancias determinadas por factores sociales.

eta bizi-kalitatearen artean, berdeguneetara iristeko aukera gutxiago daudelako edo kalitate okerragoko airearekiko esposizioa handiagoa delako, eta horrek osasunean ere badu bere isla. Hortaz, osasunaren aldeko hirigintza edo hiri-garapen osasungarria da garapen iraunkorraren oinarriak errespetatuz herritarren osasuna eta ongizatea sustatzen duena. Berdintasunaren, sektorearteko lankidetzaren eta parte-hartzearen balioetan oinarritzen da, OMEren "pertsona guztientzako osasunaren" aldeko politikaren funtsezko balioak diren heinean.

Hiri-ingurunearen diseinuak zenbait alorretan eragiten du bereziki, mugikortasun aktiboan adibidez. Joan-etorriak egiteko hartzen dugun erabakiak –oinez joatea edo motorizatu gabeko garraiobide bat hartzea– zuzenean eragiten du herritarren osasunean. Beheko diagraman aztertzen da nola eragiten duten hurbiltasunak eta distantzia laburrek mugitzeko jokabidean.

Diagrama honetan, hiri inguruko ohiko auzo batean (lotu gabea, dentsitate txikikoa eta erabilera bereizietakoa) kokatutako familia-etxebizitza bat (irudiaren ezkerraldean) eta lotutako eta erabilera mistoetako auzo trinkoago batean (irudiaren eskuinaldean) kokatutako familia-etxebizitza bat alderatu dira. Zirkuluak 1 km-ko distantzia irudikatzen du (lerro zuzenean) hautatutako familia-etxebizitza bakoitzetik, eta barnealdeko polilerro irregularraren barruan, berriz, km 1eko tartean, kale-sarean oinez benetan egin daitekeen azalera hartu da. Diagrama horrek erakusten du, batetik, lotu gabeko kale-eredu batek oinezkoen irisgarritasunean eragin dezakeela (berehalakotasuna), eta, bestetik, erabilera bakarreko eta dentsitate txikiko eredu batek oinezkoentzat irisgarri diren helmugen kopurua murrizten duela (hurbiltasuna).

Euskadin, osasun-politikei esker eta lan-osasunean, etxebizitzan, hezkuntzan eta ingurumen fisikoaren hobekuntzan egindako aurrerapenei esker, azken hamarkadetan osasun-adierazleek hobera egin dute, eta bizi-itxaropena luzatu da. Horren ondorioz, gizarteak biztanleria zahartzearen erronka zailari egin beharko dio aurre, Zahartze Aktiboaren Euskal Estrategiaren esparruan. Nolanahi ere, hurbilagotik

y la calidad no sólo de vida, por un menor acceso a espacios verdes o una mayor exposición a aire de peor calidad, sino también de su salud. Se define así el urbanismo favorable a la salud, o el desarrollo urbano saludable, como aquel que promueve la salud y el bienestar de la población, respetando los pilares del desarrollo sostenible. Se basa en los valores de equidad, cooperación intersectorial y participación, valores clave de la política de la OMS "salud para todas las personas".

Uno de los aspectos relevantes en el que tiene una gran influencia el diseño del entorno urbano es el de la movilidad activa. La decisión de ir a pie o tomar un medio de transporte motorizado para desplazarse repercute directamente en la salud de la ciudadanía. En el siguiente diagrama se analiza cómo la proximidad y la distancia más corta influyen en la conducta a la hora de moverse.

En este diagrama se compara una vivienda familiar localizada en un típico barrio suburbano, desconectado, de baja densidad y de usos segregados (a la izquierda de la imagen), con una vivienda familiar situada en un barrio conectado, más compacto y de usos mixtos (a la derecha de la imagen). El círculo representa un radio de 1 km de distancia (en línea recta) desde cada una de las viviendas familiares escogidas, mientras que la polilínea irregular interior captura el área a 1km de distancia realmente caminable en la red de calles. Este diagrama muestra no solo cómo un diseño de patrón desconectado de calles puede impactar en la accesibilidad peatonal (inmediatez), sino cómo un patrón de uso único y baja densidad restringe el número de destinos accesibles peatonalmente (proximidad).

En Euskadi las políticas sanitarias, los avances en salud laboral, vivienda, educación y la mejora del medio ambiente físico han favorecido la mejora de los indicadores de salud en las últimas décadas y se ha alargado la esperanza de vida. Esta circunstancia plantea a la sociedad el difícil reto de afrontar el envejecimiento de la población, que es objeto de la Estrategia Vasca de Envejecimiento Activo. Sin

Hiri-ingurunearen diseinuak zenbait alorretan eragiten du bereziki, mugikortasun aktiboan adibidez. Joan-etorriak egiteko hartzen dugun erabakiak –oinez joatea edo motorizatu gabeko garraiobide bat hartzea– zuzenean eragiten du herritarren osasunean.

Uno de los aspectos relevantes en el que tiene una gran influencia el diseño del entorno urbano es el de la movilidad activa. La decisión de ir a pie o tomar un medio de transporte motorizado para desplazarse repercute directamente en la salud de la ciudadanía.

HIRI LOTU GABEA
CIUDAD DESCONEXA

HIRI LOTUA
CIUDAD CONEXA



Iturria: Frank et al. 2004

Fuente: Frank et al. 2004

begiratuta ikus dezakegu osasun-egoeraren hobekuntza ez dela berdin banatzen biztanleria osoaren artean, 2006-2010 aldirako oinarrizko osasun-eremuei buruzko azterketaren honako emaitza honetan ikus dezakegunez (1. irudia):

1. irudia. Bizi-itxaropena jaiotzean oinarrizko osasun-eremuetan EAEn, 2006-2010





Iturria: Calvo M, Esnaola S. Desigualdades en la esperanza de vida en las zonas básicas de salud de la CAPV, 2006-2010

embargo, y mirando más de cerca, se observa que la mejora del estado de salud no tiene una distribución igual en toda la población, tal y como se visualiza en el siguiente resultado del análisis de las zonas básicas de salud, para el periodo 2006-2010 (Figura 1):

Figura 1. Esperanza de vida al nacimiento en zonas básicas de salud CAPV, 2006-2010

Fuente: Calvo M, Esnaola S. Desigualdades en la esperanza de vida en las zonas básicas de salud de la CAPV, 2006-2010

II. HELBURUAK

Osasunaren alorrean, lurralde-estrategia berrikusteko helburuak honako hauek dira:

1. Bultzatzea eta indartzea lurraldeak osasunean duen eraginaren azterketa sistematikoa eta eragin horiek lurralde- eta hirigintza-plangintzan kontuan har daitezela.

2. Osasun alorreko berdintasuna sustatzea, herritar guztiek komunitate-zerbitzu guztiak edukitzeko, eskuratzeko eta erabiltzeko aukera berdinak eduki ditzaten, beren generoa, adina, etnia, estatus sozioekonomikoa edo egoera funtzionala edozein izanik ere.

3. Osasun-desparekotasun sozialak murriztea bizi-kalitatearen mesedetan doazen giro eta inguruneetara iristeko aukera emanez.

4. Jarduera fisikoaren, mugikortasun fisikoaren eta elikaduraren bitartez ohitura edo bizi-estilo osasungarriak sustatzea.

5. Zahartze aktiboak bizi-ohitura osasuntsuagoen garapenean eta ingurune adiskidetsuago baten beharrizanean duen zeregina barneratzea.

II. OBJETIVOS

Los objetivos de la revisión de la estrategia territorial en materia de salud son:

1. Impulsar y favorecer el análisis sistemático de impactos del territorio en la salud, y su consideración en la planificación territorial y urbanística.

2. Contribuir a la equidad en salud como igualdad de oportunidades de disponer, acceder y utilizar los diversos servicios de la comunidad por toda la población, independientemente del género, edad, etnia, estatus socioeconómico o situación funcional.

3. Reducir las desigualdades sociales en salud mediante el acceso a ambientes y entornos que mejoran la calidad de vida.

4. Promover hábitos o estilos de vida saludables a través de la actividad física, la movilidad activa y la alimentación.

5. Interiorizar el papel del envejecimiento activo en el desarrollo de unos hábitos de vida más saludables y en la necesidad de un entorno más amigable.

III. LURRALDE-GIDALERROAK

Osasunaren arloan proposatzen diren lurralde-gidalerroak Aplikatzeko arauen 32. artikuluan jasotzen dira.

III. DIRECTRICES TERRITORIALES

Las directrices territoriales en materia de salud son las contenidas en el artículo 32 de las Normas de Aplicación.

10.5. Euskara

10.5. Euskera

Eremu honetan garatzen diren lurraldean esku hartzeko tipologiak eta politikek lurralde honetako biztanleengan eragina izan dezakete hainbat alorretan, hizkuntzaren alorrean esaterako. Gainera, kontuan hartzen badugu lurralde horretan bi hizkuntza ofizial daudela desparekotasun-egoeran, gertakari horrek garrantzi berezia hartzen du.

La tipología de intervención territorial y las políticas que en este ámbito se desarrollen, pueden afectar a los comportamientos de las personas que ocupan ese territorio en multitud de ámbitos, siendo el de la lengua uno de ellos. Si además se trata de un territorio en el que conviven dos lenguas oficiales en situación de desigualdad esta incidencia cobra una especial relevancia.



Durangoko Azoka

I. GAIA ZERTAN DEN

Azken urteetan, euskararen bilakaera positiboa izan da, argi eta garbi. Euskara ezagutzen eta erabiltzen duten pertsonen kopurua dugu horren adierazgarri, baita erabilera horren eraginpeko eremuak eta euskara garatzeko jarduera publikoaren eta pribatuaren oso askotariko eremuetan sortu den azpiegitura espezifikoa ere. Bizitza sozialaren eta ekonomikoaren maila guztietan sartutako hizkuntza da. Euskara dinamizatzeko garaia da, orain arte arreta handirik eskaini ez zaien eremuetatik abiatuta. Lurraldearen antolamendua da horietariko bat.

Oro har datuek aldeko bilakaera bermatzen dute, baina badira zenbait gauza indartu behar direnak.

1982an Euskararen Normalizazioari buruzko Oinarrizko legea onartu zenez geroztik asko aurreratu da alor horretan. "Euskera 21" dokumentu estrategikoak[1] XXI. mendeko hizkuntza-politikaren oinarriak ezarri ditu, eta lurralde-antolamenduaren

1 *"Euskera, 21. XXI. mende-hasierako hizkuntza-politikaren oinarriak. Itun berritu baterantz. Gogoeta irekiaren ondo-rengo txostena." Euskararen Aholku Batzordea – Consejo Asesor del Euskera. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politi-karako Sailburuordetza. Vitoria-Gasteiz, 2009.*

I. ESTADO DE LA CUESTIÓN

La situación del euskera en los últimos años ha conocido una evolución claramente positiva. Esto queda reflejado no sólo en el número de personas que lo conocen y utilizan, sino en los ámbitos a los que esta utilización ha accedido y la infraestructura específica que para su desarrollo se ha generado en muy diversos ámbitos de la actividad pública y privada. Se trata de una lengua incorporada a todas las esferas de la vida social y económica. Es momento de acometer la dinamización del euskera desde ámbitos a los que hasta este momento no se había prestado demasiada atención. La ordenación del territorio es uno de ellos.

Los datos avalan una evolución favorable en su conjunto, aunque también existen aspectos que deben ser reforzados.

Desde que en 1982 se aprobara la Ley Básica de Normalización del Euskera, se ha producido un notable progreso. El documento estratégico "Euskera 21"[1] sienta las bases de la política lingüística del siglo XXI y plantea una serie de cuestiones que

1 *"Euskera 21. Bases para la política lingüística del siglo XXI. Hacia un pacto renovado. Ponencia resultante del proceso abierto." Euskararen Aholku Batzordea – Consejo Asesor del Euskera. Viceconsejería de Política Lingüística, Gobierno Vasco. Vitoria – Gasteiz, 2009.*

eta euskararen sustapenaren arteko erlazioaren harira hainbat gai planteatzen ditu, hala nola euskara ohiko hizkuntzatzat duten bizi-nitxoak (arnasguneak) zaindu, indartu eta hedatu beharra, euskararen belaunaldiarteko transmisioa bermatzeko eta euskarak gizartearentzat duen erreferentzia-izaera indartzeko; euskaldunen komunitatea sendotzearen garrantzia, sare birtualak eta presentzialak hedatuz eta indartuz, gune publikoetan bereziki; eta hiri handietan euskararen erabilera igo beharra, eta bereziki euskara hiri-inguruneetan sustatzeko jarduerak garatzeko aukera ematen duten gune fisikoen bitartez. Hala, espazio-osagaiaren balioa onesten da, euskara biziberritzeko ikuspegitik egokiak diren espazio fisikoen balioa alegia.

guardan una relación entre la ordenación territorial y la promoción del euskera como son: la necesidad de cuidar, fortalecer y extender los nichos vitales (conocidos como arnasguneak) en los que el euskera es la lengua habitual, a fin de garantizar la transmisión intergeneracional del euskera y fortalecer su carácter de referencia social; la conveniencia de consolidar la comunidad vascohablante, extendiendo y fortaleciendo las redes virtuales y presenciales, especialmente en los espacios públicos; y la necesidad de incrementar el uso del euskera en las grandes ciudades, especialmente a través de espacios físicos donde desarrollar actividades de promoción del euskera en entornos urbanos. De este modo, se reconoce el valor de la componente espacial, de los espacios físicos adecuados desde la perspectiva de la revitalización del euskera.

Herritar helebidunak **Población Bilingüe**



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Fuente: V Encuesta Sociolingüística, 2011.

Bestalde, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikuluko 7. zenbakiak honela dio: "Udalen egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua neurtuko da, eta ebaluazio horien emaitzen arabera egokien irizten zaizkien neurriak proposatuko dira."

Por su parte, la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi establece en el apartado 7 de su artículo 7 que: "En el procedimiento de aprobación de proyectos o planes que pudieran afectar a la situación sociolingüística de los municipios se evaluará su posible impacto respecto a la normalización del uso del euskera, y se propondrán las medidas derivadas de esa evaluación que se estimen pertinentes".

2015ean Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako "Eta hemendik aurrera zer?"[2] gogoeta-dokumentuak azpimarratzen duenez, hizkuntza-politikaz eta euskara biziberritzeaz ari garenean gizarte-bizikidetzaz ari gara. Hortaz, maila fisikoan eta lurralde-arloan gauzatzen direnean, giza eskalako proiektuen bitartez garatzen dira, harremanak, komunikazioa eta trukea sustatuz.

El documento de reflexión presentado por el Gobierno Vasco en 2015 "Eta hemendik aurrera zer?"[2] incide en que al hablar de política lingüística y de revitalización del euskera, se habla de convivencia social. De ahí que su traslación al nivel físico y territorial, se plasme en el desarrollo de proyectos a escala humana, que propicien la relación, el intercambio y la comunicación.

Asko dira lurralde batean hizkuntza baten bilakaeran, osasunean eta presentzian eragina duten elementuak.

Son muchos los elementos que inciden en la evolución, salud y presencia de un idioma en un

2 *2015ean Eusko Jaurlaritzak Euskararen Aholku Batzordeari aurkeztutako dokumentua.*

2 *Documento presentado por el Gobierno Vasco en 2015 al Consejo Asesor del Euskera-Euskera Aholku Batzordea.*

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak honela dio: "Udalen egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua neurtuko da, eta ebaluazio horien emaitzen arabera egokien irizten zaizkien neurriak proposatuko dira."

La Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi establece que: "En el procedimiento de aprobación de proyectos o planes que pudieran afectar a la situación sociolingüística de los municipios se evaluará su posible impacto respecto a la normalización del uso del euskera, y se propondrán las medidas derivadas de esa evaluación que se estimen pertinentes"

Euskaraz jakiteaz gainera, hiztunen dentsitatea ere funtsezkoa da euskara erabiltzeko.

territorio. La densidad de hablantes es, junto con el conocimiento del euskera, el elemento fundamental para su utilización.

EAEko udalerriak biztanle kopuruaren eta euskaldunen ehunekoaren arabera[3]

Municipios de la CAV según población y porcentaje de euskaldunes[3]

Euskaldunak / Euskaldunes	Tamaina (Biztanleak) / Tamaño (Habitantes)				
	<1.000	1.000 - 3.000	3.000-5.000	>5.000	Guztira / Total
Z1. <20%	16	2	1	3	22
Z2. 20-50%	18	23	8	31	80
Z3. 50-80%	22	25	8	32	87
Z4. >80%	45	13	2	2	62

Iturria: EUSTAT 2011. Egileak egina. *Fuente: EUSTAT 2011. Elaboración propia.*

Euskaldunak bizileku-udalerriaren arabera, udalerriaren tamainaren eta euskaldunen ehunekoaren arabera sailkatua

Población euskaldun según municipio de residencia clasificado por tamaño y porcentaje de euskaldunes

Euskaldunak / Euskaldunes	Tamaina (Biztanleak) / Tamaño (Habitantes)				
	<1.000	1.000 - 3.000	3.000-5.000	>5.000	Total
Z1. <20%	970	694	528	31.949	34.141
Z2. 20-50%	2.494	13.513	12.043	379.998	408.048
Z3. 50-80%	9.348	27.412	20.860	233.056	290.676
Z4. >80%	14.957	17.280	6.798	17.539	56.574
Guztira / Total	27.769	58.899	40.229	662.542	789.439

Iturria: EUSTAT 2011. Egileak egina. *Fuente: EUSTAT 2011. Elaboración propia.*



Beren burua euskalduntzat duten 789.439 pertsonetatik 698.724 2. eta 3. eremuetako udalerrietan bizi dira. Euskaldunek presentzia nabaria dute udalerri txikietan, baina kontrako egoera ere ikusten da, hau da, % 20tik beherako ehunekoa duten 22 udalerrietatik 16k 1.000 biztanle baino gutxiago

De una población de 789.439 personas que se declaran euskaldunes, 698.724 residen en municipios de las zonas 2 y 3. Es importante la presencia de la población euskaldun en los municipios de tamaño reducido, aunque se observa también la situación contrapuesta, en la que 16 de los 22 municipios

3 *EAEko Inkesta Soziolinguistikoaren Eremu Soziolinguistikoei buruzko sailkapena erabiltzen da. 1. eremuan, % 20ko edo gutxiagoko euskaldunen ehunekoa duten udalerriak bildu dira; 2. eremuan % 20tik % 50era bitarteko ehunekoa dutenak; 3. eremuan % 50etik % 80ra bitarteko ehunekoa dutenak; eta 4. eremuan % 80tik gorako ehunekoa dutenak (arnasguneak azken eremu horretan daude).*

3 *Se utiliza la clasificación de Zonas Sociolingüísticas de la Encuesta Sociolingüística de la CAPV. La zona 1 incluye a los municipios con un porcentaje de euskaldunes igual o menor al 20%, la zona 2 a los que cuentan con un porcentaje entre 20 y 50%, la zona 3 entre 50 y el 80% y la zona 4 superior al 80%, aquella en la que se ubican los arnasgunes.*

dituzte. Azken urteetan euskaldunen hazkundea erregistratu da, eta hazkunde hori gertatu da biztanle kopuruak ere gora egin duen lekuetan. Gainerakoan, euskaldun gehienak, % 84, 5.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi dira.

con un porcentaje de euskaldunes menor del 20% tienen una población inferior a los 1.000 habitantes. El crecimiento de la población euskaldun que se ha registrado en los últimos años se ha dado en los lugares en los que el número de habitantes también ha crecido. Por lo demás, la mayor parte de la población euskaldun, el 84%, reside en municipios de más de 5.000 habitantes.

Arnasguneetan euskararen jakintza eta erabilera naturaltasunez eta intentsitate handiz sortzen diren tokiak dira, eta arnasguneak eremu geografikoak (hiriak, herriak, herrixkak, auzoak...) edo gune funtzionalak (lanerako, ikasteko, aisiarako eremuak) izan daitezke. Gune geografiko gisa arnasgunea izateko, bertako biztanleen % 80k euskaldunak behar dute. Gaur egun, EAEko 62 udalerri arnasguneak dira. Haietan bizi dira EAEko biztanleen % 3,2, euskaldunen % 7,2, euskaldun pasiboen % 1,1 eta erdaldunen % 0,6. Udalerri mota horren espazio-kokapena garrantzitsua da, eta ondorengo mapetan udalerriz udalerriko banaketa ikus dezakegu, euskaldunen ehunekoaren bilakaera barne.

Los arnasguneak son espacios en los que el conocimiento y la utilización del euskera se produce de una manera natural y con una elevada intensidad y pueden ser espacios geográficos (ciudades, pueblos, aldeas, barrios...) o espacios funcionales (ámbitos de trabajo, estudio, ocio, ...). Los arnasguneak como espacios geográficos son aquellos en los que el 80% de las personas que habitan en él son euskaldunes. En la actualidad, 62 municipios de la CAPV tienen la consideración de arnasguneak. En ellos reside el 3,2% de la población de la CAPV, el 7,2% de la población euskaldun, el 1,1% de los euskaldunes pasivos y el 0,6% de la población erdaldun. La ubicación espacial de esta tipología de municipio es relevante, observándose en los mapas siguientes la distribución a nivel de municipios; incluyendo la evolución del porcentaje de sus habitantes euskaldunes.

EAEko eremu soziolinguistikoen bilakaera, 1981-2011 (%)

Evolución de las áreas sociolingüísticas de la CAPV, 1981-2011 (%)



Iturria: Biztanle eta etxebizitzen errolda, 2011.

Fuente: Censo de Población y Vivienda, 2011

V. Inkesta Soziolinguistikoak ondorioztatzen duenez, laugarren eremuko udalerrietan euskararen erabilerak behera egin du (7,5 puntu 1991z geroztik), hiri gaztelaniadunenetatik gune euskaldunenetara bizitzera joan diren herritarren hizkuntza-ezaugarriak direla medio. Azpimarratzekoa da, halaber, euskaldunak % 20ra iristen ez diren udalerrien kopuruak behera egin duela nabarmen. Hortaz, bilakaera argi bat gertatu da udalerri guztietan euskaldunen presentzia erlatiboa neurtzen duen parametroan.

La V Encuesta Sociolingüística concluye que el descenso del uso del euskera en los municipios de la cuarta zona (7,5 puntos desde 1991) se debe a las características lingüísticas de la población que se ha trasladado a vivir a los núcleos más euskaldunes desde las ciudades más castellanoparlantes. Es igualmente reseñable la sensible reducción de aquellos municipios en los que la población euskaldun no llega al 20%. Por tanto, se ha producido una clara evolución en el parámetro de presencia relativa de euskaldunes en los diversos municipios.

Arnasgune gisa identifikatutako gune gehienak kolektibitate txikiak dira, landa-osagai sendoa dutenak, eta, oro har, mota guztietako esku-hartzeen aurrean, hirigintza-alorrekoen aurrean esaterako, oso hauskorrak direnak. Arnasguneen ia

Los espacios identificados como arnasguneak son mayoritariamente colectividades pequeñas, con arraigado componente rural y, en general, muestran gran fragilidad frente a intervenciones de distinto tipo, entre las que cabe destacar las urbanísticas.

% 80 landa-eremukoak dira. Gune horien arazoa oso espezifikoa da, eta enplegua eta hauskortasun sozioekonomikoa dira enklabe horien biziraupenaren giltzarrietako batzuk. Eta puntu horri beste zenbait arrazoi erantsi behar zaizkio, hala nola zahartzea, eta hainbat zerbitzutara iristeko edo telekomunikazio-zerbitzuetara homogeneotasunez iristeko zailtasunak. Ezaugarri horien arabera, oso askotariko gaiak balioetsi behar dira eta premia jakin batzuei erantzun behar zaie. Euskara biziberritzearen ikuspegitik funtsezkoak badira ere, haietan proposatzen diren esku-hartzeek hainbat faktore bildu behar dituzte, gune horien etorkizuna baldintzatzen dutenak.

5.000 biztanletik gora biltzen dituzten guneetan biltzen dira euskaldun gehienak, % 84raino. Orobat, gaztelaniadunen % 92 kontzentratzen dira gune horietan. Hizkuntza biziberritzearen eta normalizazioaren ikuspegitik, leku horietan garatzen dira euskararen erabilera sustatzeko prozesuen arrakasta bermatu ahal izango duten harremanak eta jarduerak. Izan ere, hirigune horietan beste era bateko arnasguneak garatu behar dira: arnasgune funtzionalak, hau da, euskararen erabilera hainbat jarduerari lotuta sustatzen den tokiak, jolas-, hezkuntza-, kultura- zein asistentzia-jarduerei lotuta, adibidez.

II.
HELBURUAK

Euskara-alorrean, honako hauek dira lurralde-estrategiaren berrikuspenaren helburuak:

1. Euskarak lurraldean duen presentzia kontuan hartzea lurralde-antolamenduko eta hirigintza-plangintzako tresnak egitean eta garatzean.

2. Arnasgune diren udalerriak sendotzea hizkuntza-baliabideak sortzeko eta hizkuntza transmititzeko eta naturaltasunez erabiltzeko guneak diren heinean.

3. Euskara hiri-izaerako eremuetan erabil dadin laguntzeko jardunak ahalbidetzea, arnasgune funtzionalen garapena bultzatuz.

4. Udalerrien esku lurralde-plangintzako eta -antolamenduko irizpide eta tresna egokiak jartzea, euskararen aldekoagoak diren egoera soziolinguistikoetarantz bultza egiteko aukera izan dezaten.

III.
LURRALDE-GIDALERROAK

Euskararen arloan proposatzen diren lurralde-gidalerroak aplikatzeko arauen 33. artikuluan jasotzen dira.

Prácticamente el 80% de los arnasguneak pertenecen al ámbito rural. La problemática de estos espacios es muy específica, identificándose la cuestión del empleo, junto la fragilidad socioeconómica, como una de las claves de la pervivencia de estos enclaves. A esta cuestión hay que añadir otras como el envejecimiento, las dificultades para el acceso a gran parte de servicios o el acceso homogéneo a los servicios de telecomunicaciones. Estas características sugieren la valoración de aspectos muy diversos y la respuesta a unas necesidades determinadas. Si bien desde el punto de vista de la revitalización del euskera resultan determinantes, las intervenciones que en ellos se propongan deben contemplar multitud de factores que condicionan su futuro.

Los núcleos que aglutinan a partir de 5.000 habitantes es donde se concentra la mayor parte de los euskaldunes, hasta el 84%. Al mismo tiempo, el 92% de la población castellanoparlante también se concentra en estos espacios. Desde un punto de vista de revitalización lingüística y de normalización son lugares donde se desarrollan las relaciones y actividades que podrán garantizar el éxito de los procesos de promoción de la utilización del euskara. De hecho, en estos entornos urbanos se han de desarrollar otros arnasguneak, los funcionales, es decir, los espacios físicos en los que se promueva la utilización del euskara en torno a actividades de tipo lúdico, educativo, cultural, deportivo o asistencial, por ejemplo.

II.
OBJETIVOS

Los objetivos de la revisión de la estrategia territorial en materia de euskera son los siguientes:

1. Tener en cuenta la presencia del euskera en el territorio en la elaboración y en el desarrollo de los instrumentos de ordenación territorial y de planificación urbanística.

2. Consolidar los municipios arnasguneak como espacios de generación de recursos lingüísticos, transmisión y utilización natural del idioma.

3. Posibilitar actuaciones de apoyo a la utilización del euskera en ámbitos de carácter urbano, impulsando el desarrollo de arnasguneak funcionales.

4. Dotar a los municipios de criterios y herramientas de planificación y ordenación territorial para el impulso hacia situaciones sociolingüísticas más favorables al euskera.

III.
DIRECTRICES TERRITORIALES

Las directrices territoriales en materia de euskera son las contenidas en el artículo 33 de las Normas de Aplicación.

10.6. Lurralde-erlazioa

10.6. Interrelación territorial

Euskadik Europako errotula gisa jardunez duen kokapen estrategikotik abiatuta, Europa osoko lurralde-garapeneko estrategia berriak diseinatu ahal dira, EAEko lurraldea eta aldameneko eskualdeak biltzen dituen eremu zabalago batean. Halaber, eremu funtzionalen arteko barneko erlazioa funtsezkoa da lurralde-oreka bermatzeko

La ubicación estratégica de Euskadi y su función de Rótula Europea permite el diseño de nuevas estrategias de desarrollo territorial de escala europea en un ámbito más amplio que recoge el territorio de la CAPV y las regiones colindantes. Asimismo, la interrelación interna entre Áreas Funcionales resulta clave para el equilibrio territorial.



Hondarribia-Hendaia/Hendaya

I. GAIA ZERTAN DEN

1997ko Lurralde Antolamenduko Gidalerroek EAEri Europako zentralitane-nodoa bezala esleitutako errotula-rol garrantzitsuak balio osoa du oraindik ere.

EAE kokapen estrategiko batean dago, ipar-hegoaldeko europar korridorearen (Madril-Paris grafikoan) eta Ebroko Ardatzaren eta Kantauri Itsasertzeko Ardatzaren zeharkako korridoreen arteko elkargunean. Arku Atlantikoaren eta Hegoko Iparraren arteko integrazio-gontz garrantzitsua da, bi euroeskualde horiek oso garrantzitsuak izanik. Gainera, Arku Atlantikoa Europako zentralitate-nodo garrantzitsu baten grabitate-zentroan dago, non, EAErekin batera, Kantabria, Gaztela eta Leon, Errioxa, Nafarroa eta Akitania biltzen diren. Zehazki, integrazio handiagoa izateko aukera duten garrantzi handiko hiri batzuk biltzen dira (Bilbao Metropolitarra, Donostiako hiri-eremua, Vitoria-Gasteiz, Baiona, Iruñea, Logroño eta Santander). Eta bestetik, garraio- eta komunikazio-sistemetan egindako aurrerapenen haritik sortu diren baldintza berriek eta lurraldeen arteko interakzio ekonomiko eta sozialek industria-garapeneko estrategia berriak diseinatzea ahalbidetzen dute. Hurbileko eta urruneko guneekin harremanetan jartzeko aukera berriak zabaltzen dira, lurraldeen arteko elkarrekiko mendetasunak handitzen dira, eta, horrekin batera, integrazioko, lehiako eta lankidetzako egoera berriak eratzeko aukerak ere.

I. ESTADO DE LA CUESTIÓN

El importante papel de Euskadi como Gran Rótula: Nodo de Centralidad Europea considerado en las Directrices de Ordenación Territorial de 1997 continúa teniendo plena validez.

La CAPV ocupa una posición estratégica en la intersección del corredor europeo norte-sur (Madrid-París del gráfico) y dos corredores transversales, el Eje del Ebro y el Eje de la Cornisa Cantábrica. Constituye una importante charnela de integración entre el Arco Atlántico y el Norte del Sur, dos eurorregiones de importante relevancia. Además, el Arco Atlántico está situado en el centro de gravedad de un importante nodo de centralidad europeo donde, junto con la CAPV, se integran Cantabria, Castilla y León, La Rioja, Navarra y Aquitania. En concreto se produce una concentración de ciudades de rango importante con posibilidad de una integración mayor (Bilbao Metropolitano, Área Urbana de San Sebastián, Vitoria-Gasteiz, Bayona, Pamplona, Logroño y Santander). Y, por otro lado, las nuevas condiciones creadas por los avances en los sistemas de transporte y comunicaciones, unidas a las interacciones económicas y sociales entre diferentes territorios, permiten el diseño de nuevas estrategias de desarrollo territorial. Se abren nuevas posibilidades de relación con espacios próximos y lejanos, aumentando las interdependencias entre diferentes territorios y, con ello, las posibilidades de configurar nuevos escenarios de integración, competencia y cooperación.

EAE kokapen estrategiko batean dago, ipar-hegoaldeko europar korridorearen (Madril-Paris) eta Ebroko Ardatzaren eta Kantauri Itsasertzeko Ardatzaren zeharkako korridoreen arteko elkargunean.

La CAPV ocupa una posición estratégica en la intersección del corredor europeo norte-sur (Madrid-París) y dos corredores transversales, el Eje del Ebro y el Eje de la Cornisa Cantábrica.

Integrazio handiagoa izateko aukera duten garrantzi handiko hiri batzuk biltzen dira.

Se produce una concentración de ciudades de rango importante con posibilidad de una integración mayor.



Iturria: 1997ko LAGak *Fuente: DOT 1997*

Gauzak horrela, EAE errotula-lurralde baten antzera eratzean bi eskala osagarri bereizi behar dira: kontinentala, gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari den estrategia, eta eskualdekoa, lurralde-sistema Euskadiren inguruan integratzen duena.

En este contexto, la configuración de la CAPV como un territorio rótula debe plantearse en dos escalas complementarias: la continental, como una estrategia con un creciente protagonismo, y la regional, donde se integra el sistema territorial en torno al País Vasco.

EAE errotula-lurralde baten antzera eratzean bi eskala osagarri bereizi behar dira: kontinentala, gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari den estrategia, eta eskualdekoa, lurralde-sistema Euskadiren inguruan integratzen duena.

La configuración de la CAPV como un territorio rótula debe plantearse en dos escalas complementarias: la continental, como una estrategia con un creciente protagonismo, y la regional, donde se integra el sistema territorial en torno al País Vasco.

Eskala kontinentalean "Europako Diagonala" sortzen da, "Pentagonoak", "Hegoko Iparrak", "Arku Atlantikoak" eta "Aldiriek" osatutako Europako lurraldearen ikuspegi konbentzionalaren aldean. Diagonal hori gorantz doan gunea da, eta Lisboa, Madril, Bartzelona, Marseilla eta Milan hiriak ditu buruan. Hiri horiek gune ekonomiko zabalen buruan daude beren lurraldeetan, eta aldameneko hiri-sistemekin elkarreragiteko potentzial itzela dute. Hiri- eta ekonomia-ardatz horren artikulazioa giltzarrietako bat da norainoko globaleko europar hazkundegune berria sendotzeko bidean.

En la escala continental surge la "Diagonal Europea" frente a la convencional visión del territorio europeo constituido por el "Pentágono", el "Norte del Sur", el "Arco Atlántico" y las "Periferias". Esta diagonal constituye un espacio emergente liderado por las ciudades de Lisboa, Madrid, Barcelona, Marsella y Milán; ciudades que lideran amplios espacios económicos en sus países y con un enorme potencial de interacción con los sistemas urbanos colindantes. La articulación de este eje urbano y económico es uno de los elementos de consolidación de un nuevo espacio de crecimiento europeo de alcance global.

Eskualdea hartuta, inguruneko lurraldeekin elkarlanean aritzeko aukerak daude, eta aukera eta errealitate horiek lurralde-antolamenduaren ikuspegitik hartu behar dira kontuan. Frantziako Hegoaldearekin, Nafarroarekin, Kantabriarekin, Errioxarekin eta Burgosekin artikulatzeko aukerari dagokionez, antzeko erantzuna behar duten arazo zehatz batzuk ikusten dira, baita lurralde arloko potentzialtasun batzuk ere, eta horiek batera edo modu koordinatuan garatu beharko dira. Akitaniarekin eta Nafarroako, Errioxako, Gaztela eta Leoneko eta Kantabriako Autonomia Erkidegoekin egindako bileren barruan agerian jarri ziren lurralde guztientzako baterako aukerak eta guztien arazoak;

En la escala más regional se dispone de diferentes oportunidades de colaboración con los territorios del entorno; oportunidades y realidades que han de ser consideradas desde la perspectiva de la ordenación territorial. En el caso de las articulaciones con el Sur de Francia, con Navarra, con Cantabria, con la Rioja y con Burgos; se observan problemáticas concretas que precisan de una respuesta similar, así como potencialidades territoriales que es preciso desarrollar de forma conjunta o coordinada. En el marco de reuniones mantenidas con Aquitania y con las Comunidades Autónomas de Navarra, La Rioja, Castilla y León, y Cantabria se patentizan las oportunidades conjuntas del territorio y las

Euskal Hiria Plus



Iturria: Egileak egina.

Fuente: Elaboración propia.

hortaz, halako lurralde arteko foroek aurrera jarraitzea komenigarria da, baita gai zehatzei buruzko aldian-aldiko lan-mahaiak ezartzea ere.

problemáticas comunes, lo que hace deseable la continuidad de este tipo de foros entre territorios, e incluso el establecimiento de mesas de trabajo periódicas sobre temas específicos.

Europako Lurralde Estrategiak onartu egiten du muga-eremu horiek Europan "esangura bereziko" guneak direla. Alde horretan bidezkoa da **Baiona eta Donostia** artean dabilen hiri-korridorea bereiztea Pirinioetako mugaren aurrealde atlantiarrean. Gutxi gorabehera 700.000 biztanle izanik Baionatik

La Estrategia Territorial Europea reconoce a los espacios fronterizos como zonas de "especial significación" europea. En este sentido procede singularizar el corredor urbano que discurre entre **Bayona** y **San Sebastián** en la fachada atlántica de la frontera pirenaica. Constituye una realidad urbana

Euskadi Europako iparralde-hegoalde ardatzean

El País Vasco en el eje europeo norte-sur



Iturria: Egileak egina.

Fuente: Elaboración propia.

Donostiara 50km-tan barrena hedatzen da, eta, aldi berean, Akitaniak, Euskadik eta Nafarroak osatutako Euroeskualdearen zati da, azken horrek bere Plan Estrategikoa duelarik, lurralde horien arteko lankidetza-lerroak garatzeko sortua.

Nafarroarekiko artikulazioari dagokionez alde biko lankidetza-eremu bat ezarri beharko da, kontuan hartuta kultura-alorreko loturak partekatzeaz gain, Nafarroako iparraldeko eta mendebaldeko eremu askok Euskadirekin lotura funtzional estua dutela, eta Iruñea Euskadiko inguruetako hirigune eta produkziogune nagusia dela. Eta hori guztia ahaztu gabe funtsezko konexio-azpiegiturak garatu ahala, bi lurraldeen arteko harremanak areagotzen ari direla, euskal errepide-sarearekin lotuta dauden Iruñea-Donostia eta Iruñea-Altsasu autobideak nabarmentzen direlarik.

Alde horretan, koordinaziorako edo lurralde-erlazioetarako irizpideak aplikatzeko baterako plan edo estrategiak egin beharko lirateke, adibidez Bortzirien eta Irun-Hondarribiaren artean, Goizuetaren eta Hernani-Donostiaren artean, Altsasuren eta Agurain-Vitoria-Gasteizen artean, A-15en eta A-1en korridorea, eta Sakanako eta Bidasoako korridoreak. Paisaiari dagokionez arreta berezia jarri beharko litzateke baterako espazioetan, adibidez Aiako Harria, Bortziriak, eta abar. Gainera, jarraitutasun ekologikoa bermatu behar da, adibidez korridorea sendotuz Arakilen bitartez (Nafarroa Atlantikoarekin), Kanpezuko Kuadrilla-Valdegaren bitartez (Nafarroako erdialdeko zonekin) edo Ebroren ardatzarekin, non nekazaritza aldetik ahalmen handia duten lurzoruen babesean koordinatzea proposatzen den.

Kantabriarekiko artikulazioari dagokionez kontuan hartzekoa da ekialdeko kostaldeko eremu batean Kantabriako hirigintza-garapenaren zati handi bat kontzentratzen dela, Bilbaoko metropoli-garapenaren zati esanguratsu batekin batera. Demografikoki gora eta gora ari den ia 90.000 biztanleko eremua da, Euskadirekin egunean 60.000 bidaiatik gorako fluxuari eusten diona.

Abiadura handiko trenaren Santander-Bilbao tartea prestazio handiko Kantauriko korridore baten zati gisa lehenesten sakontzea proposatzen da, baita A-8aren ahalmena handitzea ere. Gainera, oinezkoentzako eta bizikletetarako sareen arteko jarraitutasuna bermatu beharko litzateke. Sare horietako bat da Kantabriarekiko "Kostaldeko Bidea". Asentamendu-sistemari dagokionez, Kantabriako ekialdeko herritarrentzako zerbitzu publikoen kudeaketan laguntzea sustatu behar dela uste da, zehazki, Kantabriako Lurralde Antolamenduko Eskualde Planean definituta dagoen azpieremu funtzionalean. Azkenik, kostaldearekiko eta Kantabriar mendikatearekiko jarraitutasun ekologikoa sendotzea beharrezkotzat jotzen da, eta

que con una población cercana a 700.000 habitantes se extiende a lo largo de 50 Km entre Bayona y San Sebastián y, al mismo tiempo, forma parte de la Eurorregión compuesta por la Nueva Aquitania, Euskadi y Navarra, que cuenta con su propio Plan Estratégico en cuyo seno se habrán de desarrollar las líneas de cooperación entre estos territorios.

Respecto de la articulación con **Navarra**, se deberá establecer un ámbito de colaboración bilateral teniendo en cuenta que, además de los lazos culturales compartidos, numerosas áreas del norte y el oeste de Navarra presentan una estrecha vinculación funcional con el País Vasco y que Pamplona es el principal centro urbano y productivo del entorno del País Vasco. Sin olvidar que el desarrollo de infraestructuras clave de conexión es un factor de creciente interrelación entre ambos territorios, destacando las autovías de Pamplona-San Sebastián e Pamplona-Alsasua, que conectan con el sistema vasco de carreteras.

En este sentido, se deberían elaborar planes o estrategias conjuntas de aplicación de los criterios de coordinación o de interrelación territorial por ejemplo entre Bortziriak con Irún-Hondarribia, Goizueta con Hernani-San Sebastián, Altsasua con Salvatierra-Vitoria, corredor de la A-15 y A-1, y corredores de Sakana y Bidasoa. En materia de paisaje se debería tener especial atención a los espacios comunes como por ejemplo Peñas de Aia, Bortziriak, etc. Se debe además garantizar la continuidad ecológica por ejemplo reforzando el corredor a través del Arakil (con la Navarra Atlántica), través de la Cuadrilla de Santa Cruz de Campezo-Valdega (con las zonas medias de Navarra) o en el eje del Ebro, donde se propone la coordinación en la protección de los suelos con alta capacidad agrológica.

En cuanto a la articulación con **Cantabria**, ha de considerarse la existencia, en su costa oriental, de un ámbito que concentra gran parte del desarrollo urbanístico de Cantabria, además de una parte significativa del desarrollo metropolitano de Bilbao. Se trata de un espacio con casi 90.000 habitantes en constante crecimiento demográfico y que mantiene un flujo de más de 60.000 viajes diarios con el País Vasco.

Se propone profundizar en la priorización del tramo Santander-Bilbao de alta velocidad ferroviaria como parte de un corredor cantábrico de altas prestaciones, y el incremento de la capacidad de la A-8. Además, se debiera garantizar la continuidad entre las redes peatonales y ciclables, entre las que se encuentra la "Senda Costera" con Cantabria. En relación con el sistema de asentamientos se considera necesario promover la colaboración en la gestión de servicios públicos a la ciudadanía de la zona oriental de Cantabria, y en concreto en la subárea funcional de la Costa Oriental definida en el Plan Regional de Ordenación Territorial (PROT) de Cantabria. Por último, se considera necesario reforzar la continuidad ecológica en relación con el litoral y la

ikuspuntu zehatzago batetik, Aguera ibaiaren arroa (bi autonomia-erkidegok konpartitzen dutena).

Errioxarekiko artikulazioari dagokionez, azpimarratzekoa da Logroñoren garapen funtzionalak ahalbidetu duela Errioxako hiriburuak gero eta zentralitate handiagoa izatea Ebroren ibaiertzetako lurraldeen gainean. Ikus daitekeenez, Errioxako udalerrietatik Logroño alderako trafiko-fluxuek eta eguneko joan-etorriek gora egin dute, eta Errioxako hiriburuaren merkataritza- eta zerbitzu-eskaintzak funtsezko zeregina betetzen du lurralde-egitura horretan. Ardoak eskualdearen ekonomian duen oinarrizko zereginaren haritik datozen lotura ekonomikoak ahaztu gabe.

Burgosi dagokionez aipatzekoa da Madrilekiko eta penintsularen erdialdearekiko harremanek Euskadiren intereserako garraio-ardatz nagusietako bat osatzen dutela, eta harreman horiek Burgosen barrena antolatzen direla. Ildo horretatik, trenbide-sare berria abiadura handian gauzatzeak Valladolid eta Madrilerako abiadura handiko jarraikortasuna lortzeko bidea emango du. Gainera, Miranda de Ebroko eremuak hiri-harreman bizia du Arabaren hegoaldearekin, eta Vitoria-Gasteiz du erreferentziazko hirigunea, Arabako hiriburuari lehentasuna emanez bere probintziako hiriburuaren aurretik. Trebiñuko enklabea Arabako lurraldean dagoela ahaztu gabe.

Lurralde mugakideekiko lurralde-erlazioarekin edo kanpoko lurralde-erlazioarekin batera funtsezkotzat jotzen da, halaber, hiru Lurralde Historikoen eta EAE osatzen duten hamabost Eremu Funtzionalen arteko barneko lurralde-erlazioan sakontzea. Parte hartzeko prozesuan egiaztatu ahal izan dugunez, Eremu Funtzionalen araberako lurralde-plangintza egitean beste Eremu Funtzionalekiko erlazioak ez dira kontuan hartu, edo, adibidez, garraio publikoaren mugikortasunaren plangintza Lurralde Historikoen arabera konpartimentatu da edo hiriburuetarako irisgarritasunean zentratu da, hiriburuetatik igaro beharra eskatzen ez duen udalerrien arteko mugikortasunaren eskaintza publikoa alde batera utziz. Horrelako gaiak adibidez, lurraldez lurralde planifikatu beharko lirateke, lurraldeari barne-kohesioa emateko ikuspegi bati jarraikiz.

Cordillera Cantábrica y desde un punto de vista más concreto, la cuenca del río Agüera (compartida por las dos comunidades).

Respecto de la articulación con **La Rioja**, ha de considerarse que el desarrollo funcional de Logroño ha propiciado su creciente centralidad sobre los territorios ribereños del Ebro próximos a la capital riojana. Se aprecia un aumento de los flujos de tráfico y los desplazamientos diarios desde los municipios de Rioja Alavesa hacia Logroño, con una estructura territorial en la que la oferta comercial y de servicios de la capital riojana juega un papel esencial. Sin olvidar las vinculaciones económicas derivadas del papel esencial del vino en la economía comarcal.

Respecto de **Burgos**, ha de considerarse que las relaciones con Madrid y con el centro peninsular, uno de los principales ejes de transporte de interés para el País Vasco se articulan a través de Burgos. En este sentido, la materialización de la nueva red ferroviaria en alta velocidad permitirá lograr la continuidad en alta velocidad a Valladolid y Madrid. Además, el área de Miranda de Ebro presenta una intensa relación urbana con el sur de Álava y se encuentra polarizada por Vitoria-Gasteiz como centro urbano de referencia, con preferencia a su propia capital provincial. Sin olvidar la existencia del enclave de Treviño en territorio alavés.

Junto a la interrelación territorial con los territorios limítrofes o interrelación territorial externa, se considera necesario asimismo incidir en la interrelación territorial interna entre los tres Territorios Históricos y quince Áreas Funcionales que conforman la CAPV. En el proceso de participación se ha constatado que la planificación territorial a escala de Área Funcional no ha tenido en cuenta su interrelación con otras Áreas Funcionales o que, por ejemplo, la planificación de la movilidad del transporte público se ha visto compartimentada por Territorios Históricos o se ha centrado en la accesibilidad a las capitales descuidando la oferta pública de movilidad entre municipios, sin tener que pasar por las capitales. Cuestiones como estas, por ejemplo, deberían ser objeto de la planificación territorial con una perspectiva de cohesionar el territorio internamente.

II.
HELBURUAK

Lurralde-erlazioen alorrean honako helburu hauek proposatzen dira lurralde-eredua berrikusteko:

1. Lurralde-antolamenduaren alorrean elkarlan-eremuak identifikatzeko lana errazten duten lan-esparruak ezartzea.

2. EAEk kontinentearen eskalan Europako errotula gisa duen potentzialtasuna garatzea, Europako

II.
OBJETIVOS

Los objetivos de la revisión del modelo territorial que se proponen en materia de interrelación territorial son los siguientes:

1. Establecer los marcos de trabajo que faciliten la labor de identificar los ámbitos de colaboración en materia de ordenación territorial.

2. Desarrollar la potencialidad de la CAPV como rótula europea a la escala continental en cuanto

garapenaren ipar-hegoko ardatz nagusietako baten gainean kokatzeak aukera berriak sortuko dituen neurrian.

3. Lurralde-lankidetza eta -erlazioa estutzea bereziki Nafarroarekin eta Akitaniarekin, baita Errioxarekin, Kantabriarekin eta Gaztela eta Leonekin (Burgos) ere, eremu mugakideetan bizi direnen bizi-kalitatea hobetzeko, ingurumena babesteko sinergiak sortzeko eta lankidetza lehiakorra sustatzeko baldintzak ahalbidetzeko.

4. Eremu Funtzionalen edo Lurralde Historikoen arteko barneko interrelazioa sendotzea, hala lurralde-konpartimentazioa saihestuko baita.

III. LURRALDE-GIDALERROAK

Lurralde-interrelazioaren arloko lurralde-gidalerroak Aplikatzeko arauen 34. artikuluan jasotzen dira.

que su ubicación sobre uno de los ejes norte-sur más importantes del desarrollo europeo constituye un factor generador de nuevas oportunidades.

3. Estrechar la colaboración y la relación territorial especialmente con Navarra y Aquitania, así como con La Rioja, Cantabria y Castilla y León (Burgos) que redunden en la mejora de la calidad de vida de las personas que habitan las áreas limítrofes, se creen sinergias en la protección del medio ambiente y se favorezcan las condiciones que promuevan una colaboración competitiva.

4. Intensificar la interrelación territorial interna entre Áreas Funcionales o entre Territorios Históricos evitando la compartimentación territorial.

III. DIRECTRICES TERRITORIALES

Las directrices territoriales en materia de la interrelación territorial son las contenidas en el artículo 34 de las Normas de Aplicación.

11

Gobernantza Gobernanza

Lurralde-plangintzaren garapena, eremu funtzionalak	**11.1.**	Desarrollo del planeamiento territorial, Áreas Funcionales
“Parte-hartzearen kultura” sortzea	**11.2.**	Generación de la “Cultura de la Participación”
Jarraipena, ebaluazioa eta adierazleak	**11.3.**	Seguimiento, evaluación e indicadores
Lurralde-plangintza partzialaren eta sektorialaren arteko koordinazioa	**11.4.**	Coordinación del Planeamiento Territorial Parcial y Sectorial
Planen berrikuspena tramitatzean administrazioa integratzea	**11.5.**	Integración administrativa en la tramitación de la revisión de los planes

1997ko LAGak hogei urte hauetan zabaldu dira, dagozkion Lurralde Plan Partzialak eta Lurralde Plan Sektorialak onartuz eta ezarriz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak eta Lurralde Politikarako Aholku Batzordeak garatutako jardueraren bitartez, eta esan beharra dago esperientzia emankorra izan dela, eta hartatik zenbait ondorio ere atera ditugula, aurrerantzean kontuan hartuko ditugunak etengabe hobetzeko prozesuaren esparruan. Hala, 1997ko LAGen aldean, gobernantzaren dimentsio jakin batzuk erantsi zaizkio berrikuspenari, lurralde-estrategiaren berezko elementu gisa.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen gobernantzak hainbat arlotan sailkatutako gaiak hartzen ditu barnean: Lehenengo arlo bat, LAGak LPPen eta LPSen bitartez garatzearekin eta koordinazio, antolaketa eta kudeaketako estrategiekin lotuta dagoena; bigarren arlo bat, partaidetzari eta administrazioa integratzeari buruzkoa; eta hirugarren arlo bat, jarraipenarekin lotuta dagoena. Azkenik, eta guneko elementu gisa Aplikatzeko Arauak daude. Arau horiek behar bezala hartzen dira formatu bereizi eta propio batean, legeriak ezartzen duenez.

Ikuspuntu sektorial huts batetik, LAGak zehaztea eta "Eremu Funtzional" gisa ezarrita dauden udalez gaindiko eremuetara aplikatzea, Lurralde Plan Partzialak antolatzeko oinarri geografikoa da. Hori osatzeko, planen homogeneizaziorako eta koordinaziorako beharrezkoak diren jarraibideak ezartzen dira, sistemaren koherentzia eta oreka bermatze aldera. Bestetik, parte-hartzea eta gardentasuna politika publikoen kudeaketari erantsi zaizkion aktiboak dira; eta lurralde-ereduan eta planen tramitazioan administrazioaren integrazioa lurraldearen antolamenduan berezko beharrizana da. Halaber, gobernantza on batek ebaluazio-sistema bat eta adierazle batzuk behar ditu lurralde-estrategiaren ezarpenak zer trebetasun- eta arrakasta-maila eta zer errore- eta porrot-maila izan dituen jakiteko, eta horrela erabaki egokiak hartu ahal izateko. Azkenik, LAGak inplementatzeko arau argi batzuk behar dira, gidalerroak behar bezala aplikatzeko.

El despliegue de las DOT de 1997 durante estos veinte años a través de la aprobación y aplicación de los Planes Territoriales Parciales y los Planes Territoriales Sectoriales correspondientes, así como de la actividad desarrollada por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco (COTPV) y por el Consejo Asesor de Política Territorial ha resultado ser una fructuosa experiencia de la que se extraen también una serie de conclusiones a tener en cuenta en el marco de un proceso de mejora continua. Así, con relación a las DOT de 1997, se añade en la revisión como elemento consustancial de la estrategia territorial las dimensiones de la gobernanza.

La gobernanza de las Directrices de Ordenación Territorial abarca materias clasificadas en diferentes planos: un primer plano relacionado con el desarrollo de las DOT a través los PTP o PTS y las estrategias de coordinación, organización y gestión; otro segundo plano relativo a la participación y a la integración administrativa; y un tercer plano vinculado con el seguimiento. Finalmente, como elemento nuclear están las Normas de Aplicación que son contempladas de forma adecuada en un formato separado y propio como lo establece la legislación.

Desde un punto de vista propiamente sectorial, la concreción y adaptación de las DOT a áreas supramunicipales establecidas como "Áreas Funcionales", constituye la base geográfica sobre las que se ordenan los Planes Territoriales Parciales lo que se completa con las necesarias pautas de homogeneización y coordinación de Planes, en aras a garantizar la coherencia y el equilibrio del sistema. Por su parte, la participación y la transparencia pasan a ser unos activos incorporados a la gestión de las políticas públicas; y la integración administrativa en torno al modelo territorial y en la tramitación de los planes es una necesidad inherente a la ordenación del territorio. Así mismo, una buena gobernanza requiere de un sistema de evaluación y de unos indicadores como instrumentos necesarios para conocer el grado de acierto y éxito, así como el grado de error y fracaso de la implementación de la estrategia territorial y poder así tomar las decisiones oportunas. Por último, la implementación de las DOT requiere de unas normas claras para su correcta aplicación.

11.1.
Lurralde-plangintzaren garapena, eremu funtionalak

Udal-plangintza ez da nahikoa lurraldea egituratzen duten gai handiei heltzeko, eta gainera, EAE osoaren eskala globalak bere mugak ditu. Horren ondorioz, Eremu Funtzionalei dagokien "bitarteko" lurralde-eskala zehaztu behar izan da, eremu horiek, beren tamaina fisiko eta funtzionalari esker, arazoak aztertzeko eta lurralde-antolamenduko programak ezartzeko egokiak direlako.

11.1.
Desarrollo del planeamiento territorial, Áreas funcionales

La insuficiencia del planeamiento municipal para acometer los grandes temas de estructuración territorial, así como las limitaciones de la escala global del conjunto de la CAPV, inducen a la definición de la escala territorial "intermedia" correspondiente a las Áreas Funcionales, en cuanto que por su tamaño físico y funcional resultan adecuadas para el análisis de problemas y para la implantación de programas de ordenación territorial.



I.
GAIA ZERTAN DEN

1997ko Gidalerroen testuari jarraikiz, lurralde-orekako estrategiak ezartzeak lurralde-eskala egokia mugatzea eskatzen du, zehaztutako orientazio orokorren eraginkortasuna bermatuko duten planak garatu ahal izateko. Udal-plangintza ez da nahikoa lurraldea egituratzen duten gai handiei heltzeko, eta Lurralde Antolamenduaren alorrean badira zenbait gauza Autonomia Erkidegoaren eskala globaletik behar adinako koherentziarekin kudeatu ezin direnak. Hori da gure abiapuntua.

Lurraldeko Eremu Funtzionalei dagokien "bitarteko" lurralde-eskalak, aldiz, tamaina fisiko eta funtzional egokia dauka arazoak aztertzeko, eta Lurralde Antolamenduaren tresnak ezartzeko. Gidalerroetan Eremu Funtzionalen barneko lurralde-egituraketako mekanismoak proposatzen dira,

I.
ESTADO DE LA CUESTIÓN

Siguiendo el texto de las Directrices de 1997, la implementación de estrategias de equilibrio territorial lleva consigo la delimitación de la escala territorial adecuada para el desarrollo de los planes que den operatividad a las orientaciones generales definidas. Se parte de la insuficiencia del planeamiento municipal para acometer los grandes temas de estructuración territorial y de que hay ciertas cuestiones en la Ordenación del Territorio que no pueden tratarse con suficiente coherencia desde la escala global del conjunto de la Comunidad Autónoma.

La escala territorial "intermedia" correspondiente a las Áreas Funcionales del Territorio resulta de un tamaño físico y funcional adecuado para el análisis de problemas y para la implantación de instrumentos de Ordenación Territorial. En las Directrices se proponen mecanismos de estructuración territorial interna de

Lurraldeko Eremu Funtzionalei dagokien "bitarteko" lurralde-eskalak, tamaina fisiko eta funtzional egokia dauka arazoak aztertzeko, eta lurraldea antolatzeko programak ezartzeko.

La escala territorial "intermedia" correspondiente a las Áreas Funcionales del Territorio resulta de un tamaño físico y funcional adecuado para el análisis de problemas y para la implantación de instrumentos de Ordenación Territorial.

haien buru eta azpiburuetaranzko beharrezko polarizazioa ahalbidetzeko batetik, eta haien gune eta lurraldeetako bokazioen elkarren osagarritasuna bilatzeko bestetik.

Gidalerroak onartu zirenez geroztik, hamabost Eremu Funtzional bakoitzeko Lurralde Plan Partzial bat idaztea sustatu da, eta haietatik hamalau onartu dira behin betiko. Bere garaian ezarritako Eremu Funtzionalen mugaketa babestu du aipatutako idazkuntzak eta onarpenak, baina berrikuspen honen haritik bideratutako parte hartzeko prozesuak gogoeta bat edo beste ekarri du Gernika-Markinako (Gernika eta Lea Artibai eskualdeak egituratzeko zailtasunarengatik) eta Araba Erdialdeko (zabalerarengatik, eta tratamendu espezifikoa eskatzen duten landa-eremuak biltzeagatik) Eremu Funtzionalen mugaketari dagokionez.

Azkenik, esan behar da Eremu Funtzionaletako askoren izendapena moldatu egin dela eta buruaren izenaren ordez modu informalean erabiltzen den eskualde administratiboaren izena erabili dela.

las diferentes Áreas Funcionales que intentan lograr la necesaria polarización hacia las correspondientes cabeceras y subcabeceras de las mismas, así como la complementariedad entre las vocaciones de sus diferentes núcleos y territorios.

Desde la aprobación de las Directrices se ha promovido la redacción de los quince Planes Territoriales Parciales de cada una de las Áreas Funcionales, habiéndose aprobado definitivamente catorce de ellos. La redacción y aprobación citada ha avalado la delimitación de las Áreas Funcionales establecida en su momento, aunque el proceso de participación llevado a cabo con la presente revisión ha introducido alguna reflexión en torno a la delimitación de las Áreas Funcionales de Gernika-Markina (por la dificultad de estructuración de las dos comarcas Gernika y Lea Artibai), y Álava Central (por su extensión y la incorporación de áreas rurales que precisan de un tratamiento específico).

Finalmente cabe decir que se ha alterado la denominación de gran parte de las Áreas Funcionales sustituyendo el nombre de la cabecera por el de la comarca administrativa coloquialmente utilizada.

II. HELBURUAK

Eremu Funtzionalen mugaketaren alorrean, honako helburu hauek proposatzen dira lurralde-ereduari dagokionez:

1. Mugaketak eta proposatutako lurralde-ereduaren garapenetik eratorritako eskakizunak bat etor daitezela lortzea.

2. Lurraldearen garapen orekatua sustatzea, Autonomia Erkidego osoarentzat eta hura osatzen duten eremuen barne-egituraketari dagokionez.

3. Autonomia Erkidegoaren eta udalerriaren artean bitarteko lurralde-esparru bat eratzea, LAGen zehaztapen globalak zehaztu eta udal-plangintzaren mugak gainditu ahal izateko.

4. Eremuak zehaztea lurralde-plangintza partziala idazteko soilik, administrazio-maila berririk zehaztu beharrik gabe eta beste xede batzuetarako balio duen eskualdez eskualde banatzeko eskemarik ezabatu beharrik gabe.

II. OBJETIVOS

Los objetivos del modelo territorial que se proponen en materia de la delimitación de Áreas Funcionales son los siguientes:

1. Lograr una correspondencia de las delimitaciones con las exigencias derivadas del desarrollo del modelo territorial propuesto.

2. Propiciar un desarrollo equilibrado del territorio tanto para la globalidad de la Comunidad Autónoma como en lo relativo a la estructuración interna de sus diferentes áreas constitutivas.

3. Configurar un marco territorial intermedio entre el de la Comunidad Autónoma y el del municipio que permita concretar las determinaciones globales de las DOT y superar las limitaciones del planeamiento municipal.

4. Definir áreas meramente a los efectos de la redacción del planeamiento territorial parcial, sin que ello implique la definición de nuevos escalones administrativos ni la eliminación de ningún esquema de comarcalización válido para otros fines.

III. LURRALDE-GIDALERROAK

Eremu Funtzionalen mugaketaren alorreko lurralde-gidalerroak Aplikatzeko arauen 5. artikuluan jasotzen dira.

III. DIRECTRICES TERRITORIALES

Las directrices territoriales en materia de la delimitación de las Áreas Funcionales son las que se recogen en el artículo 5 de las Normas de Aplicación.


KANTAURI ITSASOA
MAR CANTÁBRICO
KANTABRIA
CANTABRIA
FRANTZIA
FRANCIA
MUNGIALDEA
MUNGIALDEA
BUSTURIALDEA-ARTIBAI
BUSTURIALDEA-ARTIBAI
BILBO METROPOLITARRA
BILBAO METROPOLITANO
DONOSTIALDEA-BIDASOA BEHEREA
DONOSTIALDEA-BAJO BIDASOA
DEBABARRENA
BAJO DEBA
ENKARTERRIAK
ENCARTACIONES
UROLA KOSTA
UROLA KOSTA
DURANGALDEA
DURANGALDEA
TOLOSALDEA
TOLOSALDEA
ARRATIA
ARRATIA
AIARA
AYALA
DEBAGOIENA
ALTO DEBA
GOIERRI
GOIERRI
ARABA ERDIALDEA
ÁLAVA CENTRAL
NAFARROA
NAVARRA
BURGOS
CASTILLA Y LEÓN
BURGOS
ERRIOXA
LA RIOJA
ARABAKO ERRIOXA
RIOJA ALAVESA
EREMU FUNTZIONALAK
ÁREAS FUNCIONALES
EREMU FUNTZIONALEN MUGAK
DELIMITACIÓN DE AREAS FUNCIONALES
0 5 10 20 30 40 km

11.2. “Parte-hartzearen kultura” sortzea

11.2. Generación de la “Cultura de la Participación”

Parte-hartzea erronka bat da berez, kudeaketa publikoaren eta gizartearen aldaketa dakarrelako. Parte-hartzean oinarritutako kultura pixkana-pixkana sendotzeko helburuarekin, lurralde-antolamenduko tresna guztietan parte hartzeko mekanismoak txertatzea proposatzen da.

La participación es un reto en sí mismo porque supone un cambio en la cultura de la gestión pública y de la sociedad. Con la finalidad de ir consolidando una cultura participativa, se propone la inclusión de mecanismos de participación en todos los instrumentos de ordenación territorial.



Betidanik parte-hartzea administrazioei entzuteko eta jendaurreko informazio faseetara mugatu izan da administrazio arloko tramitazioaren esparruan. Hortaz, parte-hartze mugatu eta formal hori gainditu behar da parte hartzeko prozesuak gaitzeko lurralde-plangintzako tresnen bizitzan zehar.

Tradicionalmente, la participación se ha visto limitada a las fases de audiencia a las administraciones y de información pública en el marco de la tramitación administrativa. Se trata, pues, de superar esa participación limitada y formal para habilitar procesos de participación a lo largo de la vida de los instrumentos de planificación territorial.

I. GAIA ZERTAN DEN

Parte-hartzea lurraldea antolatzeko politikaren berezko osagai gisa aurkezten da Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren ildo beretik. Parte-hartzea ez da LAGen berrikuspen honetara mugatzen, eta, logikoa denez, lurralde-plangintzaren blokea osatzen duten lurralde-plangintzako tresna guztietara zabaldu behar da.

Betidanik parte-hartzea administrazioei entzuteko eta jendaurrean jendaurreko informazio faseetara mugatu izan da, administrazio arloko tramitazioaren esparruan. Hortaz, parte-hartze mugatu eta formal hori gainditu behar da parte hartzeko prozesuak gaitzeko lurralde-plangintzako tresnen bizitzan zehar.

Aurrerapenaren aurreko oinarrizko Dokumentua prozedurazko berrikuntzaren adibide garbia da,

I. ESTADO DE LA CUESTIÓN

La participación se presenta como un componente natural de la política de ordenación del territorio, en la línea del Libro Blanco de Democracia y Participación Ciudadana para Euskadi. No sólo se contempla para la presente revisión de las DOT sino, lógicamente, para el conjunto de los instrumentos de planificación territorial que conforman el bloque de planificación territorial.

Tradicionalmente, la participación se ha visto limitada a las fases de audiencia a las administraciones y de información pública en el marco de la tramitación administrativa. Se trata, pues, de superar esa participación limitada y formal para habilitar procesos de participación a lo largo de la vida de los instrumentos de planificación territorial.

El Documento Base previo al Avance es un claro ejemplo de innovación procedimental en cuanto que

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko parte-hartzeko prozesua abiatu zelako, Gidalerroen Aurrerapena aurkeztu baino lehen. Aurrerapen hori da, berez, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean aurreikusitako lehen dokumentu-tramitea. Oinarrizko Dokumentuak xede bikoitza zeukan: LAGen berrikuspenaren inguruan Eusko Jaurlaritzak zuen jarrera aurkeztea eta parte-hartze prozesu bat abiaraztea Aurrerapena modu partaidetuan egiteko.

Halaber, partaidetza hori plan batean zehaztea berrikuntza da. Horrela jasotzen baita 2015eko uztailaren 27ko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakian, LAGak berrikusteko prozedura abiatzeari buruzkoan. Parte hartzeko plan bat ezarri zen Oinarrizko Dokumentuaren aurkezpenetik (2015eko azaroa) Gidalerroen Aurrerapena aurkeztu arte (2016ko azaroa) abian jartzeko, eta ondoren 2018ko otsailean hasierako onespena jaso zuen dokumentuarekin jarraitu da, jasotako esperientziaren oinarriaren gainean.

se puso en marcha un procedimiento participativo de la revisión de las DOT, de forma previa a la presentación del Avance de Directrices, que es, en realidad, el primer trámite documental formal previsto en la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de ordenación del territorio del País Vasco. El Documento Base tenía una doble finalidad: presentar la posición del Gobierno Vasco ante la revisión de las DOT y ser objeto de un proceso de participación con el fin de que el Avance pudiera realizarse de forma participada.

También supone una novedad la concreción de esa participación en un plan, tal y como se recoge en el Acuerdo del Consejo de Gobierno del 27 de julio de 2015 por el que se dispone la iniciación del procedimiento de revisión de las DOT. Se establece un plan de participación desde la presentación del Documento Base a finales de noviembre de 2015 hasta la presentación del Avance de Directrices en noviembre de 2016, y se ha continuado posteriormente con el documento aprobado inicialmente en febrero de 2018 sobre la base de la experiencia adquirida.



Euskal Hiria Kongresua

Hasierako onespenaren ondoren, 4/1990 Legeak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetarako ezartzen duen tramitazioak garrantzia osoa hartzen du, parte-hartze publikorako aukera murrizten delarik dokumentuak zilegitasuna eta heldutasuna irabazi ahala.

Nolanahi ere, azpimarratzekoa da LAGak berrikusteko lurralde-eredurako aurreikusten den parte-hartzea

Tras la aprobación inicial adquiere peso total la tramitación que la Ley 4/1990 establece para las Directrices de Ordenación Territorial, quedando disminuido el margen para la participación pública a medida que el documento va ganando legitimidad y madurez. .

En todo caso, es importante señalar que la participación que se prevé para el modelo territorial de la revisión



LAG parte hartze tailerrak / *Talleres participación DOT*

4/1990 Legeak ezarritako lurralde-antolamenduko tresnetara mugatzen dela, hau da, LAGetara, LPPetara eta LPSetara, eta beraz, ez duela zerikusirik udal-plangintzaren esparruan edo toki-proiektuetan parte hartzearekin.

Parte hartzeko eta kontsultarako organoei dagokienez, 4/1990 Legeak bi kontsulta-organo ezartzen ditu Lurralde Antolamenduaren esparruan: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea koordinazio- eta kontsulta-organo gisa, eta Lurralde Politikarako Aholku Batzordea parte-hartze organo gisa, Eusko Jaurlaritzako Sailetako ordezkariek eta adituek kopuru berean osatua. Orain artean bi organoek izapidetze-lanetan jardun dute bereziki, eta hemen ere jauzi kualitatibo bat egin beharko litzateke eta haien eginkizun aholku-emailea sustatu, ponentzia teknikoa egokiak eratuz esaterako.

Parte hartzeko prozesuan zenbaitek adierazi dute bestelako topagune egonkorrak eskuragarri eduki beharra, erakundeak eta eragileak bilduko dituztenak, Euskararen Aholku Batzordearen antzekoak. Alabaina, lurralde-antolamenduaren diziplina-aniztasunak nekez egingo luke bideragarri inplikatutako sektore guztiak ordezkatzeko moduko organo bat, ekimenaren tamainarengatik eta konplexutasunarengatik. Hortaz, lehendik dauden organoak erakundearteko koordinazioko eta aholkularitzako eginkizunak bermatzeko nahikotzat eta egokitzat jotzen dira, baina nolanahi ere LPP eta LPS bakoitzerako koordinazioko, jarraipeneko eta parte-hartze mekanismo espezifikoak ezartzeko aukera aztertu beharko litzateke, haien berezitasunetara egokituta.

Kudeaketaren gardentasuna ere funtsezkoa da parte-hartzea benetakoa izan dadin bermatzeko.

de las DOT se circunscribe a los instrumentos de ordenación territorial establecidos por la Ley 4/1990, es decir, a las DOT, a los PTP y a los PTS, y no se refiere a la participación en el marco del planeamiento municipal ni de proyectos de carácter local.

En cuanto a los órganos de participación y consulta se refiere, la Ley 4/1990 establece dos órganos de consulta en el ámbito de la ordenación del territorio: la COTPV, como órgano de coordinación y consulta, y el Consejo Asesor de Política Territorial, compuesto por los Departamentos del Gobierno Vasco y el mismo número de personas expertas, como órgano de participación. Ambos órganos han venido desempeñando fundamentalmente su función de tramitación y se trata aquí también de dar un salto cualitativo y alentar su función asesora a través de la constitución de las pertinentes ponencias técnicas, por ejemplo.

En el proceso de participación se ha trasladado la necesidad de disponer de otros foros de encuentro estables que reúnan a instituciones y agentes, como es el caso del Consejo Asesor del Euskera. Sin embargo, el carácter multidisciplinar de la ordenación del territorio, haría difícilmente viable un órgano representativo de todos los sectores implicados por su envergadura y complejidad. Por lo tanto, se considera que los dos órganos existentes son suficientes y adecuados para garantizar las funciones de coordinación interinstitucional y de asesoría, si bien se estima oportuno explorar la posibilidad de establecer mecanismos de coordinación, seguimiento y participación específicos para cada PTP y PTS, adecuados a sus propias particularidades.

La transparencia en la gestión resulta también fundamental para una efectiva participación. De ahí

Horregatik, garrantzizko informazio interesgarria zabaldu eta argitaratu beharra ere azpimarratzen da.

que se haga hincapié igualmente en la apertura y publicación de la información relevante que resulte de interés.

II. HELBURUAK

Parte-hartzearen alorrean honako helburu hauek proposatzen dira lurralde-eredua berrikusteko:

1. Erakundeen eta gizartearen parte-hartzea sustatu eta erraztea.
2. Parte hartzeko prozesuak eta lurralde-antolamenduko tresnen jarraipena eta garapena gardentasunez kudeatzea.
3. Garrantzizko informazio interesgarria argitaratzea.

II. OBJETIVOS

Los objetivos que se proponen para la revisión del modelo territorial en materia de participación son:

1. Promover y facilitar la participación tanto institucional como la social.
2. Gestionar de forma transparente los procesos de participación, así como el seguimiento y el desarrollo de los instrumentos de ordenación territorial.
3. Publicar la información relevante que resulte de interés.



LAG parte-hartze tailerrak / Talleres participación DOT

III. LURRALDE-GIDALERROAK

Parte-hartzearen alorrean lurralde-eredua berrikusteko proposatzen diren gidalerroak aplikatzeko arauen 35. artikuluan jasotzen dira.

III. DIRECTRICES TERRITORIALES

Las directrices que se proponen para la revisión del modelo territorial en materia de participación son las contenidas en el artículo 35 de las normas de aplicación.

11.3. Jarraipena, ebaluazioa eta adierazleak

11.3. Seguimiento, evaluación e indicadores

Lurraldearen gaineko giza ekintza neurtu eta ebaluatu behar da, neurri egokiak hartu ahal izateko. Horretarako, lurralde-antolamenduko tresna guztietan jarraipen- eta ebaluazio-sistemak bildu behar dira, adierazle egokien multzoa eta guzti.

La acción humana sobre el territorio precisa ser medida y evaluada de cara a poder adoptar las medidas oportunas. Para ello resulta necesario incluir sistemas de seguimiento y evaluación en todos los instrumentos de ordenación territorial y dotarse de una batería de indicadores adecuados.





I. GAIA ZERTAN DEN

Berrikuste-prozesu honetan argi geratu da LAGen, LPPen eta LPSen garapena eta eraginkortasuna balioesteko ebaluazio-sistema egokiak ezarri behar direla. Horregatik, beharrezkoa da lurralde-antolamenduko tresna guztiek ebaluazio-sistema espezifikoak edukitzea, hartutako neurrien eraginkortasuna zein den jakiteko eta tresna horien errendimendua hobetzeko jardun egokiak aztertzeko.

LAGak, LPPak eta LPSak ebaluatzeko sistemez gain, beste hainbat adierazleren balioak jakitea ere komeni da, giza ekintzak lurraldearen gainean duen eragina neurtzeko baliagarri diren heinean. Hala, Udalplan 2018 Eusko Jaurlaritzaren hirigintza-plangintzaren datu-basearen gainean hainbat lurralde- eta hirigintza-iraunkortasuneko adierazle proposatzen dira, EAEren hirigintza- eta lurralde-bilakaera erakusten dutenak hartutako lurralde- eta hirigintza-antolamendurako tresnen egokitasuna neurtzeko tresnak diren heinean. Lurraldearen antolamenduan erabiltzen diren parametro guztien arteko harremana neurtzen dute adierazle horiek, zenbakitan. Eskuragarri dagoen lurzorua, lurzoru horri ematen zaion erabilera eta erabilera horien intentsitatea lotzen dituzte, eta horrek guztiak eraginpeko herrian eta ingurunean nola eragiten duen neurtzen dute.

Egungo egoera aztertzeko ahalmenak eta gure ekintzek lurraldearen gainean eragin ditzaketen kalteak iragartzeko ahalmenak ahalbidetuko dute diseinatutako giza asentamenduaren eredua iraunkor izatea.

Egungo egoera aztertzeko ahalmenak eta gure ekintzek lurraldearen gainean eragin ditzaketen kalteak iragartzeko ahalmenak ahalbidetuko dute diseinatutako giza asentamenduaren eredua iraunkor izatea.

La capacidad de analizar la situación actual y la capacidad de predicción de posibles consecuencias negativas de nuestras acciones sobre el territorio serán las que permitan la sostenibilidad del modelo de asentamiento humano que se diseñe.

I. ESTADO DE LA CUESTIÓN

En el presente proceso de revisión ha quedado en evidencia la necesidad de establecer adecuados sistemas de evaluación para valorar el desarrollo y la eficacia de las DOT, los PTP y los PTS. De ahí que se plantee la necesidad de que todos los instrumentos de ordenación territorial cuenten con sus sistemas específicos de evaluación que permitan conocer la efectividad de las medidas adoptadas y considerar las actuaciones oportunas para mejorar su rendimiento.

Además de los sistemas propios de evaluación de las DOT, los PTP y los PTS, también resulta de utilidad conocer los valores de una serie de indicadores que midan la acción humana sobre el territorio. Así, sobre la base de datos del planeamiento urbanístico del Gobierno Vasco, Udalplan 2018, se proponen una serie de indicadores de sostenibilidad territorial y urbanística que muestren la evolución urbanística y territorial de la CAPV como instrumentos de medición de la idoneidad de los instrumentos de ordenación que se adoptan. Estos indicadores miden de forma numérica la relación entre los distintos parámetros que se manejan en la ordenación del territorio. Ponen en relación el suelo disponible, el uso que se le da, la intensidad de dichos usos y la relación que todo ello tiene con la población a la que sirven y su impacto en el entorno.

La capacidad de analizar la situación actual y la capacidad de predicción de posibles consecuencias negativas de nuestras acciones sobre el territorio serán las que permitan la sostenibilidad del modelo de asentamiento humano que se diseñe.

II. LURRALDE ETA HIRIGINTZA IRAUN-KORTASUNEKO ADIERAZLEAK

Guztira lurralde- eta hirigintza-iraunkortasuneko sei adierazle proposatzen dira. Adierazle horiek

II. INDICADORES DE SOSTEN IBILIDAD TERRITORIAL Y URBANÍSTICA

Se proponen un total de seis indicadores de sostenibilidad territorial y urbanística que analizan

hiri- eta lurralde testuingurua, hiri-garapenaren eragina eta lurzoruaren artifizializazioa aztertzen dituzte. 12.2 Eranskinak ("Lurralde eta Hirigintza Iraunkortasuneko Adierazleak") adierazle bakoitza Eremu Funtzional bakoitzean garatzen du taulen eta grafikoen bitartez.

1. Gidalerro hauetan proposatzen diren lurralde- eta hirigintza-iraunkortasunaren adierazleak honako hauek dira:

   a) LURRALDE-EREDUA. LURZORUAREN KALIFIKAZIOA. Indarrean dagoen lurralde-eredua deskribatzen du lurzoruaren kontsumoa kontuan hartuta, hirigintza-eraldaketaren mendean dagoen lurzoru-azaleraren proportzioa eskuragarri dagoen lurzoru-azalerarekin alderatuta neurtuz.

   b) BIZTANLERIA-DENTSITATEA. Alde batetik dentsitatea aztertzen du dena delako esparruaren azalera osoa kontuan hartuta, eta bestetik hiri-dentsitatea aztertzen du; Azken horrek hirigintza aldetik kalifikatutako lurzorua soilik hartzen du kontuan.

   c) HIRI-EREDUA. Lurzorua eraldatzeko aurreikuspenak aztertzen ditu, lurzoru urbanizagarriaren azalera hiri-lurzoruaren azalerarekin konparatuz.

   d) BIZITEGI-GARAPENA. PLANGINTZAKO ETXEBIZITZA-AURREIKUSPENA. Aurreikusitako bi zitegi-hazkundea aztertzen du, dauden etxebizitzen kopuruarekin alderatuta, hiri-lurzorua nahiz lurzoru urbanizagarria kontuan hartuta.

   e) ETXEBIZITZA-DENTSITATEA. Dagoen bizitegi-sarea eta aurreikusita dagoena agertzen ditu. Hiru azpi-adierazle aztertzen dira, kontuan hartuta hiri-lurzoruan dauden etxebizitzen kopurua, hiri-lurzoruan aurreikusita dauden etxebizitzen kopurua eta lurzoru urbanizagarrian aurreikusita dauden etxebizitzen kopurua.

   f) LURZORUAREN ARTIFIZIALIZAZIOAREN/KALIFIKAZIOAREN BILAKAERA. Hiri-orbanak azken urteetan izandako bilakaera deskribatzen dute, eta zehazkiago lurzoruaren hirigintzako artifizializazioak/kalifikazioak izan dako bilakaera (bizitegi-erabileretarako, jarduera ekonomikoetarako, azpiegitura eta ekipamenduetarako).

i) Considerar la incorporación de criterios bioclimáticos en el planeamiento; estableciendo una regulación del régimen de uso y edificación que facilite la implantación y desarrollo de energías renovables y la mejora en la gestión de los residuos urbanos.

j) Impulsar la infraestructura verde urbana mediante la utilización de soluciones basadas en la naturaleza para mejorar los procesos naturales en el ámbito urbano como la mejora en el drenaje y calidad de las aguas, la mitigación de las inundaciones urbanas, la mejora de la calidad del aire y el aislamiento acústico. En este sentido se propone también incrementar las dotaciones de arbolado en el entorno de las infraestructuras para mejorar el aislamiento acústico así como un factor regulador del confort climático.

k) Integrar la gestión de los suelos contaminados y la mejora de la calidad del suelo en las fases previas de la planificación territorial y urbanística, considerando la misma como un factor básico para el impulso de la regeneración urbana.

l) Desarrollar directrices tipo ICT (Infraestructura Común de Telecomunicaciones) a nivel de barrio, de municipio, de comarca y de Comunidad Autónoma. Estas directrices se aplicarán por parte de las administraciones (Gobierno Vasco, Diputaciones, Ayuntamientos) en las operaciones

sareak, saneamendua, gaueko argiak, semaforo-sarea, trenbidea, tranbia, metroa, garraio publikoa, hiri adimentsuko proiektuak, eta abar.

3.- Hiri-berroneratzearen arloko lurralde-eskalako proposamenak Lurralde Plan Partzialean osatuko dira, esku hartzen duen udalez gaindiko administrazioak proposamen horiek egikaritzeko eta finantzatzeko neurri egokien bidez. Alde horretan, administrazioak koordinatu egingo dira proposatutako agendak programatzeko eta finantzatzeko.

11. artikulua.- Hiri-hazkundearen perimetroaren arloko gidalerroak.

1.- Lurralde plangintza partzialerako gidalerroak.

a) Lurralde Plan Partzialetan hiri-hazkundeko perimetro batproposatzea, udal-planek egokitu ahalko dutena eta udalerri guztien bizitegitarako eta jarduera ekonomikorako eskariak kontuan hartuko dituena.

b) Hiri-hazkundearen perimetroa proposatzea eta horretarako, indarrean dauden Lurralde Plan Partzialetan definitutako bizitegi-garapen berriko jarduera ekonomikoetarako lehentasunezko eremuak egokitzea.

c) Hiri Hazkundeko Perimetroa proposatzea egungo hiri-orbanaren morfologia, inguruko lursailen ezaugarri fisikoak eta ekologikoak, eta hazkunde-itxaropenak aintzat hartuta. Horren harira:

1) Hiri Hazkundeko Perimetroa definitzeak ahalbidetuko du hiria lehendik dauden kokagune bakartuekin integratzeko. Lehendik dauden edo aurreikusita dauden garraio kolektiboko sistemekin bat datozen hazkunde-prozesuak bideratzeko aukera ere emango du.

2) Eraldaketa Ardatzetan barne hartutako udalerrietan, Hiri Hazkundeko Perimetroaren mugapena aipaturiko ardatz horiek eratzera eta finkatzera bideratuko da, guneen arteko lurralde-hutsuneak babestuz eta zeharkako konexio ekologikoak indartuz.

3) Hiri Hazkundeko Perimetroaren kanpoko hiri inguruko ingurunean ez dago bilduta eremuaren hirigintza-okupazioa beharrezkoa denik LPParen barruan. Lurzoru urbanizagarriko esparruak izanez gero, hirigintza-plangintzaren berrikuspenean erabakiko da esparruari landa-kalifikazioa ematea edo bere adskripzioa atxikiko duela justifikatzea hirigintza-hedapeneko zona berriei dagokienez.

d) Hiri Hazkundeko Perimetroan ezingo dira sartu Lurralde Antolamenduaren Gidalerro hauetan Ingurune Fisikoaren Gidalerroan xedatutakoaren arabera hirigintza-aldaketa debekatuta duten lursailak.

e) Hiri Hazkundeko Perimetroa hiri-ehunaren inguruan ezartzea.

2.- Hirigintza-plangintzarako gidalerroak.

a) Hiri Hazkundeko Perimetroaren barruan, hirigintza-ekimen berrien xedea izatea garapen berriak aldez aurretik dagoen

de regeneración urbana: renovación de calles, viales, redes de agua potable, saneamiento, iluminación nocturna, red semafórica, ferrocarril, tranvía, metro, transporte público, proyectos de ciudad inteligente, etc.

3.- Las propuestas de escala territorial en regeneración urbana se complementarán en el Plan Territorial Parcial con las correspondientes medidas de ejecución y financiación de las mismas por la Administración supramunicipal interviniente. En este sentido, las administraciones se coordinarán para programar y financiar las referidas propuestas.

Artículo 11.- Directrices en materia de perímetro de crecimiento urbano.

1.- Directrices para el planeamiento territorial parcial.

a) Proponer en los Planes Territoriales Parciales un perímetro de crecimiento urbano que podrá ser ajustado por los planes municipales y que tenga en cuenta las demandas residenciales y de actividades económicas del conjunto de los municipios.

b) Proponer el perímetro de crecimiento urbano adecuando las Áreas Preferentes de Nuevo Desarrollo Residencial o de Actividad Económica definidas en los Planes Territoriales Parciales vigentes.

c) Proponer el Perímetro de Crecimiento Urbano teniendo en cuenta la morfología de la mancha urbana actual, las características físicas y ecológicas de los terrenos del entorno y las perspectivas de crecimiento. En este sentido:

1) La definición del Perímetro de Crecimiento Urbano permitirá la integración urbana con asentamientos aislados existentes y orientará los procesos de crecimiento en correspondencia con los sistemas de transporte colectivo existentes o previstos.

2) En los municipios incluidos en los Ejes de Transformación, la delimitación del Perímetro de Crecimiento Urbano se orientará a la conformación y consolidación de dichos ejes, preservando los vacíos territoriales entre núcleos y potenciando las conexiones ecológicas transversales.

3) En el entorno periurbano exterior al Perímetro de Crecimiento Urbano no se contempla la necesidad de su ocupación urbanística en el horizonte del PTP. En el supuesto de existir ámbitos de suelo urbanizable, en la revisión del planeamiento urbanístico se dilucidará su calificación rural o justificadamente el mantenimiento de su adscripción a zonas de nueva expansión urbanística.

d) Excluir del Perímetro de Crecimiento Urbano los terrenos en los que queda prohibida su transformación urbanística de acuerdo con lo dispuesto en la Directriz de Medio Físico de estas Directrices de Ordenación Territorial.

e) Establecer el Perímetro de Crecimiento Urbano en torno al tejido urbano.

2.- Directrices para el planeamiento urbanístico.

a) Orientar dentro del Perímetro de Crecimiento Urbano las nuevas iniciativas urbanísticas e integrar los nuevos

hiri-bilbean txertatzea, hiri-bilbe hori osatuta, lurzoruaren erabilerari dagokionez intentsitate txikikoak diren eremuak dentsifikatuta, eta okupaziorik ez duten edo erabilera berriak izan ditzaketen espazioak berrituta.

b) Garraio sistemetara heltzeko puntuen inguruan kokatutako dentsifikazioko, berrikuntzako edo hazkundeko jarduerei lehentasuna ematea, betiere metroaren, aldiriko trenen eta hiriarteko tranbien geltokietatik oinez joateko moduko guneak izanik eskaera-maila handia duten zuzkidura eta ekipamenduak kokatzeko lehentasunezko eremu.

c) Hiri hazkundearen perimetroaren arabera aztertzea balio handiko nekazaritza eta abeltzaintzarako lurzoru urbanizaezin gisa sailka daitezkeen hiriko etxebizitza-dinamiken edo jarduera ekonomikoen poderioz zaharkituta geratu diren lurzoru urbanizagarriak.

12. artikulua.– Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzoruaren arloko gidalerroak.

1.– Industriarako eremu tradizionaletarako, berritze, birgaitze, eraberritze eta balioztatze estrategiak sustatzea, honako gidalerro hauen arabera:

a) Gutxiegi erabilitako jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren aprobetxamenduari lehentasuna ematea lurzoru berrien okupazioaren aurrean:

1) Gutxiegi erabilitako ekonomia-jardueretarako lurzorua kontuan hartzea, landa-eremuko lurralde berri gutxiago kolonizatu behar izateko.

2) Erreminta administratibo eta fiskalak diseinatzea jabe industrialen eta udalen arteko lankidetza izan dadin orain arte industria-arloko lurzoru izan direnen mantentze-lanak eta kontserbazioa egiteko.

b) Hiria erabileren arabera segmenta dadin saihestea, baita bizitegi-erabilerarekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak kanpoaldeko poligonoetara kanpora daitezen ere.

c) Jarduera ekonomikoetarako lurzoruak sustatzea, lurzoru horietan zenbait solairutako eraikuntzen egikaritzapena ahalbidetuta, betiere inguruak dituen balio eta ezaugarri natural, ingurune-arloko, topografiko eta paisajistikoekin bat etorriz, baita garatu beharreko jardueren izaerarekin ere.

2.– Goi-mailako teknologiei lotuta dauden edo berritzeko ahalmena duten lurzoruetarako, honako gidalerro hauek kontuan hartzea:

a) Teknologia-parkeetarako espazio berriak hirien barnealdean edo mugaren inguruan kokatutako eremuekin lotzea, proposamen berriak hiri-berroneratzeko eragiketen ondorio direla.

b) Berrikuntzaren espazio berriak sustatzea hirigune historikoetan, kostaldeko guneetan, aspaldiko industrializazio-eremuetan, arkitektura bereziko hiriguneetan eta abarretan.

c) Kanpoko konektibitate-nodo handiekin (hala nola aireportuak eta abildura handiko geltokiak) lotutako

desarrollos en la trama urbana preexistente, completándola, densificando las áreas con escasa intensidad de uso del suelo, y renovando los espacios desocupados o susceptibles de acoger nuevos usos.

b) Priorizar las actuaciones de densificación, renovación o crecimiento situadas en el entorno de los puntos de acceso a sistemas de transporte, siendo las zonas accesibles a pie desde las estaciones de metro, cercanías y tranvías interurbanos los ámbitos preferentes para la localización de dotaciones y equipamientos con alta demanda.

c) Revisar de acuerdo con la definición del Perímetro de Crecimiento Urbano la inclusión como suelo no urbanizable agroganadero de alto valor estratégico, los suelos urbanizables que han quedado obsoletos como consecuencia de las dinámicas urbanas residenciales o de actividades económicas.

Artículo 12.– Directrices en materia de suelo de actividades económicas y de equipamientos comerciales.

1.– Sobre las áreas industriales tradicionales promover estrategias de renovación, rehabilitación, reforma y puesta en valor de acuerdo con las siguientes directrices:

a) Priorizar el aprovechamiento del suelo de actividades económicas infrautilizado ante la ocupación de nuevos suelos:

1) Tener en cuenta el suelo de actividades económicas infrautilizado en aras a reducir la colonización de nuevos territorios rurales.

2) Diseñar herramientas administrativas y fiscales para la colaboración entre los propietarios industriales y los ayuntamientos para el mantenimiento y conservación de la urbanización de los suelos tradicionalmente industriales.

b) Evitar la segmentación de la ciudad en usos y la paulatina expulsión a polígonos exteriores de actividades económicas compatibles con el uso residencial.

c) Promover suelos de actividades económicas en los que se posibilite la ejecución de edificaciones de varias plantas, siempre de forma acorde con los valores y características naturales, ambientales, topográficas y paisajísticas que presente el entorno, así como con el carácter de las actividades a desarrollar.

2.– Sobre los suelos vinculados a altas tecnologías o con potencial innovador tener en cuenta las siguientes directrices:

a) Vincular los nuevos espacios de parques tecnológicos a ámbitos ubicados en el interior o en colindancia con las ciudades, en los que las nuevas propuestas surjan de operaciones de renovación urbana.

b) Promover nuevos espacios de la innovación en cascos históricos, núcleos costeros, zonas de antigua industrialización, áreas urbanas de arquitectura singular, etc.

c) Considerar las áreas vinculadas a los grandes nodos de conectividad exterior, como los aeropuertos y las estaciones

eremuak espazio kritikotzat hartzea, jarduera berritzaileak hartzeko potentziala duten aldetik.

d) EAEko unibertsitateko campusekin lotutako parke zientifikoak sor daitezen sustatzea, hezkuntza-arloa eta enpresa-arloa uztartzeko, eta espazio multifuntzional moduan eratuta egon daitezela, irudiaren, arkitekturaren kalitatearen, gune publiko eta berdeguneen ikuspegitik begiratuta zainduta, eta aldi berean, irisgarritasun-baldintza egokiak, garraio kolektiboko sistemak eta telekomunikazioetako azpiegitura sendoa ere izanik.

e) Euskal Autonomia Erkidegoan internet globalaren adabegi-zentroa ezartzearen aldeko apustua sendotzea, industria eta telekomunikazio zerbitzu globalak garatzen lagunduko duen eredu batekin.

3.– Jarduera ekonomikoetarako lurzoru berriekin lotutako beste elementu batzuei buruz, honako gidalerro hauek kontuan hartzea:

a) Kokaleku berezi edo bereizietan kokatzea, lurraldearen bikaintasuneko hainbat osagai uztartzen direla.

b) Inguruko paisaia hiritar eta naturalean txertatzeko aukera bilatzea, eta balioa handitzeaz gain, hobetzeko lagungarri ere izango dira.

c) Konektibitate handia izatea, errepide bidezko eta garraio kolektiboko konexio onak izanik, hirigune garrantzitsuenekin eta kanpoko konexio-azpiegiturekin azkar eta modu eraginkorrean lotuko dituztela.

d) Mugikortasun iraunkorreko sistemak sartzea eta azpiegitura digital egokia izatea, ingurune-bikaintasunera bideratutakoa, eta espazio publikoen kalitatea bereziki azpimarratuta.

4.– Merkataritza-ekipamenduei buruz honako gidalerro hauek kontuan hartu behar dira:

a) Gure herrietako hiri-bizimodua sustatzea, hiriko merkataritza lehenetsita aldiriko merkataritzaren aurrean.

b) Merkataritza-ekipamendu handien gehieneko azalera mugatzea interes orokorreko ezinbesteko arrazoien arabera, hala nola lurraldearen antolamendua eta hirigintza.

5.– Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean honako gidalerro hauek txertatuko dira:

a) Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren sorrera publikorako eragiketak ezartzea.

b) Udal-kategorizazioa mantentzea lehentasunezko interesa duten eta hazkunde apalekoak eta garapen txikikoak diren udalerrietan, udal-planetan horri dagokionez burutu beharreko lurralde-politikaren elementu definitzaile gisa.

c) Gaur egun «industriarako» edo «jarduera ekonomikoetarako» kalifikatutako lurzoruak «bizitegirako» edo antzeko

de alta velocidad, como espacios críticos por su potencial para acoger actividades innovadoras.

d) Promover la creación de parques científicos vinculados a los campus universitarios del País Vasco que integren lo educativo con lo empresarial y estén configurados como espacios multifuncionales cuidados desde el punto de vista de la imagen, la calidad de la arquitectura, los espacios públicos y las zonas verdes, y al mismo tiempo, dotados de buenas condiciones de accesibilidad, sistemas de transporte colectivo y una potente infraestructura de telecomunicaciones.

e) Reforzar la apuesta por establecer en el País Vasco un centro nodal de la internet global, con un modelo que contribuya a desarrollar la industria y los servicios de telecomunicaciones globales.

3.– Sobre otros elementos vinculados a los nuevos suelos de actividades económicas tener en cuenta las siguientes directrices:

a) Localizar en emplazamientos singulares o diferenciados en los que confluyan diversos componentes de excelencia del territorio.

b) Buscar la integración en el paisaje urbano y natural de su entorno, revalorizándolo y contribuyendo a su mejora.

c) Disponer de una elevada conectividad mediante transporte colectivo que los enlacen de forma rápida y eficaz con los principales centros urbanos y con las infraestructuras de conexión exterior.

d) Incorporar sistemas de movilidad sostenible y contar con una infraestructura digital adecuada, su diseño orientado a la excelencia ambiental, y con incidencia en la calidad de los espacios públicos.

4.– Sobre los equipamientos comerciales tener en cuenta las siguientes directrices:

a) Promover la vida urbana de nuestras poblaciones priorizando el comercio urbano en relación con el comercio de periferia.

b) Limitar la superficie máxima de grandes equipamientos comerciales de acuerdo a razones imperiosas basadas en el interés general como la ordenación del territorio y el urbanismo.

5.– El Plan Territorial Sectorial de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas y de Equipamientos Comerciales incluirá las siguientes directrices:

a) Establecer las operaciones de creación pública de suelo para actividades económicas.

b) Mantener la categorización municipal en municipios de interés preferente, de crecimiento moderado, y de bajo desarrollo, como elemento definitorio de la política territorial a llevarse al respecto en los planes municipales.

c) Admitir la recalificación de suelos calificados en la actualidad como industriales o de actividades económicas a nuevas

erabileretarako birkalifikatzeko prozesuak onartzea soilik aldez aurretik eta dokumentu egokien bidez justifikatzen denean teknikoki, ekonomikoki eta hirigintza-arloaren ikuspegitik ezinezkoa dela beste hirigintza-eragiketa bat planteatzea. Kasu horretan, jarduera ekonomikoetarako sabai-azalera-eraikigarria —azalera baliokidearekin— txertatuko da hirigintza-plangintzan.

6.– Jarduera ekonomikoetarako lurzoru-pakete handien dimentsionamenduaren azken erantzuleak izango dira Lurralde Plan Partzialak.

7.– Lurralde Antolamenduaren Gidalerro hauetan ezarritako eta EAEko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko Lurralde Plan Sektorialean adierazitako erreferentzia orokorrak alde batera utzita, udalerri bakoitzak gehienez lurzoruaren 3 hektarea aurreikusi ahalko ditu ingurune naturalaren gain inpaktu esanguratsurik eragin gabe harrera-ahalmen nahikoa dagoenean.

13. artikulua.– Bizitegi-kuantifikazioaren arloko gidalerroak.

1.– Gidalerro nagusiak:

a) Udalerriaren bizitegi-ahalmena finkatzea lehendik dagoen etxebizitza-beharraren osagaiak batuta, eta emaitzari harrotzeko edo maiorazioko koefizientea aplikatuta.

Udalerriaren bizitegi-ahalmena, hiri-lurzoru gisa eta lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako esparruetan hirigintza-plangintzak ahalbidetzen duen etxebizitzen gehikuntza dela ulertuko da.

b) Plangintzak bete behar dituen etxebizitza-beharrak zehaztea honako hauek aintzat hartuta: bilakaera demografikoa, familia-tasaren bilakaera edo bigarren etxebizitza. Beharrei maiorazio edo harrotze bat aplikatuko zaie.

c) Bizitegi-kuantifikazioari udalerrian jenderik gabeko etxebizitzak gehitzea, plangintzak sustatu beharreko bizitegi-ahalmenerako funtsezko faktore diren aldetik.

Bizitegi-kuantifikazioa, IV. Eranskinean (Bizitegi-kuantifikazioa) jasotako irizpideen bitartez plangintzan aurreikusi beharreko etxebizitza-beharrak eta gehieneko bizitegi-ahalmena ezartzeko bidea ematen duen kalkulu-prozesua da.

d) Tratamendu bereizia ematea hiri finkatuan gertatzen diren bizitegi-hazkundeei, lurzoru berrien okupazioaren bidez sortzen direnekin alderatuta:

- Kuantifikazio-irizpideetatik sortzen den bizitegi-ahalmenaren gainetiko bizitegi-gehikuntzak onartuko dira, betiere hiri-lurzorua birgaitzeko, berroneratzeko edo birdentsifikatzeko eragiketen bidez gertatzen badira.

- Ez da onartuko bizitegi-kuantifikazioaren kopuruaren gainetiko proposamenik landa-egoeran dagoen

calificaciones de residenciales o similares cuando se justifique previamente la imposibilidad técnica, económica o urbanística de plantear una operación urbanística consistente en la reconversión de dichos suelos como ámbito de acogida de nuevas actividades económicas, exigiéndose la incorporación en paralelo al planeamiento urbanístico de una superficie de techo edificable equivalente de actividades económicas.

6.– Establecer que los Planes Territoriales Parciales serán los responsables últimos del dimensionamiento de los grandes paquetes de suelo para actividades económicas.

7.– Con independencia de las referencias generales establecidas en estas Directrices de Ordenación Territorial y de las que señale el Plan Territorial Sectorial para la Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas de la CAPV, cada municipio podrá prever un máximo de 3 hectáreas de suelo cuando exista capacidad de acogida suficiente sin provocar impactos significativos sobre el medio natural.

Artículo 13.– Directrices en materia de cuantificación residencial.

1.– Directrices generales:

a) Establecer la capacidad residencial del municipio a partir de una suma de componentes de las necesidades de vivienda existentes, aplicando al resultado un coeficiente de esponjamiento o mayoración.

Se entenderá como capacidad residencial del municipio el incremento de viviendas que posibilita el planeamiento urbanístico en los ámbitos clasificados como suelo urbano y urbanizable.

b) Definir las necesidades de vivienda a las que debe dar servicio el planeamiento en virtud de la evolución demográfica, la variación de tasa familiar o la segunda residencia. A las necesidades se le aplicará una mayoración o esponjamiento.

c) Incorporar a la cuantificación residencial la vivienda deshabitada existente en el municipio como factor fundamental de la capacidad residencial a prever por el planeamiento.

Se entenderá como cuantificación residencial el proceso de cálculo que, mediante los criterios recogidos en el Anexo IV Cuantificación Residencial, permite establecer las necesidades de vivienda y la capacidad residencial máxima a prever en el planeamiento.

d) Otorgar un tratamiento diferenciado a los incrementos residenciales que se producen en la ciudad consolidada, con respecto a los que se generan mediante la ocupación de nuevos suelos:

- Se aceptarán incrementos residenciales por encima de la capacidad residencial que surge de los criterios de cuantificación, siempre que los mismos se produzcan a través de operaciones de rehabilitación, regeneración o redensificación del suelo urbano.

- No se aceptarán las propuestas por encima de la cifra de cuantificación residencial cuando se generen en el suelo

lurzoru urbanizagarrian sortzen direnean; hortaz, kuantifikaziorako irizpideak aplikatzeak aipatutako lurzoru horren desklasifikazio oso edo partziala ekar dezake hirigintza-plangintzaren ondoriozko berrikuspena egiten denean.

2.– Lurralde- eta hirigintza-plangintzarako gidalerroak:

a) Bizitegi-kuantifikaziorako prozedura.

1) Plangintzako bizitegi-kuantifikazioa ezartzeko prozedura Aplikatzeko Arau hauen IV. eranskinean («Bizitegi-kuantifikazioa») dago jasota.

2) IV. eranskin horretan azaldutako metodologia Lurralde Plan Partzialak nahiz hirigintza-plangintzak berrikustean edo aldatzean aplikatu beharko da, eta eranskin horretan jasota dauden balio zehatzak argibide modura hartuko dira kontuan.

3) Hirigintza-plangintzaren kasuan, bizitegi-kuantifikazioa kalkulatzeko, planaren behin betiko dokumentua idazteko irizpide-hartzearen erabakiaren data baino lehenagoko datuen estatistika ofizialean oinarritu behar da.

b) Bizitegi-beharrak honako magnitude hauek batuta kuantifikatzen dira:

1) Etxebizitza nagusiaren beharrak, bizi den biztanleria edo familiaren batez besteko tamaina aldatzeagatik.

2) Bigarren etxebizitzaren eskaria.

3) Jenderik gabeko etxebizitzen aurreikuspena okupatutako etxebizitzak aldatzeagatik.

4) Lurralde-ereduaren zuzenketak, Lurralde Plan Partzialean ezarritakoak.

c) Harrotze-faktorea.

1) Harrotze-faktorea indize bat da, zeinak gehieneko bizitegi-beharraren zifra plangintzan kalifikatutako lurraren gehieneko bizitegi-ahalmen bihurtzen baitu, izan litezkeen beharrak asetzea bermatzeko.

2) Harrotze-faktorea 2,2tik 3,0ra bitarte izango da, eta udalerriak Iv. Eranskineko («Bizitegi-kuantifikazioa») 4. taularen arabera sailkatzen diren bost mailen arabera aplikatuko da.

d) Bizitegi-ahalmena murriztea, dauden jenderik gabeko etxebizitzen zati bat berreskuratzeagatik:

1) Bizitegi-kuantifikazioari dagokionez, bizitegitarako parkean dauden etxebizitzen guztizkoaren % 2, gutxienez, izango da jenderik gabeko etxebizitzen balioa.

2) Jenderik gabeko etxebizitza guztien % 10 bizitegi-kuantifikazioan sartzea gomendatzen zaie LPPei, betiere etxebizitza mota horren ehuneko teknikoa –IV. eranskinean zehaztutakoa– kendu ostean.

urbanizable que se encuentre en situación de rural, por lo que la aplicación de los criterios de cuantificación podrá implicar la desclasificación total o parcial del referido suelo cuando se produzca la consiguiente revisión del planeamiento urbanístico.

2.– Directrices para el planeamiento territorial y urbanístico:

a) Procedimiento para la cuantificación residencial.

1) El procedimiento para establecer la cuantificación residencial del planeamiento se recoge en forma de Anexo IV «Cuantificación Residencial» de las presentes Normas de Aplicación.

2) La metodología descrita en dicho Anexo IV resultará de aplicación en la revisión o modificación tanto de los Planes Territoriales Parciales como de los planeamientos urbanísticos, teniendo los valores concretos resultantes recogidos en el citado anexo un carácter ilustrativo.

3) En el caso del planeamiento urbanístico, el cálculo de la cuantificación residencial se realizará sobre la estadística oficial de los últimos datos existentes anteriores a la fecha del acuerdo de adopción de criterios para la redacción del documento definitivo del Plan.

b) Necesidades residenciales, cuya cuantificación resulta de la suma de las siguientes magnitudes:

1) Necesidades de vivienda principal por variación de la población residente o por variación del tamaño medio familiar.

2) Demanda de vivienda secundaria.

3) Previsión de viviendas deshabitadas por variación de las viviendas ocupadas.

4) Correcciones del modelo territorial establecidas en el Plan Territorial Parcial.

c) Factor de esponjamiento.

1) El factor de esponjamiento es el índice que convierte la cifra de necesidades en la capacidad residencial máxima del suelo calificado en el planeamiento, a fin de garantizar la eventual satisfacción de tales necesidades.

2) El factor de esponjamiento variará entre un 2,2 y un 3,0 y se aplicará según los cinco niveles en los que se clasifican los municipios según la Tabla 4 del Anexo IV Cuantificación Residencial.

d) Reducción de la capacidad residencial por recuperación de parte de las viviendas deshabitadas existentes:

1) El valor de vivienda deshabitada que debe considerarse a los efectos de la cuantificación residencial será como mínimo de un 2% del número total de viviendas del parque residencial existente.

2) Se recomienda a los PTP la incorporación a la cuantificación residencial del 10% del número total de viviendas deshabitadas existente una vez detraído el porcentaje técnico de este tipo de viviendas definido en el Anexo IV.

e) Bizitegi-kuantifikazioa hirigintza-plangintzan:

1) Udal plangintza orokorrean aurreikusitako hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren bizitegi-ahalmenak ez du gaindituko bizitegi-beharren kalkulutik sortutako gehieneko balioa, behar horiei harrotze-faktorea aplikatu ondoren.

2) Bizitegi-ahalmen horrek bi baldintza bete beharko ditu, gainera:

a.– Ezin izango du gainditu hirigintza-plangintza onartzen denean dagoen etxebizitza-parkearen % 50.

b.– Edozein udalerrik hasierako etxebizitza-parkearen % 10eko bizitegi-ahalmena proposatu ahal izango du.

3) Honako hauek ez dira zenbatuko bizitegi-ahalmenaren gehikuntza moduan:

a.– Etxebizitza kopuruaren gehikuntza eta/edo hornidura-jardunetako hirigintza-eraikigarritasunaren gehikuntza.

b.– Lurzoru urbanizaezinean kokatutako baserriak zatitzea.

c.– Aurreikusita dauden eta oraindik eraiki gabe dauden eraikinak, lizentzia badutenak.

d.– Hiri-lurzoru eta zoru urbanizagarrian dagoeneko dauden bizitegi-eraikinen birgaitze-, ordezte-, eraberritze- edo zatitze-eragiketen ondorioz sortuko diren etxebizitzen gehikuntza.

e.– Merkataritzako lokalen erabileratik etxebizitza erabilerara aldatzearen ondorioz sortzen diren etxebizitzak.

4) Aukeran, hirigintza-planeamenduak landaguneen ahalmena sartu ahal izango du bizitegi-kuantifikazioan.

5) Etxebizitza kopurua eraikigarritasun bihurtzeko prozesua Aplikatzeko Arau hauen IV. eranskinean xedatzen denari jarraikiz egingo da.

6) Hirigintza-plangintza berrikusteko prozesuetan –baldin eta indarreko plangintzaren bizitegi-ahalmena handiagoa bada gidalerro hauetako irizpideak aplikatzearen ondoriozkoa baino–:

a.– Ahalmen handiagoa honartuko da, baldin eta hiri-lurzorua birgaitzeko, berritzeko edo trinkotzeko eragiketen ondorio bada.

b.– Lurzoru urbanizagarriari dagokionez, indarreko plangintzan jada onartuta dagoena errespetatu ahal izango da, betiere justifikatzen bada hirigintza-garapenerako sustatutako jarduteken edo plangintza egikaritzearen arabera; dena den, kasu horretan ez da onartuko lurzoru urbanizaezina lurzoru urbanizagarri bihurtzeko birsailkapen gehiagorik.

e) La cuantificación residencial en el planeamiento urbanístico:

1) La capacidad residencial del suelo urbano y urbanizable prevista en el planeamiento general municipal no superará el valor máximo que surge del cálculo de las necesidades residenciales, una vez aplicado un factor de esponjamiento a las mismas.

2) Dicha capacidad residencial deberá cumplir además dos condiciones:

a.– No podrá superar el 50% del parque de viviendas existente en el momento de aprobación del planeamiento urbanístico.

b.– Todo municipio podrá plantear una capacidad residencial equivalente al 10% del parque inicial de viviendas.

3) No computarán como incremento de la capacidad residencial:

a.– El incremento del número de viviendas y/o el incremento de la edificabilidad urbanística en actuaciones de dotación.

b.– La subdivisión de caseríos enclavados en suelo no urbanizable.

c.– Las edificaciones previstas y no construidas que ya dispongan de licencia.

d.– El incremento de viviendas que surja como consecuencia de operaciones de rehabilitación, sustitución, reforma o subdivisión de edificaciones residenciales ya existentes en el suelo urbano y urbanizable.

e.– Las viviendas que surgen del cambio de uso de locales comerciales a vivienda.

4) Facultativamente, el planeamiento urbanístico se podrá incorporar en la cuantificación residencial la capacidad de los núcleos rurales.

5) La conversión del número de viviendas en edificabilidad se realizará según se establece en el Anexo IV de estas Normas de Aplicación.

6) En los procesos de revisión del planeamiento urbanístico en los que la capacidad residencial del planeamiento vigente sea superior a la que surge de los criterios de estas directrices:

a.– Se admitirá una capacidad superior que resulte de operaciones de rehabilitación, renovación o redensificación del suelo urbano.

b.– Se podrá respetar, en lo relativo al suelo urbanizable, lo ya aprobado por el planeamiento vigente, siempre que se justifique a la vista de las actuaciones promovidas para el desarrollo urbanístico o de ejecución del planeamiento; sin embargo, en este supuesto no se admitirán nuevas reclasificaciones de suelo no urbanizable a suelo urbano o urbanizable.

c.– Plangintza berrikusteko prozesuak irizpide horien arabera egokitzearen ondorioz lurzoru urbanizagarriaren desklasifikazio garrantzitsua gertatzen bada, udalerri horietan bizitegi-ahalmen handiagoa onartu ahal izango da, justifikatuta betiere, eta gehieneko muga kalkulatzeko, udalerriko biztanleriari eutsi egiten zaion hipotesia baliatu behar da. Irizpide horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak berariazko balorazioa ematea dakar.

7) Bizitegi-ahalmena plangintza behin betiko onartu zenetik emandako lizentzien gainetik handituko duen aldaketarik ezin izango da sustatu, betiere hiri-berroneratzeko edo -trinkotzeko eragiketak salbuespen izanik, edo hirigintza-planeamenduak hasieran planteatutako egoitza-ahalmena kuantifikazioaren irizpidetik ateratzen dena baino gutxiago baldin bada, eta baimentzen den muga gainditzen ez bada. Plangintzan bertan aurreikusitako bizitegi-ahalmena gehituko duten plangintza-aldaketen garrantzia plangintza-aldakuntzei dagokienez hirigintza-legeriak ezarritako mugen mende egongo da (hirigintza-antolamendu estrukturalaren erabateko edo partezko berrikuspenerako, edo aldaketa puntualerako baldintzak).

8) Herrigune anitzeko udalerriak edo kontzeju-egitura dutenak.

a.– Herrigune anitz edo kontzeju-egitura duten udalerrietan, irizpide orokorren ondoriozko bizitegi-kuantifikazioaren zifra herrigune nagusiari aplikatuko zaio, baita bizitegi-garapenak planteatzen dituzten guneei ere (lurzoru urbanizagarriko sektoreak).

b.– Kontzeju-egitura duten udalerrietako gainerako guneetan etxebizitza gehiago egin ahal izango dira, baina hazkundeak ez du izan behar lehendik dauden etxebizitzen kopurua baino handiagoa.

c.– Aukeran, kontzeju guztien bizitegi-ahalmena sartu ahal izango da kuantifikazioaren kalkulu orokorrean.

d.– Landaguneei dagokienez, ekainaren 30eko 2/2006 Legean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoan xedatuta dagoenari jarraituko zaio.

f) Bizitegi-kuantifikazioa Lurralde Plan Partzialetan.

1) Lurralde Plan Partzialetan Eremu Funtzionaleko esparruaren barruko udalerri bakoitzari dagokion bizitegi-lurzoruaren eskaintza kuantifikatu beharko da, eta, zehatzago, lurralde-ereduaren osagaia.

2) Lurralde Plan Partzialek, Eremu Funtzionalaren ezaugarri espezifikoei aplikatu ahal izango dizkiete erabilitako koefizienteak. Era berean, Eusko Jaurlaritzak, erregelamendu bidez, erabilitako koefizienteak Autonomia Erkidegoaren esparrurako egokitu ahal izango ditu.

3.– Etxebizitzak Lurralde Plan Sektorialak bizitegi-kuantifikazioari buruzko gidalerroak kontuan hartuko ditu, eta udalerrien

c.– En los municipios regresivos en los que la adecuación de los procesos de revisión del planeamiento a estos criterios implicará una desclasificación importante de suelo urbanizable, se podrá aceptar justificadamente una capacidad residencial superior con el límite máximo resultante de considerar la hipótesis de que se mantiene la población del municipio. Este criterio implicará una valoración expresa de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

7) No se podrán promover modificaciones de planeamiento que incrementen la capacidad residencial por encima de las licencias concedidas desde la aprobación definitiva del planeamiento, salvo en los supuestos de operaciones de renovación o redensificación urbana, o salvo en el supuesto de que la capacidad residencial inicial planteada por el Planeamiento Urbanístico fuera inferior a la resultante de los criterios de cuantificación y no se superara el tope permitido. La entidad de las modificaciones de planeamiento que incrementen la capacidad residencial prevista en el mismo estará sujeta a las limitaciones establecidas por la legislación urbanística en relación con las alteraciones del planeamiento (condiciones para la revisión total, parcial o modificación puntual de la ordenación urbanística estructural).

8) Municipios polinucleares o de estructura concejil.

a.– En los municipios polinucleares o de estructura concejil la cifra de cuantificación residencial que surge de los criterios generales se aplicará sobre el núcleo principal y los núcleos en los que se plantean desarrollos residenciales (sectores de suelo urbanizable).

b.– En el resto de los núcleos de los municipios de estructura concejil se posibilitará un incremento de viviendas no superior al de las viviendas existentes.

c.– Facultativamente se podrá incorporar la capacidad residencial de todos los concejos al cálculo general de la cuantificación.

d.– En los núcleos rurales se estará a lo dispuesto por la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

f) La cuantificación residencial en los Planes Territoriales Parciales.

1) Los Planes Territoriales Parciales deberán cuantificar la oferta de suelo residencial correspondiente a cada uno de los municipios incluidos en el ámbito del Área Funcional y en concreto el componente de modelo territorial.

2) Los Planes Territoriales Parciales podrán adecuar los coeficientes utilizados a las características específicas del Área Funcional. Igualmente, reglamentariamente el Gobierno Vasco podrá adecuar los coeficientes utilizados para el marco general de la Comunidad Autónoma.

3.– El Plan Territorial Sectorial de Vivienda tendrá en cuenta las directrices sobre cuantificación residencial distinguiendo por

arabera bereiziko du hirigintza-plangintzak aurreikusten dituen etxebizitzen babes-araubidea.

14. artikulua.– Plangintzak bateragarri egitearen arloko gidalerroak.

1.– Lurralde Plan Partzialetan honako hauek kontuan hartzea:

a) Udalaz gaindiko izaera estrategikoko eremuen definizioa, zeinetan Bateragarritzeko Plan bat idatziko den bizitegi-edo -industria lurzoruko politikak garatzeko, edo bestela Plan Berezi bat ekipamenduak, azpiegiturak edo lurzoru urbanizaezina koordinatu behar den kasuetan.

b) Beste Lurralde Plan Partzialekin erlazionatzeko esparruen identifikazioa.

c) Udalaz gaindiko azpiegitura linealak.

d) Inplikatutako udalerrien plangintzan hartu beharreko irizpide espezifikoak udalerri horiek beren hirigintza-estrategien integrazio eraginkorra lor dezaten.

2.– Bateragarritasunetako tresna alternatibo gisa bateragarritze-proiektu baten idazkuntza ezartzea, eraginpeko udalerri bakoitzaren plangintza orokorrean barne hartu beharreko zehaztapen espezifikoak bilduko dituena, lortu nahi den bateragarritzea bermatzeko. Inplikatutako udalerrien Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Aurrerapenaren idazkuntza bateratua.

3.– Plangintzak bateragarri egiteari dagokienez, lurralde-eskalako proposamenak Lurralde Plan Partzialean osatuko dira, esku hartzen duen udalaz gaindiko administrazioak proposamen horiek egikaritzeko eta finantzatzeko neurri egokien bidez. Alde horretan, administrazioak koordinatu egingo dira proposatutako agendak bideratzeko eta finantzatzeko.

4.– Eraginpeko udalerri bakoitzean bateragarri egitekoak diren elementuak definitzea.

a) Erreferentzia-esparrua zehaztea:

1) Bateragarri egitea justifikatzen duten arrazoiak bete beharreko udalaz gaindiko eginkizunen oinarriaren gain.

2) Bateragarri egiteko estrategiarekin lortu nahi diren helburu global eta espezifikoak.

3) Hiri-erabilera eta -jardueren proposamena eraginpean hartzen duten oinarrizko magnitudeak, baita garatu beharreko hiri-programak zehatz-mehatz ezartzea ere.

b) Plangintzak bateragarri egiteko aplikatu behar diren edukia eta irizpideak ezarriko dituzte Lurralde Plan Partzialek beren jardun-esparruan. Honako elementu hauek kontuan hartzea iradokitzen da:

1) Bateragarri egiteko eremua mugatzea.

2) Irizpideak ezartzea lurzoru-erabilerari, eraikigarritasunari eta hiri-diseinuari dagokienez Hiri Lurzoru edo Lurzoru Urbanizagarria antolatzeko, eta, kasuan kasu, lurzoru Urbanizaezina antolatzeko.

municipios el régimen de protección de las viviendas previstas por el planeamiento urbanístico.

Artículo 14.– Directrices en materia de compatibilización de planeamientos.

1.– Contemplar en los Planes Territoriales Parciales:

a) La definición de las áreas de carácter estratégico supramunicipales en las que se redactará un Plan de Compatibilización para el desarrollo de políticas de suelo residencial o industrial, o bien un Plan Especial en supuestos de coordinación equipamental, de infraestructuras o de suelo no urbanizable.

b) La identificación de los ámbitos de interrelación con otros Planes Territoriales Parciales.

c) Las infraestructuras lineales supramunicipales.

d) Los criterios específicos que han de adoptarse en el planeamiento de los municipios implicados para alcanzar una integración eficaz de sus estrategias urbanísticas.

2.– Establecer como mecanismo alternativo de compatibilización la redacción de un Plan de Compatibilización que recoja las específicas determinaciones que habrán de contenerse en el planeamiento general de cada uno de los municipios afectados para garantizar la compatibilización que se pretende.

3.– Las propuestas de escala territorial en materia de compatibilización de planeamientos se complementarán en el Plan Territorial Parcial con las correspondientes medidas de ejecución y financiación de las mismas por parte de la Administración supramunicipal interviniente. En este sentido, las administraciones se coordinarán para propiciar y financiar las referidas propuestas.

4.– Definir los elementos a compatibilizar en cada uno de los municipios afectados:

a) Caracterización del marco de referencia:

1) Motivos que justifican la compatibilización sobre la base de las funciones supramunicipales a desempeñar.

2) Objetivos globales y específicos que se persiguen con la estrategia de compatibilización.

3) Magnitudes básicas que afectan a la propuesta de usos y actividades urbanas, así como establecimiento detallado de los programas urbanos a desarrollar.

b) Los Planes Territoriales Parciales establecerán el contenido y los criterios a aplicar para la compatibilización de planeamientos en su ámbito de actuación. Se sugiere tener en cuenta los siguientes aspectos:

1) Delimitación del área de compatibilización.

2) Establecimiento de criterios en cuanto a usos del suelo, edificabilidad y diseño urbano para la ordenación del Suelo Urbano o Urbanizable, y en su caso para la ordenación del suelo No Urbanizable.

3) Hornidurak xehetasunez zehaztea eta kokatzea, eta bereziki, espazio libre eta berdeguneen sistema, edo azpiegiturazko eskema.

4) Udalerrien plangintza orokorraren idazkuntzarako erreferentziak.

5.- Plangintzak bateragarri egiteko espazio gisa azaltzea Bilbaoko itsasadarraren eta Pasaiako Badiaren inguruko eremuak. Dagokion Lurralde Plan Partzialak definituko du bateragarri egiteko eremua.

15. artikulua.- Uraren arloko gidalerroak.

1.- Ur-bazterreko eta ibilguko baldintzak babestea ur-masetako eta eremu babestuetako ingurumen-helburuak lortzeko, eta ibaigune, estuario eta hezeguneen dinamika eta morfologia lehengoratu ez ezik sustatu ere egingo dira, hiri-berroneratzeko eta -berritzeko eragiketetan.

2.- Politika egiterakoan egiturazko neurriak ezartzea arriskupeko hirigune sendotuetan, eta neurri horiek egiturazkoak ez diren beste hainbat neurrirekin uztartuko dira, urak har ditzakeen eremuetan lurren erabilerak arautuz eta mugatuz, eta honako bi premisa hauek kontuan hartuz: gertaeraren edo uholdearen arriskugarritasuna, eta jardunaren eraginpean jarri nahi den lurraren oinarrizko baldintza: landa-lurra edo urbanizatua.

3.- Hirigintzako aurreikuspenetan aurreikustea honako hauek:

a) Ur-eskariak behar bezala gogobetetzeko behar adinako baliabideak, eta, aldi berean, harguneetako emari ekologikoen erregimenekiko bateragarritasuna.

b) lotutako euri-masaren ingurumen-helburuak betetzeko nahikoa eta egokia den saneamendu- eta -arazketa azpiegitura.

4.- Lurpeko urak babesteko lurralde-dimentsioa garatzea, prebentzio-politiken aplikazioan oinarrituta batez ere.

5.- Prebentzioaren alorrean, lurralde-antolamendutik laguntza eskaintzea ur-alorreko helburuak lortzeko laborantza- edo erauzketa-sektorearekin zerikusia duten presioetan, eta batez ere eremu babestuen alorrean, eremu babestuen erregistroko herriak hornitzeko ur-bilketak barne.

6.- Plangintza hidrologikoan aurreikusitako hornidura- eta saneamendu-azpiegiturak eranstea.

7.- Gutxienez, Eremu Babestuen Erregistroan jasotako honako eremu hauek jasotzea:

a) Hiri-hornidurako ur-bilketak eta haien isurketa zuzeneko arroak.

b) Urtegien kasuan kontuan hartuko da, halaber, urtegira isuralda litezkeen ibaien arroa.

c) Erreserba hidrologikoak.

3) Caracterización pormenorizada y ubicación de las dotaciones, y en particular, del sistema de espacios libres y zonas verdes, o el esquema infraestructural.

4) Referencias para la redacción del planeamiento general de los municipios.

5.- Señalar como espacios para la compatibilización de planeamientos las áreas del entorno de la Ría de Bilbao y de la Bahía de Pasaia. El Plan Territorial Parcial correspondiente definirá el Área de compatibilización.

Artículo 15.- Directrices en materia de agua.

1.- Proteger las condiciones de ribera y cauce para la consecución de objetivos medioambientales de las masas de agua y de las zonas protegidas, así como promover la restauración de la dinámica y morfología de los espacios fluviales, estuarios y humedales, en las operaciones de regeneración y renovación urbana.

2.- Adoptar políticas basadas en la combinación de medidas estructurales en zonas urbanas consolidadas sometidas a riesgo, y medidas no estructurales, con la regulación y limitación de los usos del suelo en zonas inundables, teniendo en cuenta dos premisas: la peligrosidad del evento o inundabilidad, y la condición básica de suelo sobre el que se pretende actuar, rural o urbanizado.

3.- Contemplar en las previsiones urbanísticas la existencia de:

a) recurso suficiente para una adecuada satisfacción de las demandas de agua y, a la vez, la compatibilidad con los regímenes de caudales ecológicos en los puntos de toma.

b) una infraestructura de saneamiento y depuración suficiente y adecuada para el cumplimiento de los objetivos medioambientales de la masa de agua relacionada.

4.- Desarrollar la dimensión territorial de la protección de las aguas subterráneas, basada fundamentalmente en la aplicación de políticas preventivas.

5.- Contribuir en el plano preventivo desde la ordenación territorial a la consecución de los objetivos en materia de aguas en el caso de presiones relacionadas con el sector agrario o extractivo, y en particular en el ámbito de las zonas protegidas, incluyendo las captaciones de abastecimiento de poblaciones del registro de zonas protegidas.

6.- Incorporar las infraestructuras de abastecimiento y saneamiento previstas en la planificación hidrológica.

7.- Recoger al menos las siguientes zonas recogidas en el Registro de Zonas Protegidas:

a) Las captaciones de abastecimiento urbano y sus cuencas de escorrentía directa.

b) En el caso de los embalses también se tendrá en cuenta la cuenca de los eventuales tributarios trasvasados al embalse.

c) Las reservas hidrológicas.

d) Ingurumen- edo natura-intereseko ibai-tarteak.

8.- Ibai eta Erreken Lurralde Plan Sektorialak eta hirigintza-plangintzak, gainera, hau egin beharko dute:

a) Plangintza orokorrean, lurzoru urbanizaezinaren ibai, erreka, aintzira eta urmaeletako ertzetan «Gainazaleko Urak Babesteko Lurzoru Urbanizaezina» kategoria ezartzea, Gidalerro hauetako ingurune fisikoari buruzko artikuluan ezarritako irizpideak aplikatuta.

b) Hirigintza-garapen berriak dituzten landa-ertzetan urak har ditzakeen eremuaren okupazioa saihestea, eta, ezinezkoa balitz, itzulerako 100 urteko uraldia mugatzen duen lerrotik abiatuta kokatuko dira.

c) Hiri-lurretako ibaiertzei garrantzi handia ematea hiri-paisaia itxuratzean eta ingurune naturala hirien barruan integratzean, eta eraikuntza-erretiro oparoak sartzea, ibaiaren tamainaren arabera.

d) Lur urbanizagarriko eremuetako ertzetan, ibilguaren aldamenean lur askeak eskuragarri izateko aukera gehiago izateak espazio-antolamendu zabalagoa ahalbidetzen duela aintzat hartzea. Beraz, eraikuntzaren eta urbanizazioaren erretiro jakin batzuk planteatu behar dira, berdeguneak sartzea eta lehendik dagoen ur-bazterreko landaredia babesteko moduan.

e) Hiri-berroneratzeko eta -birmoldaketarako eragiketetan, estaldurak eta bideratze gogorrak dituzten ibai-eremuak leheneratzea.

f) Hirigintza-plangintza egiterakoan, uholdeak prebenitzeko problematika hidraulikoaren soluzioa kultura-intereseko zubi edo elementuak zaintzearekin bateragarri egitea.

g) Ur-ibilguak aldatzeko debekua errespetatzea, baldin eta ibaiadarraren arroa 1 km²-tik gorakoa bada isurialde kantauriarrean, eta 2 km²-tik gorakoa bada isurialde mediterraneoan. Salbuespenez, 2 km²-rainoko eta 3 km²-rainoko tarteak baimentzea, hurrenez hurren, Lurralde Plan Partzialean zehaztutako hirigintza-azpiegitura edo -jardunak direnean.

h) Etxadien, plazen eta espaloien iragazkortasuna sustatzea, hiriaren drainatze-ahalmena handitzeko.

16. artikulua.- Energiaren arloko gidalerroak.

1.- Lurralde-plangintza partzialak honako hauek bete beharko ditu:

a) Erabilera-eskema orokor bat ezartzea, nahitaezko mugikortasunaren ondoriozko lekualdaketak murrizteko.

b) Baliabide berriztagarriak aprobetxatzeko behar diren azpiegiturak ezartzeko lur-erreserba egokiak biltzea, energia-alorrean ezarritako helburuak betetzeko behar adinako kopuruan eta ahalmen nahikoarekin.

d) Los tramos fluviales de interés medioambiental o natural.

8.- El Plan Territorial Sectorial de Ríos y Arroyos, así como el planeamiento urbanístico deberán, además:

a) Establecer en el planeamiento general en las márgenes de los ríos, arroyos, lagos, lagunas y embalses en suelo no urbanizable la categoría de Suelo no Urbanizable de Protección de Aguas Superficiales, en la que se aplicarán los criterios establecidos en el artículo relativo a medio físico de estas Directrices.

b) Evitar la ocupación de la zona inundable en las márgenes rurales con nuevos desarrollos urbanísticos y, si esto no fuera posible, se situarán a partir de la línea que delimita la avenida de 100 años de periodo de retorno.

c) Considerar el río en las márgenes en suelo urbano como un elemento de la máxima importancia en la configuración del paisaje urbano y de la integración del medio natural en el interior de las ciudades, e introducir unos retiros edificatorios generosos en función del tamaño del río.

d) Considerar que en las márgenes en ámbitos de suelo urbanizable la mayor disponibilidad de suelo libre colindante con el cauce, permite una ordenación espacial más amplia, por lo que procede plantear unos retiros de la edificación y de la urbanización que favorezca la introducción de zonas verdes y la preservación de la vegetación de ribera existente.

e) En las operaciones de regeneración y reconversión urbana, recuperar espacios en los ríos que actualmente cuentan con coberturas y encauzamientos duros.

f) Compatibilizar en el planeamiento urbanístico la resolución de la problemática hidráulica de prevención de inundaciones con la conservación de los puentes o elementos de interés cultural.

g) Respetar la prohibición de alterar cursos de agua con cuenca afluente superior a 1 Km² en la vertiente cantábrica y a 2 Km² en la vertiente mediterránea. Excepcionalmente permitir hasta 2 Km² y 3 Km² respectivamente cuando se trate de infraestructuras o actuaciones urbanísticas definidas en el Plan Territorial Parcial.

h) Promover la permeabilización de patios de manzana, plazas y aceras para mejorar la capacidad drenante de la ciudad existente.

Artículo 16.- Directrices en materia de energía.

1.- El planeamiento territorial parcial deberá:

a) Establecer un esquema general de usos que minimice los desplazamientos por movilidad obligatoria.

b) Incluir las reservas del suelo que resulten precisas para la implantación de las infraestructuras necesarias para el aprovechamiento de los recursos renovables, en número y capacidad suficiente para cumplir los objetivos establecidos en materia de energía.

c) Energia Elektrikoa Garraiatzeko Sarearen plangintza kontuan hartzea, sare horretan bildutako instalazioak kokatzeko behar diren lur-erreserbak eginez.

d) Garapen-ardatz linealak indartzea, garraio publikoko zerbitzuen erabilera bultzatzeko eta polizentrismoan oinarritutako hiri-egitura eraginkor eta trinkotuak sustatzeko, hartara lekualdatze-premiak murrizteko.

e) Energia-iraunkortasuna ebaluatzeko azterketa egin dadin bultzatzea, plangintza horrek energia-kontsumoaren eta energia-aurrezpenaren eta -eraginkortasunaren gainean nola eragiten duen aztertzeko, eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea.

2.- Hirigintza-plangintzak honako hauek sustatuko ditu:

a) Eraikinak, auzoak eta hiriak energia-burujabetasuneko sistema hobeez horni daitezela.

b) Lehendik dauden eraikinen eta urbanizatutako guneen energia-eraginkortasuna hobetzea.

c) Eraikin eta espazio publikoen plangintzaren, proiektuaren eta egikaritzearen faseetan irizpide bioklimatikoak erabiltzea, batik bat orientazioari, diseinuari eta materialei dagokienez, eta energia-kontsumoa minimizatzen duten sistema pasibo eta aktiboen erabilerari dagokionez.

d) Eraikin eta espazio publikoetan landaredia erabiltzea isolatzeko elementu moduan eta konfort klimatikoa urtaro batetik bestera erregulatzeko faktore moduan.

e) Energia-alorrean efizienteak diren argiteria publikoko gailuak erabiltzea.

f) Hiri-berroneratze eta -birgaitzeko eremuetan eta garapen berriko esparruetan hiriko bero-sareen bitartez energia termikoa sortzeko eta eraikinetan banatzeko sistema zentralizatuak ezartzea, energia berriztagarrien iturriak erabiliz.

3.- Petrolioaren eratorriez bestelako energia alternatiboen bidezko garraio-sistemak sustatzea, elektrizitatea eta gasa naturala erabiltzen dutenak adibidez.

4.- Eraikin eta instalazioen energia-autohornidura erraztea, eguzkia, haizea, biomasa eta abarren aprobetxamendu-sistemen bidez, iturri berriztagarrietako energia lortzeko soluzioei lehentasuna emanez. Horrez gain, lur urbanizaezinetan kokatutako eraikin isolatuetan energia-autokontsumoko sistemak erabiltzea erraztu.

5.- Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

a) Berriztagarriek elektrizitatea sortzean duten parte-hartzea handitu beharra, produkzio- eta hornidura-azpiegiturak zabaldu beharra eta EAEko berriztagarrien energia-potentzialetik ahalik eta aprobetxamendurik onena lortzeko behar diren azpiegituren ezarpena erraztu beharra kontuan hartzea, hori guztia natura-, paisaia- eta kultura-ondarea zaintzearekin bateragarri eginez.

c) Tener en cuenta la planificación de la Red de Transporte de Energía Eléctrica, realizando las reservas de suelo necesario para la ubicación de las instalaciones contempladas en ella.

d) Potenciar los ejes de desarrollo lineales que incentiven el uso de los servicios de transporte público y las estructuras urbanas eficaces y densificadas basadas en el policentrismo para reducir las necesidades de desplazamiento.

e) Promover el estudio de evaluación de sostenibilidad energética que analice su efecto sobre el consumo de energía, sobre el ahorro y la eficiencia energética, y el uso de energías renovables.

2.- El planeamiento urbanístico promoverá:

a) Que los edificios, barrios y ciudades se doten de los mejores sistemas de autosuficiencia energética.

b) La mejora de la eficiencia energética de las edificaciones y los espacios urbanizados ya existentes.

c) La utilización de criterios bioclimáticos en las fases de planificación, proyecto y ejecución de edificaciones y espacios públicos, en particular en lo referente a orientación, diseño y materiales, así como en el uso de sistemas pasivos y activos que minimicen el consumo energético.

d) La utilización de vegetación en edificios y espacios públicos como un elemento de aislamiento y como factor regulador del confort climático a lo largo de las diversas estaciones del año.

e) La utilización de dispositivos de alumbrado público energéticamente eficientes.

f) La implantación, en áreas de reforma y rehabilitación urbana y en ámbitos de nuevo desarrollo, de sistemas centralizados para la generación y distribución a través de redes de calor urbanas, a las edificaciones de energía térmica a través de fuentes de energías renovables.

3.- Fomentar los sistemas de transporte de energías alternativas a los derivados del petróleo, como, por ejemplo, los que utilizan electricidad y gas natural.

4.- Favorecer el autoabastecimiento energético mediante sistemas de aprovechamiento solar, eólico, biomasa, etc. de las edificaciones e instalaciones, priorizando las soluciones de obtención de energía de fuentes renovables. Así mismo favorecer la utilización de sistemas de autoconsumo energético en las edificaciones aisladas localizadas en suelo no urbanizable.

5.- El Plan Territorial Sectorial de Energías Renovables observará los siguientes criterios:

a) Tener en cuenta el aumento de la participación de las renovables en la generación eléctrica, la necesidad de ampliar las infraestructuras de producción y suministro y de facilitar la implantación de las que resulten necesarias para lograr el máximo aprovechamiento del potencial energético en renovables de la CAPV, compatible con la preservación del patrimonio natural, paisajístico y cultural.

b) Baliabide berriztagarrien inbentarioa egitea.

c) Baliabide berriztagarriak aprobetxatzeko behar diren azpiegiturak ezartzeko lur-erreserba egokiak identifikatzea, behar adinako kopuruan eta ahalmen nahikoarekin.

d) Energia sortzeko eta garraiatzeko azpiegituren eta erabileren eta lurraldeko beste erabilera batzuen arteko bateragarritasuna ezartzea.

6.- Energia Eolikoaren LPS berrikustea eta egungo energia-eskakizunetara egokitzea, energia berriztagarriekin –eta zehazkiago energia eolikoarekin– bete beharreko helburu sektorialetatik abiatuta. Gainera, honako hauek ere bete beharko ditu:

a) Energia eolikoaren ezarpenari dagokionez paisaia-aldagaia arautzen duten zehaztapenak jasotzea.

b) LPSean bildutako instalazioak ezartzeko ikus- eta ingurune-baldintzak biltzea, baita LPSean bildu ez badira ere 10 MW-tik beherako instalazioei eskatzen zaizkienak ere.

c) Energia berriztagarrien LPSean sartzeko aukera aintzat hartzea.

7.- Preskripzio tekniko osagarriak aplikatzea Babes Bereziko Antolamendu Kategorian bildutako lurretan barrena doazen linea elektrikoetarako, eta zehazkiago:

a) Eremu menditsu edo malkartsuetan, oro har, paisaiak eduki ditzakeen edozein ikuspegitatik paisaiaren itxitura bisualak gainditzen dituzten aire-lineen euskarririk ez da jarriko.

b) Oro har, instalazioen ibilbideak erliebearen kota topografikoei jarraituko die, eta lurraren morfologiara egokituko da.

c) Ahal dela, lehendik dauden komunikabideekiko (errepideak, trenbidea eta abar) paraleloan joango da ibilbidea, haietatik gertu, lurraldean trazatu berririk ireki gabe.

d) Hurbileko beste linearik badago, lehendik daudenak bikoizteari emango zaio lehentasuna, linea berri bat eraiki beharrean.

e) Euskarriak diseinatzean paisaia-inpaktua minimizatzeari garrantzi handia emango zaio, lurrera egokituz eta lur-berdinketa eta -mugimenduen premia murriztuz.

f) Natura babesteko edozein figuratan bildutako eremuetan edo korridore ekologikoetan barrena doazen linea elektrikoek hegaztiak babesteko behar diren gailuak bildu beharko dituzte, segurtasunari buruzko indarreko araudiaz gain.

g) Elektrizitatea garraiatzeko linea berriak eraiki beharra justifikatzea, linea zaharrak ezabatzeko alternatibak aztertuz, eta lehendik dauden korridoreak (linea-trinkoketa)

b) Elaborar un inventario de recursos renovables.

c) Identificar las reservas del suelo que resulten precisos para la implantación de las infraestructuras necesarias para el aprovechamiento de los recursos renovables, en número y capacidad suficiente.

d) Establecer la compatibilidad de usos de las infraestructuras de generación y transporte energético con otros usos del territorio.

6.- El PTS de Energía Eólica se deberá adaptar a los actuales requerimientos energéticos a partir de los objetivos sectoriales a cumplir con las energías renovables y en concreto con la energía eólica. Así mismo deberá:

a) Recoger las determinaciones que regulen la variable de carácter paisajístico en relación a la implantación de la energía eólica.

b) Incluir las condiciones visuales y ambientales para la implantación de las instalaciones contempladas en el PTS así como las exigibles a las de menos de 10 MW no incluidas en el PTS.

c) Considerar su incorporación en el PTS de energía renovables.

7.- Aplicar prescripciones técnicas complementarias para las líneas de tendido eléctrico que discurran por terrenos incluidos en la Categoría de Ordenación de Especial Protección y, en concreto:

a) En zonas montañosas o de relieve accidentado, se evitará con carácter general la instalación de los soportes de las líneas aéreas que sobrepasen los cierres visuales del paisaje, desde cualquiera de sus posibles puntos visuales.

b) En general, el recorrido de las instalaciones seguirá las cotas topográficas del relieve y se adaptará a la geomorfología del terreno.

c) Preferentemente, seguirán un recorrido paralelo y a corta distancia de las vías de comunicación existentes, carreteras, ferrocarril, etc., evitando abrir nuevos trazados en el territorio.

d) Siempre que existan otras líneas cercanas, se priorizará el desdoblamiento de las existentes ante la construcción de una línea nueva.

e) El diseño de los soportes tendrá en cuenta la minimización del impacto paisajístico como un factor determinante, adaptándose al terreno y reduciendo la necesidad de explanaciones y movimientos de tierra.

f) Las líneas de tendido eléctrico que discurran por ámbitos incluidos en cualquiera de las figuras de protección de la naturaleza o por los corredores ecológicos tendrán que incorporar, además de la normativa vigente sobre seguridad, los dispositivos necesarios para la protección de las aves.

g) Justificar la necesidad de construir nuevas líneas de transporte de electricidad, analizando las alternativas de eliminación de líneas antiguas, y aprovechar corredores existentes

edo eratorritako ingurumen-inpaktuak ezabatzea edo mugatzea dakarten beste linea batzuk aprobetxatzea.

h) Aprobetxamendu hidroelektrikoetan instalazioen metatze-efektua aztertzea, ezaugarri ekologiko eta morfodinamikoen gainean eta ebaluatutako ibaietako ur-erabileren gainean efektu negatiborik sor dadin saihesteko.

17. artikulua.– Ekonomia zirkularraren arloko gidalerroak: hondakinen kudeaketa.

1.– Hondakinak instalazio egoki hurbilenetan tratatzea, eta horretarako, azpiegitura-sare nahikoa ezartzea eta azpiegituren, ekipamenduen eta zerbitzuen erabilera optimizatzea.

2.– Lurralde plangintzan hondakinen gaikako bilketarako eta birziklapenerako helburu batzuk zehaztea, helburu horiek kudeatzeko behar diren erreserbak zehaztuz, haien banaketak eremu funtzional osoari zerbitzu bikaina eta orekatua bermatzeko moduan.

3.– Industria-sektoreak, eraikuntza-sektoreak, eta, bereziki, eraispen-obren sektoreak sortutako hondakin-bolumenaren haritik etorritako problematika aintzat hartzea, lurralde plangintzan adieraziz erabilitako materialak identifikatzeko, gaika sailkatzeko, berreskuratzeko eta berrerabiltzeko behar diren hornidurak, egun dauden azpiegituren berrerabiltzea lehenetsiz.

4.– Eraikuntzako eta urbanizazioko udal-ordenantzen bitartez, material iraunkor eta birziklagarrien erabilera sustatzea, baita biologia-jatorriko materialen erabilera ere, baldin eta haien diseinuan, produkzioan eta ondorengo birziklatzean, ingurunearen gainean sortutako inpaktuak minimizatzen badira.

5.– Proiektu eta obren kontratazioan, ingurumen-alderdiak, diseinua eta material ekologikoen erabilera sustatzea eta balioestea, baita material horien beste zenbait alderdi ere, hala nola iraunkortasuna, inpaktua eta ingurumen-portaera, eta birziklatzeko eta berrerabiltzeko erraztasuna.

6.– Lurralde Historiko, mankomunitate eta toki-erakunde bakoitzaren hondakinak kudeatzeko politiken integrazioa EAEko Hondakinetarako Azpiegituren Lurralde Plan Sektorialaren bitartez bermatuko da.

18. artikulua.– Ekonomia zirkularraren arloko gidalerroak: lurzorua, baliabide gisa.

1.– Lurralde- eta hiri-plangintzako ereduen garapena bultzatzea, lehendik dauden azpiegiturak eta hiriguneak berritzeko, birziklatzeko, leheneratzeko eta berrerabiltzeko jardunei lehentasuna emanez, zabortegi zahar zigilatuak esate baterako, azpiegitura edo ingurumen-ekipamendu bezala kalifikatu beharko direnak.

2.– Lurzoruaren erabilerak planifikatzea «lurzoruaren kalitatearen» faktorea kontuan hartuz giza osasunarentzat eta ekosistemen funtzionamenduarentzat onartezinak diren arriskuen prebentzioa ziurtatzeko, eta kutsatzaileak beste ingurune-konpartimentu batzuetara barreia daitezen saihesteko eta baliabideen erabilera optimizatzeko.

(compactación de líneas), u otras líneas que supongan eliminar o limitar los impactos ambientales derivados.

h) Estudiar en los aprovechamientos hidroeléctricos el efecto acumulativo de las instalaciones con el fin de evitar que se produzcan efectos negativos sobre las características ecológicas y morfodinámicas, y sobre los usos del agua en los ríos evaluados.

Artículo 17.– Directrices en materia de economía circular: gestión de residuos.

1.– Tratar los residuos en las instalaciones adecuadas más próximas, lo que exigirá el establecimiento de una red suficiente de infraestructuras, optimizando el uso de las infraestructuras, equipamientos y servicios existentes.

2.– Definir en el planeamiento territorial unos objetivos para el reciclado y la recogida selectiva de los residuos, definiendo las reservas necesarias para la gestión de los mismos, de forma que su distribución garantice un servicio óptimo y equilibrado para la totalidad de su ámbito funcional.

3.– Considerar la problemática generada por el volumen de residuos producido por el sector industrial, por el de la construcción y en especial, por las obras de demolición, señalando en el planeamiento territorial las dotaciones necesarias destinadas a la identificación, recogida selectiva, recuperación y reutilización de los materiales utilizados, dando prioridad a la reutilización de infraestructuras existentes.

4.– Fomentar, a través de las ordenanzas municipales de edificación y urbanización, la utilización de materiales durables y reciclables, así como de los de origen biológico, en cuyo diseño, producción y posterior reciclado se minimicen los impactos generados sobre el medio.

5.– Promover y valorar en la contratación de proyectos y obras los aspectos medioambientales, el diseño y la utilización de materiales ecológicos, así como aspectos como su durabilidad, impacto y comportamiento medioambiental y facilidad de reciclado y reutilización.

6.– La coordinación e integración de las políticas de gestión de residuos de cada uno de los Territorios Históricos, mancomunidades y entidades locales se garantizará desde el Plan Territorial Sectorial de Infraestructuras de residuos de la CAPV.

Artículo 18.– Directrices en materia de economía circular: el suelo como recurso.

1.– Impulsar el desarrollo de modelos de planificación territorial y urbana en los que se prioricen las actuaciones de renovación, reciclado, recuperación y reutilización de los espacios urbanos y de las infraestructuras ya existentes, tales como antiguos vertederos sellados, que deberán ser calificados como infraestructuras o equipamientos ambientales.

2.– Planificar los usos del suelo teniendo en cuenta el factor «calidad del suelo» para asegurar la prevención de riesgos inaceptables para la salud humana y el funcionamiento de los ecosistemas, así como para evitar la dispersión de contaminantes a otros compartimentos ambientales y optimizar la utilización de los recursos.

3.– Kutsa dezaketen jarduerak bertan behera uztean aurreikusitako erabileraren arabera eta hirigintza garatzeko edozein jarduni ekin aurretik saneamendu-premiak zein diren jakiteko ikerketak egin daitezen sustatzea, bide batez giza osasunerako edo ekosistemetarako kalteak saihesteko.

4.– Lurzoru kutsatuen ikerketa eta leheneratzeak hiri-berroneratzeko prozesuetan biltzea.

19. artikulua.– Zeharkako gaien eta hiri-ereduaren arloko gidalerroak.

1.– Kontuan hartzea lurraldean eragina duten zeharkako gaiak: irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, klima-aldaketa, osasuna, euskara eta lurralde-interrelazioa.

2.– Zeharkako gaiak kontuan hartuta hiri-eredu trinkoa, erabileren nahasketari dagokionez konplexua sustatzea, gizarte arloan kohesionatutako eredua.

3.– Promover la realización de investigaciones que permitan conocer las necesidades de saneamiento en función al uso previsto en el momento en que cesan las actividades potencialmente contaminantes, y previamente a cualquier actuación de desarrollo urbanístico, para evitar, además, afecciones a la salud humana o a los ecosistemas.

4.– Incluir las investigaciones y recuperaciones de los suelos contaminados en los procesos de regeneración urbana.

Artículo 19.– Directrices en materia de cuestiones transversales y modelo de ciudad.

1.– Tener en cuenta las cuestiones transversales que inciden en el territorio: accesibilidad universal, perspectiva de género, cambio climático, salud, euskera e interrelación territorial.

2.– Promover en atención a las cuestiones transversales, un modelo de ciudad denso, complejo en cuanto a la mezcla de usos, y cohesionado socialmente.

III. KAPITULUA. GOMENDIO MAILAKO GIDALERROAK

20. artikulua.– Landa-habitataren arloko gidalerroak.

1.– Egungo laborantza-lurzorua zaintzea hirigintzazko eta azpiegiturazko eragin eta esku-hartzeen aurrean.

2.– Nekazaritza-ustiategien jarraitutasuna ziurtatzea landa-inguruneko garapen sozioekonomikoaren oinarrizko tresna gisa nekazaritza-jarduerak egikaritzen dituen ingurune- eta lurralde-funtzioekin bat datozen produkzio-ereduetatik abiatuta, nekazaritza-ustiategien errentagarritasuna indartuz faktore erabakigarri gisa biztanleria finkatzeko eta landa-enplegua sustatzeko.

3.– Landa-ingurunea ekipamendu eta komunikazio egokiekin hornitzea, oinarrizko zerbitzu publikoen prestazioa hobetzearekin batera, hala nola garraioa, energia, ura, telekomunikazioak eta herritarren segurtasuna, besteak beste.

4.– Teknologiaren erabilera eta banda zabalerako sarbidea sustatzea landaguneetan bizi diren pertsonen bizi- eta lan-kalitatea hobetzeko, eta landa-ingurunearen eta hiri-ingurunearen artean dagoen hesia gutxitzea.

5.– Lurralde antolamenduko tresnen bitartez, lurralde-plangintza baserrien mantentzearekin lotzen duten irizpideak ezartzea eta haien galera saihestea, nekazaritza-jardueraren egikaritzapenetik eta administrazio desberdinek horri dagokionez egin beharko duten kudeaketatik abiatuta.

6.– Landa Nukleoak zaintzea nukleo txikietan dauden eraikuntzen birgaitzea eta aprobetxamendu hobea bultzatuz, aldez aurreko kokaguneen izaera errespetatuz morfologiari, bolumetriari eta materialei dagokienez, lurzoruaren kalitatea eta inguruko paisaia atxikiz.

7.– Genero-ikuspegia sartzea laborantza-sektoreko esparru guztietan eta Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legean ezartzen diren neurriak gauzatzea, aitorpena lortzeko, baita haien eskubide profesional, sozial eta fiskalen onespena ere emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna lortzeko.

8.– Garraio publikoko edota eskatu ahalako garraio-zerbitzuen sarea hobetzea.

9.– Landa-inguruan bizi diren pertsonen aitorpen soziala ageriko egitea, janariak hornitzeko eta lurraldea zaintzeko egiten duten lanarengatik, emakumeei arreta berezia emanez.

10.–Euskadiko Landa Garapen Programaren proposamenak kontuan hartzea nekazari gazteak ingurunera sartzea bultzatzen duten tresnak sortzeko eta hobetzeko; ekimen publiko eta pribatuak martxan jartzea azpimarratuko dute, hala nola nekazaritza-herrixkak, nekazaritza-lurren bitartekaritza-zentroak, lur-bankuak edo helburu berak betetzen dituzten beste batzuk.

11.– Landa-gizarteari eustea, hark gordetzen baititu gure kultura-ondarea, ondare artistikoa, historikoa eta etnografikoa, eta gure erituak eta ohiturak; hau da, gure idiosinkrasiaren atal diren balioak eta bizimoduak.

CAPÍTULO III.– DIRECTRICES RECOMENDATORIAS

Artículo 20.– Directrices en materia de hábitat rural.

1.– Preservar el suelo agrario existente frente a las influencias e intervenciones urbanísticas e infraestructurales.

2.– Asegurar la continuidad de las explotaciones agrarias como instrumento básico del desarrollo socioeconómico en el medio rural a partir de modelos de producción acordes con las funciones ambientales y territoriales que desempeña la actividad agraria, potenciando la rentabilidad de las explotaciones agrarias como factor determinante para fijar población y promover el empleo rural.

3.– Dotar al medio rural de equipamientos y comunicaciones adecuadas, unido a la mejora de la prestación de servicios públicos básicos como transporte, energía, agua, telecomunicaciones, seguridad ciudadana, entre otros.

4.– Promover la utilización de la tecnología y el acceso a la banda ancha para mejorar la calidad de vida y de trabajo de las personas que residen en las zonas rurales, y disminuir la brecha existente entre medio rural y medio urbano.

5.– Establecer, desde los instrumentos de ordenación territorial, criterios que vinculen al planeamiento al mantenimiento de los caseríos y evitar su pérdida, a partir del ejercicio de la actividad agraria y su gestión desde las diferentes administraciones.

6.– Preservar los Núcleos Rurales favoreciendo la rehabilitación y el mejor aprovechamiento de la edificación existente en los pequeños núcleos, respetando el carácter de los asentamientos preexistentes en cuanto a morfología, volumetría y materiales se refiere, manteniendo la calidad del suelo y el paisaje de su entorno.

7.– Incorporar la perspectiva de género en todos los ámbitos del sector agrario y hacer efectivas las medidas que se establecen en la Ley 8/2015, de 15 de octubre, del Estatuto de las Mujeres Agricultoras, para lograr el reconocimiento y sus derechos profesionales, sociales y fiscales para conseguir la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

8.– Mejorar la red de transporte público y/o de servicios de transporte a demanda.

9.– Visibilizar el reconocimiento social de las personas que habitan el medio rural por su labor de proveedores de alimentos y de custodia del territorio, otorgando una especial atención a las mujeres.

10.–Tomar en consideración las propuestas del Programa de Desarrollo Rural de Euskadi para la creación y mejora de herramientas que favorezcan la incorporación al medio de jóvenes agricultores; incidiendo en la puesta en marcha de iniciativas públicas y privadas, tales como agroaldeas, centros de intermediación de tierras agrarias, bancos de tierra u otras que cumplan los mismos objetivos.

11.– Mantener la sociedad rural, en cuanto a conservadora de nuestro patrimonio cultural, artístico, histórico, etnográfico, ritos y costumbres, cuyos valores y modos de vida forman parte de nuestra idiosincrasia.

12.- Nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerei lotutako instalazio eta eraikinak eraikitzerako orduan eskatzen diren baldintzak malgutu eta homogeneizatzea, nekazaritza-ustiategi profesionalen garapena erraztuz.

21. artikulua.- Paisaiaren arloko gidalerroak.

1.- Lurraldearen gaineko jardunak haren morfologia mantentzera egokitzea, eta zehazki topografiara, landaredi eta zuhaitz klimazikoei eutsiz honako neurri hauek kontuan hartuz:

a) Elementu nagusien gainean edo mendi-gandor, labar-ertz eta lurreko puntu gorenetan ez eraikitzea.

b) Lurren malda naturala ez aldatzea, mendi-hegalei eta erliebearen irtenguneei eutsiz, hormak, zuhaitz-lerrokadurak eta bide tradizionalak desagertzea saihestuz adibidez.

c) Eraikinak, lurzatiak, bide-sarea eta azpiegiturak lurraren topografiara egokitzea, ahal dela mugarriak, lehendik dauden goragune topografikoak eta paisaia-elementu bereziak babestuz eta mantenduz, elementu berriak lehendik daudenak baino gehiago nabarmendu ez daitezen.

d) Landarediari eta baso naturalei eustea, tamaina handiko zuhaitzen presentzia bultzatuz lurraldearen kalitatearen adierazgarri, eta baso naturalen berezko espezieen hazkuntza bultzatuz.

e) Landaguneetako berezko laborantza-paisaiak kontserbatzea, hala nola landazabalak, mahastiak, baratzeetako laboreak eta zuhaiztiak, paisaiaren aniztasunari ekarpen handia egiten diotelako, testura-nahasketari eta erabilera-mosaikoaren haritik datorren geometria bereziari arreta berezia eskainiz, lurralde-ingurune horiek berezi egiten dituen heinean.

f) Lehendik dagoen landaredia desagertzen bada, konpentsazio-neurri jakin batzuk ezartzea, lurren testura eta baso-masa kontserbatzeko eta paisaia naturala eta landare-estaldura kontserbatu eta bertako espezieak, edo, hala badagokio, produkzio- eta biziraupen-baliabide tradizionalei lotuta betidanik ustiatu direnak, indartzeko.

g) Bertako landaredia berreskuratzea, zuhaitzik gabeko guneetan eta espezie exotikoen ustiapenetan batez ere.

h) Sail handi mono espezifikoak saihestea, baso autoktonoa berroneratzeko eremuekin konbinatuz, espezie autoktonoak eta errekak babesteko zerrendak behar bezala errespetatuz.

2.- Itsasertzeko paisaia eta hondartzetako eta portuko ingurunea babestea, honako neurri hauek kontuan hartuz:

a) Lurmutur eta muinoak babestea, gozamen eszenografikorako guneak eta kostaldeko paisaiaren erreferentziazko mugarriak diren heinean.

b) Hondartzen paisaia eta beste elementu berezi batzuk (labarrak adibidez) babestu eta hobetzea, erabilera eta jarduerak

12.- Flexibilizar y homogeneizar los requisitos exigidos a la hora de construir instalaciones y edificaciones vinculadas a la actividad agraria y ganadera, facilitando el desarrollo de explotaciones agrarias profesionales.

Artículo 21.- Directrices en materia de paisaje.

1.- Adecuar las actuaciones sobre el territorio al mantenimiento de su morfología y, en concreto, a la topografía, manteniendo la vegetación y el arbolado climácicos teniendo en cuenta las siguientes medidas:

a) Evitar la construcción sobre elementos dominantes o en crestas de montañas, bordes de acantilados y zonas culminantes del terreno.

b) Evitar la alteración de la pendiente natural de los terrenos conservando laderas y resaltes del relieve, evitando la desaparición de muros, de alineaciones de arbolado y de caminos tradicionales, por ejemplo.

c) Adecuar las edificaciones, el parcelario, la red de caminos y las infraestructuras a la topografía del terreno, procurando preservar los hitos, elevaciones topográficas existentes y elementos paisajísticos singulares, y manteniendo su visibilidad de manera que los nuevos elementos no compitan con los existentes.

d) Mantener la vegetación y los bosques naturales potenciando la presencia del arbolado de dimensiones que refleje la calidad del territorio, e impulsando el cultivo de especies características de los bosques naturales.

e) Conservar los paisajes agrarios característicos de los espacios rurales como las campiñas, los viñedos, los cultivos de huertas y los bosquetes por su contribución a la variedad del paisaje, prestando especial atención a la mezcla de texturas y a la singular geometría que proporciona el mosaico de usos que hace singulares esos entornos territoriales.

f) Establecer, en caso de desaparición de la vegetación existente, las medidas compensatorias que permitan conservar la textura y la masa forestal de los terrenos y conservar el paisaje natural, la cubierta vegetal y potenciar las especies autóctonas, o en su caso las que se vienen explotando históricamente, ligadas a medios de producción y subsistencia tradicionales.

g) Recuperar la vegetación autóctona incidiendo en los espacios sin arbolado y en las explotaciones de las especies exóticas.

h) Evitar las grandes extensiones de plantaciones monoespecíficas combinándolas con zonas de regeneración del bosque autóctono respetando de forma efectiva los ejemplares autóctonos y las franjas de protección de arroyos.

2.- Proteger el paisaje litoral y el entorno de las playas, así como el entorno portuario teniendo en cuenta las siguientes medidas:

a) Preservar los cabos y promontorios como espacios de disfrute escenográfico y como hitos de referencia del paisaje costero.

b) Proteger y mejorar el paisaje de las playas y otros elementos singulares como acantilados, ordenando los usos y

antolatuz eta ingurune honen berezkoak ez diren elementuak saihestuz, are gehiago inpaktu negatiboa badakarte.

c) Portuak hiri-bilbean integratzea, ertzak eta portu-hira trantsizioa ongi tratatuz, ertzik gabeko guneei arreta berezia eskainiz. Integrazio hori ikusmenera zabaltzea, baina baita beste zentzumenetarako inpaktu negatiboak murriztera ere.

3.- Ibai-paisaien lehengoratzea eta kontserbazioa sustatzea, eraikin itsusgarriak ezabatuz, ur-bazterreko landaredia babestuz, oinezko eta bizikletentzako bide-sarea indartuz eta komunikazioko (zubiak, ibai-portuak edo ontziralekuak), produkzioko (errotak, burdinolak, ur-bazterreko ontziolak), bizitegiko edo aisiako elementuak leheneratuz.

4.- Ondare historiko-kulturala sustatzea proposamen irekien bitartez, kontakizun erkideen bidez oroimenezko tokiak lotzeko lagungarri.

5.- Kultura-bideei balioa ematea eta ibilbideen, bideen eta begiratokien –kostaldeko ibilbideak ere barnean hartuta– sarea sortzea, herritarrek paisaiarako sarbidea izan dezaten, honako neurri hauek kontuan hartuz:

a) Ibilbideetan ondare-intereseko ondasunak eta tokiak biltzea, baita instalazio eta azpiegitura historikoak ere, ibilbide tematikoak ezartzeko aukera aintzat hartuz. Bista ugariko tokietan begiratokiak sustatzea.

b) Kostaldeko ibilbideak integratzea oinezko eta bizikleten erabilerarako egokituz eta seinaleak jarriz, itsasertzeko paisaia hautemateko oinarrizkoak diren heinean.

c) Ahal den neurrian, ibilbide eta begiratokietatik bistetarako oztopoak kentzea.

6.- Kokatze-sistema iraunkor eta tradizionalak babestea, sendotutako guneen hazkunde trinkoa erraztuz eta urbanizazio-dinamika desegokiak saihestuz, besteak beste honako neurri hauen bitartez:

a) Lur berriak okupatu beharrean lehentasuna emango zaio dagoeneko urbanizatuta dauden eremuak gainezka egiteari eta optimizatzeari, baita egungo egiturarekin jarraitzeko jarduera ekonomikoak ezartzeari ere.

b) Hiri-ertzetako edo hirien kanpoaldeko paisaia babestea eta hobetzea.

c) Hiri-baratzeak ongi integratu eta bateratzeko irizpideak ezartzea.

7.- Herriguneak inguruko ingurune fisikoan integratzea, ertzak, espazio libreak eta sarbideak zehaztuta landa-hiria trantsizioa behar bezala antolatzeko, honako neurri hauek kontuan hartuz:

a) Herrigune txikien garapena haien irudi tradizionala babestearekin eta, nekazaritza-ustiategirik ezean, inguruko paisaien kontserbazioarekin estuago lotzea.

actividades, y evitando elementos no propios de este entorno y de impacto negativo.

c) Integrar los puertos en la trama urbana, mediante un adecuado tratamiento de los bordes y de la transición puerto-ciudad, con una atención específica a los espacios libres de borde. Extender esta integración no sólo a lo visual, sino también a minimizar impactos negativos en los otros sentidos.

3.- Fomentar la restauración y conservación de los paisajes fluviales, eliminando construcciones degradantes, preservando la vegetación de ribera, potenciando una red de caminos peatonales y ciclistas y recuperando sus elementos de comunicación (puentes, puertos fluviales o embarcaderos), de producción (molinos, ferrerías, astilleros de ribera), de habitación o de ocio.

4.- Promover el patrimonio histórico cultural a través de propuestas abiertas que ayuden a conectar lugares de memoria a través de narrativas comunes.

5.- Poner en valor los caminos culturales y crear una red de itinerarios, rutas y miradores, para fomentar el acceso de la población al paisaje, incluidos los recorridos costeros teniendo en cuenta las siguientes medidas:

a) Incluir en los itinerarios los bienes y puntos de interés patrimonial, así como las instalaciones e infraestructuras históricas, pudiendo establecerse itinerarios temáticos. Promover miradores en lugares con amplio potencial de vistas.

b) Integrar los recorridos costeros a través de su acondicionamiento y señalización para el uso peatonal y ciclista, como elementos básicos para la percepción del paisaje litoral.

c) Evitar, en la medida de lo posible, la obstaculización de vistas desde estos itinerarios y miradores.

6.- Proteger los sistemas de asentamiento sostenibles y tradicionales, favoreciendo el crecimiento compacto de los núcleos consolidados y evitando dinámicas indeseables de urbanización a través, entre otras, de las siguientes medidas:

a) Priorizar la colmatación y optimización de las áreas ya urbanizadas frente a la ocupación de nuevos suelos, así como la implantación de actividades económicas en continuidad con la trama existente.

b) Proteger y mejorar el paisaje en los bordes o periferias urbanas.

c) Establecer criterios para la adecuada integración y armonización de los huertos urbanos.

7.- Integrar los núcleos de población en el medio físico que los rodea, definiendo los bordes, los espacios libres y los accesos para ordenar una adecuada transición campo-ciudad teniendo en cuenta las siguientes medidas:

a) Vincular de forma más estrecha el desarrollo de los pequeños núcleos de población con la preservación de su imagen tradicional y con la conservación de los paisajes del entorno en ausencia de explotaciones agrarias.

b) Bolumenari, tipologiari eta dentsitateei dagokienez gune bakoitzaren ezaugarri morfologikoetan integratuta dauden eraikuntza-baldintzak zehaztea, eta eraikuntzak ezartzeko moduak arautzea, kasuan kasuko eraikinen ezaugarrietara (isolatuak, lerrokatuak edo mehelinen artekoak) egokituz.

c) Kanpoko ertzen eta haien soslaiaren ezaugarriak zehaztea, guneen irudi tradizionala babesteko, lehendik dauden elementuak integratuz, eta bereziki, gunea landagune gisa mugatzeko baliagarri izateaz gain kontserbatzea merezi dutenak. Gainera, udalerriaz gaindiko komunikazio-azpiegiturekiko lotuneak ongi zehaztea. Nekazaritza-pabiloiak paisaian integratzeko arreta berezia jartzea, herriguneei eta herriguneak finkatzen diren lurralde-egiturari dagokienez.

d) Hiriguneetarako sarbide jakin batzuk diseinatzea, natura- edo landa-inguruneko gune irekietatik hiri-paisaietara bitarteko trantsizioa erraztu behar dutela kontuan hartuta, eta guneak lotzeko bide-sareak sendotu edo leheneratzea.

8.– Industrialde sendotuen irudia hobetzea eta hiri-berroneratzeko programak garatzeko eremuak zehaztea, honako neurri hauek kontuan hartuz:

a) Industrialde sendotuen irudiaren hobekuntza sustatzea, ibai-ibilguen integrazioa hobetzea, espazio publikoa eta lorategiak mantendu eta kontserbatzea eta eraikinaren irudia eta kontserbazio-egoera zaintzea barne, eta porrot egindako enpresen inguruan degradazio-arriskuak saihestea.

b) Jarduera ekonomikoen eremu berrietan paisaiaren integrazioa erraztea, topografiara egokituz eta eraikuntzaren diseinu-irizpideak aintzat hartuz, mimetizazio-teknikak erabiliz eta materialei, kromatismoei eta itxiturei arreta eskainiz.

9.– Hiri-paisaia berezi eta historikoen izaera mantentzea, haien nodo, mugarri, bidezidor edo ertzak osatzen dituzten erreferentzia materialak eta eraikitako ondare-elementu bereziak galdu gabe, besteak beste honako neurri hauen bitartez:

a) Estetikaren, eraikuntzaren, funtzionaltasunaren eta tipologiaren ikuspegitik gune, hiriko gune edo hiri-paisaia historikoaren ezaugarri morfologikoetan guztiz integratuta dauden eraikuntza-baldintza batzuk ezartzea.

b) Eremu publikoen –eta, oso bereziki, bideen– beharrezko erregulazioa zehaztea, hirigunearen paisaia-ikuspegiak zaintzeko, funtsezko faktorea delako espaloien neurriei, lorategiei eta bide-sekzio motei dagokienez, eta fatxadek osatzen duten eraikuntzarekiko loturari dagokionez.

c) Inguruneko balio handiko elementuak (hegal eta mendiak, itsas eremuak eta abar) hiri-eszenan biltzea, eta eraikitako guneetatik haiek ikusteko aukera ematea, historian zehar gure hiriak modelatzean elementu horiek izan duten garrantziaren erreferentzia ez galtzeko.

10.–Lurralde Plan Partzialetan beren Eremu Funtzionalari eta eragin-eremuari dagozkien paisaia-zehaztapenak bildu beharko lirateke,

b) Definir las condiciones edificatorias que, desde el punto de vista volumétrico, tipológico y de densidades resulten integradas en las características morfológicas de cada núcleo y regular los modos de implantación de las edificaciones, adecuándose al carácter aislado, alineado o entre medianeras característico de cada caso.

c) Definir las características de los bordes exteriores y de su silueta al objeto de preservar la imagen tradicional de los núcleos, integrando, además, los elementos ya existentes, especialmente los dignos de ser conservados y que justifican la delimitación como núcleo rural. Además, definir de manera adecuada los puntos de conexión a las infraestructuras de comunicación supramunicipales. Tener especial consideración la integración paisajística de los pabellones agrícolas en relación a los núcleos de población y a la estructura territorial en que se asientan.

d) Diseñar unos accesos a los núcleos urbanos que faciliten la transición entre los espacios abiertos del medio natural o rural y los paisajes urbanos, así como consolidar o recuperar las redes de caminos de conexión entre núcleos.

8.– Mejorar la imagen de los polígonos industriales consolidados y definir ámbitos para el desarrollo de programas de renovación urbana teniendo en cuenta las siguientes medidas:

a) Promover la mejora de la imagen de los polígonos industriales consolidados que contemple la mejora de integración de cauces fluviales, el mantenimiento y conservación del espacio público y del ajardinamiento y el cuidado de imagen y estado de conservación de la edificación, así como evitar los riesgos de degradación alrededor de empresas quebradas.

b) Favorecer, en los nuevos ámbitos de actividades económicas, la integración paisajística teniendo en cuenta la adecuación a la topografía y criterios de diseño de la edificación con estrategias de mimetización con atención a los materiales, cromatismos, cierres, etc.

9.– Mantener el carácter de los paisajes urbanos característicos e históricos, sin perder las referencias materiales que constituyen sus nodos, hitos, sendas o bordes, ni los elementos singulares de patrimonio construido a través de medidas como las siguientes:

a) Establecer unas condiciones edificatorias que desde el punto de vista estético, constructivo, funcional y tipológico resulten plenamente integradas en las características morfológicas de cada núcleo, zona de la ciudad, o paisaje histórico urbano.

b) Definir la regulación necesaria de los espacios públicos, y muy especialmente del viario, al objeto de cuidar las perspectivas paisajísticas del espacio urbano, considerándolo un factor fundamental en la dimensión de las aceras, el ajardinamiento y los tipos de sección de vial y su relación con la edificación que conforma sus fachadas.

c) Incluir los elementos valiosos del entorno (laderas y montañas, zonas marinas, etc.) en la escena urbana y posibilitar que estas puedan ser visualizadas desde los espacios construidos, con objeto de no perder la referencia de la influencia que dichos elementos han tenido en el modelado histórico de nuestras ciudades.

10.–Los Planes Territoriales Parciales debieran contener las determinaciones del paisaje correspondientes a su Área

paisaia kudeatu, babestu eta antolatzeko dagozkion tresnen (Paisaiaren katalogoak adibidez) ondorio direnak.

11.- Paisaian eragina izan dezaketen azpiegitura, obra eta jarduera guztien oinarrizko baldintzak betetzen direla bermatzea, ingurunea ebaluatzeko tresnen edo paisaia integratzeko azterlanen bitartez.

12.-Lurraldea antolatzeko eremuan EAEko Administrazio publikoek paisaiaren alorrean sustatutako prozesu orotan herritarren parte-hartzea bermatzea.

22. artikulua.- Kultura-ondarearen arloko gidalerroak.

1.- Lurralde Plan Partzialek euskal kultura-ondarea bere osotasunean bilduk beharko lukete, tipologien arabera egituratuta: kultura-ondare materiala (higiezina eta higigarria) eta kultura-ondare immateriala.

2.- Hirigintza-plangintzak honako irizpide hauek hartu beharko lituzke aintzat:

a) Ondasunaren eta haren lurralde-ingurunearen arteko erlazioa islatzea, nola kultura-ondarea babestean hala, ondasunaren inguruko gunean, erabilerak antolatu eta programatzean.

b) Ondasuna kargen eta onuren berdinbanaketa ahal izateko moduko hirigintza-esparru batean biltzea.

c) Ondasuna bere jatorrizko kokapenean mantentzea, ezinbesteko eta interes sozialeko arrazoiak tartean izan ezik.

d) Kultura-ondasuna bere osotasunean babestea.

3.- Lurralde-plangintzan eta udal-plangintzan toponimiaren tratamendu bateratua hartu beharko litzateke aintzat.

4.- Kultura Ondarearen Lurralde Plan Sektorialak, besteak beste honako zehaztapen hauek bildu beharko lituzke:

a) Eremu Funtzional bakoitzerako, banako monumentuak lehengoratzeko lehentasunezko ordena ezartzea, legez ezarritako ordenatik abiatuta.

b) Plangintzak, eta, oro har, Plan Bereziek, monumentu multzoei edo kultura-paisaiei dagokienez kontuan hartu beharreko irizpide eta orientazioak zehaztea.

c) Ondare Arkitektonikorako honako irizpide eta orientazio hauek zehaztea:

1) Maiatzaren 9ko Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legean kultura-ondasun arkitektonikoetarako ezartzen diren babes-mailak aintzat hartzea.

2) Monumentu Multzoak mugatzean aintzat hartutako kultura-ondarea sailkatzea, honako kategoria hauen arabera:

a.- Babes berezia duten elementuak: Kultura Ondasun Kalifikatuak edo, haien arkitektura-, arte-, historia-

Funcional y entorno de influencia que se deriven de los pertinentes instrumentos de gestión, protección y ordenación del paisaje, como los Catálogos del paisaje.

11.- Garantizar el cumplimiento de unos requisitos básicos de todas las infraestructuras, las obras y las actividades que se realicen y puedan tener una incidencia en el paisaje a través de los pertinentes instrumentos de evaluación ambiental o de los estudios de integración paisajística.

12.-Garantizar igualmente la participación ciudadana en todo proceso promovido por las Administraciones públicas de la CAPV en materia de paisaje en el ámbito de la ordenación del territorio.

Artículo 22.- Directrices en materia de patrimonio cultural.

1.- Los Planes Territoriales Parciales debieran incluir el patrimonio cultural vasco en su conjunto, estructurándolo en función de sus diferentes tipologías: patrimonio cultural material (inmueble y mueble) y patrimonio cultural inmaterial.

2.- El planeamiento urbanístico debiera tener en cuenta los siguientes criterios:

a) Reflejar la relación entre el bien y su entorno territorial, tanto en la protección del bien cultural como en la ordenación y pr ogramación de usos en el espacio que rodea a éste.

b) Incorporar el bien en un ámbito urbanístico que permita la equidistribución de cargas y beneficios.

c) Mantener el bien en su ubicación original salvo razones de fuerza mayor e interés social.

d) Proteger integralmente el bien cultural.

3.- Tanto el planeamiento territorial como el municipal debieran tener en consideración el tratamiento armonizado de la toponimia.

4.- El Plan Territorial Sectorial del Patrimonio Cultural debiera contener, entre otras, las siguientes determinaciones.

a) Establecer para cada Área Funcional un orden prioritario de restauración de monumentos individuales, partiendo del orden selectivo establecido legalmente.

b) Definir los criterios y orientaciones a tener en cuenta por el planeamiento, y de forma particular por los Planes Especiales con respecto a los conjuntos monumentales o paisajes culturales.

c) Definir los siguientes criterios y orientaciones para el Patrimonio Arquitectónico:

1) Considerar los niveles de protección que se establecen para los bienes culturales arquitectónicos en la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco.

2) Clasificar el patrimonio cultural incluido en la delimitación de los Conjuntos Monumentales de acuerdo con las siguientes categorías:

a.- Elementos de protección especial: Bienes Culturales Calificados o susceptibles de ser declarados como

edo kultura-balio bikainak direla-eta, halakotzat jo daitezkeenak.

b.– Babes ertaineko elementuak: Ondasun Inbentariatu deklaratutako higiezinak, edo, dauzkaten balioak direla medio, kategoria horretara asimila daitezkeenak.

c.– Oinarrizko babesa duten elementuak: garrantzizko baliorik eduki gabe, ondare-interesa dute tipologiaren edo ingurumenaren ikuspegitik.

d.– Elementu ordezkagarriak: balio txikia dutenez ordezka daitezke, baldin eta eraikin berria lehendik dagoen multzoarekin integratzen bada, hartara egokituta.

e.– Bat ez datozen elementuak: beren ingurunera egokitzen ez direnak.

f.– Hiriguneak: eraiki gabeko guneak, erabilera publikokoak izan edo ez, Hirigune Historiko baten hiri-egituraren zati direnak.

d) Arkeologia Ondarerako honako irizpide eta orientazio hauek zehaztea:

1) Kultura-ondasun arkeologikoei lehen aipatutako Legean ezarritako babes-mailak ematea.

2) Arkeologia Ondarearen babesa artikulatzea, arkeologia-eremu multzo hauetan oinarrituta:

a.– Historiaurreko santutegiak kobazuloetan: harkaitz-barrunbeak, barnealdean animalien eta askotariko zeinuen irudiak pintatuta eta grabatuta gordetzen dituztenak, historiaurre osoan barrena egin zirenak eta normalean «Labar-artea» esaten zaienak.

b.– Hiribilduak: Erdi Aroan «Hiribilduen» kategoria jaso zuten herriguneak.

c.– Beste aztarnategi eta elementu interesgarri batzuk: bizilekuak edo bizileku zatiak; leku edo elementu zibilak, defentsarakoak edo militarrak; erlijiosoak; hilobiak; merkataritza- edo industria-erabilerakoak; edo azpiegiturak.

3) Honako babes-maila hauek honako arkeologia kategoria hauei esleitzea: arkeologia-erreserba, babes zorrotza eta babesik gabea.

4) Babesa antolatzea honako aztarnategi mota hauen arabera:

a.– Historiaurreko santutegiak kobazuloetan: «Babes zorrotza» maila aplikatzea.

b.– Hiribilduak: Plan Bereziek, Azterlan Historiko-Arkeologikoetan oinarrituta, jardun-eremuak zehaztuko beharko lituzkete eta babes-maila ezarri beharko lukete.

c.– Erreserbako aztarnategiak: Kultura Ondarearen Lurralde Plan Sektorialak ezarri beharko luke historia ezagutzeko bereziki garrantzitsuak direlako eta urriak

tales por sus excepcionales valores arquitectónicos, artísticos, históricos o culturales.

b.– Elementos de protección media: inmuebles declarados Bienes Inventariados o con valores que les hacen susceptibles de ser asimilados a dicha categoría.

c.– Elementos de protección básica: sin poseer valores relevantes presentan un interés patrimonial desde el punto de vista tipológico o ambiental.

d.– Elementos sustituibles: por su falta de valor pueden ser sustituidos siempre que la nueva edificación se integre y armonice con el conjunto preexistente.

e.– Elementos discordantes: los que no se adecuan a su entorno.

f.– Espacios Urbanos: espacios no construidos, de uso público o no, que formen parte de la estructura urbana de un Casco Histórico.

d) Definir igualmente los siguientes criterios y orientaciones para el Patrimonio Arqueológico:

1) Otorgar a los bienes culturales arqueológicos los niveles de protección establecidos en la citada Ley.

2) Articular la protección del Patrimonio Arqueológico sobre la base de los siguientes grupos de zonas arqueológicas:

a.– Santuarios prehistóricos en cueva: cavidades rocosas que albergan en su interior representaciones pintadas y grabadas de figuras de animales y de signos diversos que se desarrollan a lo largo de la etapa prehistórica y que habitualmente reciben la denominación de «Arte rupestre».

b.– Villas: núcleos de población que en la Edad Media recibieron la categoría de «Villas».

c.– Otros yacimientos y elementos de interés: lugares o elementos de habitación o de carácter civil, defensivo o militar, religioso, funerario, de uso comercial, industrial, o infraestructuras.

3) Asignar los siguientes niveles de protección a las siguientes categorías arqueológicas: reserva arqueológica, preservación estricta y libre de protección.

4) Ordenar la protección según los siguientes tipos de yacimiento:

3.- Azpiegitura berdea eta naturan oinarritutako soluzioak sustatzea klima-aldaketara egokitzeko neurri gisa, eta ekosistemak leheneratzea, lurraldearen erresilientziari eusteko.

4.- Baso-kudeaketa hobetzea deforestazioek eragin ditzaketen lurzoruaren galerak ekidinez, lurzorua baita karbonoaren sarbegi nagusia, eta degradatutako eremuak basoberritzea, baso naturalak karbono-hustubide izateko duen azalera handituz.

5.- Lurzoruaren okupazioa mugatzea, erabilera-nahasketa ahalbidetuz eta gune urrakorrak berroneratzeko bidea erraztuz, eta berotegi-efektuko gasen emisio txikienak dituzten intermodalitatea eta garraiobideak indartzea.

6.- Bereziki hiri-guneetan energia-eraginkortasuneko irizpideak indartzea eraikuntzan eta garraioan, bai eta energia berriztagarriak ere.

7.- Lurralde- eta hirigintza-plangintza klimaren ikuspegia txertatzea, honela:

a) Itsasertzaren babes eta antolamendurako Lurralde Plan Sektoriala moldatuko da, itsas mailaren gorakadaren eta muturreko olatuen kontrako eraginetara egokitzeko neurriak identifikatuta kosta-eremuetan.

b) Ibai eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak eta Plan Hidrologikoek tratamendu egokia emango diete uholde-arriskua daukaten zonei, arreta berezia emango diete uholde-arriskua beste arrisku batzuei (kostaldean egotearekin lotutako baldintzak barne) gainjartzen zaien zonei.

c) Espazio publikoak iragazkor bihurtzea eta birlandatzea; horretarako, azpiegitura berdeak eta urdinak nahiz naturan oinarritutako konponbideak bultzatuko dira uholdeak eta estres termikoa -bereziki bero-irlaren efektua- jasan ditzaketen eremuetan.

8.- Lurralde Plan Partzialek klima-ikuspegia kontuan izango dute, eta inpaktuen eta horiei loturiko zaurgarritasunaren oinarrizko azterketak egin eta aplikatzeko neurriak zehaztuko dituzte. Gainera, hala dagokienean, xehetasun handiagoz aztertuko dituzte.

32. artikulua.- Osasunaren arloko gidalerroak.

1.- Hiri-garapen trinkoak sustatzea, lurzoruaren erabilera mistoaz, ongi lotutako kale irisgarriez eta bizitegi- eta merkataritza-dentsitate egokiaz, garapen berriak lehendik dauden garapenetan integratuz.

2.- Gune eroso, seguru eta jende guztiarentzat irisgarriak sortzea, herritarren ongizatearen eta kohesio sozialaren mesedetan.

3.- Ekipamendu-sareetarako berdintasunezko irisgarritasuna bultzatzea, sare horiek orekaz banatuz.

propuestas a reducir el balance neto de emisiones de gases de efecto invernadero y a mejorar la resiliencia.

2.- Incluir la adaptación al cambio climático a través de una cartografía temática de impactos y vulnerabilidad.

3.- Promover la infraestructura verde y las soluciones basadas en la naturaleza como medida de adaptación al cambio climático, así como restaurar los ecosistemas para mantener la resiliencia del territorio.

4.- Mejorar la gestión forestal, evitando las pérdidas de suelo que puedan producir las deforestaciones debido a que el suelo constituye el principal sumidero de carbono. Así mismo reforestar las zonas degradadas y aumentar la superficie de bosque natural para su servicio como sumidero de carbono.

5.- Limitar la ocupación del suelo, favoreciendo la mezcla de usos y la regeneración de los espacios vulnerables, así como potenciar la intermodalidad y los modos de transporte con menores emisiones de gases de efecto invernadero.

6.- Potenciar, especialmente en las áreas urbanas, criterios de eficiencia energética en la edificación y en el transporte, así como las energías renovables.

7.- Incorporar en el planeamiento territorial y urbanístico la perspectiva climática en el siguiente sentido:

a) El Plan Territorial Sectorial de Protección y Ordenación del Litoral se adecuará identificando en las zonas costeras las medidas de adaptación a los efectos adversos de la elevación del nivel del mar y al oleaje extremo.

b) El Plan Territorial Sectorial de Ordenación de los Ríos y Arroyos y los Planes Hidrológicos otorgarán el tratamiento adecuado a las zonas sometidas a riesgos de inundación, prestando especial atención a las áreas donde los condicionantes de inundación se superpongan a otros riesgos, incluidos los vinculados a la condición litoral.

c) Permeabilización y vegetación de los espacios públicos, fomentando las infraestructuras verdes y azules y las soluciones basadas en la naturaleza en ámbitos susceptibles de sufrir inundaciones y estrés térmico, y en particular el efecto isla de calor.

8.- Los planes territoriales parciales incorporarán la perspectiva climática realizando un análisis básico de los impactos y de la vulnerabilidad asociada, definiendo las medidas de aplicación y, en su caso, los estudios de mayor detalle que fueran precisos.

Artículo 32.- Directrices en materia de salud.

1.- Promover los desarrollos urbanos compactos con uso mixto del suelo, con calles accesibles bien conectadas y con una densidad adecuada residencial y comercial, integrando los nuevos desarrollos en los ya existentes.

2.- Crear espacios confortables, seguros y universalmente accesibles que favorezcan el bienestar y la cohesión social de la ciudadanía.

3.- Procurar la accesibilidad equitativa a las redes de equipamientos mediante una distribución equilibrada de las mismas.

4.– Oinezkoen korridoreen bidez, bizikleta-sarearen bidez edo garraio publikoaren bidez elkarri lotutako eta hiri-inguruneareKin lotutako berdegune eta/edo eremu naturalen erabilera sustatzea.

5.– Mugikortasun aktiboa sustatzea, eta horretarako:

a) Hiri-garapen dentso eta trinkoak egikaritzea, lurzorua eta ongi konektatutako kale irisgarriak modu mistoan erabiliz.

b) Oinez ibiltzeko moduko inguruneak diseinatzea, jarduera fisikoa egitea eragozten duten oztopoak kenduz.

c) Mugikortasun aktiboko modu diferenteak (oinez, bizikletaz edo motorrik gabeko beste moduren bat) bultzatzea.

6.– Agente kutsatzaileen kontzentrazioa murriztea, hiriko zein hiriarteko garraio publikoaren erabilera sustatuz.

7.– Kalitatezko etxebizitza osasungarriak bermatzea, jende guztiarentzat irisgarriak eta energia-alorrean efizienteak, hirigintza-diseinuan irizpide bioklimatikoak sartuz. Halaber, biztanle talde guztientzako (egoera soziala, kulturala, ekonomikoa, adina, funtzionalitatea...) etxebizitza eskuragarrien nahasketa eta integrazio tipologikoa sustatzea.

8.– Nekazaritza-erabilerako lurrak babestu eta leheneratzea, eta hurbiltasuneko elikadura osasungarria sustatzea.

9.– Oroimen kolektiboan garrantzi naturala, historikoa edo kulturala duten edo nortasuna duten lekuak zaintzea eta/edo hobetzea.

33. artikulua.– Euskararen arloko gidalerroak.

1.– EAEren errealitate soziolinguistikoa lurralde- eta hirigintza-antolamendurako tresnetan gehitzea, hizkuntza-ikuspegiari zeregin integratzailea emanda.

2.– Harremanetarako guneak ahalbidetzea, sare presentzialak indartzea eta esklusibotasuneko eta lurralde-konpartimentazioko guneak saihestea.

3.– Lurralde-plangintzan hizkuntza-paisaiaren kontzeptua sartzea.

4.– Euskarazko toponimo edo terminoen erabilera sustatzea, haien aldaera normalizatuan, auzo, industrialde, osasun-zentro, kultura-etxe eta ikastetxe berriak izendatzeko, besteak beste.

34. artikulua.– Lurralde-interrelazioaren arloko gidalerroak.

1.– Lurralde-antolamenduaren alorrean, koordinaziorako edo lurralde-erlazioetarako irizpideak aplikatzeko baterako plan edo estrategiak egitea. Horren haritik, eta zehazki, eraginpean dauden administrazio eskudunen artean honako hau gomendatzen da:

a) Baiona-Donostia korridorean lurralde arloko dokumentu bat idaztea, baterako diagnostiko batean oinarrituta. Dokumentu horrek gai zehatzak aztertuko ditu, lurralde horren eraikuntzarako oinarriak bilatuz.

4.– Propiciar el uso de espacios verdes y/o áreas naturales conectados entre sí y con el medio urbano por corredores peatonales, red ciclista o transporte público.

5.– Promover la movilidad activa mediante:

a) La ejecución de desarrollos urbanos densos y compactos con uso mixto del suelo y calles accesibles bien conectadas.

b) El diseño de entornos caminables, eliminando barreras que dificulten la realización de actividad física.

c) El impulso a las distintas formas de movilidad activa (a pie, en bicicleta u otro modo no motorizado).

6.– Disminuir la concentración de los agentes contaminantes fomentando el uso del transporte público, tanto urbano como interurbano.

7.– Garantizar viviendas de calidad, salubres, universalmente accesibles y energéticamente eficientes introduciendo criterios bioclimáticos en el diseño urbanístico. Asimismo, fomentar la mezcla e integración tipológica de viviendas asequibles para los diversos grupos de población (situación social, cultural, económica, de edad, funcionalidad).

8.– Preservar y recuperar terrenos de uso agrícola, y fomentar la alimentación saludable y de proximidad.

9.– Conservar y/o mejorar los lugares con importancia natural, histórica, cultural o con carácter en la memoria colectiva.

Artículo 33.– Directrices en materia de euskera.

1.– Incorporar la realidad sociolingüística de la CAPV en los instrumentos de ordenación territorial y urbanística, otorgando a la perspectiva lingüística un papel integrador.

2.– Propiciar espacios de relación y fortalecimiento de redes presenciales y evitar espacios de exclusividad y compartimentación territorial.

3.– Incorporar el concepto de paisaje lingüístico en la planificación territorial.

4.– Promover la utilización de topónimos o términos en euskera, en su variante normalizada, en las nuevas denominaciones de barrios, zonas industriales, centros de salud, de cultura o educativos, entre otros.

Artículo 34.– Directrices en materia de interrelación territorial.

1.– Elaborar planes o estrategias conjuntas de aplicación de los criterios de coordinación o de interrelación territorial en materia de ordenación del territorio. En este sentido, y de manera concreta se recomienda de modo conjunto entre las Administraciones competentes afectadas:

a) Redactar en el corredor Bayona-San Sebastián un documento territorial, en base a un diagnóstico conjunto que analice cuestiones específicas en un contexto de búsqueda de las bases en las que cimentar la construcción de este territorio.

b) Santander-Bilbao korridorean lurralde arloko dokumentu bat idaztea, baterako diagnostiko batean oinarrituta. Dokumentu horrek baterako lurralde arloko gaiak aztertuko ditu, eta trenbide-integrazioa kontuan hartuko du.

c) Nafarroarekiko interrelazioan naturaguneen babesari eta bide eta trenbide azpiegituren integrazioari baterako erantzun batean ados jartzea.

d) Errioxako Autonomia Erkidegoarekiko interrelazioan, erantzun integratua ematea, Errioxa Paisaia Kultural izendatu izana dela-eta, eta Ebro ibaiaren ingurunea babesteko baldintzak direla-eta.

e) Gaztela eta Leonekiko interrelazioan baterako erantzuna ematea naturaguneen babesari nahiz Miranda de Ebroren inguruneko integrazio logistikoari eta azpiegituren integrazioari.

2.- Lurralde Plan Partzialetan eta Lurralde Plan Sektorialetan lurralde-interrelazioaren ikuspegia txertatzea.

3.- Enkarterriko eta Araba Erdialdeko LPPetan berariaz kontuan hartzea Villaverde Turtzioz (Kantabria) eta Trebiñu (Gaztela eta Leon) enklabeak, enklabeok hainbat lurralde-alderditan duten eragina aztertzeko.

35. artikulua.- Parte-hartzearen arloko gidalerroak.

1.- Lurralde-antolamenduko tresna guztiak hartzean eta haien jarraipena egitean gizartearen zein erakundeen parte-hartzerako prozesuak txertatzea eta horretarako beharrezkoak diren bitarteko presentzialak zein digitalak prestatzea.

2.- Parte hartzeko prozesuaren gardentasuna bermatzea eta jasotako ekarpenei eta haiek aintzat hartzeari buruzko informazioa ematea.

36. artikulua.- LPP eta LPSen jarraipen-memoriaren arloko eta iraunkortasun-adierazleen arloko gidalerroak.

1.- LPPetarako eta LPSetarako ebaluazio-sistema indibidualizatuak ezartzea. Dokumentu bakoitzak epe batzuk ezarriko ditu memoria bat egiteko. Memoria horrek planen zehaztapenak noraino bete diren baloratuko du, beste dokumentu batzuetan eta hirigintza-plangintzan izandako eragina ere baloratuko du, eta bidezkoa bada, hartu beharreko neurriak definituko ditu.

2.- Gidalerro honetan adierazitako jarraipen- eta ebaluazio-beharren araberako informazio-sistema bat eratzea, lurraldeko sistema nagusien deskribapena, jarraipena eta ebaluazioa egiteko beharrezkoak diren adierazleak osatu ahal izateko.

3.- Lurralde- eta hirigintza-plangintzaren azterketa konparatua egiteko aukera ematea beste lurralde batzuekin alderatuta, lurralde- eta hirigintza-iraunkortasuneko adierazle hauek erabiliz:

a) Lurralde-eredua. Lurzoruaren kalifikazioa.

b) Biztanleria-dentsitatea.

c) Hiri-eredua.

b) Redactar en el corredor Santander-Bilbao un documento territorial en base a un diagnóstico conjunto que analice las cuestiones territoriales conjuntas incorporando la integración ferroviaria.

c) Acordar en la interrelación con Navarra una respuesta conjunta a la protección de los espacios naturales y a la integración infraestructural viaria y ferroviaria.

d) Otorgar en la interrelación con la Comunidad de La Rioja una respuesta integrada a la declaración de la Rioja como Paisaje Cultural y a las condiciones de protección del entorno del río Ebro.

e) Otorgar en la interrelación con Castilla y León una respuesta conjunta a la protección de los espacios naturales, así como a la integración logística y de infraestructuras en el entorno de Miranda de Ebro.

2.- Incluir la perspectiva de la interrelación territorial en los Planes Territoriales Parciales y en los Planes Territoriales Sectoriales.

3.- Considerar de forma específica en los PTP de Encartaciones y de Álava Central la presencia de los enclaves de Villaverde de Trucios (Cantabria) y Treviño (Castilla y León), en aras a analizar los efectos que su presencia induce en los diferentes aspectos territoriales.

Artículo 35.- Directrices en materia de participación.

1.- Establecer procesos de participación tanto social como institucional en la adopción y seguimiento de todos los instrumentos de ordenación territorial y habilitar los medios necesarios tanto presenciales como digitales al efecto.

2.- Garantizar la transparencia del proceso de participación e informar sobre las aportaciones recibidas y su consideración.

Artículo 36.- Directrices en materia de memorias de seguimiento de PTP y PTS, e indicadores de sostenibilidad.

1.- Establecer sistemas de evaluación individualizados para los PTP y los PTS. Cada documento establecerá los plazos para elaborar una memoria que valore el grado de cumplimiento de sus determinaciones, y la incidencia en otros documentos y en el planeamiento urbanístico, definiendo, en su caso, las medidas a adoptar.

2.- Constituir un sistema de información acorde con las necesidades de seguimiento y evaluación de estas Directrices que construya los indicadores necesarios para describir, hacer seguimiento y evaluación de los principales sistemas del territorio.

3.- Permitir realizar un análisis comparativo de la planificación territorial y urbanística en relación a otros territorios de acuerdo con los siguientes indicadores de sostenibilidad territorial y urbanística:

a) Modelo territorial. Calificación del suelo.

b) Densidad de Población.

c) Modelo Urbano.

d) Bizitegi-garapena. Plangintzako etxebizitza-aurreikuspena.

e) Etxebizitza-dentsitatea.

f) Lurzoruaren artifizializazioaren/kalifikazioaren bilakaera.

4.- Lau urtez behin, Eusko Jaurlaritzak memoria bat egitea, lurralde- eta hirigintza-iraunkortasuneko adierazleak zertan diren aztertzeko.

5.- Lurralde-plan partzial eta lurralde-plan sektorial guztiek, oinarrizko dokumentazioaz gain, zerikusia duten udalerrietako bakoitzarentzako ondorioen dokumentu osagarri bat izan beharko dute.

37. artikulua.- Lurralde plangintza partzial eta sektorialaren arteko koordinazioaren arloko gidalerroak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea lurraldearen antolamendu eta hirigintza kontuetako aholkurako eta koordinazio horizontalerako organo nagusia da administrazio guztientzat (horietan presentzia daukanean), administrazio autonomoko sailentzat eta autonomia-erkidegoko gainerako administrazio publikoentzat barne (administrazio zentrala, foru-aldundiak eta udalak), eta berari dagokio lurralde-plangintza interpretatu eta eztabaidak argitzearen eginkizuna.

Testuinguru horretan, lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako sail edo arloak izango dira, beren aldetik eta administrazio horietan, lurralde- eta hirigintza plangintzako ingurumen-ebaluazio estrategikoaren funtzio integratzailearen arloko osagarriak koordinatzearen eginkizuna izango dutenak.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Legearen (maiatzaren 31ko 4/1990 Legea) 17.5 artikuluak xedatutakoarekin bat etorrita, lurralde-plan sektorialek lurralde-antolamenduaren gidalerroekin izan ditzaketen kontraesanak, eta, dagokion kasuan, lurralde-plan partzialekin izan ditzaketenak, lurralde-plan sektorialaren parte hori edo parte batzuk deuseztatzea ekarriko du.

Horri kalterik egin gabe, honako gidalerroak proposatzen dira:

a) Lurralde-plan partzialen eta lurralde-plan sektorialen arteko desadostasunak.

Aurkako legezko maila duen araua salbu, kontraesan horiek irizpide hauei jarraikiz argitu beharko dira:

1) Lurralde plan partzialari dagokionez:

a.- Lurralde-plan partzialaren irizpidea lurralde-plan sektorialaren gainetik jartzea eremu funtzionaleko lurraldearen izaera propioa duten gaiez ari denean.

b.- Zalantzarik izanez gero, lurralde-plan partzialaren alde egingo da.

2) Lurralde plan sektorialari dagokionez:

a.- Lurralde-plan sektorialaren irizpidea lehenestea EAE osoan edo Eremu Funtzionaletik haragoko

d) Desarrollo Residencial. Previsión de Vivienda en el Planeamiento.

e) Densidad de Vivienda.

f) Evolución de la Artificialización/Calificación del Suelo.

4.- Elaborar por parte del Gobierno Vasco y cada cuatro años, una Memoria que analice la evolución de los indicadores de Sostenibilidad Territorial y Urbanística.

5.- Todos los Planes Territoriales Parciales y los Planes Territoriales Sectoriales contendrán, además de su documentación básica, un documento complementario de afecciones para cada uno de los municipios afectados.

Artículo 37.- Directrices en materia de coordinación del planeamiento territorial parcial y sectorial.

1.- La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco es el órgano superior consultivo y de coordinación horizontal de todas las Administraciones con presencia en ella, incluidos los distintos Departamentos de la Administración autónoma y las demás Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma (Administración Central, Diputaciones Forales y Ayuntamientos) en materia de ordenación del territorio y urbanismo, y le corresponde la tarea de interpretar el planeamiento territorial y de resolver las controversias.

En ese contexto, los Departamentos o Áreas del Gobierno Vasco y de las Diputaciones Forales con competencias en materia de ordenación del territorio y urbanismo se encargarán de coordinar con los competentes, a su vez y en esas mismas Administraciones, en materia ambiental la función integradora de la evaluación ambiental estratégica en el planeamiento territorial y urbanístico.

2.- Conforme dispone el artículo 17.5 de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco, las contradicciones de los Planes Territoriales Sectoriales con las Directrices de Ordenación Territorial y, en su caso, con los Planes Territoriales Parciales, serán causa de nulidad de la parte o partes del Plan Territorial Sectorial que las contengan.

Sin perjuicio de ello, se proponen las directrices siguientes:

a) Discrepancias entre Planes territoriales parciales y Planes territoriales sectoriales.

Salvo norma con rango legal en contrario, estas discrepancias se debieran resolver conforme a los siguientes criterios:

1) En relación al Planeamiento territorial parcial:

a.- Hacer prevalecer el criterio del Plan territorial parcial sobre el Plan territorial sectorial cuando se trate de materias que tienen un carácter inherente al territorio del Área Funcional.

b.- En caso de duda, se interpretará a favor del Plan territorial parcial.

2) En relación al Planeamiento territorial sectorial:

a.- Considerar el criterio del Plan territorial sectorial cuando se trate de materias que son de aplicación

mailan aplikagarri diren gaietan (uholde-arriskua, nekazaritza-bitartekoaren babesa, kostaldearen babesa, ibai eta errekekiko atzerapenak, Trenbide Sare Berriaren azpiegiturari dagozkion antolamendu-baldintzak).

b.- Lurralde-plan partzialak murrizketa handiagoak justifikatuko ditu lurralde-plan sektorial bakoitzak, bere eskumenen esparruan, araututako gaietan.

b) Lurralde-plan sektorialen arteko desadostasunak.

1) Lurralde-plan sektorialek lurraldean elkartutako beste plan sektorialekiko koordinazioari dagokion apartatu bat izan beharko dute beren memorian, non gatazka posibleak saihestu eta/edo deuseztatzeko neurri egokian jasoko diren.

Neurri horiek izan ezean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak zehaztuko ditu irizpideak, kasu bakoitzean eta modu justifikatuan, egoki irizten direnak indarreko edo etorkizuneko lurralde-plan sektorialen artean sor daitezkeen gatazkak saihestu edo konpontzeko.

2) Desadostasunak lurralde-antolamenduaren gidalerroetan jasotako irizpideekin bat etorrita konponduko dira, eta, irizpiderik ezean, lurraldearen babes handiagoa edo lurralde-jasangarritasuna hobeto betetzea dakartenekin.

3.- LPPetan formatu erkide bat ezartzea, homogeneotasunez lan ditzaten aurre egin beharreko alderdiak eta elementu grafiko berdinak erabil ditzaten. Formatu erkide horretan eremu funtzionalaz gaindiko dimentsioa biltzea, eta beste eremu funtzional batzuekiko -eta bereziki mugakideekiko- elkarreragina aztertzea.

38. artikulua.- Hirigintza-planak tramitatzean administrazioa integratzearen arloko gidalerroak.

1.- Hirigintza-plangintzaren tramitazio-prozesuetan esku hartuko duten administrazioek ezingo dute Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legean (ekainaren 30eko 2/2006 Legea) ezartzen ez den beste izapiderik onartu, onarpenerako prozedurak atzeratzea ekidite aldera.

2.- Ingurumen arloko ebaluazio-prozeduraren izapideak eta planaren funtsezko prozeduraren izapideak beteko dira aldi berean, izapidetzearen epeak hobetze aldera.

3.- Administrazioen arteko lana eta koordinazioa errazteko xedez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak honakoak egingo ditu:

a) Plan orokorraren moldatzea aztertzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 91.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorrita.

b) Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta administrazio

al conjunto de la CAPV o de ámbito superior al Área Funcional (inundabilidad, protección del medio agrario, protección del litoral, retiros con respecto a ríos y arroyos, condiciones de ordenación con respecto a la infraestructura de la Nueva Red Ferroviaria, entre otros).

b.- El Plan territorial parcial debiera justificar mayores restricciones en aquellas materias que ya han sido reguladas por cada uno de los Planes territoriales sectoriales en el ámbito de su competencia.

b) Discrepancias entre Planes Territoriales Sectoriales.

1) Los Planes territoriales sectoriales dispondrán en su Memoria de un apartado relativo a la coordinación con los otros Planes sectoriales territorialmente concurrentes, en la que se contendrán las medidas adecuadas para evitar y/o eliminar posibles conflictos.

En ausencia de estas medidas, la COTPV determinará los criterios que, en cada caso y de manera justificada, se estimen adecuados para evitar o solucionar conflictos que pudieran surgir entre Planes Territoriales Sectoriales vigentes o futuros.

2) Las discrepancias se resolverán de conformidad con los criterios contenidos en las Directrices de Ordenación Territorial y, en su defecto, con los que impliquen una mayor protección territorial o un mejor cumplimiento de la sostenibilidad territorial.

3.- Establecer un formato común de los planes territoriales parciales que proporcione una homogeneidad de aspectos a tratar y de elementos gráficos comunes. Incluir en este formato común la dimensión supra-área funcional y analizar la interrelación con otras áreas funcionales y en particular con las limítrofes.

Artículo 38.- Directrices en materia de integración interadministrativa en la tramitación de la revisión de los Planes urbanísticos.

1.- Las administraciones que intervengan en los procesos de tramitación del planeamiento urbanístico no podrán exigir más trámites que los establecidos en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, con objeto de evitar la dilación de los procedimientos de aprobación.

2.- Se cumplirán simultáneamente los trámites del procedimiento de evaluación ambiental con los trámites del procedimiento sustantivo del plan, con objeto de mejorar los plazos de su tramitación.

3.- Al objeto de facilitar la labor de coordinación entre Administraciones el informe vinculante de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco:

a) Analizará la acomodación del plan general conforme a lo previsto en el artículo 91.2 de la Ley 2/2006, de 30 de junio.

b) Integrará, en un único documento, los informes

zentraleko sailek aurkeztutako txosten sektorialak dokumentu bakarrean biltzea, ingurumen-ebaluazio estrategikoari lotutako ingurumen-organoen txostenak barne, igortzen diren kasuetan, koherentzia global bat bermatuz.

4.– Ingurumen-organoak ebaluatuko du, legedi aplikagarriaren markoaren barnean, plan orokorrean proposatutako ingurumeneko aspektuen integratzea, berariaz azpimarratuz bere eskuduntzako gaiak eta ingurumenaren ikuspuntutik garrantzia justifikatua dutenak.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak txosten tekniko bat sortzea sustatuko du, non administrazioarteko bateratze maila aztertuko den lurralde-plangintzak hirigintza-plangintzarekin duen koordinazioko gidalerroen aplikazioan.

sectoriales presentados por los Departamentos del Gobierno Vasco, Diputaciones Forales y Administración Central, incluidos los informes del órgano ambiental relacionado con la evaluación ambiental estratégica en los supuestos en los que se emitan, garantizando su coherencia global.

4.– El Órgano ambiental evaluará, en el marco de la legalidad aplicable, la integración de los aspectos ambientales en la propuesta de plan general, incidiendo, exclusivamente, en cuestiones de su competencia y de justificada relevancia ambiental.

5.– La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco promoverá la creación de una ponencia técnica en la que se analice el grado de integración interadministrativa en la aplicación de las directrices de coordinación del planeamiento territorial con el planeamiento urbanístico.

APLIKATZEKO ARAUEN I. ERANSKINA: ANTOLAMENDUKO ETA ESPAZIOAREN ERABILERAKO GIDALERROEN HIRIGINTZA-PLANGINTZARAKO ERAGINKORTASUN LOTESLE ZUZEN EDO ZEHARKAKOEN IDENTIFIKAZIOA, LURRALDE-ANTOLAMENDUAREN GIDALERROEN APLIKATZEKO ARAUAK II. KAPITULUAN JASOTZEN DIRENAK

ANEXO I A LAS NORMAS DE APLICACIÓN: IDENTIFICACIÓN DE LA EFICACIA VINCULANTE DIRECTA O INDIRECTA PARA EL PLANEAMIENTO URBANÍSTICO DE LAS DIRECTRICES DE ORDENACIÓN Y USO DEL ESPACIO CONTENIDAS EN EL CAPÍTULO II DE LAS NORMAS DE APLICACIÓN DE LAS DIRECTRICES DE ORDENACIÓN TERRITORIAL

Artikulua / Artículo	**Efikazia lotesle zuzena** Eficacia vinculante directa	**Zeharkako efikazia loteslea** Eficacia vinculante indirecta
3	1., 2., 3., 4a. (3. eta 4.) eta 4b. apartatuak Apartados 1, 2, 3, 4a (3 y 4) y 4b	4a. (1. eta 2.) apartatua Apartado 4a (1 y 2)
4	2., 3., 4., 5. eta 7. apartatuak Apartados 2, 3, 4, 5 y 7	1. eta 6. apartatuak Apartados 1 y 6
5		Artikulu osoa Todo el artículo
6		Artikulu osoa Todo el artículo
7	3., 4., 5. eta 6. apartatuak Apartados 3, 4, 5 y 6	1., 2. eta 7. apartatuak Apartados 1, 2 y 7
8	1., 3., 4. eta 5. apartatuak Apartados 1, 3, 4 y 5	2. apartatua Apartado 2
9		Artikulu osoa Todo el artículo
10	2. apartatua Apartado 2	1. eta 3. apartatuak Apartados 1 y 3
11		Artikulu osoa Todo el artículo
12	1., 2., 3. eta 4. apartatuak Apartados 1, 2, 3 y 4	5., 6. eta 7. apartatuak Apartados 5, 6 y 7
13	1. eta 2. apartatuak Apartados 1 y 2	3. apartatua Apartado 3
14	2. apartatua Apartado 2	1., 3., 4. eta 5. apartatuak Apartados 1, 3, 4 y 5
15	1., 2., 3. eta 8. apartatuak Apartados 1, 2 ,3 y 8	4., 5., 6. eta 7. apartatuak Apartados 4, 5, 6 y 7
16	2. eta 4. apartatuak Apartados 2 y 4	1., 3., 5., 6. eta 7. apartatuak Apartados 1, 3, 5, 6 y 7
17	4. apartatua Apartado 4	1., 2., 3., 5. eta 6. apartatuak Apartados 1, 2, 3, 5 y 6
18	Artikulu osoa Todo el artículo	
19	Artikulu osoa Todo el artículo	

APLIKATZEKO ARAUEN II. ERANSKINA: INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA

Araudiaren eranskin honetan sartzen dira ingurune fisikoko elementu, prozesu, jardueren kontrol eta antolamenduari buruz nahitaez bete beharreko gidalerroak eta erabilera-matrizea.

1.– Ingurune fisikoaren elementu eta prozesuak eta jardueren kontrola:

1.a. Elementuak eta prozesuak.

1.a.1. Lurzoruaren eta lurpearen tratamendua.

a. Lurzorua narriatu gabe lurzoruaren potentzialtasunak aprobetxatuko dituzten erabilerak atxikitzea eta esleitzea, lurzorua oinarrizko baliabide gisa aitortuta, lurzorua baita jardueren funtsezko euskarria eta prozesu natural ugariren ezaugarriak zehazten dituen oinarri fisikoa.

b. Antolamendu berean sartu behar dira espazio babestuen plangintzarekin nahiz basoen kudeaketa orokorrarekin zerikusia duten gaiak, basoen funtzioak behar bezala betetzean eragina dutenean, batez ere lurzoruaren finkapenari eta babesari dagokionez.

c. Oro har, ekintza positiboko programa eta neurriak gaineratuko dituzte lurralde-plan partzialek eta sektorialek, landa- eta natura-espazioak hobetzekoak, eta puntu horiek definituko dituzte, besteak beste, lortu beharreko helburu zehatzak; beharrezkoak diren neurrien multzoa, neurri horiek aplikatzeko eta finantzatzeko erantzukizunak, eta haiek egikaritzeko epeak. Programak, adierazle gisa, honako hauek izan daitezke:

1. Baso-masak antolatzea optimizazio-irizpideen arabera sasoi bakoitzaren ezaugarrien mende, masa produktiboenentzat zein hazkunde mantsoagoa dutenentzat. Antolamendu horrek landaketa berriak ustiatzeko eta egiteko tekniken erregulazioa hartuko du barnean.

2. "Babesteko eginkizuna duen mendien katalogoa" lantzea, batez ere Onura Publikokotzat deklaratutako Mendietan, guztiak ere hirigintza-informazioan bildu beharrekoak. Katalogo horretan bilduko dira ingurunearekin bereziki arduratsua den ustiaketa egiteko eskatzen duten mendiak, mendi horiek zenbait zerbitzu ekosistemiko ematen dituztelako, hala nola higaduraren prebentzioan edo ur-ibilguan behera dauden lurren babesean.

3. Babes Bereziko eta Gainazaleko Uren Babeseko kategorietan eta interes naturala duten baina espazio babestuen zati ez diren beste espazio batzuetan bildutako esparruen hobekuntza- eta kudeaketa-programak.

4. Lehentasunezko esparruak basoberritzeko ekintzak, edo LPPak identifikatzen dituen Ingurune Hobekuntzako kategoriarenak.

ANEXO II A LAS NORMAS DE APLICACIÓN: ORDENACIÓN DEL MEDIO FÍSICO

El presente anexo a la normativa recoge directrices de obligado cumplimiento sobre elementos, procesos, control de actividades, ordenación del medio físico y matriz de usos.

1.– Elementos y procesos del medio físico y control de actividades:

1.a. Elementos y procesos.

1.a.1. Tratamiento del suelo y subsuelo.

a. Conservar y asignar usos que aprovechen las potencialidades del suelo sin deteriorarlo, reconociendo el suelo como recurso básico que es soporte esencial de actividades y base física que determina las características de numerosos procesos naturales.

b. Integrar dentro de una misma ordenación aquellas cuestiones que, bien relacionadas con la planificación de los espacios protegidos bien con la gestión forestal general, afecten al correcto cumplimiento de las funciones de las áreas forestales, especialmente en relación a la fijación y protección del suelo.

c. En general, los planes territoriales parciales y sectoriales incorporarán programas y medidas de acción positiva de mejora de espacios rurales y naturales que definan, entre otros, los objetivos concretos a lograr; el conjunto de medidas necesarias, las responsabilidades en su aplicación y financiación, y los plazos para la ejecución. Los programas, a título indicativo, pueden ser los siguientes:

1. La ordenación de las masas forestales en función de criterios de optimización dependiendo de las características de cada estación tanto para las masas más productivas como para aquellas de crecimiento más lento. Esta ordenación incluiría la regulación de técnicas de explotación y de realización de nuevas plantaciones.

2. La elaboración de un «Catálogo de montes con función protectora», especialmente en los Montes declarados de Utilidad Pública (MUP), que deberán recogerse en la información urbanística. En este catálogo se incluirán aquellos montes en los que, por su papel de proveedores de diversos servicios ecosistémicos, como la prevención de la erosión o en la protección de los terrenos situados aguas abajo, debe realizarse una explotación de los mismos especialmente cuidadosa con el medio.

3. Programas de mejora y gestión de los ámbitos incluidos en las categorías de Especial Protección, Protección de Aguas Superficiales, y en otros espacios que cuentan con interés natural pero que no forman parte de los espacios protegidos.

4. Acciones de reforestación de los ámbitos prioritarios, o de la categoría de Mejora Ambiental que identifiquen los PTP.

5. Nekazaritza-jarduerak atxikitzeko jardun-programak, baita abandonatutako lurrak edo desagertzeko arriskuan dauden lurrak kudeatzekoak.

6. Paisaiaren Ekintza Planak, eta paisaia-katalogoetan ezartzen diren paisaia-kalitateko helburuak betetzeko neurri eta jardunak.

d. Oro har, nekazaritza-azalera erabilgarria atxikitzen saiatzea, nekazaritza-lurzoruaren ezaugarriak onartuz, euskarri soila izatetik haratago.

e. Lurralde plan partzial eta sektorialek eta hirigintza-plangintzak aintzat hartuko dituzte prozesu narriatzaileen aurrean lurzoruak duen gaitasun agrologikoaren eta hauskortasunaren faktoreak. Bi alderdi horiek irizpide izango dira obrak eta azpiegiturak kokatzeko, eta hirigintzako garapen-prozesuetatik eta ekonomia-garapeneko prozesuetatik at utzi beharrekoak mugatuko dituzte, balioak aztora ditzaketela uste bada. Babes hori nekazaritzako erabileren bideragarritasunerako zaintzea interesgarri den lurretara zabalduko da, produktibitatea dena dela eta EAEko Landa Garapeneko Programak ezarritako landa-ingurunerako garapen-ildoekin bat.

f. Meatze eta hidrokarburoetan ezarritako araudietan oinarrituta, zorupea plangintzako beste elementu bat bezala ikusi behar da, teknologia erabilgarri onenekin aukerarik onena aurkitzeko plangintzaren proposamen eta alternatibak lantzeko garaian, betiere dokumentu honetan ezartzen diren ereduaren oinarriei jarraikiz. Edozein kasutan ere, zorupeak izan behar duen bokazioa aurreikuspen sektorial baten faltan zera izango da, berezko egoeran atxikitzea.

g. Saihestu egingo da, edo ahal den neurrian minimizatu, mineralen, gatzen eta ur erreaktiboen airepeko esposizioa, elementu horiek aldatzen baitituzte zorupearen propietateak meteorizazioan.

h. Hezetasun-aldaketa garrantzitsuak saihestuko dira lurzoru espantsiboetan (bolumena nabarmen aldatzen dutenak hezetasun-aldaketa bat dagoenean).

i. Luiziak saihesteko edo haien ondorioak gutxitzeko beharrezkoa da indar erresistenteak gehitzea edo mendi-hegalean edo hegian jarduten duten indar desestabilizatzaileak gutxitzea.

j. Subsidentzia izan dezaketen lurzoruetan (azaleraren hondoratze mantsoak), eta kolapsoak ere izan ditzaketenetan, edozein jatorritako bibrazioak saihestuko dira eta, oro har, lursailaren karga puntuala, baita maila freatikoaren aldakuntza esanguratsuak ere.

5. Programas de actuación orientados al mantenimiento de actividades agrarias, así como a la gestión de los terrenos abandonados o en riesgo de desaparición.

6. Planes de Acción del Paisaje y las medidas y actuaciones para el cumplimiento de los objetivos de calidad paisajística que se establezcan en los catálogos de paisaje.

d. Procurar como norma general el mantenimiento de la superficie agraria útil, reconociendo las características del suelo agrario más allá de las de mero soporte.

e. Los planes territoriales parciales y sectoriales, así como el planeamiento urbanístico considerarán los factores de capacidad agrológica del suelo y su fragilidad ante procesos de deterioro, como criterio de localización de obras e infraestructuras, delimitando los ámbitos que deben excluirse de los procesos de desarrollo urbano, en sintonía con lo señalado en el PTS Agroforestal. Esta protección se extenderá, independientemente de su productividad, a aquellos terrenos cuya conservación resulte importante para la viabilidad de los usos agrarios, con criterios acordes con las líneas de desarrollo rural establecidas por el Programa de Desarrollo Rural de la CAPV.

f. Partiendo de las regulaciones establecidas en materia de Minas y de Hidrocarburos, se debe considerar el subsuelo como un elemento más a tener en cuenta a la hora de elaborar las propuestas y alternativas para encontrar la mejor opción con las mejores tecnologías disponibles, siempre de acuerdo con las bases del modelo que se establecen en este documento. En cualquier caso, su vocación a falta de una previsión sectorial debe ser la de su mantenimiento en estado natural.

g. Se evitará o minimizará en lo posible la exposición subaérea de los minerales, sales y aguas reactivas, que son los que cambian sus propiedades durante la meteorización.

h. Se evitarán variaciones importantes de humedad en los suelos expansivos (los que cambian sustancialmente de volumen cuando hay una variación de humedad).

i. Para prevenir los deslizamientos o disminuir sus efectos es necesario aumentar las fuerzas resistentes o disminuir las fuerzas desestabilizantes actuantes en la ladera o el talud.

j. En los suelos susceptibles de sufrir subsidencia (hundimientos de la superficie de forma lenta) y colapsos, se evitarán las vibraciones de cualquier origen y en general, la carga puntual del terreno, así como alteraciones significativas del nivel freático.

1.a.2. Biodibertsitatearen tratamendua.

a. Biodibertsitateak iraun dezala bermatzea. Biodibertsitatea da, «edozein iturritako, lehorreko ekosistemetako, itsasoko ekosistemetako eta beste ekosistema urtarretako organismo bizien desberdintasuna, haiek parte hartzen duteneko konplexu ekologikoak barne direlarik. Espezie bakoitzaren barneko, espezieen arteko eta ekosistemen arteko dibertsitatea hartzen ditu barnean» (Dibertsitate biologikoari buruzko hitzarmena, 1992).

b. Endemismoak lehentasunez babestea (konbinazio genetikoak, zenbaitetan leku geografiko murritz batean baino ez dauden espezie gisa sortutakoak, eta beste zenbaitetan esparru zabaleko espeziekiko tokiko aldaera gisa sortutakoak). Horretarako, jarraitu egin behar da espazio zabalak antolatzeko ekindako ildoekin, non eta espazio horietako lurraldearen gaineko erabilerek balio berezia duen ingurune natural bat gorde badute eta erreferentzia ekologiko eta kultural gisa eratu badira biztanleriaren zati handi batentzat.

c. Ildo hori habitat, espezie eta banako bereziak babestera zabaltzea EAE osoan. Habitatak konektatzeko korridore ekologikoak zaindu eta lehengoratu ere egin behar dira, truke genetikoa berma dezaten. Eskala guztietara zabalduko da irizpide hori, konektatutako azpiegitura berde bat osatzeko.

d. Lurralde-jardun orotan landarediaren babesa eta, bereziki, zuhaitzen kontserbazioa aintzat hartuko dira. Neurriak hartuko dira konektibitate ekologikoa lehengoratzeko lehendik galdutako lekuetan, eta zuzenketa- edo konpentsazio-neurriak galtzea posible dela aurreikusten den lekuetan. Batasunaren eta eskualdearen intereseko habitatak babestu eta kontserbatuko dira.

e. Faunaren zirkulazio librea saihestuko duten oztopo artifizialak sortzea saihestuko da, eta, oztoporik egonez gero, aztertu egingo dira eta neurriak hartuko dira zirkulazio hori ahalbidetzeko.

f. Goi tentsioko linea elektrikoak instalatzean, hegaztiak ez elektrokutatzeko edo talka ez egiteko gailuak erabili beharko dira, Ingurumen eta Lurralde Politika sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduan ezarritako hegazti mehatxatuentzako beste gune interesgarri batzuk mugatzen dituen Aginduaren arabera. Agindu horren bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatzen dira eta hegazti-faunaren babes-eremuak —non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatzeko edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko baitira— argitaratzen dira.

1.a.3. Gainazaleko baliabide hidrikoen tratamendua.

a. Lurralde- eta hirigintza-antolamenduak kontuan hartuko ditu EAEko urtegi, ibai, erreka eta

1.a.2. Tratamiento de la biodiversidad.

a. Garantizar la pervivencia de la biodiversidad, es decir, «la variabilidad de organismos vivos de cualquier fuente, incluidos, entre otros, los ecosistemas terrestres y marinos y otros ecosistemas acuáticos y los complejos ecológicos de los que forman parte; comprendiendo la diversidad dentro de cada especie, entre las especies y de los ecosistemas» (Convenio sobre la diversidad biológica, 1992).

b. Proteger de forma prioritaria los endemismos (combinaciones genéticas surgidas unas veces como especies sólo presentes en un reducido lugar geográfico, en otras ocasiones como variantes locales a especies de ámbito extenso). Para ello, continuar con las líneas emprendidas de ordenación de aquellos amplios espacios en que los usos desarrollados sobre el territorio han preservado un medio natural con un valor singular y se han constituido en referencia ecológica y cultural para gran parte de la población.

c. Ampliar esta línea a la protección de hábitats, especies e individuos singulares en toda la CAPV. También hay que preservar y restaurar los corredores ecológicos de interconexión entre hábitats, que garanticen el intercambio genético. Se extenderá este criterio a todas las escalas, para formar una infraestructura verde interconectada.

d. En toda acción territorial se atenderá a la preservación de la vegetación y, muy especialmente, a la conservación de las masas arboladas. Se tomarán medidas para restituir la conectividad ecológica allá donde se haya perdido, y medidas correctoras o compensatorias allá donde se prevea una posible pérdida. Se protegerán y conservarán los hábitats de interés comunitario y regional.

e. Se evitará crear barreras artificiales que impidan la libre circulación de la fauna, y en caso de que existan se estudiarán e implementarán medidas para permitir dicha circulación.

f. La instalación de tendidos eléctricos de alta tensión deberá realizarse con dispositivos que eviten la electrocución y minimicen el riesgo de colisión de las aves, en consonancia con la Orden de 6 de mayo de 2016 de la Consejera de Medio Ambiente y Política Territorial, por la que se delimitan las áreas prioritarias de reproducción, alimentación, dispersión y concentración de las especies de aves amenazadas y se publican las zonas de protección para la avifauna en las que serán de aplicación las medidas para la salvaguarda contra la colisión y la electrocución de las líneas eléctricas aéreas de alta tensión.

1.a.3. Tratamiento de los recursos hídricos superficiales.

a. La ordenación territorial y urbanística tendrá en consideración los terrenos clasificados como no

gainazaleko beste ur-masa batzuen mugakide diren eta urbanizaezin, urbanizagarri eta hiri-lur gisa sailkatutako lurrak. Horri dagokionez, EAEko Ibai eta Errekak Antolatzeko LPSean adierazitakoa izango da aplikatzekoa.

b. Urbanizaezintzat sailkatutako lurzoruan Gainazaleko Urak Babesteko Kategoriarako ezarritako zehaztapenak aplikatuko dira, kapitulu honetan jasotakoaren arabera.

c. Hezeguneei dagokienez, EAEko Hezeguneen LPSak xedatutakoa bete beharko da, eta, Naturagune Babestuak direnetan, horien arau propioak xedatzen duenera.

1.a.4. Lurpeko baliabide hidrikoen tratamendua.

a. Administrazioak benetako kontrola egikaritu beharko du akuiferoen gain bi helburu lortzeko: uren kalitatea mantentzea eta haien gainustiapena saihestea.

b. Lurpeko uren urrakortasun-eremuak ezartzeko erreferentzia-esparrua «Akuiferoen Urratze-arriskuaren Mapa» izango da, Eusko Jaurlaritzaren Informazio Geografikoaren atarian bildutakoa (http://www.geo.euskadi.eus).

c. Urak –lurpekoak zein gainazalekoak– kutsatzeko gai diren hondakin-urak produzitzen dituzten edozein motatako instalazioek ezin izango dituzte putzuak, zerrendak, galeriak edo lurrak ur horiek xurgatzea ahalbidetuko duen edozein dispositibo egin. Saneamendurako hobi septikoak egiteko baimena baldintza jakin batzuk gertatzen direnean soilik eman ahalko da, hots, berme nahikoak daudenean ziurtatzeko ez dutela inolako arriskurik gainazaleko edo lurpeko uren kalitaterako.

d. Dena den, edozein motatako isurketak eragiten dituzten jarduerak eskatzeko lizentziek isurketak baimentzeko indarreko legeriak eska ditzakeen datu guztiak bildu beharko dituzte, eta ezin izango da isurketarik egin baimen hori gabe.

1.a.5. Kostaldearen eta itsas ingurunearen tratamendua.

a. Kostaldean egindako edozein jardun EAEko Kostaldea Babesteko eta Antolatzeko LPSean eta indarreko legerian xedatutakoaren pean egongo da, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko zonari dagokionez zein eragin-zonei eta babes- eta igarotze-zortasuneko zonei dagokienez. Lurralde-plan partzialek zehaztapen osagarriak ezarri ahalko dituzte beren aplikazio-esparruaren azterketa zehatzetatik abiatuta.

b. Kostaldea eraginpean hartuko duen lurralde-plangintzaren etorkizuneko garapenak kontuan hartu beharko du klima-aldaketak espazio horretan duen eragina.

urbanizables, urbanizables y urbanos colindantes a los embalses, ríos, arroyos y otras masas de agua superficiales de la CAPV. A este respecto será de aplicación lo señalado en el PTS de Ordenación de Ríos y Arroyos de la CAPV.

b. En el suelo clasificado como no urbanizable se aplicarán las determinaciones establecidas para la Categoría de Protección de las Aguas Superficiales, según figura en este capítulo.

c. En lo que respecta a las zonas húmedas, se estará a lo dispuesto por el PTS de Zonas Húmedas de la CAPV y, en aquellas que tengan la consideración de Espacios Naturales Protegidos, a lo dispuesto por su propia normativa.

1.a.4. Tratamiento de los recursos hídricos subterráneos.

a. La Administración deberá ejercer un control efectivo sobre los acuíferos con dos objetivos: mantener la calidad de las aguas y evitar su sobreexplotación.

b. El marco de referencia para el establecimiento de áreas de Vulnerabilidad de las aguas subterráneas será el «Mapa de Vulnerabilidad de Acuíferos», recogido en el portal de Información Geográfica del Gobierno Vasco (http://www.geo.euskadi.eus).

c. Las instalaciones de cualquier tipo que produzcan aguas residuales capaces de contaminar las aguas, tanto subterráneas como superficiales, no podrán construir pozos, zanjas, galerías o cualquier dispositivo que posibilite la absorción de dichas aguas por el terreno. La construcción de fosas sépticas para saneamiento solo podrá autorizarse cuando se den las suficientes garantías de que no suponen riesgo alguno para la calidad de las aguas superficiales o subterráneas.

d. En todo caso, las solicitudes de licencia de actividades generadoras de vertidos de cualquier índole, deberán incluir todos los datos exigibles por la legislación vigente para la autorización de vertidos, no pudiendo realizarse éstos sin dicha autorización.

1.a.5. Tratamiento del espacio litoral y medio marino.

a. Toda actuación en la zona costera se someterá a lo dispuesto en el PTS de Protección y Ordenación del Litoral de la CAPV y en la legislación vigente, tanto en lo referente a la zona de dominio público marítimo-terrestre como a las zonas de influencia y servidumbre de protección y tránsito. Los planes territoriales parciales podrán establecer determinaciones complementarias a partir de los análisis pormenorizados de su ámbito de aplicación.

b. En el futuro desarrollo del planeamiento territorial que afecte al espacio litoral deberá tenerse en cuenta la incidencia del cambio climático sobre este espacio.

1.a.6. Interes zientifiko-kulturaleko aztarnategien babesa.

a. Lurralde- eta hirigintza-plangintzak adierazi egingo ditu aztarnategi arkeologiko eta paleontologikoak, aplikatzekoa den sektore-araudiak zehazten dituen arau eta babes-erregimenak ezarrita.

1.b. **Jardueren kontrola**.

1.b.1. Azpiegiturak.

14.–Área Funcional de Álava Central: Alegria-Dulantzi, Añana, Armiñón, Arraia-Maeztu, Arratzua-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Berantevilla, Bernedo, Campezo, Elburgo, Iruña de Oca, Iruraiz-Gauna, Kuartango, Lagrán, Lantarón, Legutio, Otxandio, Peñacerrada-Urizaharra, Ribera Alta, Ribera Baja, Salvatierra, San Millán, Ubide, Urkabustaiz, Valdegovía, Valle de Arana, Vitoria-Gasteiz, Zalduondo, Zambrana, Zigoitia y Zuia.

Además, se incluyen los siguientes ámbitos: Sierra Brava de Badaya y Parzonería de Entzia.

15.–Área Funcional de Urola Kosta: Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa y Zumaia.

Nota: El Enirio de Aralar se adscribe indistintamente a cualquiera de las dos Áreas Funcionales colindantes (Tolosaldea o Goierri) pudiendo ser ordenado por cualquiera de los dos Planes Territoriales Parciales.

APLIKATZEKO ARAUEN IV. ERANSKINA: BIZITEGI KUANTIFIKAZIOA

1.– Bizitegi-kuantifikazioa.

Udal-plangintzarako bizitegi-kuantifikazioko metodologiak bi helburu dauzka: Lehenik eta behin, kuantifikazio-metodo orokor bat formulatzen da, kasu bakoitzerako proiektu espezifikoagorik ezean, EAEko edozein udalerritako bizitegi-kuantifikazioari nahiko ongi heltzeko aukera ematen duena. Bigarrenik, planteatutako metodologiak kontzeptuzko eskema bat dakar berekin, erreferentzia baliagarria izango dena, kasuan kasu egokitzat jotzen diren egokitzapen eta hobekuntzak gorabehera, Lurralde Plan Partzialek beren eremuko udalerrietarako bideratu behar duten bizitegi-ahalmena kuantifikatzeko.

Formulazioak kontzeptu orokor batzuk planteatzen ditu, eta kontzeptu horiek osatuko dira indarreko lurralde-ereduaren zuzenketen bitartez, Lurralde Plan Partzialek kasuan kasu identifikatzen dutenaren arabera. Azpimarratzekoa da zuzenketa horien magnitudea eta denbora-erritmoa behar bezala zehaztu beharko direla, formulatutako kuantifikazio-metodoaren barruan bildutako osagai orokorrei arazorik gabe eransteko moduan. Gainera, zuzenketa espezifiko horiek eraginpeko udalerrien gaineko inpaktu positibo eta negatiboak identifikatu beharko dituzte, lurralde-ereduan proposatutako aldaketen efektu erantsia ezerezean geratzeko moduan, salbu eta eraginpeko fluxuetarako kontuan hartutako lurralde-eremutik kanpoko jatorria edo helmuga identifikatzen bada.

Bestetik, metodologia honetan proposatzen diren kasu orokorrak eguneratuko dira denborak aurrera egin ahala eta informazio berria eskura eduki ahala. Bigarren etxebizitzekin eta jenderik gabeko etxebizitzekin zerikusia duten alderdiek interes berezia dute, atal horiei buruzko informazio orokorra ez delako oso fidagarria. Fenomeno horiek bereziki nabarmenak diren udalerriek beharrezkoa den informazioa aurkeztu beharko dute, eta gai horiei dagokienez aplikatutako kasu eta koefizienteak justifikatu beharko dituzte.

Ildo beretik, funtsezkoa da iraganeko joerak identifikatzeko erabilitako biztanle eta etxebizitza kopuruak homogeneoak direla ziurtatzea eta kopuru horiek proposatutako proiekziorako denboraldi egokia estaltzen dutela bermatzea, identifikatutako joerek aztertutako aldagaien benetako portaera islatzeko moduan.

Plangintzaren eragileak arduratu behar dira, halaber, plangintza-ekitaldi ororen berezko denbora-erreferentziei tratamendu egokia emateaz. Kuantifikazioaren denbora-mugak, erabilitako aldagaietarako erreferentziazko datak eta garrantzizko fluxu eta aldaketen urteko erritmoak zein diren argi eta garbi ezartzea ezinbestekoa da. Zorroztasun horri esker, proposatutako kuantifikazioaren inplikazioak nabarmenagoak izango dira, eta ondoriozko planaren ebaluazio gardenago bat egin ahal izango da, kuantifikazioa zentzuzkoa delako, bakar-bakarrik, argi eta garbi mugatuta dagoen denboraldi bati dagozkion beharren proiekzioari dagokionez.

Bizitegi-kuantifikazioko metodoa bi urratsetan egituratzen da. Lehenengo urratsean, etxebizitza-parkeak behar duen gorakada kalkulatzen da, horretarako etxebizitza nagusien beharrak, bigarren etxebizitzen eskaria eta aurrekoei lotutako jenderik gabeko etxebizitzen aurreikuspena hartzen dira kontuan. Jarraian, plangintza-aldia hasten denerako bizitegi-ahalmen egokia kalkulatzen da, aurreko urratsean proiektatutako etxebizitza-igoeraren araberako

ANEXO IV A LAS NORMAS DE APLICACIÓN: CUANTIFICACIÓN RESIDENCIAL

1.– Cuantificación residencial.

La metodología de cuantificación residencial para el planeamiento municipal tiene dos objetivos: en primer lugar, se formula un método genérico de cuantificación que, en ausencia de proyecciones más específicas para cada caso, permite abordar de forma razonablemente satisfactoria la cuantificación residencial de cualquier municipio de la CAPV. En segundo lugar, la metodología planteada aporta un esquema conceptual que servirá de referencia, con las adaptaciones y mejoras que se consideren oportunas en cada caso, para cuantificar la capacidad residencial que los diferentes Planes Territoriales Parciales deben realizar para los municipios de su ámbito.

La formulación plantea unos conceptos genéricos que deberán ser completados con las correcciones del modelo territorial vigente que los Planes Territoriales Parciales identifiquen en cada caso. Conviene subrayar que estas correcciones deberán estar debidamente especificadas en magnitud y ritmo temporal, de forma que puedan ser agregadas sin problemas a los componentes genéricos que incluye el método de cuantificación formulado. Además, estas correcciones específicas deberán identificar los impactos positivos y negativos sobre los diferentes municipios afectados, de forma que el efecto agregado de los cambios postulados en el modelo territorial sea nulo (excepto en los casos en los que se identifique un origen o destino externo al ámbito territorial contemplado para los flujos en cuestión).

Por otro lado, los supuestos generales que se proponen en esta metodología deberán ser actualizados a medida que transcurra el tiempo y se disponga de nueva información. Especial interés tienen los aspectos relacionados con las viviendas secundarias y deshabitadas, ya que la información general resulta poco fiable en estos apartados. Los municipios en los que estos fenómenos tengan especial relevancia deberían aportar la información pertinente y justificar los supuestos y coeficientes aplicados en relación a estos temas.

De forma similar, resulta vital asegurar que las cifras de población y vivienda utilizadas para identificar las tendencias pasadas sean homogéneas y cubran un periodo temporal adecuado a la proyección que se propone, de forma que las tendencias identificadas reflejen el comportamiento real de las variables estudiadas.

Otro aspecto que exige la atención de los agentes del planeamiento es el tratamiento adecuado de las referencias temporales implícitas en todo ejercicio de planificación. Es imprescindible establecer con total claridad los límites temporales de la cuantificación, las fechas de referencia para las variables utilizadas y los ritmos anuales de los flujos y variaciones relevantes. Este rigor mejora la visibilidad de las implicaciones de la cuantificación propuesta y permite una evaluación más transparente del plan resultante, ya que la cuantificación solo tiene sentido en relación a la proyección de necesidades referidas a un periodo temporal claramente acotado.

El método de cuantificación residencial se estructura en dos pasos. En un primer paso se calcula el aumento requerido en el parque de viviendas, teniendo en cuenta las necesidades de viviendas principales, la demanda de viviendas secundarias y la previsión de las viviendas deshabitadas asociadas a las anteriores. En un segundo paso se calcula la capacidad residencial adecuada al inicio del periodo de planeamiento, aplicando un factor de esponjamiento apropiado

harrotze-faktorea aplikatuz. Lortutako emaitzari leheneratu nahi den jenderik gabeko etxebizitza kopurua kentzen zaio, emaitzazko bizitegi-gaitasuna murrizteko helburuarekin. Eranskin honen amaieran, planteatutako kuantifikazio-metodoa labur-labur aurkeztu da, erabilitako formulazioa, kontzeptuak eta parametroak barne dituen fitxa baten bidez.

1.a. Bizitegi Beharrak.

Bizitegi-beharren kuantifikazioan bost batugai hartzen dira kontuan; horiek, lurralde-ereduaren zuzenketen inpaktuarekin batera, ondorioztatzen den magnitudea eratzen dute.

NR = CMT+A1+A2+B1+B2+C1

Honako hauek dira jasotzen diren sei osagaiak:

1.a.1. Indarrean dagoen lurralde-ereduaren zuzenketak.

Udalerri bakoitzaren osagai espezifikoa da, dagokion eremu funtzionaleko Lurralde Plan Partzialean ezarritako lurralde-orekako estrategiei lotua. Osagai horretan islatzen dira, batetik, lurralde-plangintzak udalerri jakin batzuetan ezar ditzakeen hazkunde selektiboak, eta, bestetik, lehendik eskuragarri dagoen lurraldearen arabera edo Lurralde Planak aurreikusten dituen azpiegitura, ekipamendu eta hiri-birkualifikazioko eragiketei dagokienez sortzen diren inplikazioen arabera plan horrek artikulatzen dituen gainerako kontzeptuak. Normalean udalerri batzuen hazkunde handiagoa beste batzuen hazkunde txikiagoarekin konpentsatuko da, salbu eta osagai horren berezko migrazio-fluxu berrietatik kanpoko jatorri bat aurreikusten bada. 1997ko LAGek planteatutako 1. osagaiarekin bat dator osagai hori, hain zuzen ere «lurralde-ereduaren inplikazioak» izena daramanarekin. Ateratzen den bizitegi-ahalmena ikusirik, LPPak Eredu-osagaia egokituko du (CMT). Hazkunde Selektiboko ekintzak ez luke berekin ekarri behar, salbuespenezko aldaketa-egoeretan izan ezik, eredu-osagai baten aplikazioa, gainerako osagaietatik eratorritako ohiko bizitegi-ahalmenaren barruan udalerri bakoitzak iragan hurbilean izandako dinamismo espezifikoa hartzen delako.

1.a.2. Etxebizitza nagusiaren beharrak, biztanleria egoiliarra aldatzeagatik (A1).

Kontuan hartzen den lurralde-eremuko biztanleria egoiliarra aldatzeagatik (areagotu edo murriztu) eratorritako etxebizitza nagusiaren beharrak dira. 1997ko LAGetan planteatutako 2. osagaiarekin bat dator, hau da, «hazkunde demografikoa» izenekoarekin.

1.a.3. Etxebizitza nagusiaren beharrak, familia-tamaina aldatzeagatik (A2).

Etxebizitza nagusiari loturiko beharrak aldatzeari dagozkio, kontuan hartzen den lurralde-eremuan batez besteko familia-tamaina aldatzeagatik. 1997ko LAGen 3. osagaiari dagokio, hots, «familia-egituraren aldaketa» izenekoari.

al aumento de viviendas proyectado en el paso precedente. Al resultado obtenido se le resta el número de viviendas deshabitadas que se pretende recuperar con el objetivo de reducir la capacidad residencial resultante. Al final del Anexo se recoge una presentación sintética del método de cuantificación planteado, mediante una ficha que incluye la formulación, los conceptos y los parámetros utilizados.

1.a. Necesidades Residenciales

La cuantificación de las necesidades residenciales tiene en cuenta cinco sumandos que, junto al impacto de las correcciones del modelo territorial, configuran la magnitud resultante.

NR = CMT+A1+A2+B1+B2+C1

Los seis componentes contemplados son los siguientes:

1.a.1. Correcciones del modelo territorial vigente: (CMT).

Se trata de un componente específico a cada municipio, vinculado con las estrategias de equilibrio territorial establecidas en el Plan Territorial Parcial del área funcional correspondiente. En dicho componente se reflejan tanto los crecimientos selectivos que el planeamiento territorial pueda establecer en determinados municipios, como otros conceptos que dicho Plan articule en función de la disponibilidad territorial existente o de las implicaciones que surjan en relación con infraestructuras, equipamientos y operaciones de recualificación urbana que el Plan Territorial prevea. Normalmente, el mayor crecimiento de algunos municipios deberá estar compensado por el menor aumento de otros, excepto cuando se prevea un origen externo a los nuevos flujos migratorios implícitos en este componente. Este componente coincide con el componente 1 planteado por las DOT 1997 denominado «implicaciones del modelo territorial». A la vista de la capacidad residencial resultante, el PTP adaptará el componente de Modelo (CMT). La acción de Crecimiento Selectivo no debiera conllevar, salvo situaciones de cambio excepcional, la aplicación de un componente de modelo, ya que la capacidad residencial ordinaria proveniente del resto de componentes incluye el dinamismo específico de cada municipio en el pasado reciente.

1.a.2. Necesidades de vivienda principal por variación de la población residente: (A1).

Corresponde a las necesidades de vivienda principal derivadas de la variación (aumento o disminución) de la población residente en el ámbito territorial considerado. Equivale al componente 2 planteado por DOT 1997, denominado «crecimiento demográfico».

1.a.3. Necesidades de vivienda principal por variación del tamaño familiar: (A2).

Corresponde a la variación de las necesidades de vivienda principal en razón de la variación del tamaño medio familiar del ámbito territorial considerado. Equivale al componente 3 de las DOT 1997, denominado «variación de la estructura familiar».

1.a.4. Bigarren etxebizitzaren eskaria etxebizitza nagusiaren eskaria aldatzeagatik (B1).

Bigarren etxebizitzaren eskariari lotutako aldaketa da, kontuan hartutako lurralde-eremurako etxebizitza nagusien kopuruari dagokionez kalkulatutako aldaketari loturik (A1 eta A2 osagaiak). Osagai horrek adierazten du etxebizitza kopuru osagarri bat eskuragarri eduki behar dela erabilera nagusirako aurreikusitakoez gainetik, bigarren erabilerako eskariak xurgatuko dituenak, A1 eta A2 osagaien bidez hasiera batean kalkulatutako eskuragarritasuna bermatzeko. 1997ko LAGen bigarren etxebizitzaren koefizientearen kontzeptuari eusten zaio jendea bizi den etxebizitzen (etxebizitza nagusia edo bigarrena izan) eta etxebizitza nagusien arteko ratioa erakusteko, baina osagai hori kalkulatzeko modua aldatu da.

1.a.5. Bigarren etxebizitzaren eskaera, bigarren etxebizitzaren koefizientea aldatzeagatik (B2).

Bigarren etxebizitzen aldaketa (igotzea edo murriztea), kontuan hartutako lurralde-eremuan etxebizitza nagusiei dagokienez bigarren etxebizitzen proportzioan izandako aldaketen ondoriozkoa, hau da, Bigarren Etxebizitzaren Koefizientearen ondoriozkoa. Koefiziente horretako aldaketei buruzko kasu espliziturik ez badago, osagai hori nulua izango da. Alabaina, erabilera nagusiari dagokionez bigarren etxebizitzaren garrantzian aldaketarik planteatzen bada, bigarren etxebizitzen kopuru osagarria bilduko da osagai horren barruan (bigarren etxebizitzen koefizientearen igoera planteatzen bada) edo bigarren erabilera izatetik okupazio nagusi batera izatera igaro litezkeen etxebizitzen kopurua (bigarren etxebizitzaren koefizientearen beherakada kontuan hartzen bada). Gai delikatua da, eskuragarri dagoen informazioaren anbiguotasunari dagokionez zein alor horretan politika alternatiboak abian jartzeko aukerari dagokionez, eta beraz sakoneko gogoeta egin beharko litzateke eta adostasun zabala lortu, osagai hori ezartzerakoan. Hala egiten bada, aurreikustekoa da gehienetan balio negatiboa emango duela, EAEko hainbat udalerritan, hiriburuetatik hurbil dauden eremuetan bereziki, bigarren etxebizitzak etxebizitza nagusi bihurtzen ari diren erakusgarri.

1.a.6. Jenderik gabeko etxebizitzen kopuruari buruzko aurreikuspena, jendea bizi den etxebizitzen kopurua aldatzearen ondoriozkoa (C1).

Jenderik gabeko etxebizitzen aurreikuspenari dagokio, jendea bizi den etxebizitzen (nagusiak edo bigarrenak) aldaketari loturik, kontuan hartutako lurralde-eremurako aldiari (A1, A2, B1 eta B2 osagaiak) dagokionez. B1 osagaiaren antzera, osagai honek etxebizitza osagarrien kopuru bat aurreikusi beharra islatzen du jendea bizi den etxebizitzen aurreikuspenaren gainetik, jenderik gabeko etxebizitzen proportzio tekniko bat izaten delako beti, hainbat desadostasun-faktoreren ondorioz (transmititzeko, birgaitzeko aldiak eta abar). Bigarren etxebizitzaren koefizientea ez ezik, jenderik gabeko etxebizitzaren koefizientearen kontzeptua ere hartzen da aintzat, jendea bizi den etxebizitza bakoitzeko (nagusia edo bigarrena izan) dauden etxebizitzen (jenderik gabe edo ez) ratioa erakusteko.

1.a.4. Demanda de vivienda secundaria por variación de la demanda de vivienda principal: (B1).

Corresponde a la variación en la demanda de vivienda secundaria asociada a la variación estimada del número de viviendas principales para el ámbito territorial considerado (componentes A1 y A2). Este componente refleja la necesidad de disponer de un número de viviendas adicionales a las previstas para uso principal, que serán absorbidas por la demanda de uso secundario, a fin de garantizar la disponibilidad originalmente estimada mediante los componentes A1 y A2. Se mantiene el concepto de coeficiente de vivienda secundaria (CSR) de las DOT 1997 para mostrar el ratio de viviendas habitadas (sea como vivienda principal o como secundaria) por vivienda principal, pero se modifica la forma de cálculo de este componente.

1.a.5. Demanda de vivienda secundaria por variación del coeficiente de vivienda secundaria: (B2).

Corresponde a la variación (aumento o disminución) de las viviendas secundarias derivada de cambios en la proporción de viviendas secundarias respecto a principales en el ámbito territorial considerado, es decir, de cambios en el coeficiente CSR. En ausencia de supuestos explícitos sobre cambios en dicho coeficiente, este componente será nulo. Sin embargo, si se plantean cambios en el peso de la vivienda secundaria respecto al uso principal, este componente recogerá el número adicional de viviendas secundarias (si se contempla un aumento del CSR) o el número de viviendas que podrían pasar de un uso secundario a una ocupación principal (si se contempla un descenso del CSR). Se trata de un tema delicado, tanto por la ambigüedad de la información estadística disponible como por la posibilidad de políticas alternativas en este dominio, por lo que se recomiendan una profunda reflexión y un amplio consenso a la hora de aplicar este componente. En caso de hacerlo, es previsible que tome un valor negativo en la mayoría de los casos, reflejando la transformación de viviendas secundarias en principales que se está dando en bastantes municipios de la CAPV, en especial en las áreas próximas a las capitales.

1.a.6. Previsión de viviendas deshabitadas por variación de las viviendas habitadas: (C1).

Corresponde a la previsión de viviendas deshabitadas asociada a la variación de viviendas habitadas (principal o secundaria) durante el periodo contemplado (componentes A1, A2, B1 y B2) para el ámbito territorial considerado. De forma similar al componente B1, este componente refleja la necesidad de prever un número de viviendas adicionales a la previsión de viviendas habitadas, ya que siempre hay una proporción de viviendas deshabitadas de tipo técnico debido a múltiples factores de fricción (periodos de transmisión, rehabilitación, etc.). De forma paralela al CSR se introduce el concepto de coeficiente de vivienda deshabitada (CVD) para mostrar el ratio de viviendas (habitadas o no) por vivienda habitada (principal o secundaria).

1.b. Beharrak kalkulatzeko aplikazio-irizpideak.

1.b.1. Biztanleriaren proiekzioa.

EAEko biztanleriak egonkortzeko joera erakutsi du azken hiru hamarkadetan, gutxi gorabehera. 2.100.000 biztanle inguru daude EAEn. 1981etik 2001era bitarte beheranzko joera arina atzeman zen (urteko batez besteko aldakuntza-tasa: -% 0.1 izanik), 2001-2011 epealdian gorakada arin bat, eta azken bost urteetan, berriz (2011-2016), beherakada txiki bat. 1. Taulan laburbildu da EAEko eta lurralde-eremu bakoitzeko biztanleria nola bilakatu den 1981etik 2016ra bitarte.

Planaren behin betiko dokumentua idazteko irizpide-hartzearen akordioaren aurreko urtearen aurreko hogei urteetako biztanleriaren aldakuntzari buruzko datu ofizialetan ikusten den biztanleriaren urteko aldakuntza-tasa aplikatuko da. Aldakuntza-tasa negatiboa bada, tasa hori erabiliko da atzemandako balioaren erdira murriztuta, neurketan izan litezkeen akatsen inpaktu negatiboa arintzeko eta atzeraldi demografikoak izan lezakeen efektua berdintzeko; izan ere, litekeena da familia-tamainak beherakada handiagoa izatea kontuan hartutako lurralde-eremuan.

Aurrerapena onartzen denetik igarotako denbora dela-eta kalkulurako erabilitako datuak zaharkitutzat jotzen diren kasuetan, plangintzaren behin-behineko onespenaren data baino lehenago eskura zeuden datu ofizialekin eguneratu ahalko dira datu horiek.

1.b. Criterios de aplicación para el cálculo de las necesidades.

1.b.1. Proyección de la población (P).

La población de la CAPV lleva cerca de tres décadas estabilizada en torno a 2.100.000 habitantes, habiendo mostrado una suave tendencia a la baja entre 1981 y 2001 (tasa media de variación anual de -0,1%), un moderado repunte durante el período 2001-2011 y un ligero descenso durante los últimos cinco años (2011-2016). La Tabla 1 resume la evolución de la población de la CAPV y de sus diferentes ámbitos territoriales entre 1981 y 2016.

Se aplicará la tasa anual de variación de la población observada en los datos oficiales correspondientes al período de veinte años precedentes al año anterior del acuerdo de adopción de criterios para la redacción del documento definitivo del Plan. Cuando la tasa de variación resulte negativa se utilizará dicha tasa reducida a la mitad del valor observado, a fin de suavizar el impacto negativo de posibles errores de medición y para simular el efecto que la recesión demográfica pudiera tener en forma de una reducción más acusada del tamaño familiar en el ámbito territorial considerado.

En aquellos casos en que, debido al tiempo transcurrido desde la fecha de aprobación del Avance, los datos utilizados en el cálculo se consideren obsoletos, los mismos podrán ser actualizados con los datos oficiales disponibles con anterioridad a la aprobación provisional del planeamiento.

1. taula. Biztanleriaren bilakaera lurralde-eremuaren arabera

Tabla 1. Evolución de la población por ámbito territorial

Lurralde Eremua / Ámbito Territorial	Biztanleria / Población		%EAE Gainean / % CAPV		2016ko indizea / Indice 2016
	1996	2016	1996	2016	1996-2016
EAE / CAPV	**2.098.055**	**2.171.886**	**100,00**	**100,00**	**103,52**
Araba / Álava	281.821	322.335	13,43	14,84	114,38
Bizkaia	1.140.026	1.138.852	54,34	52,44	99,90
Gipuzkoa	676.208	710.699	32,23	32,72	105,10
					Eremun Funtzional bakoitzeko / Por Área Funcional
Enkartazioak/Encartaciones	29.791	31.984	1,42	1,47	107,36
Goierri	65.986	69.022	3,15	3,18	104,60
Bilbao Metropolitarra / Bilbao Metropolitano	914.542	892.747	43,59	41,10	97,62
Donostialdea-Bidasoa Beherea / Donostialdea-Bajo Bidasoa	382.761	401.276	18,24	18,48	104,84
Durangaldea	68.320	76.480	3,26	3,52	111,94
Debabarrena / Bajo Deba	75.303	72.471	3,59	3,34	96,24
Busturialdea-Artibai	71.085	71.702	3,39	3,30	100,87
Arratia	11.624	13.703	0,55	0,63	117,89
Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	9.658	11.484	0,46	0,53	118,91
Aiara / Ayala	39.703	41.458	1,89	1,91	104,42
Debagoiena / Alto Deba	64.907	64.260	3,09	2,96	99,00
Mungialdea	19.050	26.667	0,91	1,23	139,98
Tolosaldea	42.869	46.969	2,04	2,16	109,56
Araba Erdialdea / Álava Central	238.283	276.272	11,36	12,72	115,94
Urola Kosta	64.173	75.391	3,06	3,47	117,48

Iturria: Egileak berak egindakoa, Eustaten datuetan oinarrituta (Biztanleriaren errolda eta estatistika).

Fuente: Elaboración propia en base a datos de Eustat (censo y Estadística de Población)

1.b.2. Batez besteko familia-tamaina.

Biztanleriaren bizitegi-beharrak zein diren azaltzeko funtsezko aldagai bat da, biztanleria eta etxebizitza nagusia lotzen dituelako batez besteko familia-tamainaren arabera, batez besteko familia-tamaina hori etxebizitza berean bizi diren pertsonen kopurua dutela ulertuta.

1.b.2. Tamaño Medio familiar (TMF).

Se trata de una variable crucial para formular las necesidades residenciales de la población, ya que este elemento asocia población y vivienda principal a través del tamaño medio del hogar entendido como las personas ocupantes de una misma vivienda.

2. taula. Familia-tamainaren bilakaera EAEn. **Tabla 2. Evolución del tamaño familiar en la CAPV**

	1981	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Batezbesteko familia-tamaina (pertsona/etxebizitza) Tamaño medio familiar	3,73	3,34	3,07	2,79	2,64	2,53	2,46
Konparaketarako aldia Periodo de comparación	96-01	01-06	06-11	11-16		96-11	01-16
Aldiaren Urteko batezbesteko aldaketa (%) Variación anual media (%) del período	-2,91	- 1,76	-1,27	-0,94		-1,98	-1,32

(*) Doazkien biztanleen eta etxebizitzen datuak 2016ko eta 2015eko urtarrilenekoak dira hurrenez hurren.
Iturria: Egileak berak egindakoa, Eustaten datuetan oinarrituta (Biztanleriaren errolda eta estatistika).

(*) Los datos corresponden a población de enero de 2016 y vivienda de enero de 2015.
Fuente: Elaboración propia en base a datos de Eustat (censo y Estadística de Población)

2016ko biztanleriaren eta etxebizitzaren behin-behineko datuen arabera ikusten denez, azken hamarkadetan batez besteko familia-tamainan izandako beherakada argi eta garbi moteltzen ari da (1996-2011 epealdian batez besteko beherakada % 1,98 izan zen; 2001-2016 epealdian, berriz, % 1,32). Arrazoi horregatik, eta izandako bilakaera kontuan hartuta, familia-tamaina aldakorraren (hau da, familia-tamainak unitatetik gora duen soberakinaren) urteko murrizketa-tasa % 1,2 dela proposatzen da, eta hori udalerriaren batez besteko familia-tamainaren gainean eskuragarri dagoen azken informazioari aplikatu behar zaio, justifikatuz gero, udalerrian produzitutako azken hamar urteei dagokien urteko murrizte-tasa.

De acuerdo con los datos provisionales de población y de vivienda del año 2016, se observa que se está produciendo una clara moderación en la reducción experimentada por el tamaño medio familiar durante las últimas décadas (1,98% de reducción media anual en el período 1996-2011 y 1,32% en el período 2001-2016). Por dicho motivo y teniendo en cuenta la evolución producida, se propone la consideración de una tasa anual de reducción del 1,2% del tamaño familiar variable (esto es, del exceso del tamaño familiar sobre la unidad), aplicable a la última información disponible sobre el tamaño medio familiar del municipio, justificadamente la tasa anual de reducción correspondiente a los últimos diez años producida en el propio municipio.

1.b.3. Bigarren etxebizitzaren koefizientea.

Eskuragarri dauden azken datu ofizialen arabera ikusitako tasa aplikatuko da. Ezarritako koefizientea aplikatu beharko da baldin eta haren balioa 1,25 (hau da, bigarren etxebizitza bat lau etxebizitza nagusiko) edo handiagoa bada. Planaren hasieran dauden bigarren etxebizitzen zati bat bihurtzeko aukera plantea daiteke, horrela proiektatutako bizitegi-beharrak murrizteko, baina horren azpian dauden kasuen magnitudea eta bideragarritasuna justifikatu beharko da nolanahi ere.

1.b.3. Coeficiente de vivienda secundaria (CSR).

Se aplicará la tasa observada de acuerdo con los últimos datos oficiales disponibles. Será necesario justificar el coeficiente aplicado cuando su valor sea 1,25 (esto es, una vivienda secundaria por cuatro viviendas principales) o más. Es posible plantear la conversión de parte de las viviendas secundarias existentes al inicio del Plan, reduciendo de esta manera las necesidades residenciales proyectadas, pero será necesario justificar la magnitud y viabilidad de los supuestos subyacentes.

1.b.4. Jenderik gabeko etxebizitza teknikoen koefizientea.

Jenderik gabeko etxebizitza tekniko bakoitzeko 1,04tik 1,08ra bitarteko tasa bat ezarriko da, kontuan hartutako udalerriko biztanleriaren arabera (ikus balioen taula 3. Taulan). Beste balio batzuk erabiltzen direnean ezarritako koefizientearen balioa justifikatu beharko da.

1.b.4. Coeficiente de vivienda deshabitada técnica (CVD).

Se aplicará una tasa por vivienda deshabitada técnica comprendida entre 1,04 y 1,08 de acuerdo a la población del municipio considerado (ver tabla de valores en la Tabla 3). Será necesario justificar el valor del coeficiente aplicado cuando se utilicen otros valores.

3. taula. Jenderik gabeko Etxebizitzen koefizientea udalerriaren tamainaren arabera

Tabla 3. Coeficiente de vivienda deshabitada (CVD) según el tamaño del municipio

Maila Estrato	**Udalerriko biztanleria** Población del municipio	CVD
1	20.000 biztanle edo gehiago 20.000 habitantes o más	1,04
2	7.000 eta 19.999 biztanleren artean De 7.000 a 19.999 habitantes	1,05
3	3.000 eta 6.999 biztanleren artean De 3.000 a 6.999 habitantes	1.06
4	1.000 eta 2.999 biztanleren artean De 1.000 a 2.999 habitantes	1.07
5	1.000 biztanle baino gutxiago Menos de 1.000 habitantes	1.08

2.– Bizitegi Ahalmena.

Udalerriko bizitegi-beharrak kuantifikatu ostean, planaren aldirako aurreikusitako behar horiek planaren hasieran eskatutako bizitegi-ahalmenaren zenbatespen bihurtu behar dira, plangintzaren iraupenerako identifikatutako beharrak beteko direla bermatzeko.

Behin-behineko onarpen-datan udal-plangintza nagusian aurreikusten den bizitegi-ahalmena esaten zaio hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako bizitegi-eremuetan eraikitzeko baimena jasotzen duten bizitegi berrien guztizko kopuruari. Kuantifikazioari landaguneen eta Arabako kontzeju guztien ahalmena eransteko aukera izango da.

Aurreikusitako beharretara egokitutako bizitegi-ahalmena kalkulatzeko, harrotze-faktore bat aplikatzen da. Hala, bizitegi-beharren zifra plangintzan kalifikatutako lurzoruen hartze-ahalmen bihurtzen da, kalkulatutako beharrak beteko direla bermatzeko. Lortutako emaitzari berreskuratu nahi den jenderik gabeko etxebizitza kopurua kentzen zaio, emaitzazko bizitegi-gaitasuna murrizteko helburuarekin. Kopuru hori plangintzaren hasieran existitzen den bizitegi-parkearen gutxieneko % 2an ezartzen da.

CR = (NR x ESP) - C2

NR: Bizitegi-beharrak
ESP: Harrotze-faktorea
C2: Berreskuratzeko jenderik gabeko etxebizitzak (existitzen diren etxebizitza guztien % 2a gutxienez)

2.a. Harrotze-faktorea.

Harrotze-faktorea honako hau da: plangintza-aldiaren hasieran identifikatutako bizitegi-ahalmenak nabarmen gainditu behar izatea planaren indarraldirako zenbatetsitako bizitegi-beharren magnitudea. Marjina hori faktore ugarirengatik planteatzen da, faktore horiek bizitegi-lurzoruek aurreikusitako kontsumoa sobera gainditzea eskatzen baitute. Besteak beste, honako hauek dira faktore garrantzitsuenak: hiri-lurzoruaren merkatu izugarri segmentatu eta bereiziaren haritik datozen tirabirak; administrazio-prozedura garrantzitsuen moteltasuna,

2.– Capacidad Residencial.

Tras cuantificar las necesidades residenciales del municipio, es preciso convertir estas necesidades previstas para el período del plan en una estimación de la capacidad residencial requerida al inicio del plan, a fin de asegurar la satisfacción de las necesidades identificadas para la duración prevista del planeamiento.

Se denomina capacidad residencial prevista en un planeamiento general municipal en la fecha de aprobación provisional del mismo, al número total de nuevas viviendas cuya construcción se posibilita en las áreas residenciales clasificadas como suelo urbano y suelo urbanizable. Facultativamente se podrá incorporar en la cuantificación la capacidad de los núcleos rurales, así como la correspondiente a todos los concejos alaveses.

La capacidad residencial adecuada a las necesidades previstas se calcula aplicando un factor de esponjamiento que convierta la cifra de necesidades residenciales en la capacidad de acogida del suelo calificado en el planeamiento, a fin de garantizar la eventual satisfacción de las necesidades calculadas. Al resultado obtenido se le resta el número de viviendas deshabitadas que se pretende recuperar con el objetivo de reducir la capacidad residencial resultante. Dicho número se establece en el equivalente a un mínimo del 2% del parque residencial existente al inicio del planeamiento.

CR = (NR x ESP) - C2

NR: Necesidades Residenciales
ESP: Factor de Esponjamiento
C2: Viviendas deshabitadas a recuperar (mínimo del 2% del total de viviendas existentes)

2.a. Factor de Esponjamiento (ESP).

El factor de esponjamiento responde a la necesidad de que la capacidad residencial identificada al inicio del periodo de planeamiento supere ampliamente la magnitud de las necesidades residenciales estimadas para el periodo de vigencia del Plan. Las razones para plantear esta holgura se deben a múltiples factores que exigen que las existencias de suelo residencial superen con cierta amplitud el consumo previsto. Entre los factores más relevantes pueden mencionarse la fricción de un mercado tan segmentado y discriminado como el referido al suelo urbano, la lentitud

planaren benetako egikaritzea edo iraupena nabarmen atzera dezakeena; eta beharren proiekzioan egin litezkeen hutsegiteak, zorrotz-zorrotza den merkatu batean bereziki kaltegarriak izan daitezkeenak.

Funtsean, harrotze-faktoreak planaren aldirako zenbatetsitako beharren ezinbesteko maiorazioa erakusten du, aldi hori amaitzerako bizitegi-lurzoruaren soberakinak nahikoak izan daitezen, eta horrela merkatuak, eskaintzarik ezean, nahigabeko birberotzerik jasan ez dezan. Kontzeptu hori argitzeko adibide bat jartzearren, demagun 8 urteko plangintza-aldi bati 2,5eko harrotze-faktore bat ezartzen diogula; kasu horretan, planaren hasieran bizitegi-eraikuntzako 20 urte betetzeko lurzoru egokia identifikatuko dugu kuantifikazioan aurreikusitako erritmoaren arabera, eta beraz, aurreikuspenen arabera, plana amaitzerako oraindik ere bizitegi-eraikuntzako 12 urteko hondar-ahalmenari eutsiko zaio, eta zifra horrek nahikoa dirudi bizitegi-lurzoruaren merkatuak nahigabeko itogunerik izan ez dezan bermatzeko.

Logikoa denez, eskari-mailak planean aurreikusita dauden mailak gainditzen baditu, plangintzaren benetako egikaritzea atzeratzen bada edo plan berri bat egiteko ekimena berandutzen bada, harrotze-faktoreak teorian bermatutako segurtasun-marjina murrizteko arriskua egon daiteke. Harrotze-faktorerako balio egokia hautatzeko konpromisoa hartu behar da, kontuan hartuta, batetik, planak benetan dirauen bitartean merkatuaren funtzionamendua bermatu behar dela, eta, bestetik, hiri-hedapenaren erritmoa murriztea komeni dela, oso urria den baliabide baten erabileraren iraunkortasunaren eta eraginkortasunaren ikuspegitik.

8 urterako zenbatetsitako bizitegi-beharrei gehienez 2,2tik 3ra bitarteko harrotze-faktore bat ezartzea proposatzen da, udalerriaren tamainaren arabera (ikus balio-taula 4. Taulan). Udalerriaren tamaina txikitu ahala harrotze-faktorea orduan eta handiagoa izango da, eta hori hala da, batetik, merkatua zorrotzagoa delako haren tamaina murriztu (arrazoi fisikoengatik edo jabetzaren kontzentrazio handiagoarengatik) ahala, eta, bestetik, kontuan hartutako lurralde-eremua zenbat eta txikiagoa izan, proiekzioen fidagarritasuna orduan eta txikiagoa delako.

de los procedimientos administrativos relevantes que pueden prolongar sustancialmente la ejecución o la duración efectiva del plan, y el previsible error en la proyección de las necesidades, cuyo efecto puede resultar especialmente nefasto en un mercado caracterizado por su extrema rigidez.

En esencia, el factor de esponjamiento representa la mayoración necesaria de las necesidades estimadas para el periodo del plan para que a la finalización de tal periodo las existencias remanentes de suelo residencial sean suficientes para que el mercado no sufra un recalentamiento indeseable por falta de oferta. A fin de ilustrar este concepto, puede señalarse que un factor de esponjamiento de 2,5 aplicado a un periodo de planeamiento de 8 años equivale a identificar al inicio del plan suelo adecuado para satisfacer 20 años de construcción residencial al ritmo previsto en la cuantificación, y en consecuencia, prevé finalizar el plan manteniendo aún una capacidad residual equivalente a 12 años de construcción residencial, cifra que parece suficiente para garantizar que el mercado de suelo residencial no sufra estrangulamientos indeseables.

Como es natural, niveles de demanda superiores a los previstos por el Plan, retrasos en la ejecución efectiva del planeamiento o la demora en elaborar un nuevo plan pueden reducir el margen de seguridad teóricamente garantizado por el factor de esponjamiento. La elección del valor adecuado para el factor de esponjamiento es un compromiso entre el deseo de garantizar el funcionamiento del mercado para la duración efectiva del plan y la conveniencia de restringir el ritmo de expansión urbana desde un punto de vista de sostenibilidad y de eficiencia en el uso de un recurso particularmente escaso.

Se propone aplicar un factor de esponjamiento máximo de 2,2 a 3 las necesidades residenciales estimadas para 8 años, de acuerdo al tamaño del municipio (ver tabla de valores en la Tabla 4). La razón de ampliar el factor de esponjamiento a medida que disminuye el tamaño del municipio se debe a la mayor rigidez del mercado a medida que se reduce la dimensión del mismo (tanto por razones físicas como por la mayor concentración de la propiedad) y a la menor fiabilidad de las proyecciones a medida que se reduce la dimensión del ámbito territorial considerado.

4. taula.Bizitegi-beharretan ezarri daitekeen bizitegi-ahalmenaren harrotze-faktorearen balioa, udalerrien tamainaren arabera

Tabla 4. Valor del factor de esponjamiento de la capacidad residencial aplicable a las necesidades residenciales para 8 años según tamaño del municipio

Maila Estrato	**Udalerriko biztanleria** Población del municipio	**Harrotze-faktorea gehi.** Esponjamiento máx.
1	20.000 biztanle edo gehiago 20.000 habitantes o más	2,2
2	7.000 eta 19.999 biztanleren artean De 7.000 a 19.999 habitantes	2,4
3	3.000 eta 6.999 biztanleren artean De 3.000 a 6.999 habitantes	2,6
4	1.000 eta 2.999 biztanleren artean De 1.000 a 2.999 habitantes	2,8
5	1.000 biztanle baino gutxiago Menos de 1.000 habitantes	3,0

2.b. **Aurreikusi behar den bizitegi-ahalmenaren murrizketa, dauden jenderik gabeko etxebizitzen zati bat berreskuratzeagatik (C2).**

Helburu gisa berreskuratu nahi diren eta jendea bizi den etxebizitza bihurtu nahi diren jenderik gabeko etxebizitzen kopurua da; hala, plangintzan aurreikusi beharreko etxebizitza berrien beharra murrizten da. Berreskuratu beharreko jenderik gabeko etxebizitzen gutxieneko kopurua, udalerrian plangintzaren hasieran dauden etxebizitza guztien % 2 izango da. Halaber, txertatu beharreko balio gisa iradokitzen zaie LPPei jenderik gabeko etxebizitzen kopuru osoaren % 10, 3. taulako JGEKan definitutako izaera teknikoa daukan mota horretako etxebizitzen ehunekoa barnean dela.

2.c. **Muga gehigarriak**.

Azkenik, kuantifikazio-metodologia hori aplikatuz lortutako emaitzei bi baldintza gehiago gehitu zaizkie, proposatutako arauen aplikazio mekanikoaren haritik etor daitezkeen muturreko emaitzak saihesteko. Muga horiek jomugan dituzte, batetik, iraganean oso atzerakorrak izan diren udalerriak, eta, bestetik, azken urteetan egundoko hazkundea izan duten udalerriak.

Lehen kasuan, gutxieneko bizitegi-ahalmen bat bermatu behar da, eragile sektorialei jarduteko nolabaiteko ahalmena emateko moduan, eta, demografia uzkurtzen bada, lurzoru-merkatuaren funtzionamendua gehiegi ez mugatzeko moduan. Bigarren, gehiegizko estrapolazioak saihestu behar dira, konponbide zaila dutelako behin haietatik eratorritako jardunak abiarazi ondoren. Jakina, indarreko plangintzaren eguneratzea bizkortu beharko da baldin eta hedapen bizkortua luzatzen bada, eta, horren ondorioz, harrotze-faktoreak bermatu nahi duen tarte zabala arriskuan geratzen bada.

Udalerriaren bizitegi-ahalmenaren azken kuantifikazioari ezarritako bi muga gehigarriak honako hauek dira:

1.- Udalerri guztien kasuan, bizitegi-ahalmenak ezin izango du gainditu hirigintza-plangintza onartzen denean dagoen etxebizitza-parkearen % 50.

2.- Edozein udalerrik hasierako etxebizitza-parkearen % 10eko bizitegi-ahalmena proposatu ahal izango du.

2.d. **Etxebizitza kopurua eta eraikigarritasuna**.

5. taulan, azken urteetan eraikitako etxebizitzen batez besteko azaleraren zenbatespena ikus daiteke, etxebizitzen araubidearen eta tipologiaren arabera. Azalera eraikiaren kontzeptuaren barnean ez dira hartzen etxebizitza ugariko eraikinetan sestrapean zein teilatupean kokatutako garajeak, trastelekuak eta lokalak. Familia bakarreko etxebizitzetarako, garajea kontuan hartzen da sestrapean ez badago (eraikitzen diren familia bakarreko etxebizitzen % 50 da, gutxi gorabehera).

2.b. **Reducción de la capacidad residencial a prever debido a la recuperación de parte de las viviendas deshabitadas existentes: (C2).**

Corresponde al número de viviendas deshabitadas que como objetivo se plantea recuperar, con el fin de transformarlas en viviendas habitadas; reduciéndose de esta forma la capacidad residencial a prever en el planeamiento. El número mínimo de viviendas deshabitadas a recuperar será el equivalente al 2% del parque total de viviendas existente en el municipio al inicio del planeamiento. Así mismo, se sugiere a los PTP como valor a incorporar, el 10% del número total de viviendas deshabitadas existente, incluido el porcentaje de este tipo de vivienda que tiene carácter técnico definido en el CVD de la Tabla 3.

2.c. **Limitaciones adicionales**.

Finalmente, se han añadido dos condiciones adicionales a los resultados obtenidos aplicando esta metodología de cuantificación para evitar resultados extremos que podrían derivarse de una aplicación mecánica de las reglas propuestas. Se trata de limitaciones dirigidas, por un lado, a los municipios que presentan un pasado muy recesivo, y por otro, a los municipios que han experimentado un crecimiento un tanto explosivo en los años precedentes.

En el primer caso se trata de asegurar una capacidad residencial mínima que permita una cierta capacidad de actuación a los agentes sectoriales y que no restrinja excesivamente el funcionamiento del mercado de suelo en una situación de contracción demográfica. En el segundo caso se trata de evitar extrapolaciones exageradas que resultan difíciles de corregir una vez que se lanzan las actuaciones derivadas de ellas. Naturalmente, será necesario acelerar la actualización del planeamiento vigente en aquellos casos en los que la expansión acelerada se mantenga en el tiempo y amenace con agotar la holgura que el factor de esponjamiento trata de garantizar.

Las dos limitaciones adicionales que se imponen a la cuantificación final de la capacidad residencial del municipio son las siguientes:

1.- Para todos los municipios, la capacidad residencial no podrá superar el 50% del parque de viviendas existente en el momento de aprobación del planeamiento urbanístico.

2.- Todo municipio podrá plantear una capacidad residencial equivalente al 10% del parque inicial de viviendas.

2.d. **Número de viviendas y edificabilidad**.

La Tabla 5 presenta una estimación de la superficie media de las viviendas construidas en los últimos años de acuerdo a su régimen y tipología. El concepto de superficie construida no incluye los garajes, trasteros y locales similares que habitualmente se ubican bajo rasante o bajo cubierta en los edificios de viviendas múltiples. Para las viviendas unifamiliares se incluye el garaje cuando no se ubica bajo rasante (se estima que es el caso del 50% de las viviendas unifamiliares que se construyen).

Babes Ofizialeko Etxebizitzetarako, 1,32ko ratioa erabili da azalera eraikiaren eta etxebizitzaren azalera erabilgarriaren artean erreferentzia eta erakusgarri baliagarria izan daitekeelakoan, normalean erabiltzen dena baino ratio handiagoa erabili da, beraz. Etxebizitza ugariko eraikinetako etxebizitza tasatu eta libreei ere balio hori ezarri zaie. Elkarri atxikitako eta familia bakarreko etxebizitzetarako, berriz, 1,25eko balioa ezarri da, hori ere erreferentzia eta erakusgarri gisa.

Se ha utilizado a modo referencial e ilustrativo un valor de 1,32 como ratio de superficie construida respecto a la superficie útil de la vivienda para las VPO, cifra más elevada de la aplicada tradicionalmente. El mismo valor se aplica a las viviendas tasadas y libres en edificios de múltiples viviendas. Se ha aplicado un valor igualmente referencial e ilustrativo de 1,25 en el caso de las viviendas adosadas y unifamiliares.

5. taularen balioek EAE osoari ezartzekoa den batezbesteko globalaren zenbatespena erakusten dute. Landa-eremuek eta lurzoru-eskuragarritasun handiena duten eremuek ematen dituzte balio handienak etxebizitzen batez besteko azalerari dagokionez. Bilbao Metropolitarrean, berriz, etxebizitzak pixka bat txikiagoak dira. Babes Ofizialeko Etxebizitzei esleitutako batez besteko balioaren arabera, logela bateko Babes Ofizialeko Etxebizitza eraiki guztien % 5etik % 10era bitarte dira, bi logelakoak (3 edo 4 ohe) % 40-50, eta hiru logelakoak (5 edo 6 ohe) % 45-55, hurrenez hurren.

Los valores de la Tabla 5 representan una estimación de la media global aplicable al conjunto de la CAPV. Las áreas rurales y las que tienen mayor disponibilidad de suelo presentarían valores más elevados para la superficie media de las viviendas, mientras que la vivienda media en Bilbao Metropolitano sería algo más pequeña. El valor medio asignado a la VPO supone que las viviendas de un dormitorio suponen del 5 al 10% del total de las VPO construidas, las de dos dormitorios (3 o 4 camas) suponen del 40 al 50% y las de tres dormitorios (5 o 6 camas) representan del 45 al 55%.

Seinale batzuen arabera komenigarria litzateke etxebizitzen tipologia dibertsifikatzea, beren azalerari dagokionez bereziki. Familia-tamaina gero eta txikiagoa da, pertsona bateko eta bi pertsonako etxekoen unitateak gero eta gehiago dira, eta etxebizitza bat jabetzan edo alokairuan edukitzea oso garestia da. Faktore horiek guztiak aintzat hartuta litekeena da eskariaren segmentu batek etxebizitza txikiagoak nahi izatea, nahiz eta sozialki eta sektorialki erresistentzia handia ikus daitekeen horri dagokionez. Gai hori sakonetik aztertu beharko litzateke, etxebizitza bakoitzeko batez besteko azalera murrizteko eta bizitegi-lurzoruaren kontsumoa moderatzeko aukera emango lukeen neurrian.

Existen indicios que apuntan a la conveniencia de diversificar la tipología de las viviendas, especialmente en relación a su superficie. La continua contracción del tamaño familiar, el aumento de los hogares de una y dos personas, y el elevado coste de acceder a una vivienda (sea en propiedad o en alquiler) apuntan a la existencia de un segmento de demanda que podría ser proclive a viviendas más pequeñas, aunque también se aprecia una notable resistencia social y sectorial a iniciativas en este sentido. Se trata de un tema a analizar en profundidad, ya que permitiría reducir la superficie media por vivienda y moderar el consumo de suelo residencial.

5. Taula. Gaur egun eraikitzen den etxebizitzaren batezbesteko azalera EAEn

Tabla 5. Estimación de superficies por tipos de vivienda en la CAPV

Etxebizitza mota / Tipo de vivienda	**Azalera (m^2) / Superficie (m^2)**	
	Erabilgarria / Útil	**Eraikia / Construida**
BOE (batezbesteko orokorra) / VPO (media global)	68	90
logela 1 / de 1 dormitorio	48	63
2 logela / de 2 dormitorios	62	82
3 logela / de 3 dormitorios	76	100
Etxebizitza tasatua / Vivienda tasada	80	106
Etxebizitza librea / Vivienda libre	–	–
Etxebizitzarako eraikinen batezbesteko orokorra Media global en edificios de viviendas	81	106
2 logela / de 2 dormitorios	72	92
3 logela / de 3 dormitorios	90	119
Elkarri atxikitako etxebizitzak / Viviendas adosadas	120	150
Familia bakarreko etxebizitzen urbanizazioa Urbanización de viviendas unifamiliares	180	250ª

ª Eraikitako azalerak garajea barne hartzen du, sestrapean egon ezean (kasuen % 50ean zenbatetsia)

ª La superficie construida incluye el garaje cuando no está bajo rasante (estimado 50% de los casos)

Iturria: Egileak egina, eragile pribilegiatuek emandako informazioan oinarrituta.

Fuente: Elaboración propia en base a información suministrada por agentes privilegiados

3.– 2018-2026 aldirako kuantifikazio-metodoaren ezarpen argigarria.

Planteatutako metodologiaren funtzionamendua eta norainokoa argitzeko simulazio orokor bat egin da EAEko udalerri guztientzat eta 2018-2026 aldirako (hau da, 2018ko urtarrilaren 1etik 2026ko urtarrilaren 1era bitarteko aldirako). Kuantifikazio hori egiteko ez da kontuan hartu indarreko lurralde-ereduaren zuzenketen osagaia (LPPek definitu beharrekoa), ezta bigarren etxebizitzen koefizienteari dagokionez udal-eremu bakoitzean egin daitezkeen aldaketak ere. Hortaz, B2 osagaia (bigarren etxebizitzen koefizientea aldatzearen ondoriozkoa) nulua da definizioz. Gainera, bigarren etxebizitzaren koefizientearen balioa 1,25 izango da koefiziente horren balio historikoak maila hori gainditzen duen udalerri guztietan. Logikoa denez, ezarpen argigarri honetarako kontuan hartu ez diren osagai horiek kontuan hartzeak eragin handia izango du hainbat udalerri eta eremu funtzionaletan, eta kontuan hartzeko moduko inpaktua izan lezake, halaber, EAE osoarentzako balio erantsietan.

3.a. Bizitegi-beharrak (2018-2026).

6.Taulan, kontuan hartutako 8 urteko aldirako (2018-2026) beharren kuantifikazioa laburbildu da. Aldi horretarako bizitegi-behar erantsiak 82.918 etxebizitza izango dira, gutxi gorabehera.

3.– Aplicación ilustrativa del método de cuantificación para el período 2018-2026.

Al objeto de ilustrar el funcionamiento y alcance de la metodología planteada se ha llevado a cabo una simulación general para el conjunto de municipios de la CAPV y el periodo 2018-2026 (esto es, el periodo que va desde el 1 de enero de 2018 al 1 de enero de 2026). Esta cuantificación no incluye el componente de correcciones del modelo territorial vigente (a definir por los correspondientes PTP) ni toma en cuenta las eventuales modificaciones del coeficiente de vivienda secundaria que puedan aplicarse en diferentes ámbitos municipales. Por lo tanto, la componente B2 (por variación del coeficiente de vivienda secundaria) es nula por definición. Además, se ha fijado en 1,25 el valor del coeficiente de vivienda secundaria (CSR) en todos aquellos municipios en los que el valor histórico de dicho coeficiente superaba dicha cota. Como es natural, la consideración de estos componentes, ignorados en esta aplicación ilustrativa, tendrá un efecto notable en bastantes municipios y áreas funcionales y pudiera llegar a tener un impacto no desdeñable en los valores agregados para el conjunto de la CAPV.

3.a. Necesidades residenciales (2018-2026).

La Tabla 6 resume la cuantificación de las necesidades para el periodo de los 8 años considerados (2018-2026), las cuales se estiman en 82.918 viviendas.

6. Taula. 2018-2026 epealdirako aurreikusitako bizitegi-beharrak **Tabla 6. Necesidades residenciales estimadas para el período 2018-2026**

	A1	A2	B1	C1		
Lurralde Eremua Ámbito Territorial	**Biztanle-aldaketa** Variación de la población	**Familia-tamaina** Tamaño familiar	**Bigarren etxebizitza** Vivienda secundaria	**Jenderik gabeko etxebizitza** Vivienda deshabitada	**Bizitegi-beharrak guztira** Total Necesidades Residenciales	**% etxebizitza parkearen gainean** % parque viviendas
EAE/CAPV	**23.767**	**51.490**	**3.728**	**3.921**	**82.918**	**7,9**
Araba / Álava	9.114	7.743	1.012	886	**18.761**	11,5
Bizkaia	6.852	26.877	1.600	1.750	**37.084**	6,9
Gipuzkoa	7.801	16.870	1.116	1.285	**27.073**	8,0
Eremun Funtzional bakoitzeko / Por Área Funcional						
Enkarterriak/Encartaciones	453	754	72	75	**1.354**	8,3
Goierri	701	1.627	54	139	**2.521**	7,5
Bilbao Metropolitarra / Bilbao Metropolitano	2.034	21.074	890	1.110	**25.108**	6,0
Donostialdea-Bidasoa Beherea / Donostialdea-Bajo Bidasoa	3.708	9.546	469	621	**14.344**	7,5
Durangaldea	1.661	1.798	91	166	**3.716**	10,7
Debabarrena / Bajo Deba	23	1.718	111	99	**1.951**	5,5
Busturialdea-Artibai	400	1.691	206	139	**2.436**	6,0
Arratia	444	327	62	54	**887**	12,5
Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	420	273	135	53	**881**	10,3
Aiara / Ayala	573	981	152	105	**1.811**	8,7
Debagoiena /Alto Deba	206	1.524	59	97	**1.886**	6,2
Mungialdea	1.696	631	230	156	**2.713**	19,3
Tolosaldea	940	1.111	54	135	**2.240**	10,0
Araba Erdialdea / Álava Central	8.353	6.655	766	757	**16.531**	12,0
Urola Kosta	2.155	1.780	377	215	**4.527**	12,7

Ekitaldi honetan erabilitako kasuak direla-eta, bigarren etxebizitzaren eta jenderik gabeko etxebizitzaren osagaiek oso garrantzi txikia dute etxebizitza nagusiaren beharren aldean.

Debido a los supuestos utilizados en este ejercicio los componentes de vivienda secundaria y deshabitada tienen una importancia muy limitada respecto a las necesidades de vivienda principal.

3.b **Bizitegi-ahalmena (2018-2026).**

7. Taulan 2018-2026 aldirako bizitegi-ahalmena ikus daiteke, behin dagozkien udalerriei harrotze-faktoreak, jenderik gabeko etxebizitzen berreskurapenari dagokion murrizketa (etxebizitza parkearen % 2 gutxienez) eta muga gehigarriak ezarri ondoren. Azaldu behar da jenderik gabeko etxebizitzak berreskuratzeak gehienezko bizitegi-ahalmenean duen eragina 20.857 etxebizitza gutxitzea dela. Oro har ikusten dugu zenbatetsitako bizitegi-beharrak 82.918 direla. Harrotze faktorea, jenderik gabeko etxebizitza koefizientea eta muga gehigarriak aplikatu ondoren. gehieneko bizitegi-ahalmena, berriz, 180.872 etxebizitza dira EAE osorako. Horren arabera, benetako harrotze-faktorea 2,18 da.

3.b. **Capacidad residencial (2018-2026)**.

La Tabla 7 muestra la capacidad residencial para el período 2018-2026 una vez aplicados los esponjamientos pertinentes, la reducción que resulta de la recuperación de parte de las viviendas deshabitadas (al menos el 2% del parque) y las limitaciones adicionales en aquellos municipios a los que afectan. Cabe indicar al respecto que la referida recuperación de viviendas deshabitadas permite reducir en 20.857 viviendas la capacidad residencial máxima permitida. Globalmente se observa que las necesidades residenciales estimadas en 82.918 viviendas, una vez esponjadas, aplicada la reducción que resulta de la recuperación de parte de las viviendas deshabitadas y consideradas finalmente las limitaciones adicionales se convierten en una capacidad residencial máxima de 180.872 viviendas para el conjunto de la CAPV, lo que representa un factor de esponjamiento efectivo de 2,18.

7. taula. 2018-2026ko planeamendurako aurreikusitako Bizitegi-ahalmena

Tabla 7. Capacidad residencial estimada para el planeamiento 2018-2026

Lurralde Eremua Ámbito Territorial	**2016ko etxe-parkea** Parque viviendas 2016	**Bizitegi beharrak** Necesidades resid.		**Gehienezko bizitegi-ahalmena** Capacidad residencial máxima			
		Bizitegi Beharrak Necesidades residenciales	**Harrotze-faktorearekin** Neces. Esponjadas	**Jenderik gabeko etxe murriztea** Reduc. Viv. deshabitada	**Bizitegi-ahalmena mugarik gabe** Cap. Resid. sin limitaciones	**Gehienezko Ahalmen** Capacidad máxima	**Harrotze-faktorea** Factor de Esponjamiento
EAE/CAPV	**1.042.646**	**82.918**	**198.558**	**20.857**	**177.701**	**180.872**	**2,18**
1. Lurralde historiko bakoitzeko / 1. Por territorio histórico							
Araba / Álava	162.384	18.761	44.961	3.247	41.714	**36.665**	1,95
Bizkaia	540.835	37.084	88.691	10.820	77.871	**86.490**	2,33
Gipuzkoa	339.427	27.073	64.906	6.790	58.116	**57.717**	2,13
2. Eremu Funtzional bakoitzeko / 2. Por Área Funcional							
Enkarterriak/Encartaciones	16.325	1.354	3.485	326	3.159	**3.258**	2,41
Goierri	33.437	2.521	6.467	669	5.798	**6.016**	2,39
Bilbao Metropolitarra / Bilbao Metropolitano	415.700	25.108	58.385	8.316	50.069	**58.452**	2,33
Donostialdea-Bidasoa Beherea / Donostialdea-Bajo Bidasoa	190.135	14.344	33.055	3.802	29.253	**28.245**	1,97
Durangaldea	34.815	3.716	8.662	697	7.965	**8.097**	2,18
Debabarrena / Bajo Deba	35.595	1.951	4.838	712	4.126	**5.006**	2,57
Busturialdea-Artibai	40.549	2.436	6.364	809	5.555	**6.149**	2,52
Arratia	7.075	887	2.408	143	2.265	**2.205**	2,49
Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	8.539	881	2.409	171	2.238	**2.096**	2,38
Aiara / Ayala	20.317	1.811	4.767	407	4.360	**4.082**	2,25
Debagoiena /Alto Deba	30.509	1.886	4.674	610	4.064	**4.633**	2,46
Mungialdea	13.679	2.713	7.102	274	6.828	**6.120**	2,26
Tolosaldea	22.449	2.240	6.002	449	5.553	**4.710**	2,10
Araba Erdialdea / Álava Central	137.814	16.531	39.070	2.756	36.314	**31.671**	1,92
Urola Kosta	35.708	4.527	10.870	716	10.154	**10.132**	2,24

3.c. **1997ko LAGekiko konparazio-azterketa.**

Amaitzeko, 8. Taulan konparatu egin dira berrikuspen honetako metodoarekin lortutako emaitzak eta 1997ko LAGek ezarritako irizpideak abiapuntuko informazio berari aplikatzetik eratorritako emaitzak.

Metodologia berria murriztaileagoa da azken urteetan ezarritakoa baino, bizitegi-kuantifikazioari dagokionez kontuan hartu diren ia alderdi guztietan.

1. Proiekzioen arabera udalerri atzerakorretan biztanleria galduko da, neurri txikian bada ere, eta, gauzak horrela, etxebizitza nagusiaren beharrak ere txikiagoak izango dira.

2. Familia-tamainaren kalkuluan aldaketak izango dira, nola planteamenduan hala erritmoan, eta horren arabera 37.465 etxebizitza nagusi gutxiago beharko dira.

3. Metodo bakoitzak bigarren etxebizitzaren eskaria kalkulatzen duen moduaren ondorioz, 3.823 etxebizitzako murrizketa sortzen da.

4. Kuantifikazio-metodo berrian aurreikusitako helburua, hau da, udalerrian dauden jenderik gabeko etxebizitzen zati bat berreskuratzea, baliagarria da etxebizitza-ahalmenetik 20.857 etxebizitza kentzeko; alderdi hori 1997ko LAGetan ez zegoen aurreikusita.

5. Eskaintza-zorroztasunaren zuzenketa (1997ko LAGen metodoan erabili zen) erabili beharrean harrotze-kontzeptua (kuantifikaziorako metodo berrian) erabili izanak bateko eta besteko desadostasunak sortu ditu udalerriaren arabera. Osagai hori kalkulatzeko modua

3.c. **Análisis comparativo con las DOT de 1997.**

Para terminar, la Tabla 8 compara los resultados obtenidos mediante el método de esta revisión y el derivado de aplicar los criterios establecidos por las DOT de 1997 a la misma información de partida.

La nueva metodología resulta más restrictiva que la que se ha aplicado en los últimos años en casi todos los aspectos contemplados en la cuantificación de las necesidades residenciales:

1. La proyección de la pérdida de población de los municipios recesivos, aunque sea de forma suavizada, supone la disminución de las necesidades de vivienda principal.

2. El cambio en el cálculo del tamaño familiar, tanto en planteamiento como en ritmo, supone la disminución de las necesidades de vivienda principal en 37.465 viviendas.

3. La forma en que cada método calcula la demanda de vivienda secundaria genera una reducción de 3.823 viviendas.

4. El objetivo contemplado en el nuevo método de cuantificación, consistente en la posible recuperación de parte de las viviendas deshabitadas existentes en el municipio, permite la reducción de la capacidad residencial en 20.857 viviendas; aspecto que no se encontraba contemplado en las DOT de 1997.

5. La incorporación del concepto de esponjamiento (en el nuevo método de cuantificación) en lugar de utilizar la corrección de la rigidez de oferta (en el método de las DOT 1997) genera discrepancias de diferente signo para cada municipio. La importancia del cambio reside

8. taula. Metologia berriaren eta 1997ko LAGen emaitzen arteko konparazioa.

Tabla 8. Comparación entre los resultados de la nueva metodología y las DOT de 1997

Kontzeptua (EAE-ren eremurako) Concepto (Para el ámbito de la CAPV)	**Metodo berria** Nuevo Método	**Eguneratutako LAGak** DOT actualizadas
Etxebizitza nagusien beharrak (A): Necesidades de vivienda principal (A):		
Biztanleen aldaketagatik (A1) Por variación de la población (A1)	23.767	35.142
Familia-tamainaren aldaketagatik (A2) Por variación del tamaño familiar (A2)	51.490	88.955
Bigarren etxebizitzen beharrak (B) Demanda de vivienda secundaria (B)	3.728	7.551
Jenderik gabeko etxebizitzen aurreikuspena (C1) Previsión de viviendas deshabitadas (C1)	3.921	
Bizitegi beharrak Necesidades residenciales	82.918	131.648
Eskaintzaren zorroz. Zuzenketa/ Harrotzea Corrección rigidez oferta / Esponjamiento	118.811	155.843
Jenderik gabeko etxebizitzen berrabilpena Recuperación de viviendas deshabitadas	-20.857	
Gehienezko bizitegi- ahalmena Capacidad residencial máxima	**180.872**	**287.491**

aldatu da bereziki, hasierako parkearen mendean egon beharrean dagokion eremuaren bizitegi-beharren zenbatespenari lotuko zaiolako hemendik aurrera. Ildo horretan, harrotze-koefizientea aplikatzeak 37.032 etxebizitzako murrizketa dakar 1997ko LAGek ezarritako «eskaintzaren zorroztasunaren zuzenketa» aplikatzetik sortutako etxebizitza kopuruaren aldean.

6. Onartutako gehieneko bizitegi-ahalmenari muga gehigarriak eranstearen ondorioz (1997ko LAGetan elementu hori ez zen kontuan hartu), metodologia berria erabiltzearen ondoriozko azken ahalmenak 106.619 etxebizitzako murrizketa ekarri du, 1997ko LAGetan ezarritako metodoa erabiltzearen ondoriozko ahalmenaren aldean.

en la forma de cálculo de este componente que pasa de depender del parque inicial a estar asociado a la estimación de necesidades residenciales del ámbito en cuestión. En este sentido, la aplicación del coeficiente de esponjamiento genera una reducción de 37.032 viviendas en relación con las viviendas que surgían en aplicación de la «corrección de la rigidez de la oferta» que establecen las DOT 1997.

6. Como consecuencia de la incorporación de las limitaciones adicionales a la capacidad residencial máxima admitida (elemento no contemplado en las DOT 1997), la capacidad final resultante con la aplicación de la nueva metodología supone una reducción de 106.619 viviendas con respecto a la capacidad resultante de la aplicación del método establecido en las DOT 1997.

4.– Udal plangintzan bizitegietarako lurzoruaren eskaintzaren kuantifikazioa kalkulatzeko fitxak.

4.– Fichas para el cálculo de la cuantificación de la oferta de suelo residencial en el planeamiento municipal.

Kontzeptu eta osagaien deskribapena / Descripción de conceptos	**Erabilitako formula** / Fórmula aplicada	**Ikurren legenda** / Leyenda de símbolos
Bizitegi-beharren kalkulua / Cálculo de las Necesidades residenciales		
CMT: Indarrean dagoen lurralde-ereduaren zuzenketak / CMT. Correcciones del modelo territorial vigente		
LPPk zuzenketa horiek identifikatuko ditu zenbatetsita beren tamaina eta inpaktua erabilera-nagusiko edo bigarren erabilerarako etxebizitzetan. Inpaktu hori kontutan hartuta azpiegitura eta ekipamenduetan, habitat-motetan edo garrantzitsutzat jotzen den beste edozein alderditan emandako aldaketak. El PTP identificará estas correcciones, estimando su magnitud e impacto sobre el uso principal o secundario de la vivienda, derivado de cambios en infraestructuras y dotaciones, en tipos de hábitat o en cualquier otro aspecto que se considere relevante.	LPPean zehaztua explicitado en PTP	t denboraldiaren identifikazio orokorra: Identificación general del período temporal t: 0 = Erreferentziazko epealdia / Período de referencia i = Planaren hasierako urtea / Año inicial del plan f = Planaren azken urtea / Año final del plan
A. Etxebizitza nagusien beharrak / A. Necesidades de vivienda principal		
A1. Biztanleria egoiliarraren aldaketa dela-eta. Udal-biztanleriaren proiekzio-formula: A1. Por variación de población residente. Fórmula de proyección de la población municipal: $P_t = P_0 \times (1+RP)^t$	$(P_f - P_i) / TMF_t$	Pt = Biztanle-kopurua t unean / Población en momento t TMF_t = Batez besteko familia tamaina t unean / Tamaño familiar en momento t RP = Udal-biztanleriaren urteko bariazio-tasa (erdira murriztua, bariazioa negatiboa bada) / Tasa anual de variación de la población municipal (reducida a la mitad si la variación es negativa).
A2. Familia-tamainaren aldaketa dela-eta Por variación del tamaño familiar Familia-tamainaren proiekzio-formula: Fórmula de proyección del tamaño familiar: $TMF_t = 1 + (TMF_0 - 1) \times (1 + RF)^t$	$P_i \times (1 / TMF_t - 1 / TMF_i)$	RF = Familia-tamainaren urteko bariazio-tasa / Tasa anual de variación del tamaño familiar
B. Bigarren etxebizitzen eskaria / B. Demanda de vivienda secundaria		
B1. Etxebizitza nagusien aldaketa dela-eta B1. Por variación de la vivienda principal Parke nagusiaren bilakaerari lotutako eskaria Demanda asociada a la evolución del parque principal	$(A1 + A2) \times (CSR_t - 1)$	CSRt = Bigarren etxebizitzen koefizientea t unean. Honela definitzen da: Etxebizitza okupatuak / Etxebizitza nagusiak / Coeficiente de vivienda secundaria en momento t. Se define como sigue: viviendas ocupadas / viviendas principales
B2. Bigarren etxebizitzen koefizientearen aldaketa dela eta B2. Por variación del coeficiente de vivienda secundaria CSRaren proiekzio zehatza eskatzen du. Bestela, eskuragarri dauden azken datu estatistikoetatik ateratzen dena aplikatuko da, beti ere 1,25 balioa gainditu gabe. Requiere proyección explicita del CSR. En su ausencia se aplicará el CSR resultante de los últimos datos estadísticos disponibles, siempre que no supere la cota de 1,25	$(P_i / TMF_i) \times (CSR_t - CSR_i)$	

Kontzeptu eta osagaien deskribapena Descripción de conceptos	**Erabilitako formula /** Fórmula aplicada	**Ikurren legenda /** Leyenda de símbolos
C. Aurreikusitako jenderik gabeko etxebizitzak / C. Previsión de viviendas deshabitadas		
C1. Jenderik gabeko etxebizitza aldaketa dela-eta C1. Por variación de vivienda deshabitada Okupatutako parkearen bilakaerari lotutako lasaiera Holgura asociada a la evolución del parque ocupado.	$(A1 + A2 + B1 + B2) \times (CVD_t - 1)$	CVDt = Jenderik gabeko etxebizitzen koefizientea t unean. Honela definitzen da: Etxebizitza guztiak / Etxebizitza okupatuak. Udalerriko biztanleen arabera koefiziente normatiboa aplikatzen da (1,04-1,08 artean, taularen arabera). / Coeficiente de vivienda deshabitada en momento t. Se define como sigue: viviendas totales / viviendas ocupadas. Se aplica un coeficiente normativo acorde con la población municipal (1,04 a 1,08 según tabla).
NR. Bizitegi-beharrak / NR. Necesidades residenciales		
Planaren epealdirako aurreikusitako etxebizitza parkearen hazkundearen balioespena. Estimación del aumento de parque de viviendas previsto para el período del Plan. Zehaztutako 6 osagaiak gehituz kalkulatzen da Se calcula mediante la agregación de los seis componentes especificados.	CMT + A1 + A2 + B1 + B2 + C1	
Bizitegi-ahalmenaren kalkulua / Cálculo de la Capacidad residencial		
NRh. Harrotutako bizitegi-beharrak / NRe. Necesidades residenciales esponjadas		
Hasierako bizitegi-beharrak udal-biztanleriaren araberako gehieneko harrotze-faktorearekin biderkatuz kalkulatzen da. (HF: 2,2tik 3ra, taularen arabera) Se calcula multiplicando las necesidades residenciales iniciales por un factor de esponjamiento acorde a la población municipal (de 2,2 a 3.0 según tabla).	NR x ESP	ESP = Harrotze-faktorea / Factor de esponjamiento
C2. Jenderik gabeko etxebizitzen berreskuratzea / C2. Recuperación de viviendas deshabitadas		
Bizitegi-beharrak harrotzetik sortzen den ahalmena gutxitu egiten da jenderik gabe dauden etxebizitzen zati bat berreskuratzearen ondorioz. La capacidad que resulta del esponjamiento de las necesidades residenciales se reduce como consecuencia de la recuperación de parte de las viviendas deshabitadas existentes. *Muga gehigarriak: / Limitaciones adicionales:* – Kuantifikazioaren emaitza edozein dela, hasierako parkearen % 10era arteko bizitegi-ahalmena onartzen da beti. - Independientemente del resultado de la cuantificación, se admite siempre una capacidad residencial de hasta el 10% del parque inicial. – Plan baten bizitegi-ahalmena hasierako parkearen %50era mugatzen da. - Se limita la capacidad residencial de un Plan al 50% del parque inicial.	C2 = dauden etxebizitza guztien %2 / 2% del parque total de viviendas existentes	C2 = Berreskuratu behar diren jenderik gabeko etxebizitzak / Viviendas deshabitadas a recupera Udalaren tamaina / Tamaño del municipio — CVD — ESP 20.000+ biztanle / habitantes — 1,04 — 2,2 7.000 – 19.999 biztanle / habitantes — 1,05 — 2,4 3.000 – 6.999 biztanle / habitantes — 1,06 — 2,6 1.000 – 2.999 biztanle / habitantes — 1,07 — 2,8 1.000 biztanle baino gutxiago / menos de 1.000 habitantes — 1,08 — 3,0
BA. Gehienezko bizitegi-ahalmena / CR. Capacidad residencial máxima.		
CR = (NR x ESP) – C2		

BIZITEGI-LURZORU ESKAINTZA REN KUANTIFIKAZIOAREN KALKULUA, LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROEN ARABERA (2020-208ko epea) **CÁLCULO DE LA CUANTIFICACIÓN DE LA OFERTA DE SUELO RESIDENCIAL, DE ACUERDO CON LAS DIRECTRICES DE ORDENACIÓN TERRITORIAL (período 2020-2028)**			**1**
Udalerria / Municipio:			Eguna / Fecha:
Eremu Funtzionala / Área Funcional:			

LURRALDE PLAN PARTZIALEAN EZARRITAKO LURRALDE EREDUAREN ONDORIOAK
IMPLICACIONES DEL MODELO TERRITORIAL DEFINIDO EN EL PLAN TERRITORIAL PARCIAL (PTP)

CMT. LPP-ean ezarritako Lurralde Eremuaren ondorioak / Implicaciones del Modelo Territorial definido en el PTP — **CMT** =

PLANEAMENDU-DENBORALDIAN, BIZITEGI-BEHARRAK / NECESIDADES RESIDENCIALES del PERÍODO de PLANEAMIENTO

A. **Etxebizitza nagusien beharrak / Necesidad de viviendas principales**

A1. Biztanleriaren aldaketaren ondorioz / Por variación de la población

A1 = (P28-P20) / TMF28 — **A1** =

A2. Familiaren Batezbesteko Tamainaren (TMF) aldaketaren ondorioz / Por variación del Tamaño Medio Familiar (TMF)

A2 = P20 x (1/TMF28-1/TMF20) — **A2** =

B. **Bigarren mailako etxebizitzen eskaera / Demanda de vivienda secundaria**

B1. Etxebizitza nagusien (VP) aldaketaren ondorioz / Por variación de las viviendas principales (VP)

B1 = (A1+A2) x (CVS28-1) — **B1** =

B2. Bigarren mailako etxebizitza-Koefizientearen (CVS) aldaketaren ondorioz / Por variación del Coeficiente de Vivienda Secundaria (CVS)

B2 = (P20/TMF20) x (CVS28-CVS20) — **B2** =

C. **Jenderik gabeko etxebizitzen aurreikuspena / Previsión de viviendas deshabitadas**

C1. Jenderik gabeko etxebizitzen (VD) aldaketaren ondorioz / Por variación de las Viviendas Deshabitadas (VD)

C1 = (A1+A2+B1+B2) x (CVD Norm.-1) — **C1** =

ETXEBIZITZA-BEHARRAK GUZTIRA / NECESIDADES RESIDENCIALES TOTALES

NR = CMT+A1+A2+B1+B2+C1 — **NR** =

PLANEAMENDUAN ESKAINI DAITEKEEN BIZITEGI-AHALMEN MAXIMOA / CAPACIDAD RESIDENCIAL MÁXIMA A OFERTAR POR EL PLANEAMIENTO

NRe. Bizitegi-Behar harrotuak = Bizitegi-beharrak x harrotze-koefizientea / Necesidades residenciales esponjadas

NRe = NR x ESP — **NRe =**

C2. Errekuperatu daitezkeen jenderik gabeko etxebizitzak / Viviendas deshabitadas a recuperar

C2 = Bertan dauden etxebizitzen kopuru osoaren %2 / C2 = 2% del Parque residencial total existente — **C2 =**

CR. Mugatzaileak aplikatu gabe, bizitegi-ahalmen maximoa / Capacidad residencial máxima sin considerar limitaciones:

CR = (NR x ESP) - C2 — **CR =**

MUGATZAILE GEHIGARRIAK / LIMITACIONES ADICIONALES

Onartutako bizitegi-ahalmen maximoa (bertan dauden etxebizitza-kopuruaren %50a)
Capacidad residencial máxima admisible (50% de las viviendas existentes) — Cmáx =

Beti aurreikusi daitekeen bizitegi-ahalmen minimoa (bertan dauden etxe. kopuruaren %10a)
Capacidad mínima que siempre se puede prever (10% de las viviendas existentes) — Cmin =

Planeamenduan eskaini daitekeen bizitegi-ahalmen maximoa (etxebizitza-kopurua):
Capacidad residencial máxima a prever en el planeamiento (nº de viviendas): — CR =

BIZITEGI-LURZORU ESKAINTZAREN KUANTIFIKAZIOAREN KALKULUA, LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROEN ARABERA (2020-2028ko epea)

CÁLCULO DE LA CUANTIFICACIÓN DE LA OFERTA DE SUELO RESIDENCIAL, DE ACUERDO CON LAS DIRECTRICES DE ORDENACIÓN TERRITORIAL (período 2020-2028)

2

Udalerria / Municipio::

BIZTANLERIAREN ETA ETXEBIZITZEN DATU ESTATISTIKOAK ETA HAIEN BILAKAERAREN HIPOTESIA

DATOS ESTADÍSTICOS DE POBLACIÓN y VIVIENDA e HIPÓTESIS de EVOLUCIÓN

Urtea Año	Biztanleak Población	Etxebizitza Nagusiak Viviendas Principales	Bigarren mailako etxe Viviendas Secundarias	Jenderik gabe. etxe Viviendas Deshabit.	Etxebizitza Guztira Viviendas Totales	TMF	CVS	CVD	Epea Período	TAC
1996										
2016										
2020									1996-2016	
2028									TAC ref.	

KALKULUAN ERABILITAKO OINARRIZKO KOEFIZIENTEAK / COEFICIENTES BÁSICOS USADOS PARA EL CÁLCULO

Familiaren t. (TMF) urteko aldaketa
Variación anual Tam. M.Fami.(TMF)

-1,20

Bigarren mailako etxebizitzen koef. (CSR)
Coef. CSR (Viviendas secundarias)

Erreferentzia-koef. / Coeficiente de Referencia

Onartutako Koef.maximoa / Coef. Máximo admitido 1,25

Jenderik gabeko etxebizitzen koef. (CVD)
Coef. CVD (Viviendas Deshabitadas)

-tik (biztanleak) / Desde (hab)	-ra (bizt.) / Hasta (hab.)	CVD
20.000		1,04
7.000	19.999	1,05
3.000	6.999	1,06
1.000	2.999	1,07
0	1.000	1,08

Erreferentzia-koef.(CVD)
Coef. CVD Referencia

Arautegiko koef. (CVD) / Coef. CVD Normativo

Jenderik gabeko etxebizitzen berrabiltzea:
Recuperación de Viv. Deshabitada:

(Bertan dagoen etxe-kop.%a)
(% Viv. existentes) 2,00%

L. Plan Partzialaren Lurralde Ereduaren ondorioak
Implicaciones del Modelo TerrItorial del PTP

LPP-aren ondoriozko etxe. kopurua: Nº
Viv. resultantes Mod. Terr. PTP :

Biztanleriaren ondorioz harrotze-koefizientea (ESP)
Factor de esponjamiento según población (ESP)

-tik (biztanleak) / Desde (hab)	-ra (bizt.) / Hasta (hab.)	Koef. / Coef.
20.000		2,20
7.000	19.999	2,40
3.000	6.999	2,60
1.000	2.999	2,80
0	1.000	3,00

Arautegiaren harrotze-koefizientea
Factor esponjamiento Normativo:

Mugatzaile gehigarriak / Limitaciones adicionales

1. Beti onartuko den bizitegi-ahalmena
Capacidad que siempre es admisible.

Bertan dagoen etxe-kopuruaren %a:
% del Parque inicial existente: 10,00%

2. Onargarria den bizitegi-ahalmenaren maximoa
Capacidad máxima admisible.

Bertan dagoen etxe-kopuruaren %a:
% del Parque inicial existente: 50,00%

Pxx = *"xx" urteko biztanleria/ Población del año «xx»*	$P_{20} = P_{16} \times (1 + TAC_{96\text{-}16})^4$ $P_{28} = P_{20} \times (1 + TAC_{96\text{-}16})^8$
TACxx-yy = *"xx" eta "yy" urteko artean urteko-hazkunde tasa* *Tasa anual crecimiento entre años «xx» e «yy»*	$TAC_{96\text{-}16} = (P_{16} / P_{96})^{1/20} - 1$
	$TMF_{16} = P_{16} / VP_{16}$
TMFxx = *"xx" urteko Familiaren Batezbesteko Tamaina* *Tamaño Medio Familiar del año «xx»*	$TMF_{20} = 1 + [(TMF_{16} - 1) \times (1 - 0{,}012)^4]$ $TMF_{28} = 1 + [(TMF_{20} - 1) \times (1 - 0{,}012)^8]$
CSRxx = *"xx" urteko Bigarren Etxebizitzen Koefizientea* *Coef. Vivienda Secundaria del año «xx»*	$CSR_{16} = 1 + (VS_{16} / VP_{16})$
CVDxx = *"xx" urteko Jenderik Gabeko Etxebizitzen Koefizientea* *Coef. Viviend a Deshabitada del año «xx»*	$CVD_{16} = 1 + [VD_{16} / (VP_{16} + VS_{16})]$

APLIKATZEKO ARAUEN V. ERANSKINA: ADMINISTRAZIO ZENTRALAREN TXOSTENEN ARABERA SARTUTAKO ARLOKO ARAUDIA

1.- Abiazio zibila.

a) Bilbao, Donostia edo Vitoria-Gasteizko aireportuen zerbitzuguneen barruan dauden «Bilbao Metropolitarreko», «Donostiako (Donostia-Bidasoa Beherea)» eta «Araba Erdialdeko» Eremu Funtzionaletako lurzoruei dagokionez, aireportuen arloan indarrean dagoen estatuko araudian xedatuta dagoenari jarraituko zaio, eta bidezkoa bada, Bilbaoko, Donostiako edo Vitoria-Gasteizko Aireportuen Plan Zuzentzaileen xedapenei, eta lurzoru horietan baimen daitekeen erabilera bakar-bakarra aireportuko erabilera publikoa izango da.

b) Bilbaoko Aireportuko zortasun aeronautiko akustikoak, zarata mapa eta akzio plana onartzen dituen otsailaren 2ko 55/2018 Errege Dekretuari dagozkion aireportuko zortasun aeronautiko akustikoko guneak edo Donostiako eta Vitoria-Gasteizko Aireportuen Plan Zuzentzaileetan agertzen diren soinu-aztarnen eraginpean dauden esparruetan, ez dira bateragarriak bizitegi-erabilera berriak, ezta hezkuntza-erabileren edo osasun-erabileren zuzkidura-erabilerak ere, eta ez da antolamendu-aldaketarik onartuko, baldin eta aldaketa horien ondorioz erabilera horien eraginpean dauden pertsonen kopurua handitzen bada, indarrean dagoen plangintzarekin alderatuta.

c) Bilbaoko, Donostiako, Vitoria-Gasteizko eta Logroñoko (Agoncillo) aireportuetako zortasun aeronautikoak mugatzen dituzten azalerek, Euskal Autonomia Erkidegoari eragiten dioten horiek, zehaztu egiten dituzte eraikuntzek (antena, tximistorratz, tximinia, aire girotuaren ekipamendu, igogailuen kutxa, kartel edo dekorazio-muturrak bezalako bere elementu guztiak barne) edo lur horretan edo objektu finkoetan egiten diren aldaketek (zutoinak, antenak, aerosorgailuak -beren palak barne-, kartelak eta abar) gainditu ezin dituzten altuerak (itsasoaren mailarekin alderatuta).

d) Bilbaoko, Donostiako, Vitoria-Gasteizko eta Logroñoko (Agoncillo) aireportuetako zortasun aeronautikoen eraginpean dauden esparruetan, lurralde- eta hirigintza-plangintza berriaren edo horien berrikuspen edo aldaketaren berri eman beharko zaio Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiari, Neurri Fiskal, Administratibo eta Gizarte-ordenarenei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen 166. artikuluan ezarritakoa betetzeko, Interes Orokorreko aireportuak eta haien zerbitzu eremuak antolatzeari buruzko abenduaren 4ko 2591/1998 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren gaur egungo idazkeran xedatuta dagoena betez. Horretarako, txostena eskatuko da plangintzaren edo izapide baliokidearen lehen onarpena egin baino lehen. Nahitaezko txosten hori eskatzen ez bada edo kontrako erantzuna jasotzen bada, ezingo da plangintzaren behin betiko onarpena egin estatuaren eskumenei dagozkien alorretan.

e) Zortasun aeronautikoen eraginpean dauden eremu eta espazioetan dagoenez, zeinahi eraikuntzaren, instalazioren (zutoinak, antenak, aerosorgailuak -palak barne-, eraikuntzarako behar diren bitartekoak -eraikuntzarako garabiak eta antzekoak barne-) edo landaketaren gauzatzeak

ANEXO V A LAS NORMAS DE APLICACIÓN: NORMATIVA SECTORIAL INTRODUCIDA DE ACUERDO CON LOS INFORMES DE LA ADMINISTRACIÓN CENTRAL

1.- Aviación Civil.

a) En relación con los terrenos de las Áreas Funcionales de «Bilbao Metropolitano», «Donostia / San Sebastián (Donostia-Bajo Bidasoa) » y «Álava Central» incluidos en las Zonas de Servicio de los Aeropuertos de Bilbao, San Sebastián o Vitoria-Gasteiz, se estará a la dispuesto en la normativa estatal en materia aeroportuaria y, en su caso, a las disposiciones de los Planes Directores de los Aeropuertos de Bilbao, San Sebastián o Vitoria-Gasteiz, debiendo ser el uso admisible en esos terrenos exclusivamente el uso público aeroportuario.

b) En los ámbitos afectados por las Servidumbres Aeronáuticas Acústicas del Aeropuerto de Bilbao correspondientes al Real Decreto 55/2018, de 2 de febrero, por el que se aprueban las servidumbres aeronáuticas acústicas, el mapa de ruido y el plan de acción del aeropuerto de Bilbao o por las huellas sonoras incluidas en los Planes Directores de los Aeropuertos de San Sebastián y Vitoria-Gasteiz, no son compatibles los nuevos usos residenciales, ni los dotacionales educativos o sanitarios, ni se admiten las modificaciones de ordenación, que supongan un incremento del número de personas afectadas para dichos usos con respecto al planeamiento vigente.

c) Las superficies limitadoras de las Servidumbres Aeronáuticas de los Aeropuertos de Bilbao, San Sebastián, Vitoria-Gasteiz y Logroño-Agoncillo que afectan a la Comunidad Autónoma del País Vasco determinan las alturas (respecto al nivel del mar) que no debe sobrepasar ninguna construcción (incluidos todos sus elementos como antenas, pararrayos, chimeneas, equipos de aire acondicionado, cajas de ascensores, carteles, remates decorativos, etc.), modificaciones del terreno u objeto fijo (postes, antenas, aerogeneradores incluidas sus palas, carteles, etc.), así como el gálibo de viario o vía férrea.

d) Las propuestas del nuevo planeamiento territorial y urbanístico, de su revisión o modificación, en aquellos ámbitos que se encuentren afectados por las Servidumbres Aeronáuticas de los Aeropuertos de Bilbao, San Sebastián, Vitoria-Gasteiz o Logroño-Agoncillo, deberán ser informadas por la Dirección General de Aviación Civil conforme a la Disposición Adicional Segunda del Real Decreto 2591/1998, de 4 de diciembre, sobre la ordenación de los aeropuertos de interés general y su zona de servicio, en ejecución de lo dispuesto en por el artículo 166 de la Ley 13/1996, de 30 de diciembre, de Medidas Fiscales, Administrativas y de Orden Social en su actual redacción, para lo que se solicitará informe antes de la Aprobación Inicial del planeamiento, o trámite equivalente. A falta de solicitud del informe preceptivo, así como en el supuesto de disconformidad, no se podrá aprobar definitivamente el planeamiento en lo que afecte al ejercicio de las competencias estatales.

e) En las zonas y espacios afectados por servidumbres aeronáuticas, la ejecución de cualquier construcción, instalación (postes, antenas, aerogeneradores-incluidas las palas-, medios necesarios para la construcción (incluidas las grúas de construcción y similares) o plantación, requerirá

Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziaren aldez aurreko aldeko akordioa beharko du, Zortasun Aeronuatikoei buruzko otsailaren 24ko 584/1972 Dekretuaren 30. eta 31. artikuluen arabera, gaur egungo idazkeran.

2.– Estatuko Errepide Sarea AP-68 Bilbao-Zaragoza.

a) Estatuaren titulartasuneko lurzoruak (jabari publikoa eta desjabetutako lurzoruak) Azpiegituretarako Babes bereziko lurzoru urbanizaezin gisa (A-BBLU) edo antzeko baten gisa sailkatu beharko dira.

b) Planoetan eskala egokiarekin eta Tresnaren araudiari dagokion zatian azalduko dira estatuko bideen babeseko zonak (jabari publikoko zona, zortasun-zona eta eraginpeko zona), eraikinaren muga-lerroa eta lur-berdinketaren kanpoko ertza.

c) Estatuko errepideen babeseko zonen barruan dagoen edozein jarduketa egiteko, irailaren 29ko 37/2015 Legean, Errepideenean ezarrita dagoenak arautzen duenari jarraituko zaio.

d) Tresnaren araudiari dagokion zatian agerraraziko da bide-jabari publikoa eraiki, konpondu, kontserbatu edo ustiatzeko obra eta zerbitzuak ez direla egongo udalaren kontrol prebentiboko ekintzen mendean.

e) Estatuko Errepide Sarerako konexio berriak egiteko edo lehendik dauden konexioak aldatzeko proposamen bat egiteko, Trafikoari eta Ahalmenari Buruzko Azterlana aurkeztu beharko da nahitaez.

f) Estatuko errepideen gaur egungo drainatzea ezin dute ukitu aurreikusitako hirigintza-garapenek, ezta garapen horien eraikuntza-obrek ere, eta hirigintza-garapenen nahiz eta garapen horien eraikuntza-obrek ez dute isurketarik eragingo estatuko errepideen drainatzeetan.

g) Tresnaren araudiari dagokion zatian honako hau agerraraziko da: lehendik dauden edo aurreikusita dauden Estatuko errepideetatik hurbil dauden eraikuntza berrietarako, eraikuntzarako lizentziak eman aurretik azterlan egokiak egingo dira espero daitezkeen soinu-mailak zehazteko; halaber, nahitaez ezarri beharko dira eraikigarritasunerako mugak, edo nahitaez eduki beharko dira ezinbesteko babes akustikoko bitartekoak, baldin eta indarrean dagoen araudian ezarritako atalaseak gainditzen badira.

h) Tresnaren araudiari dagokion zatian agerraraziko da debekatuta dagoela publizitatea egitea hiriko tarteetatik kanpo, errepidearen galtzadetatik ikus daitekeen edozein lekutan.

i) Tresnaren araudiari dagokion zatian agerraraziko da aurreikusitako garapenetan instalatu beharreko argiek ezin diotela itsualdirik eragin Estatuko errepideetan zirkulatzen duen trafikoari.

j) Plan Orokorrean aurreikusitako jarduketa guztiak bateragarriak izango dira Sustapen Ministerioak aurreikusitako errepideei buruzko azterlanekin.

acuerdo favorable previo de la Agencia Estatal de Seguridad Aérea (AESA), conforme a los artículos 30 y 31 del Decreto 584/1972, de 24 de febrero, de servidumbres aeronáuticas en su actual redacción.

2.– Red de Carreteras del Estado AP-68 Bilbao-Zaragoza.

a) Se deberá clasificar los terrenos de titularidad estatal (dominio público y terrenos expropiados) como Suelo NO Urbanizable de Protección Especial-Infraestructuras (SNUPE-I) o similar.

b) Se reflejarán en los planos, a una escala adecuada, y en la parte normativa del Instrumento, las zonas de protección del viario estatal (zona de dominio público, zona de servidumbre y zona de afección), la línea límite de la edificación y la arista exterior de la explanación.

c) La ejecución de cualquier tipo de actuación que se encuentre dentro de las zonas de protección de las carreteras estatales, quedará regulada por lo establecido en la Ley 37/2015, de 29 de septiembre, de Carreteras y el Reglamento de desarrollo.

d) Se hará constar en la parte normativa del Instrumento que las obras y servicios de construcción, reparación, conservación o explotación del dominio público viario, no están sometidas a los actos de control preventivo municipal.

e) Cualquier propuesta de nuevas conexiones a la Red de Carreteras del Estado o modificación de las existentes, o de su uso, requerirá como condición necesaria la presentación de un Estudio de Tráfico y Capacidad.

f) Ni los desarrollos urbanísticos previstos ni sus obras de construcción deberán afectar al drenaje actual de las carreteras estatales y sus redes de evacuación no deberán aportar vertidos a los drenajes existentes de aquellas.

g) Se i ncluirá en la parte normativa del Instrumento, que para las nuevas construcciones próximas a carreteras del Estado, existentes o previstas, será necesario que con carácter previo al otorgamiento de licencias de edificación se lleven a cabo los estudios correspondientes de determinación de los niveles sonoros esperables así como la obligación de establecer limitaciones a la edificabilidad o de disponer los medios de protección acústica imprescindibles en caso de superarse los umbrales establecidos en la normativa vigente.

h) Se deberá reflejar en la parte normativa del Instrumento, la prohibición expresa de realizar publicidad fuera de los tramos urbanos en cualquier lugar que sea visible desde las calzadas de la carretera.

i) Se deberá reflejar en la parte normativa del Instrumento, que la iluminación a instalar en los desarrollos previstos no deberá producir deslumbramientos al tráfico que circula por las carreteras del Estado.

j) Cualquier actuación prevista en el Plan General, deberá ser compatible con los estudios de carreteras previstos por el Ministerio de Fomento.

3.– Interes orokorreko trenbide sarea.

a) Lurralde-antolamenduaren gidalerroak garatzeko hirigintza-antolamenduko plan orokorrek eta gainerako erreminta orokorrek Estatuaren titulartasuneko trenbide-sistema orokor edo baliokide gisa kalifikatuko dituzte Interes Orokorreko Trenbide Sarea osatzen duten tren-azpiegiturek hartzen dituzten lursailak eta xede horrekin okupatu beharreko lursailak, betiere behin betiko izaeraz onartutako informazio-azterlanekin bat etorriz; horietan ez dira gehituko tren-azpiegituren administratzaileari esleitutako eskumenak oztopatzen edo asaldatzen dituzten eskumenak.

b) Hirigintza-antolamendurako plan eta bitarteko orokorrek jabari publikoko eremu eta babes-eremu bana eta eraikuntza-muga bat ezarri behar dituzte Estatuaren eskumeneko trenbideetan, baita eremuotako lursailen jabetzari dagozkion mugak ere.

4.– Kostaldeei buruzko legedia.

a) Lurralde-plan partzialek nahiz sektorialek, eta hirigintza-plangintzek, gidalerroen laburpen-mapa garatuko dute, zeinek bere eskalan jasota hauek: itsasertzaren lerroa, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren mugaketa, babes-zortasuna, bide-zortasuna, eragin-eremua eta itsasorako sarbide-zortasuna. Horretarako, 22/1988 Legea, uztailaren 28koa, Kostaldeei buruzkoan ezarritakoa bete eta dagozkion mugaketak aplikatuko dira.

Guzti hori, aipatutako lerroen irudikapenean eman daitekeen edozein desdoitzeren aurrean mugarritze-planoetan agertzen diren datuak plangintzan islatutakoen gainetik egongo direla kontutan hartu gabe.

Gidalerroen laburpen-mapak grafikoki jasotzen ditu itsasertzaren lerroa, itsas-lehorreko jabari publikoaren mugarritze-lerroa, babes-zortasuna eta eragin-eremua. Mapa eskala egokian kontsulta daiteke GeoEuskadin, Euskadiko Datu Berezien Azpiegitura (DEA):

https://www.geo.euskadi.eus/s69-bisorea/es/x72aGeoeuskadiWAR/index.jsp?lang=eu

b) Itsas-lehorreko jabari publikoaren erabilera uztailaren 28ko 22/1988 Legearen III. tituluak araututakoa izango da; horrela, beren izaera dela-eta beste kokapenik izan ezin dezaketen jarduera edo instalazioei bakarrik baimenduko zaie jabariaren okupazioa, eta beti izan beharko dute dagokien gaikuntza-titulua.

c) Babes-zortasuneko zonako erabilerak Kostei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 24. eta 25. artikuluetan xedatutakora egokituko dira, eta, beraz, zona horretan baimendutako erabilerek autonomia-erkidegoko organo eskudunaren baimena izan beharko dute. Igarobide-zortasunak eta itsasora iristeko bideak errespetatzen direla bermatu beharko da, Kostei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 27. eta 28. artikuluetan hurrenez hurren xedatzen denaren arabera. Era berean, 30. artikuluan eraginpeko zonari dagokionez xedatzen diren baldintzak bete beharko dira.

3.– Red ferroviaria de interés general.

a) Los planes generales y demás instrumentos generales de ordenación urbanística que desarrollen las Directrices de Ordenación Territorial calificarán los terrenos que se ocupen por las infraestructuras ferroviarias que formen parte de la Red Ferroviaria de Interés General, así como aquellos que deban ocuparse para tal finalidad, de acuerdo con los estudios informativos aprobados definitivamente, como sistema general ferroviario o equivalente, de titularidad estatal, y no incluirán determinaciones que impidan o perturben el ejercicio de las competencias atribuidas al administrador de infraestructuras ferroviarias.

b) Los planes generales y demás instrumentos generales de ordenación urbanística deben establecer en las líneas ferroviarias de competencia estatal una zona de dominio público, otra de protección y un límite de edificación, y definir las limitaciones a la propiedad de los terrenos incluidos en dichas zonas.

4.– Normativa de Costas.

a) Los Planes Territoriales Parciales y Sectoriales, así como el planeamiento urbanístico desarrollarán el Mapa de Síntesis de las Directrices, recogiendo cada uno a su escala las líneas de ribera del mar, de deslinde del dominio público marítimo-terrestre de servidumbre de protección, de servidumbre de tránsito, de zona de influencia y de servidumbre de acceso al mar, conforme a lo dispuesto en la Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas y aplicación de las limitaciones correspondientes.

Todo ello con independencia de considerar que, ante cualquier desajuste en la representación de las citadas líneas, prevalecerán los datos de los planos de deslinde sobre los reflejados en el planeamiento.

El Mapa Síntesis de las Directrices recoge gráficamente la ribera del mar, la línea de deslinde del Dominio Público Marítimo Terrestre, la servidumbre de protección y la zona de influencia. Tal Mapa se puede consultar a una escala adecuada en GeoEuskadi, la Infraestructura de Datos Espaciales (IDE) de Euskadi:

http://www.geo.euskadi.eus/s69-bisorea/es/x72aGeoeuskadiWAR/index.jsp

b) En cuanto a la utilización del dominio público marítimo-terrestre, se estará a lo regulado en el Título III de la Ley 22/1988, de 28 de julio, estando únicamente permitida su ocupación para aquellas actividades o instalaciones que, por su naturaleza, no puedan tener otra ubicación, debiendo contar en todo caso con el correspondiente título habilitante.

c) Los usos en la zona de servidumbre de protección se ajustarán a lo dispuesto en los artículos 24 y 25 de la Ley 22/1988, de 28 de julio, debiendo contar los usos permitidos en esta zona, con la autorización del órgano competente de la Comunidad Autónoma. Se deberá garantizar el respeto de las servidumbres de tránsito y acceso al mar establecidas en los artículos 27 y 28 de la 22/1988, de 28 de julio, respectivamente, y el cumplimiento de las condiciones señaladas en el artículo 30 para la zona de influencia.

d) Existitzen diren saneamendu-sareek dagokien gaikuntza-titulua izan beharko dute, eta gaur egun dauden instalazioak eta etorkizunerako proposatutako instalazioak uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 44.6 artikuluan ezarritako mugen mende egongo dira. Elektrizitateko azpiegituren kasuan, itsas-lehorreko jabari publikoa liberatu nahi duten jarduketak planifikatzeko aukera baloratu beharko da, salbuespenezko baimenik izan ezean debekatuak daudenak uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 25. artikuluaren arabera.

e) Hiri-hazkundearen arloko gidalerroei dagokienez: Kostei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 30. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla izan beharko da kontutan dagozkien udaleko hirigintza-plangintzetan proposatzen diren lurzoru urbanizagarrien sektoreen kasuan. Gainera, hirigintzako araudian ezarritakora moldatu beharko dira eraikuntzak, ezingo dutelarik pantaila arkitektonikorik sortu edo bolumen-pilaketarik eragin.

f) Kostaldeko ibilbideetako bide eta begiratokien kasuan kontutan izan beharko da trazatua itsas-lehorreko jabari publikotik kanpo egin beharko dela.

g) Kultura-ondarearen arloko gidalerroetan, non babes-maila desberdinak aintzat hartzea proposatzen den, kontutan izan beharko da itsas-lehorreko jabari publikoko lursailetan edo babes-zortasunean kokatzen diren eraikin, elementu edo instalazio babestuak Kostei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen laugarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren mende egongo direla, katalogatuko diren elementuentzako ezarriko den babes-erregimena kontutan izan gabe.

h) Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduaren gidalerroen berrikuspenaren garapenerako irizpide, helburu eta proposamen orokorrek bat etorri beharko dute uztailaren 28ko 22/1988 Legearen zehaztapenekin, kalterik eragin gabe, garapenean erator daitekeen hirigintza-plangintzari buruz, aipatutako Legearen 112.a) eta 117. artikuluetan ezartzen den tramitazioko txostenen bitartez gauzatu beharreko hirigintza-plangintzari buruzko erabakiari. Txosten horiek plangintzak itsas-lehorreko jabari publikorako planteatutako proposamen zehatzak baloratuko dituzte, eta baita horien zorpen-eremuak ere, eta kosten alorreko legezko xedapenetara egokitzen diren ala ez.

5.– Portuak.

